

URTEKO TXOSTENA

2017



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

URTEKO TXOSTENA

2017



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: 2017ko urteko txostena

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2018ko, Apirila

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. SARRERA	6
II. KAPITULUA. KEXAK	28
2.1. DATU OROKORRAK	28
2.2. KEXAK HARTU DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	29
2.3. ONARTUTAKO KEXAK	34
2.4. ESPAINIAKO ARARTEKOARI EDO BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO GOI-KOMISARIO PARLAMENTARIOEI BIDLITAKO KEXAK	36
2.5. KERTUTAKO KEXAK. IKERKETEN EMAITZA	36
2.6. KEXEN ONDORIOZ EMANDAKO EBAZPENAK	38
2.7. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EBAZPENAK NORAINO ONARTU DITUZTEN	41
2.8. KEXEN XEDEEN GUZTIZKO ONARPEN-MAILA. EFIZIENTZIA-INDIZEA	46
2.9. AURKEZTU DIREN KEXEN ZERRENDA ETA BANAKETA, GAIEN ARABERA	47
III. KAPITULUA. KEXEN AZTERKETA, GENEROAREN IKUSPEGITIK	162
3.1. SARRERA	162
3.2. GAIEN ARABERAKO BANAKETA	162
3.3. GAIEN ARABERAKO AZTERKETA	164
IV. KAPITULUA. OFIZIOZKO JARDUKETAK	172
4.1. DATU OROKORRAK	172
4.2. 2017KO ABENDUAREN 31N EGITEKO ZEUDEN OFIZIOZKO JARDUKETAK	177
4.2.1. Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak onartzea	177
4.3. 2017KO OFIZIOZKO JARDUKETA GARRANTZITSUENAK	179
4.3.1. Arartekoen adierazpena Europan asiloa eta babesa eskatzen dutenei eragiten dien krisi humanitarioari buruz	179
4.3.2. Nafarroako Ospitale Guneke Larrialdietako Zerbitzuaren egoera	183
4.3.3. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 87. artikulua, ofizioz hasitako tributu-prozedurak iraungitzeari buruzkoa, aldatzea	200
4.3.4. Berriz alokatutako logeletan bizi diren familien egoera	204
4.3.5. Alarguntasun-pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin berdintzea	211
4.3.6. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren erregulazioa Toki Ogasunei buruzko Foru Legean	214
4.3.7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzorde bat sortzea aurreikusitako Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektuan	216
4.3.8. Egoitzetan nahikoa plaza publiko edo itundu ez egotea	219
4.3.9. Eraso homofoboa Iruñean	221
4.3.10. Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren ondorio negatiboak	222

4.3.11. Zenbait pentsio lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko asmoz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean zenbait kenkari fiskal partzialki aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuaren irismena.	224
4.3.12. Errenta baxuak dituzten pertsonen medikuak agindutako botikak ezin ordaintzea.	226
4.3.13. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketak berarekin dakartzan ondorio kaltegarriak.	228
4.3.14. Alloko saihezbideko ezbehar-kopurua (NA-122 errepidearena, NA-666rekin gurutzatzen den ingurukoa)	231
4.3.15. Desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko beharretik salbuestea	233
4.3.16. Nafarroako Elizbarrutiko Cáritasek gizarteratzeko errentaren edo errenta bermatuaren aurrerapenak emateko sistema.	236
4.3.17. Liburutegi-zerbitzu publikoaren irekiera-orduen udaldiko murrizketak	237
4.3.18. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Argibide Fundazioaren arteko kontratua bukatzea	239
4.3.19. Nafarroako Gobernuak espetxe-gaietako zenbait eskumen bere gain hartzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 58.1. artikuluko a) letran xedatutakoa betetzeko.	243
4.3.20. "Aralar" Nafarroako Ludopaten Elkartea.	244
4.3.21. Nafarroako tokiko polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsari-araubidea ez da egokitu martxoaren 23ko Nafarroako polizia buruzko 8/2007 Foru Legean jasotako aurreikuspenetara, foru-lege hori 2015ean eta geroago ere aldatu ondoren.	247
4.3.22. Sarbide unibertsala osasungintza publikora.	256
4.4. ESPAINIAKO ARARTEKOAK KOORDINATZEKO XXXII. JARDUNALDIAK	259
4.5. NAFARROAKO HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA.	262
4.5.1. Egindako jarduketan deskribapena eta ebaluazioa	262
4.5.2. Azken urteotako bilakaeraren informazio-koadroa	274
4.5.3. Iradokizunak.	280
V. KAPITULUA. ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO HERRITARREK EGINDAKO PROPOSAMENAK	283
5.1. DATU OROKORRAK.	283
5.2. PROPOSAMENEN EDUKIA.	285
5.2.1. Administrazio publikoen arteko komunikazioa handiagoa izatea lortzeko proposamena, haien esku dauden datu-baseen eguneraketa hobetzeko helburuarekin.	285
5.2.2. Adingabe goiztiarrak zuzendutako adinaren arabera eskolatzeko aukerari buruzko proposamena.	286
5.2.3. Administrazio Publikoko langileen hautaketa-prozeduretan hobekuntzak egiteko proposamena; bereziki, desgaitasuna duten pertsonekin lotutako alderdiei dagokienez.	287
5.2.4. Beka-sistema eta derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetarako laguntzak hobetzeko proposamena	289
5.2.5. Jaioberrien identifikazio-metodoa aldatzeko proposamena.	291
5.2.6. Publiko orokorrari irekita dauden establezimenduetan dauden kirol-apustuen makinetan adingabeen erabilera kontrolatzeko neurriak ezartzeari buruzko proposamena.	292

VI. KAPITULUA. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK.	293
6.1. SARRERA	293
6.2. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK	293
6.2.1. Enplegu publikora heltzea.	293
6.2.2. Nekazaritza.	306
6.2.3. Gizarte-ongizatea.	307
6.2.4. Administrazio publikoen ondasunak	322
6.2.5. Merkataritza eta kontsumoa.	324
6.2.6. Kultura.	324
6.2.7. Kirola	325
6.2.8. Hezkuntza.	327
6.2.9. Energia.	344
6.2.10. Euskara.	345
6.2.11. Funtzio publikoa.	347
6.2.12. Toki-entitateen funtzionamendua.	362
6.2.13. Ogasun publikoa.	364
6.2.14. Justizia.	373
6.2.15. Ingurumena.	374
6.2.16. Memoria historikoa.	387
6.2.17. Herri-lanak	387
6.2.18. Datuen babesa.	391
6.2.19. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	392
6.2.20. Osasungintza.	396
6.2.21. Herritarren segurtasuna.	404
6.2.22. Zerbitzu publikoak.	407
6.2.23. Lana.	411
6.2.24. Trafikoa eta bide-segurtasuna.	413
6.2.25. Gardentasuna.	417
6.2.26. Hirigintza.	419
6.2.27. Etxebizitza.	427
6.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NORAINO ONARTU DITUZTEN EBAZPENAK	435
6.4. EBAZPENEN ONARPEN-MAILA ARLOZ ARLO	438
VII. KAPITULUA. PARLAMENTUAN EGINDAKO TXOSTENAK ETA AGERRALDIAK.	440
7.1. SARRERA	440
7.2. TXOSTENAK	440
7.3. AGERRALDIAK.	442

VIII. KAPITULUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEKOARI EMANDAKO LAGUNTZA	445
8.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA. . .	445
8.2. NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN ARITU EZ DIREN EDO INFORMAZIOA EDO ERANTZUNA BIDALTZEN GEHIEGI ATZERATU DIREN ADMINISTRAZIOEN AIPAMENA.	446
IX. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN ZUZENA	448
9.1 HERRITARRENTZAKO ARRETA-BULEGOA. NAFARROAKO ARARTEKOARI EGINIKO KONTSULTAK. ...	448
9.1.1. Datu orokorrak.	448
9.1.2. Kontsultak arloen arabera.	449
9.1.3. Kontsulten banaketa.	450
9.2 GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANA	462
X. KAPITULUA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN PARTE-HARTZEA NAFARROAKO GARDENTASUNAREN KONTSEILUAN.	465
ERANSKINA. ERAKUNDEAREN 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	468

1. kapitulua

sarrera

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18 ter artikulua (NFEBHLO) Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren mende dagoen organotzat definitzen du. Hala, Nafarroako Arartekoari dagokio Konstituzioak eta aipatutako lege organikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eta askatasunak defendatu eta babesteko zeregina eta, horretarako, Nafarroako administrazio publikoen jarduera azter dezake eta Parlamentuari jarduketa horien berri eman behar die.

Ilido horretan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa aldatu zuen urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren hitzaurrean ezartzen da Nafarroako Arartekoa Nafarroako Foru Komunitateko erakundea dela.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumenak, araubide juridikoa eta jardunbidea zehazten ditu, Foruaren Hobekuntzako 18 ter artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatuz hartara.

Bi lege horiekin bat etorritik, baita Nafarroako Arartekoa aintzat hartzen duten beste foru-lege batzuekin ere (haurren eta nerabeen babeserako foru-legeak, administrazio elektronikoarenak, edo gobernu irekiaren gardentasunarenak), erakunde horrek honako zereginak burutzen ditu:

- a Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea eta eskubide horien babesa hobetzea.
- b Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea eta eskubide horien babesa hobetzea.
- c Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako estatuko legeetan, Europar Batasuneko arauetan eta nazioarteko hitzarmenetan aitortzen diren eskubideak defendatzea eta horien babesa hobetzea.
- d Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, toki-entitateek nahiz Nafarroako Foru Komunitateko edozein erakunde publikok herritarrei emandako zerbitzu publikoak hobetzea.
- e Herritarren bidezko interesen eta Nafarroako administrazio publikoek zaindu beharreko interes orokorraren arteko bitartekotza eta kontziliazioa egitea.
- f Herritarrei informazioa eta laguntza ematea, hobeki balia ditzaten beren interesak administrazio publikoen aurrean.
- g Informazioa eta laguntza ematea Nafarroako Parlamentuari, foru-parlamentariei eta Nafarroako gainontzeko entitate publikoei, bai haiek hala eskatuta bai bere ekimenez, herritarren eskubideekin lotutako bere eskumeneko gaietan.
- h Espainiako Herriaren Defentsa Bulegoarekin lankidetzan aritzea herritarren Konstituzioko eskubideak defendatzen eta hobetzen, eskubide horiek estatuko administrazio edo botere publikoen jarduketan ondotik kaltetu edo ahuldu daitezkeenean.

Zeregin horiek betetzeko, Nafarroako Arartekoak, bere irizpidean oinarrituta, a proposenak iruditzen zaizkion gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak egiten ditu.

2. Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Arartekoak urtero eman behar diola egindako kudeaketei buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari eta txosten hori ohiko bilkura-aldian aurkeztu beharko diola erakunde horri.

2017. urteari dagokion txostenaren aurkezpenaren bidez, Nafarroako Arartekoak Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenek babesten dituzten eskubideak eta askatasunak babesteko eta haien babes-maila hobetzeko egindako jarduerari nagusien berri ematen dio Nafarroako Parlamentuari.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37. artikulua zehazten du urteroko txosten horren edukia: kexa kopurua eta kexa motak; ez onartutako kexa kopurua eta kexa motak eta haien kausak; ikertu diren gaiak eta ikerketa horien emaitzak; erakundeak emandako oharpenak, iradokizunak, gogorarazpenak edo gomendioak (administrazioak zein onartu dituen adierazita); eta erakundearen aurrekontuaren likidazioa jasoko duen eranskina.

Agindu hori betetzeko, urteko txosten honek Nafarroako Arartekoak 2017an zehar garaturiko jarduerari buruzko datuak jaso ditugu.

3. 2017ko **txostenaren edukia** hamar kapitulutan dago banatuta.

I. kapituluak —kapitulu honek— sarrera-izaera dauka, eta txostenaren edukiari eta egiturari buruzkoa da. Txosten osoaren laburpen exekutibo baten antzerako funtzioa du.

II. kapituluan aurkeztutako kexen kopuruari eta motei buruzko datuak daude; horrela, herritarrek beren

kexetan planteatzen dituzten sakoneko arazoak biltzen ditu. Kexak gaika sailkatzen dira, zer administrazio publikori zuzenduta dauden edo dagozkion adierazita. Kapituluak balorazio orokor bat jasotzen du emandako ebazpenei buruz eta kexa horien harira eginiko ikerketen emaitzari buruz, bai eta ebazpen horiek izan duten onarpen-mailari buruz ere.

III. kapituluan, 2017an Nafarroako Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexak aztertzen dira genero-ikuspegitik begiratuta lehenengoz.

IV. kapituluak erakundeak eginiko ofiziozko jarduketak direlakoak islatzen ditu, eta adierazten du zein izan den haien izapidetzea eta emaitza. Kapitulu horretan, halaber, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioaren gaineko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoa betez. Zehaztapen batzuk egin behar dira horri buruz, Eskubide Sozialetako Departamentuak bildutako datuetan eta Iruñean egin zen Arartekoen Koordinaziorako XXXII. Jardunaldietako edukietan eta ondorioetan oinarrituta. Jardunaldi horiek Santiago de Compostelan egin ziren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gardentasunari buruzkoak izan ziren.

V. kapituluan herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko adierazi dituzten proposamenak eta haien emaitzak jaso dira.

VI. kapituluan, Nafarroako Arartekoak administrazio edo erakunde eskudunentzat, bere ikuskatze-jardueraren emaitza gisa, egin dituen gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenak jasotzen dira, laburbilduta. Herritarren kexen eta proposamenen harira eta ofiziozko jarduketan eta eginiko txostenen harira eman dira gomendio, iradokizun eta gogorarazpen horiek. Halaber, jasotzen da gomendio, iradokizun eta gogorarazpen horiek Nafarroako administrazio publikoek edo zuzendu zaizkien

1. kapitulua

sarrera

gainerako erakundeek noraino onartu dituzten edo ez dituzten onartu.

VII. kapituluak erakundeak bere ekimenez, Nafarroako Parlamentuaren eskariz eta tokiko entitateen eskariz egindako txostenak erlazionatzen ditu.

VIII. kapituluak kasu jakinen batean erakundearekin duten lankidetzaz-betebeharra osorik bete ez duten Nafarroako administrazio publikoak aipatzen ditu.

IX. kapituluak herritarren arretarako bulegoaren jardura zehazten du; herritarrek zer gairi buruz eskatu duten informazioa eta zenbat kontsulta egin diren aipatzen da. Halaber, erakundearekin hartu-emanak izan dituzten kolektiboak aipatzen dira. Hartu-eman hori, batzuetan, pertsonala izan da eta beste batzuetan aurkeztutako kexen edo proposamenen bitartez egin da.

X. kapituluak Nafarroako Arartekoak Nafarroako Gardentasun Kontseiluan izan duen partaidetza zehazten du. Hain zuzen, 2017ko martxotik hartzen du parte organo horretan, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen (ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea, egungo idatzian) 73.1.f) artikulua bertutez.

Azkenik, Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. artikulua zehazten du txostenak eranskin bat izan behar duela, erakundearen aurrekontuaren likidazioa jasotzen duena.

4. 2017. urtean, hau izan da erakundearen jardura: **2.412** jarduketa.

Kopuru horrek barne hartzen ditu:

- **Kudeatutako** 1.121 **kexak** (horietako 921 **kexa** urte naturalean **aurkeztutakoak**).
- Erantzundako 1.231 **kontsultak**.

- Kudeatutako 28 **ofiziozko jarduketak** (horietako 23 ofiziozko jarduketa 2016an egindakoak).
- Zerbitzu publikoak **hobetzeko 9 proposamenak** (horietako 6 urtean aurkeztutakoak).
- 2 **txosten**: bata Nafarroako Parlamentuaren eskariz egin, eta, bestea, Hezkuntza Departamentuak eskatuta egin.
- 5 **agerraldi** Nafarroako Parlamentuaren aurrean.
- 9 **saio** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan.
- 6 **ponentzia** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan.
- **Arartekoen Koordinaziorako XXXII. Jardunaldietan parte hartzea**. Jardunaldiak 2017ko urriaren 3an eta 4an egin ziren Santiago de Compostelan, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gardentasunari buruzkoak izan ziren.

5. Arestiko datuek ikuspegi kuantitatibo batetik adierazten dute Nafarroako Arartekoaren jardura. Ikuspegi kualitatibo batek, berriz, Nafarroako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoaren aurrean herritarren eskubideen defentsan edo zerbitzu publikoaren hobekuntzan egindako egiazko ikuskatze-lana jartzen du erdigunean.

Ikuskatze-lan horrek administrazio publikoei buruzko **826 ikerketa** ekarri ditu: 787 ikerketa, aurkeztutako kexei buruzkoak; 28 ikerketa, ofiziozko jarduketan ondoriozkoak; 9 ikerketa, herritarren proposamenen ondoriozkoak; eta 2 ikerketa, egindako txostenen ondoriozkoak.

Ikuskatze-jardura horren ondorioz **398 ebazpen** eman dira, eta honako hauek biltzen dituzte: 232 gomendio,

122 legezko betebeharren gogorazpen, 118 iradokizun eta 42 arautzeko iradokizun, zeinak ikerketen edo jarduketan ondorio gisara helarazi dizkien erakundeak 2017. urtean administrazioei eta erakundeei. Hau da, administrazio-jardueraren ikuskatze-lana administrazio eta erakundeei jakinarazitako 514 erabakitan zehaztu da, herritarren eskubideak hobeto defendatzeko edo zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzeko.

6. Nabarmentzekoa da, kexak, kontsultak eta herritarren hobekuntza-proposamenak egiteko, guztira **8.160** pertsona erakundeari zuzendu zaizkiola edo erakundearen egoitzara etorri direla 2017. urtean.

Kexak aurkeztu eta gero, **6.150** pertsonak eskatu diote Nafarroako Arartekoari esku hartu dezan. Kontsultak egin eta gero, berriz, **2.004** pertsonak jo dute Arartekoarengana, bere eskubideei buruzko informazioa eskatzeko, eskubide horiek hobekien erabiltzeko informazioa eskatzeko eta administrazio-jardueraren legezkoatasunari buruzko informazioa eskatzeko.

7. 2017an jasotako **921** kexen edukiak agerian uzten ditu herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremani buruzko kezkak edo asegabetasunak.

Beharrezko hurrenkeran, handienetik txikienera, hauek izan dira 2017an kexa gehien jaso dituzten gaiak: hezkuntza, funtzio publikoa, gizarte-ongizatea, ingurumena, enplegu publikora heltzea, osasuna, ogasuna, etxebizitza, hirigintza, trafikoa, herritarren segurtasuna eta lana.

Hezkuntzaren gaiari lotuta 156 kexa aurkeztu ziren. Azpimarratzekoak dira: 34 kexa, Tuteran erizaintzako laguntzailearen erdi-mailako graduaren prestakuntza-ziklo bat ez egoteategatik aurrez aurreko modalitatean eta gaueko ordutegian; 33 kexa, Nafarroako Gobernuak eta hainbat udalek eginiko D ereduko irakaskuntzaren publizitate instituzionalagatik; eta Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean ingeleseko A1 maila kentzeari buruzko kexa (91 sinadura ere aurkeztu ziren).

Hamazazpi kexa eskola-garraioaren zerbitzuarekin lotutakoak ziren: zazpi, Antsoango Ezkaba ikastetxe publikora ikasleak garraiatzeari buruz; bi, Nuevo Artica urbanizazioan bizi diren ikasleei buruz; bi, eskola-jardunaldia etena izatetik jarraitua izatera igarotzearen ondoriozko efektuei buruz; kexa bat, Mendillorri institutuko ikasleen hogege gurasok aurkeztua Hezkuntza Departamentuak ez zuelako behar bezala egokitzen Beriarindik eskainitako eskola-garraioaren zerbitzuaren ordutegia jardunaldiaren hasieran.

Hainbat kexa eragin ditu, halaber, 2017rako onartutako araudiak, hain zuzen, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak onartzeko baremoa erregulatzen duenari buruzkoak. Sei kexa aurkeztu zituzten ikastolen federazio batek eta sei herritarrek, araudi berriak ez duelako aintzat hartzen jada familia-unitateko kideetakoren bat bazkide kooperatibista izatearen irizpidea. Lau kexak eskatu zuten haur-hezkuntzako bigarren zikloan onartzeko aurkeztutako errolda eta errenta-adierazpenaren gaineko iruzurrezko jarduketan izan zitezkeenak ikertzea. Hiru kexa etxebizitzaren eta ikasleak onartu zituzten ikastetxearen arteko hurbiltasun linealaren irizpide osagarriari buruzkoak izan ziren. Lau kexak eskatu zuten zentro batean seme-alabak onartzeko ratioak areagotzea edo lerro berriak irekitzea.

Bost kexa aurkeztu ziren hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko laguntzari buruz. Eta, are larriago, lau kexak agerian jarri zituzten eskola-jazarpenerako egoerak eta zentroak eta Hezkuntza Departamentuak berehala esku hartzeko eskatzen zuten.

Bigarren lekuan daude **funtzio publikoari** buruzkoak: 96 kexa. Horien artean, honako hauek ditugu aipagarri:

- kexa batek (kaltetutako 1.838 pertsonaren sinadurak ere aurkeztu ziren) aipatzen du diskriminaziozko tratua eta tratu kaltegarria ematen zaiola erretiroa hartzeko legezko adinean Nafarroako Foru Komunitateko administraziozko Gizarte Segurantzaren erregimenari

1. kapitulua

sarrera

atxikitako osasun-langileei, Montepio sistemari atxikitako osasun-langileekin alderatuta (azken horretan, hirurogei urterekin erretira daitezke);

- 46 herritarrek aurkeztutako kexa Hezkuntza Departamentuak urtebete baino gutxiagoko kontratua duten irakasleen kasuan egiten duen interpretazioari buruz, eskolarik gabeko egunak opor-egun gisa aintzat hartzeari dagokionez;
- laneko arriskuen prebentzioko hamar teknika-rik aurkeztutako kexa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak laneko arriskuen prebentzioaren gaian ematen diren prestakuntza-ekintzak derrigorrezko eta ordainik gabeko gisa ezarri dituelako, eta horiek ordura arte borondatezkoak eta ordainduak zirelako;
- Udaltzaingoen eta sindikatu batek aurkeztutako bost kexak, administrazioek ez dizkietelako ordaintzen berariazko osagarriaren eta txandakako osagarriaren ordainsariak (hemen ezarriak: 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena), Nafarroako Gobernuak garapenerako araudi bat onartzen ez duen bitartean;
- zazpi kexa, diziplina-espeditenteak abiarazi zaizkien funtzionarioek aurkeztuak.

Hirugarren lekuan dago **gizarte-ongizatea**: 86 kexa. Horietako 19 haurtzaroa edo nerabezaroa babestearekin lotuta daude; besteak beste, adingabeen babesgabetasunari eta administrazio-zerbitzuek zaintzeari buruzkoak, guraso bananduen arteko zaintza-gatazkei buruzkoak edo familia-topaguneen funtzionamenduarekin ados ez egoteari buruzkoak daude.

Hiru kexak bikotekideen eskutik emakumeenganako genero-indarkeriako kasuak salatzen dituzte.

Hamabi kexak desgaitasuna duten pertsonen dituzten arazoak azaltzen dituzte, eta lau Nafarroako Helduak Tutelatzeko Fundazioak egiten duen desgaituen tutoretzarekin lotuta daude.

Hamaika kexa aurkeztu dira errenta bermatua ordaintzea edo itzultzea ukatzeagatik, murrizteagatik edo atzeratzeagatik, eta beste bi kexa errenta hori enbargatzeagatik.

Sei kexak adierazi dute gizarte-langile batzuek emandako arreta desagokoa izan dela.

Laugarrenen tokian **ingurumenari** buruzkoak ageri dira: 66 kexa. Aurreko urteetan bezala, askotariko jarduerengatiko zaratekin lotutako kexak dira nagusi (26 kexa), eta bereziki, herritarrek etxeetan jasaten dituzten eragozpenengatik, honako hauetatik datorren kutsadura akustikoa dela eta: gazteen lokalak etxabeetan, ostalaritza-negozioak, hiriko autobusak, zaborren kamioiak, supermerkatuak, lantegiak, eliza baten kanpaiak, baloi-jokoak etxetik hurbil, zakurren zaunkak...

Hemeretzi kexa aurkeztu dira ingurumenari buruzko informazioa ukatzeagatik edo salaketei ez erantzuteagatik. Hamahiru kexa fauna eta ehiza babestearekin lotuta daude, eta zazpi jarduera sailkatuen lizentziekin (horietako bi lizentzia ez emateagatik, bi lizentzia emateko atzerapenagatik, bi lizentziako baldintzak ez betetzeagatik eta bat hirugarren bat ematearekin ados ez egoteagatik).

Bosgarren, enplegu publikora heltzea dago (56 kexa). Enplegu publiko bat berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan eskuratu nahi duten herritarrek aurkeztutako kexak dira.

Hogeita sei kexa Hezkuntza Departamentuak, Osasun Departamentuak eta Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia Departamentuak eta toki-entitate batzuen aldi baterako kontrataziorako hautagaien zerrenden kudeaketari buruzkoak izan dira.

Zortzi kexak (zazpi herritar eta sindikatu bat) erakutsi zuten irakasle izateko hautagaien desadostasuna Hezkuntza Departamentuak Prestakuntza Pedagogikoko eta Didaktikoko Master bat izatea eskatzearekin.

Lau kexa aurkeztu ziren Hezkuntza Departamentuak 2018an 73 irakasle-plazaren deialdia egiteko iragarkari buruz (2015eko enplegu-eskaintza publikoan jasoak); izan ere, azaltzen zuten 2018an egitekotan Nafarroako Foru Komunitatea izango zela urte horretan plazak eskainiko zituen komunitate bakarra, eta, beraz, "dei-efektua" izango zuela.

Hiru kexatan, kontratazio-zerrendetan desgaitasuna zuten pertsonen lehentasuna aldatzearen ondorioak jasan zituztenek adierazi zuten ez zeudela ados.

Bi kexa egin ziren Osasun Departamentuak ez zituelako baloratu osasun-zentro pribatuetan eskainitako zerbitzuak edo merezimenduak aldi baterako kontratazio baterako.

Seigarrenean **osasunari** buruzkoak ageri dira: 55 kexa. Azpimarratzekoak dira itxarote-zerrendekin lotutako 18 kexa (batik bat traumatologia- eta errehabilitazio-gailetan), eta tratamendu jakin batzuk ukatzearekin eta protesien eta farmakoen finantzaketarekin lotutako zortzi kexa. Hiru kexa larrialdi-zerbitzuen atzerapenarekin lotuta daude; zazpi kexak erakusten dute jasotako arreta kliniko jakinarekin ez daudela ados; eta bi kexak islatzen dute Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak emandako osasun-laguntzagatik zorrak ordaintzeko eginiko eskaerarekin ez daudela ados herritarrek.

Hiru kexak kritikatzan dute Osasun Departamentuak zeliakia duten pertsonen urtean 20 euro inguruko elikadura-gastuetarako laguntza eman izana; izan ere, ez da nahikoa, eta, beraz, zenbatekoa areagotzeko eskatu zuten.

Gainera, hiru kexa aurkeztu dira osasun-instalazio batzuetako urritasunei buruz. Kexa horietako bat

hamalau herritarrek aurkeztu zuten (Nafarroako Ospitale Guneko pabilioi psikiatrikoko pazienteak), pabilioiaren egungo baldintzei buruz, eta Osasun Departamentuari proposatzen dizkiote zerbitzua eta instalazioak hobetzeko zenbait alderdi. Herritar batek beste kexa bat egin zuen Osasun Departamentuak ez dituelako hartu neurriak Nafarroako Ospitale Guneko instalazioen gabezien aurrean, lekualdatutako familiek pazienteei laguntzea zailtzen baitute. Hirugarren kexa bat herritar batek egin du Osasun Departamentuak ez dituelako neurriak hartzen Nafarroako Ospitale Guneko Pediatriako Zaintza Intentsiboetako Unitateko zerbitzuan eta instalazioetan dauden gabezien aurrean eta unitate horretako higiene-baldintza desegokien aurrean.

Beste kexa bat aurkeztu zuten lau elkartek, Cascanteko Udalak ez zielako erantzun "Plantas y terapias para una autosuficiencia sanitaria" izeneko hitzaldi bat bertan behera uzteko eskaerari; izan ere, uste zuten arriskuan jartzen zuela herritarren osasuna. Ekitaldi horretan, hain zuzen, Udala laguntzaile gisa agertzen zen.

Zazpigarren lekuan agertzen dira **ogasunarekin** lotutakoak: 48 kexa. Nafarroako Zerga Ogasunaren harira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin lotutako kexak dira gehienak. Nabarmentzekoak dira herritarrek aurkeztutako bederatzi kexa, ez daudelako ados Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erreformarekin eta hurrengo aitorenpenetan haien ustez izango dituzten ondorio negatiboekin. Hiru kexa aurkeztu dira Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez duelako doikuntza edo zuzenketa teknikorik aplikatzen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan hartzaile bat eta gehiago dituzten familia-unitateak parekatzeko; hortaz, uste dute errenten hartzaileen kopuruan bereizketa egiteak zerga-laido oso esanguratsua duela lehenengoen aitorenpenaren emaitzetan.

Kexa bat egin da Nafarroako Zerga Ogasunak ez duelako behar besteko jendaurreko arreta-ordutegirik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitopena egiteko; hortaz, horrek zergadunek beren

1. kapitulua

sarrera

zerga-betebeharrak betetzea zailtzen du. Bi kexa aurkeztu dira Nafarroako Zerga Ogasunak ondarearen gaineko zerga bitarteko telematikoen edo harekin lankidetzan diharduten erakundeen bitartez aurkezteko aukera ematen duelako soilik.

Toki-ogasunekin lotuta, kexak tokiko zerga eta tasei buruzkoak dira. Udalek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergagatik igorritako likidazioarekin ados ez daudela adierazteko kexak nabarmentzen dira, lursailaren balioak areagotzerik izan ez duen kasuetan. Beste bi kexa aurkeztu ditu Nafarroako autobidearen sozietate emakidadun batek, autobideen finantzaketa, eraikuntza eta ustiaketaren sozietate emakidadunak hiri-zerga ordaintzera behartzen dituen foru-arauarekin ados ez daudela adierazteko; hori ez da horrela gertatzen estatuko araudian, sozietate horiek zerga baliokidea ordaindu behar ez dutela ezartzen baita. Bi kexa tokiko zergen enbargoei buruzkoak dira.

Kexa batean, merkatarien elkarte batek adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Foru Komunitatean jarduera ekonomikoa garatu eta milioi bat eurotik beherako negozio-zifraren zenbateko garbia dutenek jasaten duten diskriminaziozko tratuaarekin, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar dutelako (EJZ); izan ere, estatuaren gainerakoan jarduera horiek salbuesita daude zerga ordaintzetik. Halaber, ados ez dagoela adierazten du zerga kalkulatzeko metodoarekin, ez baita aintzat hartzen zergadunaren jarduera pertsonala, baizik eta dagokion sektoreko batezbestekoa; hortaz, ez dago gaitasun ekonomikoaren printzipiora egokituta.

Beste kasu batean, desgaitasuna duen pertsona bat kexatu da tokiko ogasunei buruzko araudiak ez duelako ezartzen salbuespenik hamabi zerga-zaldi gainditzen dituzten egokitu gabeko ibilgailuetarako zirkulazio-zerga ordaintzean; horiek erabiltzea beharrezkoa da kexa egin duenarentzat.

Bost kexa katastro-balioen areagotzearekin eta udal-katastroak berrikustearekin edo horiei buruzko informazioarekin lotuta daude.

Arrazismoaren aurka borrokatzen duen elkarte bat kexatu da Murillo el Frutoko kultur zentroa erabiltzeko tasak neurrigabe igo direlako. Salatu du udalerrri horretako udalak igoera egin duela ijito-etnia bateko elkarte bat eta etnia horretako pertsonak kaltetzeko.

Zortzigarren lekuan dago **etxebizitz**en gaia: 35 kexa. Babestutako etxebizitzaren esleitze-gabeziagatik herritarrek aurkeztutako kexak nabarmentzen dira, nahiz eta hainbat urtez izena emanda egon babestutako etxebizitzaren eskatzaileen erroldan eta horretarako egoera ekonomiko, pertsonal edo familiar egokia izan. Nabarmentzekoak dira, baita ere, familia-premietara hobeto egokitzen diren babestutako beste etxebizitza batzuk eskuratzeko zailtasunengatik aurkeztutako kexak, babestutako etxebizitza alokatzeko diru-laguntzaren ehunekoa murrizteari buruzko kexak, edo, hein txikiagoan, babestutako etxebizitzetako akatsekin lotutako kexak.

Kasu honetan, herritar batek kexa bat aurkeztu du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako babestutako etxebizitza bat eskuratzeko erraztu Tuteran, babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko zain lau urte daramatzen arren (adierazi du gaur-gaurkoz senarrekin eta semearekin batera bizi den etxebizitzak hezetasunak dituela eta laster utzi behar dutela, bera eta senarra langabezia daudela, hilean 426 euroko prestazioa jasotzen dutela eta seme bat dutela mantentzeko).

Beste kasu batean, herritar batek azaltzen du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diola babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzen alokairuan, eskatzaileen erroldan izena emanda dagoen arren duela bi urtetik, eta genero-indarkeriako biktima dela, hiru semeren ama (laugarrenak desgaitasuna zuen eta berriki zendu da), Nafarroan erroldatuta dagoela eta hilean 600 euroko errenta jasotzen duela.

Beste kasu batean, herritar batek azaltzen du Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Iruñeko Udalak ez diotela babes ofizialeko etxerik ematen berehala etxegabetuko duten arren. Beste kasu batean, herritar

batek azaltzen du Iruñeko Udala atzeratzen ari dela tutoretzapeko etxebizitza bat esleitzeko, eta, bien bitartean, Artzapezpikuak tutoretzapean duen etxebizitza batean dagoela, baina egoera larria dela. Beste kasu batean, herritar batek kexa aurkeztu du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako babes ofizialeko etxebizitza bat esleitu, eta esan du, bien bitartean, adingabeko alabarekin batera bizi dela etxebizitza batean eta hilean 450 euroko alokairua ordaintzen duela (etxebizitzaren jabeak jakinarazi dio etxebizitza utzi behar duela, obra batzuk tarteko). Beste kexa batean, herritar batek adierazi du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diola babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzen, 2002az geroztik eskatuta duen arren (emaztearekin eta bi seme-alabekin bizi da alokairuko etxebizitza batean eta alokatzaileak jakinarazi die kontratua indargabetuko duela, etxebizitza saldu nahi duelako).

Beste kexa batean, herritar batek azaldu du Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak ukatu egin diotela babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera, ez delako iristen etxebizitza horiek esleitzeko legez ezarritako diru-sarreraren gutxienez (etxebizitza oso txiki batean bizi da emaztearekin eta lau seme-alabekin, eta alokairuko etxebizitza eskuratzeko eskaerak ukatu egin dira aurreko ekitaldiko errenta-aitorpenean ez zelako iristen 3.000 euroko gutxienezko diru-sarreretara). Beste kasu batean, herritar batek adierazi du Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diotela bere beharrianetara egokitutako etxebizitza esleitzen, pilaketa-egoera batean bizi den arren familiarekin (emaztearekin eta sei seme-alaba adingabeekin batera bizi da 40 metro karratu baino gutxiagoko etxebizitza batean; bi logela dituzte: bata senar-emazteek eta bi haurrek erabiltzen dute, eta bestea gainerako lau adingabeek).

Beste batean, herritar batek azaldu du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diola babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzen alokairuan, lau seme-alaba izan eta hasierako eskaera egin zuenetik ia hamar urte igaro diren arren.

Halaber, herritar batek kexa bat aurkeztu du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzen. Azaldu du senarrarekin eta bi seme-alaba adingabeekin bizi dela eta etxebizitzaren alokatzaileak jakinarazi diola datozen hiru urteetan alokairu kontzeptuarekin ordaindu beharreko zenbatekoa hilean 450 euro izatetik 550 euro izatera igaroko dela, negoziatzeko aukerarik gabe; senarrak 850 euro jasotzen ditu hilean bermatutako errentaren kontzeptuan eta berak, astean zortzi orduz garbiketa-zerbitzuak eskaintzeagatik hilean 200 euro inguru jasotzen ditu.

Bederatzigarren lekuan dago **hirigintzaren** gaia: 33 kexa. Nabarmenezkoak dira hirigintza-kudeaketarekin eta legezketasuna babesteko neurriak hartzerakoan udalerrri batzuen atzerapenarekin lotutako kexak, herritarrek salatutako hirigintza-araudiaren balizko ez-betetzeen aurrean. Era berean, hainbat kexa aurkeztu dira udal batzuek ez dietelako erantzun hirigintza-informazioa herritarrei helarazteko eskaerei.

Kexetako bat hamar herritarrek aurkeztu zuten, Altsasuko Udalak Lezalde eremuko hirigintza-garapenerako kooperazioko sistema publikoaren ordez duela hamabi urte baino gehiago onartutako Plan Partzialean ezarria) konpentsazio-sistema ezartzeko erabakia hartu duelako.

Hainbat familiak beste kexa bat aurkeztu zuten euren finkak Gendulaingo Udalez Gaiendiko Intzidentziako Plan Sektorialean sartu zirelako, Zizur Zendeako Udalak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak eginiko aldaketaren ondoren. Azaldu zuten haien lursailak zoru urbanizagarri gisa jartzearen ondorioz, lursailen balioa areagotu zela, eta, ondorioz, ordaindu behar duten lurralde-kontribuzioa eta ondare-zergaren kontribuzioa nabarmen areagotu dela, eta familia batentzat horrek ondore kaltegarriak dituela.

Beste herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Baztango Udalak eta Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ukatu egin zirelako baserri bat bi familiako etxebizitza bihurtzeko baimena;

1. kapitulua

sarrera

higiezina abereentzako borda gisa erabili baino lehen, etxebizitza gisa erabiltzen zen.

Beste kexa batean, herritar batek azaldu zuen Iruñeko Udalak udaletxeko plazan hotel bat eraikitzeke obren lizentzia ematean, ez zirela aintzat hartu horrek hurbil duen negozioan sortutako eragozpen larriak eta ez zituztela neurriak hartu obrek kalteak eragitea saihesteko.

Hamargarren lekuan dago **trafikoaren** gaia: 30 kexa. Nabarmentzekoak dira herritarrek aurkeztutako kexak honako hauekin lotuta: ezarri zaizkien isunekin ados ez egotea, Iruñeko Udaleko garabi-zerbitzuak aparkatze-eremu murriztu edo mugatutik ibilgailua kentzea, ibilgailua berreskuratzeko ordaindu behar dituzten gehiegizko tasak, eta herritarrek aurretik ezagutzen ez dituzten trafiko-isunen ondoriozko enbargoak. Era berean, beste kexa batzuk desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen erabilerarekin lotuta daude.

Trafiko-antolamenduari dagokionez, azpimarratzekoa da plataforma batek eta herritar batzuek aurkeztutako kexa. Ez daude ados Iruñeko Udalak Pio XII.aren etorbidean egin nahi duen proiektuarekin, aparkatzeko plazak kentzea ekarriko baitu (kexaren idatziari 2.147 pertsonaren sinadurak atxiki zaizkio).

Hamaikagarren lekuan dago **hiritarren segurtasunaren** gaia: 27 kexa. Besteak beste, nabarmentzekoak dira espetxe-administrazioarekin zerikusia duten 13 kexa: bost Nafarroatik kanpoko espetxeetako barneratuek aurkeztu dituzte, Iruñera lekualdatu nahi dutelako familiako edo osasuneko arrazoiengatik; beste kexa bat hiru barneratuek aurkeztu dute Iruñeko espetxean tratatu egokia ematen ez zaiela uste dutelako; beste kexa bat Iruñeko espetxean gutunak bidean atzematen zaizkiola adierazi duen barneratu batek aurkeztu du; eta beste kexa bat barneratu batek aurkeztu du, uste duelako talde teknikoak eta Iruñeko espetxeko tratamendubatzaordeak ez dutela barneratuen jarraipen etengabea eta indibidualizatua egiten.

Halaber, lau kexa aurkeztu dituzte ordena publikoaren gaian ezarritako zigorrekin ados ez dauden herritarrek, substantzia estupefazianteak izateagatik edo labanak eramateagatik.

Hiru kexa aurkeztu dira segurtasun-taldeetako agenteek herritarrei emandako tratatu desegokiagatik.

Bi kexa Nortasun Agiri Nazionala (NAN) igortzearekin lotuta daude: bata, ez delako aitortzen salbuespenik guraso bakarreko familien kolektiboari agiria igortzeagatik tasa ordaintzean, eta, bestea, Nafarroan Nortasun Agiri Nazionala igortzeko hitzordua eskuratzeko gehiegizko denboragatik.

Beste bi kexa Bakaikuko San Juan eguneko suengatik eta Dicastillon zekorrek haurrentzako ikuskizun bat egiteagatik egin dira.

Hamabigarren lekuan dago **lanaren** gaia: 25 kexa. Nabarmentzekoa da hogeit hamar herritarrek eginiko kexa: Foru Komunitateko administrazio publikoen instalazioak garbitzen dituzten enpresa pribatuetak langileak dira eta uste dute lan-baldintzak okertu egin direla zerbitzu hori eskaintzeko deitutako lizitazio-prozeduretan irregulartasunak egotearen ondorioz. Halaber, sindikatu batek eta merkataritza-sozietate batek bi kexa aurkeztu zituzten Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak, besteak beste, Foru Komunitateko administrazio publikoen instalazioak garbitzeko enpresa pribatuak kontratatzeke deitutako lizitazioetan zerbitzuaren kostu erreala aintzat hartzen ez duten lizitazio-aurrekontuak ezartzen dituztelako, eta uste dutelako horrek eragin negatiboa duela bai langileengan, lan-baldintza okerragoak dituztelako, bai lizitatzen duten enpresengan, esleipen-prezioak ez direlako lehiakorrak.

Kexa bat aurkeztu dute Nafarroako Ospitale Guneko bost langilek, Osasun Departamentuak beren lan-kontratuak baliogabetuko dituelako, guneko horretako sukaldaritza-zerbitzua atzera publikoki kudeatzen hasiko baitira.

Beste kexa bat aurkeztu dute ASIMEC enpresako hiru familia-langilek; udal-laguntza eskaintzen zuten etxean eta horien lan-harremana Iruñeko Udalak subrogatu du. Udalak ez die aitortzen, ezta ordaintzen ere, antzinasuna enpresarekin duten lehen kontratutik, subrogazioaren unetik aurrera baizik.

Gainera, hiru kexa aurkeztu dira langabezia-prestazioarekin lotuta eta bi laneratzeko errenta aktiboarekin lotuta.

Beste kexetako bat desgaitasuna duten pertsonak dituzten lan-baldintza prekarioei buruzkoa da, baita kolektibo horretara egokitutako enpresetan ere.

8. 2017an aurkeztutako kexa guztien % 53,9 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutakoak ziren, bai eta haren erakunde publikoen eta haren sozietate publikoen jardunarekin lotutakoak ere. 496 kexa aurkeztu ziren.

Toki-entitateen eta haien menpeko enteen jardunari buruz, berriz, 247 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 26,8.

Estatuko administrazioaren jardunari buruzko 87 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 9,4.

9. Kexak aurkezteko erabilitako bitartekoei dagokienez, 2017an bezala, Internet izan da erabiliena (% 51,2): posta elektronikoa nahiz erakundearen webguneko inprimakiak. Bigarren lekuan, zuzenean Nafarroako Arartekoaren bulegoan aurkeztutako kexak daude (% 37,7), eta, ondoren, posta arruntaren bidez aurkeztutakoak (% 11).

10. Kudeatutako kexei erreparatuta, Nafarroako Arartekoak kexen % 85,5 izapidetzea onartu du, herritarrek helarazitako gaiak aztertzeke. Gainera, 74 kexa goi-komisario parlamentarioei helarazi zaizkie, haien eskumeneko gaiak zirelako: 67 Espainiako Arartekoari, bi Euskadiko Arartekoari eta bana autonomia-erkidego hauetako arartekoei: Andaluziako Defensor del Pueblo, Kanarietako Diputado del Común,

Gaztela eta Leongo Procurador del Común, Kataluniako Síndic de Greuges eta Galiziako Valedora do Pobo.

Eskaera onartu eta gero, erakundeak administrazioei buruzko 787 ikerketa egin ditu.

Ikerketak egin eta gero, Nafarroako Arartekoak 566 espedientetan (hau da, ikertutako kexa-espedienteen % 71,9) kexaren egileek arrazoi osoa edo partziala zutela ikusi du.

11. Kexen harira, Nafarroako Arartekoak 380 ebazpen egin ditu: 228 gomendio (% 47,1), 135 iradokizun (% 27,9), horietako 33 normatiboak, eta 121 lege betebeharren gogorarazpen (% 25).

Gaika, hezkuntza da gomendio, gogorarazpen eta iradokizun gehien egitea eragin duen gaia (49 ebazpen). Atzetik ditu honako hauek, ordenan: funtzio publikoa eta gizarte-ongizatea (40 eta 39 ebazpen, hurrenez hurren), ingurumena eta enplegu publikora heltzea (33 ebazpen). Etxebizitza da beste gai azpimarragarri bat, ogasunaren, hirigintzaren eta osasunaren aurretik.

12. Nafarroako Arartekoaren kexa-jarduketek % 61,4ko onarpen-maila izan dute administrazio publikoetan. Portzentaje horretan sartzen dira, batetik, ikerketa egin eta gero onartutako ebazpenak, eta, beste alde batetik, administrazioak zuzendu dituen kasuak Arartekoak ebazpena egin baino lehen, hau da, erakundearen esku-hartze baten bidez herritarraren arazoa konpondu denean informazio-eskaera baten hasierako fasean.

13. Hona hemen kasu zehatzen batean Nafarroako Arartekoa erakundearekiko lankidetzeta-betebeharra guztiz bete ez duten administrazio publikoak: Garapen Ekonomikoko Departamentua, Aranguren Ibarreko Udala, Artaxoako Udala, Biurrun-Olkozteko Udala, Cascanteko Udala, Ziritzako Udala, Corellako Udala, Dicastilloko Udala, Eslaba, Sarda eta Lergako Udalak, Uharteko Udala, Los Arcoseko Udala, Iruñeko Udala, Erromantzatuko Udala, Tuterako Udala, Uxueko Udala, Atarrabiako Udala eta Azantzako Kontzejua.

1. kapitulua

sarrera

14. 2017an zehar, erakundeak 23 **ofiziozko jarduketa** abiarazi zituen eta guztira 28 kudeatu zituen; izan ere, 2016an abiarazitako bost amaitu gabe zeuden 2016ko abenduaren 31n.

Nafarroako Arartekoaren ustez hasierako fasean ikerketa bat edo erakundearen jarrera-hartze bat behar duten gertakariak dira, Nafarroako administrazioari edo Parlamentuari egindako iradokizun baten bidez edo Espainiako Arartekoari —haren eskumenen eremuan— jarduketa-eskaera bat eginez.

Ofiziozko 23 jarduketetatik sei **gizarte-ongizateari** buruzkoak ziren. Horien artean gai hauei buruzkoak dira aipagarrienak: alargun-pentsioen eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko parekotasunik eza, mendekotasuna duten pertsonentzako bizitoki-plazen gabezia, familien aldeko kotizaziopeko pentsioetarako alde zurrerako kenkari fiskala, mendekotasunagatiko laguntzen ondore-data eta errenta bermatuaren aurrerakinak Elizbarrutiko Caritasen eskutik.

Ofiziozko bost jarduketa osasunari buruzkoak izan dira: Nafarroako Ospitale Guneko larrialdi-zerbitzuaren egoera, errenta baxuko pertsonen botikak ordaintzeko dituzten ezintasun eta zailtasunak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Argibide Fundazioaren arteko kontratuaren iraungipena, ludopatia duten pertsonentzako arreta eta Nafarroako osasun-zerbitzu publikoak osasun-arreta unibertsala ematen jarraitzeko beharra.

Ogasunaren gaian ofiziozko lau jarduketa gauzatu dira: bat legezko epemuga amaitzearen ondoriozko zerga-espeditenteen iraungipenari buruzkoa; beste bat gainbalioen gaineko zergaren aldaketari buruzkoa; beste bat Aurrekontu Egonkortasunaren Lege Organikoak udalerrien jardueran izango dituen eragin murriztaile eta kaltegarriari buruzkoa; eta azkena desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak zirkulazioko zerga ordaintzetik salbuesteari buruzkoa.

Beste bi jarduketa **herritarren segurtasunari** buruzkoak izan dira: bat Iruñean gertatutako eraso

homofobo bati buruzkoa; eta beste bat Nafarroako Foru Komunitateak zigor-arloan dituen eskumenak onartzeari buruzkoa.

Gainerako ofiziozko jarduketak gai hauei buruzkoak izan dira:

- Udan liburutegiak irekitzeko ordutegia.
- Arartekoek Europako asilo- eta babes-eskatzaileri eragiten dien krisi humanitarioaren aurrean eginiko adierazpena.
- Nafarroako udaltzainen ordainketa-araubidea.
- Alloko ingurabidearen arriskugarritasuna.
- Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektuan jasota zetorren Nafarroako Polizien Jardunbide Egokien eta Gardentasunaren Batzordea sortzeak ekarriko lukeen bi-koiztasuna.
- Berralokatutako geletan bizi diren familien egoera.

15. Kudeatutako ofiziozko 28 jarduketetan, 17 ebazpen eman ziren, zegozkien gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenekin batera.

Hiru jarduketatan, detektatutako egoera Espainiako Arartekoari jakinarazi zaio, ebazpenik eman gabe, kasua haren eskumenekoa dela iritzita. Hiru kasu horietako bat Europako Arartekoari ere jakinarazi zitzaion.

Beste bost jarduketatan, administrazioaren erantzuna jaso da ikerketaren jakinarazpena egin ostean, eta zuzenean onartutzat jo dira edo konpontzeko bidean daude.

Beste bi kasutan, Administrazioetik jasotako informazioa aztertu ondoren, ez zen beharrezkotzat jo ebazpena adieraztea edo neurri berriak hartzea.

Ofiziozko jarduketa bat izapidetze-prozesuan dago oraindik, eta, horrenbestez, itxi gabe dago.

Ebatzitako 17 ofiziozko jarduketetan (2017ko 12, gehi 2016an hasi baina amaitu gabeko bost), 3 gomendio, 13 iradokizun, 9 iradokizun normatibo eta legezko betebeharren gogorazpen bat eman ziren. Horietatik 2 gomendio, 1 iradokizun eta gogorazpena 2016an abiarazitako ofiziozko jarduketei dagozkie.

Kudeatu eta ebatzi diren 17 ofiziozko jarduketa horietatik 7 onartu eta 10 ukatu zituzten administrazio publiko hartzaileek. Horrenbestez, Nafarroako Arartekoak ofiziozko jarduketei lotuta emandako ebazpenen onarpen-maila % 41,18koa izan zen.

16. Aurreko urteetan bezala, erakundeak **haurrek eta nerabeek Nafarroan duten egoera** balioetsi du. Ez da balorazio orokor edo soziologiko bat; haurrek eta nerabeek Nafarroan duten egoera egiaztatu nahi da Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak administrazio publikoei agintzen diena betez.

Bildutako datuek agerian uzten dute 2017an, oro har, ugaritu egin dela adingabeen babeserako sistemaren jarduera, aurreko urteko txostenean jasotako joera berretsiz. Sistema horren bidez adingabe gehiagori eman zaie arreta (1.705 adingabe 2017an, 1.446 adingabe 2016an, 1.413 adingabe 2015ean eta 2014an, 1.267 adingabe 2013an eta 1.206 adingabe 2012an). Ikus daitekeenez, kopuruak gora egin du azken urteetan. Zehazki, gorakadak ikusi dira babesik gabe eta tutoretzapean dauden adingabeen kopuruetan (253 adingabe 2016an eta 347 adingabe 2017an), gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeen kopuruetan (728 adingabe 2016an eta 815 adingabe 2017an) eta barneratze-araubideko erreforma-sistemari loturiko adingabeetan (39 adingabe 2016an eta 44 adingabe 2017an).

Ikusi da duela gutxi onetsi dela Familiari, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko II. Plana; aurreko urteko

txostenean aipatu izan da tresna hori. Era berean, egiaztatu da bai plan horretan bai abian jarritako jarduketa-ildoetan garrantzia eman zaiola arrisku-egoeren hasierako faseetan esku hartzeari; horrek, epe ertainera, indartsuago esku hartzeko beharra murriz dezake, kaltetuengan trauma gutxiago sorraraziz.

Bestetik, aurreko urteetan egoitza- edo erakunde-modalitatea baino familia-harrera modalitatea nahiago izateari balioa emateko ikusi diren zailtasunak berretsi dira. Dena den, 2017an, aurreko ekitaldiarekin alderatutako, familia-harreraren portzentajeak gora egin du pixka bat (% 45,7tik % 46,3ra).

Hori dela eta, erakundeak, aurreko ekitaldietan egin bezala, zenbait iradokizun orokor egiten ditu, nagusiki adingabeen babes-sistemak dituen baliabideak ebaluatzeko eta sistema horri baliabideak modu egokian emateko, arlo horretan diharduten agenteen arteko koordinazioa hobetzeko eta haien prebentzio-lana indartzeko, babesgabetasunaren hasierako faseetan esku-hartze publikoak nola jokatu behar duen adierazteko, eta instituzionalizazio-kasuen kopurua murrizteko.

17. 2008. urtetik, erakundeak herritarren parte-hartzea sustatzen du zerbitzu publikoen hobekuntzan. Arartekoak zerbitzu horiek **hobetzeko proposamenak** aurkeztera animatzen ditu herritarrak, eta, zenbait kasutan, araua aldatzeko proposamen bilakatzen dira proposamen horiek.

Herritarren proposamen horiek administrazio publiko eskudunari edo Espainiako Arartekoari —Estatuaren eskumenekoak baldin badira— helarazten dizkio erakundeak, eta, arrazoizkotzat jotzen baditu, erakunde horien aurrean defendatzen ditu.

Horrela, 2008tik herritarrek 306 hobekuntza-proposamen aurkeztu dituzte. Horietatik, **sei** proposamen 2017. urtekoak dira.

2017an herritarrek honako proposamen hauek egin dituzte, besteak beste:

1. kapitulua

sarrera

- Adingabe goiztiar handiak (32 aste baino gutxiagoko haurdunaldia) eta muturreko goiztiarrrak (28 aste baino gutxiagoko haurdunaldia) eskolatzeko aukera balora dadila, beren adin zuzenduarekin (jaiotzeko aurreikusten zitzaien data) bat etorritz.
- Beken egungo sistema egunera dadila. Hala, proposatzen dute Hezkuntza Ministerioaren beka ez dadila kendu Nafarroako Gobernuaren bekaren zenbatekotik, kendu dadila 60 kreditutan matrikulatzeko eskakizuna, areagotu daitezela bi seme-alaba edo gehiago nahitaezko ikasketen ondorengo ikasketak egiten dauzkaten familientzako beka, beka jasotzeko gehieneko adina atzera dadila 23 urtetik 30era, eta ikasle onenentzako bikaintasun akademikoko beken aldeko apustua egin dadila.
- Jaioberriak identifikatzeko metodoa alda dadila.
- Jokorako eta kirol-apustueterako makinaren erabilaren kontrola areagotu dadila.
- Langileak aukeratzeko prozedurak hobetu daitezela, bereziki desgaituekin zerikusia duten lanpostueterako.
- Nafarroako hainbat administrazio publikok kudeatutako datu-baseak eguneratzeko prozesuak hobetu daitezela.

Kudeatutako bederatzi proposamenetatik (2017an aurkeztutako seiak eta 2016tik ebazteke dauden hirurak) zazpi Nafarroako administrazio publikoen aurrean izapidetu ziren, bat Espainiako Arartekoari jakinarazi zitzaion eta beste bat ez zitzaion inolako administrazioari helarazi, ez zeukalako asmo zehatzik.

Proposamena administrazioari helarazi zitzaion zazpi kasuetatik bitan, administrazioak onartu egin zituen proposamenak. Beste kasu batean, Nafarroako Foru

Komunitateko administrazioak ez zuen onartu proposamena, eta beste batean, erakundeak aztertu ondoren, ez zen eskubiderik urratu zela uste izan.

Gainerako hiru kasuetan, Nafarroako Arartekoak proposamenaren aldeko ebazpena eman zuen, eta administrazioek bi ez zituzten onartu eta bat bai.

18. 2017an, erakundearen Herritarrentzako Arreta Bulegoak herritarren **1.231 kontsulta** jaso eta erantzun ditu.

Herritarren zuzeneko zerbitzura jarritako funtzio-arlo bat da, hala nola erakundearekin harreman pertsonala errazteko, herritarrentzat kexak aurkeztea errazagoa izateko edo herritarrek beren eskubideak hobeto nola erabili jakiteko egiten dituzten kontsultak errazteko.

Gizarte-ongizateari buruzko kontsultak gailendu dira. Herritarrek honako gai hauei buruzko kontsultak egin dituzte: adingabeen babesari buruzkoak, errenta bermatuari buruzkoak, hirugarren adinekoentzako arretari buruzkoak eta desgaitasunei buruzkoak.

Bigarren lekuan, **hezkuntzaren** arloari buruzko kontsultak daude, eta gai hauei buruzko kontsultak egin dira nagusiki: hezkuntza-administrazioak ikastetxeetara eta haur-eskoletara sartzeko aplikatzen dituen irizpideei buruzkoak, beken eta laguntzen sarbideari nahiz ukapenei edo itzultzei buruzkoak, eskola-aldi jarraitua ezartzeari buruzkoak eta premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko arretari buruzkoak.

Hirugarren lekuan, **osasunaren** arloari buruzko kontsultak daude. Kontsulta gehienak jasotako zerbitzu medikoari eta osasun-arretaren atzerapenei buruzkoak eta itxaron-zerrendei buruzkoak dira.

Halaber, hainbat kontsulta egin dira honako gai hauei buruz (ordenan daude, kontsulta gehien izan dituztenetatik gutxien izan dituztena): hirigintza, etxebizitza, ogasuna, kontsumoa, justizia, ingurumena, funtzio publikoa eta herritarren segurtasuna.

19. 2017an, **bi txosten monografiko** egin dira:

- Bata Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak eskatua, Eremu Mistoa uzteko eta bertan sartzeko udal-ekimenek herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ote dituzten jasotzen duena, baita Euskarari buruzko Foru Legearen eta Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren helburuekin bat ote da-tozen ere.
- Bestea Hezkuntza Departamentuak eskatua, irakasleen kidegoetara sartzeko hautaketa-prozesuetan zerrenda integratuaren sistema edo espezialitatearen eta hizkuntzaren araberrako bereizketarik gabeko zerrenda bakararen sistema erabiltzeari buruzkoa.

20. Bestetik, Nafarroako Arartekoak **bost** aldiz hitz egin du Nafarroako Parlamentuan. Hauek izan dira horretarako arrazoiak:

- Nafarroako Foru Berria berrikusteko eta eguneratzeko Nafarroako Parlamentuaren Txostenen parte hartzea.
- Tuterako Compañía de María ikastetxean hamabost haur ez onartzeari buruzko Foru Araubideko Batzordean hitz egitea.
- 2015ean onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.
- 2016ko urteko txostenaren laburpena ahoz aurkeztea Foru Araubideko Batzordean.
- 2016ko urteko txostenaren laburpena ahoz aurkeztea Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran.

21. Azkenik, 2017ko martxoaren 13an **Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua** eratu zen, apirilaren 28ko 5/2016 Legeak (ekainaren 21eko 11/2012 Foru

Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa, aldatzen duena) sortutako organo independentea. Horren xedea da publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zaintzea eta herritarren informazio publikoa jasotzeko duten eskubidea bermatzea.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 73. artikulua ezartzen du Kontseiluaren osaera, eta bertako kideetako bat da, hain zuzen, Nafarroako Arartekoaren ordezkari bat.

2017an, Arartekoak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren **bederatzi bilkuratan** hartu du parte, eta Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak hartutako **sei akordiotan aritu da txostengile gisa**: bost txostenen proposatu zuen herritarrek informazio publikoa eskuratzea ukatu zitzaielako jarritako erreklamazioak ebatzea, eta beste batean Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onaren Foru Legearen aurreproiektuaren txostenaren testua proposatu zuen (Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eskatua).

2. kapitulua

kexak

2.1 DATU OROKORRAK.

Hauek dira Nafarroako Arartekoa erakundeak 2017an kudeatutako kexei buruzko datuak:

1. **Guztira**, 921 **kexa aurkeztu dira**.


2. **Guztira**, 1.121 **kexa-espediente kudeatu** dira. Kopuru horrek esan nahi du, urteko 921 kexa horiez gain, aurreko urteetako beste 200 kexa izapidetu direla, dela aurreko urtetik ixteko geratu direlako, dela herritarrek eskatuta berriz ere ireki direlako.

	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007
Aurkeztutako kexen kopurua	921	830	1.546	2.742	954	1.298	850	929	901	647	447
Kudeatutako kexen kopurua	1.121	989	972	1.045	1.168	1.510	1.042	1.151	1.069	779	656

3. 2017ko abenduaren 31n, 980 kexa-espediente **ebatzita** zeuden; hau da, kudeatutakoen % 87,4. Horrenbestez, data horretan 141 kexa-espediente zeuden ebatzteke.

4. **Kexak aurkezteko erabilitako bitartekoei** dagokienez, bitarteko telematikoak izan dira erabilienak (% 51,2): posta elektronikoa nahiz erakundearen webguneko formularioak. Bigarren lekuan, zuzenean Nafarroako Arartekoaren bulegoan aurkeztutako kexak daude (% 37,7), eta, ondoren, posta arruntaren bidez aurkeztutakoak (% 11).

Kexak aurkezteko modua



5. Kexak aurkeztu dituzten pertsonen edo kexen atzean dauden pertsonen guztizko kopurua 6.150 pertsonakoa da, kontuan izan gabe kexak aurkeztu dituzten izaera sozialeko, ingurumenaren arloko edo beste gisa batzuetako erakundeek zenbat pertsona ordezkatzan dituzten.

Logikoa denez, beti ez da berdina izaten kexen kopurua eta beren eskubideak eta askatasun publikoak babesteko Nafarroako Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten herritarren kopurua. Kexak aurkezten dituzten herritarren kopurua kexa-kopurua baino handiagoa da.

6. Hauek izan dira kexa-espeditenteak izapidetzeko batez besteko epeak:

IZAPIDETZE-DENBORAK (EGUNETAN)	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	
Hasieratik herritarrak hartze-agiria laso duen arte		1,0	1,1	1,3	1,7	1,5	1,9	1,6	1,6	1,8	1,2	2,2
Hasieratik kexa izapidetzeko onartu den arte		4,9	5,0	7,2	6,7	6,1	8,3	7,8	8,3	11,4	9,2	22,4
Hasieratik kexa itxi den arte		88,1	80,3	89,3	77,4	83,2	60,2	82,2	70,5	74,4	66,8	137,0

2.2. KEXAK HARTU DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK.

Hauek dira 2017an kexak hartu dituzten administrazio publikoak:

KEXEN BIDEZ GAITZETZITAKO EDO ERAKUNDEPUBLIKOAK	KEXA Kop.	%
Foru Administrazioa	496	%53,9
Toki Administrazioa	247	%26,8
Foru eta Toki Administrazioa (*)	30	%3,3
Estatuko Administrazioa	87	%9,4
Administrazioz kanpoko erakunde probatuak	22	%2,4
Autonomia erkidegoetako eta nazioarteko administrazioa	9	%1,0
Administrazio Judiziala	8	%0,9
Nafarroako Unibersitate Publikoa	3	%0,3
Kirol-federazioak	3	%0,3
Nafarroako Parlamentua	1	%0,1
Lanbide Elkargoak	1	%0,1
Besterik / Beste batzuk	14	%1,5
GUZTIRA	830	%100,0

(*) Foru Komunitateko Administrazioari eta tokiko erakunderen bati aldi berean eragiten dieten kexak dira.

2. kapitulua

kexak

2017an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutakoak ziren, bai eta haren erakunde publikoen eta haren sozietate publikoen jardunarekin lotutakoak ere. 496 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 53,9.

Toki-entitateen eta haien menpeko enteen jardunari buruz, berriz, 247 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 26,8.

Hogeita hamar kexa Foru Komunitateko administrazioaren eta toki-erakunderen baten jardunari buruzkoak izan ziren.

87 kexa Estatuko administrazioen jardunari buruzkoak izan ziren (guztizkoaren % 9,4).

Administrazioz kanpoko erakunde pribatuei buruzko kexak 22 izan ziren (% 2,4): banketxe, finka-administratzaile eta enpresa pribatuei zuzenduak.

Bederatzi kexa aurkeztu ziren beste zenbait autonomia-erkidegotako administrazioen jardunari buruz (% 1): hiru, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari buruzkoak; bi, Kataluniako administrazioari buruzkoak; eta bat, Andaluziako, Kanarietako, Gaztela eta Leon eta Galiziako administrazioei buruzkoa.


Administrazio judizialari buruz, berriz, zortzi kexa (% 0,9) aurkeztu ziren.

Hiru kexatan, kexaren hartzailea Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan zen (% 0,3).

Hiru kexa zuzendu ziren kirol-federazioen aurka (% 0,3).

Nafarroako Parlamentuaren jarduketara delatuta, kexa bat aurkeztu zen (% 0,1).

Kexak sorrazari dituzten administrazio publikoak



Elkargo profesionalen jarduketarekin lotutako kexa bat aurkeztu zen (% 0,1); zehazki, Iruñeko Abokatuen Elkargoari buruzkoa.

Azkenik, hamalau kexatan ez zen administrazio jakin bat aipatzen edo, bestela, erakunde pribatuei buruzkoak ziren.

Honako hau izan zen **Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentuen** jarduketarekin lotuta aurkeztutako kexen kopurua, haien gaia zein den alde batera utzita:

DEPARTAMENTUAK	Kexa kop.	%
Hezkuntza	153	%29,8
Eskubide Sozialak	97	%18,9
Osasuna	82	%16,0
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	70	%13,6
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	34	%6,6
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	30	%5,8
Ogasuna eta Finantza Politika	30	%5,8
Garapen Ekonomikoa	14	%2,7
Kultura, Kirola eta Gazteria	4	%0,8
GUZTIRA	514	%100,0

Departamentuei zuzendutako 514 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki-erakunderen bati zuzendutako 18 kexa ere sartu dira.

Halaber, badira 53 kexa Nafarroako Gobernuaren zenbait departamenturi aldi berean eragiten dietenak; kexa batek departamentu bati eta Justizia Administrazioari eragiten die aldi berean, 3 kexak departamentu bati edo gehiagori eta Espainiako Arartekoari aldi berean, eta beste batek bi departamenturi eta Nafarroako Medikuen Elkargo Ofizialari aldi berean.

Toki-erakundeen arabera, lau kexa baino gehiago jaso zituzten Iruñeko Udalak (72 kexa), Burlatakoak (9), Eguesibarkoak (8), Lizarrakoak (7) eta Zizur Zendeakoak (5). Lau kexa jaso zituzten Antsoaingo, Berriobeitiko, Uharteko, Erriberriko, Orkoiengo, Tafallako, Tuterako, Aranguren Ibarreko eta Atarrabiako udalek.

Bederatzi kexa aurkeztu ziren kontzejuen jarduketa eta kudeaketari buruz; bakoitzak kontzeju desberdin batekin zuen lotura.

Mankomunitateen jarduketak 16 kexa eragin zituen. Iruñerriko Mankomunitatea izan zen kexa gehien jaso zituena (6 kexa).

Xehetasun gehiago izateko, hona hemen tokiko erakundeei eragiten dieten kexei buruzko datuak:

2. kapitulua

kexak

Udalak	
Ablitas	2
Adios	2
Altsasu	3
Andosilla	2
Antsoain	4
Agoitz	2
Aranguren Ibarra	4
Arguedas	1
Artajona	3
Atetz	3
Azagra	2
Bakaiku	1
Barañain	2
Barillas	1
Basaburua	1
Baztan	1
Beire	2
Bera	1
Beriain	1
Berriobeiti	4
Berriozar	4
Bertizarana	2
Biurrun-Olkotz	2
Buñuel	1
Burlata	9
Cabanillas	1
Carcastillo	1
Cascante	3
Castejón	1
Zizur Zendea	5
Corella	3
Cortes	2
Desojo	1
Dicastillo	1
Aberin	1
Iguzkitza	1
Lizarra	7
Esteribar	2
Galar	1
Gofi	1
Uharte	4

Laboplación-Meano	1
Larraga	1
Leitza	3
Lizoain-Arriasgoiti	2
Los Arcos	1
Irunberri	3
Mendavia	3
Murillo el Fruto	1
Noain (Elortzibar) 3	
Obanos	1
Otsagabia	1
Erriberri	4
Orkoien	4
Iruña	72
Pueyo	1
San Adrián	2
Zangoza	2
Sorlada	1
Tafalla	4
Torres del Río	1
Tutera	4
Ultzama	1
Urrotz	3
Uterga	1
Eguesibar	8
Valtierra	1
Bidankoze	1
Atarrabia	4
Zizur Nagusia	3
GUZTIRA	232

Kontzejak	
Arraitz-Orkingo Kontzejua	1
Beratsaingo Kontzejua	1
Beuntzako Kontzejua	1
Figarolgo Kontzejua	1
Galbarrako Kontzejua	1
Gelbentzuko Kontzejua	1
Latasako Kontzejua	1
Radako Kontzejua	1
Urdaizko Kontzejua	1
GUZTIRA	9

MANKOMUNITATEAK

Moncayoko Ur Mankomunitatea	3
Iruñerriko Mankomunitatea	6
Erriberako Mankomunitatea	1
Sakanako Mankomunitatea	1
Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea	2
Noaingo Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	1
Erriberriko Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	1
Iratiko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea	1
GUZTIRA	16

GUZTIRA**257**

257 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eta toki-erakunderen bati zuzendutako 12 kexa ere sartu dira. Kexa horietan, Nafarroako toki-erakunde bati baino gehiagori aldi berean eragiten dieten 7 kexa daude.


Horrez gain, oro har Nafarroako toki-erakundeei buruz aurkeztutako bi kexa gehitu behar dira, toki-erakunde zehatz bat adierazi gabe eginak.

2.3. ONARTUTAKO KEXAK.

Nafarroako Arartekoak 958 kexa onartu zituen, haien izapidetzea ahalbidetzeko; hau da, guztira kudeatutako 1.121 kexa-espeditenteen % 85,5.

Kexa horietan, Nafarroako Arartekoak bere iritzia eman du herritarrek azaldutako sakoneko gaiari buruz. Iritzi horren bitartez erantzun zehatza eman du aurkeztutako gaiari buruz.

Kexa bat ez-onartutzat jo aurretik, foru-erakunde honek daukan izaera formalismoen aurkako dela-eta, herritarrei, izapidetzea ahalbidetzeko, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak eskaintzen dituen aukera guztiak ematen zaizkie. Hala ere, zenbait kasutan (kudeatutako espeditenteen % 7,9), nahiz eta ahalegin handiak egin diren, ez da posible izan herritarrek adierazitako gertaerei buruzko ikerketarik irekitzea.



2. kapitulua

kexak

Ez-onartzeko arrazoi nagusiak hauek dira:

- Nafarroako Arartekoak eskari horiek izapidetzeko eskumenik ez duela iriztea (24 kasu).
- A limine irregulartasunik ez ikustea (18 kasu).
- Aurretik administrazio eskudunari egin beharreko eskaria egitera joan gabe, zuzenean Nafarroako Arartekoarengana jotzea (11 egoera).
- Herritarrek aurkeztutako kexatan atzera egitea (7 kasu).
- Aurretik jorratutako eta amaitzat jotako gai bat errepikatzea (6 egoera).
- Kexa jada bide judizialean dauden gai buruzkoa izatea (5 kasu).
- Izaera juridiko-pribatuko gaiak izatea (5 egoera).
- Xede zehatzak ez daudela iriztea (3 gai).
- Herritarrek legitimoki ez dagozkien gaiak planteatzea (3 kasu).
- Hirugarrenei kaltea eragin zaiela iriztea (2 kasu).
- Kexa bat aurkezteko Foru Legeak ezartzen duen urtebeteko epea gainditzea (2 kasu).
- Kexa anonimotzat jotzea, kexa aurkezten duen pertsona ez denean modu egokian identifikatu (1 kasu).
- Herritarrek erakundeak eskatzen dituen datuak eta informazioa ez helaraztea (1 kasu).
- Bikoiztasuna egotea; hau da, aurretiaz pertsona berak gai berari buruzko kexa aurkeztea (1 kasu).

Kasu askotan, herritarrei pertsonalki aholkatzen zaie jakin dezaten zer beste bide erabil ditzaketen beren eskubideak defendatzeko, dagokion instantzian; eta informazioa eskaintzen zaie zer baldintza bete behar dituzten jakiteko.

2.4. ESPAINIAKO ARARTEKOARI EDO BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTTSARAKO GOI-KOMISARIO PARLAMENTARIOEI BIDALITAKO KEXAK.

2017an aurkeztu diren 921 kexetatik 74 beste autonomia-erkidegoetako goi-komisario parlamentarioei bidali zaizkie, haien eskumenekoak direla iritzita.

Espainiako Arartekoari 67 kexa bidali zaizkio, estatu-mailako eskumeneko gai buruzkoak zirelako.

Gainerako zazpi kexetatik, bi Euskadiko Arartekoari igorri zaizkio, eta bat honako erkidego-mailako arartekoei: Andaluziako Defensor del Pueblo, Kanarietako Diputado del Común, Gaztela eta Leongo Procurador del Común, Kataluniako Síndic de Greuges eta Galiziako Valedora do Pobo.


Kasu horietan, erakundeak etengabeko harremana du bai komisario parlamentario horiekin, bai kexa aurkeztu duten pertsonekin, azken horiei dokumentazioa bidaltzea eta hartzea edo, beharrezko izango balute, aholkularitza jasotzea errazteko.

2.5. IKERTUTAKO KEXAK. IKERKETEN EMAITZA.

Onartutako 958 kexa-espedienteen ondorioz, Nafarroako Arartekoak 787 ikerketa egin ditu (guztira onartutako espedienteen % 82,2).

92 espedientetan, herritarren mahaigaineratutako gaia ikerketa abiarazi behar izan gabe ebatzi zen; alegia, hasierako fasean artatu ziren. Era berean, 958 espediente horietatik 79 espediente izapidetzeko zeuden abenduaren 31ean.


Expedientes de queja admitidos (958)



Ikerketa egin eta gero:

- Nafarroako Arartekoak ebatzi du eskatzaileek arrazoi osoa edo partziala dutela 380 kexa-espedientetan.
- Beste 186 kexa-espedientetan, Nafarroako Arartekoak egindako esku-hartzearen ondorioz, kexan planteatutako gaiak ebazpen bidean jarri dira edo administrazioek kexen egileen eskaera onartu dute, ebazpenik emateko beharrik gabe.
- 105 kexa-espedientetan, Nafarroako Arartekoak ez zuen beharrezkotzat jo Administrazioari iradokizun, gomendio nahiz legezko betebeharren gogorarazpenik egitea. Horrelako kasuetan, Administrazioari entzun ondoren eta sakoneko gaiak xeheki aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak kexak aurkeztu zituzten herritarrei informazioa eta aholkua eman die antolamendu juridikoaren arabera eskubideen urratzerik ez atzemateko arrazoiei buruz.
- 116 kexa-espediente bukatutzat jo dira kexa-egileek atzera egin dutelako, Nafarroako Arartekoaren eskumenetik kanpokoak direla ikusi delako, lehenago landu eta amaitutzat jotako

Investigaciones (787)



2. kapitulua

kexak

gaiak errepikatu direlako edo Arartekoaren esku-hartzea amaiarazi duten beste arrazoi batzuk egon direlako.

Ikus daitekeen bezala, dela ikerketa ondoren Nafarroako Arartekoak kexa-egileen eskaerekin aurrera egiteko arrazoiak badirela erabaki duelako (380 kasu), dela Administrazioarekin izandako komunikazioaren ondorioz herritarrari bere eskaera asebetetzea lortu delako (186 kasu), herritarren 566 kexa aintzat hartuta geratu ziren, guztiz edo partzialki; alegia, ikertutako 787 kexa-espeditenteen % 71,9.

2.6. KEXEN ONDORIOZ EMANDAKO EBAZPENAK.

Nafarroako Arartekoak, ikerketa egin ostean, eskatzaileak arrazoi osoa edo partziala duela ikusi du 380 kexa-espeditentetan, eta, hori dela eta, 380 ebazpen eman ditu, era berean, 484 gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpen barne hartzen dituztenak.

Jakina den bezala, ebazpen batek zenbait gomendio, iradokizun eta gogorazpen barne hartu ditzake, ikerketaren emaitzek eskatzen dutenaren arabera.

Emandako ebazpen gehienen laburpen bat -bakoitzak zer espediente dagokion adierazita duela- hemen dago:

- Txosten honetako VI. kapituluan.
- Nafarroako Arartekoaren webgunean, haren funtsezko edukirako sarbidea dago <http://www.defensornavarra.com> helbidean, 2017. urteari dagokion epigrafean.

Ondoko taulan, egindako gomendioen, legezko betebeharren gogorazpenen eta iradokizunen kopurua azaltzen dugu, gaien arabera banatuta:

Arloa	Ebazpenen kop.	Gomendioa.	Legezko. betebeharren iradokizun gogorazpena	Iradokizun normala	GUZTIRA 2017	
Hezkuntza	49	24	6	21	7	58
Funtzio publikoa	40	24	16	7	5	52
Gizarte-ongizatea	39	23	12	14	0	49
Enplegu publikora heltzea	33	24	11	6	4	45
Ingurumena	33	27	15	0	3	45
Etxebizitza	24	8	0	21	1	30
Ogasuna	24	11	7	4	7	29
Hirigintza	22	18	6	1	0	25
Osasuna	20	10	5	5	1	21
Zirkulazioa	13	9	3	3	1	16
Zerbitzu publikoak	12	5	4	7	1	17

Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	9	7	5	2	0	14
Herri-lanak	9	10	3	0	0	13
Herritarren segurtasuna	8	4	8	1	0	13
Administrazio publikoen ondasunak	6	4	4	0	0	8
Gardentasuna	6	5	1	2	0	8
Kirola	5	2	3	1	1	7
Toki-entitateen funtzionamendua	5	2	2	2	0	6
Euskara	5	1	2	1	1	5
Lana	4	1	1	2	1	5
Nekazaritza	4	3	0	1	0	4
Datu pertsonalen babesa	3	3	2	0	0	5
Justizia	2	1	1	0	0	2
Oroimen historikoa	2	2	0	0	0	2
Kontsumoa	1	0	1	1	0	2
Energia	1	0	2	0	0	2
Kultura	1	0	1	0	0	1
GUZTIRA	380	228	121	102	33	484

Taulak adierazten du administrazioetara gehien zuzentzen direnak gomendioak direla, administrazioek jokabide jakin bat har dezaten: 228 gomendio eman dira (gomendio, gogorarazpen eta iradokizun guztien % 47,1).

Horien atzetik iradokizunak daude (135; % 27,9); horietako 33 normatiboak izan dira.

Legezko betebeharren 121 gogorarazpen egin dira (% 25).

Hala, erakundeak, bere iradokizun eta gomendioekin, izaera proaktiboa izan du administrazioari zuzendu zaion hamar alditatik zazpitan. Kasuen % 25etan, legezko betebeharrak gogorarazi dizkie kaltetutako administrazioei.

Gaika, hezkuntza da egindako gomendio, gogorarazpen eta iradokizun gehien biltzen dituen. Atzetik ditu hauek, ordena honetan: funtzio publikoa, gizarte-ongizatea, ingurumena eta enplegu publikora heltzea. Ogasuna da nabarmendutako beste gaietako bat, etxebizitzaren, hirigintzaren eta osasunaren aurretik.

Erakundeak bost ebazpen edo gehiago —beren gomendio, iradokizun eta gogorarazpenekin— bidali dizkien administrazio publikoak hauek dira (gehien jaso dituenetik gutxien jaso dituenera):

- Hezkuntza Departamentua: 67 ebazpen.
- Eskubide Sozialetako Departamentua: 49 ebazpen.
- Iruñeko Udala: 49 ebazpen.
- Osasun Departamentua: 35 ebazpen.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua: 29 ebazpen.

2. kapitulua

kexak

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua: 17 ebazpen.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua: 16 ebazpen.
- Lizarrako Udala: 7 ebazpen.
- Iruñerriko Mankomunitatea: 7 ebazpen.
- Burlatako Udala: 6 ebazpen.
- Garapen Ekonomikorako Departamentua: 5 ebazpen.
- Eguesibarko Udala: 5 ebazpen.

2.7. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EBAZPENAK NORAINO ONARTU DITUZTEN.


Ebazpenak izan dituzten 380 kexa-espeditateetatik, kapitulu honen idazketa amaitzeko unean, gainbegiraturako administrazio publikoek 372ri eman zioten erantzuna (% 97,9):

- 202 kasutan, administrazioak onartu egin zuen erakundeak adierazitakoa (hots, guztizko kasuen % 53,2tan).
- Beste 167 kasutan (guztizkoaren % 43,9), atzera bota zuen proposamena.


Hiru espeditate beste kausa batzuegatik itxi ziren, administrazioaren berariazko onarpena edo ukoa behar izan gabe.

Kapitulu hau amaitzeko unean, beraz, zortzi ebazpen zeuden administrazio publikoen erantzunaren zain (guztizkoaren % 2,1).

217an emandako ebazpenak



2017an eman eta erantzundako ebazpenak




Erantzuteko geratu diren ebazpenak kontuan hartzen ez baditugu (oraindik ez dakigulako erantzuna zein izan den), administrazio publikoen onartutako ebazpenen portzentaia % 54,3koa da. Hau da, erantzuna jaso duten espedienteak —onartzeko nahiz ez onartzeko— zenbatuta, bi espedientetatik batean onartu zituzten administrazioek, batez beste, erakundeak hartutako erabakiak.

Arestian adierazi dugun bezala, maiz gertatzen da kexa-espediente beraren kariatara, dagokion administrazio publikoari gomendio, iradokizun edo gogorarazpen bat baino gehiago egitea. Alabaina, Nafarroako Ararte-

koak kexa horietako bakoitzean eginiko proposamena onartu edo ukatutzat jotzeko eta, ondorioz, txosten honetan jasotzeko eginiko ikerketaren ondorioz lortutako emaitza, aintzat hartu da neurri nagusiari dagokionez lortutako lorpena (gomendioa, iradokizuna edo legezko betebeharren gogorarazpena izan daiteke), hori onartzearekin herritarrek planteatutako gaiarentzako konponbide eraginkorra lortu delako.

Ondoren, gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen (normatiboak barne) onarpen-maila erakusten da, dagozkien kexen kopuruan oinarrituta.

Gomendioak




Gomendioen onarpen-portzentaia % 47,7koa da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

2. kapitulua

kexak


2017an eginiko legezko betebeharren gogorazpenen onarpen-portzentajea % 89,7koa.

Legezko betebeharren gogorazpenak




Iradozikunen onarpen-portzentajea % 42,7koa da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Iradozikizunak



Iradokizun normatiboak



Iradokizun normatiboen onarpen-portzentajea % 54,2koa da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Jarraian ikus daitezke 2017an emandako ebazpenen onarpen-portzentajeak, eraginpeko adminis-

trazio publiko motaren arabera berezita (Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa, Nafarroako toki-erakundeak, eta unibertsitateak, elkargo profesionalak eta beste erakunde publiko batzuk).

Ebazpena duten kexa espedienteak, 2017an emendik igorritakoak	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Beste arrazoi batzuegatik itxitakoak	Erantzuteke daudenak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan egiten duten ehunekoa	Erantzuteke daudenaren ehunekoa
Foru Komunitateko Administrazioakoa	224	106	112	2	4	%48,2-	%1,8
Toki entitateak	153	96	52	1	4	%64,4	%2,6
Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar	3	0	3	0	0	%0,0	%0,0
GUZTIRA	380	202	167	3	8	%54,3	%2,1

2016ko abenduaren 31n erantzuteke geratu ziren ebazpenen emaitza ere kontuan hartzen bada (alegia, 2017a baino lehen egindako eta urte honetan zehar erantzundako ebazpenen onarpena edo ukoa), onarpen-portzentajeak aldatu egiten dira, % 54,3tik % 51,7ra:

Ebazpena duten kexa espedienteak, 2017an erantzuna jaso dutenak	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Beste arrazoi batzuegatik itxitakoak	Erantzuteke daudenak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan egiten duten ehunekoa	Erantzuteke daudenaren ehunekoa
Foru Komunitateko Administrazioakoa	267	123	138	2	4	%47,1	%1,5
Toki entitateak	192	110	77	1	4	%58,8	%2,1
Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar	3	0	3	0	0	%0,0	%0,0
GUZTIRA	462	233	218	3	8	%51,7	%1,7

2. kapitulua

kexak

Hurrengo taulan ikus daiteke administrazio bakoitzaren onarpen-maila. Anlisi honetarako, 2017an zehar eta txosten hau idazten amaitu arte erantzundako ebazpenak izan dituzten (2017an edo lehenago emandakoak) hiru kexa-espeditente edo gehiago izan dituzten administrazio publikoen onarpen-portzentajea bakarrik jaso da. Datuak desberdinak dira 2.6 puntuaren amaieran agertzen direnetatik; izan ere, kasu horretan, administrazioei 2017an igorritako ebazpenak hartzen dira kontuan, eta epigrafe honetan, berriz, administrazioak erantzundako ebazpenak.

Administrazioak onarpen-portzentaje handienetik txikienera ordenatu dira.

2017an igorritako ebazpenak: 3 Kexa-espeditente edo gehiago dituzten Administrazioak. Kexa horiei buruzko ebazpenak 2017an eman dira	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Otros cierres	% Aceptada sobre respondidas
NAFARROAKO GOBERNUA (departamentuak)					
Kultura, Kirola eta Gazteria	6	5	1	0	%83,3
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	21	14	7	0	%66,7
Garapen Ekonomikoa	5	3	2	0	%60,0
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	34	18	15	1	%52,9
Osasuna	42	20	21	1	%47,6
Eskubide Sozialak	59	28	31	0	%47,5
Ogasuna eta Finantza Politika	18	7	11	0	%38,9
Hezkuntza	76	28	48	0	%36,8
TOKI ADMINISTRAZIOA					
Berriozar	3	3	0	0	%100,0
Urrotz	3	3	0	0	%100,0
Eguesibar	7	6	1	0	%85,7
Lizarra	7	5	2	0	%71,4
Iruñerriko Mankomunitatea	7	5	2	0	%71,4
Burlata	6	4	2	0	%66,7
Cascante	3	2	1	0	%66,7
Iruña	56	30	25	1	%53,6
Uhartea	4	1	3	0	%25,0
Erriberri	4	1	3	0	%25,0
Tutera	4	0	4	0	%0,0
Onartutako ebazpenek erantzuna eman zaien ebazpenen gutzizkoan batez beste egiten duten ehunekoa (2017. urtea) %5,17					

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan, hauek dira Nafarroako Arartekoaren ebazpen gehien onartu dituzten departamentuak, ordena honetan: Kultura, Kirola eta Gazteria; Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa; eta Garapen Ekonomikoa. Ebazpen gutxien onartu dituzten departamentuak, berriz, honako hauek dira: Hezkuntza, Ogasuna eta Finantza Politika, eta Eskubide Sozialak.

Bestetik, hauek dira Nafarroako Arartekoaren ebazpen gehien onartu dituzten toki-erakundeak: Berriozarko Udala, Urrozko Udala eta Eguesibarko Udala. Ebazpen gutxienak onartu dituztenak, berriz, Tuterako Udala, Erriberriko Udala eta Uharteko Udala.


Txosten honetako V. kapituluan jasotzen da ikuskatutako administrazio publikoak Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradokizun edo legezko betebeharren gogorazpenak onartu edo onartu ez dituen kexa-espedienteei buruzko informazioa.

2.8. KEXEN XEDEEN GUZTIZKO ONARPEN-MAILA. EFIZIENTZIA-INDIZEA.

Aurreko atalean jada adierazi den ebazpenen onarpen-mailaz gain, kontuan izan behar da kexen xedeen guztizko onarpen-maila. Lehenengoaren kasuan, administrazioaren onarpen-maila % 51,7koa da; bigarren mailak, berriz, administrazioak onartutako Nafarroako Arartekoaren ebazpenak adierazten ditu, baina soilik kexaren egileak bere xedea betetzat jotzea ekarri dutenak (erakundeak gaian esku hartzearen ondorioz). **Xedeen onarpen-maila hori % 61,4koa izan da.**

Portzentaje horren barnean sartzen dira 2017an emandako ebazpenen onarpenak eta 2016ko abenduaren 31n erantzun gabe geratu ziren ebazpenen onarpenak. Halaber, portzentaje horretan sartzen dira Arartekoak ebazpen bat eman baino lehen administrazioak bere jarduna zuzendu duen kasuak; hau da, erakundeak informazioa eskatuz soilik herritarraren arazoa konpondu duenean.

Onarpen maila



2. kapitulua

kexak

2.9. AURKEZTU DIREN KEXEN ZERRENDA ETA BANAKETA, GAIEN ARABERA.

2017an aurkeztu diren kexen kopurua beheko zerrendan ageri den moduan banatu da, gaien arabera:

Arloa	2017		KEXAK 2016		Aldea	
Hezkuntza	156	% 16,94	70	% 8,43	86	% 122,86
Funtzio publikoa	96	% 10,42	108	% 13,01	-12	% -11,11
Gizarte-ongizatea	86	% 9,34	75	% 9,04	11	% 14,67
Ingurumena	66	% 7,17	47	% 5,66	19	% 40,43
Enplegu publikora heltzea	56	% 6,08	65	% 7,83	-9	% -13,85
Osasuna	55	% 5,97	50	% 6,02	5	% 10,00
Ogasuna	48	% 5,21	46	% 5,54	2	% 4,35
Etxebizitza	35	% 3,80	33	% 3,98	2	% 6,06
Hirigintza	33	% 3,58	42	% 5,06	-9	% -21,43
Zirkulazioa	30	% 3,26	35	% 4,22	-5	% -14,29
Herritarren segurtasuna	27	% 2,93	35	% 4,22	-8	% -22,86
Lana	25	% 2,71	24	% 2,89	1	% 4,17
Justizia	23	% 2,50	32	% 3,86	-9	% -28,13
Zerbitzu publikoak	23	% 2,50	21	% 2,53	2	% 9,52
Gizarte Segurantza	22	% 2,39	24	% 2,89	-2	% -8,33
Kontsumoa	20	% 2,17	10	% 1,20	10	% 100,00
Euskara	17	% 1,85	16	% 1,93	1	% 6,25
Gardentasuna	13	% 1,41	13	% 1,57	0	% 0,00
Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	12	% 1,30	7	% 0,84	5	% 71,43
Administrazio publikoen ondasunak	11	% 1,19	7	% 0,84	4	% 57,14
Toki-entitateen funtzionamendua	11	% 1,19	11	% 1,33	0	% 0,00
Herri-lanak	11	% 1,19	11	% 1,33	0	% 0,00
Atzerritartasuna	9	% 0,98	18	% 2,17	-9	% -50,00
Kirola	8	% 0,87	8	% 0,96	0	% 0,00
Nekazaritza	7	% 0,76	7	% 0,84	0	% 0,00
Datu pertsonalen babesa	7	% 0,76	6	% 0,72	1	% 16,67
Zuzenbide zibila	3	% 0,33	1	% 0,12	2	% 200,00
Oroimen historikoa	3	% 0,33	0	% 0,00	3	% 100,00
Turismoa	3	% 0,33	1	% 0,12	2	% 200,00
Kultura	2	% 0,22	6	% 0,72	-4	% -66,67
Industria	2	% 0,22	0	% 0,00	2	% 100,00
Energia	1	% 0,11	0	% 0,00	1	% 100,00
Hauteskundeak. Hauteskunde Administrazioa	0	% 0,00	1	% 0,12	-1	% -100,00
GUZTIRA	921	100,00%	830	100,00%	91	10,96%

Beheranzko hurrenkeran, handienetik txikienera, hauek izan dira 2017an kexa gehien jaso dituzten gaiak: hezkuntza, funtzio publikoa, gizarte-ongizatea, ingurumena, enplegu publikora heltzea, osasuna, ogasuna, etxebizitza, hirigintza, trafikoa, herritarren segurtasuna eta lana.

Zerrendan ikus daitekeen bezala, kexa gehienak **hezkuntzaren** gaiarekin loturikoak izan dira. Izan ere, multzo horri dagokio kexa-kopuru osoaren % 16,94.

Funtzio publikoari buruzko kexak dira bigarren ugariak, guztizkoaren % 10,42, hain zuzen.

Hurrenkera horren arabera, hirugarren multzoa **gizarte-ongizateari** buruzko kexena da: kexa guztien % 9,34.

Hurrengo multzoan **ingurumenari** buruzko kexak ditugu; kexa horiek guztizkoaren % 7,17 dira.

Bosgarren multzoa **enplegu publikora heltzeari** buruzko kexena da. Berdintasun-baldintzetan eta merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin bat enplegu publiko bat lortu nahi duten herritarrek jarritako kexak biltzen dira multzo horretan. Guztizkoaren % 6,08 dira.

Osasunari buruzko kexek osatzen dute seigarren multzoa: guztizkoaren % 5,97.

Zazpigarren multzoa **ogasunari** buruzko kexena da; guztizkoaren % 5,21 dagokie.

Hurrengo multzoan, **etxebizitzari** buruzko kexak daude; guztizkoaren % 3,80 dira.

Bederatzigarren multzoan, **hirigintzari** buruzko kexak daude; guztizkoaren % 3,58 dagokie.

Hamargarren multzoa **trafikoari** buruzko kexena da; guztizkoaren % 3,26 dagokie.

Gainerako gaiekin loturiko kexak aurkeztutako kexa guztien % 3 baino gutxiago dira.

Herritarrek kexetan zer adierazi duten hobeto azaltzeko, gaika antolatu dira kexak, aurreko urteetako txostenetan bezala. Ez ditugu hemen aipatuko kexa horiek direla-eta erakunde honek egin dituen legezko betebeharren gogorazpenak, ezta iradokizunak eta gomendioak ere, txosten honen VI. kapituluan bilduta baitago informazio hori.

Informazio horrekin, herritarrek planteatu dituzten kezkak eta arazoak ezagutarazi nahi dira, kasu zehatz bakoitzean zegokion erakundeak nola esku hartu duen alde batera utzita.

Gaien aurkibidea alfabetikoki ordenatu da. Horrez gain, gai batzuetan gaikako multzoak osatu dira, informazioa hobeto antolatzeko. Halaber, aurkeztutako kexen kopurua ere aipatu da, arazo jakin bati buruzko kexak bat baino gehiago direnean.

2.9.1. Enplegu publikora heltzea.

Aurreko urteetako txostenetan bezala, txosten honetan ere honako hauek bereizi ditugu: a) berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan enplegu publiko bat lortu nahi duten herritarrek aurkeztu dituzten kexen multzoa; b) jada enplegatu publikoak direnek Nafarroako administrazio publikoarekiko funtzionario- eta lan-harremanen arloan aurkeztu dituzten kexen kopurua.

Epigrafe honetan lehen kexa-multzoa azaldu dugu; «Enplegu publikora heltzea» izendapena eman diogu, Konstituzioko 23. artikuluan aitortzen den oinarritzko eskubideari erreferentzia eginez; hau da, herritarrek eskubidea dutela, berdintasun-baldintzetan eta merezimendu- eta gaitasun-oinarrien arabera, funtzio publikoetara heltzeko.

2017. urtean, enplegu publikora heltzeari buruzko **56** kexa aurkeztu dira. Honako hauek dira kexak eragin zituzten gertakari nagusiak:

2. kapitulua

kexak

A) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomiadunak:

- Herritar batek kexa bat jarri du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain-postuak betetzeko hautaketari buruz: ez du ulertzen zergatik diren hain desberdinak Nafarroan hautaketarako erabiltzen diren oinarriak eta Osakidetzan baliatzen direnak. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, esperientzia duten profesionalei, autonomia-erkidego horretan inoiz lan egin ez badute ere, balorazioa ematen diete, eta lan egiteko aukera handiagoak eta lan-baldintza hobekak dituzte, Nafarroan baino; azaldu duenez, azken horretan jardun du hainbat urtetan, eta han jaso zuen prestakuntza, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. **Q17/9.**
- Tuteran bizi den herritar batek kexa bat jarri du, Lehen Hezkuntzako espezialitatean gaztelaniaz eskolak emateko irakasleen aldi baterako kontratazioerako zerrenda guztietan Hezkuntza Departamentuak "prestasunik ez" egoeran jaso duelako, Departamentuak uste izateagatik hiru enplegu-eskaintza baztertu zituela Iruñean. **Q17/39.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak aldi baterako kontratazioerako zerrendetatik kanpo utzi duelako, aldi baterako ezintasun-egoeran zegoela eskaini zen postu bati uko egin ondoren. **Q17/54.**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, azalduz ostiraletan gaueko 12etatik aurrera egiten diren deiei buruz (borondatezko deiak dira, interesa duten irakasleak eskatzen den espezialitatean eta hizkuntzan izena eman dezaten) informazioa eskatu ziola Hezkuntza Departamentuari, baina ez duela erantzunik jaso, eta horregatik eskatu du gomendatzeko departamentu horri entregatzeko eskatutako dokumentazio guztia eta argitaratzeko webgunean 12etatik aurrera egin diren izen-emateen eskabide guztiak eta egindako kontratazioak. **Q17/113.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak ez duelako aurreikusten anbulantzia medikalizatueterako postuak esleitzea mediku-zaintza intentsiboetan espezialistak direnei. **Q17/128.**
- Nafarroako zerbitzu publikoetako enplegatuaren sindikatu batek eta Nafarroako administrazio publikoetako administrarien sindikatu batek kexa bat jarri dute, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ustez irregulartasunak egin dituelako, Nafarroa-Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goimailako tituludunen postuak betetzeko egindako deialdian: goimailako tituludunen lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazioetarako hautagaien zerrendak ez egotea indarrean; goimailako tituludunen lanpostua betetzeko bi pertsona kontratatu izana psikologoaren aldi baterako kontratazioetarako hautagaien zerrendatik; deialdia mugatzea, psikologo tituludunei soilik zabalduz; eta aldi baterako kontratazioaren kudeaketa-arauak onartzen dituen Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduaren 8. artikulua urratzea. **Q17/130.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dielako uzten Fisika eta Kimika ikasgaien irakasle izateko posturako aldi baterako kontratazioerako zerrendetan aurkezten, horretarako gaitzen duen masterra lortu badu ere. **Q17/135.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako legez ezarrita-

koarekin bat egin irakasleak ez diren langileen aldi baterako kontratazioko postu hutsak esleitzeko egintzaren jakinarazpena, eta kanporatuta geratu delako, ekitaldi horretara bertaratu ez izanagatik. **Q17/165.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak administrari laguntzaileen zerrendetarako desgaitasunaren arabera lehentasunen ordena aldatu duelako, horrela deialdiaren oinarriak aldatu dituelako, eta ez zaiolako lehentasunik aitortu deialdi horretan. **Q17/175.**
- Hiru herritarrek kexa bat jarri dute, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak diskriminaziozko tratua ematen dielako Nafarroako Gobernuko Administrazio Erroko langileei, beste departamentu batzuetako (Hezkuntza eta Osasuna) langileekiko, kontrataziorako zerrendetan sartzeari eta irauteari nahiz ezarritako baremoei dagokienez. **Q17/181.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak suhiltzaile postua lortzeko egin beharreko proba fisikoen artean sartzen duelako bi metroko altueran dagoen barra batean orekari eutsiz ibiltzeko proba, irizten baitio arriskutsuegia dela hautagaien zat, bai entrenamenduak egitean bai proba egitean, eta uste baitu orekagaitasuna neurtzeko proba altuera txikiago batean egin litekeela. **Q17/222.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ustez irregulartasunak egin dituelako, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goi-mailako tituludunen postuak betetzeko egindako deialdian: goi-mailako tituludunen

lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazioetarako hautagaien zerrendak ez egotea indarrean; goi-mailako tituludunen lanpostua betetzeko zenbait pertsona kontratatu izana psikologo aldi baterako kontratazioetarako hautagaien zerrendatik; deialdia mugatzea, psikologo tituludunei soilik zabalduz; Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua, aldi baterako kontrataziorako kudeaketa-arauak onartzea, urratzea; eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren abenduaren 30eko 199/2004 Foru Agindua, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran lanpostuak betetzeko hautagaien zerrendak eratzeko eta kudeatzeko prozedura ezartzen duena, ez betetzea. **Q17/324.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak ustez irregulartasunak egin dituelako, Nafarroako Ospitalegunean administrari laguntzaile postuak betetzeko deialdietan, ez baita errespetatu zerrenda laburren lehentasun-ordena eta bere postua baino atzerago dauden pertsonen dei egiten ari direlako. Adierazi du egoera hori deskribatuz egin dituen eskabideei ez zaiela erantzun eta azalpenak eskatu ditu. **Q17/359.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak eskakizun hau ezartzen dielako Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Lanbide Heziketako irakasle izateko hautagaiei: Prestakuntza Pedagogikoko eta Didaktikoko master bat izatearen egiaztagiria aurkeztea. Azaldu duenez, horrek, kalte ekonomikoa eragiteaz gain, diskriminazio-egoera bat dakar, goi-mailako tituludunei prestakuntza pedagogikoko hirurogei ordu egin izana soilik eskatzen baitzaie. **Q17/393.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak jada ez duelako inolako lehentasunik ezartzen % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat, epe luzerako nahiz laburrerako zeladoreak kontratatzeke zerrendak osatzeko deialdietan. **Q17/407.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako deitzen Bigarren Hezkuntzako kidegoan Erlijio Katolikoko irakasle postua betetzeko, kontratazio-zerrendan lehena bada ere, eta kalte-ordaina eskatu du, Administrazioak hutsegite bat egin duelako. **Q17/440.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasun Departamentuak, langileak aldi baterako kontratatzeke irekitako zerrendak kudeatzean, ez dituelako baloratzen osasun-zentro pribatuetan emandako zerbitzuak, eta horrek berdintasunaren eta merezimenduaren printzipioak urratzen dituelako. **Q17/442.**
- Sei herritarrek eta sindikatu batek kexa bat aurkeztu dute, Hezkuntza Departamentuak ez dielako arretarik jartzen Fisioterapiako tituludunek Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoko masterrean sartzeko dituzten zailtasunei, departamentu horrek eskakizun hori jartzen badie ere Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Lanbide Heziketako irakasle izateko hautagaiei, eta ez duelako aintzat hartzen tituludun horiei prestakuntza hori egiaztatzeke epea luzatzeke aukera, edota aldi baterako kontratazioerako zerrendetatik ez kanporatzekeoa. **Q17/457, Q17/491, Q17/492, Q17/493, Q17/500, Q17/501 eta Q17/513.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dutelako ahalbidetzen enplegu publikoko deialdi jakin batzuetan eskatzen den mediku-ziurtagiri ofiziala lortzeke aukera, eta eskatu du ahalbidetzeke besteak beste Internet bidez lortzeke aukera. **Q17/559.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez duelako aplikatu desgaitasuna duten pertsonen lehentasuna, koordinazio-operadore laguntzaileen postuak betetzeko hautagaiei eskatzen zaien oinarriko prestakuntzako eta prestakuntza praktikoko ikastaroa egiteke. **Q17/582.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak 2017/2018 ikasturterako irakasleen kontratazioak esleitzeko prozedurari buruzko informazio okerra eta osatu gabea eman diolako, Fisika eta Kimika espezialitaterako deialdian lehenagoko antzeko deialdietan baino hautagai gutxiago onartu dituelako, eta bi egoera horiek direla-eta ez zaiolako esleitu espezialitate horretako postu bat. **Q17/609.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak iragarki bat jarri duelako zenbait komunikabidetan zortzi medikuntza-espezialitatetarako iraupen luzeko kontratuen eskaintza eginez, kontuan hartu gabe kontratazioerako zerrendetan badaudela ordu edo egun gutxitarako aldi baterako kontratuekin lanean ari diren pertsonak. **Q17/612.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasun Departamentuak ez diolako zenbatu, kontratazioaren ondorioetarako, Bartzelonako ospitale batean lan egindako denbora, ez administrazio publikoetan emandako zerbitzu gisa, ez osasun-zentro pribatu batean

emandako zerbitzu gisa, eta azaldu du horrek dezente jaitsi diola puntuazioa. **Q17/633.**

- Funtzionarioen sindikatu batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako erantzun 2017/2018 ikasturterako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan Pianorako Errepertorioaren Katedrarako postuen deialdia egiteko eskabideari. **Q17/638.**
- Mikrobiologia klinikoko espezialisten elkarte batek kexa bat aurkeztu du, Osasun Departamentuak ez dituelako baloratzen, langileen aldi baterako kontrataziorako, administrazio publikoan emandako zerbitzuak ez diren bestelako merezimendu zientifiko-profesionalak, orain arte egiten zuen moduan. **Q17/651.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak kontratazeko zerrendak ireki dituenean (1618E/2017 Ebazpena, irailaren 8koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen zuzendariarena), hautagai gisa ikasketak 2017. urtean amaitu dituzten pertsona tituludunak soilik onartzen dituelako. **Q17/658.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzailearen posturako lehiaketatik kanpo utzi duelako, onartzeko eskabidea ez duelako aurkeztu eskabidearen eredu ofizialarekin bat. **Q17/670.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak bere ustez indarrean dagoen administrazio-araudiaren ez-betetzea egin duelako, egintza administrazioen balio gabetzearen alorrean, Nafar

Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goi-mailako tituludunen postuetarako jada balio gabetuta egon beharko luketen zerrendetako pertsonak kontratatu dituelako, bai eta ebazteko epeen alorrean ere, ez zitzaielako erantzun horri buruz aurkeztu zituen gora jotzeko errekurtsioei. **Q17/675.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak "prestasunik ez" egoeran jaso duelako D mailako administrari laguntzaile posturako aldi baterako kontrataziorako zerrendetan, E mailako postu bati uko egin izanagatik. **Q17/683.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ez duten irakasleak kontratatu dituelako, eta aurrez bera aldi baterako kontratazioetarako zerrendatik kanporatu zutelako, arrazoi horrexegatik. **Q17/702.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak zaildu egiten duelako mekanografia-ezagutzen egiaztapena Justizia Administrazioako postuetan sartzeko, eta, zehazki, Izapidetze Prozesal eta Administrazio Kidegoko postuetarako, ez baititu neurri egokiak hartzen aplikagarria den araudian zehaztutako diplomak edo egiaztagiria ematen dituzten prestakuntza-zentroak ofizialki aitortzeko, egiaztapenerako bitarteko gisa. **Q17/720.**
- Hiru herritarrek eta funtzionarioen sindikatu batek kexa bat azaldu dute, Hezkuntza Departamentuak 73 irakasle-posturen deialdia iragarri duelako 2018rako -2015eko lan-eskaintza publikoan jasoak-, Nafarroako Foru Komunitatea delako 2018an postuak

2. kapitulua

kexak

eskaintzen dituen erkidego bakarra, eta horrek dei-efektu gisa joka dezakeelako; horregatik, proba 2019ra atzeratzea eskatu dute. **Q17/730, Q17/732, Q17/734 eta Q17/736.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Administrazio Auzitegia gehiegi atzeratzen ari delako Eguesibarko Udalak ofizial administrari lanpostuak betetzeko deialdian euskararen ezagutzari ematen dion balorazioaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsorearen ebazpena ematean. **Q17/770.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, azalduz Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko hautagaien zerrenda espezifiketatik kanpo utzi duela, eskatutako dokumentazioa aurkeztu arren, eta horren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsori nahiz egindako erreklamazio bati ez dietela erantzun. **Q17/771.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Gazteriako goimailako teknikariaren lanpostuak betetzeko deialdian eskatzen duen gai-zerrenda orokorregia eta zehaztugabea iruditzen zaiolako, eta eskatu du zehazteko, gardentasun handiagoa, enplegu publikora heltzeko aukera-berdintasuna nahiz hautagaien segurtasun juridikoa bermatzeko. **Q17/781.**
- Nafarroako zerbitzu publikoetako enplegatuen sindikatu batek eta Nafarroako administrazio publikoetako administrarien sindikatu batek kexa bat jarri dute, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dielako erantzun Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goi-mailako tituludunen postuak betetzeko egindako deialdian izan diren

ustezko irregulartasun batzuekin lotuta jarri dituzten erreklamazioei, eta uste dutelako ez erantzuteak sindikatu-zereginak betetzea eragozten duela. **Q17/803.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste duelako Osasun Departamentuak irregulartasunak egin dituela Nafarroako Ospitaleguneko telefonista-postu bat betetzeko egindako deialdian; azaldu du aldi baterako kontratazio laburren zerrendan 154. postuan dagoela eta 405. postuan dagoen pertsona bat kontratatu dela. **Q17/808.**

B) Nafarroako toki-entitateak:

- Nafarroako funtzionarioen elkarte batek bi kexa aurkeztu ditu, uste duelako Iruñeko Udalak irregulartasunak egin dituela Lorezaintzako erdi-mailako tituludunen zerrenda osatzeko hautaketa-probetarako kalifikazio-epaimahaia eratzean, eta ez zaiolako jakinarazi deialdiko proben data eta ordua banaketa-txandaren arabera Langileen Batzordearen ordezkari gisa egokitu zitzaion sindikatu-ordezkariari. **Q17/80 eta Q17/114**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Erriberriko eremuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gizarte-laguntzaile berri bat kontratatu duelako, berari duela gutxi bere lanaldia murriztu ondoren, eta kontratazio horretarako bera amatasunagatiko bajaran zegoenean bere postua betetzeko ad hoc egindako deialdi bateko hautagaien zerrenda erabili delako. **Q17/209.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Iruñeko Udalak etxeko langile bat aldi baterako kontratatuzeko deialdirako merezimenduen baremoa aldatu duelako, balorazio bera emanez administrazio edo enpresa publikoetan emandako zerbitzuei eta

Administrazioak kontratatutako enpresa pribatuetan emandakoei, eta uste dutelako horrek urratu egiten dituela kontratazio publikoetan bete beharreko berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak. **Q17/297.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, uste duelako Lizarrako Udalak irregulartasunak egin dituela herriko lantegi-eskolan laneratzeko lanbide-orientatzailearen postu bat betetzeko deialdian: Soziologiako eta Psikologiako tituludunak kanpo uztea, idatzitako probari merezimenduei baino balorazio handiagoa ematea, administrazio publikoan izandako esperientziari esparru pribatuan izandakoari baino balorazio handiagoa ematea, prestakuntza osagarriari puntuazio baxua ematea, hizkuntzen ezagutzari nahiz lan-esperientziari buruzko elkarrizketari gehiegizko balorazioa ematea, eta norbera bertaratuta egin beharreko hautagaien aurkezpenerako epe laburregia ematea. **Q17/370.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Noaingo Udalak (Elortzibar), eskola publiko bateko atezain postua betetzeko zerbitzu anitzetako enplegatutako bat izendatu baitu behin-behinean, horretarako sortutako zerrendako hautagaiei dei eginez bete beharrean. **Q17/669.**
- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, Berriobeitiko Udalak ez dielako eman Udalean administrari ofizialaren postu bat aldi baterako betetzeko deialdiko probetan hautagai gisa parte hartzean egindako test moduko lehen ariketaren kopia. **Q17/755 eta Q17/759.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lizarrako Udalak herriko Udaltzaingorako hiru udaltzain-postu betetzeko deialdirako oinarriak aldatu dituelako, mailaz igotzeko

txandan euskararen ezagutzaren eskakizuna ezerezten duen Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen bat betetzeko. Uste du aldaketa Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebatzitakoa baino harago doala, eta horren ondorioa izan dela txanda askean balorazio handiena lortu duen hautagaia izanik, txanda horretako deialdiko postua eskuratzeko eskubidea gal dezakeela, orain, hasieran aurreikusi ez bezala, euskararen ezagutza ezinbesteko eskakizun gisa ezar baitaiteke. **Q17/784.**

2.9.2. Nekazaritza.

2017. urtean, nekazaritzarekin lotutako **7** kexa aurkeztu ziren.

Hauetara kexa horietan azaldu diren gertakariak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak ez duelako katalogatu titulu nagusiko nekazari gisa, departamentuak uste izanagatik bere errenta ez dela iristen eskatutako erreferentziazko errentaren % 15era, eta ez dielako onartu istripu baten ondorioz datu ekonomiko okerrak aurkeztu izana. **Q17/63.**
- Lau herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak duela gutxi Funesen egindako lurzatiak biltzeko eta ureztapena modernizatzeko lanen ondorioz beren lurzatiak ureztatze ahalmena galdu dutelako eta ura beste lurzati batzuekin banatu behar duelako, eta horregatik, irtenbide bat eskatu dute. **Q17/64.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Rioja jatorri-deitura kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak ez dielako erantzun aurkeztu zituen alegazioei, azalduz ez zegoela ados

2. kapitulua

kexak

bere mahats-uztari baimendutako ekoizpena gainditzeagatik emandako "ez egokia" kalifikazioarekin, eta kalte-ordaina eskatu du, Kontseiluak ezarritako mahats-biltzeari buruzko arauetara egokitzeko ekoizpenaren zati bat baztertu beharrak sortu dizkion kalteengatik. **Q17/179.**

- Bi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Andosillako Udalak laboreetarako herri-lurrak ustiatzeko sortak mugatzean, zuzenean bizilagunei adjudikatuz, ez duelako bete aplikagarri den araudian xedatutakoa. **Q17/191.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak bere jabetzako egin duelako bere amaren lurzati bide-zorra, Funesko ureztatze tradizionalako lurzatiak biltzean. **Q17/358.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Ultzamako Udalak ustez irregulartasunak egin dituelako egur-baliabideen adjudikazioan nahiz herriko ustiapen mikologikoko eremuaren kudeaketan: izan ere, 6.000 kg-ko legezko muga gainditzen duten egur-sortak eman dira; basoan zehar ibilgailuak ibiltzea baimendu da; haraneko biztanleei kobratu egiten zaie perretxikoak eta ondoak biltzeagatik; haraneko eremu batzuk parke mikologiko gisa identifikatu dira, ez badira ere; eta parkeari buruzko publizitate gehiegi egiten da, eta horrek pertsonak erruz etortzea eragiten du. **Q17/418.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Galbarrako Kontseilua atzeratzen ari delako lehentasunezko laboreetarako herri-lurrak ustiatzeko egin beharreko adjudikazioan. **Q17/793.**

2.9.3. Gizarte-ongizatea.

Gai honekin lotuta, **86** kexa aurkeztu dira. Hauek dira kexak eragin zituzten gertakari nagusiak:

A. Haurrak eta nerabeak babestea:

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Eskubide Sozialen Departamentuak ez dielako ematen Nafarroako Gobernuaren zaintzapean dagoen beren semearen egungo egoeraren berri. **Q17/3.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, azalduz zailtasun handiak dituela bere semearekin egoteko, bere bikotekide ohiak bisita-erregimena aldatu duelako eta laguntza juridikoaren onura ukatu diotelako bere interesak defendatu ahal izateko, eta bisita-faltaren ondorioz bere gogo-aldartea okertzen ari dela. **Q17/136.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez dituelako ezartzen kontrol eta jarraipen zorrotzak tutoretzapeko zentro eta egoitzetan, askotariko arazoak sor badaitezke ere. **Q17/147.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Tuterako Haurren eta Nerabeen Arretarako Taldeak frogatu ez diren gertakarietan oinarritutako txosten bat egin duelako, eta horren ondorioz kautelazko neurriak hartu direlako, beren seme-alabentzat jada arrisku-egoerarik ez badago ere, haurrak haren zaintzapean egonik. **Q17/152.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez duelako egoki kudeatzen bere semea dagoen zentroa, neurri judizialak betetzeko. Besteak beste, bisita-erregimena, langileek emandako infor-

mazioa eta sukalde-zerbitzua aipatu ditu. **Q17/200.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentua ez delako arduratzen amaren zaintzapean dauden bere bi alaba adingabeen ongizateaz, egoera babesgabea daudela dirudien arren. **Q17/217.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dielako erantzun, legezko betebeharra izan arren, aurkeztu dituen eskabideei, azalduz ez dagoela ados Haurren eta Nerabeen Arretarako Taldearen jokabidearekin, eta ez zaiolako eman eskatu duen prozedurari buruzko dokumentazio guztia, alde interesduna izan arren. **Q17/399.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Iruñeko familiak elkartzeko gunearen funtzionamenduarekin; azaldu duenez, gune horretan elkartu behar du bere seme-alaben aita biologikoarekin, haiek jasotzeko edo uzteko, eta uste du profesionalek egindako jarraipen-txostenek aitaren interesen alde egiten dutela, eta ez dutela jasotzen beren seme-alaben osasun-egoeraren berri, ezta bera genero-indarkeriaren biktima denik ere. **Q17/405.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dielako egoki zaintzen tutoretzapean duen bere semea, eta ez diolako ematen horri buruz eskatutako dokumentazio osoa eskuratzeko aukerarik. **Q17/428.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados familiak elkartzeko gune bateko langile batek egindako txostenarekin; txosten hori semearen ikastetxe aldaketarekin lotutako prozedura judizial batean aurkeztu zen; hala,

familiak elkartzeko beste gune batera aldatzea eskatu du. **Q17/535.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Foruzaingoak ibilgailu ofizialak erabiltzen dituelako neurri judizialak betetzeko zentroetan dauden adingabeak lekualdatzeko, diskrezio handiagoz egiteko aukera ematen duten bestelako ibilgailu batzuk erabili beharrean. **Q17/550.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentua gehiegi atzeratzen ari delako Nafarroako Probintzia Auzitegiak emandako epai bat betearazteko; epai horretan, onartu egin zen familia-harrera sinplean dagoen bere alaba pixkanaka bere familia biologikoarekin itzultzea. **Q17/642.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere semea bizi den Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko etxebizitza kudeatzen duen erakundeak ez diolako itzuli 2013/2014 denboraldian CA Osasuna taldearen abonua erosteko bere semeari eman zion dirua. **Q17/704.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez diolako azaldu zer arrazoi direla-eta jarraitzen duen bere semeak Nafarroako Foru Komunitatearen babes- eta zaintza-erregimenaren pean, behaketa- eta harrera-zentro batean, eta zergatik ez dituen hartzen neurri egokiak adingabea berriro ere berarekin bizitzera joan dadin. **Q17/723.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Sestaoko (Bizkaia) gizarte-zerbitzuen jokabidearekin, ez eta Nafarroako Probintzia Auzitegiaren jokabidearekin ere, bere alaba adingabeak bere bikotekide ohiaren bikotekide berriaren aldetik pairatzen dituen tratu txarrak direla-eta jarri zuen salaketa

2. kapitulua

kexak

artxibatu egin duelako, froga-faltagatik. **Q17/761.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak eta Nafarroako Foruzaingoak ez diotelako bere alaba non dagoen jakinarazi, behaketa- eta harrera-zentro batetik ihes egin ostean. **Q17/810.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere alabek ez dutelako joan nahi aitarekin dituzten bisitetara. Alabek esaten diotenez, bisita horietan aitaren bikotekide berria eta haren alabak ere egon ohi dira. **C17/212.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, uste duelako Alicanteko Adingabeak Babesteko Gizarte Zerbitzuak ez direla ari zuzen jokatzeko bere semearen egoerarekin lotuta.. **C17/1474.**

B) Gizarteratzea eta bermatutako errenta:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak gizarteratze-errentagatik jasotzen duen zenbatekoa murriztu diolako, alegatuz berak eta etxebizitzan berarekin bizi diren gainerako kideek hiru familia-unitate independente osatzen dituztela, etxebizitza berean bizi direnak. **Q17/4.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dakielako ea Eskubide Sozialen Departamentuak orain arte jasotzen zuen gizarteratze-errenta berritu dion. **Q17/50.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak bermatutako errenta ukatu diolako, uste izanagatik bizikide duen pertsonarekin ezkontza-harremanaren antzeko afektibitate-harremana duela, eta haren sarrerak zenbatu dituelako, prestaziorako eskubidea aitortzearen ondorioetarako. **Q17/168.**

- Herritar batek kexa orokor bat aurkeztu du, pobreziarekin eta hura desagerrarazteko politika publikoekin lotua, eta oinarritzko errenta eskubide unibertsala izatea proposatzen du. **Q17/216.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak atzerapena izan duelako eman zitzaion bermatutako errenta ordaintzean, eta ordainketaren aurrerapena Caritasek eman behar izan diolako. **Q17/289.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak jasotzen ari zen gizarteratze-errenta azkendu diolako, ez jakinarazteagatik bere alabaren aita berarekin bizi zela etxebizitza berean. **Q17/315.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak bidegabe jasotako gizarteratze-errentaren itzulketa eskatu diolako, ez aurkeztu izanagatik Bulgariako desgaitasun-pentsio bat jasotzen duela egiaztatzen duen agiria. **Q17/349.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak bermatutako errenta jasotzeko eskubidea ukatu diolako, ez delako Nafarroako Foru Erkidegoan bizi izan eskabidearen data baino bi urte lehenagotik. **Q17/373.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak bermatutako errentaren zenbatekoa murriztu diolako, ez aplikatu izanagatik enplegurako pizgarrien sistema eta kontuan hartu ez izanagatik enplegu bat lortzetik eratorritako sarrerak. **Q17/461.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak, familia-unitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, bermatutako errenta jasotzeko eskubidea aitortzearen

ondorioetarako, sarrera gisa zenbatzen dituelako berarekin bizi ez diren seme-alabei emandako elikagaietarako pentsioak, eta Antsoingo, Berriobeitiko, Berriozarreko, Itzako eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ez diolako laguntza ekonomikorik eman azkenaldian dituen zailtasunak gainditzen laguntzeko. **Q17/481.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak bermatutako errentaren bidez jasotako zenbatekoak enbargatu dizkiotelako, behin eta berriz. **Q17/541.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez duelako egoki kudeatu bermatutako errenta jasotzeko egin duen eskabidea, eta ez diolako eman informazio zuzena. **Q17/557.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialen Departamentuak bere errentaren zenbaketan sartu duelako, zenbait prestazio sozial jasotzeko eskubidea aitortzearen ondorioetarako, jasotako ezohiko sarrera bat, eta horren ondorioz jasotzen ari zen laguntza batzuk ukatu edo murriztu zaizkiolako. **Q17/624.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez duelako erroldatu egun bizileku duen etxebizitzan, eta, horren ondorioz, Eskubide Sozialen Departamentuak ukatu egin diolako bermatutako errenta jasotzeko eskubidea. **Q17/628.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, egoitza komunitario bateko egoerak eta jarduketak salatuz, hala nola datu pertsonalak hedatzea, egoiliarrak manipulatzeko, soldata kaskarrak ordaintzea, higiene-baldintza kaskarrak eta

esleitutako funts propioak nahiz aurrekontuetakoak urriak izatea. **Q17/725.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bermatutako errentagatik jasotako zenbatekoak enbargatu dizkiolako.. **Q17/727.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez duelako pertsona errefuxiatuak babesteko sistema bat, Gurutze Gorriko harrera-programa amaitzen denetik bermatutako errenta jasotzeko baldintzak bete arteko aldirako. **Q17/772.**

C) Adinez nagusien babesa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentua atzerapena izaten ari delako diru-laguntza bat ematean, urruneko bi ahaide Irunberriko egoitzan egoteko gastu guztiak ordaindu ahal izateko. **Q17/11.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentua atzerapena izaten ari delako epai bat betearaztean; epaiak ebazten du bere amari 2014ko abendura arte emandako kuota mantenduko zaiola, Benito Menni zentroko arretaren koordinketarako ekarpen gisa. **Q17/41.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez dituelako neurri egokiak hartzen Cascanteko adinekoen egoitzako gabeziak eta urritasunak konpontzeko, eta ez dituelako betetzen hutsik dauden plazak. **Q17/137.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak, Eskubide Sozialen Departamentuak eta Noingo eremuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ez dutelako onartu bere ama San Juan de Dios ospitalera

2. kapitulua

kexak

lekualdatzea, bere etxean baldintza ezegokietan egon arren. **Q17/361**.

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak ukatu egin diolako, egoitza-zerbitzuaren erabiltzaile izanik, dagokion tarifa aldatzeko eskaera. **Q17/545**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, uste duelako Nafarroako hirugarren adineko zenbait egoitzatan ez dela egokitzen menua, kontuan hartuta egoiliarren gaixotasunak edo osasun-arazo espezifikoak. **Q17/553 eta C17/850**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak asmoa duelako bere arrea, 62 urtekoa eta % 90eko desgaitasuna duena, San Jose zentrotik El Vergel egoitzara lekualdatzeko. **C17/298**.

D) Desgaituen babesa eta ezinduen tutoretza:

- Bi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Eskubide Sozialen Departamentua atzera-pena izaten ari delako adoptatutako semeari desgaitasun-aitorpena ematean, eta horrek amatasun-baimenaren iraupena luzatzea eragozten diolako. **Q17/5**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez dituelako behar adina profesional jartzen Lizarrako desgaitasunaren arreta osorako Oncineda zentroan, eta uste duelako zentro hori ez dela egoki kudeatzen. **Q17/132**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez duelako bere anaia dagoen zentroaren funtzionamendua gainbegiratzen, eta azaldu du anaiak narriadura kognitibo handia pairatu duela zentroan sartu zutenetik. **Q17/142**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Helduen Babeserako Fundazioak, bere semearen tutoretza izanik, ez diolako defentsa egokirik bermatu zigorra ekarri dion prozedura judizialean, eta ez duelako gardentasunez jokatu familiari prozedura horri nahiz ordaindutako zenbatekoei buruzko informazioa ematean. **Q17/184**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak bere semea dagoen desgaitasunaren arretarako zentro bateko plazaren kuota igo duelako, aurrez jakinarazi gabe. **Q17/380**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak aitortu dion desgaitasun-mailarekin ados ez dagoelako. **Q17/403**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez diolako desgaitasun-mailarik aitortu, gaixotasunak dituen arren, muga horiekin bat datozen lanpostuetarako sarbidea izateko. **Q17/464**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Helduen Babeserako Fundazioak ez duelako gardentasunez jokatzen bere baliabide ekonomikoen kudeaketari buruzko informazioa ematean, eta ez dagoelako ados eguneko ematen zaion diru-kopuruarekin. **Q17/560**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Agoitzeko Udalak ez dituelako egin bere aita bizi den eraikineko atarian dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak, eta azaldu du aitak gurgildun aulkia behar duela lekualdatzeko, eta Udalak lan horiek egiteko konpromisoa hartu zuela. **Q17/581**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Helduen Babeserako Fundazioak

tutoretza gauzatzean ematen dion diru-kopuruarekin ados ez dagoelako. **Q17/636**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez diolako baimendu osasun mentaleko zentro batetik ateratzea, hartan egoteko epea gainditu duen arren. **Q17/649**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ukatu egin diolako bere semeari gaztelaniazko zeinu-hizkuntzako interprete baten zerbitzua, egiten ari den ikastaroan. **Q17/678**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak ez dituztelako egokitzen liburutegi publikoetako eserlekuak desgaitasuna duten erabiltzaileentzat. **Q17/701**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Helduen Babeserako Fundazioak ez diolako ordaindu arropa-garbiketako zerbitzuan galdutako bi arropari dagokien zenbatekoa. **Q17/710**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez duelako larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko sistema bat ahoz egin ezin dutenentzat, eta proposatu du ezartzeko piktograma-sistema batean oinarritutako mugikorretarako aplikazio bat, beste autonomia-erkidego batzuetan egin duten moduan. **Q17/733**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, lotuta dagoena desgaitasuna duten pertsonen arretarako egoitza batean erabiltzen dituzten lokailu fisikoekin. **C17/521**.
-

E. Mendekotasuna duten pertsonen babesa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez duelako behar bezala baloratu bere arrebaren mendekotasun-maila, eta ez diotelako aitortu mendekotasun handiaren maila. **Q17/133**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak berak jarritako gora jotzeko errekurtsio bat ezetsi duelako; errekurtsio horretan, departamentu horri eskatu zion abiatzeko beharrezko eginbideak, mendekotasunaren balorazioa egiteko baremoa aldatzeko eta desgaitasun fisikoari egokitzeko; eta azaldu du ez dagoela ados emandako erantzunarekin, ez dagoelako planteatutako arazoaren mamiarekin lotutako arrazoitzerik. **Q17/263**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak aitaren mendekotasunagatik eskatutako laguntza bat ukatu diolako, eta azaldu du aita mendekotasuna aitortu ondoren eta prestazio ekonomiko hori jaso aurretik hil zela. **Q17/299**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak, amaren mendekotasunaren balorazioaren espedientearen izapidetzean izandako zenbait akatsen ondorioz, mendekotasun moderatua aitortu diolako, mendekotasun larria aitortu beharrean. **Q17/422**.

F) Familien babesa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez diolako erantzun bere alabak aurkeztutako eskabide bati, galdetuz nori dagokion familia ugariaren titulua berritzea gurasoak dibortziatuta daudenean, eta zer agiri aurkeztu behar dituzten berritzeko. **Q17/603**.

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak eta Lizarrako Udalak ez dutelako onartu langile autonomoen lan-bizitza eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko diru-laguntza bat eskatuz egin zuen eskabidea, epez kanpo aurkeztu izanagatik, eta azaldu du eskabidea epez kanpo aurkeztu zuela bi administrazio publiko horiek informazio okerra eman ziotelako. **Q17/800.**
- Elkarre batek kexa bat jarri du, ez dagoelako guraso bakarreko familien lege bat, eta talde hori diskriminazio-egoeran dagoelako. **C17/257.**

G) Genero-indarkeria:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, oso egoera babesgabea dagoelako, zailtasun fisikoak nahiz familia- eta lan-esparrukoak dituelako. Adierazi du abandonatu eta jazarri egin dutela, eta tratu txarrak pairatu dituela. **Q17/76.**
- Vianako Udalak herriko bizilagun bat pairatzen ari den egoera azaldu du, adieraziz bere bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktima dela, duela zenbait urtetatik. **Q17/285.**
- Herritar batek laguntza eta aholkularitza eskatu ditu, bere ezkontide ohiaren familiaren aldetik pariatzen dituen irainak eta mehatxuak direla-eta. **C17/92.**

H) Helburu sozialetarako prestazio ekonomikoak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ukatu egin diolako ahaideei zuzeneko eta etengabeko zaintza emateko eszedentzia hartzeagatik aldi behin ordaintzen den diru-laguntza, mendekotasuna duten pertsonentzako

laguntzekin bateragarria ez dela iritzi izanagatik. **Q17/53.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak diskriminazio-egoeran utzi dituelako erretiro-pentsioa jasotzen dutenak, alarguntasun-pentsioak soilik handitu baititu, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko. **Q17/190.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak eta Burlatako Udalak ez dutelako egoki kontrolatzen ematen diren prestazio ekonomikoen erabilera. **Q17/350.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, elektrizitate-hornikuntzako konpainia batek bonu sozialaren aplikazioa eten diolako, aurrez jakinarazi gabe, nahiz eta baduen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiri bat, beherapen hori aplikatzeko baldintzak betetzen dituela adierazten duena. **Q17/362.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ukatu egin diolako alarguntasun-pentsioagatik kenkari fiskala aurrez kobratzeko eskabidea, zenbatekoa ezarritako gutxieneko zenbatekoa baino handiagoa izateagatik, eta adierazi du diskriminazio-egoeran dagoela, departamentu horretatik hilero lanbide arteko gutxieneko soldatara iritsi arteko osagarri bat jasotzen duten alargunekiko. **Q17/792.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, pairatzen ari den arazo ekonomikoengatik, desgaitasunagatik erretiro-pentsio eskasa duelako, eta etxebizitza bat behar duelako alabarekin bizitzeko. **C17/125.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialen Departamentuak ez dituelako

kontuan hartu bizkarrezur-muineko lesioa duten adingabeak gastu hauek edo haien zati bat ordaintzera bideratutako diru-laguntzak emateko deialdian: balorazio neuropsikologikoa, terapia okupazionala, irensketaren errehabilitazioa, eta autonomia pertsonalean laguntzeko produktuak; azaldu duenez, 2017ko urtarriletik irailera bitartean egindako deialdiak hartutako kalte zerebralaren diagnostikoa duten 18 urtetik beherako adingabeentzat izan dira. **C17/1229 eta C17/1394.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, oso egoera ekonomiko larrian dagoelako, bai hipoteka-gastuak dituelako, bai elikagaientarako pentsioa ordaindu behar duelako, dibortziatu egin delako. **C17/1280.**

I) Gizarte-zerbitzuek emandako arreta:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak ez dituelako ordezkatu auzoko unitatean berak zein bere emazteak dituzten gizarte-langileak, eta ez dagoelako ados ematen dieten arretarekin. **Q17/17.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Arrotxapea auzoko unitatean arreta ematen dion gizarte-langilearen jarduketarekin. **Q17/59.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Noaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak etxez etxeko arreta eskasa eman dielako bere ahizpari eta haren senarrari. **Q17/233.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Bigarren Zabalguneko auzoko unitateko langileek tratatu ezegokia ematen diotelako eta ez diotelako laguntzen. **Q17/517.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak ez duelako ordezkatu Arrosadiako

auzoko unitateko erreferentziazko profesionala, eta ez zaiolako iruditzen gizarte-laguntzako zerbitzua egoki ematen duenik. **Q17/660.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak ez diolako baimendu beste auzoko unitate batera lekualdatzea. **Q17/719.**

2.9.4. Administrazio publikoetako ondasunak.

2017an, **11** kexa aurkeztu dira, administrazio publikoetako ondasunekin lotuta. Honako eduki hauek dituzte kexa horiek:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, zizelkari-elkarte baten izenean, Barañaingo Udalak ez dielako erantzun elkartearen jarduerarako lokal egoki bat adjudikatzeko egin dituzten eskabideei, eta lokal hori beste erakunde bati adjudikatu diolako, eskabideen ordena kontuan hartu gabe. **Q17/109.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Urdaitzeko Kontzejuak lursail batean pilotuta duen egurra kentzeko eskatu diolako, bide bat izategatik. **Q17/456.**
- Lau herritarrek kexa bat jarri dute, Eguesibarko Udalak lursail batzuk Hezkuntza Departamentuari lagatzea adostu duelako, Sarrigurenen ikastetxe bat eraikitzeko. **Q17/470.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Larragako Udalak jarrera pasiboa erakusten duelako bere lurzatian dauden kalteak ikusirik; azaldu duenez, kalte horiek ondoko lurzatian izandako luizi baten ondorioz sortu dira, eta haren titularra toki-erakunde hori da. **Q17/484.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Urrotzeko Udalak ez diolako erantzun Udalaren eta

2. kapitulua

kexak

herritar baten artean egindako truke baten tasazioaren inguruan egin duen eskabide bati. **Q17/584.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gelbentzuko Kontzejuak eta Odietako Udalak ez dietelako erantzun herri-lurretan eraikitako txabola bat kentzeko eta ondoko lurzati bateko kalteak konpontzeko egin duen eskabideari. **Q17/587.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Esteribarko Udalak ez dituelako aurrera eraman bere jabetzako lursail batzuen mugaketa berria egoki erregistratzeko beharrezko jarduketak; azaldu duenez, lursail horiek Udalarekin sinatutako akordio baten ondoren egindako mugaketa administratibo baten emaitza dira. **Q17/596.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Figaroleko Kontzejuak ez dielako erantzun egin dituen hiru eskabideri; azaldu duenez, garatzen ari den herri-ondare baten utzarazpen-prozedura judicial batean bere defentsa juridikoa egiteko beharrezko agiriak eskatu zituen. **Q17/712.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Bertizaranako Udalak ez dituelako kendu plaza publiko bateko material eta eraikuntza pribatuak, ez dituelako zuzendu bere esku dituen datu pertsonalekin loturiko akatsak, eta ez diolako jakinarazi Malerrekako Mankomunitateari zergatik igorri dion zabor-zerga jarduera bat garatzeagatik, eta ez bi jarduera garatzeagatik, orain arte egin duen bezala. **Q17/809.**
- Udal-talde bateko zinegotzi batek kexa bat aurkeztu du, Antsoaingo Udalak, Udalaren lokalak taldeei eta elkarteei lagatzean, ez duelako bete aplikagarria den araudian ezarritako prozedura, ez diolako eman horren

inguruan eskatu duen informazioa eta, beraz, gardentasun ezaz jokatu duelako. **Q17/814.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Tafallako Udalak zailtasunak jarri dizkiolako Udaleko leku publiko batean eskultura bat jartzeko, borroka baten ondorioz Tafallan hil zen gazte baten oroigarri. **C17/98.**

2.9.5. Merkataritza eta kontsumoa.

2017an, **20** kexa aurkeztu dira gai horrekin lotuta, eta honako edukia dute kexa horiek:

- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados enpresa jakin baten jokabidearekin, eskatu zuena ez bezalako material bat jaso ostean egindako erreklamazioei erantzun ez dielako. **Q17/144.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak bere establezimenduaren jarduera sustatzeko webgune bat sortzeko laguntza ukatu diolako. **Q17/232.**
- Kontsumitzaile-elkarte batek bi kexa aurkeztu ditu, Kontsumoko Kataluniako Agentziak ez diolako erantzun automobil-enpresa bati jarritako salaketari; azaldu duenez, salaketa hori aurrez Nafarroako Kontsumoko eta Arbitrajeko Zerbitzuak igorri zuen. **Q17/325 eta Q17/339.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, saltoki baten webgunearen bitartez telebista bat erostean behin eta berriz izan dituen gorabeherengatik. **Q17/376.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, errenta aldakorreko inbertsio-funts bat saldu ondoren banku-erakundeak komisiogatik zenbateko handiegia kobratu diolako. **Q17/408.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren Kontsumoko eta Arbitrajeko Zerbitzuak automobil-enpresa bati jarritako salaketa bat artxibatu duelako, enpresa horrek alegatutako gertakarien egitasuna onartu ondoren. **Q17/425**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, banku-erakunde batek hipoteka-kontratuaren zoru-klausula kentzeagatik kobratu zizkion zenbatekoak itzultzeari uko egin diolako, auzibidetik kanpo erreklamazioak jartzeari edo ekintza judizialak abiatzeari uko egitearen truke. **Q17/455**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Burlatako ostalaritza-establezimendu bateko langileek tratu ezegokia eman diotelako. **Q17/567**.
- Lau herritarrek lau kexa jarri dituzte, hipoteka-mailegu bat eratzearen gastuak baku-entitateari erreklamatzeko aukerarekin lotuta, Auzitegi Gorenaren azkenaldiko epaien ondoren. **C17/36 eta C17/207, C17/636 eta C17/1030**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, enpresa batek duela gutxi erosi duen higiezin bateko ur- eta berogailu-horniketaren alta-kontratua izapidetu nahi ez duelako, aurreko errentariak zituen zorreatatik. **C17/139**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, enpresa batek bere motozikletaren berme-zerbitzuaren epea nahita iraungitzen utzi duelako. **C17/274**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, banku-entitate batek ez diolako uzten erabiltzen bere gurasoek inbertsio-funts batean gordailu-tutako dirua, haren legezko titularra bada ere, bere gurasoak hil ostean. **C17/990**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, higiezin-agentzia batek eskusibotasun-klausula bat sartu duelako bere jabetzako etxebizitza bat saltzeko sinatutako kontratuan. **C17/1294**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, enpresa batek etengabe telefonoz deitzen diolako eta berankorren zerrenda batean sartzearekin mehatxu egiten diolako, harekin duen zorra ordaintzen ari bada ere, epaitegiaren bitartez. **C17/1402**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, higiezin-agentzia bat bere etxebizitzari buruzko publizitatea egiten aritu delako, egiazkoak ez diren datuak emanez. **C17/1411**.

2.9.6. Kultura.

2017. urtean, kultura-gaiekin loturiko **2** kexa aurkeztu dira, eta honako edukia dute kexa horiek:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Corellako liburutegi publikoak ez duelako irekiera-ordutegia bete uztailean. **Q17/446**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko liburutegi publikoen irekiera-ordutegia oso laburra delako udan. **C17/760**.

2.9.7. Kirola.

Gai horrekin loturiko **8** kexa aurkeztu dira, eta honako edukia dute kexa horiek:

- Herritar batek bere desadostasuna azaldu du, Berriozarko Udalak ez diolako erantzun egin zuen eskabide bati; azaldu duenez, udal-igerilekuetan kortxo-ilarak jartzea eskatu zuen, igeri egiteko kale bat egokitzeko. **Q17/14 eta C17/15**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Berriobeitiko Udalak ez duelako tarifa murrizturik ezarri

2. kapitulua

kexak

guraso bakarreko familientzat, Artika Kirol Hirian. **Q17/71**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Futboleko Arbitroen Batzordeak federazioaren lizentziaren eskabidea erregistratzeko aukera ukatu ziolako. **Q17/520**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Nafarroako Futbol Federazioak ustez igorritako futboleko arbitroen lizentziekin lotuta, uste baitu prozedura hori arautzen duen araudia urratu zela. **Q17/544**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Antsoaingo futbol talde batek bere semeari zehapena ezar diezaiokeelako, taldean baja ematen badu. **Q17/572**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Valtierraiko futbol talde batek bere semeari zehapena ezar diezaiokeelako, taldean baja ematen badu. **Q17/714**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eguesibarko Udalak kirol-instalazioak erabiltzeagatik kobratzen dituen tasekin lotuta, kontuan hartuz erabiltzailea Udalean erroldatuta dagoen edo ez. **C17/641**.

2.9.8. Zuzenbide zibila eta harreman zibilak.

Gai horrekin lotuta, **3** kexa aurkeztu dira, eta eduki hauek dituzte kexa horiek:

- Herritar batek bere desadostasuna azaldu du, bizilagunak bere pinu bat moztea nahi duelako, haren adarrek bizilagunak bere baratzean lantzen dituen tomateei itzala ematen dietelako. **Q17/396**.
- Autonomia-erkidego bateko herritar batek Nafarroako auzotasun zibil foralari eusteko

prozeduraren berri jakin nahi du, bai eta foruzuzenbidearekin bat testamentua egiteko aukeraren berri ere. **C17/138**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, emakume batek, senarra hiltzean, zor kopuru izugarria jaso duelako oinordetzan, baina horren berri ez zekielako. **C17/155**.

2.9.9. Hezkuntza.

Gai horrekin lotuta, **156** kexa aurkeztu dira: Hauek dira kexa horiek eragin dituzten gertakari nagusiak:

A. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte):

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak, haur-eskoletarako onartu berri duen araudian, tarifa murriztua ezarri duelako guraso bakarreko familientzat, baina ezin duelako horren onuradun izan, alaba Haur Hezkuntzako bigarren zikloan dagoelako. **Q17/72**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eguesibarko Udalak zenbateko jakin bat eskatu diolako, bere semeak Udaleko haur-eskolan izandako justifikatu gabeko baja bat dela-eta, baja hori berez justifikatua zela onartu badu ere. **Q17/82**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak eta Iruñeko Udalak, funts publikoekin ordaindutako haur-eskolen 2017/2018 ikasturterako onarpen-irizpideak arautzean, ez dutelako kontuan hartu per capita errenta, urteko errenta baizik (alegia, ez dute kontuan hartu zenbat kide dituen familia-unitate bakoitzak), eta ezabatu egin dutelako familia ugariei ematen zitzaien puntuazio osagarria. **Q17/199**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Baztango Udalak ez diolako plazarik esleitu bere alaba

gazteenari udaleko haur-eskola batean, plaza guztiak beteta daudelako. **Q17/606.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eguesibarko Udalak kuota bat ordaintzeko zehazpena ezarri diolako, bere semeari baja eman izanagatik Sarrigureneko haur-eskolan, eta uste duelako irizpide horren oinarrian gehiegikeriazko jokabidea dagoela. **Q17/645.**
- Herritar batek bere desadostasuna azaldu du, Eskubide Sozialen Departamentuak bere semea haur-eskola batean matrikulatzeko zenbatekoa kalkulatzeko Venezuelan aitortuta zituen diru-sarrerei aplikatu dien kanbio-tasa ez delako Nafarroan duen ahalmen ekonomikoaren adierazle, eta horren ondorioz ezarritako tarifa altuenari aurre egin behar diolako. **Q17/722 eta C17/1268.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak bere alabaren hezitzailea beste haur-eskola batera lekualdatzea erabaki duelako; azaldu duenez, alabak alde biko gortasun sakona du, eta Haur Eskolen Erakunde Autonomiadunak ez dio lekualdatze horri buruzko informaziorik eman. **Q17/785.**

B) Ikastetxeetan ikasleak onartzea:

- Hogeita hamahiru herritarrek eta gurasoen elkarte batek kexak aurkeztu dituzte, ez daudelako ados Nafarroako Gobernuak eta zenbait udalek D ereduko irakaskuntzari buruz egiten duten publizitate instituzionalarekin, uste dutelako beste hezkuntza-aukera batzuekiko diskriminazioa eragiten duela. **Q17/83, Q17/84, Q17/85, Q17/86, Q17/87, Q17/88, Q17/89, Q17/90, Q17/91, Q17/92, Q17/93, Q17/94, Q17/95, Q17/96, Q17/97, Q17/98, Q17/99, Q17/100, Q17/101, Q17/102, Q17/103, Q17/104, Q17/105, Q17/107, Q17/108, Q17/115,**

Q17/116, Q17/120, Q17/121, Q17/122, Q17/123, Q17/126 eta Q17/153.

- Ikastolen federazio batek eta sei herritarrek kexak jarri dituzte, Hezkuntza Departamentuak, eskola publikoetan ikasleen onarpenerako baremoa arautzen duen duela gutxiko araubidean, ez duelako kontuan hartzen familia-unitateko kideren bat kooperatibako bazkide izatearen irizpidea. **Q17/25, Q17/27, Q17/42, Q17/43, Q17/48 eta Q17/73.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan edota Lehen Hezkuntzan onartzeko, kontuan hartzen duelako hurbiltasun linealaren irizpide osagarria, eta horrekin ez dagoelako ados, uste duelako periferian bizi diren familien diskriminazioa dakarrela, hirigunean bizi direnekiko, eta haren aplikazioan ez delako kontuan hartzen aitaren, amaren edo tutorearen lantokiarekiko hurbiltasuna. **Q17/139.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak, bere alaba Haur Hezkuntzako bigarren zikloan onartzeko, eta hurbiltasun linealagatiko puntuazio osagarria ematearen ondorioetarako, ez duelako kontuan hartzen laster etxebizitza aldaketa egingo duela, Buztintxuri auzotik Lezkairu auzora, Iruñean. **Q17/149.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak, bere alaba Haur Hezkuntzako bigarren zikloan onartzeko, eta hurbiltasun linealagatiko puntuazio osagarria ematearen ondorioetarako, ez duelako kontuan hartzen laster etxebizitza aldaketa egingo duela, Sarriguren auzotik Erripagainara. **Q17/155.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste duelako Hezkuntza Departamentuak familiek eskoletan aurreinskripzioa egitean aurkeztutako errenta-aitorpenak aztertu behar dituela, eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuarekin batera egiaztatu, datu horiek aldatu egin ohi baitira, puntuazio handiagoa lortzeko. **Q17/167.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ikertu ea iruzurrezko erroldatzeak izan diren eskoletako aurreinskripzioak egitean, hurbiltasun linealagatik puntuazio handiagoa lortzeko. **Q17/187.**
- Herritar batek kexa bat harri du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako errepikatzen 2017/2018 ikasturtean itunpeko ikastetxe batean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa egiteko plazak esleitzeko egindako zozketa, kontuan hartuta errenta-aitorpenak aldatu zituzten bi familiak parte hartu zutela hartan. **Q17/204.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ikertu ea izan den iruzurrezko erroldatzerik eskoletako aurreinskripzioak egitean, hurbiltasun linealagatik puntuazio handiagoa lortzeko. **Q17/211.**
- Hamabi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Hezkuntza Departamentuak ukatu egin dielako ikastola batean Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasgelako ikasle-ratioa areagotzeko eskabidea, eskatzeko epemuga amaitu zelako, eta azaldu dute horrek beren seme-alabak onartzea ekarriko lukeela. **Q17/264.**
- Hamabost herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ez diolako erantzun egin duten eskabideari, lotuta dagoena Tuterako itunpeko ikastetxe batean Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasgelako ikasle-ratioa areagotzearekin. **Q17/287.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ikastetxe publiko bateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan laugarren lerroa ezarri, eta horrek bere alaba ikastetxean onartzea ekarriko lukeelako, plaza gordetzeko eskubidea izateagatik, herrian erroldatuta dauden ikasleek bezala. **Q17/360.**
- Bi herritarrek kexak aurkeztu dituzte, Hezkuntza Departamentuak ez dielako behar bezala jakinarazi ikastetxeetan ikasleen aurreinskripzioa egiteko prozesuaren berri, eta horren ondorioz beren seme-alabek 2017/2018 ikasturterako ikastetxe publiko batean D ereduan zuten plaza galdu dutelako. **Q17/390 eta Q17/444.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako ikastetxez aldatzeko baimena eman maila errepikatu behar duen bere seme-ari, matrikulazio-prozesuan eskatu bezala, errepikatu behar duen mailan plazak badaude ere, eta gaur egun matrikulatuta dagoen ikastetxea eta beste ikastetxea horretan ados egonda ere. **Q17/502.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, baimen berezi bat eman dakion eskatu nahi diolako Hezkuntza Departamentuari, aukera izan dezan bere seme-alabak irailera ezohiko epealdian Iruñeko eskola publiko batean matrikulatzeko, egun bizi den hiriko epaitegiak, hots, Santoñako epaitegiak, adingabe horien aitak eman beharreko eskolaratze-baimenari buruzko epai bat eman bitartean. **Q17/533.**

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ez duelako beren semea onartu Iruñeko ikastetxe batean, eta eskatu dute Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako ikasgelako ikasle-ratioa areagotzea, horrek ikastetxe horretan onartzea ekarriko bailuke. **Q17/577.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ezarritako egutegiaren arabera matrikulatzeko ezohiko aldiko erabakien berri ikasturtea hasi ondoren ematen delako, eta horrek ikasle batzuek ikasturtea gainerakoek baino bost egun beranduago hastea dakarrelako. **Q17/605.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak haur goiztiarren eskolatzea adin biologikoaren arabera egiten duelako, zuzendutako adinaren arabera egin beharrean. **C17/1011.**

C) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko laguntza:

- Herritar batek bere kexa berriro irekitzea eskatu du, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Arartekoak egindako gomendio bat onartu zuelako, bere semeari Audizioko eta Hizkuntzako Irakasleen laguntza-baliabidea jar ziezaioten, baina hala ere baliabide hori ezarri ez zaiolako, denbora igaro den arren. **Q16/50.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dituelako beharrezko neurriak hartu, Arteen eta Ofizioen Eskola dibertsitate funtzionala duten pertsonen egokitzeko. **Q17/47.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dituelako beharrezko neurriak hartu, bere bi semeen eskola-bilakaerari arreta emateko; azaldu duenez, bi semeek arreta-defizitaren eta hiperakti-

bitatearen nahasmenduaren diagnostikoa dute; horrez gain, ez dago ados ikastetxeak bi semeetako batek maila errepikatzeke hartutako erabakiarekin. **Q17/594.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak prestakuntza-eskaintza eskasa duelako hogeita bat urtetik gora dituzten eta desgaitasuna duten pertsonentzat. **Q17/677.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuaren Aniztasunaren Arretarako Zerbitzua atzerapena izaten ari delako bere semeari laguntzeko baliabideak areagotzean, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroak (NHBBZ) horretarako jarraibideak eman arren. **C17/1422.**

D) Batxilergoa eta Lanbide Heziketa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Zangotzako Bigarren Hezkuntzako Institutuak eskolako lanak inprimatuta aurkezteko eskatzen dielako ikasleei. **Q17/145.**
- Hogeita hamalau herritarrek kexak jarri dituzte, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ezartzen gau-eskola presentziala Tuterako Erizaintzako Laguntzaileen erdi-mailako heziketa-zikloan. **Q17/235, Q17/236, Q17/237, Q17/238, Q17/239, Q17/240, Q17/241, Q17/242, Q17/243, Q17/244, Q17/245, Q17/246, Q17/247, Q17/248, Q17/249, Q17/250, Q17/251, Q17/252, Q17/253, Q17/254, Q17/255, Q17/256, Q17/257, Q17/258, Q17/259, Q17/260, Q17/261, Q17/262, Q17/269, Q17/277, Q17/278, Q17/304, Q17/311 eta Q17/312.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ez dielako baimenik eman Mekatronika Industrialeko goi-mailako heziketa-zikloa egiten ari diren bere

2. kapitulua

kexak

semeari eta haren ikaskide bati Lantokiko Prestakuntzako praktikak egiteko, ikasgai guztiak gainditu ez dituztelako. **Q17/366.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako baimenik eman bere alabari ikasketekin jarraitzeko, ez duelako legezko bizileku-baimena Espainian. **Q17/498.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak lanbide-heziketako eskaintza urria duelako, eta, horrenbestez, hainbat ikasle kanpoan uzten dituelako eskari handieneko heziketa-zikloetan; azaldu duenez, horixe gertatu zitzaion bere alabari, ez baitzuten onartu Erizaintzako Zaintza Osagarrien zikloan. **Q17/532.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ematen Marrazketa Teknikoa II ikasgaia Corellako Arteko eta Goi-mailako Diseinuko Eskolan 2017/2018 ikasturtean, ikasle gutxi daudelako. **Q17/562.**
- Herritar batek bere desadostasuna azaldu du, Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako Lanbide Heziketako teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko proben deialdi espezifikoa izena emateko eskakizun gisa ezartzen duelako aurreko antzeko deialdietan onartu izana, eta uste duelako eskakizun horrek diskriminazioa dakarrela, aurreko aldietan izena eman ez badu ere hilabeteak daramatzalako deialdi honetarako prestatzen. **Q17/786 eta C17/1414.**

E) Eskola-garraioa, eskola-jangela eta eskolaz kanpoko jarduerak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako neurririk hartu, Tuterako Torre Monreal

ikastetxeko eskola-garraioko autobusek behin eta berriz izan dituzten matxurei irtenbidea emateko. **Q17/58.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, eskola publiko bateko gurasoen elkarteak ez duelako irizpide bateraturik jangelako zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko zenbatekoak zehazteko, eta haren arduradunek ez dutelako gardentasunez jokatzeko eta ez diotelako eskatutako informazioa eman. **Q17/271.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dituelako berariaz kontuan hartzen aita eta ama ezkongabeen familiak, eskola-jangelen eta hiriko kanpaldien zerbitzuetarako laguntzak ezartzen dituen araudian. **Q17/398.**
- Hamalau herritarrek beren lehen semea edo alaba Antsoaingo Ezkaba eskola publikoan matrikulatu behar izan zuten, beren lehen aukera Buztintxuriko eskola publikoa bazen ere, azken eskola horretan plazarik ez zegoelako, eta kexak aurkeztu dituzte, Hezkuntza Departamentuak ez dielako baimena ematen eskola-garraioko zerbitzua erabiltzeko jada matrikulatuta dauden ikasleen anai-arreba txikiagoei. **Q17/490, Q17/503, Q17/504, Q17/505, Q17/506, Q17/509 eta Q17/511.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak, Tuterako ikastetxe batek eskola-ordutegia aldatu eta ordutegi zatituaren ordeztu ordutegi jarraitua ezartzearekin batera, ez duelako jarri eskola-garraioko zerbitzua ikastetxe horretara joaten diren Fontellasko ikasleak etxera itzul daitezeko, eskolaz kanpoko jarduerak amaitu arte, eta, hala, jarduera horiek derrigorrezko bihurtzen direlako haienentzat, familiek ezin badute moldatu eskolak amaitzean etxera itzultzeko modua ahalbidetzeko. **Q17/508.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak eskola-garraioko zerbitzua kendu dielako Iruñeko eskola publiko batean ikasten duten eta Artika Berrian bizi diren ikasleei. **Q17/522.**
- Bi herritarrek kexak jarri dituzte, Hezkuntza Departamentuak ez dituelako berariaz zehaztu Artika Berriko auzuneko ikasleen erreferentziazko ikastetxeak, eskolatzearen onarpenaren nahiz jangelako eta eskola-garraioko zerbitzu osagarriak ematearen ondorioetarako. **Q17/549 eta Q17/558.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak Mendillorriko eskola publiko batera joaten diren bere alabei eskola-garraioko zerbitzua eta jangelaren kostua ordaintzeko laguntza ukatu dizkielako, hori ez delako duela gutxi beren bizilekua ezarri duten udalerrinari dagokion erreferentziazko ikastetxea. **Q17/554.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak, Cascanteko ikastetxe batek eskola-ordutegia aldatu eta ordutegi zatituaren ordeztu ordutegi jarraitua ezartzearekin batera, bozketan guztien adostasuna eskatzen duelako, ikastetxe horretan ikasten duten Barillasko eta Tulebrasko ikasleak etxera itzultzeko eskola-garraioren ordutegia aurreratzeko eta eskolak amaitzean ezartzeko. **Q17/617.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak bere semearen aitarekin eratzen zuen bikote egonkorraren desegite-hitzarmenaren kopia bat eskatu diolako, eskola-jangela ordaintzeko diru-laguntza bat lortzeko baldintza gisa. **Q17/629.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, bere hiru urteko alaba ikastetxera eramaten duen eskola-garraiobidearen geralekua etxetik bi

kilometrotara dagoelako. Azaldu du Infanta Elena zentroaren ondoan bizi dela, eta egunero Cordovillako gainean dagoen geralekura eraman behar duela alaba, eta horretarako oinez joan behar dutela, Iruñetik Tafalla aldera doan errepidetik –ez dauka espaloirik eta arriskutsua da oinez joatea– edota, bestela, lurzati bilduetan zehar Cordovillako herri zaharrerantz gora doan bidetik –bide horretan, ez dago argiztapenik. **Q17/666.**

- Mendillorriko institutuko ikasleen hogei gurasok kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ez duelako behar bezala egokitzen Beriainetik doan eskola-garraioko zerbitzuaren ordutegia, eta beren seme-alabak ikastetxea ireki baino ordu erdi lehenago iristen direlako, eta denbora horretan guztian zain egon behar dutelako eta eguraldiaren gorabeheren mende daudelako, eskolara sartu arte. **Q17/673.**

F) Eskola-ordutegi jarraitua ezartzea:

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ez dituelako neurri egokiak hartu, Ermitagaña eskola publikoan ordutegi jarraitua ezartzeko gurasoek egindako bozketan izandako irregulartasunen aurrean. **Q17/68.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak, ikastetxeetako ordutegiaren erregimena aldatzeko, oso gehiago kalifikatua eskatzen duelako (izena emandako ikasleen % 60, ez emandako botoen % 60), eta horrek aldaketa egitea zailtzen duelako, kontrako botoa indartzen baitu. **Q17/663.**

2. kapitulua

kexak

G) Eskola-bizikidetza eta eskola-jazarpena:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak jarrera pasiboa erakusten duelako bere semeak ikastetxean pairatzen duen jazarpen-egoeraren aurrean. **Q17/112.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dituelako beharrezko neurriak hartzen bere semeak ikastetxearen kanpoaldean pairatzen duen eskola-jazarpenaren aurrean. **Q17/205.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, ez dagoelako ados Lanbide Heziketako ikastetxe bateko irakasle batek eskoletan duen jarrerarekin, eta uste duelako horrek ondorioak dituela ikasleen errendimenduan eta emaitza akademikoetan. **Q17/313.**
- Eskola publiko bateko guraso batzuek kexa bat jarri dute, ez daudelako ados eskola horrek ikasle batzuei emandako tratuarekin, ikasle horiek Eguberrietan instalazioetan sartu eta atondoa apaintzeko jarritako Olentzero eraman ostean. **Q17/341.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak jarrera pasiboa erakusten duelako bere semeak ikastetxean pairatzen duen jazarpen-egoeraren aurrean, eta hurrengo ikasturtean beste ikastetxe batean plaza bat eman diezaiotela eskatu du, jazarpen dutenengandik urruntzeko. **Q17/347.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak ez dielako erantzun behin eta berriz egin dituen dokumentazio-eskabideei, bere semeak ikastetxean pairatutako jazarpen-egoerarekin lotuta. **Q17/542.**

H) Unibertsitate-ikasketak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Ministerioa atzeratzen ari delako, bere alabari Londresen lortutako unibertsitate-titulua homologatzeko proze-suan. **Q17/151**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez duelako Nafarroako Unibertsitate Publikora bidali erregistro orokor elektronikoaren bidez aurkeztu zuen eskabide bat. **Q17/321.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Ministerioak ez dielako homologatu Errumanian lortutako Biokimikako Lizentzia. **Q17/388.**
- Herritar batek bere desadostasuna azaldu du, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez dielako baliogabetu Haur Hezkuntzako Irakasle graduan 2016/2017 ikasturteko bigarren seihilekoan eman diren ikasgai guztien matrikula, eskola batean kontratua lortu ondoren eskoletara ezin zuela joan jakinarazi ostean. **Q17/476 eta C17/557.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ez dituelako salbuesten desgaitasuna duten pertsonak Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren tituluak igortzeko tasaren ordainketatik. **Q17/564.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa atzerapena izaten ari delako atzerrian lortu duen Materialen Ingeniaritzako unibertsitate-tituluaren homologazioan. **Q17/750.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren jarduketa batekin. **C17/1113.**

I. Bekak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ukatu egin ziolako bere semeari 2016/2017 ikasturtean master-ikasketak egiteko eskatu zuen beka. **Q17/676.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak eta Hezkuntza Ministerioak bere semeari 2016/2017 ikasturtean derrigorrezko ikasketen osteko ikasketak egiteko eskatutako bekak ukatu zizkiotelako, eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez diolako informaziorik eman Nafarroako Zerga Agentziak emandako datu ekonomikoetan ageri den zenbateko baten jatorriari buruz, eta uste duelako hori lotuta egon daitekeela bi beka horiek ukatu izanarekin. **Q17/748.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak bere alabari ez diolako baimendu derrigorrezko ikasketen osteko unibertsitatez kanpoko nahiz unibertsitateko ikasketetarako ematen duen beka izapidetzea, alabak NANA iraungita izateagatik. **Q17/797.**

J) Musika-ikasketak:

- Lau herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak jarrera pasiboa erakusten duelako beren ikastetxeko irakasle batek duen jokabidearen aurrean, eta ez dielako erantzun irakaslea aldatzeko egin dituen eskabideei. **Q17/795.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eguesibarko Udalak ez diolako plazarik eman bere semeari Udaleko Musika Eskolan, eta

itxaron-zerrendan hurrengo postuan zegoe-nari eman diolako. **Q17/819.**

K) Hizkuntza-eskola ofizialak:

- Laurogeita hamaika herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak ingeleseko A1 maila kendu duelako Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean, eta ez dituelako kontuan hartu hizkuntza horretan oinarritzko mailan ikasten hasi nahi dutenen eskakizunak. **Q17/162.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek "gai" kalifikazioa lortzeko 6ko gutxieneko nota ezarri dutelako, beste autonomia-erkidego batzuetan 5koa ezarrita dagoen bitartean. **Q17/478.**

L) Ikasleen ebaluazioa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, hezkuntza-komunitateko zenbait kideren presioa pairatu duelako, Batxilergoko institutu bateko bigarren mailako ikasle batzuek ikasgaiak gaindi ditzaten. **Q17/496.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez ziolako utzi bere alabari Casio Fx-570es plus kalkulagailua erabiltzen unibertsitatean sartzeko ebaluazioko matematikako proban, eta horren ondorioz ez zuelako proba gainditu. **Q17/516.**

M) Eskabideei ez erantzutea:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako erantzun Departamentuko Hezkuntza Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuan aurkeztu zuen eskabide bati. **Q17/300.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako erantzun aurkeztu zuen eskabide bati, eta administrazioaren isiltasunaren arrazoia jakin nahi du.. **C17/232.**

2.9.10. Energía.

Energiaren gaiarekin lotuta, kexa **bat** aurkeztu da, eta honako edukia du kexa horrek:

- Zortzi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Garapen Ekonomikorako Departamentuak Cordovilla-Muruarte/Muruarte-Orkoiaren deritzon 220kV-eko linea elektrikoa ezartzeko lanak burutu dituelako, eta uste dutelako lan horiek legez kontrakoak direla, bai eta linea horren eraginpeko finikaren behartutako desjabetzearen espedientea oker abiatu eta izapidetu zela ere. **Q17/146.**

2.9.11. Euskara.

Euskararen gaiarekin lotuta, **17** kexa aurkeztu dira, eta arazo hauek planteatu dira kexa horietan:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Atarrabiako Udalak euskara merezimendu gisa baloratzen duelako Haur Hezitzaileen postuetan sartzeko, eta uste duelako horretarako ez dela beharrezkoa ezagutza hori. **Q17/160.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Uharteko Udalaren aurka, uste duelako Udal horrek bazterkeriaz jokatu duela hiriko kanpaldietarako onarpen-prozeduran, adinga-been hezkuntza-eredua lehenetsi duelako, kanpaldi horiek antolatzeko arrazoia kontuan hartu beharrean, hau da, lana eta familia-bizitza bateragarri egitea kontuan hartu beharrean. **Q17/166.**

- Bi herritarrek kexak aurkeztu dituzte, Eguesibarko Udalak inkesta bat egin duelako, euskaraz hitz egiten duten pertsonen fitxategi bat osatzeko, eta uste duelako horrek inkesta egin zaion pertsonaren borondatezkotasun-eta anonimotasun-printzipioak urra ditza-keela. **Q17/270 eta C17/288.**

- Euskararen defentsarako elkarte batek bi kexa jarri ditu, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, psikologo-postuak lekualdatze-lehiaketa bidez esleitzeko deialdian, eta Osasun Departamentuak, fisioterapeuta-postuak lehiaketa bidez esleitzeko deialdian, euskarari buruzko araudia urratzen dutelako, ezartzen baitute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan euskararen ezagutza derrigorrezkoa den plazetan sartu direnek hizkuntza hori derrigorrezkoa den plaza hutsetara soilik aurkezteko aukera dutela, eta uste duelako horrek hizkuntza-arrazoiengan oinarritutako diskriminazioa dakarrela. **Q17/275 eta Q17/279.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dituelako igortzen Euskarabidean lortutako euskarmailaren egiaztagiria, enplegu publikoko deialdietarako, eta hizkuntza horren ezagutza derrigorrezkoa den hautaketa-prozesu bakoitzean dagozkion probak berriro egin behar dituelako. **Q17/307.**

- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat jarri du, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak gaztelaniaz soilik argitaratzen dituelako informazio-buletina eta txioak, eta beraz, euskararen presentzia urria delako departamentuaren sare sozialetan.. **Q17/386.**

- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak ez duelako zehazten euskararen ezagutzari dagokion puntuazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko erizain espezialisten postuak lehiaketa bidez esleitzeko deialdian, eta beste hizkuntza batzuk euskara baino gehiago baloratzen dituelako. **Q17/338.**
- Zizur zendeako sei kontzejuk kexa bat jarri dute, Zizur zendeako Udalak mozio bat onartu duelako, Nafarroako Parlamentuari eskatzen diona Euskararen Foru Legea aldatzeko eta Zizur Zendea eremu mistotik eremu ez-euskaldunera aldatzeko, eta uste dutelako lege-aldaketa hori onartuko balitz herritarren hizkuntza-eskubideak urratuko lirakekeela. **Q17/401.**
- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ez dituztelako sartu Avantius programa informatikoan kale guztien izenak bi hizkuntzatan, eta Justizia Administrazioako izapideak egiteko eredu guztiak gaztelaniaz soilik idatzita daudelako. **Q17/453.**
- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat aurkeztu du, Eguesibarko Udalak ez duelako bete euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen udal-ordenantza, ez baitu puntu guztien % 3 erreserbatu euskararen baloraziorako. **Q17/539.**
- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, Nafarroako Foruzaingoko hamalau kaporal-postu esleitzeko deialdian, ez duelako baloratzen euskararen ezagutza eremu ez-euskaldunetan helmuga duten plazak lortzeko, baina, aldiz, atzerriko hizkuntzen ezagutza baloratzen duelako. **Q17/540.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, nortasun-agiri nazionala berritzera joan denean jakinarazi diotelako Nafarroa izena ez dela ofiziala, eta datu hori berretsi diolako Nafarroako Gobernuak. **Q17/597.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Gobernuaren Kontsumitzailearentzako Informazio Puntuan ez diotelako arreta euskaraz eman. **Q17/610.**
- Euskararen defentsarako elkarte batek kexa bat aurkeztu du, Burlatako Udalak, Udalerako eta haren erakunde autonomiadunetarako obra eta zerbitzuen burutza-postu bat esleitzeko deialdian, ez duelako bete euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen udal-ordenantza, eta balorazio eskasa eman diolako euskararen ezagutzari. **Q17/817.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Berako Udalak udal-zergen ordainagiriak euskaraz soilik bidaltzen dizkiolako. **C17/1350.**

2.9.12. Atzeritartasuna.

Atzeritartasunaren atalean, **9** kexa aurkeztu ziren 2017. urtean. Honako gai hauek dira kexetan azaldutako gai nagusiak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Justizia Ministerioak ukatu egin diolako espainiar naziotasuna, eskatu zitzaizkion egjaztagiriak aurkezteko arauzko epea gainditu zelako. **Q17/223.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ezin izan duelako agintari daniarregandik eskuratu jokabide oneko ziurtagiri bat, Txileko kontsuletxean bisatua tramitatzeko; izan ere,

2. kapitulua

kexak

bisatu hori behar du Nafarroako Gobernuak deitutako nazioarteko praktika batzuk egiteko. **Q17/272.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Cervantes institutuak ezetsi egin diolako bere emazteak "Diploma de Español como Lengua Extranjera" (DELE) izeneko agiria lortzeko proban lortu zituen kalifikazioak berrikusteko eskaera. Agiri hori behar du bere emazteak espainiar naziotasuna eskuratzeko. **Q17/351.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Justizia Ministerioak ez diolako jakinarazi zer espediente-zenbaki dagokion naziotasuna eskatzeko bere prozesuari. **Q17/368.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, legezko bizileku-baimena ukatu zaiolako bere alabari, eta horrek urratu egiten diolako ikasketekin jarraitzeko duen eskubidea. **Q17/497.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Keniak Madrilen duen enbaxadak ez diolako itzultzen akats baten ondorioz egin zion transferentzia. **Q17/760.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Barne Ministerioko Asilo eta Babesaren Bulegoak ez diolako erantzuten bulego horri egin zion informazio-eskaerari (Espainian aberrigabearen estatutua izateko egin zuen eskaeraren espedienteari buruzkoa zen informazio-eskaera). **Q17/806.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Justizia Ministerioa asko ari delako luzatzen denboran bere emakumezko lagun brasildar baten atzerritartasun-espedientea. **C17/1061.**

2.9.13. Funtzio publikoa.

2017. urtean, funtzio publikoaren ataleko **96** kexa aurkeztu dira.

Enplegu publikoaren sarbidearen ataleko kexen atalean, 2.9.1. puntuan, adierazi den moduan, txosten honetan ere honako hauek bereizten dira: a) enplegu-publikoa berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzetan lortu nahi duten herritarrek aurkeztu dituzten kexen multzoa; b) jada enplegatu publikoak direnek Nafarroako herri-administrazioarekiko funtzio- eta lan-harremanen arloan aurkeztu dituzten kexen multzoa. Kexen bigarren multzo horren berri ematen du puntu honek, eta kexa horiek guztiak "funtzio publikoa" izenarekin multzokatu dira, Konstituzioaren 103.3. artikulua funtzionario publikoentzat arautzen dituen eskubideen eta betebeharren multzoarekin duten lotura adierazteko.

Honako hauek dira kexak eragin zituzten gertakari nagusiak:

A) Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak:

- Herritar batek kexa bat jarri du San Adriango Udalak ez dizkielako Udaltzaingoko agenteei balen kontrako txalekorik ematen, eta ez diotelako erantzuten erosi zuen txalekoaren kostua berari ordaintzeko eskaerari. **Q17/31.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Cabanillaseko Udalak hirigintzako ikuskaritza-lanak egitea agintzen diolako, bera aguazila izanda. **Q17/32.**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du Hezkuntza Departamentuak jakinarazpen akastunak egin dituelako baliaezintasun iraunkorrak onartzean (ez duelako errekurtsio-aukerarik adierazi), eta ez diolako bere afiliatuetako bati jurisprudentziak aldi baterako ezintasunagatik hartu ez diren oporregatik kalte-ordaina kalkulatzeko koefizienterik aplikatu. **Q17/57.**
- Herritar batek eta Nafarroako zerbitzu publikoen bi sindikatuk bi kexa jarri dituzte, Hezkuntza Departamentuak azkendu egin duelako Burlatan dagoen Lanbide Heziketako

Ikastegi Integratuko atezainaren kontratua, kontratu hori amaiarazteko arrazoi objektibo bat dagoela adierazita. Kexa jarri dutenek uste dute ez direla legezkoak kargugabetzea eta hura jakinarazteko modua. **Q17/124 eta Q17/125.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dielako erantzun egin dituen eskaera batzuei. Instantzia horien bidez, salatu egiten ditu jasaten duen lan-jazarpena eta bere egoera babesgabea. **Q17/429.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, San Adriango Udalak obra edo zerbitzu jakineko lan-kontratuaren kontratazio-modalitatea baliatu duelako. Pertsona horren ustez, ez da kontratu egokia, ordezkapen-kontratua baita egoera horretan izenpetu beharrekoa. **Q17/462.**
- Herritar batek, D mailako funtzionarioa Burlatako Udalean, kexa bat jarri du, lankide emakumezko bat ordezkatu behar zen denboran agindu zaizkion lanak eta egitekoak ez direlako, bere ustez, toki-erakunde horretan betetzen duen lanpostuari dagozkionak. **Q17/524.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Erriberriko Udalak ez dielako eskatu duen dokumentazioa ematen. Honako hauek eskatu dituela azaldu du: a) udal-funtzionario den aldetik dagokion espedientea, b) udalbatzar jakin batzuetarako zitazioen kopia eta c) iragazki-oholetan udalbatzar horien gainean jarri diren laburpenen kopia. Adierazi du Udalak bere informazio-eskaera erantzuteko baldintza hau ezarri duela: "zerbitzu-premiekin horretarako aukera ematea". **Q17/538.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak bateraezin deklaratu dituelako Nafarroako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan eta EAEko Goi-mailako Kontserbatorioan dituen irakasle-lanpostuak, eta, ondorioz, suntsiarazi egin duelako Nafarroako Gobernuarekin zuen kontratua. **Q17/621.**
- Herritar batek kexa jarri du, Burlatako Udalak ez duelako ezer ere egin lan egiten duen udal-zentroan pairatzen duen lan-jazarpeneko egoera aldatzeko, nahiz eta, egoera horrek bultzatuta, egina duen bere lanpostua lekuz aldatzeko eskaera bat. **Q17/753.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez duelako Nafarroako Foruzaingoan duen lanpostua lekuz aldatzeko eskaerari erantzuten, nahiz eta Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak txosten bat egina duen non adierazten den muga fisikoak dituela egun betetzen duen lanpostua betetzeko eta beste lanpostu batera alda dezaten aholkatzen den. **Q17/765.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak "lan-izaerarik gabekotzat" jo duelako bere lantokian izan duen istripu bat. **Q17/790.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak bateragarritasun bakar bat onartzen duelako, hezkuntzaren alorrean, Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario publiko izanez gero, hau da, unibertsitate-ikastegietan irakasteko bateragarritasuna soilik onartzen duelako, eta ez gainerako hezkuntza-mailekiko bateragarritasunik. **Q17/802.**

2. kapitulua

kexak

B) Enplegatu publikoen ordainsariak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez diolako erantzun Nafarroako Udaltzaingoaren eta Nafarroako Foruzaingoaren arteko ordainsari-erregimenak parekatzeko eskaerari, udal horrek gaur egun funtzionarioen lan-baldintzetarako indarrean duen akordioa betetze aldera. **Q17/192.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez diolako erantzuten ordainsari-osagarri bat parekatzeko eskaerari; izan ere, C mailako ordainsariak jaso dituzte orain arte EVENA erakunde autonomoan laboratoriko laguntzaile teknikoak izateagatik, baina B mailan jasotzen diren ordainsariekin parekatzea eskatzen dute, maila horretan izatea baitagokie. **Q17/196.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez dizkiolako ordaindu Ogasuneko ikuskatzaile zen garaian egin zituen jatordu-gastu batzuk, eta erakunde horrek galdu egin duelako errekurtsua jartzeko behar den dokumentazioa. **Q17/434.**
- Funtzionario publikoen Nafarroako sindikatu batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dielako arrisku handiko soldata-osagarria aitortzen Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan gaitutako teknikariei. **Q17/474.**
- Sei herritarrek, Zangozako Udaleko udaltzainak, kexa bat jarri dute Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta udal horrek ez dizkielako ordaintzen berriazko osagarriari eta errotazio-txandaren osagarriari dagozkion ordainsariak, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak arautuak –arau horrek aldatu egin du martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea, Nafarroako poliziak arautzekoa-. **Q17/526.**
- Sei herritarrek kexa bat jarri dute Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ez dielako aitortzen errotazio-txandaren erregimeneko berriazko osagarria eta txandakako lanaren ordu-konpentsazioa. **Q17/661.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Nafarroako Administrazio Auzitegiak ezetsi egin duelako gora jotzeko errekurtsu bat; hain justu, errekurritutako egintzak, Tafallako Udalak emandakoa, ezetsi egin zuen administrazio-kontratu bati zegokion lanpostu-osagarri bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat lan egiten duten langileek jasotzen dutenarekin parekatzea. **Q17/671.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasun Departamentuak ez diolako aitortzen eta ordaintzen familia-laguntza bere alaba jaio zen egunetik –eskaera egin zuen egunari begiratzen dio Departamentuak-. **Q17/679.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Iruñeko Udalak ez dituelako ebatzi bere ordainsari-erregimenaren gainean aurkeztu zituen bi berrezartze-errekurtsuak. Herritar hori udaltzaina da Iruñean, eta errekurtsuak jarri zituenetik denbora luzea igaro dela adierazi du. **Q17/682.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak diru-zenbateko batzuk bueltatzeko erreklamatu diolako. Familia-laguntza moduan eman zitzaizkion diru-zenbateko horiek, diru-sarrerarik gabeko ezkontidea izateagatik. Herritar horren ustez, ez da erabaki hori arrazoituko duen ebazpenik

eman, eta ezin du, ondorioz, erabaki horren gainean alegazioak jartzeko eskubiderik erabili. **Q17/694.**

- Sindikatu batek eta bi herritarrek hiru kexa jarri dituzte, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua berandutzen ari delako Nafarroako polizien ordainsari-erregimen berria (eta, bereziki, berariazko osagarria) toki-agenteen kolektibora zabaltzeko eman behar diren erregelamendu-xedapenak onartzen. **Q17/713, Q17/717 eta Q17/718.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez duelako departamentu horri emandako zerbitzuen artean zerrendatu 2011/2012 ikasturtean egin zituen ikasketaburutzako lanak, eta ez diolako ordaindu lanpostu horri dagokion zuzendaritza-osagarria. Institutu batean egin zituen lan horiek. **Q17/729.**
- Hamar herritarrek, lan-arriskuen prebentzioko teknikariak guztiak, kexa bat aurkeztu dute, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, lehen bestela jokatzeko arren, derrigorrezko eta ordaindu gabeko izaera eman dielako lan-arriskuen prebentzioaren alorrean ematen diren prestakuntza-ekintzei. Orain arte, borondatezkoa zen ekintza horiek egitea, eta ordaindu egiten ziren. **Q17/749.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiak emandako epai bat betearazteari ekin dionean, Nafarroako Foruzaingoko kabolantzuaren eta inspektoreorde-lanpostuaren ordainsari osagarrien artean dauden aldeak eskuratzeko eskubidea aitortu dion arren, ez diolako aitortu soldata-oinarrian

dauden aldeak eskuratzeko eskubiderik aitortu. **Q17/773.**

- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du Nafarroako Gobernuak ez duelako aitortzen behin-behineko langileen seiurtekoen ordainsari-osagarria, eta osagarri hori atzerako eraginez ordaintzea eskatu du. **Q17/788.**
- Erizaintzako teknikarien sindikatu batek kexa bat jarri du ez dagoelako ados Nafarroako Osasunbidea Zerbitzuak konpentsazio-osagarri bat xurgatzeko arauaren gainean egin duen interpretazioarekin, osagarri horren aplikazioa familia-laguntzara eta beste ordainsari batzuetara zabaltzen duen aldetik. **Q17/805.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Ablitaseko Udalak ez diolako aitortzen administrazio-erregimenean kontratatuko langile den aldetik eskatu zuen familia-laguntza, udal horretako langile funtzionarioei ematen zaienarekin parekatzeko. **Q17/822.**

C) Lanpostuen hornidura:

- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du Osasun Departamentuak ez diolako aitortzen, lanbide-karrerako maila bat iristeko, osasun-sistemako administrazio-kontratuarekin duen antzintasuna. **Q17/61.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak baztertu egin duelako prestakuntzarako zerbitzu-eginkizunetan dauden soziologoaren lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrendatik, osatu egin duelako prestakuntza-egoeran eman zezakeen gehieneko epea, sei urtekoa. **Q17/118.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek, Bigarren Hezkuntzako irakaslea Iruñean, kexa bat aurkeztu du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza zailak ezetsi egin diolako Euskal Autonomia Erkidegora joateko lekualdatzea. Azaldu du lekualdatzeko behar ziren puntuak zituela, baina hura ezetsi zitzaiola, eskabideak formazko akats bat zuelako. Adierazi du, era berean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko irakasleek ezin izan dutela sartu lehiaketaren programan eta faseetan, eta Nafarroako Foru Komunitateko informazioa soilik eskuratu ahal izan duela. **Q17/215.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dizkiolako zuzen zenbatu bere merituen 2016/17 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan Geografia eta Historiako espezialitatea irakasten duten irakasleen lekualdatzeen lehiaketa nazionalaren behin-behineko baremoan eta behin betiko baremoan. **Q17/265.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren enplegu publikoko deialdietatik baztertzen dituelako Osasun Departamentuaren mendeko erakunde autonomoetara atxikita dauden langileak. **Q17/295.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak lanpostuan gutxienez hiru urte osatu izana eskatzen dielako, prestakuntzarako eta hobekuntzarako enplegu publikoaren deialdietan parte hartzeko. Herritar horrek uste du, hiru urteko eskakizun-baldintza ezarri beharrean, E mailako edozein lanpostutan egindako denbora zenbatu beharko litzatekeela. **Q17/308.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez diolako behin-behinean aretoko buru izendatua izateko aukerarik ematen, eta ez dielako prestakuntzarako zerbitzu-eginkizunetako egoeran deklaritzen, indarreko araudiak arautzen duen sei urteko gehieneko epea osatu dielako. **Q17/330.**
- Nafarroako zerbitzu publikoko langileen sindikatu batek kexa bat jarri du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak mailaz igotzeko txandatik baztertzen dituelako aldizkako kontratu finkoa duten langileak, Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzurako langileen lanpostuak hornitzeko deialdietan. **Q17/344.**
- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, lanaldi partzialeko lan-kontratua duten langile finkoek zailtasunak dituztelako Administrazio Publikoan lanaldi osoko lanpostu bat eskuratzeko, eta adierazten dute langile kontratatuek, lanpostuaren jabetza ez izan arren, aldi baterako betetzen dituztela lanaldi osoko lanpostuak. Kexa adierazi dute, era berean, lan-kontratua duten langileek ordainsarrietan jasotzen duten diskriminaziozko tratuaengatik, ez baitzaie graduari dagokiona ordaintzen. **Q17/352 eta Q17/378.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako institutu bateko Gaztelania eta Literatura Departamentuko burutza uztea baimentzen, institutu eta espezialitate horretan antzinatasun handiena duen katedraduna delako. **Q17/395.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Hezkuntza Departamentuak ezetsi egin dielako Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (NHBBZ) lanpostuak zerbitzu-

eginkizuneko araubidean hornitzeko meritu-lehiaketaren deialdiko epaimahaiaren kide bat errekusatzeko eskaera, lan-bateraezintasun agerikoagatik eta etsaitasun pertsonalarengatik. **Q17/409.**

- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, Hezkuntza Departamentuak ustezko irregulartasunak egin dituelako Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (NHBBZ) lanpostuak zerbitzu-eginkizuneko araubidean hornitzeko meritu-lehiaketaren deialdian; izan ere, haien ustez, ez dira behar bezala justifikatu balorazio-irizpideak, epaimahaiko kideek ez dute behar den meritu eta gaitasunik, eta, horrez gainera, ez daude ados balorazio-irizpideekin. **Q17/410 eta Q17/411.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak azkendu egin duelako Nafar Lansare zerbitzuan lan-orientatzaile moduan zuen kontratua, justifikaziorik eta kalte-ordainik gabe. Lan-kontratu mugagabea duela aitor diezaioten eskatu du, sei urte baino gehiago daramatzalako lanean, kontratupean. **Q17/423.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Hezkuntza Departamentuak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu eta izendatzeko meritu-lehiaketara aurkeztu duen zuzendaritza-proiektuari egin dion balorazioarekin. **Q17/485.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuak eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak B mailan sailkatu dutelako Nafarroako Foru Ogasuneko kudeatzaileen eta ikuskatzaile laguntzaileen

kidegoa, kidego horri A mailari dagozkion funtzioak agintzen zaizkion arren. **Q17/489.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak gainerako funtzionarioei baino tratu hobea ematen dietelako zerbitzu berezien egoeran dauden funtzionarioei, mugikortasunaren eta karrera administratiboaren alderdian. **Q17/495.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak baztertu egin duelako 2017/2018 ikasturtean zaintzaileen lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioen barne-mugikortasuneko prozeduratik, eta horrek ikastetxe batean betetzen zuen lanpostuaren galera ekarri diolako. Departamentu horren esanetan, ezin du lanpostu hori bete ikastetxe horretan desgaitasun motorrak dituen ikasle batek ikasten duelako eta kexa-jartzaileak zamak altxatzea eragozten dion desgaitasun bat duelako. **Q17/537.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako erantzuten orain ia bi hilabete aurkeztu zuen erreklamazio bati. Erreklamazio horretan adierazi zuen ez dagoela ados Lanbide Heziketako zentro baten elektronikako departamentu didaktikoaren burutzaren ondokoa hautatzeko baliatu den prozedurarekin. **Q17/580.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Sailak ez duelako arrazoitzen zergatik ez den deialdi publikorik egin institutu bateko zuzendaria eta zuzendaritza-taldea izendatzeko prozeduran. **Q17/599.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak oso maiztasun handiarekin baimentzen dituelako, batik bat ikasketa

2. kapitulua

kexak

ertainetan, antolamendurako eta goi-karguetarako zerbitzu-eginkizunak, baina kexa jartzaileak irizten du horiek aparteko izaeraz onartu behar direla, karrerako funtzionarioak kaltetuta suertatzen baitira horiek onartzen direnean. **Q17/625.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak baztertu egin duelako Administrazio Publikoko teknikariaren lanpostuko lekualdatze-lehiaketatik (ekonomia-adarra), ez duelako urtebeteko iraupendia osatu onartu zitzaion borondatezko eszedentziako egoeran. **Q17/650.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Iruñeko Udalak ez dielako utzi hiri-kontserbazioaren eremuan D mailatik C mailara eta plazen gehikuntzarik gabe igotzeko bi deialditan parte hartzen, eskatutako betekizunak betetzen dituzten arren. **Q17/662.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, Nafarroako Foruzaingoko kabo-lanposturako hamalau plaza hornitzeko deialdiaren proba teoriko-praktikoaren edukietako batek egoera abantailatsuan jarri dituelako Foruzaingoko kidegoan lan egiten duten izangaiak, Nafarroako beste polizia-kidegoetako langileekiko eta udaltzainekiko; izan ere, proba horretako gaia Foruzaingoko kideentzat soilik zen eskuragarria. **Q17/698.**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak, hezkuntzako ikuskatzaileen deialdiaren oinarriak onartzean, ez duelako 2015eko enplegu-eskaintza publikoa onartzen duen foru-dekretuak hizkuntza bakoitzerako araututako plaza-kopurua (bost euskarazko eta bederatzi gaztelerazko) eskaintzen; izan

ere, euskarazko zazpi plaza eta gaztelerako zazpi eskaini ditu. **Q17/740.**

- Sindikatu batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak alkohola eta drogak hautemateko probak eta horiei dagozkien salaketak egiteko baimena eman dielako Nafarroako Foruzaingoaen aldirietako zenbait komisariari, Iruñekoaz eta Tuterakoaz bestekoei, nahiz eta ez duten trafikoaren zaintzarako unitaterik. Kexa horretan adierazten dute ez dela betetzen araudiak agintzen duena. **Q17/744.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez duelako betearazten Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiak emandako epai irmo bat, zeinaren bidez agintzen den berriro baloratu behar direla bere merituak sekzio-burutza bat hornitzeko meritu-lehiaketan. **Q17/752.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Hezkuntza Departamentuak azkendu egin duelako haur-eskola batean zuen zaintzaile-kontratua, desagertu egin direlako, departamentu horren aburuan, kontratazio hori eragin zuten beharrezkoak. Herritar horrek azaldu du beste zaintzaile bat haur bat zaintzen ari zela, eta, aurrerantzean, etxeko laguntza hezitzailea emango zaiola haur horri. Hala ere, zaintzaile horren kontratua azkendu beharrean, kexa-jartzailearen kontratua azkendu dute, nahiz eta kexa jarri duen zaintzaileak zaintzen zuen haurrak eskolan jarraitzen duen eta zaintzaile hori bera desgaitasunak dituzten pertsonen txandatik sartu den zerrendan. **Q17/789.**
- Herritar batek, funtzionarioa Nafarroako Osasunbidea zerbitzuan, azaldu du familia-arrazoiengatik Euskal Autonomia Erkidegora joan behar izan zuela bizitzera 2010. urtean,

eta bere lanpostua EAEko Osakidetza zerbitzura lekualdatzeko asmoa azaldu zuenean, ezin izan zuela halakorik egin, Nafarroan funtzionarioen araubidea dagoelako indarrean eta Osakidetzan, berriz, estatuko gainerako osasun-zerbitzuetan gertatzen den moduan, araubide estatutario finkoa dagoelako indarrean. Hori horrela, zerbitzu-eginkizunetako egoerara igarotzeko eskaera egin behar izan zuen Osakidetzan, eta urtero berrikusten zaio eskaera. **C17/158.**

- Herritar batek adierazi du Osasun Departamentuak ez dizkiola Nafarroatik kanpora egin dituen lanak zenbatzen karrera profesionaleko I. mailan sartzeko, eta ez dagoela ados erabaki horrekin. **C17/520.**
- Herritar batek adierazi du Nafarroako Osasunbidea zerbitzuak erizaintzako bere plazan bi urte soilik daramatzen lankide bati esleitu diola erizaintzako plaza bat, aurretiazko barne-atxikimenduko sistemaren bidez. **C17/741.**

D) Erretiroa eta eskubide pasiboak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) ez dizkiolako zenbatu ikastetxe batean irakasle-lanak egin zituen garaiko kotizazio jakin batzuk, eta ez dagoelako ados, horren ondorioz, klase pasiboetako erretiro-pentsioa zehazteko egin dioten kalkuluarekin. **Q17/77.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak administrazio-ebazpen bat jakinarazi diolako eta, horren bidez, Osasun Sistema Nazionalera igarotzen delako, Nafarroako Administrazio Publikoen mutualitateetako osasun-laguntza bereziko araubidetik. Kexa-jartzaileak uste du, osasun-laguntza berezia jasotzeko onura galtzeaz

gain, murriztu egingo zaiola erretiro-pentsioa; izan ere, Gizarte Segurantzara kotizatu izan balu, mutualitateetako araubidearekin kotizatu duenarekin baino pensio handiagoa izango luke. Horrenbestez, Gizarte Segurantzari dagokion pensioa aitor diezaiotela eskatzen du. **Q17/193.**

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak nahitaezko erretiroa harrarazi zielako 65 urte bete zituztenean, eta ondoren gabe utzi zituelako aurretiaz emandako ebazpen banakatu batzuk, zerbitzu aktiboan 70 urteko adina iritsi arte jarraitzeko eskubidea zutela aitortzen zutenak. Erabaki hori berrikusteko eskatzen dute, Gizarte Segurantzak nahitaezko erretirorako agintzen duen adina bete ondoren zerbitzu aktiboan jarraitzeko baimena ematen baitie Nafarroako Gobernuak 2017ko otsailaren 22an hartu zuen erabakiak Osasun Departamentuko mediku espezialistei. **Q17/231.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak iraungi egin duelako, hogeita bi urteko adina betetzean, bere seme-alabei mutualitateen sistemaren barruan eman zien zurtasun-pentsioaren ordainketa. Azaldu du Gizarte Segurantzaren sistema orokorretan hogeita bost urteko adina bete arte ordaintzen dela zurtasun-pentsioa. Kexa-jartzailearen aburuan, araubideetako jasotzaileen arteko konparaziozko bidegabekeria da hori gertatzea. **Q17/290.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, oso eskasa iruditzen ziolako bere ezkontidea hil ondoren jasotzen duen 146 euroko alarguntasun-pentsioa -harengandik banandua zegoen-.

2. kapitulua

kexak

Pentsio horren zenbatekoa handitzeko aukera planteatzen du. **Q17/326.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, konparaziozko bidegabekeria iruditzen zaiolako erretiro-adin desberdinak ezarri izana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Gizarte Segurantzako araubide orokorrera atxikita dauden langileentzat eta mutualitateen sistemara atxikita dauden langileentzat. Adierazi du 61 urte dituela, 43 urte erdi kotizatu dituela, eta ezin duela 60 urterekin erretirorik hartu, baina mutualitateetara atxikitako langileek adin horretan har dezaketela erretiroa. **Q17/601.**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez dielako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legeak arautu zuen borondatezko erretiroaren sari osagarria aitortzen borondatez aurretiazko erretiroa hartzea erabakitzen duten irakasleei. **Q17/783.**
- Herritar batek kexa kolektibo bat jarri du, kaltegarri eta diskriminatzaile irizten diolako Gizarte Segurantzako araubidera atxikirik dauden osasun-langileek, erretiro-adinarekiko, mutualitateen sistemara atxikita dauden langileekin alderatuta jasotzen duten tratua. Mutualitateetara atxikitako langileek 60 urteko adina iritsita har dezakete erretiroa, legeak arautzen dituen gainerako baldintzak betez gero. Kexa-idatziarekin batera, egoerak eragindako 1.838 pertsonaren sinadurak erantsi ditu. **Q17/807.**

E) Lanaldia, oporrak, lizentziak eta baimenak:

- Berrogeita sei herritarrek kexa bat jarri dute, Hezkuntza Departamentuak denbora luzea daramalako instantzia eta errekurtsio banari erantzun gabe. Horien bidez, desadostasuna

azaldu zen departamentu horren interpretazioaren arabera eskolarik gabeko egunak opor-egun zaizkielako urtebetetik beherako kontratua duten irakasleei. **Q17/2.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ez diolako arazo pertsonaletarako baimen-egun ordaindu batzuk hartzeko duen eskubidea aitortu, aldi baterako ezintasuna izan ondoren. **Q17/23.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Cascanteko Udalak ez dizkiolako aitortzen opor-egunak eta norberaren gauzetarako baimen-egun ordainduak. **Q17/28.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Burlatako Udalak ez dielako bete udal horretako langile funtzionarioen lan-baldintzen inguruko hitzarmenak eta indarreko lan-araubideak lankideen arteko txanda-trukeetarako arautzen dituen xedapenak, eta ez diotelako erantzunik ematen oporrak eskatzeko egin dituen eskaerei. **Q17/206.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ezetsi egin diolako aitortua duen lanaldi-murrizketaren erabilpen metatua, zerbitzua ez delako, metaketa hori onartuz gero, behar bezala emango. **Q17/469.**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Sailak, 2017/2018 ikasturtean, soldatarik gabeko baimenak ekainean hartzeko betebeharra ezartzen dielako bere langileei. **Q17/473.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dituelako berrezartzeko bi errekurtsio ebatzen; zehazki, Udaltzaingoko bi kideren oporren gainekoak dira errekurtsioak. **Q17/507.**

- Sindikatu batek kexa bat jarri du, Burlatako Udalak aldatu egin duelako aurrez adostu zen lan-egutegia. Sindikatu horren esanetan, aldaketak hamabi udaltzainengan du eragina, eta urratu egin da betetzekoa den araudiak agindutakoa. **Q17/518**.
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Burlatako Udalak: a) eragotzi egin diolako eskatu zituen opor-egunak eta norbere gauzetarako egunak hartzea, b) ez dielako legez araututa dauden epeetan erantzun egin dituen eskaerei, eta c) ez duelako euskarri informatikoan eguneratu urteko lan-egutegia. **Q17/519**.
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dielako lanaldian atsedean-denbora hartzeko ("kafe-etenaldia" egiteko) denborarik ematen lanaldi-hereneko edo lanaldi-erdiko murrizketak dituzten langileei. **Q17/530**.
 - Polizia-sindikatu batek kexa bat jarri du, Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiak modu sistematikoan ezesten ari delako familiako kide baten gaixotasun larriarengatik egin diren baimen-eskaerak, nahiz eta baimen horiek emateko eskakizunak betetzen diren. **Q17/576**.
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak ezetsi egin diolako hamabi hiletik beherako seme-alabei bularra emateko baimen ordaindua hartzea bere lanaldiaren hasieran edo amaieran. **Q17/593**.
 - Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dielako bere langileei aitortzen, lan egindako hiru urteko epe bakoitzeko, urtean lau ordu konpentsatzeko aukera, eta ez duelako neurri hori 2017ko urtarrilaren 1erako atzeraeraginarekin betetzen. **Q17/607**.
 - Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasuneko Zerbitzura atxikitako herritar batek kexa bat aurkeztu du, Tuteran prestakuntza-ikastaro bat egiteko agindu diotelako, eta horrek bere lanaldia goizeko 8:00ak baino lehenago hastea dakarkiolako. **C17/1122**.
- F) Parte-hartze sindikala:**
- Nafarroako funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Nafarroako Administrazioetako langile funtzionario eta estatutarioen Negoziazio Mahai Orokorra deitzeko baliatu den prozedurarekin (Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuakegin zuen deialdia). Ez dago ados, era berean, mahai horretan negoziatu direnekin. Mahaira deitua zegoen kexa jarri duen sindikatua. **Q17/716**.
- G) Diziplina-araubidea:**
- Herritar batek kexa bat jarri du Osasun Departamentuak, herritar horri ireki zaizkion bi diziplina-espeditente ebaztean, enplegu eta soldatarik gabe uzteko bi zehapen ezarri zaizkiolako, bi falta astun egin izanagatik. Desadostasuna ageri du, era berean, departamentuak ez dielako erantzun jarri zituen gorako bi errekurtsoei. **Q17/363**.
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Ilunberriko Udalak diziplina-espeditente bat ireki diolako eta aldi baterako eten zaizkiolako udal-funtzionario moduan dituen eginkizunak. Kexa hori jarri du, era berean, ez dagoelako ados jaso dituen nominen kalkuluekin. **Q17/394**.
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak diziplina-espeditente bat ireki diolako falta astun bat egiteagatik; izan

2. kapitulua

kexak

ere, ez zuen bete lan egiten duen institutuko zuzendariak idatziz eman zion agindu bat, bilera batera deitzekoa. Kexa jarri du, era berean, administrazio-jakinazpenak ez zaiolako egin jakinarazpen horietarako adierazi zuen lekuan. **Q17/721**.

- Hiru herritarrek kexak jarri dituzte, Iruñeko Udalak ez dielako ematen haiei ireki zaizkien diziplina-prozeduren gaineko informaziorik. Hiru herritar horien aburuan, egoera horrek, defentsa-gabezia eragiteaz gain, nekez medea daitekeen kaltea sortu die beren izen profesionalari eta pertsonalari, haur-eskoletan ibilbide luzea egin duten arren. **Q17/778, Q17/779 eta Q17/780**.

2.9.14. Toki-entitateen funtzionamendua.

Gai horren gaineko **11** kexa aurkeztu dira 2017an, eta honako eduki hau izan dute:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Zangontzako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak, 2016. urteko aurrekontuan onartzean, ez zituelako bete toki-aurrekontuak onartzeko lege-epeak. **Q17/7**.
- Beireko Udaleko zinegotzi batek kexa bat jarri du, udal horrek hitzez ezetsi diolako udalbatzak egiteko egunak aldatzeko egin duen eskaera; izan ere, lanean izaten da udalbatzak egiten diren egunetan, eta horrek eragotzi egiten dio bere hautetsi-lana egitea. **Q17/342**.
- Lapoblaciongo Kontzejuko presidentek kexa bat jarri du, Lapoblacion-Meanoko Udalak ez dielako erantzuten egin dituen bi eskariri. Eskari horien bidez, bilera bat eskatu du udal-korporazioarekin kontzejuaren eskumenei buruzko zenbait alderdiri buruz hitz egiteko, eta, berariaz, kontzejuko komunalen gainean aritzeko. **Q17/546**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Basaburuako Udalak ezetsi egin diolako bere alabaren eta haren amaren erroldatzea Igoako kontzejuan dagoen etxebizitza batean. Herritarraren esanetan, biak helbide horretan bizi direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu du. **Q17/614**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Beratsaingo Kontzejuak ez dituelako ohiko bilkurak deitzen, eta ez dituelako erantzuten auzotarrek ezohiko bilkura bat eskatzeko egin dituzten eskaerei. **Q17/620**.
- Herritar batek kexa bat jarri du Uharteko Udalak ukatu egin diolako beste administrazio publiko batzuei zuzendutako agirien erregistroa. **Q17/626**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez diolako udalerrri horretan erroldatzen, aterpetxe batean bizi delako. **Q17/630**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Esteribarko Udalak bertan behera utzi dielako musikarako eta jarduera zibikoetarako eraikin bat egiteko aurrekontu-sail bat, eta Ollokiko mugapea Uharteko udalerrian barneratu nahi dielako. **C17/26**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako tokiko mapak, bere ustez, udal-autonomia urra dezakeelako etorkizunean, udalerrien eskumenak eskualdeen esku utzi eta borondatezko mankomunitateak desagerraraziko baititu. **C17/91**.
- Bere udaleko osoko bilkurak graba ote ditzakeen galdetu du herritar batek. **C17/111**.
- Herritar batek kexa bat jarri du kontzejuko burua ez delako han bizi, kontzejuaren erroldatuta dagoen arren. **C17/1094**.

2.9.15. Ogasun publikoa eta katastroa.

Ogasun publikoen, zerga-jardueren eta katastroaren gaineko **48** kexa jarri ziren 2017. urtean.

Honako gertakari hauek dira kexetan azaldutako gai nagusiak:

A) Nafarroako Foru Ogasunaren zergak:

- Merkataritza-sozietate batek kexa bat jarri du, legez-kontrakoak iruditu zaizkiolako Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak jakinarazi dizkion Sozietateen gaineko Zergaren 2011, 2012, 2013 eta 2014ko behin-behineko likidazioak; izan ere, ez zaizkio konturako ordainketa eta gastu kengarri moduan konputatu Ekonomia Jardueren gaineko Zergan ordaindu dituen kuotak. **Q17/174.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez diolako Lagun Aro Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari ematen Nafarroako Ogasunaren erakunde laguntzailearen izaera, eta ez duelako, ondorioz, baliaezintasun handiagatik jasotzen dituen diru-zenbatekoak salbuesten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan. **Q17/212.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, jakinarazteko ez daudela ados zergek 2017an izango duten erreformarekin eta aldaketa horiek Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren aitortpenetan izango dituzten ondorio negatiboekin. **Q17/296 eta Q17/306.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak 2012. urteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioa jakinarazi diolako eta ez dagoelako ados likidazio horrekin. Adierazi du babes ofizialeko etxebizitza bat erosi zuela 2009. urtean eta inork ez ziola esan zer ondorio zituen hura ondorengo hiru urteen barruan saltzeak. Azaldu du hirukiak izan zituztelako saldu behar izan zutela etxebizitza, eta Ogasunak 26.000 euro eskatu dizkiela, interesak barne, etxebizitzaren kontura egin zituzten desgrabazioak itzultzeko. Ogasunaren eskakizuna gehiegi-keria bat iruditzen zaio, eta diru-zenbatekoa murrizteko eta interesik ez kobratzeko eskatu du. **Q17/346.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak jendeari zerbitzu emateko duen ordutegia ez delako nahikoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko, eta horrek zaildu egiten dielako zergadunei beren zerga-betebeharrak betetzea. **Q17/391.**
- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak bi aukera hauek bakarrik ematen dituelako ondarearen gaineko zerga aurkezteko: bitarteko telematikoak erabiltzea edo Nafarroako Zerga Ogasunaren laguntzaile diren erakundeen bitartez aurkeztea. **Q17/413 eta Q17/479.**
- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez duelako doikuntza edo zuzenketa teknikorik jartzen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan hartzaile bateko edo gehiagoko familia-unitateak parekatzeko; horren ondorioz, errenten hartzaileen kopuruak konparaziozko bidegabekeria handia sortzen du kide bakarreko unitateek egiten dituzten aitortpenen emaitzetan. **Q17/424 eta Q17/436.**
- Merkataritza-sozietate batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak urratu egin duelako bere defentsarako eskubidea zerga-oinarrien

2. kapitulua

kexak

zeharkako zenbatespenaren metodoa erabili duenean Sozietateen gaineko Zergaren 2010 eta 2013 urteen bitarteko ikuskapenean eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2011 eta 2014 urteen bitarteko ikuskapenean. **Q17/447.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, handitu egin zaiolako, aurreko urtearekiko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2016ko aitortpenean ordaindu behar duen zenbatekoa, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egin duen zerga-erreformaren ondorioz. **Q17/510.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere enpresa txikiak, jardunean aritzeko, zerga gehiegi ordaindu behar dituela uste duelako. Adierazi du zergen zama oso handia dela fakturatutako zenbateko guztizkoaren gainean, eta horrek enpresan inbertitzea eta lehiakortasuna handitzea eragozten dituela. **Q17/586.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egin duen aldaketak kalte handia egin diolako etxebizitzaren gaineko kenkariarekin hartu duen erabakiarekin. **Q17/648.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez duelako doikuntza edo zuzenketa teknikorik jartzen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan hartzaile bateko edo gehiagoko familia-unitateak parekatzeko; horren ondorioz, errenten hartzaileen kopuruak konparaziozko bidegabekeria handia sortzen du kide bakarreko unitateek egiten dituzten aitortpenen emaitzetan. **Q17/667.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak

bahitura batzuk egin dizkiolako bere erretiro-pentsioan, 2012. urteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioaren ondoriozko zorra ordaintzeko, eta Auzitegi Ekonomiko Administratiboan jarri zituen berrezartzeko bi errekursoak ez zaizkiolako onartu epez kanpo aurkeztu zituelako. Urte hartan egin zuen zerga-aitortpena zuzena izan zela uste du. **Q17/687.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak, 2013. urteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioan, lan-etekin moduan zenbatu diolako pentsio-plan bat erreskatatzeagatik jaso zuen diru-zenbatekoa. Bere ustez, 2014. urteko zergaldian egotzi behar zitzaion diru-zenbateko hori, urte horretan jaso zuelako. **Q17/726.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez diolako ohiko etxebizitzan egindako inbertsioaren kenkaria egiten uzten 2016. urteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean, etxebizitza hori erosteko eman zitzaion diru-laguntzak gaintu egiten duelako kenkari hori izateko ezarrita dagoen legezko muga. Bidegabeba iruditzen zaio etxebizitza bat erosteko ematen den laguntza publikoak ondorio kaltegarriak izatea laguntzaren onuradunaren errenta-aitortpenean. **Q17/777.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez dizkiolako ordaintzen aitortu zitzaizkion berandutza-interesak, zerga-alorreko zuzenketa baten ondoriozkoak. Kexa-jartzailearen aburuan, interes horiek ordaintzen diren egunera bitarte kalkulatu behar dira, eta ez horiek aitortu diren egunera bitarte. **Q17/799.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak errekareru bat kobratu diolako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena epez kanpo egin izanagatik. Adierazi du ez dagoela ados errekareruarekin, Administrazioaren jardunari egotzi behar zaiolako berandutza. **Q17/821**.
- Herritar batek adierazi du amatasuneko prestazio publikoak salbuetsita egon beharko luketela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, eta ez dagoela ados gaur egungo egoerarekin, ez baitaude salbuetsita. **C17/542**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ehuneko desberdinak arautu dituelako ohiko etxebizitzan egindako inbertsioari dagokion kenkarirako, etxebizitza hori erositakoa ala birgaitutakoa den begiratuta. **C17/635**.
- Herritar batek haserrea azaldu du Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak ez diolako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikatu pentsio-planen erreskateari aplikatzen zaion % 40ko murriztapena, aurreko urteko PFEZaren aitortpenean egin zelako murriztapen hori. **C17/1330**.

B) Tokiko zergak:

- Nafarroako autobide baten sozietate emakidadun batek konstituzio-kontraktasuneko errekurtsio bat jartzeko eskatu du, ez dagoelako ados autobideen finantzazioaren, eraikuntzaren eta ustiapenaren emakidadun diren sozietateek Nafarroako Foru Komunitatean jasaten duten tratu baztertzailerengatik. Adierazi du eskubide konstituzionalak urratzen zaizkiela, hiri-kontribuzioa ordaindu beharra dutelako Nafarroan, eta Estatuko araudiak, aldiz, ez

dielako sozietate horiei kontribuzio hori ordaintzeko betebeharririk ezartzen. **Q17/19**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, A Coruña-ko diputazioak enbargo-agindu bat jakinarazi diolako, hiri-kontribuzioaren helbideratzean izan den ustezko akats baten ondorioz. **Q17/36**.
- Nafarroako autobide baten sozietate emakidadun batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak azaroaren 20ko 49/2014 Ebazpenaren bidez A-12 Autobiderako onartu duen Udalaz gaindiko Balioespen Partzialerako Ponentziarekin; izan ere, kexa-jartzailearen esanetan, irregular-tasun formalak izan ditu haren tramitazioak, eta ez da bete abenduaren 28ko 29/2016 Foru Arauak arautzen duena, azken arau horrek lehen aldiz agindu baitu, esanbidez eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lurralde-kontribuzioa ordaindu beharko dutela Nafarroako Foru Komunitateko autobideen finantzazioaren, eraikuntzaren eta ustiapenaren emakidadun diren enpresek. **Q17/117**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Berriozarreko Udalak % 0,221etik % 0,322ra handitu duelako hiri-kontribuzioaren zerga-tasa, babes ofizialeko bere etxebizitzaren katastrobalioa heren bat murriztu den arren (151.546,17 eurotik 99.219,81 eurora). Horren ondorioz, zerga-tasa handitu denez, hiri-kontribuzioarengatik ordaindu behar den diru-zenbatekoa 0,82 euro soilik murriztu da (173,24 eurotik 172,22 eurora). **Q17/332**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere ustez Iruñeko Udalak, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa egitean, tasa gehiegizko bat kobratu diolako eta, bere

2. kapitulua

kexak

iritziko, horren helburu bakarra dirua biltzea delako. **Q17/389**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Noaingo Udalak (Elorz bailara) enbargo-eginbide bat jakinarazi diolako, dagoeneko bere jabetzakoa ez den etxebizitza baten ibiari dagokion tasa ez ordaindu izanagatik. **Q17/445**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lizarrako Udalak beste enbargo bat egin diolako Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondorioz, nahiz eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpen batek balio gabetu egin duen aurreko enbargoa. **Q17/483**.
- Dendarien elkarte batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia-jardueraren bat egin eta milioi bat eurotik beherako negozio-zifra garbia duten pertsona fisikoek eta juridikoek pairatzen duten tratu diskriminatzaileagatik; izan ere, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (EJZ) ordaindu beharrean daude. Elkarte horrek azaldu du araubide komuneko autonomia-erkidegoetan zerga hori ordaintzetik salbuetsita daudela pertsona horiek. Era berean, adierazi du ez dagoela ados zerga hori kalkulatzeko metodoarekin, zergadunaren jarduera pertsonalari begiratu beharrean, sektore bakoitzaren batez besteko bat aplikatzen duelako, eta horrek ez duelako gaitasun ekonomikoaren printzipioa betetzen. **Q17/525**.
- Castejongo auzokideen komunitate batek kexa bat jarri du; izan ere, bi bide publikoren gaintik igaroko den trenbide baten eraikuntzaren eragina jasango du, eta adierazi du Castejongo Udalak ez duela behar bezala likidatu trenbide horren eraikuntzak dakartzan okupazioen gaineko udal-tasak. Udalari eskatzen dio komunitateak egindako

bi eskariei erantzuteko, eta 2015 eta 2016 urteetako likidazioak emateko, horien bidez egiaztatu ahal izateko behar bezala egin ote ziren, eta likidazioa zuzentzeko, uste baitu okupazio-urte osoa hartu behar dela kontuan, eta ez trenak igarotzen diren egunak soilik. **Q17/561**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga likidatu diolako Burlatako Udalak, nahiz eta, egiaz, ez duen ondare-irabazi egiazkorik izan higiezinaren jabetza eskualdatu ondoren. **Q17/570**.
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Zizur Zendeako Udalak ez dielako eskatutako dokumentazio bat ematen. Zehazki, bi herritar horien parte-hartzea izan zuen eskualdaketa batek ordaindu beharreko Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazio-espeditatea eskatu dute. **Q17/589**.
- Merkataritza-sozietate batek kexa bat jarri du, Altsasuko Udalak ez duelako onartu Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ikuskapen-prozeduraren deuseztasuna ofizioz berrikusteko eskaera. **Q17/696**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ez dituelako zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzetik salbuesten hamabi zaldi fiskaletik gorako ibilgailu egokitu gabeak, nahiz eta horrelako ibilgailu baten premian dagoen bere itsutasunagatik. **Q17/709**.
- Merkataritza-sozietate batek kexa bat jarri du, Galarko Udalak premiamendu-probidentzia bat jakinarazi diolako nabe baten eraikuntzalanen zegoen Eraikuntza, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren likidazioa igorri

ondoren, eta udal horrek ez duelako ebazten zerga horren likidazioaren aurka jarri zuen berrezartzeko errekurtsioa. **Q17/715.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez diolako ematen hari eskatu dion dokumentazioa, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazio-espeditente bati buruzkoa. **Q17/782.**
- Herritar batek azaldu du egiten duen jardueraren kontularitza-liburu ofizialak aurkezteko exijitzen ari zaiola Iruñeko Udala, eskatu zuen obra-baimen baten izapidetza egiteko. **C17/144.**
- Bi herritarrek azaldu dute ez daudela ados Azagrako Udalak Eraikuntza, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga kobratu dielako Ebro ibaiak gainezka egin ondoren komunitate-garajea konpontzeagatik. **C17/507 eta C17/509.**
- Arrazismoaren aurka borrokatzen duen elkarte batek kexa bat jarri du, neurritz gain handitu direlako Murilloko el Fruto kulturazentroaren erabilera-tasak. Elkarte horrek salatu du ijito-etniako pertsonak osatutako elkarte bat eta etnia horretako pertsonak kaltetzeko erabaki duela igoera hori. **C17/1399.**

C) Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia:

- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako zerga-paradisuak desagerrarazteko borondate politikorik. **Q17/375.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Aragoiko Gobernuaren Ogasuneko eta Administrazio Publikoko Departamentuak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak Nafarroan duen Ordezkaritza Bereziak ez dutelako

adostasunik lortzen Oinordetzen gaineko Zergaren ordainketan. **Q17/616.**

D) Katastroa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Bidankozeko Udalak ez diolako ematen bere aitaren partzela batzuen gainean eskatu zituen agiriak eta katastro-informazioa. **Q17/158.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Arangurengo Ibarreko Udalak ez diolako erantzuten Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan eta udal-katastroan dauden akatsak zuzentzeko eskaerari; izan ere, 2015ean zenbait aldaketa egin zitzaizkion, ofizioz, bere jabetzakoa den partzelari. **Q17/280.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Goñiko Udalak eta Azantzako Kontzejuak ez dietelako erantzuten bere jabetzakoak dituen zenbait partzelaren katastro-egoera aldatzeko eskaerei. **Q17/472.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Erriberriko Udalak ez dituelako bere jabetzako etxebizitzaren eta lurren katastro-balioak eguneratzen, eta hori du prestazio ekonomiko batzuk eskuratzeko bidea. **Q17/480.**

2.9.16. Industria.

Industriaren gai-multzoan **2** kexa aurkeztu dira 2017an, eta honako eduki hau izan dute:

- Herritar batek kexa bat jarri du, eta kexa horretan enpresa-talde bateko zuzendaritza-taldeak zementu-enpresen sektorean egin dituen kolusio-jarduera batzuk ditu hizpide, Lehiaren Batzorde Nazionalak zehatutakoak. Salatu du estrategia bateratu bat erabaki duela sektoreko beste enpresa batzuekin batera, prezioak ezarri eta Nafarroako

2. kapitulua

kexak

merkatua banatzeko. Erantzukizun penala ekar dezaketen jarduerak direla iritzi du. **Q17/754.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak I+G+b izaerako proiektu baterako jaso zuen diru-laguntzaren zati bat bueltatzeko eskatu diolako. Produktu berri bat (ardo ondu berri bat) egin eta merkaturatu jarraitzeko bultzada bat emateko. Azaldu du departamentuak gehiegizko irizten diola diruz lagundutako proiektuari egotzi zaizkion langileak eta materialak, enpresaren jardueraren zenbateko orokorreko proportzioan, baina ez dagoela ados ikuspegi horrekin. **Q17/417.**

2.9.17. Justizia.

2017. urtean, justiziarekin lotutako **23** kexa aurkeztu ziren. Honako gertakari hauek dira kexen arrazoi nagusiak:

A) Justizia Administrazioa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako konforme Erasungo herritar baten jokabidearekin; izan ere, demanda ugari jarri ditu epaitegietan. Hori horrela, eta prozedura judizial gehiago abia ez daitezen, aldean arteko bitartekaritza bati ekiteko aukeren gaineko kontsulta bat egin du. **Q17/20.**
- Altsasuko zazpi familiak bi kexa jarri dituzte, Auzitegi nazionalak "terrorismo-delitutzat" jo dituelako gau batean Altsasuko taberna batean gertatutakoak. Herri horretako zenbait gazte atxilotu zituzten gertakari horien ondorioz. Gertakarien kalifikazio hori bidegabea, gehiegizkoa eta antzeko gertakarietako diskriminatzailea dela deritzote. **Q17/26 eta Q 17/52.**

- Herritar batek kexa bat jarri du Lizarrako Epaitegiko langileek ez diotelako behar bezala adierazi zer izapide bete behar zituen abiatutako prozedura monitorio batean. **Q17/49.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak denbora luzeegia daramalako doktrina bateratzeko jarri duen kasazio-errekurtso bat onartuko duen ala ez erabakitzen. **Q17/281.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Noingo Bake Epaitegiko pertsona batek bere bikotekideari tratu iraingarria, arrazista eta xenofoboa egin diolako, herritartasun bulgariarra duelako. **Q17/291.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere semearen heriotzaren inguruko gertakariak salatzen. Toxikomania duten pertsonak hartzeko zentro batean zegoen bere semea, eta kexa ageri du haren gorpuaren agerpenarekin. Adierazi du zentroak ez zuela behar bezala zaindu bere semea, eta ez dago ados gorpuaren aurkikuntzaren eta autopsiaren gainean egin diren jarduera judizial eta auzitegikoekin. **Q17/293.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Instrukzio Epaitegiak denbora luzeegia aurretiazko eginbideen prozedura bat izapidetzen. Prozedura horretan alderdi da kexa-jartzailea, eta adierazi du, denbora luze hori igaro denez, artxibatu egin dela auzia, delituak preskribatu egin direlako. **Q17/301.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehen Auzialdiko Iruñeko Epaitegiak denbora luzeegia daramalako bere dibortzio-prozesuari eta bi seme-alaba adingabekoen gaineko zaintzari buruzko sententzia eman gabe. **Q17/337.**

- Herritar batek idatzi baten bidez azaldu du komunikabideek erabat bermatu behar dutela bortxaketen biktima izan diren emakumeen intimitatea babesteko eskubidea. **Q17/374.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lizarrako Instrukzio-epaitegi batek artxibatu egin duelako bere bikotekide-ohiak egin zezakeen bidegabeko jabetze-delituaren gainean jarri duen salaketa. Azaldu du akats baten ondoriozko artxibatzea izan daitekeela, instrukzioa egiteko eskumena Caceresko epaitegi bati legokiokeelako eta ez delako salaketa hara igorri. Horrez gainera, adierazi du epaitegiek ez dutela berak egindako salaketaren gaineko informazio egokirik jaso. **Q17/397.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere senarraren soldata enbargatzeko agindu bat eman duelako Iruñeko Instrukzio Epaitegiak, eta ez dagoelako ados emandako agindu horrekin. Hark lan egiten duen enpresara bidali da agindua. **Q17/555.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Probintzia Auzitegiak denbora luzeegia eman duelako Lehen Auzialdiko Iruñeko Epaitegiak eman zuen auto bati jarri zion apelazio-errekurtsioa ebazteko. **Q17/684.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere ohiko etxebizitza enkantean saldu ondoren nominatik enbargatzen dizkioten diruzenbatekoengatik; izan ere, salmenta-prezioak ez zuen hipoteka-zorra kitatu. **C17/444.**
- Abokatutzan lan egiten duen herritar batek azaldu du bezero bere bezero batek (aita da, epaitegian bananduta dago eta bere seme-alaben guraso-ahala du) zailtasunak dituela bere seme-alaben amak alde bakarrez adingabeko horien gainean hartzen dituen

erabaki jakinen ondorioz (seme-alabak non eskolaratu, etab.). **C17/793.**

- Herritar batek adierazi du ez dagoela ados egin dioten ezgaitze judizialarekin; izan ere, botikak hartu ondoren, nabarmen egin du hobera bere egoerak eta atzera bota nahi du ezgaitzea. **C17/1117.**

B) Abokatuen eta abokatuen elkargoen jokabide profesionala:

- Herritar batek kexa bat jarri du, ez dagoelako ados abokatutzan aritu ahal izateko 2017ko otsailean egin zen deialdiko test-azterketan jarri zituzten galdera eta erantzun batzuekin; izan ere, horien testua nahasgarria zen eta erantzun zuzen bat baino gehiago zeuden galdera berarentzat. **Q17/188.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Abokatuen Elkargoak ez diolako erantzun dekanoarekin biltzeko egin zuen eskaerari, prozedura judizial batzuen gainean zituen zalantzak argitu nahi baitzituen. Zalantza horiek bere abokatuari azaldu behar dizkiola erantzun diote. Adierazi du, era berean, ez diotela erantzun bilera bat eskatzeko bidali zuen bigarren idatziari. **Q17/385.**

C) Doako laguntza juridikoa:

- Herritar batek laguntza ekonomikoa eskatu du bere senide bati peritu-froga bat edo beste autopsia bat egiteko. Zaragozako Probintzia Auzitegiak baimendu du hura egitea, bere kontura. **Q17/106.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Andaluziako Juntak ez diolako erantzuten doako laguntza juridikoa ezetsi ondoren jarri zuen errekurtsioari. Azaldu du, era berean, bizi duen egoera ekonomikoaren ondorioz, zailtasunak dituela mantenu-pentsioa ordaintzeko eta

2. kapitulua

kexak

bere seme-alabak bisitatzeko egutegia betetzeko. **Q17/185.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Estatuko Abokatutzak Nafarroan duen ordezkariak administrazioarekiko auzien alorreko prozesu judizial baten kostuak ordaintzeko eskatu diolako. Doako justiziaren onura zuen kexa-jartzaileak auzi horretan, baina ezetsi egin zen bere errekurtsua eta kostuak ordaintzera kondenatu zuten. **Q17/439.**

D) Erregistro Zibila:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Utergako Udalak bi lekukoren presentzia eskatzen diolako bikote egonkorren udal-erregistroan izena emateko. **Q17/441.**

2.9.18. Ingurumena.

2017. urtean, ingurumenaren babesarekin lotutako **66** kexa aurkeztu ziren.

A) Kutsadura akustikoa edo zaratak:

- Egin zuen kexa berriro indarrean jartzeko eskatu du herritar batek, zaborra jasotzen duen kamioiaren zaratak entzuten jarraitzen duelako bere etxetik. Nafarroako Arartekoak egindako gomendio bat jaso ondoren, zarata horiek murrizteko neurri jakin batzuk abiatzeko konpromisoa hartu zuen Iruñerriko Mankomunitateak. **Q16/514.**
- Egin zuen kexa berriro indarrean jartzeko eskatu du herritar batek, bizi den eraikinaren azpian dagoen taberna baten sukaldetik kea eta usainak datozkiolako oraindik ere. Iruñeko Udalak zenbait neurri hartu zituen halakorik gerta ez zedin, baina ez da arazoa konpondu. **Q16/571.**

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Iruñeko Udalak ez duelako bi etxabetatik datozkien zaraten arazoa konpontzeko neurririk hartzen. **Q17/16.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Zizur Nagusiko Udalak ez duelako etxepean duten supermerkatutik datozkien zaraten arazoa konpontzeko neurririk hartzen. **Q17/119.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak enbargo batzuk egin dizkiolako bere etxetik ateratzen diren zarategatik jarri zaizkion isunen ondorioz. **Q17/163.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez duelako San Kristobal elizako kanpaiek orduak ematean eta mezetara deitzean ematen dituen kanpaikaden soinu handiegia isilarazteko neurririk hartzen. **Q17/194.**
- Hogeita lau herritarrek kexa bat jarri dute, Iruñeko Udalak ez duelako inguruan dituzten etxabeetatik datozkien zarata etengabekoen arazoa konpontzeko neurriak hartzen. **Q17/303.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak ez diolako irtenbiderik ematen hiri-autobusek bere etxetik gertu duten geltokian geratzean egiten dituzten zaretan arazoari. **Q17/314.**
- Bi herritarrek azaldu dute beren etxeetatik gertu, Mutiloan, estanpazioen fabrika bat dagoela eta handik ateratzen diren zaratek eta bibrazioek arazoak dakarziela. Ikusi dute Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak eta Aranguren Ibarreko Udalak ez dutela egoera hori konpontzeko neurririk hartzen, eta ez daude konforme jokabide horrekin. **Q17/353 eta 17/372.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Tafallako Udalak ez duelako bizi den eraikinaren etxabeetatik datozkion zarata etengabekoen arazoa konpontzeko neurririk hartzen. **Q17/357.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez duelako hiriaren alde zaharrear maiz egiten diren ekitaldi eta jardueren ondoriozko zaratek eta zikinkeriek sortutako arazoak konpontzeko neurririk hartzen. **Q17/471.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Ablitasko Udalak ez duelako herri horretako gazteek aisialdian erabiltzen dituzten etxabeak arautzen, eta ez dituelako zehazten, ondorioz, alde guztien eskubideak eta betebeharrak. **Q17/536.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, uste baitu Lizarrako Udalak ikuskapen-lanak egin behar dituela lokal batean jartzekoa den aisia, kultura eta kirolerako elkarte batean. Kexa-jartzailearen aburuan, soinu-isolamendua, segurtasuna, edari alkoholduen salmenta, kontzertuak egiteko baldintzak, gertuko aisia-lokalekiko distantzia eta behar diren lizentziak ikuskatzeko jarduerak egin behar dira. **Q17/548.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Imarcoaingo Kontzejuak eta Noaingo Udalak (Eloz ibarra) ez dutelako bere etxe inguruan egiten diren jarduera gogaikarriengatik eta baloi-jokoengatik sortzen zaizkion arazoak konpontzeko neurririk hartzen. **Q17/574.**
- Bi herritarrek bi kexa jarri dituzte, ez daudelako ados Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak beren etxeetatik gertu dagoen estanzazioen fabrika batetik datorkien zaraten arazoaren inguruan eman duen ebazpen batekin. Kexa-jartzaileen iritzian, ebazpen hori kontraesan dago aurrez eman zenarekin, eta arindu egiten ditu lehen jarri ziren baldintzak. **Q17/608 eta Q17/623.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Corellako Udalak ez duelako hartzen etxepean duten etxabetik etortzen zaizkien kalteak desagerrarazi edo arintzeko neurririk. **Q17/615.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak zehapen batzuk jarri dizkiolako bere ezkontideari, soinuak egin eta desordenak sortzeagatik. Adierazi du ekintza horien egileak gaixotasun mental larri bat duela, eta ez dituela kontrolatzen egiten dituenak. **Q17/619.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Antsoaingo Udalak ez dituelako hartzen herriko zaindariaren festetan izaten diren soinu-mailak apaltzeko neurriak. **Q17/634.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Irunberriko Udalak ez dituelako hartzen herri horretako kanpinaren ondoan dauden txakurtegietako txakurrek egiten dituzten zaunkek kanpineko bezeroei dakarzkieten arazoak konpontzeko neurriak. **Q17/637.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Zarrakazteluko Udalak ez duelako hartzen supermerkatu batetik bere etxera datozen zaratak eragiten dizkion arazoak konpontzeko neurririk. **Q17/743.**
- Bizikideen erkidego batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez duelako behar bezalako esku-hartzerik egiten, bizikide baten bi txakurrek egiten dituzten zaunkek dakarzkien arazo etengabeak konpontzeko. **Q17/747.**

2. kapitulua

kexak

- Berako Udalak kexa bat jarri du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak ez dituelako hartzen N-121-A errepidetik dabiltzan autoek Beratik igarotzen direnean sortzen dituzten soinuen arazoa konpontzeko neurriak. **Q17/764.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Barañaingo Udalak ez dituelako hartzen etxepean dituen hiru etxabek sortzen dizkioten arazoak konpontzeko neurriak eta ez dituelako erantzuten gai horren gainean egin duen eskariari. **Q17/815.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko agente batzuek ez zutelako ezer ere egin denda bateko alarmak etengabe jotzen zuen bitartean, jaiegun batean. **C17/146.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Antsoaingo Udalak saskibaloi-kantxa publiko bat egin nahi duelako bere etxearen aurrean, alde zurretik aztertu gabe zer eragin akustiko izango duen jarduera horrek. **C17/1079.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Mendabiako Udalak ez diolako ematen herri horretan dagoen legar-hobiari buruz eskatu zuten ingurumen-informazioa. **Q17/335.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez dizkiolako ematen Nafarroan amiamoko zurien habiak kentzeko eman diren baimenen gainean eskatu zituen ingurumen-agiriak. **Q17/345.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Bertizaranako Udalak ez diolako ematen jarduera-sailkatu bat egiteko eman zitzaion lizentziari dagokion tasa ordaindu izana adierazten duen informazioa. **Q17/427.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez diolako eman Muru Artederretako mugapean dagoen korta baten gaineko ingurumen-informazioa. **Q17/448.**

B) Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea:

- Elkarte ekologista batek hiru kexa jarri ditu, Atarrabiako Udalak ez diolako eman Ultzama ibaiak herriaren pareko ertzetan dituen arboletan eta landaredian egin diren bi mozketen gaineko ingurumen-informaziorik. **Q17/129, Q17/766 eta Q17/758.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez dizkiolako ematen Bertizko patronatuan egin ziren basogintzako, ehizako eta animalien heriotza-tasakontrolatzeko jardueren gainean eskatu zituen ingurumen-agiriak. **Q17/329.**
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez dielako ematen Zilbetiko pagadian izan diren kalteen gainean eskatu zuten ingurumen-dokumentazioa. **Q17/523.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez diolako ematen Alhama ibaiak Corellako udalerraren parean duen landarediari egin zaizkion mozketen gainean eskatu zuten ingurumen-dokumentazioa. **Q17/592.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez diolako

ematen animaliek Nafarroako parke eolikoetan duten hilkortasun-tasaren jarraipenaren gainean eskatu zuen ingurumen-informazioa. **Q17/741.**

C) Ingurumenaren babesa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñean eta Iruñerrian hegan egiten duten dronengatik eta dron horiek sortzen duten kontaminazioarengatik. **Q17/51.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak zehazpen bat jarri diolako Lezaunen haritz bat moztu eta ustiatzeagatik, horretarako baimenik izan gabe. Adierazi du egozten zaion arau-haustea ez datorrela bat gertatu zenarekin, eta ezin izan duela defendatu, ez zitzaiolako alde zurretik jakinarazi kargu-orria. **Q17/173.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Mendabiako Udalak jarrera pasiboa duelako bera bizi den urbanizazioan egiten diren pinu-mozketek sortzen duten arazoarekiko. **Q17/177.**
- Elkartea ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez diolako erantzun Mendabiako udal-mugapean dagoen legar-hobi batera bota diren hondakinen gainean jarri duten salaketari. **Q17/369.**
- Elkartea ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez diolako erantzun Lekunberriko zabortege zaharrera bota diren hondakinek sortutako kontaminazioarengatik jarri duten salaketari. **Q17/392.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Ultzamako Udalak ez dutelako hartzen Ultzamako ibarrean gertatzen ari diren zenbait gertakarien ingurumen-kontrol efektiboa egiteko neurririk. Herritar horrek salatu du nekazariak herbizidak erabiltzen dituztela lantzen ez diren lurretan eta, fumigatzeko tresneria erabilita, produktu kimikoak zabaltzen dituztela zelaietan; salatu du, era berean, isileko ehiztariak aritzen direla, bertako haritzek ez dutela babesik eta lege kanpoko zabortege baten zaborra Ultzama ibaiaren iturbururaino iristen dela. **Q17/419.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak zehazpen bat jarri diolako luberritzearen bidez basogintzako erabilera bat aldatzeagatik, eta haritz bat mozteagatik. Herritar horrek adierazten du hiru urte baino gehiago igaro direla horiek gertatu zirenetik, eta departamentu horren baimena zuela horiek egiteko. **Q17/664.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez dituelako izapidetu Nafarroako Gobernuaren basozain-eginkizunak betetzean ingurumenaren alorreko arau-hausteengatik jarri dituen zenbait salaketa. **Q17/787.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Erriberako Mankomunitateak ez duelako onartzen bere etxetik gertu dauden edukiontziak beste lekuren batean jartzeko eskaera. Ziertoak zabaldu egiten ditu, gauean, horietan botatzen diren hondakinak, eta bizilagunek kendu behar izaten dute zaborra. **Q17/816.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Sakanako Mankomunitateak ukatu egin diolako

2. kapitulua

kexak

Bakaikun zaborra jasotzeko leku berri bat jartzeko eskaera. **Q17/818.**

D) Faunaren eta ehizaren babesak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, eta horren bidez ezinegona azaldu du, Cascanteko ehiza barrutian ustez egin den bidegabeko jabetze-delitu batengatik. **Q17/207.**
- Elkarte ekologista batek bi kexa jarri ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak ez diotelako Nafarroan dauden zazpi parke eoliko esperimenterako legez kanpoko funtzionamenduen gainean aurkeztu duten salaketari; izan ere, funtzionamendu-epe maximoa gainditu dute eta horien autosorgailuek animalien heriotza eragiten dute. **Q17/225 eta Q17/226.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak ez diolako erantzun espezie babestuak ehizatze baimenak emateagatik jarri duen salaketa bati. **Q17/377.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak ez diolako erantzun elkarte horrek jarri duen salaketa bati. Animaliek, Tuterako ureztapen-putzu baten eraikuntza-akatsen ondorioz, jasaten duten heriotza-tasari buruzko salaketa da. **Q17/383.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak eta Arradako Udalak bere jabetzako zenbait partzela sartu dituztelako tokiko ehiza-barruti batean, Arradan. **Q17/613.**
- Animalien babeserako plataforma batek kexa bat jarri du, administrazio publikoak eta segurtasun-kidegoek ez dutelako animalien ongizaterako eta babeserako araudia betetzen, eta ez dituztelako handitzen animalien aurka legez kontrako ekintzak egiten dituzten pertsonen zehapenak eta zigorrak. Horrez gainera, plataforma horrek beste kexa bat jarri du ez deritzolako egokia animaliek esparru juridikoan duten izaera eta ez dagoelako, Estatuan, animaliak babesteko lege-esparru bat. **Q17/641.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak ez diolako Nafarroan ehizatze baimenik ematen, harik eta gaitasun-probak gainditzeko ez dituen arte. Adierazten du ez dituela proba horiek egin beharrik, eskuratua duelako Gaztela eta Leonen ehizatze lizentzia. **Q17/735.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak erantzun osatugabea eman diolako Barcelosako sakanean eta Santa Ana eta Canrasoko ordokietan egin diren basogintzako jardueren ondorioz katalogatuta dauden animaliei egin zaizkien afekzioengatik jarri duen salaketari. **Q17/745.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Uharteko Udalak tasa bat ezarriko duelako txakurrak edukitzeagatik; horrez gainera, adierazi du udal horrek ez dituela konpontzen herrian txakurrentzat dagoen txizaleku baten akatsak. **Q17/751.**

E) Jarduera sailkatuak eta lizentziak:

- Hamabost herritarrek kexa bat jarri dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak, ebazpen

baten bidez, ezetsi egin duelako Alkoz urez hornitzeko proiektuaren ingurumen-afekzioetarako baimena. **Q17/12.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak tanatorio bat irekitzeko baimena eman duelako, auzotarrei beilatoki bat egingo zela adierazi zitzaizen arren. **Q17/161.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak eta Iruñerriko Mankomunitateak ez dutelako neurririk hartu, nahiz eta merkataritza-sozietate batek, ustez, urratu egin duen emisioen eta isuriaren gaineko araudia, eta jarrera pasibo hori bera dutelako sozietate horri eman zitzaion ingurumen-baimen integratuak adierazten zituen protokoloak bete gabe daudela ikusita. **Q17/286.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Orkoingo Udala asko ari delako luzatzen bere senarraren enpresa irekitzeko lizentziaren izapidetza, eta berandutze horrek ez diolako uzten enpresa horren jarduera egiteko behar duen ibia eskatzen uzten. **Q17/364.**
- Elkarte ekologista batek kexa bat jarri du Garapen Ekonomikorako Departamentuak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak ez dutelako neurririk hartu, nahiz eta merkataritza-sozietate batek, ustez, urratu egin dituen harrobi bat egokitzeke eman zitzaizkion baimenak, eta kexa horretan adierazi du, era berean, ez dizkiotela erantzun gai horren gainean egin dituen eskaerak. **Q17/384.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuak ezetsi egin diolako Ziritzan maskotak zaintzeko, hezteko

eta errehabilitatzeko jarduera ezartzeko eskatu duen baimena. **Q17/534.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Otsagabiako Udalak denbora luzea behar duelako landa-ostatu eta taberna bat irekitzeko eskatu zuen baimen behin-behinekoaren gaineko erabakia hartzeko, nahiz eta lizentzia eskuratzeko behar den dokumentazioa aurkeztu duen. **Q17/640.**

2.9.19. Memoria historikoa.

2017. urtean, **hiru** kexa aurkeztu dira, honako eduki honekin:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ez diolako ordaintzen hari egin eta betearazi zion enkargu bat. Zehazki, Nafarroako harmarria zeraman beirate bat egin zuen, Nafarroako Jauregian jartzeko, Sarasate pasealekura begira dagoen idibegian. **Q17/547.**
- Herritar batek bi kexa jarri ditu une desberdinetan, Atetzko Udalak San Fernandoko gurutzea kentzeko agindu diolako bere jabetzako partzela batean dagoen Nafarroako harmarri batetik. Udal horrek ohartarazi dio ez zaizkiola diru-laguntza edo laguntza publikorik emango, baldin eta ez badu hura kentzen. **Q17/551 eta C17/794.**

2.9.20. Herri Lanak.

2017. urtean, herri-lanen gaineko **11** kexa jarri ziren. Kexetan, honako gertakari hauek azaldu ziren:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Beireko Udalak ez diolako zoladurarik jartzen bere etxetik gertu dagoen kale-ibiltarte bati. **Q17/134.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, bere etxearen aurreko espaloian putzuak egiten direlako eta zaborrak pilatzen direlako bikeztatzeko lan batzuen ondorioz. **Q17/140.**
- Auzokideen erkidego batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak erantzun okerra eman diolako aurkeztu zuen eskabideari. Bere eraikinean hautemandako hezetasunak salatu zituen kexa horretan, udala eraikinaren inguruan lan batzuk egiten ari delako sortuak baitira. **Q17/266.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Leitzako Udalak ez dituelako alde zaharreko galtzadabarrien mantentze-lanak egiten, eta horrek arriskua dakarkielako oinezkoei. **Q17/437.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, udako hiletan karpa iraunkor bat jartzeko baimena eman duelako Uharteko Udalak. Kexa-jartzailea bizi den plazan jarriko da karpa hori. **Q17/449.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Buñuelgo Udalak ez dielako erantzuten aurkeztu dituen bi eskaerari. Bi eskera horietan, bera bizi den kalearen asfaltatzeak zenbait akats dituela adierazten du, eta, ondorioz, sareak berritzeko lanen espedientea ikustea eskatu zuen, batetik, eta bestetik, udalari eskatzen zion aztertzeak ea lan horien enpresa esleipendunak erantzukizunik ote duen kalearen asfaltatzeak dituen akats horietan. **Q17/583.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Torres del Rioko Udalak ez duelako konpontzen bere etxearen kanpoaldetik igarotzen den erretena, eta ez duelako betetzen erreten hori konpontzeko erabakia, udalak osoko bilkura batean hartutakoa. **Q17/600.**
- Auzokideen erkidego batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak eta Iruñeko

Udalak blokeo-egoera bat sortu dutelako etxebizitzaren eraikinean oztopo arkitektonikoak kentzeko lanetan; izan ere, bi administrazio horiek ez dute adostasunik lortzen lan horiek egin nahi diren lekuan dagoen hornidura-hoditeria bat ordeztzeko proiektuaren gainean. **Q17/647.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Puiuko Udalak eta Mairagako Mankomunitateak ez dutelako bera bizi den kalea sartu sareak eta zoladura berritzeko planak berrituko dituen kaleen artean. **Q17/706.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez duelako aldatu nahi oinezkoentzako bulebar batera daraman ibi bat, nahiz eta ibi horren altuerak kalteak eragiten dizkien ibilgailuei. **Q17/823.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Arraitz-Orkin Kontzejuak herriko frontoia estali nahi duelako, alde aurretik bizilagunei kontsultatu gabe. **C17/657.**

2.9.21. Datu pertsonalen babesia.

Datu pertsonalen babesari buruzko **7** kexa jarri ziren. Honako eduki hau izan dute kexek:

- Funtzionario publikoen sindikatu batek kexa bat jarri du, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak Whatsapp aplikazioko talde bat sortu duelako irakasleei mediku-azterketetara deitzeko. Deialdiak egiteko, Hezkuntzako Departamentuak emandako datu pertsonalak baliatzen ditu Institutu horrek. Jokabide horrek datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzen duela irizten du. **Q17/143.**
- Eguesibarko Udalean zinegotzi den herritar batek kexa bat jarri du, udal horrek datu pertsonalak babesteko araubidea urra zezakeelako herritarrei inkestak eta kontsultak

egitean. Udalarari kontsulta edo inkesta horietan parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak babesteko neurriak har ditzala agintzeko eskatzen du. **Q17/459.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dituelako datu pertsonalak babesteko araubidea betetzeko behar diren bitartekoak jarri, gaixotasun baten ondorioz duen lanerako ezintasuna aitortzeko prozeduran. Herritar hori udal-funtzionarioa da. Herritar horrek azaldu du gaixotasun bat duela jakin dutela bere lankideek eta horrela adierazi diotela. **Q17/643.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Internet bidez eta zenbait urtetan jasatzen ari den jazarpena salatzen. Susmoa du master batean ikaskide izan zuen pertsona bati bidali zion epostako mezu baten ondorioz, blog bat edo web-orri bat sortu zela, eta hor bere datu pertsonalak eta bere familiarenak ageri direla. Esaten du datu horiek erabili dituztela bere lankide izandakoek eta ezagun dituen pertsona batzuek, bera difamatu eta iraintzeko. **Q17/646.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, komunikazioko zerbitzuak eta konpainiak, kontatu pertsonalak kudeatzekoak, aplikazio informatikoen titularrak eta bestelakoak pribatutasunean sartzen direlako; izan ere, aplikazioak erabiltzeko, egutegira, kontaktuetara, barne-memoriara, memoria-txarteletara, sms mezuetara, telefono-zenbakietara eta bestelako datuetara sartzeko baimena eskatzen dute. Herritar horrek eskatu du mugak jartzeko, bai konpainiei, bai gure bizitzako informazioa eskuratzeko darabil-tzaten abusuzko metodoei, pertsonak eta beren pribatutasuna babeste aldera. Alde horretatik, datu pertsonalen trafikoa arautzeko eta babesteko eskatu du. **Q17/656.**
- Paternain Kontzekuak kexa bat jarri du, Zizur Zendeako Udalak ezetsi egin diolako, datu pertsonalak babestu behar dituela argudiatuta, kontzeju horretan erroldatuta dauden pertsonen zerrenda emateko eskaera. Zinegotzigoen lan jakin batzuk egiteko eskatu zen zerrenda hori (frontoia eta kontzeju-etxea erabiltzeko txartelak emateko, gazteekin bilerak egiteko, etab.). **Q17/737.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Kirol eta Gazteriaren Zuzendariordetzak aztarna digitalaren bidez fitxatzeko sistema berri bat ezarri duelako eta ez dielako alde aurretik jakinarazi langileei zer eskubide dituzten datu pertsonalaren babesaren esparruan. Nafarroako Gobernuako funtzionarioa da herritar hori. **C17/1478.**

2.9.22. Administrazio Publikoen Ondare Erantzukizuna.

2017. urtean, administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko **12** kexa aurkeztu ziren. Honako hau izan da haien edukia:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Atetzko Udalak ez duelako konpontzen kexa-jartzailearen jabetzakoa den partzela batetik igarotzen den bide pribatu bat. Bide hori hondatuta dago, udal horrek ez zituelako behar bezala konpondu ihes baten ondorioz izan ziren kalteak. **Q17/22.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak ez dituelako aintzat hartzen eskualdeko garraio publikoaren zerbitzuak izan zuen funtzionamendu oker baten ondorioz pairatu dituen kalteengatik jarri dituen erreklamazioak. Zehazki, kalteak izan ditu bat-batean itxi zitazakiolako hiri-autobus bateko atea, autobus horretatik jaisten ari zen unean. **Q17/195.**

2. kapitulua

kexak

- Bi herritarrek kexa bat jarri dute, Iruñeko Udalaren aterpetxeko langileek lo egiteko egun-kopuruaren gainean eman zieten informazioarengatik, eta Tuterako oinarritzko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langile batek eman zien tratua arengatik. **Q17/210.**
 - Herritar batek bi kexa jarri ditu, Osasuneko Departamentuak: a) ez dituelako zuzendu ondare-erantzukizun sanitarioaren gaineko erreklamazioa tramitera onartzen duen ebazten batek zituen bi akats material, eta b) kexa-jartzailearen aburuan, Nafarroako Osasunbidea Osasun Zerbitzuak operazio kirurgiko batean eta operazioaren ostekoan ez zuelako jokabide egokia izan (kalte-ordain bat eskatzen du horrek sortu dizkion kalte fisiko eta moralengatik). **Q 17/110 eta Q17/331.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Orkoiengo Udalak ezetsi egin diolako ondare-erantzukizunaren erreklamazio bat. Herritar hori kalean erori zen, kutxatila bat egoera txarrean zegoelako, eta kalte batzuk izan zituen. **Q17/400.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Erriberriko Udalak ondare-erantzukizuna izan deza-keelako herri horretan dauden ondasun higiezinak balioztatzeko ponentzia berri bat onartu ez duelako, horretarako legezko epe gehienekoa igaro ondoren. Herritar horren aburuan, kalte ekonomiko bat sorrarazi zaio, udalaren jardunik ezak ez duelako zehazten utzi bere instalazio fotovoltaikoarengatik ordaindu behar duen lurraren kontribuzioa. **Q17/414.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Gaztela eta Leongo Osasun Kontseilaritzak denbora luzeegia daramalako ondare-erantzukizun sanitarioko espediente bat ebatzi gabe. Salamancako Unibertsitate Ospitalean herri-tar horri eman zitzaion mediku-arreta ezegokiarengatik abiatu zen espedientea. **Q17/432.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Erriberriko Udalak denbora luzeegia behar izan duelako balorazio-ponentzia berri bat onartzeko, 2006. urtean onartu zena ordeztzeko. Kexa-jartzailearen aburuan, subsidio bat kobratzeko atzerapena eragin dio berandutza horrek. **Q17/521.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak bertan behera utzi duelako, alde zuzenetik abisatu gabe, Iratiko oihanean antolatutako jarduera bat. Adierazi du gastuak egin dituela joan-etorrietan eta janarrietan, eta horiek buelta diezazkioten eskatzen du. **Q17/571.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Osasuneko Departamentuak eta Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez dutelako burutu nahi Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiak emandako sententzia baten behin-behineko betearazpena. Sententzia horrek herritar horri kalte-ordain bat ematera kondenatu zuen Administrazioa, osasun-arreta zabar baten ondorioz. **Q17/688.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Nafarroako Gobernuak Justizia Zuzendaritza Nagusiak denbora luzea daramalako onartu zitzaion kalte-ordain bat ordaindu gabe. Justizia-administrazioaren funtzionamendu anormalaren ondorioz onartu zitzaion kalte-ordain hori. **Q17/796.**
- ### 2.9.23. Osasungintza.
2017. urtean, nekazaritzarekin lotutako **55** kexa aurkeztu ziren. Honakoak izan ziren azaldutako egitate nagusiak:

A) Lehen mailako arreta:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, osasun-sistemaren barruan ez baita abian jarri medikuek historia klinikoetara jotzeko modua koordinatuko eta erraztuko duen sarea. Herritar horren ustez, horrek kalte egiten die erabiltzaileei estatuko edozein tokitan lehen mailako arretarako zerbitzua baliatzeko orduan. **Q17/460.**
- Herritar batek kexa aurkeztu du, bere biloben amak Erriberriko osasun-zentroan egindako medikuen txosten bateko edukia baliatu duelako hitzartutako bisita-araubidea bertan behera uzteko. Azaldu duenaren arabera, adingabeen aiton-amona gisara, akordio bidez hitzartu zuten bilobak ikusteko bisita-araubidea, eta bi aldeak ari ziren hitzarmen hura betetzen; une jakin batean, ordea, umeen amak osasun-etxera jo zuen eta mediku batek txosten bat idatzi zion, non nabarmentzen zen aitonaren bisitaldiek eragin kaltegarria zutela adingabeengan. Horren ondorioz, neskatilen ama hitzartutako bisita-araubidea urratzen hasi zen, eta aiton-amonek beren bilobak ikusteari utzi diote. Horien iritziz, ordea, medikuak ez du ahalmenik mota horretako txosten bat egiteko, eta uste dute sakontasun gehiagoz jardun behar izan zuela, arlo horretako adituek aholkatuta. Osasun-zentroan ere aurkeztu zuen erreklamazioa, baina medikuaren jarduna justifikatzea izan da haien erantzun bakarra. **Q17/724.**

B) Arreta espezializatua:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luzatzen ari delako bizkarrezur-unitatera joateko txanda emateko, bai eta egin zioten erresonantzia magnetikoaren emaitzak emateko ere. **Q17/138.**
- Herritar batek kexa aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua gehiegi luzatzen ari baita belauneko protesi bat ordezkatzeko ebakuntza kirurgikoa egiteko txanda emateko; horrela, araudian aurreikusitako itzaroteko gehienezko epeak urratu dira. **Q17/274.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua gehiegi luzatzen ari baita bere semeari erresonantzia magnetikoa eta artroskopia egiteko. **Q17/348.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari baita errektoskopia bat egiteko txanda emateko. **Q17/412.**
- Herritar batek bi kexa aurkeztu ditu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari delako bere alabari Principe de Vianako kanpo-kontsulten zentroko haur-oftalmologia zerbitzuan txanda emateko. **Q17/415 eta C17/583.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luzatzen ari baita neurologia-zerbitzuan txanda emateko. **Q17/433.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari delako ebakuntza egin ahal izateko beharrezkoa den ordenagailu bidezko tomografia axial (OTA) baterako txanda emateko orduan. **Q17/475.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luzatu egin delako belaunean duen lesioari osasun-arreta egokia emateko. **Q17/482.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua gehiegi luzatu delako belauneko ebakuntza egiteko txanda emateko. **Q17/486.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari delako haren bizkarrezurreko ebakuntza programatzeko. **Q17/494.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari delako haren senarrak Ubarmin Klinikian egin beharreko errehabilitazio-prozesua hasteko. **Q17/529.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luzatzen ari delako haren koinatuari, bizkarreko min handia duela-eta, dagokion osasun-arreta emateko. **Q17/598.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luzeegi jotzen ari delako haren ahizpari mokorreko ebakuntza bat programatzeko, diagnosi egokia ez egin izanaren ondorioz. **Q17/639.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari baita Nafarroako Ospitaleko kolon eta ondesteko kirurgia-zerbitzuan ebakuntza programatzeko. **Q17/690.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ez diolako behar duen errehabilitazioa eskaini haren senarrari. Azaldu du bere senarra egoitzan zegoela lurrera erori ondoren, aldakako hausturagatik ebakuntza egin ziotela, eta medikuek egoitzan errehabilitazioa egiteko gomendatu ziotela. Hala eta guztiz ere, egoitzako langileek ez dituzte betetzen medikuek ezarritako jarraibideak eta, horren ondorioz, bere gizonak ezin du ezta zutik egon ere. Adierazi du, oro bat, kexak aurkeztu dituela gaixoekiko harremanen zerbitzuan, eta ez duela erantzun baliagarririk jaso. **Q17/693.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari delako Tuterako traumatologia-zerbitzuan txanda emateko. **Q17/707.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Gizarte Eskubideen Sailak adostu dutelako haren semea berehala lekualdatzea buruko osasuneko errehabilitazio-klinika batera, eta klinika horrek ez du eskuragarri haren semearen segurtasuna bermatzeko baliabide egokirik. Uste du ez dela bete epai judiziala, bere semeak dagozkion inguruabarrekin bat datorren zentro batean egon behar duela xedatzen duena, hain zuzen ere. **Q17/711.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua luze jotzen ari baita bizkarrezur-zerbitzuan txanda emateko. **Q17/763.**
- C) Jasotako arreta klinikoa eta harekiko desadostasuna:
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ez diolako arreta psikiatriko egokia ematen bere seme adingabeari haur eta gazteen buruko osasun-zentroan. Uste du psikiatrak denbora gutxiegi igarotzen duela bere semearekin, eta ez duela arreta semearengan jartzen, amarengan baizik. **Q17/44.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diolako informaziorik ematen egin zioten gisakoaren ebakuntzek (osteosintesia xafla preformatuarekin, ezkerreko hankako tibia eta peronearen haustura dela-eta) dituzten bermeei buruz eta ebakuntza horietan gertatu ohi diren akatsei buruz. Azaldu du, gainera, ebakuntza egin ondoren ezkerreko oina ezkerreko alderantz biratuta gelditu zaiola. **Q17/169.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duelako behar adinako arretaz jardun, izan ere, ez zioten modu egokian jakinarazi belauneko ebakuntza egin ondoren nolako mina izango zuen. **Q17/171.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko dermatologia kontsultako medikuak erabaki baitzuen ez zuela bere hamazazpi urteko alaba artatuko, azkura handia eragiten zion azaleko erupzio bat bazuen ere, medikuak uste baitzuen txanda gaizki eman ziotela. **Q17/302.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diolako arreta mediku egokia eman pairatzen duen hortzetako arazo baten aurrean. Azaldu du Tuteran dentistarenera joan zela, hortzetako arazo larri bat zela-eta, eta hark Iruñeko aurpegi-masailetakoa kirurgialariarenera bidali zuela. Azken horrek ez zion benetako konponbiderik eman: txosten bat eman zion, protesi bat ezartzea gomendatzen zuena. Gizarte-segurantzak ez du gastu hori estaltzen, ordea. Hori dela eta, kexaren egileak aurpegi-masailetakoa beste espezialista bat esleitzeko eskatu du, bere arazoari benetako konponbide bat emango diona. **Q17/680.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Mendaviako osasun-zentroak arreta pediatriko urria ematen duelako, langile espezializatuak falta izatearen ondorioz. **Q17/708.**
 - Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diolako mediku-arreta egokia eman Ubarmin Klinikako belauneko unitatean. Eskatu du, orain arte egindako bi errehabilitazioek ez dutenez eraginik izan, beste konponbide bat aurki diezaiotela bere belauneko arazoari, ahal bezain laster, bere gaixotasunaren ondorioz ezin baitu ohiko bitzta egin (min handiak eta sastadak pairatzen ditu). **Q17/746.**
- D) Larrialdiak:
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lodosako osasun-zentroko larrialdi-zerbitzuan ez diotelako osasun-arreta egokia eman. **Q17/55.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, ez diotelako osasun-arreta egokia eman Arrotxapeko osasun-zentroko larrialdi-zerbitzuan, Iruñean. **Q17/203.**
 - Osasun-larrialdietako teknikarien elkarte batek kexa bat jarri du, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak mesede-tratua eman dietelako suhiltzaileei Osasun Larrialdietako Lanbide Heziketakoa titulua lortzeko orduan: batetik, prestakuntza-denbora murriztu diete, eta, bestetik, deialdi espezifikoak egin dute soilik suhiltzaileek titulu hori lor dezaten. **Q17/458.**
 - Herritar batek kexa bat jarri du, larrialdi-zerbitzua gehiegi luzatu zelako osasun-arreta emateko orduan, kexaren egilea Urederra ibaiaren iturburua bisitatzera joan zenean

2. kapitulua

kexak

erori ondoren. Horrelakoetan jardute-protokoloa zein den jakin nahi luke. **Q17/644.**

E) Osasun-prestazioak eta gastuak itzultzea:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa eman diolako ohikoa ez den tratamendu bat egiteari, nahiz eta egiaztatuta dagoen tratamendu alternatibo hori oso eraginkorra dela kexaren egileak duen gaixotasuna osatzeko. Herritar horrek adierazi du kolesterola oso altu duela-eta, bere gorputzak ez duela ohiko sendagaien tratamendua onartzen; hori dela eta, bere medikuak beste tratamendu hura baimentzeko eskatu zion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari. Azken horrek, ordea, ukatu egin dio, finantzazio-irizpideak argudiatuz **Q17/227.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diolako itzuli prestazio ortoprotesiko baten gutzizko zenbatekoa. Azaldu du akats bat izan dela eta medikuaren txostenak argi uzten duela bere gaixotasuna sortzetikoa dela, ez traumatikoa ezta tumoral ere; hori dela eta, osorik ordaindu beharko liokete, ez hein batean. Orobat adierazi du orain arte protesia gutziz itzuli izan zaiola. **Q17/404.**
- Herritar batek kexa aurkeztu du, Osasun Departamentuak eten egin duelako orain arte jaso izan duen tratamendua. Tratamendua arazo dermatologiko bat osatzeko da, baina Osasun Departamentuak izaera estetikorikoa dela argudiatzen du orain. **Q17/426.**
- Tuteran bizi den herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko nazioarteko txertaketa-zentroan ez dioelako tratu egokia eman atzerrira bidaiatuz gero nahitaezkoak eta gomendio-koak diren txertoei buruz informazioa eskatu duenean; kexu da, orobat, nahitaez Nafa-

rroako hiriburura joateko beharraz, Foru Erkidegoan ez baitago beste nazioarteko txertaketa-zentrorik. **Q17/467.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ukatu egin diolako bere semeari Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalera egunero joateko aukera, egungo bertaratze-araubidea irizpide tekniko eta terapeutikoen arabera nola aldatuko den erabaki arte. **Q17/568.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lagundutako ugalketa-tratamendu bat ematea eta finantzatzea ukatu diolako, bikotearekin ez bizitzeagatik. **Q17/579.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lagundutako ugalketa-tratamendu bat ematea eta finantzatzea ukatu diolako, bikotearekin ez bizitzeagatik. **Q17/585.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zor bat ordaintzeko eskatu diolako, 2014an jasotako osasun-asistentzia bategatik. Azaldu du bere Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioako funtzionarioa dela eta 2014an MUFACEn osasun-asistentziako araubidearen mende jartzea erabaki zuela. 2014ko martxoaren 18an Lizarrako Harcia Orcoyen Ospitalera eraman zuten, larrialdiko ospitaleratzez, San Adriángo osasun-zentroko bere medikuaren aginduz. Une hartan, MUFACEko osasun-txartela erakutsi zien arreta eman zioten langileei, eta azken horiek ez zioten inolako ohartarazpenik egin. Hiru urteren buruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren faktura bat jaso du, 1.948,24 eurokoa, jasotako osasun-zerbitzuen truke. **Q17/674.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak faktura batzuk ordaintzeko eskatzen diolako, bere alabari emandako osasun-asistentziaren truke. Azaldu du bere alaba MUFACEn onuraduna dela eta, larrialdi-egoera batean, anbulantziak (bere alabaren lagun batek deitutakoa) ospitalera eraman zuela; horrenbestez, uste du ez dagokiola berari larrialdi-egoera batean emandako osasun-arretaren kostua ordaintzea. **Q17/731**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren anbulantzia-zerbitzuak asistentzia urria eman diolako haren aita Nafarroako Ospitaletik La Misericordia egoitzara eramateko orduan. **Q17/738**.
- Hiru herritarren kexak jaso dira, Osasun Departamentuak diru-laguntza urriegia eman baitie zeliakia duten pertsonen elikadura-gastuetarako. Adierazi dute laguntzaren zenbatekoa urtean 20 euro ingurukoa dela, eta gutxiegia dela. Azaldu dute zeliakia gaixotasun kronikoa dela, eta gaixotasun horren tratamendua dieta jakin batera moldatzea dela; zeliakia duten pertsonentzako elikagaiak gainerakoak baino lau aldiz garestiagoak dira, ordea. Gainera, beste gaixotasun kronikoetarako tratamenduen kasuan, horien % 40 ordaindu ohi da. Hori dela eta, urteko laguntza areagotzea eskatzen dute. **Q17/739, Q17/756 eta Q17/757**.

F) Koordainketa farmazeutikoa eta prestazio farmazeutikoak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bi sendagairen (plantaben eta fortasec) finantzazioa ukatu diolako, duen patologia-erentzat (ileostomia baten ondoriozko

beheranzkoa) finantzarriak ez direla argudiatuta. **Q17/477**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diolako erantzun herritarrek dituen narkolepsia eta kataplegia arazoetarako agindutako farmakologia-tratamendu bat emateari buruzko informazio-eskaerari. **Q17/635**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, bere ustez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren irizpideak baztertzailak eta ilegalak baitira harrera-zentroetan egiten den koordainketa farmazeutikoari dagokionez. Uste du zentro horietan sendagaiak erabiltzailearen ekarpenaren arabera ematen direla. Praktikan, ordea, ez da horrela egiten, Osasun Sistema Nazionaleko ospitale, osasun-zentro eta lehen-mailako arretako egituretako farmazia-zerbitzuetarako aurreikusitako eskusioa modu zabalean aplikatzen dutelako. **Q17/705**.

G) Polizia-jarduerak:

- Herritar batek kexa aurkeztu du, izan ere, Osasun Departamentuak ez du neurririk hartu Nafarroako Ospitaleko Zainketa Intentsiboen Unitate Pediatrikoan zerbitzuari eta instalazioei dagokionez dauden gabezien aurrean, ez eta unitate horren higie-baldintza desegokien aurrean ere. Hona hemen kexan aipatutako gabeziak: Zainketa Intentsiboen unitatea pediatren gunea baino hiru solairu gorago egotea (horrek arreta zaildu dezake larrialdi-egoeretan); erabilera orokorreko komun bakar bat egotea, nahiz eta gaixoak bisitatzera doan edonork garbi sartu behar duen, kutsatzea eta birusak hedatzea eragozteko; jateko egokitutako tokirik ez egotea, horrek gastuak aurrezteko erraztuko bailuke (bereziki etxetik urrutiko dauden familientzat, egun gutzia ospitalean igaro

2. kapitulua

kexak

behar baitute); ez dago bana-banako box nahikoa haur guztiak zaintzeko eta babesteko, horren ondorioz, kutsatzeko arriskua areagotzen da (meningitisa eta bestelako infekzioak izan direla aipatzen du); ez dago dolu-boxik, horrenbestez, haur baten heriotza eta dolua bizi behar izan dituzte areto orokorrean, batere intimitaterik gabe; ez daude eremu "garbiak" eta "zikinak" (hau da, arropa edo material erabilia eta garbia bereiz biltzeko tokiak), horren ordez, tamaina handiko gailuen biltegi bat dute, eta langileek ahal duten bezala antolatzen dituzte han gauzak. **Q17/150.**

- Hamalau herritarrek, Nafarroako Ospitaleko psikiatria pabilioiko gaixoak guztiak, kexa bat aurkeztu dute pabilioiaren baldintzak direla eta, eta zerbitzua zein instalazioak hobetzeko zenbait proposamen egin dizkiote Osasun Departamentuari: gaixoak lotzeko eta horiei eusteko sistemak kentzea; geletan giltzaperatzeko neurria ezabatzea; eraikinaren egitura eta geletako espazioen banaketa moldatzea; lurzoruko gesala eta hezetasunak kentzea; sistema elektriko zahar eta arriskutsuak kentzea; erradiadoreen banaketa eta iturgintza moldatzea eta arlo horretako gabeziak konpontzea; hormetan eta errodapietan dauden kalteak konpontzea; altzari zaharrak ordezkatzeta (oheak, gau-mahaiak...); balkoi batzuetako hustubideak buxatuta daude; pabilioian aire egokitua jartzea; eraikinaren sarreran euritik babesteko aterpe bat eraikitzea; langile gutxiegi daude, batez ere arratsaldeko eta gaueko txandetan; aisialdi-jarduerak antolatzea (irakurketa, yoga, ariketa fisikoa, informatika, masajeak edo gaueko irteerak, afal ondoren, pabilioiaren kanpoko lorategian zehar); eta barneko garbitegi-zerbitzu bat abian jartzea gaixoentzat. **Q17/595.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Osasun Departamentuak ez baitu neurririk hartu Nafarroako Ospitaleko instalazioek dituzten gabezien aurrean, izan ere, gabezia horiek zailtasunak eragiten dizkiete gaixoei laguntzeko bertaratutako familiei: ezin dute bainugela erabili, txukuntzeko; ez dago tokirik elikagai galkorrak hozteko; ezin dute etxebizitza bat alokatu, hortaz, estres handiagoa eragiten duten beste konponbide batzuetara jo behar dute, eta horrek berez duten egoera emozional estua larritzen du... Era berean, azaldu du idatzi bat aurkeztu duela Gaixoaren Arreta Zerbitzuan, baina oraindik ez duela erantzunik jaso. **Q17/686.**

H) Bestelakoak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, hortz klinika pribatu batean emandako osasun-arreta zein arreta pertsonala zabarrak izan direla uste baitu. **Q17/74.**
- Lau elkartek kexa bat aurkeztu dute, Cascanteko Udalak ez dielako erantzunik eman "Plantas y terapias para una autosuficiencia sanitaria" izeneko hitzaldi bat ezeztatze eskaerari. Elkarte horien urtez, hitzaldi horrek herritarren osasuna arriskuan jartzen du, eta udala ekitaldiaren laguntzaile gisara agertzen da iragarlearen kartelean. Honako xehetasun hauek azaldu dituzte: Cascanteko alkateari e-mail bat bidali ziotela, txosten batekin batera, baina ez dutela erantzunik jaso; ekitaldi horretan osasun-legediak debekatutako eta, are, delitutzat jotako egitateak gerta litezkela; osasun-agintaritzak, zientzialariek eta aditu kolaboratzaileek soilik dutela legitimitatea osasunarekin lotutako informazioa jendaurrean emateko eta tratamenduak, terapiak edo osasunarekin lotutako produktuak iragartzeko; eta ekitaldi hori ezin dela

adierazpen askatasunerako eskubide baliatuz babestu. **Q17/201**.

batera bide publikoan desordena eragiteagatik ireki diote espediente. **Q17/618**.

2.9.24. Herritarren segurtasuna.

2017. urtean, **27** kexa aurkeztu ziren herritarren segurtasunarekin lotuta. Honako eduki hauek dituzte kexa horiek:

A) Zehapenak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Foruzaingoak zehapen-espediente bat ireki diolako; espediente horretan 150 euroko isuna proposatzen da, segurtasun-kidegoko kide bati errespetua galtzeagatik, hura segurtasuna babesteko bere eginkizuna gauzatzen ari zen unean. Herritar horrek dio salaketan azaltzen diren gertakariak ez direla egiazkoak. Eskatzen du beharrezko jarduketak egin daitezela azaldutako egoera argitzeko eta, oro har, herritarrek tratatu egokia jaso dezaten. **Q17/288**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak zehapen bat ezarri diolako haren ilobari, substantzia estupefazianteak edukitzeagatik; erruduntasunik ez dago, ordea, bere ilobak buruko gaixotasun bat duelako eta judizialki ezgaituta dagoelako. **Q17/450**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzak zigor bat ezarri diolako haren semeari bere autoan labana bat eta aizkora bat eramateagatik. **Q17/515**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak zehapen-espediente bat ireki izana jakinarazi baitiote, herritarren segurtasunaren nahasmendu larri batengatik; zehazki, buruko gaixotasun bat duen bere emaztearekin

B) Poliziaren jarduna:

- Hi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Polizia Nazionaleko agenteek ez diotelako tratatu egokia eman haien alabari, eta agintekeriaz jokatu dutelako. **Q17/157**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste baitu Iruñeko Udaltzaingoaren jarduketa eta jokabide jakin batzuk (gaueko txandako bi agenterenak, zehazki) agintekeriatik oso gertu daudela. Azaldu du, jakinarazi dioten salaketan ez direla objektibotasunez deskribatzen salaketa hori eragin zuten gertakariak, eta ez dela benetan gertatu zena islatzen; horrela, bada, "mailaketa" izeneko atalean adierazten da gertakariak "indarkeriaz, mehatxuz edo intimidazioz" gertatu zirela. Kexaren egileak dio hori gezurra dela, eta eragin zuzena izan duela zehapenaren zenbatekoan. **Q17/320**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Foruzaingoko agenteek bidegabeki egotzi diotelako ebasketa delitua. Uste du poliziaren jarduketa horrek bere defentsarako eta ustezko errugabetasunerako eskubidea urratzen duela. **Q17/573**.

C) Espetxe-administrazioa:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko espetxeak isolamendu-araubidean dauden bere bi semeen eskubideak murrizten dituelako eta ez dielako erantzunik ematen horri buruzko informazio-eskaerei. **Q17/34**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak hirugarren gradua ukatu diolako bere semeari. **Q17/75**.

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko espetxeko teknikarien taldeak eta tratamendu-batzordeak ez dutelako espetxeratuaren jarraipen etengabea eta bana-banakoa egiten. **Q17/131.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste baitu, familia-harremanekin eta osasunarekin lotutako arrazoiak direla medio, orain dagoen Iruñeko espetxetik Zuerako espetxera lekualdatzea beharrezkoa dela. **Q17/316.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Zuerako espetxeak Iruñeko espetxera lekualdatzeko bere eskaerari uko egin diolako. **Q17/340.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, bere bikoteari ukatu egin diotelako Segoviako espetxetik Iruñeko espetxera lekualdatzeko eskaera, bere semea jaiotzekotan badago ere. **Q17/354.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste baitu, familia-harremanekin lotutako arrazoiak direla medio, beharrezkoa dela Segoviako espetxetik Iruñeko espetxera lekualdatzea. **Q17/421.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko espetxeak gutunak atzematen dizkiolako. **Q17/563.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, uste baitu Iruñeko espetxean jasotzen duen tratua diskriminatzailea dela, beste espetxeratu batzuekin alderatuta. **Q17/588.**
- Iruñeko espetxean espetxeratutako hiru herritarrek kexa bat jarri dute, jasotzen duten tratua bidezkoa ez dela argudiatuz. Azaldu dute hainbat astez bere buruaz beste egiteko eldarnioak izan dituen espetxeratu bat zaintzera behartu dituztela, eta beldur izategatik horretara ausartzen ez zen

kideetako bati zigor bat ezarri diotela. Azaldu dute, era berean, espetxeratuetakoa bat beste bat zaintzera behartu zutela, gisa horretako egoerei aurre egiteko gaitasunik izan gabe. Adierazi dute espetxeko funtzionarioek partean (karguen agirian) jaso dutela espetxeratuak mehatxuz eta bortxaz jokatzeko dutela eta hitzez erasotzen omen dituztela; kexaren egileen arabera, ordea, hori ez da egia. Gainera, espetxeratuak gaixorik daudenean, funtzionarioek esaten diete ez dituztela bulegoetara bidaliko harik eta bihotzekoak eman arte edo hiltzear egon arte. Azaldu dute, azkenik, espetxeko langileekin elkarrizketak eskatzen dituztenean idatziz erantzuten dietela, ez azkenean ez dutela haiekin hitz ahal izaten. **Q17/812.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, uste baitu, familia-harremanekin lotutako arrazoiak direla medio, beharrezkoa dela Zuerako (Zaragoza) espetxetik Iruñeko espetxera lekualdatzea. **Q17/813.**

D) Jokoa:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu eta, horren bidez, jokoari buruzko publizitatea debekatzeko eskaera egin du, adingabeei arreta berezia jarrita, jokoak mendekotasuna sortzen baitu. **Q17/294.**

E) Ikuskizun publikoak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Bakaikuko Udalak ez baititu beharrezko kontrol- eta segurtasun-neurriak hartu San Joan suetarako, izan ere, su horiek bere jabetzeko etxebizitza batetik oso gertu pizten dira. **Q17/463.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Dicastilloko Udalak, herriko jaietan, zekorrak baliatzen baititu herriko plazan egiten den

haurrentzako ikuskizun batean, plazan anbulantziarik egon gabe eta babes-neurri bakar gisara lanetarako baliatzen diren hesiak jarrita. **C17/867**.

F) NANA egitea eta baimenak ematea:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Barne Arazoetako Ministerioak ukatu egin diolako arma-baimena beste bi urtez luzatzea, bere zigor-aurrekaria baliogabetuta egon arren. **Q17/78**.
- Herritar batek kexa aurkeztu du, guraso ezkongabeen kolektiboari ez zaiolako aitortu NANA egiteko zergaren ordainketa-salbuespena. **Q17/406**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, gehiegi itxaron behar izan duelako Nafarroan NANA egiteko aurretiko hitzordua eskuratzeko. **Q17/528**.

G) Bestelakoak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, zailtasunak izan dituelako Espainian detektibe pribatutzat gaitzeko, eta horrek ondorioak dituelako erretiro-pentsioa lortzeko orduan. **Q17/15**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, barne Arazoetako Ministerioak ez duelako bere izeba terrorismoaren biktima gisara aitortu, 1957 eta 1959 urteen artean bahituta izan zuten arren. **Q17/334**.
- Herritar batek bere egonezina adierazi du, bere ustez permisibitatez jokatzeko baita atzerritar islamistekiko. **Q17/591**.

2.9.25. Gizarte-segurantza.

2017. urtean, gizarte segurantzarekin lotutako **22** kexa aurkeztu ziren. Honakoak izan ziren azaldutako gertakari nagusiak:

A) Pentsioak:

- Herritarren plataforma batek entzunaldia eskatu du Nafarroako Parlamentuan, izan ere, Konstituzioaren erreforma bat eman nahi dute ezagutzera, jaso dezana gobernuak berariaz debekatuta izango duela, gaur egun zein etorkizunean, pentsioen sistema publikoa ukitzea, murriztea edo pribatizatzea, eta pentsioen benetako erosteko ahalmenari eutsi beharko zaiola. **Q17/24**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak erretiro-pentsioa ukatu diolako bere emazteari, ez baita iristen hori eskuratzeko azken hamabost urteetan kotizatutako egunen gutxieneko kopurura. **Q17/141**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Venezuelako Gizarte Aseguruen Institutuak ez diolako erretiro-pentsioa ordaintzen, nahiz eta pentsio hori aitortuta duen, Espainiaren eta Venezuelaren artean sinatutako Gizarte Segurantzaren Bi Aldeko Hitzarmenaren arabera. **Q17/159**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak gaixotasun arrunta dela-eta jasotzen duen ezintasun absolutuko pentsioaren zenbateko handi bat kentzen baitio haren semeari, hilero, zehapen judizial gisa. **Q17/183**.
- Herritar batek kexa bat jarri du; horren bidez, bere desadostasuna azaldu nahi izan du erretiroari dagokionez Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean edo MUFACEn kotizatzearen artean dauden baldintza desberdinen aurrean (baldintzak hobeak dira bigarren erakundearen kasuan). **Q17/198**.
- Hiru herritarrek eskatu dute beharrezko kudeaketak egin daitezela pentsiodunen

2. kapitulua

kexak

eskubideak babesteko, besteak beste: pentsioak KPlaren arabera berrikustea, erretiroa hartzeko adina 65 urtetan ezartzea berriro, 60 urtetik aurrera erretiro aurreratua hartzeagatiko penalizazioa kentzea baldin eta 40 urte kotizatu badira, oinarrizko hornidurak bermatzea, osasun-koordainketa kentzea, zerbitzu publikoak ez pribatizatzea (bereziki pertsonarik babesgabeenei dagozkienak), eta pentsio publikoen eredua defendatzea eta hobetzea, baita lanbide arteko gutxieneko soldata ere. **Q17/219, Q17/220 eta Q17/221.**

- Herritar batek kexa bat jarri du; horren bidez, desadostasuna adierazi nahi izan du finantza-erakundeek pentsio-erretiroa jasotzen dutenek, bizirik daudela egiaztatzeko, nahitaez bete behar dituzten banku-errekerimenduei dagokienez. **Q17/273.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ez diolako erantzun erretiro-pentsioa emateko eskariari. **Q17/319.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia) ez dizkiolako osorik itzultzen eskatzen dituen okerreko diru-sarrera guztiak, horietako batzuk itzultzeko eskubideak preskribatu duela arrazoituta. Kexaren egileak azaldu du zenbait urtez autonomo gisa lan egin zuela eta 2014an, baja hartuta zegoela, ikuskapen bat egin zutela bere lantegian. Ikuskapen-prozedura bukatu ondoren, errekurtsua aurkeztu zuen zegokion organo judizialean, baina epaia bere asmoen aurkakoa izan zen. Adierazi du 2017an okerreko diru-sarrerak itzultzea eskatu zuela, "LAABeko alta lan-ikuskapenagatik baliogabetzeagatik eta ondorengo epaiketa, ebazpena eta jardueraren aitorpena ere galdu izanagatik"; hala eta guztiz ere, jakinarazi

dioten ebazpenak dio bere eskabidea hein batean onartzen dela eta okerreko diru-sarreraren zati bat soilik itzuliko zaiola, 2013. urtearen aurreko diru-sarrerek preskribatu dutela argudiatuz. Kexaren egileak adierazi du, ordea, ezin izan zuela itzultzea lehenago eskatu, prozesua epaitegietan zegoelako eta epaia oraindik eman ez zelako. **Q17/322.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, izan ere, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak bahitura bat gauzatu du titularkidea den kontu korrante batean, bere egunean tutoretza pean zuen pertsona batengatik bere gain hartu zuen zorra dela eta. **Q17/466.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazteko haren biloba adingabeak ez duela osorik jasotzen aitortuta duten zurtasun-pentsioa, umearen amak horren zati bat hartzen baitu. **Q17/691.**

B) Ezintasunen aitorpena:

- Herritar batek bere kexa berriro irekitzea eskatu du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak berriro ukatu diolako ezintasun iraunkorreko prestazioa, nahiz eta medikuen txostenek adierazten duten onuradunak duen bihotzeko gaixotasunagatik ebakuntza egin zioten arren ezin duela pisua altxatu, zama bultzatu edo ahaleginik egin, eta jarduera horiek nahitaezkoak direla bere lanbidean (autoen mekanikaria). **Q16/51.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, aldi baterako ezintasun-egoeran egonik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) ez diolako medikuaren beste baja bat ematen. Azaldu du bizkarreko arazo larriak dituela eta, medikuen txostenen arabera, ez dagoela lan egiteko baldintzetan, aitzitik; okerrera egiten ari da.

Adierazi du GSINk aldi baterako ezintasun prozesuan alta eman ziola eta erakunde kudeatzaile horrek jakinarazi diola hura dela aldi baterako ezintasun-egoeran beste baja bat emateko ahalmena duen erakunde bakarra, hurrengo 180 egunetan gertatzen bada. Adierazi du, orobat, berriz gaixotzeagatik baja hartzeko eskabidea aurkeztu duela GSINn, lan egiteko ezintasunak bere horretan eusten baitio; GSINk ez du eskaera onartu, ordea, gaixotasuna berbera delako eta 180 eguneko epea ez delako igaro.

Q17/35.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) ez diolako medikuaren beste baja bat eman nahi, aldi baterako ezintasun-prozesu batean berriz gaixotzeagatik. Azaldu du endometriosi larria duela eta ebakuntza kirurgikoa egin badiote ere, bere egoera ez dela hobetu; horren ondorioz, beste ebakuntza bat egiteko zain dago. GSINk duela bi hilabete eman zion medikuaren alta. Hala eta guztiz ere, medikuen txostenek adierazten dute minak eguneroko jarduerak egin ahal izatea eragozten diola, eta atsedean erlatiboa gomendatzen diote; horregatik eskatu zion GSINri berriz gaixotzeagatik baja emateko.

Q17/56.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) Donezteben duen bulegoak informazio osatugabea eman ziolako eta, horren ondorioz, bere ekonomiari eta osasunari eragin dioten akatsak egin dituelako. Azaldu du hirurogei urte bete zituenean GSINren aipatutako bulegora jo zuela erretiro-pentsioa jasotzeko bete behar zituen eskakizunei buruzko informazioa jasotzeko, eta bulego hartako langileek adierazi ziotela bere pensioa nabarmen murriztuko zela, 65 urte betetzeko zenbait urte falta zitzaizkiolako.

Ondoren, hirurogeita bost urte bete zituenean, berriro joan zen bulego hartara eta langileek azaldu zioten azken 15 urteen barruan bi urte kotizatuta izatea falta zitzaiola eta, horren ondorioz, ezin zuela erretiro-pentsioa jaso. Azaldutako inguruabar horiek guztiak eta erretiro-pentsioa jasotzeko beharrian ekonomikoa aintzat hartuta, bi urtez etxeko langile bezala zerbitzu ematea simulatzea erabaki zuen, eta urte horietan enplegatzaileak zegozkion kotizazioak ordaindu zituen, baina zerbitzua ez zen egiazki gertatu. Lan-ikuskapen baten ondorioz, Administrazioak 6.251 euroko zehapena ezarri zion, ordea, eta, gainera, ez zizkion aintzat hartu, pensioa aitortzeko ondorioetarako, azken bi urteetan egindako kotizazioak. Hori dela eta, erretiro-pentsioa eskatu zuenean, ukatu egin zioten. Horregatik guztiagatik, kexaren egileak uste du lehen aldiz bulegora joan zenean jakinarazi izan bazioten azken hamabost urteetan bi urtez lan egitea beharrezkoa zela, orduan bazuela aukera enplegua lortzeko.

Q17/323.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) ez duelako onartu aitortuta duen lanaz kanpoko istripuagatik erabateko ezintasun iraunkorraren maila aldatzeko eskabidea. Azaldu du 2013an Lan Arloko Epaitegi batek erabateko ezintasun iraunkorra aitortu ziola, lanaz kanpoko istripu batek eraginda, eta 2016.aren bukaeran ezintasun iraunkorra berrikusteko espediente bat hasteko eskabidea egin zuela, bere ezintasun-maila aldatzeko. GSINk ez dio berrikusketa onartu, ordea. Kexaren egilea ez dago ados ebazpen horrekin, izan ere, ebazpenean jasotzen diren patologiak ez datoz bat errealitatearekin; aitzitik, berak aurkezten dituen medikuen txostenen arabera, patologia larriagoak ditu.

Q17/333.

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ez diolako aldi baterako ezintasun-egoera luzatu nahi. Azaldu du aldi baterako ezintasuna eskatu zuela, ebakuntza behar zuen belauneko arazo batengatik, eta, ondoren, GSINk alta eman ziola. Gerora, medikuaren baja eskatu zuen, berriro gaixotzeagatik, eta horrekin batera txosten traumatologikoa aurkeztu zuen, izan ere, belauneko patologiaren ondorioz bere ohiko lana egin ahal izan gabe jarraitzen zuen. GSINk aldi baterako ezintasuna onartu zion, sei hilerako, eta ezintasun iraunkorreko espedientea abiaraztea adostu zuen. Azkenean ezintasun iraunkorra ukatu diote, ordea, uste baita belaunean dituen lesioek ez dutela ezintasun iraunkorra egokitzeko adina mugatzen bere lanerako gaitasuna. Era berean, GSINk luzapena kendu dio, aldi baterako ezintasun-egoerari dagozkion ondorio ekonomikoetarako, eta ezintasun-egoera izan aurretik zuen lanbidera itzultzeko agindu dio. Jurisdikzio-bidearen aurretiko erreklamazioa ere aurkeztu du, baina ez dute onartu. Kexaren egileak adierazi du egin behar dioten ebakuntza (2017ko ekainaren bukaerarako programatua) lehenago egin izan bazen, dagoeneko sendatuta egongo zela eta ez zukeela aldi baterako ezintasuna eskatzeko beharrik izango. Horrela, GSINk aldi baterako ezintasuna luza diezaiola eskatu du, izan ere, lanera itzultzeko behar duen belauneko ebakuntza egiteko zain dago. **Q17/487.**

C) Kotizazioak:

- Herritar batek kexa aurkeztu du, Enpleguko eta Gizarte Seguratasuneko Ministerioak areagotu egin baititu enplegatuak Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioak etxeko enplegatuen kontratazioari dagokionez, baina murriztu egin dituelako, ordea, kotizazio-pizgarriak. **Q17/665.**

2.9.26. Zerbitzu publikoak.

2017. urtean, zerbitzu publikoekin lotutako **23** kexa aurkeztu ziren. Honakoak izan ziren azaldutako gertakari nagusiak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere: a) Latasako Kontzejua luze jotzen ari da 2015ean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren su-egurraren sorta bat esleitzeari buruzko ebazpena exekutatzeko; b) ez dio informaziorik eman erositako atzerako hondeamakinaren kudeaketari buruz, eta c) ez dio erantzun kexaren egilea bizi den kaleko argiztapena areagotzeko egindako eskariari. **Q17/38.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak ez duelako aurreikusten guraso bakarreko familiei murriztutako tarifak aplikatzea garraio publikoko zerbitzuan. **Q17/69.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak ez dizkielako tarifa murriztuak aplikatzen guraso bakarreko familiei Civivoxeko ikastaroetan, ezta hiri-kanpamentuetan ere. **Q17/70.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Agoitzeko Udalak ez duelako neurririk hartu bere etxebizitzan (kexaren egilea bost urteko eta urtebeteko bere bi seme-alabekin batera bizi da han) pairatzen ari den ur-horniduraren gabezia konpontzeko. **Q17/154.**
- Auzo-elkarte batek kexa bat aurkeztu du, batetik, Zizur Nagusiko Udalak ez dituelako zerbitzu publiko nahiko jarri Ardoi urbanizazioan, eta, bestetik, Iruñerriko Mankomunitateak ez duelako abian jarri Zizur Nagusiko urbanizazioa, herri zaharra eta Ardoi lotuko dituen autobus-linea. **Q17/164.**

- Herritar batek bi kexa jarri ditu, Moncayoko Uren Mankomunitateak Barillasko Udalari eskatu diolako herriko kale batetik igarotzen den hodi biltzailea konpontzeko; kexaren egilearen ustez, ordea, Mankomunitatearen esku daude Barillasko ur-hornidura eta saneamenduko zerbitzuaren eskumenak. **Q17/224 eta C17/1071.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Sorladako Udalak ez diolako erantzun bere jabetzeko landa-ostatu baterako zerbitzu publiko jakin batzuk emateko eskabideari. **Q17/268.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak eskualdeko garraio publikoko txartelaren tarifa soziala ukatu diolako, nahiz eta kexaren egileak ezintasun iraunkor osoa aitortuta duen bere ohiko lanbiderako. Azaldu duenaren arabera, Mankomunitateak erabateko ezintasuna, baliaezintasun handia edo % 65eko edo goragoko desgaitasuna aitortuta dutenei soilik eskaintzen die tarifa hori. **Q17/276.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Arguedasko Udalak ez duelako baimena ematen bere gurasoen etxebizitzaren azpian kontainer bat jartzeko. Izan ere, bere amak Diogenes sindromea du eta, horrela, etxea bizkorrago eta ahal bezain diskrezio handienarekin hustu nahi dute. **Q17/343.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, lanegunetan telebistako serie eta pelikulen "prime time" ordutegia gaueko ia 22:50era arte atzeratzen ari baita, edo are beranduago, eta uste baitu horrek bizitza pertsonala eta lana uztartzea zailtzen duela. **Q17/371.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, izan ere, seme-alabak zaintza partekatuko erregimenean izanik, etxebizitza bakar batean errolatuta edukitzeak gurasoen artean sortzen dituen desberdintasunaren aurrean, Arangureneko Udalak ez ditu aplikatzen errolatuentzako aurreikusitako tarifak zerbitzu publikoen erabileran. **Q17/431.**
- Bi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Aberingo Udalak ez baititu zerbitzu publikoak berdintasunez jartzen udalerria osatzen duten bi herri guneeetan. Uste dute Muniainek faborezko tratua jasotzen duela, Aberinen kaltera. Kexa-idazkiarekin batera, eragindako 73 pertsonen sinadurak erantsi dituzte. **Q17/454.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dituelako neurri eraginkorrak hartu Burgoen plazako auzokideek pairatzen duten egoeraren aurrean. Uste du inguru hartako garbitasuna areagotu behar dela, eta aterperik gabeko pertsonekin esku-hartzeren bat egiteko aukera aintzat behar dela. **Q17/611.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, izan ere, Iruñeko Udalak: a) ez ditu Iturramako aire libreko gimnasioan gaizki dauden gailuak aldatu; b) ez du makina berririk jarri gimnasio horretan; eta b) auzoaren tamaina dela-eta, ez dagokio beste gimnasio bat ezartzea. **Q17/632.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, garapen Ekonomikoko Departamentuak ez duelako konponbiderik proposatu elektrizitate-horniduren programatutako etenaldiek bere farmazian eragiten dituzten kalteen aurrean; izan ere, etenaldi horiek farmaziako produktuak hondatzen dituzte, hotz-katea etetearen ondorioz, eta ezin dute, besteak beste, txertorik, intsulinarik ez antibiotikorik saldu. **Q17/659.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko

2. kapitulua

kexak

eta Justiziako Departamentuak ez duelako beharrezko neurririk hartu Leitzako herritarrak gai izan daitezen seinalean etenaldirik gertatu gabe telebista ikusteko. **Q17/672.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iratiko hiriko hondakin solidoen mankomunitateak gehiegizko urteko kuota eskatzen baitio bere jabetzako lokal huts bati dagozkion zerbitzuen truke. **Q17/685.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Obanosko Udalak ez baitie erantzun bizi den kaleko garbitasunari, trafikoari eta seinalez-tapenari buruz egindako hainbat eskabideri. **Q17/695.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, ez dagoelako ados Indiatik bidali zituen objektu pertsonalen pakete bat jaso ahal izateko, aduana-zerbitzuak ordainarazi nahi dion zenbatekoarekin. Azaldu du herrialde hartan bidaiatzen ari zela eta Espainiara itzultzeko orduan ezin izan zuela aldean zeraman guztia ekipaje gisara ekarri; hori dela eta, pakete bat egin, eta bere ohiko etxebizitzara postaz bidaltzea erabaki zuen. Espainiara itzuli ondoren, bidalketa egin zuen enpresak jakinarazi dio paketea jaso ahal izateko bi datu egiaztatu behar dituela: bidaltzailea bera dela eta Indian egon dela. Agiriak aurkeztu ondoren (pasaportea, objektu pertsonalen balioa jasotzen duen zinpeko adierazpena eta han egindako ikasketen diploma bat), "inportazio-aurrekontua" jaso du, eta hor adierazten da aduana-zerbitzuaren truke 28,56 euro ordaindu behar dituela. Kexaren egileak adierazi du ez dagoela ados zenbateko hori ordaintzearekin, bidalketa egiteko nean ordaindu zuelako zegokion zenbatekoa. **Q17/703.**

- Auzo-erkidego batek kexa bat jarri du, Corellako Udalak ukatu egin dielako bizi diren ingurunean ur- eta elektrizitate-hornidurak ezartzeko baimena. **Q17/791.**
- Buñueleko herritar batek kexa bat aurkeztu du, izan ere, Moncayoko Uren Mankomunitateak fakturak bidaltzen dizkio dagoeneko hilda dauden bere gurasoen izenean. **Q17/794.**

2.9.27. Lana.

2017. urtean, **25** kexa aurkeztu dira lanarekin lotuta. Honakoak izan ziren azaldutako gertakari nagusiak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez diolako behar adinako informazioa eman jasotzen ari zen langabezia-prestazioari eteteari buruz; horren ondorioz, bere etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak ditu. **Q17/65.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, desgaitasunen bat duten pertsonen lan-baldintza okerrak direla-eta, baita kolektibo horretara bereziki moldatutako enpresetan ere, horietako baten aipamen berezia egiten baitu. **Q17/197.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Gizarteratzeko Errenta Aktiboa itzultzeko eskatu diolako, bidegabeki jaso duela argudiatuta, eta laguntza-programa horretatik kanpo utzi duelako. **Q17/283.**
- Nafarroako Ospitalean lan egiten duten bost herritarrek kexa bat jarri dute, izan ere, Osasun Departamentua haien lan-kontratua azkentzekotan da, ospitale-multzo horretako sukaldaritza-zerbitzua kudeaketa publikora itzultzearen ondorioz. **Q17/292.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak akats bat egin baitu bere helbidea idaztean eta, horren ondorioz, jasotzen ari zen kotizaziopeko prestazioa eten diotelako. **Q17/298.**
- Sindikatu batek eta merkataritza-sozietate batek kexa bana aurkeztu dute, izan ere, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak, besteak beste, zerbitzuaren benetako kostuak aintzat hartzen ez dituzten lizitazio-aurrekontuak ezarri dituzte Foru Erkidegoko administrazio publikoen instalazioak garbitzeko enpresa pribatuak kontratatzeko deitutako lizitazioetan. Haien iritziz, horrek eragin kaltegarria du bai langileengan, horien lan-baldintzak okerragotu egiten batira, eta bai enpresa lizitatzaileretan ere, esleipen-prezioak ez baitira lehiakorak. **Q17/327 eta Q17/328.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Nafarroako lan Auzitegiak eman dion tratua errespeturik gabea, desegokia eta tokiz kanpokoa dela uste baitu. **Q17/355.**
- Hogei herritarrek kexa bat aurkeztu dute, izan ere, Foru Erkidegoko administrazio publiko- etako instalazioak garbitzen diharduten enpresentzat lan egiten dute, eta zerbitzu hori emateko deitutako lizitazio-prozesuetan izandako irregulartasunen ondorioz, haien lan-baldintzek okerrera egin dutela ikusi dute. **Q17/356.**
- ASIMEC enpresako familia-langileak diren hiru herritarrek kexa bat aurkeztu dute, izan ere, etxez etzeko udal-laguntza ematen zuten eta, haien lan-harremanean Iruñeko Udala subrogatu ondoren, orain Udalak ez die aitortzen, ezta ordaindu ere, enpresarekin sinatutako lehen kontratutik dagokien antzi- natasuna, Udalak subrogazioa hasi zen unera soilik mugatzen baitu. **Q17/381.**
- Sindikatu batek kexa bat jarri du, izan ere, Osasun Departamentuak zerbitzuaren benetako kostuak aintzat hartzen ez dituzten lizitazio-aurrekontuak ezarri dituzte Nafarroako Ospitaleko garbitasun-enpresa pribatuak kontratatzeko deitutako lizitazioetan. Sindikatuaren ustez, hori kaltegarria da bai langileentzat, horien lan-baldintzak okerragotu egiten batira, eta bai enpresa lizitatzailerentzat ere, esleipen-prezioak ez baitira lehiakorak. **Q17/402.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ez baitiote uzten egiten ari den "Autodefentsa feministarako presta-tzaileak" ikastaroari dagokion praktiken fasea egiten. Ikastaroa Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako Berdintasunerako Nafarroako Institutuak antolatzen dute. Azaldu du ikastaroko koordinatzaileak adierazi diola ez duela jokabideari dagokion atala gainditu, eta berak ez du ulertzen horrekin zer esan nahi duen. **Q17/438.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Hezkuntza Departamentuak "profesionaltasun-ziurtagiri- en irakasle" enplegu baterako hautaketa-prozesutik kanpo utzi baitu, eskatutako lan-esperientzia ez duela argudiatuz. Deialdia Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin du. Azaldu du, orobat, Hezkuntza Departamentuak ez duela hautagai guztien eta bakoitzaren merituen zerrenda argitaratu eta, horrenbestez, gardentasun gabeziaren arau-haustea izan dela. **Q17/468.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa luzeegi jotzen ari delako Gazte Bermea

2. kapitulua

kexak

sisteman izena emateko izapideak gauzatzeko orduan. **Q17/499.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialen Departamentuak ukatu egin diolako egindako ikastaroari dagokion azken azterketa pertsona independente batek bigarrenez berrikustea. Ikastaroa Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatu dute. **Q17/531.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ematen dituen Gizarteratzeko Errenta Aktibora jotzeko eskakizunei buruz. Azaldu du % 70eko desgaitasuna duela aitortuta, eta bere ustez estatuko laguntza hori eskatu ahal izateko orduan desgaitasun-mailak aintzat hartu beharko lirakeela, izan ere, % 33ko desgaitasuna eta % 65etik gorakoa aitortuta duten pertsonak ez dituzte enplegua lortzeko aukera berdinak. Hainbat aldiz jo du Administrazioa bere desadostasuna azaltzeko, baina oraindik ez du behar bezalako erantzunik lortu. Eskatzen du Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren araudian desgaitasun-mailak aintzat hartuz bereizketa egin dadila. **Q17/566.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Posta eta Telegrafoen erakundea luze jotzen ari baita bere lan-kontratua amaitzeari dagokion enpresa-ziurtagiria Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikora bidaltzen, eta urrats hori beharrezkoa da langabezia-prestazioa izapidetu ahal izateko. Adierazi du, orobat, Iruñeko enplegu-bulegoko langileek gaizki tratatu dutela (ahoz mehatxatu zuten eta begirunerik gabe hitz egin zioten jendaurrean). **Q17/767.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa atzeratzen ari baita aitortuta duen langabezia-prestazioa

ordaintzeko, eta uste du atzerapen hori kexaren egileak duen zor bategatik ezarritako bahitura baten ondorio dela. Herritar horren ustez, diru-sarrerarik gabe uzten ari zaizkio. **Q17/774.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, horren bidez adierazteko higiezinaren sektorean lan egiten duten pertsonak babesgabatasun-egoeran daudela, izan ere, ez dute laguntzarik jasotzen erakunde ofizialen aldetik. Sektore horretako langileak bezeroen zerbitzura dauden langiletzat aitor daitezzen eskatu du, ez negozio-oportunistatzat. **Q17/775.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, izan ere, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, langile gisara jaso duen prestakuntza bateko egiaztapen-, jarraipen- eta kontrol-jarduketak egin ondoren, ez du bere jarduna ontzat eman eta, arrazoi oso orokorrak emanez, prestakuntza hori egitegatik jaso duen hobaria itzultzeko eskatu dio. Kexaren egileak eskatu du hobaria itzuli behar izateko arrazoi zehatzak emateko. **Q17/776.**
- Herritar batek bere desadostasuna agertu du, izan ere, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak langabezia-prestazioari ezartzen dion pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-atxikipena altua dela uste du. **C17/172.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, garbitasun-enpresa batentzat bi egunez lan egin ondoren, hark ez baitio dagokion soldata ordaindu. **C17/700.**
- Herritar batek adierazi du zailtasunak dituela gaur egun duena baino lanaldi luzeagoko eta soldata hobeagoko enplegu bat aurkitzeko. **C17/1045.**

2.9.28. Trafikoa eta bide-segurtasuna.

2017. urtean, trafikoarekin eta bide-segurtasunarekin lotutako **30** kexa aurkeztu ziren.

Trafiko eta bide-segurtasunaren inguruko kexak oinarritu zituzten gertakari nagusiak hauek izan ziren:

A) Arau-hausteak eta zehapenak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak bahitura-izapide bat jakinarazi diolako, dagoeneko ordainduta dituen trafiko-isun batzuk direla medio. Adierazi du, orobat, ez dagoela ados aparkaldi mugatuko guneez egiten den kudeaketarekin tarifei, ordaintzeko moduei eta kontrolatzaileei dagokienez. **Q17/18.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere, Segoviako probintziako trafiko-buruzagitzak zehapena jarri dio Riaza izeneko udalerrian, eta kexaren egilea ez zen han izan salaketaren egunean. Azaldu du bera Pedrazan izan zela, eta ez Riazan, Guardia Zibilaren salaketa-buletinean gaizki adierazten zuen bezala. **Q17/189.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak bahitura bat ezarri diolako hark ezagutzen ez dituen trafiko-isun batzuen ondorioz; azaldu du bahitura horrek kalte ekonomiko larria eragin diola, errenta bermatua jasotzen baitu. **Q17/267.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak errekaruak egin baitizkio trafiko-arloko isun batean. Kexaren egileak adierazi du berak ez zuela isunaren berri, jakinarazpena gaizki egin baita. **Q17/309.**
- Herritar batek kexa aurkeztu du, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak bi zehapen ezarri baitizkio bera espetxean zegoen bitartean. **Q17/310.**
- Autoen salerosketa-establezimendu baten jabea den herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak zehazpen bat ezarri diolako eta establezimenduaren kanpoko aldean zituen bi ibilgailu kendu dizkiolako, udal-garabia baliatuz, ibilgailu haiek nahitaezko aseguruia ez zutelako. **Q17/318.**
- Bi herritarrek lau kexa jarri dituzte, une desberdinetan, Iruñeko Udalak gehiegizko neurriak hartzen dituelako aparkaldi mugatuko guneetan ticketa atera gabe aparkatzeagatik, hala nola oso isun handiak eta garabi-zerbitzuaren bidez ibilgailua eramatea, nahiz eta aparkatutako ibilgailuak ez duen zirkulazioa oztopatzen ez eragozten. **Q17/416, Q17/430, C17/584 eta C17/603.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak bahitura-izapide bat jakinarazi diolako, trafiko-isun bat dela medio.. Kexaren egileak azaldu du salaketa ez ziola udaltzain batek berretsi, aparkaldi mugatuko guneko zaintzaile batek baizik, eta aurkeztu dituen gora jotzeko errekurtsu guztiak espediente-instruktoreak ebatzi dituela, eta ez Nafarroako Administrazio Auzitegiak. **Q17/443.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak isuna ezarri diolako eta, gainera, udal-garabia baliatuz aparkaldi mugatuko gune batean aparkatuta zeukan ibilgailua kendu diolako, salaketa baliogabetuta zeukan arren. **Q17/590.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak isuna ezarri diolako eta, gainera, udal-garabia baliatuz ibilgailua kendu diolako, egoiliar-txartelik izan gabe aparkatzeagatik. Azaldu du, orobat, Nafarroako Administrazio Auzitegiak ez duela onartu horren harira

2. kapitulua

kexak

aurkeztu zuen gora jotzeko errekurtsua, denboraz kanpo aurkeztu zela argudiatuta. **Q17/653.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere: a) Foruzaingoak trafiko-arloko hainbat zehapen jarri dizkio Nafarroako Ospitalearen inguruan; eta b) Iruñeko Udalak ez du aparkalekuen kopurua areagotu ingurune horretan. **Q17/692.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Berriobeitiko Udalak isun bat jarri baitio bere ibilgailua aparkalekua ez den toki batean aparkatzeagatik, nahiz eta, hori adierazteko jarritako seinalearen arabera, soilik karabanekek duten debekatuta aparkatzea. **Q17/768.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Las Palmas Kanaria Handiko Udalak trafiko-arloko zehapen bat ezarri diolako, nahiz eta bere ibilgailua gertakarien unean Iruñean zegoen. **Q17/769.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere, zenbat puntu dituen ikusteko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren webgunean sartu denean, Iruñeko Udalak ezarritako trafiko-arloko zehapen baten berri izan du. Adierazi duenez, ordea, ez du nahitaezko zehapen prozeduraren jakinarazpenik jaso. **Q17/804.**
- Herritar batek bere ezinegona adierazi du, izan ere, Iruñeko Udalak Nafarroako Unibertsitate Publikotik gertu aparkatutako bere ibilgailua eraman du, Osasunak jokatzeko zuela-eta. **C17/166.**

B) Trafikoaren antolaketa:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iruñeko Udalak ukatu egin diolako bere semeak egoiliarren aparkatzeko txartela ateratzeko egindako eskaera, argudiatuta autoa bere

kexa-egilearen senarraren izenean dagoela eta azken horrek renting bidez eskuratu zuela eta, horregatik, ezin duela semearen aldeko transferentzia egin. **Q17/67.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere, Andosillako Udalak ez du betearazten bere kalean aparkatzeko debekua, ez eta bere garajeko atearen aurrean ez aparkatzekoa ere. **Q17/305.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Cortesko Udalak desgaituentzako gunetan aparkatzeko txartela kendu diolako bere semeari, nahiz eta % 77ko desgaitasun-maila aitortuta duen, eta txartelean ez zen iraungitze-datarik jasotzen. Udalak argudiatu du desgaituentzako gunetan aparkatzeko txartelak arautzen dituen udal-ordenantza berriaren arabera, hura onartu baino lehen egindako txartelek hilabeteko iraunaldia dutela; irizpide hori ez dator bat, ordea, abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela eskuratzeko eta erabiltzeko oinarritzko baldintzak arautzen dituenak, ezarritakoarekin, izan ere, xedatzen du aurreko araudiaren arabera egindako txartelek jatorritzko agirian azaltzen den iraungitze-datara arteko iraupenari eusten diotela. **Q17/379 eta C17/525.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Tuterako Udalak ibilgailuen zirkulazioa debekatu baitu, gauzez herri-lasterketa bat antolatzeagatik, baina horrelakorik iragarri gabe eta seinale nahikorik jarri gabe; horren ondorioz, herritar horrek ezin izan du bere ibilgailua baliatu herritik joateko. **Q17/452.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Tuterako Udalak ez duelako Zirkulazioko Araudi Orokorra aplikatzen seinaleztapenari dagokionez. Azaldu du hainbat eskabide aurkeztu

dituela, herrian ikusitako gabezien berri emateko: errotonda eta oinezkoentzako pasabideetan seinaleak falta direla, landarehesien eta publizitate-posteen ondorioz ongi ikusten ez dela, aparkalekuen markak okerreko koloreez margotuta egotea... Udalak gabezia horiek konpontzeko ezer ere egin ez duela ikusita, Nafarroako Administrazio Auzitegira jo behar izan du. **Q17/527 eta C17/865.**

- Ikusmen-desgaitasuna duen herritar batek kexa bat jarri du, izan ere, berak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela duen arren, adierazi du Iruñeko Udalak, trafikoari buruzko udal-ordenantzan, ez dituela aintzat hartzen zer arazo berezi dituzten txartel horien titularrek beren kabuz gidatzeko gai ez direnean. Adierazi du udaltzaingoak txartela kendu ziola eta isuna jarri ziola bere bikoteari, hark baitzeraman autoa, txartelaren titularra bertan egon gabe desgaituentzat gordetako aparkaleku batean aparkatzeagatik, izan ere, txartelaren titularra une batzuk lehenago irten zen ibilgailutik. **Q17/565.**
- Auzokideen plataforma batek eta zenbait herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Iruñeko Udalak aldaketak proiektatu baititu Pio XII.a etorbideko erreietan eta, aldaketa horien ondorioz, aparkalekuak kenduko dituzte. Kexaren egileak ez daude ados aldaketa horiekin. Horrela, benetako partaidetza-prozesu bat egitea eskatzen dute, herritarrek proiektuaren inguruan dituzten proposamen eta ekarpenak entzun ahal izateko. Kexaren idazkiarekin batera, 2.147 pertsonen sinadurak aurkeztu dituzte. **Q17/681.**

C) Azterketak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ez dituelako beharrez-

ko neurriak hartu Nafarroan gidabaimena lortzeko azterketa praktikoen itzaroteko epeak murrizteko, eta horrek kalte ekonomikoa eragiten die herritarrei. Kexaren egileak proposatzen du funtzionarioen edo langile ibiltarien kopurua areagotzea, edo erakunde publiko horren aurrekontuak handitzea. **Q17/176.**

- Herritar batek kexa bat jarri du, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ez diolako aldeko txostena eman zirkulazio orokorrera irekitako bideetan zirkulatzeko gaitasun eta jokabideen kontrolaren gaitasun-proban. **Q17/697.**

2.9.29. Gardentasuna. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Administrazio elektronikoa.

2017an **13** kexa aurkeztu ziren gardentasunarekin eta herritarrek Administrazio publikoen eta administrazio elektronikoen esku dagoen informazioa eskuratzeko duten eskubidearekin lotuta.

Administrazioak informazio publikoa ematea ukatzeagatik jarritako kexei erantsi behar zaizkio, orobat, arrazoi bera dela bide "Ingurumena" (2.9.18) eta "Hirigintza" (2.9.31) idazpuruetan sailkatutako kexak ere.

Honako gai hauek dira kexetan azaldutako gertakari nagusiak:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Zangozako Udalak ez baitu eskuragarri egoitza elektronikoen zerbitzua, udal horrekiko administrazio-izapideak telematikoki egin ahal izateko. **Q17/1.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak ez baitu eskuragarri egoitza elektronikoen zerbitzua, mankomunitate horrekiko administrazio-izapideak telematikoki egin ahal izateko. **Q17/6.**

2. kapitulua

kexak

- Herritar batek kexa bat jarri du, Zangozako Udalak ez baitu Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu 2015. eta 2016. urteetako langile-zerrenda organikoa. Kexu da, orobat, zaharren egoitzako udal-erakunde autonomoko langile-zerrenda organikoaz, ez baitira aipatzen gizarte-langilearen ordain-saria ez eta lanaldia ere. **Q17/8.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez diolako informaziorik eman enpresa bati 2005etik gaur egunera arte emandako diru-laguntzei buruz, informazio hori isilpekotzat jotzen baitu. **Q17/172.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, izan ere, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez du sustatzen administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna areagotzea, datu-baseak eguneratzeko eta, horrela, herritarrek ez dezaten behin eta berriz agiri berberak aurkezteko beharrik izan. **Q17/180.**
- Foruzaingoko langileen batzordeko presidentek kexa bat jarri du, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez diolako eskatutako bi txosten eskuratzen uzten: bata Nafarroako polizia buruzko Foru Legea aldatzeko lan-taldeari buruzkoa da; bestea, berriz, Foruzaingoan zazpi egun jarraian lan egiteko aukerari buruzko xedapena ematen duena. **Q17/208.**
- Herritar batek (Los Arcosko udaleko zinegotzia) kexa bat aurkeztu du, udalak ez diolako eman 2017ko aurrekontua egiteko gastuaren erregelaren kalkuluari buruz eskatutako txostena. **Q17/465**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lizoainibar-Arriasogetiko Udalak ez baitio

erantzunik eman txosten juridiko bat — belarren zuzeneko esleipenerako baldintzen agiriaren aurka aurkeztu zen berraztertze errekurtsoa baztertzeko udalak erabili zuena— eskuratzeko eskabideari. **Q17/627 eta C17/989.**

- Herritar batek (Beriango Udaleko zinegotzia) kexa bat jarri du, Udalak ez baitie erantzun bi informazio-eskabideri. Eskabide horiek udalaren jardura jakin batzuei buruzko kostu ekonomikoari buruzkoak ziren. **Q17/657.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Iguzkitzako Udalak ez baitio erantzun Urbiolako Kontzejuko iturriaren eskrituraren kopia bat eskuratzeko bere eskabideari. **Q17/668.**
- Herritar batek adierazi du jakin nahi duela ea non lor dezakeen foru parlamentariak jasotzen duten soldatari buruzko informazioa. **C17/615.**

2.9.30. Turismoa.

2017. urtean, turismoarekin lotutako **3** kexa aurkeztu ziren. Honako hau da horien edukia:

- Herritar batek hiru kexa jarri ditu, une desberdinetan, Artaxoako Udalak irregular-tasunak egin baititu bisitaldiak prestatzean eta Artaxoako bisitarien etxea zein turismo-esplotazioa kudeatzeko kontratuari dagozkion tarifak onartzean. Kexaren egilea kontratuaren esleipenduna da. Azaldu du, ordea, bisitaldien eta turismo-jardueren tarifak aldebakarreko erabakiz onartu dituela, eta horien prezioa aurreko urtearen aldean % 48 jaitsi dela, erretiratuentzako aparteko beherapenez gainera. Iruditzen zaio tarifa berriak zentzugabeak direla, izan ere, eskaerarik ez duten bisitaldiak sartzten baitira, eta ez dira sartzten interes handiena duten

eremuetarako bisitaldiak. Adierazi du tarifa berriak aplikatzeak diru-sarrerak murriztea eragin duela, eta esplotazioaren oreka hautsi dutela. **Q17/631, C17/851 eta C17/1486.**

2.9.31. Hirigintza.

2017. urtean, hirigintzarekin lotutako **33** kexa aurkeztu dira.

Kexetan azaldutako gertakari nagusiak honako hauek izan dira:

A) Hirigintza planeamendua:

- Hiru herritarrek kexa bat aurkeztu dute Urrotzeko Udalak ez diolako erantzuten haiek egindako eskaera bati; izan ere, udalerrri horretako planeamenduaren Arau Subsidiarioak aldatzea eskatu dute, lurzoru pribatu libre kalifika dadin partzela mugakide baten ondoko lursail baten parte, haren ezaugarriek eta egoera fisikoak haien jabetzakoei eragiten dielako. **Q17/30.**
- Herritar batek kexa bat helarazi du, Tafallako Udal Plan Orokorrean, Lurralde Okupatzeko Estrategia eta Eredua egiteko fasean, herritarren parte-hartzeari eman zaion lekua dela-eta. Azaldu duenez, parte-hartzea formala baino ez da izan, ez benetakoa eta eraginkorra. Bilerak ere formalak izan dira: taldeak osatu eta azalpenak eman dira, baina, gero, lantalde teknikoak ez ditu kontuan hartu haietan parte hartu duten herritarren ekarpenak. Tafallako egoera leheneratu dadin eskatzen du, eta legediak berma dezala herritarren benetako parte-hartzea, aukera emango duena herritarren ekarpenak kontuan hartzeko. **Q17/435.**
- Zenbait familiak kexa bat formulatu dute, Zizur zendeako Udalak eta Eskubide Sozialerako Departamentuak aldaketa bat

egin dutelako Gendulaineko Udalez Gaindiko Plan Sektorialean, haien lursailak planaren eragin-eremuan hartzea aurreikusten duena. Azaldu dute beren lursailak planean sartzeak egoera ekonomiko eutsiezinean jartzen dituela; izan ere, lursail horien balioa handitzeak berarekin dakar modu esponenzialean igotzea luraren gaineko kontribuzioa eta ondasunen gaineko zerga, eta horrek ondorio kaltegarriak dakarzikie familiei. **Q17/762 eta C17/1355.**

- Tafallako herritar batek kexa bat paratu du, Tafallako Udalak Plan Berezi bat onartu duelako urbanizazio bateko zenbait eraikinetan igogailuak jar daitezzen, eta lan horiek eraikinen barruko zein kanpoko itxura aldatu, eta urbanizazioaren harmonia estetikoa hautsiko dutelako. **C17/65.**

B) Hirigintza kudeaketa:

- Herritar batek lehendik jarria zuen kexa berriro abian jartzea eskatu du, Biurrun-Olkotzeko Udalak berriro bahitu diolako pentsioa, urbanizazio-kuota batzuk ez ordaintzeagatik, nahiz eta Nafarroako Arartekoak gogorarazi zion eta onartu zuen bere betebeharra dela Prozedura Zibilarren Legean (607. artikuluan) bahiketei lotuta ezarritako mugak errespetatzea. **Q16/230.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Barillaseko Udalak erabaki duelako partikularrek ordaindu behar dituztela Constitución hiribidearen urbanizazio-gastuak. **Q17/10.**
- Hamar herritarrek kexa bat jarri dute, Altsasuko Udalak erabaki duelako konpentsazio-sistemaz ordezkaturako duela Lezalde eremuaren hiri-garapenerako ezarri zuen lankidetzeta-sistema publikoa, duela hamabi urte baino gehiago onartutako Plan Partzialean ezarritakoa. **Q17/13.**

2. kapitulua

kexak

- Konpentsazio-batzorde batek kexa bat formulatu du, Altsasuko Udala, batetik, behar baino gehiago atzeratzen ari delako Udal Planeko jarduketa ez-sistematiko bateko lursailen normalizazio- eta partzelazio-proiektuaren onarpena (batzorde hori eratu zuenaren onarpena, hain zuzen), eta, bestetik, hasierako onespena eman diolako batzorde hori desegiteko prozesuari. **Q17/801.**

C) Legezketasunaren eta hirigintza-diziplinaren babesa:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Lizarrako Udalak ez diolako onartzen, Estellerriko Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoak ez bezala, amaren etxean aulki-jasogailu bat jartzeko eman zitzaion ziurtagiri bat. Azaldu du proiektu xehatuago bat eskatzen zaiola, eta horrek, nola ez, kostu handiagoa duela. **Q17/21.**
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Iruñeko Udalak ezikusiarena egiten jarraitzen duelako haren eraikineko fatxadan jarri den eta hirigintza-araudia urratzen duen kebidetatekin. **Q17/46.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Iruñeko Udalaren aurka, batetik, Udaletxe plazan hotel bat egiteko obra-lizentzia ematean, ez dituelako kontuan hartu haren negozioari eragin dizkion eragozpen larriak, eta, bestetik, ez duelako neurririk hartu obrek ez diezaioten kalterik eragin. **Q17/66.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Corellako Udalak ez dituelako modu subsidiarioan egin, segurtasuna bermatze aldera, eraikin baten beheko aldean egin beharreko mantentze-lanak. **Q17/127.**
- Herritar batek kexa bat jarri du Iruñeko Udalaren aurka, ez duelako esku hartzen hura

pairatzen ari den eragozpenen aurrean. Eragozpen horiek hezetasunaren ondorio dira, eta haren gaineko etxebizitzan ustez lizentziarik gabe egin diren birgaitze-lanek eragindakoak. **Q17/178.**

- Merkataritza-sozietate batek kexa bat aurkeztu du, Aranguren Ibarreko Udalak, batetik, ez diolako ziurtagiri bidez adierazi fundazio bat baimenik gabe jarduten ari dela sozietatearen jabetzako eraikin batean, eta, bestetik, ez duelako abiarazi lizentziarik gabe jarduteari dagokion hirigintza-espeditatea. **Q17/182.**
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Desoioko Udalak bazterkeriaz aztertu duelako hark estalpe bat egiteko egin zuen eskaera; izan ere, antzeko eskaera bat egin zuen beste herritar bati exijitu ez zizkion dokumentu batzuk aurkezteko eskatu zion. **Q17/186.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Lizarrako Udalak ez diolako erantzun hark aurkeztutako eskaera bati. Eskaera horren bidez, herritarrek bere jabetzako lursail baten inguruan egiten ari diren lanetan egiten ari diren hirigintzako eta eraikuntzako arau-hauste batzuk salatu zituen **Q17/218.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du Mendabiako Udalaren aurka, ez duelako legea betearazten, herritarra bizi den urbanizazioko horma bati dagokionez, horma hori bat etor dadin lizentzia ematean zehaztutako baldintzekin eta ez ditzan okupatu erabilera komuneko eremuak. **Q17/234.**
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Baztango Udalak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak ukatu egin diotelako baserri bat eraberritu eta bi bizitzako etxe bat egiteko baimena, nahiz eta abeltzaintzarako bordatzat

erabili aurretik etxebizitza moduan erabiltzen zen. **Q17/336**.

- Bizilagunen elkarte batek kexa bat jarri du Lizarrako Udalaren aurka, ez duelako neurririk hartzen haien eraikinean ura dela-eta ageri diren zartaduren aurrean. **Q17/367**.
- Bi herritarrek kexa bat aurkeztu dute, Orkoieneko Udalak ez duelako abiarazi haien bizilagun baten etxebizitzaren legezkotasuna berrezartzeko izapiderik. **Q17/387**.
- Bi herritarrek kexa bat paratu dute, Leitzako Udalak ez dielako agindu haien bizilagun bati haren lorategia egokitzeko lanak egitea, kontserbazio-egoera txarrean dagoen arren. **Q17/451**.
- Herritar batek kexa bat jarri du Burlatako Udalaren aurka, baimena eman duelako haren etxebizitzako balkoi baten azpian telekomunikazio-armairu bat jar dadin, horrek dakarzkion arriskuekin. **Q17/543**.
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Irunberriko Udalak ez diolako erantzuten hark jarritako salaketei, udalerriko eraikin batean lizentziarik gabe egiten ari diren erabilera-aldaketa dela-eta. **Q17/569**.
- Herritar batek kexa bat helarazi digu, Antsoaingo Udalak baliogabetu egin diolako aurrez atiko bat ixteko eman zitzaion lizentzia, eta, ondorioz, kalte ekonomiko handia egin diolako. **Q17/578**.
- Bi herritarrek kexa bat jarri dute Orkoieneko Udalaren aurka, berdintasunez jokatu ez duelakoan haien etxebizitzako zenbait elementuren ikuskapen-urbanistikoan, bizilagunei egindako ikuskapenarekin alderatuta, eta ez dielako aukerarik eman bizilagunen

etxebizitzan egindako lanen legeztatze-espeditentea ikusteko. **Q17/654**.

- A-12 autobidearen emakidadun sozietateak kexa bat formulatu du Zizur zendeako Udalaren aurka, batetik, zenbait ebazpenen bidez eskatu diolako zenbait lan egin ditzala ezponda baten kontserbazioa eta segurtasuna bermatzearen (ezpondako lurra Astraingo Kontzejuko landa-bide baten gainera erortzen da), eta, bestetik, zenbait hertsatze-isun jarri dizkiolako lan horiei ez heltzeagatik. **Q17/689**.

D) Hirigintzaren arloko informazioa:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Urrotzeko Udalak ez diolako eman Udalak herritar batekin egindako hitzarmen baten kopiarik. Hitzarmen horretan jasotakoaren arabera, jabetza pribatuko lursail batez trukatu da udalaren jabetzako lursail bat. **Q17/29**.
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Adiosko Udalak ezetsi egin diolako udalerriko Hirigintza Planaren egile-taldearekin biltzeko egin zuen eskaera, haren alderdi guztiak jada egokiro azalduak izan direla jotzen duelako. **Q17/229**.
- Nekazaritzako kooperatiba-sozietate batek kexa bat jarri du, Adiosko Udalak ukatu egin diolako udalerriko horretako alkatearekin eta hirigintza-zinegotziarekin biltzeko egin zuen eskaera, eraikinen behealdean kooperatibak dituen lokalei lotuta, Hirigintza Planak egindako proposamenak aztertze aldera egitekoa. **Q17/230**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Berriozarreko Udalak ez diolako helarazi hark bere etxebizitzaren barneko patioan tximinia

2. kapitulua

kexak

bat jartze aldera eskatu zuen informazioa.
Q17/488.

- Herritar batek kexa bat helarazi du, Biurrun-Olkozeko Udalak ez diolako helarazi haren eraikinari dagozkion kargen ziurtagiria, behin baino gehiagotan eskatu duen arren.
Q17/512.

2.9.32. Etxebizitza.

2017. urtean etxebizitzarekin lotutako **35** kexa aurkeztu dira. Honako gai hauek dira kexetan azaldutako gertakari nagusiak:

A) Etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea:

- Herritar batek bere kexari berriro heltzeko eskatu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak onartu zuelako Nafarroako Arartekoak egindako gomendioa, batetik, ziurta zezan NASUVINSA sozietate publikoak betetzen dituela bere jabetzako etxebizitzaren salmentan, nahiz eta ez egon ezein babesmotaren mende, berdintasun-, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioak, eta, bestetik, baldin eta pertsona bat baino gehiago badago etxe bera erosteko interesaturik, printzipio horiek betetzen direla ziurtatuko duten neurriak ezar zitzan, alabaina, gomendio horiek onartu arren, departamentuak ez duelako egin azterlan sakonik higiezinen agentzia pribatu batek saldutako NASUVINSAREN jabetzako Tuterako bi etxebizitzei buruz. **Q16/455.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako erraztasunik eman Tuteran etxebizitza babestu bat lortzeko. Azaldu du lau urte daramatzala zain, babes ofizialeko etxebizitza bat eslei diezaioten, gaur egun semea, senarra eta hura bizi diren etxebizitzak hezetasun-arazoak dituela, eta, gainera, etxebizitza hori laster utzi beharra dutela. Adierazi du bai bera eta bai senarra langabezian daudela, 426 euroko laguntza bat jasotzen dutela eta semea mantendu beharra dutela. **Q17/37.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak orain bizi den etxea utzarazi nahi diolako. Bazterketa-egoeran dagoenez, zailtasun pertsonalak bizi izan ditu eta zenbait zerbitzu edo laguntza publiko jaso ditu (programa terapeutiko batean parte hartu du eta gizarteratzeko errenta jaso du, zehazki), eta horrek etxebizitza-esparruan laguntza izateko duen eskubidea indartzen duela uste du. **Q17/45.**
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako babes ofizialeko etxebizitza bat alokairuan esleitu, eskatzaileen erroldan izena eman zuenetik bi urte igaro diren arren. Adierazi du genero-indarkeriaren biktima dela, hiru seme-alaba dituela (laugarrenak desgaitasun bat zuen eta berriki hil da), familia ugariaren aitortzea duela, Nafarroan erroldatuta dagoela eta hilean 600 euroko errenta jasotzen duela. Seinalatu du, egoera horretan bizi den arren, poltsa horretan izena eman zuen unetik gaurdaino NASUVINSAK onartu dituen bi esleipen-ebazpenetan ez zaiola alokairurik esleitu. Eskatu du NASUVINSAK kontuan har dezala haren egoera pertsonala eta eslei diezaiola alokairu sozialeko etxebizitza bat ahalik lasterren, egungo egoera aurki konpontzen ez bada, errentatzaileak etxea utzaraziko baitio. **Q17/156.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Iruñeko Udalak ez diotelako babes ofizialeko etxebizitzarik eman, aurki etxegabetuko duten arren. Azaldu du etxebizitza partikular bati

alokatu ziola, eta, harrezkero, arazoak izan dituela, errentatzaileak etxea saldu nahi zuelako eta, errentariaren intimitatea errespetatu gabe, etxean sartzen zela balizko erosleei hura erakusteko. Duela gutxi, epaile batek etxegabetu dezaten agindu du, eta bere burua adingabeko semearekin kalean bizitzen ikusten du, auzoko unitateak ez baitio konponbiderik ematen, egoera txarragoan dagoenik badela uste duelako. Babes ofizialeko etxebizitza bat eslei dakion eskatu du, baldintzak betetzen dituelako eta, etxegabetze-prozesua dela-eta, premia larria duelako. **Q17/170.**

- Herritar batek kexa bat formulatu du, Iruñeko Udala atzeratzen ari delako hari tutoretzapeko etxebizitza bat esleitzen. Azaldu du artzapezpikutzaren tutoretzapeko etxebizitza batean bizi dela egun, baina egoera jasanezina dela. Udalak esan dio, haren egoera aztertuta, 43.a dela itxarotetzerrendan, eta, zer eskaera egiten diren, postu hori alda daitekeela. Ahalik lasterren tutoretzapeko etxe bat eslei dakion eskatzen du, hain larria izanik hark bizi duen egoera, osasunari kalte egiten ari baitzaio. **Q17/213.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako baimenik eman, hala hitzartu bazuten ere, orain bizi den babes ofizialeko etxea erosteko, gainditu egiten duelako onartutako gehieneko errentaren muga. Azaldu du, duela hiru urte, berak eta bere bikotekideak babes ofizialeko etxebizitza baten alokairu-kontratua sinatu zutela, eta, kontratu hartan, etxebizitza erosteko aukera ematen zela. Dokumentu hura sinatzean, 6.500 euroko lehen ordainketa bat egin zuten, eta adostu zuten kantitate hori eta alokairuagatik ordaindutako kuoten % 90 (gaurdaino, 18.000 euro guztira) etxebizitzaren salneurriari kenduko litzaizkiokeela, baldin eta erosiko balute. Etxebizitza

erosteko aukera hura baliatzeko unea iritsitakoan, ordea, jakinarazi zaie gainditu egiten dutela onartutako gehieneko errentaren muga (700 eurokoa), eta, horrenbestez, ezin dutela aukera hura baliatu. Kexagileak adierazi duenez, eskakizun horiek soilik kontratua sinatzeko unean bete beharrekoak zirela jakinarazi zitzaien, eta, hortaz, ezkontzea erabaki zuten. Hala, ordaindutako guztia galdu dute, bai eta haien etorkizuneko etxea izango zela uste zutelako altzarrietan eta azpiegituretan gastatutako guztia ere, eta beste alokairu bat aurkitu beharra dute. **Q17/317.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako esleitu babes ofizialeko etxebizitza bat. Azaldu du adingabeko alabarekin bizi dela Zizurreko etxebizitza batean, eta hilean 450 euro ordaintzen dituela haren alokairuagatik. Jabeak jakinarazi dio etxebizitzan lanak egiteko asmoa duela, eta, horregatik, hura utzi beharko dutela. Horregatik, eskatu du ahalik lasterren eslei dakiola babes ofizialeko etxebizitza bat, alokairuan. **Q17/382.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako esleitu bere familiaren beharrei hobeki egokituko zaion babes ofizialeko etxebizitza bat. Azaldu du hiru logelako babes ofizialeko etxebizitza baten jabe dela, eta han bizi dela senarrarekin, amarekin eta hiru seme-alabekin. Logelak bederatzi metro koadrokoak dira. Bi alabek gela berean lo egiten dute, eta semeak kexagilearen amarekin partekatzen du logela. Departamentura jo du, etxebizitza desegokitizat jo dezan eta handiago bat eslei diezaion, baina egungo etxebizitzak han bizi direnentzat nahikoa metro badituela erantzun diote, ama ez delako familia-unitatekoa. Adierazi du ama haiekin bizi dela 2006az geroztik, eta haien ardurapean bizi dela

2. kapitulua

kexak

gainera, eta, hortaz, familia-unitatekoa dela egiazki. Hori horrela izanik, logela bat gehiagoko etxebizitza bat eslei dakion eskatu du. **Q17/420.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako esleitu babes ofizialeko etxebizitza bat, 2002an eskatu zuen arren. Adierazi du alokairuko etxebizitza batean bizi dela emaztearekin eta bi umerekin, eta errentatzaileak kontratua azkenduko diela jakinarazi diela, etxebizitza saltzeko asmoa baitu. Etxebizitza bila ibili da harrezkero, baina uko egin diote behin eta berriz, nigeriar jatorrikoa delako, espainiar nazionalitatea duen arren. Horregatik, eskatu du ahalik lasterren eslei dakiola babes ofizialeko etxebizitza bat. **Q17/552.**
- Herritar batek bi kexa formulatu ditu, Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diotelako haren beharretara egokitutako etxebizitza bat esleitzen, hark eta familiak pilamendu-egoera bizi duten arren. Azaldu du 40 metro koadroko etxebizitza batean bizi dela emaztearekin eta adingabeko sei seme-alabarekin, eta etxebizitzak bi gela dituela. Geletako bat ezkontideek eta bi umek partekatzen dute, eta beste laurek gela berean egiten dute lo, lurrian jarritako koltxoien gainean, hain txikia izanik, ez baitago lekurik ohatzeak jartzeko. Hori gutxi balitz bezala, etxebizitzak akats larriak ditu, eta jabea ez dago prest haiek konpontzeko. Ez dute leiho-saretarik, eta galdara hondatuta eta entxufeak egoera txarrean dituzte. Horrek kezka eta egonezina eragiten dizkie, entxufeek deskarga elektrikoak ematen baitizkiete. Zazpigarren solairuan bizi direnez eta leiho-saretarik ez dutenez, umeak etengabe arriskuan daude, gainera. Adierazi du ezin duela etxebizitza handiagorik alokatu egun

dituen diru-sarrerekin, lehendik ere 10.000 euro inguruko zorra baitu. Horregatik guztiagatik, neurri handiagoko etxebizitza bat eslei dakion eskatu du, zortzi laguneko familiaren egungo beharrei erantzungo diona. **Q17/556 eta Q17/699.**

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako esleitu babes ofizialeko etxebizitza bat. Azaldu du alokairuan bizi dela senarrarekin eta adingabeko bi umerekin, eta errentatzaileak jakinarazi diola datozen hiru urteetan alokairuagatik ordaindu beharrekoa hilean 450 eurotik 550 eurora igoko duela, eta ez dagoela negoziatzeko aukerarik. Azaldu du senarrak hilean 850 euroko errenta bermatua jasotzen duela, eta berak hilean 200 euro inguru jasotzen dituela, astean zortzi orduz egiten dituen garbiketa-lanak direla-eta. Hileroko diru-sarreren guztizkoa motz geratzen da gastu guztiei aurre egiteko, eta, beraz, ezin diote aurre egin aipatutako alokairuaren 100 euroko igoera horri. Horregatik, guztiagatik, eta duela urte askotatik babestutako etxebizitza bat lortzeko itxarote-zerrendan izena emanda dagoelako, ahalik lasterren etxebizitza bat eslei diezaion eskatzen dio Departamentuari. **Q17/602.**
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako babes ofizialeko etxebizitza bat alokairuan esleitu, nahiz eta lau ume dituen eta ia hamar urte igaro diren lehen eskaera egin zuenetik. **Q17/604.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako esleitu babestutako etxebizitza bat alokairuan eta erosteko aukerarekin, nahiz eta urteak daramatzen hutsik eta salmentan. Azaldu du egun bizi den etxebizitzaren errentatzaileak jakinarazi diola hura utzi beharko duela.

Haurdun dagoela esan du, eta adingabeko bat etxean hartzen duela urtean hiru hilabetez, udan eta eguberrietan, eta, horrenbestez, bere familia-beharrei egokituko zaien etxebizitza baten bila dabilela. Jabetu da NASUVINSAk urteak daramatzala Sarriguringo etxebizitza bat eskaintzen, eta etxebizitza hori hutsik dagoela. Horregatik, etxebizitza hori eslei dakion nahi du, haren beharretara egokitzen baita. **Q17/622.**

- Herritar batek kexa bat formulatu du, Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialesko Departamentuak ukatu egin diotelako babes ofizialeko etxebizitza batera sarbidea, haren diru-sarrerak ez direlako iristen halako bat esleitzeko legez ezarritako gutxienera. Azaldu du oso etxebizitza txiki batean bizi dela emaztearekin eta beren lau umeekin, eta ezetsi egin zaizkiela etxebizitza bat alokairuan hartzeko eskaerak, aurreko urteko errenta aitortpenean ez delako iristen 3.000 euroko gutxienera diru-sarrerara. Azaldu du 2017an aitortu egin diotela gizarteratzeko errenta jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, badutela diru-sarrera jarraitua. Alabaina, sarrera horiek, 3.000 euroko gutxienera iristeko balio diotenak, ez diote eskubiderik ematen babestutako etxebizitza bat eskatzeko 2019ra arte, orduan aurkeztu beharko baitu 2017ko errenta-aitortpena. Horregatik, eskatu du eslei dakiola babes sozialeko etxebizitza bat alokairuan, eta izan dadila etxebizitza hori sei kideko familia bat bizitzeko behar bezain handia. **Q17/798.**

B) Etxebizitza erosteko eta errentamenduan hartzeko laguntza publikoak:

- Herritar batek bere kexari berriro hel dakion eskatu du, Eskubide Sozialesko Departamentuak onartu egin duelako Nafarroako Arartekoak egin zion iradokizun bat; izan ere, iradoki zion alda zezala

martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretua, etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsua arautzen duena, banandu edo dibortziatu direla-eta etxea utzi beharra izan dutenek aukera izan dezaten haien errentaren araberrako alokairua izateko laguntzei heltzeko. Alabaina, onartu berri da 22/2016 Foru Legea, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitza-esparruan, eta lege horrek ez du barne hartu aldaketa hori. **Q16/45.**

- % 47ko desgaitasun-gradua duen herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialesko Departamentuak salbuetsi gabeko errentatzat jo duelako auto-istripu bat zela-eta kalte-ondorioen ordainetan jaso zuen 3.421,34 euroko kalte-ordain bat. Indemnitazioa auto bat erosteko erabili zuen, beharrezkoa baitu, mugikortasun urria duelako. Horren ondorioz, murriztu egin zaio orain bizi den etxebizitzaren alokairua ordaintzeko jasotzen ari zen laguntzaren zenbatekoa, % 50etik % 25era. **Q17/202.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialesko Departamentuak murriztu egin diolako etxebizitza babestuaren alokairua ordaintzeko esleitu zitzaion laguntzaren ehunekoia, laguntza hori kalkulatzeko aldera 2015ean jasotako errentak kontuan hartu ostean. Azaldu du etxebizitza babestu batean bizi dela emaztearekin eta beren bi umeekin, egun langabezian dagoela eta hilean 260 euroko sorospena jasotzen duela. Urtero bezala, Eskubide Sozialesko Departamentuak berraztertu egin du jasotzen ari ziren laguntza, eta, hala, 2015ean izandako sarrerak kontuan hartu dituztenez eta urte hartan lan egin zuenez, alokairuagatik ordaindu beharrezkoa igo diote, 250 eurotik 528 eurora, eta igoera hori jasanezina da haren familiarentzat. Ez dago ados, bi urte igaro

2. kapitulua

kexak

ostean, errenta horiek zehazten dutelako laguntza horren ehunekoa, nahiz eta ez duten islatzen nolakoa den haren egungo egoera ekonomikoa. **Q17/228.**

- Herritar batek kexa bat formulatu du, batetik, Iruñeko Udalak ukatu egin diolako larrialdiko laguntza, bere kasa aurkitu duen alokairuko etxebizitza baten fidantza ordaintzeko, eta, bestetik, Zabalguneko unitateko langileek harekiko izan duten jarrera desegokitzat jotzen duelako. **Q17/284.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak, haren etxebizitza babestuaren alokairu-kontratua berritzean, % 75etik % 50era murriztu diolako jasotzen ari zen laguntza. Azaldu du kontuan hartu diren urteko diru-sarrerak 163,09 euroan baino ez dutela gainditzen Departamentuak gehienekotzat ezarritako kantitatea, alde horrek alokairuagatik orain artekoa baino 1.500 euro gehiago ordaindu beharra dakarrela berarekin, eta igoera hori, haren ustez, neurritz kanpoko delako, erabat. Horrez gain, azaldu du laguntza hori kalkulatzeko gehieneko diru-sarreren taula ez dela eguneratu azken urteetan, eta, horrenbestez, eskatu du aitor dakiola orain arte jasotzen ari zen alokairuaren % 75eko laguntza. **Q17/728.**
- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak neurritz kanpo igo diolako gaur egun bizi den tutoretzapeko etxebizitzagatik hilean ordaindu beharreko alokairua. Azaldu du 2014aren maiatzean hilean 366 euro jasotzen zituela, 14 ordainketatan, eta, horregatik, Udalak jakinarazi ziola hilean 45,43 euro ordaindu behar zituela tutoretzapeko etxebizitzagatik. Gerora, urte bereko abenduan, ordaindu beharreko zenbatekoa murrizteko eskatu zuen, Gizarte Segurantzako hitzarmen berezi bat zegokiolako. Udalak,

ondorioz, 14,79 euroan ezarri zuen hark hilean ordaindu beharreko zenbatekoa. Behin Gizarte Segurantzarekin zuen hitzarmen berezi hori amaitutakoan, interesduna hilean 630,19 euro jasotzen hasi zen erretiroagatik, eta, hala, 8.822,66 eurora igo ziren haren urteko diru-sarrerak. Une horretan, Udalak jakinarazi zion hilean 215,30 euro ordaindu behar zituela alokairuagatik. Interesdunak uste du igoera hori ez dela proportzionala, 366 euroko sarrerak izanik 14,79 euro ordaintzen zituelako, eta, orain, 630,19 euroko sarrerak dituen, hilean 215,30 euro ordaindu beharra duelako. **Q17/742.**

C) Babestutako etxebizitzetan izandako kalteak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez duelako neurririk hartzen haren etxebizitza babestuaren eraikuntza-akatsak konpontzeko. Azaldu du VINSA sozietate publikoari erosi ziola etxebizitza hori, eta eraikuntza-akatsak dituela (urez betetzen da euria edo elurra egiten duenean). **Q17/81.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako behin-betiko konponbidea jarri haren alokairuko etxean dagoen lepisma-izurriari, ez baitu izurria desagerrarazi orain arte egindako fumigazioekin. Eskatu du NASUVINSAk azter dezala hari alokairu sozialeko beste etxebizitza bat emateko aukera. **Q17/655.**
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, haren etxean eta garajeen ura sartzen delako eta Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Zizur Nagusiko Udalak ez dutelako neurririk hartu horrek dakarzkion arazoak konpontzeko. Etxebizitzan, ondoko etxebizitza babestuetatik igarotzen den erretena da arazo-iturria, eta garajeen, berriz, kanpoko

bide bat. Arazo horiek direla-eta, etxebizitza erortzeko benetako arriskua dago. **Q17/811**.

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, haren babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileak ez diolako konponbiderik eman haren etxeke logelan dauden hezetasun-arazo larriei. **C17/206**.

D) Etxebizitzen salerosketa:

- Herritar batek kexa bat paratu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak, babes ofizialeko etxebizitzen prezioa kalkulatzean, metro koadroko ordaindu beharreko moduluaren prezioa kalkulatzeko, behin-behineko kalifikazioa eskatu den urtea hartzen duelako kontuan, eta ez salerosketa-kontratua sinatu den urtea. **Q17/60**.
- Herritar batek kexa bat formulatu du, Iruñeko Udala eta Eskubide Sozialetako Departamentua atzeratzen ari direlako babes ofizialeko etxebizitzak eta haien eskriturak lortzeko behar diren baimenak ematen. **Q17/575**.
- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako aukerarik eman orain bizi den babes ofizialeko etxea erosteko aukera baliatzeko. **Q17/652**.

E) Etxebizitzen alokairua:

- Herritar batek kexa bat jarri du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako fidantza itzuli, orain arte bizi izan den babes ofizialeko etxearen alokairu-kontratua desegin ostean. **Q17/214**.

F) Zehapenak, hirugarrenek eragindako eragozpenak eta bestelakoak:

- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak zehapen-espe-

diente bat abiarazi duelako, prezio tasatuko etxebizitza hiru hilabetez baino gehiagoz okupatu ez izanagatik. **Q17/111**.

- Herritar batek kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diotelako konponbiderik eman haren etxebizitzan jasaten dituen eragozpenei. Arazo horiek etxegabetu ostean berralojatuak pertsonen eragindakoak dira. **Q17/148**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diolako konponbiderik eman haren babes ofizialeko etxebizitzan jasaten dituen egintza bandalikoei. **Q17/700**.
- Herritar batek kexa bat aurkeztu du, Valtierako Udalak egin beharrekoak ez dituelako egin, jakiteko zerk eragiten dituen haren usufruktuzko haitzulo bateko hezetasunak. Hezetasun horiek, kexagilearen ustez, Udalaren jabetzako lursail bat behar bezala ez kontserbatzearen ondorio dira. **Q17/820**.
- Herritar batek kexa bat paratu du, finka-administratzaile batek 15 euro kobratu dizkiolako bizilagunen elkarteari egin beharreko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria egiteagatik. **C17/1211**.

3. kapitulua

kexen azterketa, generoaren ikuspegitik

3.1. SARRERA.

Kapitulu honetan, 2017an Nafarroaren Arartekoari aurkeztutako kexak generoaren ikuspegitik aztertzen saiatuko gara, eta, hala, erantzun egingo diogu, iaz, 2016ko txostena Nafarroako Parlamentuaren aurrean aurkeztu zenean, parlamentuko talde batek egindako iradokizunari.

“Saiatu” diogu, lehenengoz erantsiko baita helburu hori duen azterketa bat Nafarroako Parlamentuari aurkezten zaion urteko txostenean. Horregatik, bi bider eskatu behar dizuegu barkamena: batetik, hain berandu egin izanagatik, eta bestetik, esperientzia-falta dela-eta izan ditzakeen akatsengatik, nahiz eta ahal izan dugun guztia egin dugun, azterlana murrizta edo partziala izan ez dadin.

Azterlan hori egite aldera, lehenik, aztertu dugu zer gaitara bideratu ditugun kexak eta nola banatzen den kexa-kopurua, kontuan hartuta gizonetako edo emakumeetako jarriak diren, ikusteko ea ondorio

atera daitekeen zeharkako-ikuspegi horrekin. Azterlanaren lehen atal horretan, ez ditugu kontuan hartu elkarrekin, kolektiboek, pertsona batek baino gehiagok, plataformek eta abarrek aurkeztutako kexak. Bigarrenik, zenbait kexari behatu diegu, ikusirik kexa horien muinean emakumezko bat dagoela, izan kalteberatasun-egoeran dagoelako edota babes-neurriak eskatzen dituelako, edo izan botere-egoera asimetriko bat, berdintasunaren aurkako egoera bat edo emakumea izate hutsagatik gizartetik at geratzeko eta baztertua izateko arriskua hauteman daitekeelako. Horrez gain, seinalatu egin ditugu gertakarien kontakizunetik hasita genero-estereotipoekin identifika daitezkeen kexak. Egoera horietakoren bat izan den edo ez zalantza egin dugunean, nahiago izan dugu kasu horiek kontuan ez hartu.

3.2. GAIEN ARABERAKO BANAKETA.

Taula honetan, kexak gaien arabera banatuta jasotzen dira, kontuan hartuta emakumezko batek edo gehiagok jarriak edo gizonetako batek edo gehiagok jarriak diren.

Arloa	Kexak 2017		2017an egindako kexen auztean dauden pertsonak					
			Gizonetakoak	Emakumezkoak	Kolektiboak		Guztira	
Hezkuntza	156	% 16,9	85 % 28	201 % 67	15	% 5	301	% 4,9
Funtzio publikoa	96	% 10,4	76 % 4	81 % 4	1.838	%92	1.995	% 32,4
Gizarte-ongizatea	86	% 9,3	37 % 41	53 % 58	1	% 1	91	% 1,5
Ingurumena	66	% 7,2	60 % 56	48 % 44	0	% 0	108	% 1,8
Enplegu publikora heltzea	56	% 6,1	26 % 43	35 % 57	0	% 0	61	% 1,0
Osasuna	55	% 6,0	28 % 39	43 % 61	0	% 0	71	% 1,2

3. kapitulua

kexen azterketa, generoaren ikuspegitik

Arloa	Kexak 2017		2017an egindako kexen auztean dauden pertsonak			
			Gizonezkoak	Emakumezkoak	Kolektiboak	Guztira
Ogasuna	48	% 5,2	37 % 70	16 %30	0 % 0	53 % 0,9
Etxebizitza	35	% 3,8	18 % 51	17 % 49	0 % 0	35 % 0,6
Hirigintza	33	% 3,6	29 % 62	18 % 38	0 % 0	47 % 0,8
Zirkulazioa	30	% 3,3	19 % 1	9 % 0	2.148 %99	2.176 % 35,4
Herritarren segurtasuna	27	% 2,9	14 % 47	16 % 53	0 % 0	30 % 0,5
Lana	25	% 2,7	16 % 32	34 % 68	0 % 0	50 % 0,8
Justizia	23	% 2,5	15 % 63	9 % 38	0 % 0	24 % 0,4
Zerbitzu publikoak	23	% 2,5	49 % 51	47 % 49	0 % 0	96 % 1,6
Gizarte Segurantza	22	% 2,4	10 % 5	11 % 6	170 %89	191 % 3,1
Kontsumoa	20	% 2,2	7 % 35	13 % 65	0 % 0	20 % 0,3
Euskara	17	% 1,8	9 % 1	7 % 1	630 %98	646 % 10,5
Gardentasuna	13	% 1,4	11 % 79	3 % 21	0 % 0	14 % 0,2
Administrazio publikoen ondare- erantzukizuna	12	% 1,3	3 % 23	10 % 77	0 % 0	13 % 0,2
Administrazio publikoen ondasunak	11	% 1,2	33 % 67	16 % 33	0 % 0	49 % 0,8
Toki-entitateen funtzionamendua	11	% 1,2	7 % 64	4 % 36	0 % 0	11 % 0,2
Herri-lanak	11	% 1,2	6 % 55	5 % 45	0 % 0	11 % 0,2
Atzerritartasuna	9	% 1,0	6 % 67	3 % 33	0 % 0	9 % 0,1
Kirola	8	% 0,9	6 % 75	2 % 25	0 % 0	8 % 0,1
Nekazaritza	7	% 0,8	10 % 83	2 % 17	0 % 0	12 % 0,2
Datu pertsonalen babesa	7	% 0,8	7 % 100	0 % 0	0 % 0	7 % 0,1
Zuzenbide zibila	3	% 0,3	3 % 100	0 % 0	0 % 0	3 % 0,0
Oroimen historikoa	3	% 0,3	2 % 67	1 % 33	0 % 0	3 % 0,0
Turismoa	3	% 0,3	0 % 0	3 % 100	0 % 0	3 % 0,0
Kultura	2	% 0,2	1 % 50	1 % 50	0 % 0	2 % 0,0
Industria	2	% 0,2	1 % 50	1 % 50	0 % 0	2 % 0,0
Energia	1	% 0,1	1 % 13	7 % 88	0 % 0	8 % 0,1
GUZTIRA	921	100,0%	632 10%	716 12%	4.802 78%	6.150 100,0%

3. kapitulua

kexen azterketa, generoaren ikuspegitik

Taula horri erreparatuta, ikus daiteke, zenbait gaitan, emakumezkoek kexa gehiago jartzen dituztela gizonezkoek baino. Beste gai batzuetan, banaketa orekatuagoa da. Dena den, badira gizonezkoek emakumezkoek baino kexa gehiago jarritako gaiak ere.

Datu horiek ez dira eztabaidaезinak, baina, aurrerantzean egingo diren txostenetan generoa aztertzen bada, aukera eman dezakete ikusteko ea zenbat gaitan egiturazkoak edo etenik gabeak diren emakumezkoek kexa gehiago jartzeko arrazoiak, eta, hala, ageriko egin ahalko dira botere-egoera asimetrikoak edota gizarteak nagusiki emakumezkoek egotzitako rolak (zenbait gai "emakumezkoen kontutzat" hartzea).

Hori horrela izanik, adibidez, egiaztatzen da emakumezkoek gizonezkoek baino kexa gehiago aurkezten dituztela zenbait gaitan, gai "sozialetan" batez ere. Hauek dira gai horiek: lana (% 68), hezkuntza (% 67), kontsumoa (% 65), osasuna (% 61), gizarte-ongizatea (% 58) eta enplegu publikora heltzea (% 57). Are deigarriagoa da emakumeek jarritako kexak (hezkuntzari, gizarte ongizateari eta osasunari lotutakoak) hirugarrenen alde jarritakoak direla ikustea (adingabeko seme-alaben edo familiako kideren baten alde jarritakoak).

Bestalde, hauek dira kexak batez ere gizonezkoek jartzen dituzten gaiak: gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (% 79), ogasuna eta katastroa (% 70), justizia (% 63), hirigintza (% 62) eta tokiko erakundeen funtzionamendua (% 64).

Zenbait gaitan, dena den, antzekoak dira kexak jartzen dituzten gizonezkoen eta emakumezkoen proportzioak: ingurumena (% 44 emakumezkoek, % 56 gizonezkoek), obra publikoak (% 45 emakumezkoek, % 55 gizonezkoek), etxebizitza (49 emakumezkoek, % 51 gizonezkoek), herritarren segurtasuna (% 53 emakumezkoek, % 47 gizonezkoek) eta zerbitzu publikoak (% 49 emakumezkoek, % 51 gizonezkoak).

3.3. GAIEN ARABERAKO AZTERKETA.

Gaiak banan-banan aztertuta, gizonezkoek eta emakumezkoek jarritako kexen aldea handiagoa edo txikiagoa izan, ikus daiteke zenbait gaitan ez dela antzematen emakumezkoak desberdintasun- edota menpeko-egoeran jartzen duen egoerarik, edota genero arrazoiak direla-eta emakumezkoak edota haien seme-alabak zaurgarritasun-egoeran jartzen dituenik. Gai hauetan, hain zuzen: nekazaritzan, administrazio publikoen ondasunetan, merkataritzan eta kontsumoan, kulturean, zuzenbide zibilean (hiru kexa jakinetan, ez ordenamendu juridikoan), energian, atzerriartasunean, tokiko erakundeen funtzionamenduan, ogasun publikoan eta katastroan, industrian, ingurumenean, obra publikoetan, izaera pertsonaleko datuen babesean, administrazio publikoen ondarearen gaineko erantzukizunean, zirkulazioan eta bide-segurtasunean, gardentasunean eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidean, turismoan eta hirigintzan.

Gainerako gaitan, honako zehaztapen hauek egin behar dira:

- A) **Enplegu publikora heltzea.** Ikus daiteke kexetako batzuk emakumezkoek jarritakoak direla eta aldi baterako kontratazioei lotuta daudela, administrazio-laguntzaileen postuei (Q17/175, Q17/359, Q17/683), Justizia Administrazioaren izapidetze prozesal eta administrazio boko kidegoko postuei lotutakoak (Q17/720) edo telefonistalantetan aritzeko (Q17/808) postuei lotutakoak, hain zuzen. Era berean, badira emakumezkoek aldi baterako kontratazioari lotuta jarritako beste kexa batzuk, gizarte-laguntzaileen (Q17/209) edota etxeko langileen (Q17/297) kontratazioari lotutakoak. Bestalde, postu hauei lotutakoak dira gizonezkoek jarritako kexak: goi-mailako tituludunak (Q17/324, Q17/675, Q17/781), atezainak (Q17/669), zeladoreak (Q17/407), suhiltzaileak (Q17/222) eta udaltzainak (Q17/784).

B) **Gizarte-ongizatea.** Asko dira emakumezkoek beren adingabeko seme-alabak babeste aldera jarritako kexak (Q17/147, Q17/399, Q17/428, Q17/481, Q17/642, Q17/723, Q17/810 eta C17/1474), bai eta adin handia, ezintasuna, desgaitasuna, mendekotasuna edota gaixotasunak direla-eta haien ardurapean dauden familiako kideak babeste aldera jarritakoak ere (Q17/11, Q17/41, Q17/132, Q17/133, Q17/137, Q17/142, Q17/184, Q17/299, Q17/380, Q17/422, Q17/581, Q17/603, Q17/678, C17/298, C17/1229 eta C17/1394).

Gai honen baitan jasotzen dira emakumeen aurkako genero-indarkeriari nahiz jazarpenari lotutako kexak, izan bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren aurkakoak (Q17/285), bikotekide-ohiaren familiaren aurkakoak (C17/92) edota adingabeko alaben aurkakoak (Q17/761).

Badira adingabeko seme-alaben zaintzari lotutako kexak, bai eta bikote-bizitza eteteak eragindako gatazkei lotutakoak ere (Q17/136, Q17/217, Q17/405, Q17/535 eta C17/212).

Zenbait kexa desgaitasunak dituzten emakumezkoek jarritakoak dira, izan instalazio publikoak erabiltzeko zailtasunak dituztelako jarritakoak (Q17/701) edota izan eskatzen duten desgaitasun-maila (Q17/464) edo mendekotasun-maila (Q17/273) aitortzen ez zaielako jarritakoak.

Beste kexa batzuk alarguntasun-pentsioei lotutakoak dira, eta kolektibo horretan, emakumezkoak dira ugarien (17/190 eta Q17/792)

Emakumeek jarritako beste kexetako batzuek ageriko egiten dituzte estatusun ekonomikoak, baliabide ekonomikoen urritasuna, pobrezia edota, egoera ekonomiko txarrean egonik, laguntza eta bono sozialak lortzeko zailtasunak (Q17/76, Q17/362, C17/125 eta C17/1280).

Horiez gain, emakumeek jarritako kexak dira familia ugariak jasaten dituzten zailtasunei lotutakoak (Q17/603), guraso bakarreko familiei oro har lotutakoak (C17/257) eta emakumezko langile autonomoei lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten lagunduko dieten laguntzak eskuratzea eragozten dieten arazo burokratikoak lotutakoak (Q17/800).

C) **Kirola.** Emakumezko batek kexa bat jarri du, Berriobeitiko Udalak ez duelako tarifa murrizturik ezarri, guraso bakarreko familien kolektiboaren-tzat, Artika Kirol Hirian (Q17/71).

D) **Hezkuntza.** Lehen aipatu denez, azpimarratzekoa da emakumezkoak direla kexa gehien aurkezten dutenak.

Hogeita hamalau emakumezkoak kexa bana aurkeztu zuten, Hezkuntza Departamentuak ez zuelako ezarri gau-eskola presentziala, Tuteran, erizaintzako laguntzaileen maila ertaineko heziketa-zikloan (Q17/235, Q17/236, Q17/237, Q17/238, Q17/239, Q17/240, Q17/241, Q17/242, Q17/243, Q17/244, Q17/245, Q17/246, Q17/247, Q17/248, Q17/249, Q17/250, Q17/251, Q17/252, Q17/253, Q17/254, Q17/255, Q17/256, Q17/257, Q17/258, Q17/259, Q17/260, Q17/261, Q17/262, Q17/269, Q17/277, Q17/278, Q17/304, Q17/311 eta Q17/312). Horiez gain, gizonezko batek kexa bat jarri zuen Hezkuntza Departamentuaren aurka, lanbide-heziketako eskaintza urria duelako, eta, horrenbestez, hainbat ikasle kanpoan uzten dituelako eskaera handieneko heziketa zikloetan; izan ere, horixe gertatu zitzaion bere alabari, ez baitzuten hartu erizaintzako zaintza osagarrien zikloan (Q17/532).

Emakumezko batek kexa baten bidez adierazi zuen haren desadostasuna Hezkuntza Departamentuarekin, Departamentu horrek, haur-eskoletarako onartu berri duen araudian, tarifa murriztua ezarri duelako guraso bakarreko familientzat, baina haren alabak ezin duelako

3. kapitulua

kexen azterketa, generoaren ikuspegitik

horren onuradun izan, haur-hezkuntzako bigarren zikloan dagoelako.

Beste kexa batean, emakumezko batek Iruñeko Udalarekin duen desadostasuna azaldu du, udal horrek ez dituelako berariaz kontuan hartzen aita eta ama ezkongabeen familiak, eskola-jangelen eta hiriko kanpaldien zerbitzuetarako laguntzak ezartzen dituen araudian (Q17/398).

Beste kexa batean, emakumezko batek salatu du Hezkuntza Departamentuak eta Iruñeko Udalak, funts publikoekin ordaindutako haur-eskolen 2017/2018 ikasturterako onarpen-irizpideak arautzean, ez duela kontuan hartu pertsona bakoitzeko errenta, urteko errenta baizik (alegia, ez duela kontuan hartu zenbat kide dituen familia-unitate bakoitzak), eta ezabatu egin duela familia ugariari ematen zitzaizen puntuazio osagarria (Q17/199).

Beste kexa batean, emakumezko batek baimen berezi bat eman dakion eskatu dio Hezkuntza Departamentuari, aukera izan dezan bere seme-alabak iraileko ezohiko epealdian Iruñeko eskola publiko batean matrikulatzeko, egun bizi den hiriko epaitegiak, hots, Santofñako epaitegiak, adingabeko horien aitak eman beharreko eskolaratze-baimenari buruzko epai bat eman bitartean (Q17/533).

Beste kexa batean, emakumezko batek salatu du Iruñeko Udalak bere semearen aitarekin erutzen zuen bikote egonkorren desegite-hitzarmenaren kopia bat eskatu diola, eskola-jangela ordaintzeko diru-laguntza bat lortu ahal izan dezan (Q17/629).

E) **Euskara.** Herritar batek kexa bat jarri du Uharteko Udalaren aurka, uste duelako Udal horrek bazterkeriaz jokatu duela hiriko kanpaldietarako onarpen-prozeduran, adingabekoen hezkuntza-eredua lehenetsi duelako kanpaldi horiek antolatzeko arrazoia kontuan hartu beharrean,

hau da, lana eta familia-bizitza bateragarri egitea kontuan hartu beharrean (Q17/166).

F) **Funtzio publikoa.** Ikusi da kexak aurkeztu dituzten emakumeetako batzuek Administrazioako C eta D mailetako postuak betetzen dituztela, hala nola EVENA erakunde autonomoa zenean laborategiko teknikarien laguntzaile-lanetan (diotenez, B mailako egitekoak betetzen eta kobratzen dituzte) (Q17/196), desgaitasunak dituzten pertsonen hezkuntzako zaintza-lanetan (Q17/537 eta Q17/789), haur-eskoletako hezitzaile-lanetan (Q17/778, Q17/779 eta Q17/780) eta mandatari-lanetan (Q17/524), edota B mailakoak, erizain-lanetan (C17/741). Ikusi da, halaber, kexagileetako batzuk lanaldi partzialeko postuak betetzen dituzten emakumeak direla (Q17/352, Q17/378 eta Q17/530).

Beste kexa batean, Nafarroako Osasunbidea zerbitzuan lan egiten duen emakumezko funtzionario batek azaldu du familia-arrazoiengatik Euskal Autonomia Erkidegora joan behar izan zuela bizitzera 2010. urtean, eta bere lanpostua EAEko Osakidetza zerbitzura lekualdatzeko asmoa azaldu zuenean, ezin izan zuela halakorik egin, Nafarroan funtzionarioen araubidea dagoelako indarrean eta Osakidetzan, berriz, estatuko gainerako osasun-zerbitzuetan gertatzen den moduan, araubide estatutario finkoa. Hori horrela, zerbitzu-eginkizunetako egoerara igartzeko eskaera egin behar izan zuen Osakidetzan, eta urtero berrikusten zaio eskaera. (C17/158).

Beste kexa batean, emakumezko batek salatu du Burlatako Udalak ez duela ezer ere egin lan egiten duen udal-zentroan pairatzen duen lan-jazarpeneko egoera aldatzeko, nahiz eta, egoera horrek bultzatuta, egina duen bere lanpostua lekuz aldatzeko eskaera bat (Q17/753).

G) **Justizia.** Herritar batek idatzi baten bidez azaldu du beharrezkoa dela komunikabideek gutziz

bermatzea norberaren intimitatea babesteko eskubidea, bortxaketen biktima izan diren emakumezkoen kasuan (Q17/374). Beste kexa batean, herritar batek bake-epaitegi bateko pertsona baten jarduna salatu du, bikotekidea bulgariarra zuela ikusirik, harekin izan duen jarrera mespretxuzkoa, arrazista eta xenofoboa izan dela irizten duelako (Q17/291). Sarritan ikusten da kexak jarri dituzten emakumezkoak hirugarrenen alde ari direla, izan seme baten alde (haren heriotzaren kausak ezagutzeko, Q17/293), izan ezkontidearen alde (Q17/555) edo izan familiako kide baten alde (autopsia bidez haren heriotzaren kausak ezagutzeko, Q17/106). Beste zenbait kexatan, bikoteen hausturagatiko eta seme-alaben zaintzagatiko gatazkak azaltzen dira (Q17/185, 17/337, Q17/397 eta C17/793).

H) **Osasuna.** Bi emakumezkoek bi kexa aurkeztu dituzte Nafarroako osasun-zerbitzuaren aurka, hots, Osasunbidearen aurka, ukatu egin dielako lagundutako ugalketa-tratamendua ematea eta finantzatzea, "bikotekidearekin bizi ez direlako" (Q17/579 eta Q 17/585).

Emakumezkoek jarritako kexetako askok uzten dute agerian hirugarrenen interesen alde edo haiek zaintze aldera dihardutela, izan semea (Q17/44, Q17/568 eta Q17/568), izan alaba (Q17/302, Q17/415 eta C17/583), izan ezkontidea (Q17/529 eta Q17/693), izan koinatua (Q17/598), izan ahizpa (Q17/639) edo izan familiako beste kide bat (Q17/686).

I) **Herritarren segurtasuna.** Herritar batek kexa bat aurkeztu du, ama eta aita ezkongabeen kolektiboa ez delako kontuan hartzen Nortasun Agiri Nazionala ateratzeagatiko tasak ordaintzeko salbuetsien artean (Q17/406).

Iruñeko espetxeko hiru emakumezko presok haienganako tratu desagokia salatu dute. Azaldu dute bere buruaz beste egiteko deliratzan zebilen beste preso bat zaintzera behartu zituztela

zenbait astez, eta haietako bat zigortu zutela zeregin horri uko egin ziolako, beldurra ematen ziola-eta. Horrez gain, azaldu dute preso batek beste bat zaintzera behartu zutela, mota horretako egoerei aurre egiteko gaitasunik ez zuen arren (aipatu dute zentroko funtzionarioek parteetan jasotzen dutela presoek larderiatu, hertsatu eta hitzez erasotzen dituztela, egia izan ez arren, eta, gaixorik daudenean, bulegora ez alferrik joateko esaten dietela, bihotzakoak jota edo hiltzear ez badaude) [Q17/812].

J) **Gizarte segurantza.** Zenbait kexak ageriko egiten dute kexagileak emakumezko etxeko-langileak (Q17/323 eta Q17/665) edo langile autonomoak (Q17/322) direla. Beste zenbait kexak argi uzten dute, aurrez aipatu bezala, seme-alaben, iloben eta haien tutoretzapeko pertsonen alde dihardutela (Q17/183, Q17/323, Q17/466 eta Q17/691).

K) **Zerbitzu publikoak.** Emakumezko batek kexa bat jarri du, Iruñerriko Mankomunitateak ez duelako tarifa murrizturik ezarri, guraso bakarreko familien kolektiboarentzat, garraio-zerbitzu publikoan (Q17/69). Herritar horrek berak beste kexa bat jarri du, Iruñeko Udalak ez dizkielako tarifa murriztuak aplikatzen guraso bakarreko familien kolektiboari, Civivox ikastaroetan eta hiriko kanpaldietan (Q17/70). Beste kexa batean, emakumezko batek Agoitzeko Udala salatu du, ez duelako neurririk hartu hura eta haren bi umeak (urte bat eta bost urte dituzte) etxean pairatzen ari diren uraren hornidura-arazoak konpontzeko (Q17/154).

Beste kexa batek argi erakusten du emakumezko batek bere ama gaixoa babesteko diharduela (Q17/343). Bada telebistari lotutako kexa bat ere. Emakumezko batek ezinegona adierazi du, telebistan ematen diren telesail eta programa arrakastatsuenen ordutegia, "prime time" delakoa alegia, 22:50etan edo beranduago hasten delako lanegunetan, eta uste duelako horrek

3. kapitulua

kexen azterketa, generoaren ikuspegitik

eragozpenak jartzen dituela lana eta norberaren bizi-baberrak (Q17/371).

L) **Lana.** Zenbait kexatan ikus daitekeenez, lanpostu hauek dituzte emakumezkoak dira kexagileak:

- Sukaldariak. Nafarroako Ospitalguneko bost emakumezko langilek kexa bat aurkeztu dute, Osasun Departamentuak haien lan-kontratuak azkendu asmo dituelako, ospitalguneko sukalde-zerbitzuak berriro ere kudeaketa publikoa izatera igaroko direla-eta (Q17/292).
- Garbitzaileak. Enpresa pribatuen bitartez Foru Komunitateko administrazio publikoen instalazioen garbiketa-lanetan diharduten hogeit hamar emakumezko kexa bat jarri zuten, beren lan-baldintzak okertu direlako, zerbitzu horren lizitaziorako deitutako prozeduretan izan diren irregulartasunak direla-eta (Q17/356).
- Etxeko langileak. ASIMEC enpresako hiru langilek kexa bat aurkeztu dute. Etxeko langile horiek udal-laguntza ematen zuten etxez etxe, eta enpresak langile horiekiko duen lan-harremana subrogatu du Udalak. Ez daude ados aldaketa horren ondorioekin, Udalak ez baitie ez aitortzen ez ordaintzen antzintasuna enpresarekin lehenengo kontratua egin zuten unetik, subrogazioa egin zen unetik baizik (Q17/381).

Beste kexa batean, emakumezko batek azaldu du zer-nolako zailtasunak dituen orain duena baino lanaldi luzeagoko eta soldata hobeko lan bat aurkitzeko (Q17/1045).

Gizarteratzeko errenta aktiboari lotutako bi kexetan ikus daitekeenez, laguntza hori jasotzen dutenak emakumezkoak dira (Q17/283 eta Q17/566).

Beste bi kexatan, kexa horiek jarri dituzten emakumeek salatu dute gaizki hartu dituztela Nafarroako Lan Epaitegian (Q17/355) eta Iruñeko enplegu-bulegoan (Q17/767).

M) **Etxebizitza.** Ikusten da kexetako batzuk langabezian edota egoera ekonomiko larrian dauden emakumezkoek jarri dituztela, gehienek seme-alabak dituztela beren ardurapean, zailtasunak dituztela alokairuko etxebizitza babestu bat edota tutoretzapeko etxebizitza bat aurkitzeko eta, zenbaitetan, etxegabetze-arriskuan daudela (Q17/37, Q17/170, Q17/202, Q17/213, Q17/382, Q17/602 eta Q17/622).

Emakumezko batek kexa bidez azaldu du Eskubide Sozialetako Departamentuak ez diola babes ofizialeko etxebizitza bat alokairuan esleitu, eskatzaileen erroldan izena eman zuenetik bi urte igaro diren arren. Adierazi du genero-indarkeriaren biktima dela, hiru seme-alaba dituela (laugarrenak desgaitasun bat zuen eta berriki hil da), familia ugariaren aitorpena duela, Nafarroan erroldatuta dagoela eta hilean 600 euroko errenta jasotzen duela. Seinalatu du, egoera horretan bizi den arren, poltsa horretan izena eman zuen unetik gaurdaino NASUVINSAK onartu dituen bi esleipen-ebazpenetan ez zaiola alokairurik esleitu. Eskatu du kontuan har dadila haren egoera pertsonala eta esleitu diezaiola alokairu sozialeko etxebizitza bat ahalik lasterren, egungo egoera aurki konpontzen ez bada, errentatzaileak etxea utzaraziko baitio (17/156).

Beste kexa batean, herritar batek azaldu du, batetik, Iruñeko Udalak ukatu egin diola larrialdiko laguntza, bere kasa aurkitu duen alokairuko etxebizitza baten fidantza ordaintzeko, eta, bestetik, auzoko unitateko langileek harekiko izan duten jarrera desegokizat jotzen duela (17/284).

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

4.1. DATU OROKORRAK.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak (18.1 artikulua) ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari ofiziozko jarduketak egiteko, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzeraz bideratuak, antolamendu juridikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak bermatze aldera (1.1 artikulua) eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetze aldera (16. artikulua). Ofiziozko jarduketa horiei amaiera eman dakieke, egokitzat jotzen bada, Nafarroako administrazio publikoei zuzendutako iradokizun, legezko betebeharren gogorarazpen edo gomendioak eginez, edo bestelako erakunde publikoei –Nafarroako Parlamentuari (33. eta 34. artikulua) edo Espainiako Arartekoari (14.2 eta 39. artikulua) iradokizun edo eskariak eginez.

2017an, ofiziozko 23 jarduketa abiarazi ziren, eta 28 kudeatu, 2016an abiatutako bost izapidetzen ari zirelako 2016ko abenduaren 31n.

Jarraian, ofiziozko 28 jarduketa horiekin zer gertatu den azalduko dugu:

- Jarduera horietatik 17tan, ebazpenak eman ziren:
 - Hiru gomendio.
 - Hamahiru iradokizun.
 - Bederatzi arautzeko iradokizun.
 - Legezko betebeharren gogorarazpen bat.

Kudeatu eta ebatzi diren 17 ofiziozko jarduketa horietatik 7 onartu eta 10 ukatu zituzten administrazio publiko hartzaileek.

Horrenbestez, Nafarroako Arartekoak ofiziozko jarduketei lotuta emandako ebazpenen onarpen-maila % 41,18koa izan zen.

- Ikerketa jakinarazi ostean Administrazioak erantzundako beste bost jarduketatan, berriz, auzia konpontzeko bidean dela jo zen.
- Hiru jarduketatan, detektatutako egoera Espainiako Arartekoari jakinarazi zaio, ebazpenik eman gabe, kasua haren eskumenekoa dela iritzita. Hiru jarduketa horietako bat Europar Batasuneko Arartekoari ere jakinarazi zaio.
- Beste bi kasutan, Administrazioetik jasotako informazioa aztertu ondoren, ez zen beharrezkotzat jo ebazpena adieraztea edo neurri berriak hartzea.

Egindako ofiziozko jarduketek honako **gai** hauek izan zituzten xede (kopuru handienetik txikienera antolatuta aipatzen ditugu):

- Gizarte-ongizatea: 6 (parekotasunik eza alarguntasun-pentsioen eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artean, mendeko pertsonentzako egoitzako plazen urritasuna eta etxez etxeko zaintza jasotzeko laguntzen urritasuna, kotizaziopeko pensioen aurretiazko kenkari fiskala familien alde, mendekotasunagatiko laguntzen eraginetarako data, Caritasen eskutik errenta bermatua aurreratzea, babesgabetasun-

egoeran dauden adingabekoei buruzko informazio-eskaerak).

- Osasuna: 5 (larrialdi-zerbitzuaren egoera, errenta baxuko pertsonen sendagaiak ordaintzeko ezintasuna, Osasunbidea Nafarroako osasun-zerbitzuaren eta Argibide Fundazioaren arteko kontratua azkentzea, ludopatei eman beharreko arreta eta osasun-arreta unibertsala).
- Ogasuna: 4 (legezko epea amaitzeagatik zerga-espeditenteak iraungitzea, plusbalioaren gaineko zerga aldatzea, aurrekontu-egonkortasunari buruzko lege organikoaren ondorio murriztaileak eta desgaitasunak dituzten pertsonak ibilgailuen zirkulazio-zerga ordaintzetik salbuestea).
- Herritarren segurtasuna: 2 (eraso homofobia Iruñean eta Nafarroako Foru Komunitateak espetxeen arloko eskumenak bere gain hartzea).
- Kultura: 1 (liburutegien udaldiko irekiera-ordutegia).
- Atzerriartasuna: 1 (Arartekoen adierazpena European asiloa eta babesaren eskatzen dutenei eragiten dien krisi humanitarioari buruz).
- Funtzio publikoa: 1 (Nafarroako udaltzainen ordainsari-erregimena).
- Trafikoa: 1 (Alloko saihebidetaren arriskugarritasuna).
- Gardentasuna: 1 (Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzea, Nafarroako Arartekoari egotzitako funtzioen bikoizketarekin).
- Etxebizitza: 1 (berriz alokatutako logeletan bizi diren familien egoera).

Hurrengo taulan, kudeatutako ofiziozko jarduketak eta haien emaitzak azaldu ditugu:

Gaia	Gaia zehatza	Administrazio hartzailea	Emaitza
2016ko abenduaren 31n egiteko zeuden ofiziozko jarduketak			
Kultura	Noingo Gudua gertatu zen lekuaren babesa	Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	Onartutako iradokizuna
		Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	Ez da onartu iradokizuna.
Ingurumena	Bide- eta trenbide-ardatzetako zaraten mapa onartzea	Garapen Ekonomikorako Departamentua	Ez da onartu legezko betebeharren gogorazpena.
Ingurumena	Tanatorioak eta beilatokiak jartzea etxabeetan	Osasun Departamentua, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa	Ez da onartu arautzeko iradokizuna.
Gizarte-ongizatea	Caritasen larrialdietako laguntzak eta errenta bermatua aurreratzea	Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udala	Onartutako gomendioak
Gizarte-ongizatea	Adingabeentzako babesaren egoera - 2016. urteko txostena	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako iradokizunak

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Gaia	Gaia zehatza	Administrazio hartzailea	Emaitza
2017ko ofiziozko jarduketak			
Atzerritartasuna	Arartekoen adierazpena Europan asiloa eta babesa eskatzen dutenei eragiten dien krisi humanitarioari buruz.	Zenbait administrazio publiko, Espainiako Arartekoa eta Europar Batasuneko Arartekoa	Espainiako Arartekoari eta Europar Batasuneko Arartekoari bidalia
Osasuna	Nafarroako Ospitalguneko Larrialdi Zerbitzuaren egoera	Osasun Departamentua	Ebazteko bidean
Ogasuna	Legezko epea amaitzeagatik zerga-espedienteak iraungitzea	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Etxebizitza	Berriz alokatutako logeletan bizi diren familien egoera	Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udala	Onartutako iradokizunak
Gizarte-ongizatea	Parekotasunik eza alarguntasun-pentsioen eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artean	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez da onartu gomendioa.
Ogasuna	Plusbalioaren gaineko zergaren araubidea aldatzea	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Gardentasuna	Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea sortzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Ez da onartu arautzeko iradokizuna.
Gizarte-ongizatea	Mendekoentzako egoitzako plaza publikoen edo hitzartuen urritasuna	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ebazteko bidean
Herritarren segurtasuna	Eraso homofoboa Iruñean	Iruñeko Udala	Ez zen hauteman ebazpen baten premiarik.
Ogasuna	Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko lege organikoaren ondorio kaltegarriak	Espainiako Arartekoa	Espainiako Arartekoari bidalia
Gizarte-ongizatea	PFEZari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duen Foru Legearen aurreproiektuaren irismena (pentsio jakin batzuk lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko zerga-kenkariak aldatzen dituenarena)	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez zen hauteman ebazpen baten premiarik.

Gaia	Gaia zehatza	Administrazio hartzailea	Emaitza
2017ko ofiziozko jarduketak			
Osasuna eta Gizarte-ongizatea	Errenta baxuko pertsonen agintzen dizkieten sendagaiak ordaintzeko duten ezintasuna	Osasun Departamentua eta Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizunak
Gizarte-ongizatea	Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketak berarekin dakartzan ondorio kaltegarriak	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez da onartu arautzeko iradokizuna.
Zirkulazioa	Alloko saihesbideko ezbehar-kopurua (NA-122 errepidekoa, NA-666rekin gurutzatzen den ingurukoa)	Garapen Ekonomikorako Departamentua	Ebazteko bidean
Ogasuna	Desgaituak ibilgailuen zirkulaziozerga ordaintzeko beharretik salbuestea	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	Ez da onartu arautzeko iradokizuna.
Gizarte-ongizatea	Nafarroako Elizbarrutiko Cáritasek gizarteratzeko errentaren edo bermatutako errentaren aurrerapenak emateko sistema	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ebazteko bidean
Kultura eta zerbitzu publikoak:	Liburutegi-zerbitzu publikoaren irekiera-orduen udaldiko murrizketak	Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua eta Iruñeko Udala	Ez dira onartu iradokizunak.
Osasuna	Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Argibide Fundazioaren arteko kontratua	Osasun Departamentua	Ez da onartu iradokizuna.
Herritarren segurtasuna	NFEBHLOaren 58.1 artikulua a) atala betetze aldera, Nafarroako Gobernuak espetxeen arloko eskumenak bere gain hartzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Ebazteko bidean
Osasuna	Aralar, Nafarroako Ludopaten Elkartea: ludopatei eman beharreko arreta	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Osasun Departamentua.	Ez da onartu arautzeko iradokizuna. Iradokizuna onartu da.
Funtzio publikoa	Nafarroako tokiko polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsari-erregimena ez da egokitzen Nafarroako Poliziaren Foru Legearen aurreikuspenetara	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Ez da onartu arautzeko iradokizuna.
Gizarte-ongizatea	Eskubide Sozialetako Departamentuari datuak eskatzea, haurren eta nerabeen babesari buruz	Eskubide Sozialetako Departamentua	Amaitutzat emateke
Osasuna	Osasun publikora sarbide unibertsala	Espainiako Arartekoa.	Espainiako Arartekoari bidalia

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

2017an hasitako ofiziozko 23 jarduketan laburpena, **jarduketan hartzaile diren erakunde eta administrazio publikoen arabera**, eta kontuan hartuta jarduketa horietako batzuetan eragindako administrazioak bat baino gehiago direla, honako hau da:

- I Administración de la Comunidad Foral de Navarra: destinataria de 19 actuaciones de oficio.
 - Departamento de Derechos Sociales: 8.
 - Departamento de Salud: 4.
 - Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia: 4.
 - Departamento de Cultura, Deporte y Juventud: 1.
 - Departamento de Desarrollo Económico: 1.
 - Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local: 1.
 - Entidades locales: destinatarias de 3 actuaciones de oficio.
- II Ayuntamiento de Pamplona-Iruña: 3.
- III Universidad Pública de Navarra: destinataria de 1 actuación de oficio.
- IV Defensor del Pueblo de España: destinatario de 3 actuaciones de oficio.
- V Defensor del Pueblo de Europeo: destinataria de 1 actuación de oficio.

4.2. 2017KO ABENDUAREN 31N EGITEKO ZEUDEN OFIZIOZKO JARDUKETAK.

4.2.1 Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak onartzea.

Administrazio hartzaileak: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua eta Garapen Ekonomikorako Departamentua.

Arloa: Ingurumena.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea..

Zarata-mapak funtsezko tresna dira azpiegitura jakin batzuek eta hiri-metaketa handiek sortutako zarata prebenitzeko eta aztertzeko; hain zuzen, errepideek, aireportuek eta trenbideek sortutako kutsadura akustikoaren arazoa planteatzen dute herritar askok eta askok.

Alde horretatik, honela dio Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 14.1. artikulua, zarata-mapen identifikazioari buruzkoak:

"1. Lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoari jarraituz, Administrazio eskudunek honako hauei dagozkien zarata-mapak onartu beharko dituzte, aldez aurretik jendaurrean gutxienez hilabete bateko epean eduki ondoren:

a) Errepide-ardatz handi bakoitzaren, trenbide nagusien, aireportu handien eta metaketa handien mapak. Metaketa handizat hartuko dira 100.000 biztanletik gora eta araudian ezarritakoa baino biztanleria-dentsitate handiagoa duten udalerrriak, lehen xedapen gehigarrian ezarritako egutegiarekin bat etorritik, eta 2. idatz-zatian jasotakoari kalterik egin gabe.

b) Kalitate akustikoko helburuak betetzen ez dituzten eremu akustikoen mapak".

Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen Iruñerriko zarata-mapa bat onartu zela, eta eskualdeko hiri-metaketaren zenbait mapa estrategiko jasotzen direla bertan. Hain zuzen, industriak, aireko, trenbideetako eta errepideetako trafikoak eragindako zarata aztertzen da mapa horietan. Alabaina, mapa horretan ez zen Nafarroan dauden errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapei buruzko informaziorik jasotzen.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura jo zuen, jakiteko zergatik ez dauden argitaratuta Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak. Era berean, jakin nahi zuen zarata-mapa horiek onartuta zeuden ala ez; hau da, hori ote zen informazio hori argitaratuta ez egotearen arrazoia, eta horrela balitz, zergatik ez zeuden onartuta. Halaxe adierazi zion erakunde honek aipatutako departamentuari, eta, horrela bazegokion, mapa horiek egiteko zer egutegi zegoen aurreikusita ere jakin nahi zuela.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak bidalitako erantzunean jakinarazi zuen ez duela eskumenik Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak onartzeko, eta, beraz, onarpen hori Garapen Ekonomikorako Departamentuari zegokiola ondorioztatu zen.

Erantzun hori kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak Garapen Ekonomikorako Departamentuari eskatu zion informazio hori.

Garapen Ekonomikorako Departamentuak txosten baten bidez erantzun zuen. Adierazi zuen Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien lehen faseko zarata-mapa strategiakoak jada eginda daudela, eta Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren webgunean argitaratuta ere bai. Bigarren faserako aurreikusitako zarata-mapak, berriz, ez dira egin, aurrekonturik ez zegoelako. Era berean, jakinarazi zuen bigarren fasea –bai lehen fasean

egindako zarata-mapak berrikustea eta bai bigarren faseko zarata-mapak egitea, neurketa berrienetan lortutako datuekin- hurrengo urtean egitekoa zela, hots, 2018an. Alabaina, ez zen baztertzen lan horiei urte horretan bertan ekiteko aukera, baldin eta 2017ko ekitaldian sor litezkeen aurrekontu-aukerek horretarako bidea emango balute.

Departamentu horrek bidalitako informazioa aztertu eta gero, Nafarroako Arartekoak adierazi zuen hauek direla zarata-mapa horiek egitean lortu nahi diren helburuak: a) Eremu jakin batean kutsadura akustikoaren eraginaren ebaluazioa egitea, osotara hartuta. b) Eremu horretarako aurreikuspen orokorrak egitea. c) Kutsadura-akustikoaren esparruko ekintza-plan funtsatuak egiteko aukera izatea, eta, oro har, egoki diren zuzenketa-neurriak aplikatzekoa.

Horregatik guztiagatik, 14.1 artikuluan, zaratari buruzko legearen lehen xedapen osagarrian (errepide-ardatz nagusien zarata-mapak 2012ko ekainaren 30a baino lehen onartu behar direla dio), eta giro-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari lotuta abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuan, eta, batez ere, azken horren 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak uste izan zuen beharrezkoa zela Garapen Ekonomikorako Departamentuari gogoraraztea haren legezko betebeharra dela azaroaren 17ko 37/2003 Legean, zaratari buruzkoan, aurreikusitako zarata-mapak onartzea.

Hala, erakunde hau arautzen duen foru-legean ezarritakoarekin bat, Garapen Ekonomikorako Departamentuak bi hilabeteko epea izan zuen Nafarroako Arartekoari jakinarazteko legezko betebeharren gogorarazpena onartzen zuen edo ez, eta, onartuko balu, zer neurri hartuko zituen. Alabaina, behin epe hori igaro ostean, nahiz eta bi bider eskatu zitzaion, ez zuenez erantzunik eman, Nafarroako Arartekoak entitate ez-kolaboratzaileen erregistroan sartu zuen Garapen Ekonomikorako Departamentua, e baitzuen beste aukerarik ikusi, eta amaitutzat eman zuen gai zehatz honetan egin zezakeen lana.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

4.3. 2017KO OFIZIOZKO JARDUKETA GARRANTZITSUENAK.

Hauek dira 2017an egindako jarduketa garrantzitsuenak, abiatu ziren unearen arabera antolatutak:

4.3.1. Arartekoen adierazpena Europan asiloa eta babesa eskatzen dutenei eragiten dien krisi humanitarioari buruz.

Administrazio eta erakunde hartzaileak: Zenbait administrazio publiko. Espainiako Arartekoa. Europar Batasuneko Arartekoa.

Arloa: Atzerritartasuna.

Jarduketa: Adierazpen instituzionala.

2017ko otsailaren 2an, Euskadiko Arartekoaren ekimenez, Gasteizen bildu ziren Euskadiko, Kanarietako, Kataluniako, Valentziako, Aragoiko, Andaluziako, Gaztela eta Leongo, Galiziako eta Nafarroako Arartekoak. Bilera hartan, adierazpen bat onartu eta zabaldu zuten, azaltzeko zer-nolako atsekabea eragiten zien Europan asiloa eta babesa eskatzen zutenek bizi zuten krisi humanitario larriak, Europar Batasuneko estatu-kideek harrera-prozedura bakan batzuk izapidetzen zituzten bitartean.

Era berean, adierazpen horrekin batera, Arartekoek hainbat neurri proposatu zituzten, hainbat arlotan eta mailatan ezartzeko: Neurri horien artean, hauek nabarmendu daitezke:

- Autonomia-erkidegoei dagozkienak:
 - Erkidego bakoitzaren agenda politikoan immigrazio- eta asilo-politiketan rol erabakigarriago bat txertatzea.
 - Udalekin, eta beste tokiko erakunde eta foru-erakunde batzuekin elkarlanean, egoitza-plazak eskaintzea, Estatu osoan berrasentamendu eta birkokatze gehiago

egin daitezzen, eta, hartara, hartutako konpromisoak bete daitezzen.

- Plaza espezifikoak gordetzea, helduen laguntzarik gabe babes-eske datozen adingabeko atzerritarrentzat.
- Estatuaren Administrazioarekin elkarlanean aritzea, babesa edota babes subsidiarioa eskatzen dutenen harrera egokiagoa izan dadin.
- Erakunde-arteko mahaiak abian jartzea eta errefuxiatuak hartzeko ekintza-planak egitea, Europar Batasuneko zuzentarauekin bat, orain arte halakorik egin ez bada, errefuxiatuak hartzeko lanean diharduten erakunde sozialen parte-hartzea kontuan hartuta.
- Kudeaketa-sistemak ezartzea, modu eraginkorrean biltzeko eta kudeatzeko errefuxiatuak hartze aldera eta haiei arreta emate aldera familiek eta banakoek egindako eskaintzak, administrazioak gainbegiratuta eta haren laguntzarekin, betiere.
- Errefuxiatuei eman beharreko arreta lehenestea integrazio-planetan, bai erkidegoetakoetan eta bai tokikoetan.
- Estatuarekin lankidetzak aktiboan jarduteko aukera aztertzea, larrialdietako laguntzarako plan koordinatuan edo antzeko tresna batean, bi helbururekin, EBren babes zibileko mekanismoan parte hartzekoarekin eta krisialdi honek gairatutako herrialdeei laguntza praktikoa ematekoarekin, babes beharra dutenek aurre egin ahal diezaioten neguko tenperatura baxuek eragindako egoera larriari.

- Autonomia-erkidegoen administrazioek kudeatutako zerbitzu publikoen erabilera erraztea.
- Giza eskubideei buruzko eta, zehazki, asilo-eskubideari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-programak bultzatzea.
- Estatuari dagozkionak:
 - Arartekoak eta UNHCRek 2016ko urriaren 5ean egindako jardunaldietako ondorioak kontuan hartzea, bai eta Arartekoaren "Asiloa Espainian: Nazioarteko babesa eta harrera-sistemaren baliabideak" txostene-koak ere.
 - Europar Batasunarekin errefuxiatuak hartzeko hartutako konpromisoak betetzeko prozesua azkartzea, horretarako eskura izan daitezkeen mekanismoak martxan jarri: harrera-plazak eskura jartzea, Agentzietara adituak bidaltzea, lotura-ofizialak...
 - Koordinazio-mekanismo egonkorak ezartzea autonomia-erkidegoekin, lurralde desberdinetan asiloa eskatzen dutenen harreran eta kudeaketan erantzunkidetasuna egon ahal dadin, arreta berezia jarri informazioan, esparru sozialean haiei dagozkien legezko funtzioak hobeto bete ditzaten.
 - Egoera berezi honi aurre egite aldera rol eraginkorragoa eskatzen duten autonomia-erkidegoei aukera hori ematea, beren iritzia eta jarrera adieraz ditzaten fase guztietan, bai birkokatze- eta berrasentamendu-programetan parte-hartzeko plazei buruzkoak, bai harrera-prozedurari buruzkoak.
 - Udalerriak, tokiko erakundeak eta foru-erakundeak barne hartzea, harrera-plazak eskaintzen badituzte eta hala eskatzen badute.
- Kontzentrazioa ekiditeko balizko sistemiei buruz gogoeta egitea, egoki irizten den legezko formularen bidez aukera emateko autonomia-erkidegoei, hala eskatzen badute, asilo-eta immigrazio-politiken kogestioan orain arte izan dutena baino zeresan handiagoa izanik, erantzunkide egin daitezten eta zenbait izapidetan parte har dezaten. Izan ere, autonomia-erkidegoek kudeatzen dituzten zerbitzu publikoek ematen diete arreta babesa eskatzen dutenei eta, oro har, immigratzaileei, eta, horrenbestez, hartzen diren erabakiek haiei dagozkien funtzioei eragiten diete.
- Espainiaren enbaxadek, badaezpadako neurriak hartuta, arrazoi humanitarioengatik lurralde-baliozkotasun mugatuko bisak edo iragan-agiriak emateko aukera baloratzea [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 810/2009/EE erregelamenduaren 25. artikulua, bisa emateko erkidegoko kodea ezartzen duena (iragan-agirien kodea)], San Egidio komunitateak bultzatutako korridore humanitarioetan egin den bezala.
- Europar Batasunaren babes zibileko mekanismoan parte hartzeko aukera bultzatzea eta krisialdi honek gainditutako herrialdeei laguntza praktikoa ematea, larrialdiari ahalik lasterren erantzunez, babes beharra dutenek aurre egin ahal diezaioten neguko tenperatura baxuek eragindako egoera larriari.
- Kudeaketaren gardentasuna bermatzeko tresnak ezartzea, bai nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko funtsena, bai beste administrazio publiko batzuen

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

ekintza kontuan hartzen duten banaketa-formulena.

- Europar Batasunari dagozkionak:
 - Espainiari esleitutako errefuxiatuen harrerakupoa epe egokian betetzea eragozten duten oztopoak desagerraraztea.
 - Europako Asilo Sistema Bateratu (EASB) aztertzea, kontuan hartuta sistemaren aurreikuspenak ez direla kontuan hartzen, halaberrez, asiloa eskatzen denean edota bizilekuari buruzko erabakiak hartzen direnean.
 - Egungo EASBari buruzko gogoeta-prozesuan eta aldaketa-proposamenetan, tartean diren eragileen parte-hartzea sustatzea eta erraztea.
 - Europar Batasuneko Arartekoak eskatu bezala, Turkiarekin egindako akordioa ebaluatzea, babesa eskatzen dutenen eskubideak urra ditzakeelako; haren eraginkortasuna baloratzea, kontuan hartuta ikuspegi ekonomikoa eta horretara bideratutako funtsak; eta hausnartzea ea akordio horren bidez Europa ematen ari den erantzuna bat datorren Europako Erkidegoaren Ituneko 2., 3. eta 6.1. artikuluetan aldarrikatutako printzipioekin eta giza eskubideekiko errespetuzko eredu batekin.
 - Egoeraren larritasunak eskatzen duenez, orain arte martxan jarri direnez bestelako erantzun osagarririk eman daitekeen aztertzea, hala nola Europar Batasuneko estatu-kideen enbaxadek Batasunaren barruan zein kanpoan babes-eskaerak izapidetzeko aukera aztertzea. Izan ere, argi geratu da hankamotz geratu dela eskaera

horiek soilik gune beroetan eta Europako herrialdeetan egiteko aukera.

- Azpimarratzea komeni dela migrazio-fluxu kontrolatuak eta erregularrak izatea, bai globalizazioari errespetuzko erantzun bat emateko, bai Europara iriste aldera egun sortzen diren drama humanitarioak ekiditeko. Mugak ixteak berarekin dakartza muga horiei muzin eginez eta pertsonen etsipena baliatuz aberastu asmo duten pertsona-trafikatzaileak, eta, ondorioz, arriskuan jartzen dira pertsona askoren bizitzak.
- Adierazpena bera eta proposamenak jasotzen dituen dokumentua, bi-biak, Espainiako Arartekoari eta Europar Batasuneko Arartekoari helarazi zitzaizkien, Estatuaren Administrazioari eta Europako Batzordeari helaraz ziezazkieten, hurrenez hurren. Beren aldetik, autonomia-erkidegoetako Arartekoek konpromisoa hartu zuten dokumentu horiek biak nork bere eskumeneko autonomia-administrazioari helarazteko.

4.3.2. Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuaren egoera.

Administrazio hartzailea: Osasun Departamentua.

Arloa: Osasungintza.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Nafarroako Arartekoak komunikabideen bitartez jakin zuen Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuko langileek zerbitzu horren egoerari buruz egindako salaketaren berri. Langile publikoek komunikabideetan egindako adierazpenen artean, hauek nabarmendu behar dira:

- “Zerbitzuaren egoera larria”, “eraikin berria ireki zutenetik” bizi dutena, eta “konpondu ordez, egunetik egunera larriagotzen” ari dena.
- “Gaixoak pilatuta daude, leku falta dela eta; ohatila eta gurgildun aulki gutxiegi daude; beharren eta langileen aurreikuspen txarra egiten da”, eta “gure pazienteei zaintza-zerbitzu duin bat emateko oinarrizko beharrei erantzun ezinik gabiltza”.
- Salatzaileen arabera, zerbitzuaren arazoak ez ziren “urte-sasoiarekin edo gripearekin lotutako egoeren ondorio”; etengabeak ziren.
- “Aurreikuspen, baliabide eta antolaketa eza da arazoa”, eta horrez gain, “lan egiteko modua aldatu zaigu, inolako azalpenik eman gabe, zenbaitetan, eta, gehienetan, langileen irizpide orokorraren aurka”; “ez dituzte gure iradokizunak kontuan hartzen”.
- Langileek “lan-karga izugarria” dute, eta, egoera hobetzeko, “eskaera hauek egin zituzten: tamaina egokiko espazio bat, bai lana egiteko bai osasun-sistema publikoko gaixoei arreta egokia emateko; lan-baldintza duinak,

laneko osasuna zaintzeko eta langileek jasan ditzaketen lan-arriskuei aurre egiteko; lanerako material duina, egoera onean dagoena eta lana erraztuko duena; lantalde egonkor bat, zerbitzuaren kalitatea bermatuko duena; eta langileen beharren arabera etengabeko prestakuntza”.

Nafarroako Arartekoak Osasun kontseilariari eskatu zion adierazteko zer jarrera zuen planteatutako arazoaren aurrean, eta, beharrezkoa izanez gero, argitzeko zer neurri hartu behar ziren. Zehazki, eskatu zitzaion Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuan hautemandako arazo nagusiei buruzko informazioa emateko, eta adierazteko zer neurri hartzea aurreikusi zuten, herritarrei kalitate oneko zerbitzua bermatzeko eta, hala bazegokion, hobetzen saiatzeko.

Osasun-kontseilariak ere, hark emandako erantzunean, kezka agertu zuen Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuaren egoerari buruz, eta txosten mardul bat bidali zuen; txostenean, hain zuzen, Zerbitzuan zer arazo hauteman ziren zehazten zen, bai eta horiek konpontzeko zer neurri hartu zituzten ere.

Hona hemen txostenaren edukia:

“I.- EGOERAREN DIGNOSTIKOA

2006 eta 2007 urteetan, Nafarroako ospitale zaharreko larrialdietako eraikin berriko plan funtzionala egin zen; proiektua 2008. urtean amaitu zen. Urtebete geroago, proiektua berriro definitzea erabaki zen, Nafarroako Ospitaleko eta Virgen del Camino Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzea jasotzeko. Horrenbestez, hasierako proiektua eta eraikina ospitale bakarreko larrialdietako zerbitzuak emateko soilik aurreikusi zen arren, azkenean bi ospitaleetako larrialdietako zerbitzuak hartu zituen bertan.

Asistentzia-eremu berrien dimentsio bi ospitaleetako (Nafarroako Ospitalea eta Virgen del Camino Ospitalea)

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

	Nafarroako Ospitaleko larrialdietako zerbitzua	Virgen del camino Ospitaleko larrialdietako zerbitzua	Larrialdi-zerbitzu bateratura
Triaiea	Postu bat	2 postu	4 postu
	3 kontsultategi	Espezialitate-zerbitzu bat	7 kontsultategi
	Kontsultategi pribatu bat	Kirurgiako 2 kontsultategi	
A zirkuitua		Otorrinoaren kontsultategi bat	
		Traumatologiako 2 kontsultategi	
B zirkuitua	6 kontsultategi	3 kontsultategi	8 kontsultategi
	Oftalmologiako eta otorrinolaringologiako kontsultategi bat	Kontsulta bizkorreko gela bat	Psikiatriako 2 kontsultategi
Kontsulta bereziak			Kirurgiako 4 kontsultategi
			Isolamenduko kontsultategi bat
			Kontsultategi pribatu bat
Suspertzea	2 postu	2 postu	6 postu
Behaketa	10 postu	8 postu	18 box

bi unitateetako espazioen batura zen, nahiz eta egitura berriak espazioa hirukoizten zuen.

Alderdi negatibo modura, kokapena nabarmendu behar da, Zainketa Intentsiboen Unitatetik (ZIU), ebakuntza-geletatik eta ospitaleratze-gunetik urrun baitago, eta, beraz, beharrezkoa baita lur azpian tunel-sare bat egitea; horrek, noski, desplazamendu-denborak luzatzea dakar. Bestalde, 'Adona' elkartearen etxeak sarrerara arteko zirkulazioa baldintzatzen du.

Zerbitzua ireki aurreko baldintzak gakoak izan dira zerbitzuaren bilakaeran. Irekieran, alderdi garrantzitsuenak hauek izan ziren: bi unitateek bat egitean, bi lan-kultura desberdin elkartzearen ondorioz sorturiko lan-gatazka, lekualdatu aurreko prestatze- eta plangintza-aldian formaziorako laguntzarik ez ematea eta konpromisorik ez agertzea adierazten duena; zerbitzu bateratuari buruz argitaratutako plan funtzionalaren ezagutza falta; lekualdatze gehiago zekartzan egitura

berrira egokitzeko beharra; eta hasierako plangintzan izan zitezkeen akatsak.

Larrialdietako unitate berria abian jartzeko, urrats hauek egin ziren, besteak beste: plan funtzionala egin, elementu eta txanda bakoitzerako esleitutako postuen kokaleku bakoitzean zer jarduera egin behar ziren deskribatu, ekipamenduen eta horniduren banaketa planifikatu, eta asistentzia-zirkuituak, triajearen funtzioak eta mediku koordinatzailearen funtzioak argi eta garbi zehaztu.

Giza baliabideen kopurua eta txanden aldaketa ere desadostasun-iturri garrantzitsuak izan dira. Bi unitateetako langileak batuz osatu zen lantaldea, eta langileak egitura berrira txertatu eta egokitu dira, bertako presentziak aldatuta; horretarako, 6 erizain gehitu dira plantillara, bai eta txanden berrantolaketaren ondorioz sorturiko postuak ere. Erizaintzako zaintza osagarrien teknikariei dagokienez, 5 teknikari gehitu dira, txandakako sistemako txandak beharren arabera egokitu dira, eta, zeladoreei dagokienez, erradiologiako eta

ordenagailu bidezko tomografia axialeko zeladorekopurua handitu da. Lekualdatzeak eta asistentzia-kargaren arabera egokitutako presentziak aztertu ondoren, berriro antolatu dira kokalekuak eta kokaleku bakoitzera esleitutako langileak.

2015eko urritik, Larrialdietako Zerbitzua hobetzeko plan bat egiten hasi ziren, zerbitzuko langileek egindako askotariko kexen arabera.

Hobekuntza Planaren planteamendua egiteko, diziplina anitzeko lantaldek sortu ziren, estamentu guztietako ordezkariek (medikuak, erizainak, erizaintzako zaintza osagarrien teknikariak, zeladoreak, eta harrera-zerbitzuaren mendeko administrazio-laguntzaileak); horiez gain, zerbitzu-buruek eta medikuntza-ataleko buruek, erizaintzako unitateko buruek, arloko buruek, medikuntzako azpizuzendaritzak eta zainketa-unitateko azpizuzendaritzak ere parte hartu zuten. Lantaldeak helburu espezifiko hauek bete behar zituen:

- 1 Hainbat eremu aztertzea: harrera eta itxarotea, triajea, suspertzea, A eta B zirkuituak, behaketa...
- 2 Funtzionamendu orokorra eta asistentzia-zerbitzuaren kalitatean eragiten duten beste baldintzak aztertzea.
- 3 Gaixoei ematen zaien arretaren kalitatea ezagutzeko eta arreta hori hobetzeko beharrezko diren baliabideak ezartzea.

Profesionalek lantaldearen bidez hartu zuten parte; zehazki, 31 profesional aritu ziren horretan. 22 bilkura egin zituzten urritik otsailera bitartean.

Lan horren emaitzatzat, dokumentu bat osatu zuten, eta bertan jaso zen zer arazo hauteman zituzten, taldeak zer proposamen aurkeztu zituen, eta proposamen bakoitzarekin lotuta zer ekintza eta gomendio egin ziren. Lehen fasea amaitzean, Zerbitzuko langileek berrikusi zituzten lantaldeak egindako proposamenak, eta zenbait aldaketa txertatu zituzten. Hala, zer ekintza egin behar diren eta zer eskaera egin diren jasotzen dituen

dokumentua osatu zen. Dokumentu hori Nafarroako Ospitale Guneko eta Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuko gerentziari aurkeztu zitzaion.

Egindako lanari esker, egoeraren diagnosi bat egin ahal izan zen, eta, adierazi bezala, diagnostiko horretan daude zerrendatuta hautemandako arazo nagusiak; hauek, hain zuzen:

- Gaixoei zuzenean eragiten dieten arazoak:
 - Arreta-denborak.
 - Ebazte-denborak.
 - Familientzako informazio-gunerik eza.
 - Zenbait espazioren egokitzapen falta.
- Arazo guztiz teknikoak:
 - Eraginkortasun falta zenbait eremutako antolaketa dagokionez (suspertzea, erabilera anitzeko gela, behaketa eta B zirkuitua).
 - Tamaina txikiagia duen erabilera anitzeko eremua; arratsaldeko txandan, bereziki.
 - Erizaintzaren kontrolik eza erabilera anitzeko eremuan, ez baitago eremu hori koordinatzeko inor.
 - Erreferentziazko gunerik ez barne-deietarako.
 - Eraginkortasun falta kirurgiako kontsultategietan, espezialisten eskaerei erantzuteko.
 - Dinamizazio eskasa denboraren mendeko patologien kudeaketarako.
- Langileak:
 - Gabezia errefortzurako langileei dagokienez.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

II.- NAFARROAKO OSPITALE GUNEKO LARRIALDIETAKO ZERBITZUAN HARTUTAKO NEURRIAK

Egoeraren diagnosis egin ondoren, zer neurri ezar zitezkeen aztertu zen, hiru ardatz hauen inguruan hobekuntzak egiteko: antolakuntza-baliabideak, baliabide materialak eta inbertsioak, eta baliabide pertsonalak. Hurrengo lerroetan, neurri horiek zer mailatan gauzatu diren zehaztu da.

- **Antolakuntzari dagokionez** (asistentzia emateko langileen funtzioak eta kokapena berrantolatzea, baliabideak ahalik gehien optimizatzeko):
 - Lantalde egonkor bat sortzea, jarraipena egiteko (amaituta).
 - Gaueko ordutegian, bi zirkuituak (A eta B) zentralizatzeko irizpideak zehaztea (amaituta).
 - Triaje-prozeduraren bitartez gaixoak esleitzeko irizpideak zehaztea (prozesu dinamikoa).
 - Prozedurak berrikustea: triajea, maskuriko zundak, zunda nasogastrikoak eta gastrostomiak aldatzea, SOS aurreabisuak, etab. (prozesu dinamikoa).
 - Bosgarren triaje-gune bat irekitzea, denborak luzatzen direnean edo prozedura horren zain dauden pertsonak ugaritzen direnean (amaituta).
 - Mediku koordinatzailearen funtzioak berriro definitzea (amaituta).
 - SOS larrialdiekin koordinatzea (prozesu dinamikoa).
 - Ospitaleetako arduradunekin koordinatzea, eta eskualdeko ospitaleetatik gaixoak lekualdatzeko prozedurak zehaztea (hasita).
- Segurtasun-langileak ugaritzea: goizeko eta arratsaldeko txandetan zinpeko beste guardia bat jartzea (orain dagoen guardia bakarrari gehituta), eta asteburuetan foru-polizia bertan egotea bermatzea (amaituta).
- Zeladoreen funtzioak berrikustea eta berriro definitzea (amaituta).
- Botikinari eta farmaziari dagokionez, eremu bakoitzeko printzipioen zerrenda berrikustea eta eguneratzea; suspertze-, azterketa- eta behaketa-eremuetan, ospitaleko farmazia-zerbitzuarekin stock-ituna egitea, eta azterketa-eremuan botikinak non dauden zehaztea; eta, eremu horretan bertan, LEAN metodologia txertatzea (2017ko otsaila).
- Kontsultategietako stocka berrantolatzea (amaituta).
- Espezialistei dagokienez, asistentzia-zirkuituak berriro definitzea (amaituta).
- Ospitaleko oheak optimizatzeko lantalde bat sortzea (prozesuan).
- Suspertze-eremuan, materiala berrantolatzea, farmazia, laguntza-orgak eta horiek kokatzeko gune estrategikoak zehaztea (amaituta).
- Behaketa-eremuan, erizaintzako lantalde egonkor bat jartzea (amaituta).
- B zirkuituan, 2. mailako lehentasuna duten gaixoei arreta ematekoan, suspertze-jardueretarako boxa indartzea (erizaintza-eremuan osatzen da).
- Erizaintzako kontrolgunea erabilera anitzeko eremura gerturatzea (amaituta).
- Hainbat gairi buruzko prestakuntza ematea: suspertze-eremuan egoera kritikoan dauden

gaixoen arreta, monitorizazioa, teknika eta prozedura ohikoenak, triaje-prozedurarako prestakuntza, aireztapen mekaniko ez-inbasorea, etab. (2017).

- Gertakizunen plan bat egitea, jende gehien ibiltzen den aldiatarako, hala nola gripearen denboraldirako eta San Fermin jaietarako (amaituta).
- Hainbat prozedura eta protokolo idaztea eta eguneratzea, gaixoen kudeaketa errazteko. (Iktusaren, PCRaren eta infartuaren kodeak amaituta, eta traumatismoari eta septizemiari dagozkionak, prozesuan).
- "Barne-medikuntzako egoiliarrentzako larrialdietako zerbitzuari buruzko harrera-eskuliburua" egitea, 183/2008 EDn jasotako ikuskapen-, erantzukizun- eta antolaketa-betebeharrei erantzunez, Zentroko Irakaskuntza Batzordeak onartua (amaituta).
- Berrantolaketaren lehen atal honetan, momentuz ez da aintzat hartu errezel bidezko sistemaren lan-pilotatzea 2. eta 3. mailako lehentasuna duten kasuetarako.
- Baliabide materialei dagokienez

Lehenbizi, azterketa-eremuari dagokionez, neurri hauek hartu dira:

- Triage-prozedurarako eremuan, higigarrien antolamendua aldatzea (hasita).
- Suspertze-eremuan, 1. eta 4. postuak kanpotik ez ikusteko moduan antolatzea, errezelen sistema baten edo antzekoaren bidez (amaituta).
- Seinaleztapen horizontala jartzea, gaixoak eta familiarrak leku batetik bestera errazago mugi daitezen (osatzeko).

- Kontsultategietako idazmahaietan, erasoen berri emateko alarma-sistema bat jartzea (2017ko aurrekontuetan jasoa).
- B zirkuiturako eta erabilera anitzeko gelarako botikin zentralizatu bat diseinatzea (2016ko lehiaketa publikoa ebatzi zain).
- Gaixoak irrati-frekuentzia bidez aurkitzeko sistema ezartzea (aztertzen).
- Azkenik, atal honekin amaitzeko, adierazi behar da atzera bota dela suspertzeko boxeko itxarongela ixteko eskaera.

Bigarrenik, behaketa-eremuari dagokionez:

- Banagailu automatikoa erostea, eta egungo kontrol-sistema egokitzea (2016ko lehiaketa publikoa ebatzteke dago).
- Behaketa-eremua handitzeko proiektua (aztertzen).
- Boxen ateetako biniloak aldatzea (hasita).
- *Hirugarrenik*, medikuntzako ekipamenduari dagokionez:
- 10 gurpildun aulki eskuratzea (amaituta).
- 12 ohatila erostea (2016ko lehiaketa publikotik ebatzteke dago).
- Botikak banatzeko gailu automatikoa eskuratzea behaketa-eremurako, eta azterketa-eremuan, bi kutxatilako sistema metodologikoa ezartzea (2016ko lehiaketa publikotik ebatzteke dago).
- Elektrokardiogramak egiteko 2 gailu, bizi-konstanteen 4 monitore eta X izpien ekipo eramangarri bat erostea (2017ko otsaila).

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

- *Atal honetan, 208.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusi da. Adierazi behar da ekipamendu hori guztia erostea –gurpildun aulkiak salbu– atzeratu egin dela, lehiaketa publikoen garapenerako araudi espezifikoarekin lotutako administrazio-prozedurak direla eta.*
- *Eta azkenik, beste neurri hauek ere gauzatu ari dira:*
- *Familiatzako informazio-gune bat jartzea, astelehenetik ostiralera, eta goizeko nahiz arratsaldeko ordutegian (amaituta).*
- *Asistentzia-eremuan, familiei lagun egiteko sistema eta metodologia bat ezartzea (hasita).*
- *Larrialdietako Zerbitzuan, segurtasuneko bigarren pertsona bat jartzea.*
- *Asteburuetan, Larrialdietako Zerbitzuan foruzaingoaren presentzia bermatzea.*
- *Langileei dagokienez:*
 - *Larrialdietako Zerbitzuko plantilla indartzea, beste 11 profesional jarrita: 2 mediku ondoko, 3 erizain, 2 erizaintzako laguntzaile, 2 zeladore eta informazio-gune berrian harrera egiteko 2 langile. Zerbitzua indartzeko, Nafarroako Ospitale Guneko langileen barne-berrantolaketa bat egin zen, batetik, eta, bestetik, kontratazio berriak egin ziren.*
- *Erizaintzako zaintza osagarrien bi teknikari, gaueko txandarako (bata, behaketa-eremuan, eta, bestea, azterketa-eremuan).*
- *Erizain bat, suspertze-eremuan aritzeko, astelehenetik igandera goizez eta arratsaldez.*
- *Erizain bat, kirurgiako kontsultetan aritzeko, astelehenetik igandera eta arratsaldeko txandan.*
- *Zeladore bat, 09:40tik 17:00etara, X izpien eremuan aritzeko; horrela, aurrez zegoen lanaldi partzialeko postua ordezkatu da.*
- *Bigarren zeladore bat, 17:00etatik 00:20ra arteko txandan, B zirkuituan aritzeko.*
- *Atzera bota da B zirkuituan laugarren medikuntalde iraunkor bat izateko proposamena; dena den, jarduera handiko aldietan (gripea...) talde hori izatea aurreikusi da.*

Lantaldea indartzeko egindako ahaleginak 432.000 eurotik gorako gastu gehigarria eragingo du 2017. urte honetan.

Une honetan, hauek osatzen dute Larrialdietako Zerbitzua: 43 mediku, 101 erizain, erizaintzako zaintza osagarrien 62 teknikari, eta 62 zeladore.

Giza baliabideekin lotutako neurriak 2016ko ekainean ezarri ziren.

III.- MONITORIZAZIOA

Edozein proiektutan bezala, beharrezkoa da emaitzak ebaluatzea eta monitorizatzea. Hori dela eta, lantaldearekin hartutako konpromisoetako bat izan zen egoeraren jarraipena egitea, eta onartutako neurriak zer neurritan ezarri ziren eta zer egoeratan zeuden ikustea; jarraipen hori, hain zuzen, 2016ko urtarrileko azken astean egin zen.

Lantaldea indartzean, berrikuntza hauek izan dira:

- *Mediku bat gehiago, fisikoki bertan dagoena, larunbat eta igandeetan B zirkuitua indartzeko (08:00etatik 22:00etara).*
- *Ondoko mediku bat, fisikoki bertan dagoena, A zirkuituan lanegunetako arratsaldeak estaltzeko (15:00etatik 22:00etara).*

Hobekuntza-neurri asko ezarri zituztenetik denbora bat pasatu ondoren, emaitzak monitorizatu dira. Neurri horien guztien helburu nagusia zen 2. mailako lehenetako pazienteak (paziente larriak) gutxitzea, haiek artatzeko zehaztutako denbora optimoa (15 minutu) baino gehiago pasatzen baitzuten medikuek haiekin.

Azterketa zehatzagoa egiteko, hiru arlo bereizi dira; arlo bakoitzean, hainbat alderdi hartzen dira kontuan, eta erantzukizunen eta eskumenen banaketa desberdina da guztietan.

- *Sarrerak (input):* alderdi kulturek eta sozialek esku hartzen dute, bai eta osasun-arretarako baliabideak erabiltzeko aukerak, Lehen Arretaren funtzionamenduak, urte-sasoiek eta oporrek, eta beste zerbitzuak irekitzeko eta ixteak ere.
- *Barne-funtzionamendua:* alderdi funtzionalak, antolakuntzakoak, plantillaren egokitasuna, eta Zerbitzuari dagozkion espazioak.
- *Irteerak (output):* batez besteko artatze-denborak, ospitaleratzeen bizkortasuna, etxeko ospitaleratzeak, osasun-garraioa...

Monitorizazioa gauzatzeko, beharrezkoa da unitateko asistentzia-jarduera dinamikoaren eta aldakorraren datuak jakitea.

2016an, % 4,2 hazi ziren larrialdi-kasuak 2011-2015 aldiko batez bestekoarekin alderatuta. Azterketa konplexua izan daiteke, egoeraren aldakortasuna eta aldakortasun hori eragiten duten kausen azterketa tarteko. Batzuk aurreikusi egin daitezke, hala nola urte-sasoiko gertaerak eta San Fermin jaiak, baina beste batzuk ez, eguneroko aldakortasuna, adibidez. 2016an, egunean 406 paziente artatu ziren, gehienez, eta 233 paziente, gutxienez.

Oraindik goizegi da 2017ko datuak aztertzeko, eta ikusi egin behar da zer bilakaera izaten duten; hala ere,

urtarrilean eta otsailean, eta gripearen urte-sasoiko epidemiarekin bat etorriz, datu historikoetara iritsi dira datu orokorrak.

Antolakuntzari dagokionez, beste alderdi garrantzitsu bat eguneko larrialdiekin eta egunean zehar izaten duten banaketarekin dago lotuta, hori kontuan hartuta zehaztuko baitira gai hauek: zirkuituak, puntu garrantzitsuak eta ahulak, paziente gehien izaten diren ordutegiak eta zerbitzuan denbora gehien igarotzen dutenak. Izan ere, lehenetako-mota bakoitzak bere denbora behar du arazoa konpontzeko, oso desberdina, eta zerbitzuan egoteko beharra ere desberdina da oso .

Paziente bat larrialdi-zerbitzura iristen denean, triaje-eremuan aztertzen dute, eta, bertan, bere patologiarekin arabera eta hura artatzeak duen larrialdiaren arabera sailkatzen da.

Bost lehenetako-maila ezartzen dira, Larrialdi eta Emergentsietako Medikuntzako Espainiako Elkarteak (SEMES) zehaztuak.

1. mailako lehenetako: egoera kritikoan dauden pazienteak, berehalako arreta behar dutenak.
2. mailako lehenetako: paziente larriak edo kaltetunak, 15 minuturen barruan arreta medikoa jaso behar dutenak.
3. mailako lehenetako: paziente ez hain larriak, 60 minuturen barruan arreta medikoa jaso behar dutenak.
4. mailako lehenetako: paziente arinak, 120 minuturen barruan arreta medikoa jaso behar dutenak.
5. mailako lehenetako: urgentsiarik ez duten pazienteak, 240 minuturen barruan arreta medikoa jaso behar dutenak.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

4. eta 5. mailako lehentasunak prozesu arinak eta urgentziarik gabeak dituzten pazienteei dagozkie; kasu horiek beste asistentzia-maila batzuetan artatu daitezke (ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuetan, osasun-zentroetan...).

2015eko irailean, urrian, azaroan eta abenduan, 2. mailako lehentasuna zuten 4.782 kasu artatu zituzten Nafarroako Ospitale Guneako Larrialdietako Zerbitzuan; paziente bakoitzarekin, 13,67 minutu pasatu zituzten, batez beste. Bestalde, asteburuetan, 13,61 minutu pasatu zituzten, batez beste, 2. mailako lehentasuneko pazienteekin.

2016ko aldi berean, 2. mailako lehentasuneko arretakasuk % 11,8 egin zuten gora, hau da, aurreko urtean baino 531 kasu gehiago artatu ziren 2. lehentasun-maila horretan; hala, 5.346 kasu izan ziren guztira. Igoera hori biztanleriaren zahartzeak eta kronikotasunak eragin dute, besteak beste.

Baina igoera handia izan arren, 2. mailako lehentasuneko pazienteen (paziente larrien) batez besteko itxarote-denbora gutxitu egin da; astegunean, 13,47 minutukoa izan da, batez beste, eta asteburuetan, 13,38 minutukoa. Denbora gutxitze hori, hain zuzen, larunbat eta jaiegunetan B zirkuituan mediku ondoko bat jarri izanari egotz dakiok, bai eta bertako langileen birbanatzean oinarrituz hartutako berrantolatze-neurriei ere; horrez gain, langile egonkorak jarri dira suspertze-eremuan, eta erizainak egonkortsu, B zirkuituan.

Hauxe da Departamentuaren helburu nagusia, lehen aipaturiko neurrien bidez lortu nahi dena: zehaztutako artatze-denbora (15 minutu) baino denbora luzeagoan hartzen diren 2. mailako lehentasuneko pazienteen ehunekoa txikitzea. Ikus daitekeen bezala, ehunekoa jaisten ari da 2015ekoarekin alderatuta, aldi horretan 2. mailako lehentasuneko jarduera ia % 12 igo arren.

2015eko aldi horretan, 15 minutu baino gehiago pasatu zuten 2. mailako lehentasuneko pazienteen % 33,1ekin; 2016an, berriz, ehuneko hori jaitsi egin zen (% 31,5),

artatutako pazienteen kopuruan ia % 12ko igoera izan arren.

Bereziki garrantzitsua da 2016ko abenduko % 30,5 hori 2015eko aldi bereko % 33,8rekin alderatuta, kontuan izan behar baita 2016an gripe-epidemia aurreratu egin zela eta, batez ere, adineko pertsonen eragin zela; adineko pertsona horiek, gainera, ospitaleratu egin behar izan zituzten.

Finean, larrialdietako zerbitzuaren eskaerak gora egin arren, 2. mailako lehentasuneko geroz eta paziente gehiago artatzen dira horretarako zehaztutako denboraren barruan.

Aurrez aipatutako neurriei esker, beste zenbait aurrerapen interesgarri egin ahal izan dira, hauek, adibidez:

- 183/2008 Errege Dekretuaren 15. artikulua betetzea, gainbegiratzeko betebeharrak orokorrari eta egoiliarren pixkanaka, erantzukizunak hartzen joateari buruzkoa. Artikulu horretan, honela dio:

“Lehen urteko egoiliarren jarduna aurrez aurre gainbegiratu da; gainbegiratze hori, hain zuzen, prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarren txandakatzeko diren edo etengabeko arretako zerbitzuak (guardiak) ematen dituzten zentroko edo unitateko hainbat egituratan lan egiten duten profesionalen esku egongo da. Espezialista horiek idatziz emango diote oniritzia lehen urteko egoiliarrek egiten dituzten alta-emateei, baja-emateei eta bestelako asistentzia-jardueren gaineko dokumentuei”.

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko txandan, mediku ondoko bat jarri da zerbitzua indartzeko, orduan garatzen baitute beren zerbitzua R1-ek; hain zuzen, horri esker lortu da helburua betetzea. Aldi honetan, Barne-medikuntzako egoiliarrentzako larrialdietako zerbitzuari buruzko harrera-eskuliburu bat egin zen. Dokumentu hori egoiliarren antolaketa, ikuskapena eta erantzukizuna kudeatzeko marko orokor baten baitan

egin zen, lankidetzako, parte hartzeko eta etenik gabeko lan dinamiko baten bitartez, gure bezeroei kalitatezko arreta segurua ematea xede hartuta.

- Era berean, nabarmendu behar da, 2015eko bigarren seihilekoan, Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuan egindako txostenen % 42,9 mediku ondokoek egin zituztela; % 27,1, maila goreneko egoiliarrek; eta % 30, R-1ek (1. mailako egoiliarrek). 2016ko aldi berean, mediku ondokoek txostenen % 48,8 egin zituzten; maila goreneko egoiliarrek, txostenen % 28,2; eta R-1ek, txostenen % 23.
- Beste aurrerapen bat ere izan da; hau da, % 80 murriztu dira B zirkuituko erizainen lekualdatzeak suspertze-eremura, gune horretan erizaintzako langile espezifikokoak jarri baitira. Horrela, arinago bideratu dira pazienteak erabilera anitzeko eremura.
- Horrez gain, beste aurrerapen bat nabarmendu behar da, oraindik kualifi-kaezina izan arren; hau da, erreferentziazko langile espezifikokoak esleitu dira kirurgiako eremuan. Gune horretan, hain zuzen, 3 kontsultategi daude, A eta B zirkuituetarako, eta, egunean, 45 paziente inguru artatzen dituzte. Bi zirkuituetako pazienteak dira. Eremu horretan arreta ematen zaien pazienteen aniztasuna eta mendekotasun-maila aldagarria aintzat harturik, konplexua da horien jarraipena egitea; horregatik, bertako pazienteen beharrei erantzuteko, erreferentziazko langile espezifikokoak (erizainak, erizaintzako zaintza osagarrien teknikariak eta zeladoreak) jarri dira eremu horretan.

IV - BILAKAERA

Ondorengo histograman, larrialdietako zerbitzuak bateratu zirenetik, zerbitzu berrian zer-nolako arreta

ematen den adierazi da. Batez beste, 311 pertsona artatzen dira.

Zehazki, arreta-kopuru handieneko egunean, 406 paziente artatu ziren, eta arreta-kopuru gutxieneko egunean, 233 paziente. Zerbitzu bateratua abian jarri zenetik (2014ko urria), hiru egunetan soilik gainditu da 400 laguneko zifra; aldiz, 269 egunetan artatu dira 300 lagun baino gutxiago.

Betalde, zehaztu behar da Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzura joaten diren paziente guztien % 90 bertako mediku profesionalak artatzen dituztela; gainerako % 10a, Oftalmologia, Psikiatria, Kirurgia eta Traumatologiako zerbitzuetako profesionalengan bideratzen da.

Hau da, larrialdi-zerbitzuetako ohiko egun batean, larrialdietako medikuek 288 paziente artatuko lituzkete, eta gainerako 32 pazienteak, beste espezialitate batzuetako medikuen esku geratuko lirake.

Bada kontuan hartu beharreko beste gai bat ere. Artatutako pertsona-kopurua deigarriena izan daitekeen arren, ez da erabakigarriena; hau da, askoz ere garrantzi handiagoa du artatutako pertsonen lehentasun-mailaren ehunekoak, bai eta ospitaleratze-kopuruak ere.

Esate baterako, orain gutxi, Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuan, bi egoera horiek izan dira, gripe-epidemia bete-betean.

Astelehen batean, 403 pertsona artatu zituzten guztira. Astelehenetan, larrialdietako zerbitzua indartu egiten da gainerako lanegunekin (asteartetik ostiralera) alderatuta (asistentzia handieneko hurrengo egunean baino % 7 handiagoa izaten da artatutako pazienteen kopurua egun horretan); horrez gain, neguan, gripea dela-eta, aparteko errefortzua jartzen da zerbitzuan. Egun jakin horretan, lehentasun-maila bakoitzean emandako arretaren ehuneko hauek izan ziren: 1. lehentasun-mailan, % 2; 2. lehentasun-mailan, % 15,7; 3. lehentasun-mailan, % 47,5; 4. lehentasun-mailan, % 32,6; eta, azkenik, 5. lehentasun-mailan, % 2,2. Ikus

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

daitekeenez, 4. eta 5. lehen-tasun-mailetakozko pazienteen batura ia % 35koa izan zen. Zifra hori bat dator egun horretako ospitaleratze-kopuruarekin; 51 pertsona baino ez ziren ospitaleratu, artatutako pazienteen % 12.

Bigarren adibide batean, gripe-sasoi berean, 257 pertsonari eman zitzaizkien arreta. 257 pertsona horietatik, % 1,2 1. lehen-tasun-mailakoak ziren; % 19,1, 2. lehen-tasun-mailakoak; % 52, 3. lehen-tasun-mailakoak; % 24,6, 4. lehen-tasun-mailakoak; eta % 3,1, 5. lehen-tasun-mailakoak. Ikus daitekeen modura, 4. eta 5. lehen-tasun-mailen batura % 27 da, aurreko adibideko egunean baino dezente txikiagoa. Bigarren egun horretan, 71 pertsona ospitaleratu zituzten guztira; beraz, artatutako pertsona guztien % 25,6 ospitaleratu zituzten. Egun horretan, zailtasun handiagoak izan ziren larrialdi-zerbitzuetan, eta Nafarroako Ospitale Guneko zerbitzuek ahalegin handiagoa egin behar izan zuten, bai ospitaleratu zituzten pazienteei ohea emateko, bai arreta-denbora eta -baldintzak egokitzeko; azken batean, lan handiagoa izan zuten aurrez aipatu den output-ean.

V.- NAFARROAKO OSPITALE GUNEAREN NEURRIAK

Dokumentu honetan adierazi bezala, larrialdi-zerbitzua zerbitzu dinamikoa da; etengabe aztertu behar da, horren jarraipena egin, eta antolakuntza modu dinamikoan egokitu behar da. Dinamismo horren abiapuntua langileen euren malgutasuna da; izan ere, beren lanaldian, errealitatean egokitu behar dute etengabe.

Horregatik, Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuan hobekuntzak eginez jarraituko da; besteak beste, hobekuntza hauek egingo dira:

- B zirkuituan -paziente larrienei arreta ematekoan- erabilera anitzeko gelaren edukiera handitzea; hobekuntza hori askotan eskatu izan da, eta garrantzi handia du. Egun, asistentziarako eta itxaroadirako 30 postu daude bertan, baina zenbait unetan ez da nahikoa izaten; horrenbestez, 2017an, eremu hori eraberritzeko proiektu bat eskatuko da.

- Behaketa-eremuan dauden pazienteen senideei informazioa emateko bulego bat egokitzea, bai eta mediku-lanak egiteko beste bulego bat ere.
- Lehen mailako arretako lantalde bat sortzea, larrialdietara bideratzeko irizpideak zehazteko.
- Nafarroako Ospitale Gunean alta goiztiarren plan bat ezartzea.
- Etengabe arretari eta ospitaleratzei dagokienez, hobekuntzak egitea 2017an; horretarako, aurrez aurreko guardia-zerbitzuak jarriko dira orain arte horrelako zerbitzurik ematen ez zen zenbait espezialitatetan, hala nola digestioko eta onkologiako zerbitzuetan.
- Barne-medikuntza indartzea (jada egin da); horri esker, gehiago erabili da etxeko ospitaleratze-zerbitzua, eta hori funtsezkoa izan da hainbeste ospitaleratze eragin dituen gripe-epidemia honetan.

VI.- OSASUN DEPARTAMENTUAREN BESTE NEURRI BATZUK

1. PAZIENTEA AHALDUNTZEA

Aurrez zehaztutako neurri horiez guztiez gain, Osasun Departamentuak baditu beste lan-ildo batzuk ere, eta horiek ere larrialdietako zerbitzuen funtzionamenduan eragiten dute; besteak beste, paziente ahalduntzea aipatu behar da. Dakizuen bezala, hainbat azterketak adierazi dute paziente ahaldunduenek hobeto erabiltzen dituztela osasun-zerbitzuak. Horri dagokionez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Pazienteen Eskolaren eta hori indartzearen alde egiten du. Egun, egoera hauei buruzko hainbat hezkuntza-ekintza lantzen dituzte bertan: gaixotasun kronikoei aurre egiteko moduak, elikadura gaixotasun-egoeretan, gaixotasun baskularrak, demenzia-gaixota-

sunak dituzten gaixoen zaintzaileak, eta diabetesa. Aurten, biriketako gaixotasunak ere landuko dituzte. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi, hurrengo hilabeteetan, Helduentzako Eskola eta Gurasoen Hezkuntzarako Eskola martxan jarriko direla.

2. HEZKUNTZA

Herritarrak hezteko ekintza gehiago. Departamentuak osasun-zerbitzu publikoak modu eraginkorragoan erabiltzea sustatzeko kanpaina bat aurkeztu berri du. "Arazoa beti berbera ez bada... konponbidea ere ez" leloaren bitartez, eskura dauden baliabideak behar bezala erabiltzea sustatu nahi da, herritarrek ahalik eta arreta hoberena jaso dezaten eta osasun-sistemaren funtzionamendua ahalik bizkorrena eta eraginkorrena izan dadin; horrela, profesionalen nahiz erabiltzaileen gogobetetzea handitzea lortuko da.

Kanpaina horretan, herritarrek eskura dituzten osasun-alarreko bost asistentzia-mailak bereizi dira, pazientearen osasun-egoeraren eta larritasunaren arabera mailaz maila ordenatuta. Hala, aurrez aurreko asistentziarik gabeko mailei dagokienez, prebentziora eta autozaintzara bideratutako baliabideak planteatzen dira lehen mailan, eta online nahiz telefono bidezko arreta-zerbitzuak, bigarrenean. Hirugarren lekuan, osasun-zentroetan eta lehen mailako arretako kontsultategietan ematen den laguntza aipatzen da. Laugarrenean, ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuei egiten zaie erreferentzia, eta azken mailan, ospitaleko larrialdi-zerbitzuak biltzen dira. "Behar konkretu bakoitzerako konponbiderik onena" aukeratzea sustatu nahi da, eta, horretarako, mezu hau zabaltzen da: ahal den guztietan, hobe da lehen arretako sareko baliabideak erabiltzea, eta, horrela, ospitaleetako larrialdi-zerbitzuak kasu larrienak tratatzeko gordetzea.

Kanpainan, besteak beste, 60.000 informazio-liburuxka banatuko dira osasun-zentroetan, kontsultategietan eta ospitaletan; horrez gain, kartelak jarriko dira markesinetan, publizitatea egingo da komunikabideetan, mezuak zabalduko dira osasun-alarreko sare sozialetan,

eta perchinga egingo da Iruñerrian ibiltzen diren 140 autobusetan.

Baina hori ez da Osasun Departamentuak azken asteetan gizarte kontzientziatzeko bultzatu duen kanpaina bakarra. Duela hilabete pasatxo, komunikazio-kanpaina bat egin zen (2015ean egindakoaren eguneratze bat), herritarrak jabetu daitezen zein garrantzitsua den hitzorduetara azaltzea eta, joan ezin izanez gero, behar besteko aurrerapenez jakinaraztea, bai lehen mailako arretan bai espezialisten kasuan. Helburu hori lortu nahian, 40.000 informazio-liburuxka banatu dira osasun-sare osoan; liburuxka horietan, hitzorduak baliogabetzeko zer egin behar den zehaztu da, eta, horrez gain, telefono-gida eguneratu bat txertatu da, erabiltzaileek hitzorduak baliogabetzeko edo, agendak aukera ematen duenean, datak aldatzeko nora deitu behar duten jakin dezaten.

3. LEHEN MAILAKO ARRETA INDARTZEAK

Arreta espezializatuan bezala, lehen mailako arretan ere funtsezkoa da huts egindako hitzorduen hutsuneak ahalik ondoen aprobetxatzea. Agerikoa denez, lehen mailako arreta osasun-sistemaren zutabe nagusia da, eta, beraz, arreta-zerbitzu hori ongi dabilenean, gainerakoa ere ongi joaten da. Horregatik guztiagatik, 2016an, osasun-zentro hauetako lantaldeak indartu ziren: Buztintxuri, Mendillorri, Huarte, Orkoien, Zizur, Arrotxapea, Il Zabalgune, Iturrama, San Juan, Ermitagaña, Azpilagaña, Sarriguren, Noain, Berriozar, Irurtzun eta Barañain. Guztira, 8,5 familia-mediku, odontologo bat, 1,8 pediatra, 11,6 erizain, 6,8 haur-erizain, erizaintzako zaintza osagarrien teknikari bat lanaldi erdian, eta 2 administrari laguntzaile.

4. OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDI-ZERBITZUAK INDARTZEAK ETA ESPAZIOAK HANDITZEAK

Helduen arretarako San Martingo ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuak indartu dira astelehenetik ostiralera, arratsaldeko ordutegian; zehazki, beste mediku bat jarri da. Erizaintza-zerbitzua ere indartu egin da, Sar

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Martingo eta aldrietako zerbitzuetan dauden beharrei erantzuteko.

Aurten, Sar Martingo ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzurako erabiltzen den espazioa ere handituko da. Laster, espazio fisikoa berrantolatuko da, bai helduentzako gunean bai pediatriako gunean zerbitzu hobea emateko. Egokitzapen arkitektonikoak egiteko eta kontsultategiak ekipamenduz hornitzeko, 200.000 euro inguruko aurrekontua aurreikusi da.

VII.- ERREKLAMAZIOAK

2016an, Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako Zerbitzuan arreta eman zaien pertsonen kopuruak gora egin zuen arren, erreklamazioak gutxitu egin ziren. 2015ean, 285 erreklamazio jarri zituzten, eta 2016an, berriz, 248 erreklamazio egin zituzten”.

Departamentuak igorritako txostena aztertu zuen Nafarroako Arartekoak, eta ikusirik Osasun Departamentuak egoeraren diagnostikoa egin zuela eta egoera hura konpontzeko neurriak bultzatzen ari zela, bere jarduketak amaitutzat ematea erabaki zuen.

4.3.3. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 87. artikulua, ofizioz hasitako tributu-prozedurak iraungitzeari buruzkoa, aldatzea.

Administrazio hartzailea: Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.

Arloa: Ogasuna.

Jarduketa: Arazteko iradokizuna.

Erakunde honek herritar baten idatzia jaso zuen; idatzian salatzen zuenez, hiru urtez luzatu zen oinordetzaren gaineko zerga likidatzeko prozedura baten ebazpena. Hori dela eta, iraungitzeari aplikatu dakioken araudiari buruz interpelazioa egitera bultzatu zuen erakunde hau.

Nafarroako Arartekoaren iritziz, ofizioz hasitako administrazio-prozedurak epean ez ebazteari buruz Estatuko Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean jasotako arauak –prozedura iraungitzearen ondorioa ezartzen dutenak (administrazio-ekintzak behin-behinean irauteari eragin gabe)– berme handiagoa ematen diete herritarrei, eta adeitsuagoak dira haien eskubideekin –bereziki, administrazio egokia izateko eta, zehazki, ebazpena legez ezarritako epean lortzeko eskubidearekin, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko Legearen 7. artikuluan jasotzen dena–, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 87.4 artikuluan Nafarroako zergapekoentzat ezarritakoak baino.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 87. artikulua haxe ezartzen du zergakudeaketarako epeei dagokienez:

“1. Tributuei arloko kudeaketa prozedurei buruz ebazpena emateko sei hilabeteko epea egonen da, aplikatzekoa den araudiak beste epe bat jartzen ez badu. Prozeduran izaten diren atzerapenek, zerga-administrazioa bera errudun ez denean, eta foru-lege honetan aurreikusitakoarekin bat epean gertatzen diren etenaldiak ez dira sartuko ebazpena emateko epearen kontaktetan.

2. Parte baten eskariz irekitako prozeduretan ebazpena emateko epea organo eskudunak espreski diktatu gabe bukatzen bada, berariazko araudiak ezarritako ondorioak sortuko dira. Horretarako, tributu arloko kudeaketa prozedura orok araututa beharko du izan dagokion isiltasun administratiboaren araubidea.

3. Aurreko aurreikuspenetik bazterturik gelditzen da premiamenduzko prozedura, zeinaren ekintzak luzatzen ahal dira kobrantzako epea bukatzen den arte.

4. Tributu arloko kudeaketaren erregelamenduan adieraziko dira tramite bakoitzerako epeak.

Administrazioak epeak ez betetzeak ez du berekin ekarriko akzio administratiboaren iraungipena, baina subjektu pasiboek aukera izanen dute kexu bidez erreklamatzeko.

Kexu bidez ere erreklamaterik bada tramitazio akatsen kontra eta, bereziki, prozedura geldiaraztea edo gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik konpon daitezkeen tramiteak ez-egitea eragin dezaketen akatsen kontra.

Kexa kontuan hartzearen ondorioz, horretarako arrazoirik badago, diziplina espedientea irekiko zaio erantzukizuna duen funtzionarioari”.

Aipatutako 87.4 artikuluko horretako bigarren paragrafoan xedaturikoa bat dator abenduaren 28ko Tributuei buruzko 230/1963 Legean, 105.2 artikuluan, ezarritakoarekin (lege hori 2004ko uztailaren 1era arte egon zen indarrean). Zehazki, honela dio:

“Bat. Tributu arloko kudeaketaren erregelamenduan adieraziko dira tramite bakoitzerako epeak.

Bi. Administrazioak epeak ez betetzeak ez du berekin ekarriko akzio administratiboaren iraungipena, baina subjektu pasiboek aukera izanen dute kexu bidez erreklamatzeko”.

Nolanahi ere, lege hori aldatu ondoren, indarrean den Tributuei buruzko 58/2003 Lege Orokorrak, abenduaren 17koak, honela dio 104. artikuluko laugarren eta bosgarren paragrafoetan:

“4. Ofizioz abiarazitako prozeduretan, ezarritako gehieneko epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, tributuen aplikaziorako prozedura bakoitzaren araudian zehaztutako ondorioak izango dira.

Berariaz araututa ez dagoen kasuetan, ondorio hauek izango dira:

a) Eskubideak edo bakarkako beste egoera juridikoak aitortzea edota sortzea eratortzen bada prozeduratik, zergapekoek ezetsizat jo ahal izango dituzte, isiltasun administratiboz, prozeduratik erator litezkeen aldeko ondorioak

b) Prozedurek ondorio negatiboak edo zergapeztekoak eragin ditzaketenean, prozedura iraungi egingo da.

5. Prozedura iraungitzean, ofizioz edo interesdunak eskatuta deklaratu da iraungitze hori, eta jarduketak artxibatzekeo aginduko da.

Prozedura iraungitzeak ez du berez ekarriko zerga administrazioaren eskubideak preskribatzea, baina iraungitako prozeduretan egindako jarduketek ez dute etenik ekarriko preskripzio epean eta ez dira administrazio-errekerimenduztat hartuko lege honen 27. artikulua 1. paragrafoan jasotako ondorioetarako.

Iraungitako prozedura batean egindako jarduketek, bai eta prozedura horretan lortutako agiriek eta frogabideek ere, frogabiderako balioa eta eraginkortasuna gordeko dituzte hasitako edo geroago has daitezkeen beste prozedura batzuetan, zergapeko berari edo beste bati dagokionez”.

Horregatik, esan daiteke Tributuei buruzko Lege Orokor berriak administrazio-prozedura erkidearen erregimen orokorreko zehaztapenak hartzen dituela, lehen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, jasotzen zirenak (44. artikulua). Hala, Administrazioak prozedura ebazteko gehieneko epea betetzen ez badu, ofizioz hasitako prozedura bat izanik, eta ondorio kaltegarriak edo zergapeztekoak eragin ditzakeenez gero, prozedura iraungi egingo da, eta jarduketak artxibatu egingo dira; horrek ez du oztopatuko, hala badagokio, administrazio-

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

ekintza berriro hastea (eskubidea preskribatzearen ala ez preskribatzearen mende egongo da).

Ildo berean, indarrean dagoen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, honela dio 25. artikuluan:

“1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezkotik, eta hauek izango dira ondorioak:

a) Eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator daitezkeen prozeduretan, agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ditzakete beren uziak.

b) Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeko aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

2. Prozedura interesdunari inputa lekiokkeen arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, hasierara itzuliko da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa”.

Nafarroako Arartekoaren iritziz, zenbait kasutan, hala nola herritarrek adierazitako kasuan –ia hiru urte pasatu arren, oraindik likidazio-prozedura ebatzi gabe egotea–, administrazio-prozedurari jarraitzeko eta burutzeko aukera emateak esparru juridiko-administratiboan egun onartuta dauden arauak hausteak adierazten du, eta horrek gehiegizko desoreka eragin dezake, alderdi zehatz horri dagokionez, administrazio-ahalaren eta herritarrek hori gauzatzeko dituzten bermeen artean;

hain zuzen, bien arteko proportzio egokia da administrazio-zuzenbidearen ardatza.

Beste ikuspegi batetik, prozedura iraungitzeagatik “zigorrak” administrazio-prozeduren izapideak arintzea (behar-beharrezkoa dena) eta prozedura horiek epe barruan ebaztea bultzatzen dezake.

Hori ikusita, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamenduari gogoraraztea legezko betebeharrak duela zergakudeaketako prozeduren izapideak egiteko gehieneko epeak betetzeko, bai eta interesdunek egindako alegazioak ebazteko eta ebazpen horiek epe barruan jakinarazteko ere.

Era berean, egokitzen jo zuen Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamenduari iradokitzea Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorraren 87. artikulua aldatzea, eta, ofizioz hasitako prozedurei –herritarrei ondorio kaltegarriak edo zorrak sortzeko modukoak eragin ditzaketenei– dagokienez, legezko ebazpen-epea amaitzen den kasuetarako, prozedura iraungitzearen araua txertatzea, tributuiei buruzko estatuko legerian eta administrazio-prozedura erkidea arautzekoan jasota dagoena.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak, bere erantzunean, adierazi zuen Nafarroako Zerga Ogasunak, Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorrean estatuko legeri berrian jasota dauden eta zerga-jarduketarako eta -prozeduretarako interesgarriak izan daitezkeen zer eduki txertatu zitezkeen baloratzean, positiboki aztertu zuela prozedura iraungitzearen araua txertatzea ere, indarrean den estatuko legerian jasotzen den antzeko zehaztapenetan.

Kontseilariak emandako informazioa ikusirik, Nafarroako Arartekoak onartutzat hartu zuen berak egindako iradokizuna, eta jarduketara amaitutzat jo zuen.

4.3.4. Berriz alokatutako logeletan bizi diren familien egoera.

Administrazio hartzaileak: Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udala.

Arloa: Etxebizitza eta gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna.

Iruñeko Alde Zaharreko Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak (HKP) logeletan –oro har, berriz alokatutakoetan– bizi diren eta plataforma honek laguntza ematen dien pertsonak nahiz familiek zer egoera bizi duten azaldu zion Nafarroako Arartekoari. Familia horietako batzuek, gainera, seme-alaba adingabeak dituzte.

Plataforma horren ordezkariak azaldu zuten, pertsona eta familia horietako gehienek beren etxeak utzi behar izan dituzte, kaleratuak izan direlako, baina, aldi berean, haien hipoteka-maileguei dagozkien zorrak izaten jarraitzen dute. Horrenbestez, pertsona horiek, lehenbizi, beste etxe batzuk bilatu behar izan dituzte, beraiek eskuratzeko modukoak direnak, eta, gero, merkatuan horrelakorik ezin aurkituta, alokatutako edo berriz alokatutako logeletan bizitzen jarri dira.

Kontatutakoaren arabera, familia osoak daude logeletan bizitzen, baldintza lotsagarrietan; egoera horiek, gainera, bereziki gaitzak eta kaltegarriak dira adingabeentzat, ondorio larriak izan baititzakete bai maila emozionalean bai beren garapen pertsonalean. Adierazi zuten, etxebizitzaren babeserako sistema publikoaren eskasiak bultzatu ditu familia horiek egoera horretara, ezin izan baitute babestutako etxebizitzarik lortu, ez eta bestelakorik ere behar besteko laguntzekin.

Horrez gain, azaldu zuten hainbat pertsona logela berean bizitzean bizikidetzaren arazo larriak sor daitezkeela (egoiliarren arteko gatazkak, gaizki onartzen diren trabak, haurren zaratak eragindakoak

zenbaitetan), bai eta beldurrezko eta indarkeriazko egoerak, tratu txarrak edota abusuak ere.

HKPko ordezkariak gaineratu zuten, pertsona horiek, askotan gizarte-bazterketako adierazle larriak izatean, arazoak izaten dituzte zenbaitetan gizarte-laguntzak jasotzeko (bereziki, bermatutako errenta, baina baita bestelako laguntzak ere, hala nola gizarte-larrialdiko laguntzak). Horregatik, bizi duten muturreko prekaritate-egoera larriagotu egin daiteke oinarrizko laguntzak, bizirauteko funtsekoak direnak, eskatzeko gehiegizko burokratizazioa eta laguntza horiek jasotzeko izaten den atzerapena direla eta. Besteak beste, arazo hauek aipatu zituzten: auzoko unitateetan edo oinarrizko gizarte-zerbitzuetan hitzorduak atzeratzea; espedienteak bi instantzian (Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuan eta Eskubide Sozialetako Departamentuan) berrikustea, eta, horren ondorioz, laguntza atzeratzea; eta laguntzak ondoz ondo berritzeko izapideak egin behar izatea eta, zenbaitetan, atzerapenak sortzea. Horrelakoetan, izapidetze-arrazoak direla eta, kobrantza eten egiten da denbora-tarte batean. Deskribatutako egoera horien guztien ondorioz, arriskuan jartzen da kaltetuek bizi diren etxeetan, edota logeletan, jarraitu ahal izatea, behin ez ordaintzea nahikoa izan baitaiteke bertatik botatzeko; horrelakoetan, gainera, baliteke baliabiderik ez izatea egoera horri aurre egiteko.

Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udalera jotzea, aipatutako plataformak azaldukoari buruzko informazioa eman zezaten.

Udalak eta Departamentuak txosten bana aurkeztu zuten. Egoeraren berri izan eta horri buruzko informazioa jaso ondoren, Nafarroako Arartekoak gogoeta hauek bidali zizkien bi administrazioei:

Iruñeko Alde Zaharreko Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak planteatutako arazoak agerian uzten du, askotan, seme-alabak dituzten familiek logela bikoitz bat alokatu behar izaten dutela eta bertan egiten dutela beren eguneroko bizimodua. Hau da, logela horretan

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

egiten du lo familia osoak, bertan garbitzen eta lehortzen dute erabiltzen duten arropa, bertan prestatzen dute janaria, bertan gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen, bertan egiten dituzte hurrek etxeko lanak... Finean, familia horien bizi-baldintzak ez datoz bat herritar orok etxebizitza duin eta egoki bat izateko duen eskubidearekin.

Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasotzen da espainiar guztiek dutela etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, eta, aldi berean, botere publikoei ezartzen die eskubide hori eragingarria izan dadin beharrezkoak diren baliabideak jartzeko betebeharra.

Nafarroako Foru Komunitateak (Foru Araubidea berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.1 artikuluan ezarritakoa betez, etxebizitza-gaiaren eskumen osoa izanik) etxebizitza duin eta egoki bat izateko Konstituzioan aitortzen den eskubidea bermatzen laguntzen du, araudi hauen bitartez: indarrean den 10/2010 Foru Legea, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan Etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa –ofiziozko jarduketa honen xedeari dagokionez, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxienezko baldintzak arautzen dituenak, garatua-; 25/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsua arautzen duena; eta 61/2013 Foru Dekretua, irailaren 18koa, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituena.

Ikusirik etxebizitza babestuen eskaintzak ezin duela eskaera bete-betean bete, gai horri buruzko Foru Komunitateko araudiak, Konstituzioaren aginduari –berdintasuna balio nagusitzat aldarrikatzekoa, 1.1 artikuluan jasotzen dena– jarraituz (kasu honetan, bereziki, etxebizitza bat izateko aukera-berdintasuna), baldintza orokor batzuk ezartzen ditu hori eskuratzeko, etxeak etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuaren bitartez esleitzeko; horretarako, dagokion baremoa aplikatuko da, diskriminazio positiboa baliatuz, Nafarroan bizi diren herritarrek etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko aukera berak edo antzekoak izan

ditzaten. Iruñeko Udalak, bere aldetik, programa eta erregistro espezifikokoak ditu, hiriko etxebizitza-eskaera ordenatzeko.

Bestalde, alokairuko etxebizitzaren eskaera eskaintza baino askoz ere handiagoa dela ikusirik, Eskubide Sozialetako Departamentuak jakinarazi du hainbat neurri ezarri dituela alokairuko etxebizitza-parke publikoko etxebizitza-kopurua handitzeko: alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzea, sustapen zuzenaren bitartez edo sustapen pribatuak diruz lagunduz; etxebizitza hutsen jabeak alokatzera bultzatzeko neurriak ezartzea; Etxebizitza Sozialen Foru Funtsean sartutako etxebizitza-kopurua handitzea... Era berean, Iruñeko Udalak adierazi du udal-jabetzako etxebizitzak birgaitzen hasi dela, urgentziaz etxe bat behar duten pertsonak hartzeko eta alokairuko etxebizitza-parkea handitzeko.

Nolanahi ere, neurri horiek txalogarriak eta ongi bideratuak izan arren, administrazio publikoek orain artean hartutako neurriak ez dira nahikoa izan planteatutako arazoa konpontzeko; hala, botere publikoei dagokie “inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere” (Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua).

Hori guztia dela eta, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Iruñeko Udalari iradokitzea ahalegin handiagoa egiteko eta planteatutako arazoa arintze aldera beharrezkoak diren beste erabaki batzuk hartzeko, bai alokairuko etxebizitza-parke publikoa handituz bai bestelako konponbide batzuen bidez, hala nola maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean, Nafarroan Etxebizitza izateko eskubideari buruzkoan, 7.6 artikuluan, aurreikusitako bizitokien tarteko formulak baliatuz.

Era berean, Nafarroako Arartekoak proposatu zuen partekatutako etxe batean logela bat beste pertsona batzuekin partekatuz bizitzera behartuta dauden pertsonak eta familia-unitateek bizi duten egoeraren azterketa sakon bat egiteko. Horri dagokionez, Eskubide Sozialetako Departamentuak adierazi zuen partekatutako logeletan bizi diren pertsona askok ez dutela izena ematen etxebizitza-eskatzailen zentsuan, eta, beraz, ezin direla etxebizitza babestu baten esleipendun izan.

Dena den, erakunde honek uste du arazoaren benetako egoera hautemateko eta kuantifikatzeko, administrazio publikoek jarrera proaktiboa izan behar dutela, askotan, egoera horretan dauden pertsonak ez baitira gai etxebizitzak esleitzeko programa publikoetan izena ematera joateko, ezjakintasuna, beldurra edo baliabide falta direla eta.

Nafarroako Arartekoaren iritziz, partekatutako etxe batean logela bat beste pertsona batzuekin partekatuz bizitzera behartuta dauden pertsonak eta familia-unitateek bizi duten egoeraren azterketa sakon bat egiteak abantaila hauek izango lituzke, besteak beste:

- a Arazoa zehaztea eta kuantifikatzea.
- b Egoera hori hautemateko mekanismoak ezartzea. Horretarako, oinarritzko gizarte-zerbitzuekin eta arazo horren berri duten elkarte eta entitateekin batera lan egin liteke. Era berean, biztanleen udal-eroldako datuen bitartez, arazoa hautemateko aukera azter liteke.
- c Jarduera-plan bat egitea eta lagun egiteko bide bat zehaztea, bizi dituzten askotariko egoerei eta dituzten beharrei erantzuteko.
- d Informazio-tresnatzat baliatzea, gai honetan esku hartzen duten administrazio publikoek erabakiak har ditzaten.

- e Alokairuko etxebizitza-parke publikoaren urritasuna dela-eta egoera horretan dauden pertsona guztiei berehalako erantzun bateratua eman ezin zaienez, egoera batzuen eta besteen artean lehentasunak ezartzea. Horri dagokionez, bereziki premiazkoztat jo zen ardurapean seme-alaba adingabeak dituzten familia-unitateei arreta ematea.

Iruñeko Alde Zaharreko Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak gizarte-laguntzen izapideak arintzeko beharra ere aipatu zuen –bermatutako errentari zegokiona, bereziki–, horiek ematerakoan izaten diren atzerapenek arriskuan jartzen baitute, zenbaitetan, pertsonak beren etxeetan, edo logeletan, jarraitzea, behin ez ordaintzeak kaleratzea ekar baitezake, kaltetutako pertsona horiek ez dutelako baliabiderik aurre egiteko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 7. artikuluan aitortzen da herritarrek administrazio egokia izateko eskubidea dutela, eta eskubide horren baitan, “administrazioak espresuki emandako ebazpena legez ezarritako epean lortzeko eskubidea” aipatzen da.

Herritarrek administrazio egokia izateko duten eskubideari lotuta, Administrazioaren jardunaren eragingarritasun-printzipioa dago, Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluan administrazio publikoen jardunaren printzipio informatzailatzat ezartzen dena. Printzipio hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, 3.1 artikuluan, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legean, abenduaren 3koan, 3.2 a) artikuluan, dago jasota. Eragingarritasun-printzipio horrek eskatzen du prozedurak arin ebaztea, arrazoizko epe batean eta atzerapen bidegaberik gabe, eta lotura du, halaber, herritarrek administrazio egokia izateko duten eskubidearekin (lehen aipatua), gai horiek arrazoizko denboran tratatzea ezartzen duenarekin.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Nafarroako Arartekoak beharrezko ikusi zuen Eskubide Sozialetako Departamentuari eskatzea gizarte-laguntzak –bermatutako errenta eta beste batzuk– emateko prozedurak arin ebazteko, Plataformak deskribatutako egoerak gertatu ez daitezzen. Bereziki, prestazio-mota horren izaera dela eta, ez litzateke utzi behar bermatutako errentari buruzko erabakiak atzeratzen, erabaki horrek prestazioaren eraginpeko herritarrentzat dituzten eragozpenekin, zailtasunak izan baititzakete etxebizitza bat edo logela bat alokatzeagatik errentaren kontzeptuan eskatzen zaizkien zenbatekoei aurre egiteko.

Azkenik, seme-alaba adingabeak dituzten eta beste pertsona edo familia batzuekin partekatutako etxebizitza batean, logela bakarrean, bizitzera behartuta dauden familien egoeraren aurrean, Nafarroako Arartekoak gogora ekarri zuen Haurren Eskubideari buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan aitortzen dela haur guztiek dutela eskubidea, bizi-maila egokia izateko, euren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta soziala lortzeko. Arau berak xedatzen du estatu alderdiek, baldintza nazionalekin eta euren baliabideekin bat etorritik, neurri egokiak hartu behar dituztela, gurasoei eta beste pertsona arduradun batzuei laguntzeko, eskubide hori eragingarri egiteari dagokionez eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza materiala eta babes-programak eskainiko dituztela, bereziki, elikadurari, arropari eta etxebizitzari dagokienez. Bestalde, Konstituzioaren 39.4 artikuluan ezarritakoa ekarri zuen gogora: “Umeei nazioarteko itunetan ezarritako babesa izango dute, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian”.

Nazioarteko itunetan eta Espainiako Konstituzioan adingabeei eta, bereziki, adingabe horien zaurgarritasunari arreta berezia ematen zaiola ikusirik, Nafarroako Arartekoak iradoki zuen ardurapean adingabeak dituen familia-unitate oro ahalik gehien babestu behar dela, eta, horretarako, beharrezkoa izanez gero, lehentasuneko bide bat ezarri behar dela, halaber bizi diren logelatik lehenbailehen ateratzeko.

Finean, Nafarroako Arartekoak hainbat iradokizun egin zizkien Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Iruñeko Udalari: ahalegin handiagoa egitea eta planteatutako arazoa arintze aldera beharrezkoak diren beste erabaki batzuk hartzea, bai alokairuko etxebizitza-parke publikoa handituz bai bestelako konponbide batzuen bidez, hala nola maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean, Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzkoan, 7.6 artikuluan, aurreikusitako bizitokien tarteko formulak baliatuz; gizarte-laguntzak –bermatutako errenta eta beste batzuk– emateko prozedurak arin ebaztea; eta ardurapean adingabeak dituen familia-unitate oro ahalik gehien babestea, eta, horretarako, beharrezkoa izanez gero, lehentasuneko bide bat ezartzea, halaber bizi diren logelatik lehenbailehen ateratzeko.

Azkenik, Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialetako Departamentuari iradoki zion partekatutako etxebizitza bateko logela batean beste pertsona batzuekin batera bizitzera behartuta dauden pertsonen eta familia-unitateen egoerari buruzko azterketa sakon bat egitea.

Iradokizun horiei erantzunez, Iruñeko Udalak txosten bat bidali zuen, eta bertan adierazi zuen bere jabetzako etxebizitzaren egoera berrikusten jarraitzen zuela eta, udal-ordenantzaren bitartez, bere jabetzako etxebizitzak gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiei esleitzen dizkietela, beren kasa edo beste administrazio batzuek emandako laguntzen bitartez etxebizitza bat eskuratu ahal izan arte. Era berean, gizarte-laguntzei dagokienez, adierazi zuen auzoko unitateetan arreta emateko ereduak berrikusten ari zela, horietan ematen den arreta-zerbitzua hobetzeko, arreta jasotzeko itxarote-epaia murrizteko eta prestazioak (besteak beste, bermatutako errenta, larrialdiko laguntzak eta aparteko laguntzak) izapidetzeko prozesuak arintzeko. Ardurapean adingabeak dituzten familia-unitateak babesteari dagokionez, adierazi zuen lanean jarraituko zuela adingabeen eskubideak bermatu arte, eta adingabe horien familiak ahalik ondoen babesten saiatuko zela.

Gizarte Eskubideetako Departamentuak adierazi zuen egindako iradokizuna, oro har, onartzen zuela, kontuan hartuta etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria lortzea dela Etxebizitza Zerbitzuaren eginkizun edo funtzio nagusia, eta, beraz, logeletan pilatuta eta nekez bizi diren familien egoera konpontzea dela bere lehentasunetako bat. Horretarako, neurri hauek iragarri zituen: a) logeletan pilatuta bizi diren guraso bakarreko familiei laguntzak emateko deialdiak onartzea; b) etxebizitzak alokairu-poltsan jartzen dituzten etxejabeei laguntzak emateko deialdia onartzea; eta c) askotariko oinarrizko gizarte-zerbitzuen jarraibideak bidaltzea, bereziki, Iruñean eta Iruñerrian errotuta daudenei, logeletan pilatuta zenbat familia dauden kuantifikatu ahal izateko, eta familia horien ezaugarriak eta arazo konkretuak zehaztea, arazoa definitu eta kuantifikatu ahal izateko eta, gero, ekintza-plan bat egin ahal izateko. Bermatutako errentari dagokionez, azaldu zuen sistema informatikoa egokitu zutela, prestazioa amaitzen zen hilabeteetan bertan berriro eskatutako bermatutako errentak automatikoki berriro ahal izateko. Era berean, adierazi zuen, eskaera guztiak bizkorrago berrikusteko xedez, ebatzi gabeko eskaeren hileroko zerrenda Foru Ogasunera bidaltzen ari zirela, erakunde horrek sarreren eta ondarearen egoerari buruzko informazioa eman zezan; horrela, gutxitan sartuko dira datu-basean, ahalmen ekonomikoaren adierazle horietan balio altuak hautematean baino ez. Gaineratu zuen “telematizazioa” (izapidetu programa) zabaltzen jarraitzen dutela oinarrizko hainbat gizarte-zerbitzutan, eta, neurri horri esker, prestazioaren kudeaketa-epeak laburtu egiten direla.

Iruñeko Udalaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren erantzunetan ezagutzera emandako neurriak ikusita, Nafarroako Arartekoak onartutzat jo zuen bere iradokizuna, eta jarduketa amaitutzat eman zuen.

4.3.5. Alarguntasun-pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin berdintzea.

Administrazio hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioa.

2017ko otsailaren 13an, Nafarroako Arartekoa garai bateko Alargunen pentsioen berdintasunaren aldeko plataformako ordezkari batzuekin bildu zen. Talde horrek adierazi zuen ez zegoela ados, 2017ko urtarriletik ez baitzuten kobratzen Nafarroako Parlamentuak alarguntasun-pentsiodunei aitortutako laguntza, beren pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen zuena (zehazki, alarguntasun-pentsioagatiko kenkari fiskala da, eta Eskubide Sozialetako Departamentuari dagokio hori ordaintzea).

Ordezkaritza hark azaldu zuenez, 2017 hasieran, aurreko urteetan ez bezala, Eskubide Sozialetako Departamentuak ordaintzen duen prestazioa jasotzeari utzi zioten alargunek, nahiz eta eskubide hori aitortuta dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzeko foru-legerian.

Azaldutakoa ikusita, Nafarroako Arartekoak iritzi zion, 2017ko urtarrilaren 1ean legezko araua indarrean egonik, Eskubide Sozialetako Departamentuak kenkariaren aurretiazko ordainketa egin behar zuela data horretatik aurrera, horretarako inongo izapidetik egin eta bestelako edo segidako legerik onartu behar izan gabe. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretu bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean, 68. artikuluan –azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak emandako idazkeraren arabera–, zerga-onura bat ezarri zen lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoa jasotzen zuten alarguntasun-pentsiodunentzat, adierazitako soldata-indize horrekin parekatzeko zenbatekoaz. Foru-legegilearen nahia zen

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

alarguntasun-pentsioen ondoriozko sarrerak osatzea unean-unean ezarrita dagoen lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko.

Hori dela eta, erakundeak Eskubide Sozialen Departamentuari eskatu zion planteatutako gaiari buruzko informazioa emateko. Bere txostenenean, Departamentuak adierazi zuen alarguntasun-pentsioei soilik ezarritako kenkariak emanez konparaziozko bidegabekeria sortzen zela gutxieneko kotizaziopeko pentsioekin (bai, behintzat, pertsona bakarreko familia-unitateen gutxieneko kotizaziopeko pentsioekin); izan ere, lan egin eta sistemari ekarpenak egin zizkieten pertsonak, egiaz, zenbateko txikiagoa jasotzen zuten, kotizatu ez arren alarguntasun-pentsioa aitortuta zutenekin alderatuta. Gaineratu zuenez, 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata % 8 igo zen arau berean (742/2016 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, 2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duena), bigarren xedapen iragankorrean, ezarri zen ez zela igoera hori erreferentzia-indizetatzat aplikatu behar estatukoak ez ziren arauetan, kontrakoa adierazten zuen xedapenik izan ezean.

Nafarroako Arartekoak Departamentuari adierazi zion ez zitzaiola iruditzen kenkari fiskal hori alarguntasun-pentsiodunei soilik aplikatzeak beste pentsiodunekiko "konparaziozko bidegabekeria" zekarrenik; izan ere, beste kolektiboek ere antzeko laguntza fiskalak merezi dituzten arren –erakunde honek ez du hori zalantzan jartzen–, duela urte askotatik indarrean den legegilearen erabakiak erakusten du Nafarroako Parlamentuak nahi esplizitua duela ezaugarri eta zailtasun bereziak dituen kolektibo honi laguntza emateko: pentsio eskaseko alargunak, gehien-gehienak emakumeak.

Bigarrenik, azaldu zuen abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuan, 2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzekoan, bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoak ezin duela eraginik izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko 68. artikulua indarraldian eta

horren ondorioetan. Hala, adierazi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legean araututako kenkari fiskala Nafarroako Foru Komunitatearen zerga- eta finantza-jardueren, eta hark zerga-erregimen propioa ezartzeko eta arautzeko duen erabateko ahalmenaren, emaitza dela (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45. artikulua). Ideia hori abiapuntutzat hartuta, eta ikusirik foru-legegilearen nahia izan dela lanbide arteko gutxieneko soldata hartzea erreferentziatzat (errenta-adierazle egokiena dela iritzita), ez litzateke egokia Foru Legea bere baldintzetan ez aplikatzea, estatuko arau batek, gerora, ezarri duelako ez dela lanbide arteko gutxieneko soldata aplikatu behar autonomia-erkidegoetako arauetan. Izan ere, Foru Legea, Nafarroako Parlamentuan erabakitakoa, beste administrazio baten erregelamenduko arau batean xedatutakoaren mende dagoela onartzea litzateke hori.

Horrez gain, Nafarroako Arartekoak adierazi zuen, nolabait 2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzeari buruzko abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorrak Foru Legearen aplikazioan eragina izan dezakeela onartuz gero ere, horren ondorio juridikoa ez litzatekeela ordainketa horiek egiteari uztea, Eskubide Sozialtako Departamentuak egin bezala; hau da, ondorioa litzateke ordainketak egitea bigarren xedapen iragankor horren bigarren atalean adierazitakoa aplikatuz ateratzen denaren arabera. Xede horretarako, bigarren xedapen iragankorreko bigarren atal horretan ezartzen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbateko berriak aplikatu behar ez diren kasuetan –lehen atalean adierazitakoa betez–, "kontrako xedapenik edo erabakirik ezean, 2017ko lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa abenduaren 29ko 1171/2015 Errege Dekretuan jasotakoa izango dela, eta, hurrengo urteetarako, askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoa igotzen den ehuneko berean igoko dela (IPREM)".

Hori ikusita, Nafarroako Arartekoak egoki ikusi zuen Eskubide Sozialtako Departamentuari gomendatzea

ordaindu zitzala, luzamendutan ibili gabe, alarguntasun-pentsioengatiko kenkariak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko 68. artikuluan ezarritakoa betez, gerora egindako lege-aldaketan nahiz Estatuko Administrazioaren erregelamenduko arauen baldintzapean jarri gabe.

Eskubide Sozialetako kontseilariak, egindako gomendioari erantzunez, adierazi zuen Departamentua alarguntasun-pentsioengatiko kenkariak aurrez ordaintzen ari zela 2017an, eta inolaz ere ez ziola ordainketa horiek egiteari utzi. Nolanahi ere, adierazi zuen kenkari fiskalaren aurrerakina kalkulatzeko 2016ko lanbide arteko gutxieneko soldataren erreferentzia-indizea erabiltzen ari zirela, abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatuz, eta, aldi berean, Foru Lege proiektu bat izapidetzen ari zirela, erreferentzia-indizetzat 2017ko lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa hartu ahal izateko. Foru-lege hori 2017ko apirilaren 27an onartu zuten.

Txosten horiek aztertu ondoren, erakunde honek ondorioztatu zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak ez zuela egindako gomendioa onartu, alarguntasun-pentsioengatiko kenkarien aurrerakinak ez baitzituzten ordaindu 2017ko lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera, eta parekatze hori legea aldatu ondoren soilik egingo zutela; hala, amaitutzat eman zuen bere jarduna.

4.3.6. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren erregulazioa Toki Ogasunei buruzko Foru Legean.

Administrazio hartzailea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua.

Arloa: Ogasuna.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

2016. urtean, erakunde honen aurrean zalantzan jarri zen Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren edo plusbalioaren aplikazioa. Zehazki, udal eskudunak, zerga aplikatu eta haren zenbatekoa zehazterakoan, eskualdatutako higiezinaren balioa gutxitu zela kontuan hartu ez izanak eragin zuen kexa. Hala, interesdunari zerga ezarri zitzaion, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean zehaztutako balorazio-irizpideak aplikatuz, benetan plusbaliorik izan ez arren.

Nafarroako Arartekoak gomendatu zuen ez zezatela zergarik eskatu lursailak eskualdatzean haien balioa handitu dela agerian jartzen ez denean, uste baitzuen horrelakoetan ez dagoela zergapetu beharreko zerga-egitaterik.

Gerora, 2017ko urtarrilean, argitaratu zen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak konstituziokontrakotasun-arazoa planteatu zuela Konstituzio Auzitegiaren aurrean, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotzen den hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren edo plusbalioaren erregulazioa zela eta, uste baitzuen plusbalioa "faltsua" izan zitekeela lursailak balioa galdu zuen kasuetan (egoera hori orokorra izan zen higiezin merkatua krisian egon zen urteetan).

Era berean, zabaldu zen Konstituzio Auzitegiak, Gipuzkoako foru-arau bat aztertuta –gai horretan, toki-ogasunei buruzko estatuko legeriaren irizpide berari jarraitzen baitzion–, konstituzio-kontrakotasunekotzat jo zuela, uste baitzuen legeriak oinarritzat hartzen duen ideia –denbora-aldi batean ondasun higiezin baten titulartasuna izate hutsak, automatikoki, haren balioa handitzea dakarrela eta, beraz, zergapetu beharreko ahalmen ekonomiko bat litzatekeela– fikzio legala dela. Fikziozko uste hori, ordea, ez dator beti bat ondasunen balioaren benetako bilakaerarekin, higiezinaren krisiaren aurreko aldian agerian geratu zen bezala.

Ikus daitekeen moduan, administrazioek, indarrean den legeria automatikoki aplikatuz, zergak ezartzen zizkieten ahalmen ekonomiko horren adierazle ez diren egoerei, eta, gainera, ez zien interesdunei aukerarik ematen kontrakoa adierazten zuten frogak sustatzeko edo

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

aurkezteko (legeak iuris et de iure presuntzioa hartzen zuen abiapuntutzat). Hori, ordea, Konstituzioaren 31. artikuluan, zergak ezartzeko ahala mugatzekoan, zehaztutakoaren kontrakoa da, ez baitator bat ahalmen ekonomikoko printzipio konstituzionalarekin.

Erakunde honen arabera, konstituzio-kontrakotasun-ekotzat jotako Gipuzkoako araua eta foru-araudian jasotakoa antzeko zerga-arauak ziren funtsean; beraz, arrisku handia zegoen Foru Legea ere konstituzio-kontrakotasun-ekotzat jotzeko.

Nolanahi ere, Nafarroako Arartekoaren iritziz, zerga-arloko foru-arau hori ez zen bidezkoa; izan ere, zergapetu egiten zituen ahalmen ekonomikoaren egoera adierazten ez zuten gertaerak ere (askotan, gainera, aurkakoa adierazten zuten, ahalmen horren gutxitzea). Doktrina zientifikoak ere kritikatu egiten zuen arau hori.

Aurreko gogoeta horiek guztiak kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak Landa Garapeneko, Inguru-meneko eta Toki Administrazio Departamentu-iradoki zion Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruz jasotako araudiaren (175. artikulua eta hurrengoak) aldaketa sustatzea, ahalmen ekonomikoko printzipio konstituzionalaren arabera egokitzeko eta, ahalmen hori ez den egoeretan, zergarik ordaindu beharrik ez izateko.

Egindako iradokizunari erantzunez, kontseilariak adierazi zuen Departamentua araudia aldatzeko lan bizioan ari zela dagoeneko, erakundeak iradokitakoari jarraituz, bai eta beste bi jarduketa-arlotan ere: batetik, eskura dauden katastro- eta zerga-informazioak (dagozkien eguneratzeak eginda) erabiltzeko aukera, likidazioak sortzeko edo eragiteko, betiere kalterik egin gabe subjektu pasiboek duten eskubideari datu horietan oinarrituz egindako balio-handitzeen kalkuluak aditu bitartez zalantzan jartzeko, eta bestetik, beste zerga-figura bat planteatzea ("plusbalioaren zerga" deritzonak hasiera batean zuen zerga-egitatean oinarrituta), egungo hiri-lurren balio-gehikuntzaren

gaineko zerga edo plusbalioa ordezkatzeko egokia izango litzatekeena.

Departamentuak zer adierazi zuen ikusita, eta jarduketa horiek egindako iradokizunarekin bat zetozela iritzita, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zuen bere jarduna gai horretan.

4.3.7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzorde bat sortzea aurreikusi da Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektuan.

Administrazio hartzailea: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Gardentasuna.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

2017ko martxoaren 12an, erakunde honek jakin zuen, prentsaren bitartez jakin ere, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektua egin zuela Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak. Iragarri ziren arauzko berritasun nagusietako bat Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzorde bat sortzea zen, kanpotik kontrolatu eta gainbegiratu zituena etikarekin eta deontologia profesionalarekin zerikusia duten gaiak.

Nafarroako Gobernuaren web orrian (gobernu irekia) aurreproiektuaren testua argitaratu zen; herritarrek parte hartzeko aukera izan duten, eta iradokizunak eta ekarpenak egiteko epe bat ireki zen.

Hizpide dugun organoari dagokionez, aurreproiektuko zioen azalpenean hau adierazi zen:

"Bestetik, 7. artikuluan arauak aurreikusten du Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzea. Organo hori Etika eta Deontologia Polizialen arloko kontrol eta gainbegiratze lanetarako kanpo mekanismo bat izanen da. Oro har, foru lege berrian aurreikusita dago polizia ez diren

langileek hartu eta aztertuko dituztela polizia-funtzionamenduaren ondorioz herritarrek egin ohi dituzten keak. Alde horretatik, Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea urrats bat harago doa. Izan ere, kezarik larrienak aztertzeko eskumena izateaz gain, haren gain utzi da Nafarroako polizietan jokabide-ereduak edo -ohiturak detektatzeko ardura; eta, horrelakorik identifikatuz gero, horiek zuzentzeko gomendioak egitekoa. Bestetik, Administrazio Publikoaren jarduketa oro zuzendu behar duten inpartzialtasun eta gardentasun eskakizunak direla eta, ezinbestekoa da batzordeari bere lanetan independentziaz aritzeko bermeak ematea. Horrela bada, organo horren independentzia ziurtatuta dago, alde batetik, autonomia organikoa eta funtzionala duelako eta, bestetik, ofizioz jardun dezakeelako bere ikerketetan. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea Nafarroako gizartearentzat benetako erreferentzia bihurtuko da Etika eta Deontologia Polizialen arloan”.

Horrela bada, arestian aipatutako 7. artikuluan honako hau adierazi zen:

“7. artikulua. Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea

- 1 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea sortuko du, Etika eta Deontologia Polizialen arloko kontrol eta gainbegiratze lanak eginen dituen kanpo bitartekoa izateko. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitura organikoan sartuko da, baina autonomia organiko eta funtzionala izanen ditu, Nafarroako Polizietatik eta Nafarroako Gobernuan barne gaitako eskumena duen departamentutik berezita.
- 2 Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eginkizunak hauek dira:
 - f Gertaerak ikertzea, pertsona baten heriotza edo lesio larria poliziaren jarduketa baten eragile zuzena edo zeharkakoa izan daitekeenean.
 - g Herritarrek egindako kexei buruzko txostena ikertzea, jarduketa bereziki larriek eragindakoak direnean edo Nafarroako Polizien barrenean dauden jokabide ereduak edo ohiko jardunbideen ondorio direnean, eta herritarren konfiantzari kaltea eragin diezaioketenean.
 - h Aurreko paragrafoan aipatzen diren jokabide ereduak edo ohiko jardunbideak zuzentzeko egokitzat jotzen diren neurriak proposatzea.
 - i Kasu bakoitzean eskudun den aginteari gomendio egitea diziplina espedienteak irekitzeko, egindako ikerketen ondorioz. Nafarroako poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektua.
 - j Orokorrean, etika polizialaren arloan haien esku utzitako beste edozein eginkizun, jokabidea hobetzeko eta poliziaren jarduketa foru-lege honen 3. artikuluan adierazitako oinarriko printzipioen menpe jartzeko neurriak hartzeko, eta polizia zerbitzuaren kalitateari eta herritarrekiko harremanei dagokienez.
- 3 Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, behar dituen dokumentazioa eta informazioa eskatzen ahalko dizkie Nafarroako Poliziei, haien nagusi diren agintarien bitartez, indarreko lege polizial eta prozesalek ezarritako mugekin bat betiere. Nafarroako Polizietako kideak beharturik daude

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari laguntzeko eta elkarlanean aritzeko, haren eginkizunak betetzen.

4. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak ez ditu baloratuko epaileen mandatu edo aginduak betetzeak eragindako jarduketa polizialak, baina aztertzen ahalko du, halere, kasuko jarduketak aginte judizialak ezarritako mugak betetzen dituen.
5. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak zazpi kide izanen ditu, bost urterako izendatuak Nafarroako Gobernuko lehendakariaren foru-dekretuaren bidez, segurtasun publikoaren, zuzenbidearen, soziologiaren, psikologiaren edo etikaren gaitan irakaskuntzaren arloan entzute handia duten pertsonen artean.
6. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bere kideen artean hautatuko ditu batzordeko burua eta idazkaria izanen direnak, kide anitzeko organoen arloan legeria orokorrak ematen dizkien eskumekin. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bere jardunerako arauak onetsiko ditu.
7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeko kideek, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionario ez direnek, dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte zerbitzua emateagatik.
8. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak jardueren urteko memoria prestatuko du, eta horren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari”.

Nafarroako Arartekoak jo zuen Nafarroako Polizien Jardunbide Onaren eta Gardentasunaren Batzordea kanpo-kontrolako organo gisa eratu zela, eta honako eginkizun hauek zituela: herritarren integritateari kalte

egiten dieten gertakariak ikertzea, herritarren kezak hartu eta horiek ikertzea, gomendioak eta proposamenak egitea, eta abar. Nafarroako Arartekoak iritzi zion, era berean, eginkizun horiek badaudela, hein handi batean, erakunde honen eskumen- eta eginkizun-eremuaren barruan. Eremu hori zehaztu dute, batetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta, bestetik, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, herritarren eskubideak bermatu eta administrazio-jarduna ikuskatzen duen erakunde hau arautzen duenak.

Arartekoak adierazi zuen, erakundeak jardunean hartu duen eskarmentuan oinarrituta, Administrazio Publikoa kanpotik kontrolatzeko eta ikuskatzeko organo, organismo edo erakunde ugari egoteak ez duela laguntzen zerbitzu publikoaren hartzailerak diren herritarren eskubideak hobeto bermatzen. Are, askotan, ugaritasun horren eraginez herritarrek ez dute argi zer bidetatik babes ditzaketen beren eskubideak, eta ugaritasun horrek eragotzi egiten du behar bezala funtziona dezatela Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak bere autonomian ezarritako eta bermatutako kontrol- edo ikuskatze-mekanismoen ohiko funtzionamendua, Nafarroako Arartekoarena, esaterako; eta irizpide kontraesanak sortzea ekar liteke. Ugaritasun hori, era berean, gastu publikoaren aurrezte- eta eraginkortasun-printzipioen aurka doa, eta printzipio horiek, hain zuzen ere, sektore publikoaren arrazionaltasunaren oinarri izan behar dute.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuari egitea Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektutik Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea sortzeko beharra kentzeko iradokizuna.

Departamentu horretako kontseilariak idazki bat bidali zuen, eta bertan jakinarazi garai batean aurreproiektua zena Foru Lege baten proiektua zela orain, Nafarroako Gobernuak 2017ko apirilaren 12ko saioan onartua, Nafarroako Parlamentuak izapidetzeko onartua urte

horretako apirilaren 24an, eta 2017ko apirilaren 26an Parlamentuaren 61. Aldizkari Ofizialean argitaratua. Kontseilariak jakinarazi zuen, era berean, Nafarroako Parlamentuaren esku dagoela iradokizuna hartzea edo ez. Igorritako txosten horretan, kontseilariak aurreproiektua izapidetzean aurkeztutako proposamen batzuk aipatu zituen, guztiak ere Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunen Batzordea sortzeari buruzkoak, eta guztiak ere departamentuak onartutakoak. Onartutako proposamen horien artean honako hau zegoen: Nafarroako Arartekoaren proposamena, Batzorde horren eginkizunen izaera berriz definitzeko (orain esaten da haren funtzioak “azterketak”, “txostenak” eta “proposamenak” egitea dela) eta hura osatzen duten kideen kopurua bostera jaisteko”.

Departamentuak adierazitakoa kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak onartutzat jo zuen iradokizuna, eta amaitutzat eman bere esku-hartzea gai honetan.

4.3.8. Egoitzetan nahikoa plaza publiko edo itundu ez egotea.

Administrazio hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Zenbait kexa-espeditentek agerian utzi dute egoitzetako plaza publiko edo itunduen kopurua ez dela nahikoa mendekotasunaren arloko legeen arabera plaza horiek prestazio bermatu gisa hartzeko eskubidea duten mendeko pertsonen eskaerak asetzeko.

Nafarroako Arartekoak, zenbait kexa bideratzean, Eskubide Sozialetako Departamentuari gomendatu zion egoitza-plaza publiko eta itundu bat eman ziezaiela interesdunei, prestazio bermatua baita eta dagoeneko igarota zegoelako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa emateko aurreikusitako epe maximoa. Gomendio horri erantzunez, Eskubide Sozialeko

Departamentuak txosten bat eman zuen 2017ko martxoaren 17an, eta hartan adierazi, hitzez hitz, honako hau: “Departamentu honek badaki zerbitzuari lotutako prestazioa behin-behinekoa dela, eta denborartarte mugatu baterako ere badela. Hala ere, egoitzetako plaza publiko zein itunduen kopurua egiazki hain da mugatua ezinezkoa dela obligazio hori epe aurreikusietan betetzea”.

Erakunde honetan jaso ziren, era berean, zenbait kexa, mendekotasuna duten zenbait pertsonarenak, etxean egon nahi eta, egun ematen zaien diru-laguntzen zenbatekoarekin, etxean artatuko dituen pertsona bat kontratatzeke kostua ezin ordain dezaketenenak. Nafarroako Arartekoaren iritziz, bigarren kasu horrek badu lotura lehenarekin, izan ere, mendekotasuna duen pertsona bat artatzeari buruz erabaki bat hartu behar denean, pertsona horren beraren eta haren familiakoen egoera eta nahiak kontuan hartzeaz gain, kontuan hartzen dira, era berean, gizarte-zerbitzuetako sistemaren prestazioaren berezko ezaugarriak, baldintzak eta mugak.

Azaldutako horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialetako Departamentuari eskatu zion azter zezala prestazio ekonomiko itzulgarriak ezartzeko aukera, indarreko prestazioen neurri osagarri gisa, eta zehazten diren eskuratze-baldintzetan, mendekotasuna duten pertsonak ahalik eta denbora gehien egon daitezen etxean; betiere egoki diren bermeak ezarriz, aitortutako diru-kopuruak edo horien zati bat etorkizunean itzuliko dela ziurtatzeko. Hori guztia etxean behar den laguntza emate aldera.

Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen arestian aipatu departamentu horri txosten bat egin zezala eskatzea zenbait gairi buruz. Gai horiek dira: a) Hutsik dauden egoitza-plaza publiko zein itunduen eskasia. b) Ezin bete ahal izatea, epe barruan betetzen ez direla egiaztatu baita, mendekotasunaren arloko legeetatik eratorritako legezko betebeharrak; zehazki, haren beharra duen pertsona bakoitzari egoitza-plaza bat emateko betebeharra. c) Prestazio ekonomiko itzulgarriak ezartzeko bideragarritasuna, egun indarrean diren

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

prestazioen neurri osagarri gisa eta eskuratzeko baldintzak ezarrita, mendekotasuna duten pertsonak ahalik eta denbora gehien egon daitezzen etxean; betiere egoki diren bermeak ezarritik, aitortutako diru-kopuruak edo horien zati bat etorkizunean itzuliko dela ziurtatzeko. d) Egoki izanez gero, mendekotasuna duten pertsonak egoitzetan edo etxean behar bezala artatuko dituztela bermatze aldera egokitzen jotzen diren aukerako beste neurri batzuk ezartzeko bideragarritasuna.

Eskubide Sozialetako Departamentuak txosten bat igorri zuen, eta hartan adierazi zuen Eskubide Sozialetako Departamentuaren 2017 eta 2018 urteetarako helburu nagusi zirela, batetik, adineko pertsonak egoitzetan artatzeko plaza itunduen kopurua handitzea, eta, bestetik, pertsona horien eskubideak bermatzea, Nafarroa osoan behar adina plaza publiko egon daitezela ahaleginduz, familiakoen etxetik gertu egon daitezzen. Helburua zen, 2017an, 189 plaza berri ituntzea, egoitza-plazak eta adinekoentzako eguneko zentroetako plazak batuta; eta, 2018an, zerbitzuari lotutako prestazioak ahalik eta gehien murriztea, plaza berriak itunduz: aurrekontuetan zer funts egon erabilgarri, hainbat plaza.

Txostenean, Departamentuak adierazi zuen, era berean, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia ahalegin handia egiten ari zela prestazio eta zerbitzuak emateko epeak murrizteko. Horrela bada, azken urtean nabarmen murriztu egin ziren mendekotasun-egoera balioesteko epeak eta prestazio eta zerbitzuak ematekoak. Gainera, 2017ko maiatzaren bukaerarako aurreikusita zegoen mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bakoitzari banakako bere artatze-planarekin bat etorritik dagozkin prestazioak eta zerbitzuak ematea, legez ezarritako epeen barruan. Txosten hartan azaldu zuten, era berean, Departamentua aztertzen ari zela ea prestazio berri bat sortzea edo aurretik dagoen bat moldatzea ekonomikoki bideragarria ote zen, eta mendekotasunaren Sistemaren (SAADen) arautze juridikoaren barruan, mendekotasuna duten pertsonak

etxean egon daitezela sustatzeko edo horretan laguntzeko.

Nafarroako Arartekoak, Eskubide Sozialetako Departamentuak iragarritako neurriak ikusita, eta kontuan izanik departamentu hori ez zegoela ados mendekotasuna duten pertsonak etxean artatzeko mailegu itzulgarrien sistema bat ezartzeko proposamenarekin, bukatutzat jo zuen afera honetan zuen esku-hartzea.

4.3.9. Eraso homofoboa Iruñean.

Administrazio hartzailea: Iruñeko Udala

Arloa: Herritarren segurtasuna.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Albisteak ikusita, Nafarroako Arartekoak jakin zuen gazte batek ustezko eraso homofobo bat jasan zuela Iruñeko Abejeras kalean, 2017ko martxoaren 31ko 22:30 inguru.

Argitaratutako informazioaren arabera, hots, Iruñeko Udaltzaingoa emandako informazioaren arabera, biktimari bikotekidearekin eskutik helduta oinez zihoanean jo zioten, eta baziren zantzuak eraso erasandako pertsonen sexu-izaeran oinarrituta egon zitekeela pentsatzeko.

Ustez jazotako gertakarien larritasuna ikusita eta, bereziki, kontuan izanik, argitaratutako informazioaren arabera betiere, zer arrazoi izan zuen iturburu erasoak, eta eraso horrek, besteak beste, hautsi egin zuela pertsonak beren sexu-orientazioagatik baztertuak ez izateko duten eskubidea, Nafarroako Arartekoak egoki iritzi zion hizpide dugun auziari buruzko jarduketa bati hasiera ematea, ofizioz. Horiek horrela, gertakariari buruzko informazioa eskatu zion Iruñeko Udalari, eta helaraz ziezazkiola gertakari horiei buruz Iruñeko Udaltzaingoa zeuden jarduketak.

Iruñeko Udalak bidalitako txostena ikusita, hartan azaldu baitzuen zer jarduketa gauzatu zituen Udaltzaingoak hizpide dugun erasoaren harira, eta bideratutako izapidea Iruñeko Instrukzioko 2. Epaitegira bidali zela, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zuen gai honetan izandako esku-hartzea.

4.3.10. Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren ondorio negatiboak.

Erakunde hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Arloa: Ogasuna.

Jarduketa: Jarduteko eskaera.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari Espainiako Arartekoarengana jotzeko, hark, herritarren interesak defendatze aldera, eta, betiere, egoki irizten baldin badio, gomendioak edo iradokizunak egin diezazkion Estatuko Administrazioari, Nafarroako Administrazio Publikoen funtzionamendu-hutsuneak estatu-mailako arauen ondorio direnean.

2017ko apirileko lehen egunetan, Nafarroako hedabideek zabaldu zuten Nafarroako zenbait udal ez daudela ados apirilaren 27ko 2/2010 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, eragiten dituen ondorioekin. Izan ere, tokiko erakunde horien iritziz, aipatu legea neurritz kanpo baldintzatzen eta murrizten ari da udaleko politikak garatzea; bereziki, herritarren beharrak asetzearekin lotura duten politika horiek garatzea. Lege organiko horretako 32. artikuluan araututakoaren arabera, udalek zorra murriztera bideratu behar dute aurrekontuan izandako superabita, eta beharrezkoak diren beste hobekuntza batzuk egiteko aukerarik eman gabe.

Udalek bidegabeak iruditzen zitzaizkien eta estatuko legeak ezarritako murrizketak neurritz kanpokoak zirela erakusten zuten zenbait egoera azaldu zituzten. Egoera

horietatik azpimarragarrienak ziren, batetik, plantillak ezin indartzea, desberdintasunei aurre egiteko edota larrialdi-egoeren aurka borrokatzeko beharrezkoak ziren langileekin, eta, bestetik, zor-murrizketak edo diruzaintzako soberakinak ezin erabili ahal izatea zerbitzuak hobetzeko; ezta populazioa hazten ari den udalerrietan ere.

Toki erakundeek aldarri horiek egin zituzten garai berean, Espainiako ekonomiaren zifra makroekonomikoen hobekuntzari eta kontu publikoen egoeraren hobekuntzari edo egonkortzeari buruzko informazioak argitaratu ziren, azken hilabeteetan.

Testuinguru horretan, Nafarroako Arartekoak idazki bat igorri zion Espainiako Arartekoari, aipatu egoera horren kontu emanez, eta eskatu zion, hark egoki iritziz gero betiere, Estatuko Administrazio Orokorreko ministerio eskudunari iradoki ziezaiola aurrekontu-egonkortasunaren arloko dagozkion legeak alda zitzala, toki-erakundeei ezarritako mugak malgutzeko, herritarren eskubideak berma ditzaten.

Espainiako Arartekoak erantzuna bidali zuen, eta erantzun horretan adierazi zuen Nafarroako Arartekoak planteatutako auzia orokorra zela eta, beraz, hark eskatutako jarduketaren moduko bat egiteko, eta jarduketa horrek aurrera egin zezan, toki korporazio bakoitzaren egoera zehatza aztertu beharko litzatekeela. Izan ere, lege organikoak ondorio bidegabeak dituela alegatzeko, gertakariak zein ziren adierazi beharra zegoen, eta nahikoa oinarri eman behar ziren. Espainiako Arartekoak adierazi zuen, era berean, korporazio erasenetatik edozeinek Espainiako Arartekoarengana joz gero, arreta handiz aztertuko litzatekeela arazo zehatza Estatuko Administrazioa bideratzea, betiere, Arartekoaren apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoak haren esku utzitako eskumenen barruan.

Hark bidalitako erantzuna ikusita, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zituen gaiaren inguruko jarduketak.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

4.3.11. Zenbait pentsio lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko asmoz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean zenbait kenkari fiskal partzialki aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuaren irismena.

Administrazio hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Administrazio-jarduera eta iragarritako arauzko ekimenak ikuskatzea.

Hedabideek argitaratu zuten Eskubide Sozialetako Departamentuak ekin egingo ziola Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina partzialki aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuari, zenbait zerga-kenkariri dagokienez, pentsio jakin batzuk lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LAGS) parekatzeko asmoz. Berri hori ikusita, hainbat pertsonak erakunde honengana jo zuten.

Interesdunek jakin nahi zuten, besteak beste, ea familiakoentzako Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioak (hilean 500 euroz azpikoak) lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatuko ziren, alargun-pentsioekin edota hori baino zenbateko gutxiagoko erretiro-pentsioekin gertatu bezala.

Familiakoentzako pentsio deritzo hildakoarekin eta haren kontu bizi izan diren familiakoei Gizarte Segurantzak ematen dien kotizaziopeko prestazio ekonomikoari, premia ekonomikoan gera ez daitezen prestazioa jasotzen zuen pertsona hiltzean. Hainbat baldintza bete behar dira kotizaziopeko prestazio horren onuradun izateko; besteak beste, honako hauek: a) Bi urteko epean eragilearekin elkarbizi eta bere kontura bizi izana, edo elkarbizitzako familiartekoaren heriotza datatik, berau aipatu epealdian gertatu bazen; b) Pentsio publikorako eskubiderik ez izatea; c) Biziraupenerako baliabiderik ez izatea, lanbide arteko

gutxieneko soldataren pareko edo gutxiagoko diru-sarrerak izategatik, eta elikagaiak emateko beharra eta aukera duten familiartekoak izategatik.

2017an, alargun edota umezurtz pentsiodunik ez eta hirurogeita bost urteko onuradun bakarra baino ez zegoen familietan, familiakoentzako pentsioaren zenbateko maximoa 470,90 eurokoa zen; lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz txikiagoa.

Hori guztia ikusita, Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialetako Departamentura jo zuen. Hari, hizpide dugun herritarren kezka hau helarazteaz gain, informazioa eskatu zion, jakin nahi baitzuen ea aurreikusita zuen edo ez kenkaria ezartzea familiakoentzako kotizaziopeko pentsioetarako, lanbide arteko gutxieneko soldata iristen ez diren alargun-pentsioekin edo erretiro-pentsioekin gertatu bezala.

Kontseilariak idazki bat bidali zuen eta hartan adierazi ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duen Foru Legearen proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak erretiro-pentsioetara ere hedatzen zuela orain arte alargun-pentsioei aplikatutako kenkari gehigarrien zerga-sistema. Baina familiakoentzako pentsioak, ordea, ez zirela zerga-sistema horretara bildu.

Jakinarazi zuen, era berean, lege-testu horretan familiakoentzako pentsioei buruzko araurik ematen ez bada ere, azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak, gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituenak, errenta bermatua lortzeko aukera ematen diela hirurogeita bost urtetik gorako pertsoneri, eta bidea ematen duela, era berean, kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duten pertsonetatik errenta bermatua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten horiek arestian aipatutako zerga-kenkarien antzekoak edukitzeko eskubidea izan dezaten.

Kontseilariak adierazi zuen, familiakoentzako pentsioa jasotzen duten pertsonen izaera eta ezaugarriak

kontuan izanik, babes sozialeko aukera guztietatik egokiena, departamentuaren iritziz betiere, errenta bermatua modu arruntean eskuratzea zela, lotura baitu gizarteratzeko eskubidearekin. Oso gutxi dira hizpide dugun pentsioa jasotzen duten hirurogeita bost urtetik gorako pertsonak, baina, kasu horietan ere, errenta bermatuak bermatu egingo lieke kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten horien maila.

Kontseilariak emandako informazioa ikusirik, Nafarroako Arartekoak amaitutzat jo zuen bere jarduketa.

4.3.12. Errenta baxuak dituzten pertsonen medikuak agindutako botikak ezin ordaintzea.

Administrazio hartzaileak: Osasun Departamentua eta Eskubide Sozialen Departamentua

Arloa: Osasungintza. Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Arautzeko iradokizuna.

Hedabideen bitartez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen pertsona kopuru handi batek ezin dituela medikuak agindutako botikak ordaindu. Zehazki, egunkarietako berrietan adierazi zen Osasun Ministerioaren 2016ko barometroko datuen arabera "13.000 nafarrek baino gehiagok onartu dutela ezin dituztela botikak ordaindu" eta "Nafarroako populazioaren % 2,1 dagoela farmazia-pobretasun egoeran".

Argitaratu zen, era berean, Cáritasek finantzatu egiten zituela, Farmazialarien Elkargoarekin egindako hitzarmen baten bidez, pazienteek nahikoa baliabide ekonomiko ez izateagatik ezin ordain zitzaketan botikak; eta 2016an Cáritasek 11.140,93 euro bideratu zituela horretara, 2015ean baino % 18 gehiago.

Azken urteotan, Nafarroako Arartekoak zeharka edo zuzenean botikak ordaintzeko zailtasunak dituzten herritarren zenbait kexa jaso ditu: zenbait kexatan medikamentuak ezin ordain ditzaketela adierazi dute

herritarrek, zuzenean; beste batzuetan aldiz, herritarrek adierazi dute zailtasunak dituztela bizi-baldintza batzuei aurre egiteko, horien artean, osasun-gastuei edo botika-gastuei.

Erakunde honek iritzi zion, Konstituzioko 43. artikuluan araututako eskubidea, osasuna babestekoa, bete ahal izateko, pazienteak aukera izan behar duela laguntza medikoa eman diotenean adierazi dizkioten botikak lortzeko; eta, horrenbestez, eskubidea betetzeko aukerak ezin duela egon, besterik gabe, alde aurretiko ekarpen ekonomiko baten mende. Eskubide hori bateragarria izan daiteke pazienteen ekarpen ekonomiko batekin, paziente bakoitzaren errenta-mailaren arabera zehaztutakoarekin, zenbait prestazio farmazeutiko eta laguntzako gorabehera; horrelako formula bat aplikatu beharra dago osasun-sistema publikoaren iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko. Pazienteek egin beharreko ekarpen ekonomikoa erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren irizpidearen mende eta unibertsalitatearen irizpidearen mende egongo da. Horrela, inor ez da geratuko osasun arloko laguntzarik gabe -kasu honetan, prestazio farmazeutikorik gabe- nahikoa baliabide ekonomikorik ez izateagatik. Baina ekarpen ekonomikoa baldin bada, edo izan baldin badaiteke, ezin gaituzko ozto bat pazienteak behar duen medikazioa eskuratzeko orduan, osasuna babesteko eskubide konstituzionala hausten da.

Erakunde honek iritzi dio, era berean, herritarrek nahikoa baliabide ekonomikorik ez baldin badute osasun-administrazioak agindutako medikamentuak eskuratzeko, egoki litzatekeela sistema publikoak (erantzukizun publikoaren printzipioa betetze aldera) zenbait neurri osagarri ezar ditzala (adibidez, laguntza-araubide bat) osasuna babesteko eskubidea bermatzeko.

Horrela bada, gisa horretako beharrak Cáritas bezalako erakunde pribatu baten bitartez asetzeak erakusten zuen, erakunde honen iritziz betiere, gabezia bat zegoela sistema soziosanitario publikoan; eta hura zuzentzen saiatu beharra zegoela.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoak beharrezko iritzi zion Osasun Departamentuari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari iradokitzea modu koordinatuan balioets zezatela zenbait neurri ezartzeko aukera, pertsonak gera ez daitezen, nahikoa baliabide ekonomikorik ez izateagatik, osasun-administrazioak agindutako botikak ezin eskuratuta. Neurri horietako bat izan liteke, esaterako, errenta-mailen araberrako laguntza publikoen araubide bat ezartzea, koordainketa farmazeutikoaren araubidearen osagarri izango litzatekeena.

Osasun kontseilariak idazki bat bidali zuen, bere departamentuak adierazitako arazoari aurre egiteko asmoa zuela esanez, eta gauzatzen ari ziren zenbait izapideren berri eman zuen. Jakinarazi zuen, esaterako, laguntza-deialdi bat onartuko dela laster, helburu izango dutenak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutako tratamendu medikoetatik finantzazio publikoaren mende dauden horietara lotzen laguntzea.

Horregatik, Osasun Departamentuak adierazitakoa kontuan izanik, ikusi baitzuen departamentu horrek egindako iradokizuna kontuan hartu eta zenbait jarduketa egin zituela, Nafarroako Arartekoak amaitutzat jo zuen gai honetan zeukan esku-hartzea, eta jo zuen, era berean, dagoeneko ez zela beharrezkoa Eskubide Sozialetako Departamentuak txostena bidal zezala.

4.3.13. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aldaketak berarekin dakartzan ondorio kaltegarriak.

Administrazio hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Arautzeko iradokizuna.

2017ko apirilean, erakunde honek mendeko pertsona baten senitarteko baten kexa jaso zuen. Antza denez, mendeko pertsona horri 2016ko urrian aitortu zitzaion mendekotasun egoera zuela, baina 2017ko martxoan zendu zen, zegokion mendekotasun-prestazioa jaso gabe.

Aipatutako kexa horretan, interesdunak laguntza eman ziezaiola eskatu zuen, mendekotasun-egoera aitortu zitzaion egunetik ematea ere, prozedura administratiboa izapidetzeko denbora guztian mendeko pertsona hori artatu baitzen, eta horrek kostu bat baitakar.

Pertsona horrek salatu zuen, beraz, mendeko pertsonen familientzat oso kaltegarria dela mendekotasun-ebazpena eman ondoko eraginez aitortzea hari dagozkion laguntzak edo prestazioak, aldeztu aurretik baitaude mendekotasun-egoera horretan, eta zenbait gastu baitakar hura artatzeak. Gainera, bere kasuan, esaterako, laguntza jaso bitartean interesduna zendu zen eta, horrenbestez, ez zuen sekula diru-laguntzarik jaso, nahiz eta, batetik, mendeko pertsona horrek benetan artatzeko beharra izan eta, bestetik, prestazioa emateko prozedura administratiboa ebazteke egon.

Azken kexa hori bada, funtsean, erakunde honetan azken urteotan jaso ditugun beste kexa batzuen antzekoa, edo bat dator horiekin, bederen. Kexa horietan dudan jartzen da egokia ote den mendekotasun-sistemaren prestazioek ondorioak izateko data, ez baitute eraginik ez interesdunek eskaera egin duten egunetik aurrera ez eta mendekotasun-egoera aitortu den egunetik aurrera ere.

Hemen aipatutako auzia Autonomiarako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean araututa dago, honako hau ezarri baitu azken xedapenetako lehenengoko bigarren eta hirugarren zenbakietan:

“2. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak zedarritutako esparruaren baitan, eskaera sartu den egunetik zenbatzen hasita gehienez ere sei hilabeteko epean eman beharko da mendekotasun-prestazioa aitortzeko ebazpena. Hala izango da baita administrazio eskudunak bi prozedura desberdin ezarri baditu ere mendekotasun-egoera aitortzeko eta prestazioak aitortzeko.

3. Mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko prestazioak lortzeko eskubidea prestazioak aitortzeko ebazpena eman den egunetik aurrera sortuko da. Gerta liteke, era berean, prestazioa aitortzeko berariazko ebazpenik eman ez eta jakinarazi ez izana. Horrelakoetan, eskubidea aurkeztu den egunetik sei hilabeteko epea igaro denetik aurrera sortuko da aipatu prestazioak lortzeko eskubidea, betiere ez bagara 18. artikuluan aurreikusitako prestazio ekonomikoez ari, prestazio horiek gehienez ere bi urtez egon baitaitezke etenda arestian aipatutako epeetatik aurrera. Etenaldi hori altxatu egingo da interesduna aipatu prestazio hori jasotzen hasten den unean”.

Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duen otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legeak honako hau arautu du 18.2. artikuluan: “Prestazioa edo zerbitzua aitortzen duen administrazio ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da. Epe hori eskaera aurkezten den egunean hasiko da zenbatzen”. Foru-lege horrek arautu du zenbat iraun behar duen prozedurak, baina ez du arautu aitortutako eskubideak zer egunetik aurrera izango dituen ondorioak.

Beraz, mendekotasunaren arloko indarreko legeetan araututakoaren ondorioz, mendekotasun-sistemaren laguntzen edo prestazioen ondorio-data ez dator bat ez interesdunak eskaera egin duen egunarekin ez eta mendekotasun-egoera aitortu den egunarekin ere; indarreko legeetan ezarri baita prestazioa aitortuko dela, bietako bat, edo prestazioa emateko egintzatik,

hau da, hura emateko ebazpena eman den egunetik, edo sei hilabete igaro direnetik hasierako eskaera egin denetik, baldin eta aipatu egintza hori ez bada epe hori igaro aurretik eman.

Arartekoak iritzi zion aipatutako legezko xedapen horien aplikazioak herritarrentzako kaltegarriak diren edo bidegabeak izan daitezkeen egoerak sortzen dituela. Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen azken xedapenetan lehenengoko hirugarren zenbakian jasotako araua, zehazki, hura aitortzen den egunera arte edo hasierako eskaera egin zenetik sei hilabete igaro arte prestazioa jasoko ez dela arautzen duena, ez zegoen jasota legearen hasierako testuan. Defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzeari buruzko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren bitartez sartu zen aurreikuspen hori. Aurrekontuekin eta ekonomiarekin lotura zuten arrazoiengatik aldatuz zen legea puntu horretan; tartean ez ziren izan, beraz, justizia materialaren arloko edota mendeko pertsonen egoera kontuan izanik laguntzeko irizpideak. Laguntza horien izaera gorabehera, ezerk ez du galarazten laguntzek ondorioak izan ditzatela prozedurak abiarazten direnetik edo mendekotasuna aitortzen denetik aurrera, ezta dagozkion menpekotasun-aitorpenen ondotik eman badira ere. Alde horretatik, administrazio egintzek atzeraeragina izan dezatela onartzen dute administrazio prozedura erkideko arauak, baldin eta, batetik, egintza horiek aldeko ondorioak badituzte eta, bestetik, ondorioak izan behar lituzkeen egunean dagoeneko betetzen baldin badira horiek emateko baldintzak materialak.

Gainera, a posteriori sartutako arau horrek laguntza aitortzen duen ebazpena eman den unean edo, horrelakorik ez bada, sei hilabeteren buruan kokatu duenez laguntzaren sortzapen-data, ez du “zigortu” administrazio-erabakia hartzeko orduan izan litekeen atzerapena (berez, ahalik eta lasterren eman beharko litzateke ebazpena, sei hilabeteko epe hori epe maximoa baita), eta Administrazioaren esku uzten du ondorioetarako data zehazteko ahalmena (sei hilabeteko legezko mugarekin). Arau horrek, azken batean, “mesede” egiten dio ebazpena atzerapenez

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

ematen duen Administrazioari, gutxitzen baitu haren karga ekonomikoa (horrekin ez da aditzera eman nahi praktikan nahita edo maltzurki luzatzen denik dirulaguntza emateko prozedura, baizik eta arauak laguntzen duela era horretako jokabideak egon daitezen).

Kontuan izanik denbora luze igaro dela hizpide dugun araua indarrean sartu zenetik, eta arau horren edukiak mugatu egiten dituela mendekotasuna duten pertsonen eskubideak; arau horrek kontu publikoen egoera izan zuela sorburu; egun, aldatu egin dela kontu horien egoera ekonomikoa; eta, batez ere, arau hori aplikatzeak eragin bidegabea duela mendeko pertsonen gain, Nafarroako Arartekoak egoki iritzi zion Eskubide Sozialen Departamentuari arauzko iradokizun bat egitea, arau-aldaketa susta zezan, zegokion legemailatakoa, mendekotasun-prestazioen ondorio-data bat etor dadin bietatik bat: edo interesdunek eskaera egindako datarekin edo, gutxienez ere, mendekotasun-egoera aitortu eta horrek ondorioak izango dituen datarekin, mendekotasuna duten pertsonen taldearen babes-maila hobetzeko.

Eskubide Sozialetako kontseilariak txosten bat bidali zuen eta hartan adierazi ondo legokeela prestazioen ondorioak berreskuratzea, ondorioak izan ditzaten mendekotasun-egoera balioets dadila eskatu den egunetik eta ez, estatuko araudiak ezarri bezala, eskaera egin denetik sei hilabetera, betiere epe hori igaro ondoren eman baldin bada ebazpena. Hala ere, kontseilariak adierazi zuen, Foru Erkidegoaren egoera ekonomikoa hobera egin badu ere “kontu publikoen egoerak ez duela aukerarik ematen”, oraingoz, hain garrantzi handiko arau-proposamen bat egiteko, “une honetan zenbait behar baitaude eta horietara bideratu beharko lirake, lehentasunez bideratu ere, funts publiko urri horiek”.

Kontseilariak txostenean jakinarazi zuen, era berean, bere departamentua ari zela, dagoeneko, zenbait neurri ezartzen, Arartekoak proposatutakoez bestelakoak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eskubideak bermatzeko. Neurri horietako bi ziren, esaterako,

prestazioak emateko epeak murriztea, eta mendeko pertsonen aldeko zerga-arintzeak onartzea.

Informazio hori aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak ez onartutzat eman zuen eginiko iradokizuna, eta amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.14. Alloko saihebidetako ezbehar-kopurua (NA-122 errepedearena, NA-666rekin gurutzatzen den ingurukoa).

Administrazio hartzailea: Garapen Ekonomikorako Departamentua.

Arloa: Trafikoa.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Hedabideen bitartez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen pertsona bat hil zela NA-122 errepedean, kamioi baten kontra talka egin ondoren Allon, errepede hori NA-666 errepedearekin gurutzatzen den tokitik gertu.

Istripuaren inguruabar zehatzez gain, hedabideek zenbait datu eman zituzten Alloko saihebidetako deritzon bide horren arriskugarritasunari eta ezbehar-kopuruari buruz, eta nabarmendu zuten behar-beharrezkoa litzatekeela neurriak hartzea. Hedabideek agertu zuten Alloko bizilagunak atsekabetuta zeudela istripu asko izan baitirelako herrigunea inguratzen duen eta Sesma-Lodosara eta Arroitzera joateko bidegurutzeak dituen saihebidetako horretan. Aipatu ziren, batez ere, azken urteotan errepede horretan hil diren hiru lagunak, eta izan diren beste hainbat zaurituak.

Argitaratu zen, era berean, Alloko Udalak gaiari buruz eztabaidatu zuela, oso handia baita Sesmako eta Arroitzeko bidegurutzeetan gertatzen diren istripuen kopurua. Alloko alkateak bi biribilgune eraikitzea proposatu zuen, eta adierazi zuen “etenik gabe izaten direla istripuak”, “Sesmako bidegurutzean hiru talka izan direla jada hilabete honetan” eta “premiazkoa dela irtenbide bat ematea”. Jakinarazi zen, era berean, bidea berreraikitzearen aldeko sinadurak hartu zituela

herritar-plataforma batek, eta erabiltzaile asko kexu zirela ez zegoelako nahikoa ikuspenik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen hizpide dugun gaiari buruzko ofiziozko jarduketa bat abiaraztea, eta Garapen Ekonomikorako Departamentuari Alloko saihebidetaren arriskugarritasunari eta ezbehar kopuruari buruzko informazioa eskatzea eta, horrelakorik egonez gero, zer neurri aurreikusi diren errepide horretako segurtasun-baldintzak hobetzeko.

Kontseilariak bidalitako txostenak barruan zeuden, batetik, saihebidetaren inguruan dagoeneko hartu diren neurrien azterlan bat eta, bestetik, neurri horien bitartez lortutako emaitzak. Txostenean adierazi zen, era berean, errepide-tarte horretan gora egin dutela nabarmen, 2017an, alboko zein aurrez aurreko talkek; eta, gertakari horri aurre egiteko asmoz, pixkanaka-pixkanaka egingo zirela jarduketak, irizpide teknikoak eta estatistikoa erabiliz. Horrela bada, lehenik maila ertaineko ekimenak egingo ziren, eta, horiek nahikoak ez baziren, orduan, eta ez lehenago, egingo ziren ekimen garestienak nahiz azpiegituraren ahalmenean eragin handiagoa dutenak. Kontseilariak azaldu zuen irizpide horrek bide ematen zuela eragin handieneko neurriak ez ezartzeko, oso epe laburrean eta une zehatz batean istripuen kopuruak gora egin izanagatik jendartean piztutako alarmen eraginez.

Departamentuak, zehazki, neurri hauek aipatu zituen:

- a Zeharkako alerta-bandak indartzea, trafikoaren higatze-ekintzaren eraginez takoak galtzen baitituzte, eta eragin mekanikoa galtzen baitute.
- b Islatzeko gaitasun handia duten kartel gehiago jartzea NA-122 errepidean, NA-666 errepidearekin eta NA-6340 errepidearekin gurutzatzen den tokitik gertu.
- c Bi neurri horiek gauzatzeko seinale bertikalak eta horizontalak besterik ez dira jarri behar.
- d NA-122 errepideko tartean abiadura zaintzeko kanpaina indartzea. Kontseilariaren txostenean adierazi zen, era berean, abiadura murriztea funtsezkoa dela lehentasunezkoak ez diren errepideetako bidegurutzeetan gelditzeko puntuetako ikuspen-distantziak nahikoak diren edo ez balioesteko. Jarduketa hori gauzatu ahal izateko, trafikoa kontrolatzeko eta zaintzeko ardura duten unitateen laguntza behar da, hau da, Foruzaingoarena eta Guardia Zibileko Zirkulazioko Taldearena.
- e Saihebidetaren beraren lotunera eramatea Sesmatik datorren errepidean ezkerretara bira emateko dauden bideak eta bidegurutzeak, 900 metro eskasetara baitago, hego-ekialdera joanda. Lotune horretan, maila desberdinetan gurutzatuko lirake errepideak eta, behar duenak, kontrako noranzkoan hartuko NA-122 errepidea. Txostenean adierazi da ekintza hori materializatuta zegoela lehenik ere, "gomendagarri" gisa. Aztertze bidean da ekintzak derrigorrezko behar duen edo ez. Hala balitz, seinale bertikalak eta horizontalak jarri beharko lirake, baina 2.000 metro inguru gehiago egin beharko lituzkete NA-666 errepidetik Alloko saihebidera sartu eta Alloko herrigunera doazen ibilgailuek nahiz Lizarrarantz joanda NA-122 errepidetik sarbidea duten herrietara doazenek.
- f NA-122 errepidearen ezker aldean dagoen landaredia kontrolatzea, ikuspena murrizten baitu saihebidetaren erdian dauden bi bidegurutzeen inguruan.
- g Aztertzea ea posible litzatekeen egungo bidegurutze irekiak biribilgune itxi bihurtzea. Biribilgune horiek 25 metroko barne-diametroa izan lezakete eta 8 metro zabaleko zirkulazio-eraztunak, errepidea zabaldu behar izanik gabe. Txostenean adierazi zen, era berean, ekintza horren kostua oso handia izango litzatekeela, proiektua eta obra zibila egin beharko lirakekeela, baina, agian, desjabetze-izapiderik egin gabe gauza zitekeela.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Ikusita zer neurri iragarri zituen Garapen Ekonomikorako Departamentuak hizpide dugun errepedeko segurtasun-baldintzak hobetzeko, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.15. Desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko beharretik salbuestea.

Administrazio hartzailea: Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.

Arloa: Ogasuna.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

Azken urteotan, desgaitasunak dituzten zenbait herritarrek erakunde honetara jo dute, trakzio mekanikoko ibilgailuen udal-zergaren salbuespena ukatu dietelako kexatzera. Aztertu ditugun kasuetan, ukitutako tokiko administrazioek salbuespena ukatu zuten, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1 d) artikulua aplikatu zutelako. Arauan, honako hau aurreikusi da trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzetik salbuespena daudenei buruz:

“Baliourrituen edo bereziki egokituriko autoak, baldin behar den baimenaren jabe diren baliourrituenak badira eta haiek bakarrik erabiltzekoak, 12 zaldi fiskaletik beheitikoak badira. Salbuespenaren muga baliourritu bakoitzarentzat ibilgailu bat izanen da”.

Hau da, ibilgailuak “baliourrituen edo bereziki egokituriko autoak” izan daitezela eskatzen da, “baldin behar den baimenaren jabe diren baliourrituenak badira”, “haiek bakarrik erabiltzekoak”, eta “12 zaldi fiskaletik beheitikoak badira”.

Erakunde honetan aurkeztutako kexek agerian jartzen zuten araudia zeinen murriztailea den, ezartzen dituen baldintzak direla eta, batik bat aurreko artikulua

baliokide den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren artikuluekin alderatuz gero (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duena).

Estatuko arau horren 93.1 e) artikuluan ezartzen denez, hauek dira salbuesteko baldintzak:

“Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko II. eranskineko A letran aipatzen den mugikortasun murriztua daukaten pertsonentzako ibilgailuak. Erregelamendua abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

Halaber, salbuetsirik daude minusbaliatuen izenean matrikulaturiko ibilgailuak, haiek ez beste inork erabiltzekoak badira. Salbuespen hau aplikatuko zaie, inguruabar hauek irauten duten bitartean, bai ezgaituek gidatutako ibilgailuei bai haiek garraiatzeko ibilgailuei ere.

Aurreko bi lerroketan aurreikusitako salbuespenak ezin izanen zaizkie aplikatu haien onuradunak diren subjektu pasiboak, aldi berean ibilgailu bat baino gehiagorengatik”.

Hau da, estatu-mailako arauetan salbuespena ez da ibilgailu berezietara mugatu (nahikoa da desgaitasunak dituzten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak izatea, eta haiek ez beste inork erabiltzekoak izatea) eta, aipatu foru-legean xedatutakoaz bestera, ez da baldintza gisa jarri potentzia fiskalaren muga.

Gai zehatz honekin lotuta, erakunde honek honako iradokizun hau egin zion Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari, 2016ko otsailaren 4ko idazkiaren bitartez:

“Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari iradokitzea aldatzeko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1.d) artikulua, honela, zehazki:

- a Lege-arauan gaztelaniaz “inválidos” eta “minusválidos” direlakoei buruz egiten diren erreferentziak aldatzea, iraingarriak izan daitezkeelako.
- b Orobat izatea zerga-salbuespena desgaitasunak dituzten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuek, haiek bakarrik erabiltzekoek (hala desgaituek gidatzen dituzten ibilgailuek, nola desgaituak garraiatzeko ibilgailuek), ibilgailu bereziak izan edo ez.
- c Gaur egun legean jasota dagoen zerga-potentziaren muga ezabatu edo aldatu aztertzea (foru-legean aipatzen diren ibilgailu bereziei dagokienez)“.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak jakinarazi zuen iradokizuna onartzen zuela eta, horrenbestez, erakunde honek bukatutzat jo zituen bere jardunak.

Nolanahi ere, 2017ko apirilean, gai honen gain interesatutako herritar baten idazkia jaso zen, bera bizi den tokiko udalak ukatu egin baitzion salbuespena, indarreko foru-legeari helduz. Hori ikusita, Nafarroako Arartekoak txostena egin zezala eskatu zion Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari, hizpide dugun gaiaren egoerari buruz.

Informazio-eskaera horri erantzunez, aipatu departamentu horren txostena jaso zuen erakunde honek 2017ko maiatzaren 9an, departamentu horretako kontseilariak izenpetua. Txosten horretan hau zegoen idatzita:

“Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi dit errepikatu egin dugula duela zenbait hilabete Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari egindako proposamena, eta departamentu horrek adierazi digu zailtasun teknikoak ikusi dituztela balizko

salbuespenaren eremua behar bezala zehazteko. Nolanahi ere, gaia aztertze bidean da, eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak proposamena helaraziko dio, berriz ere, aipatu departamentuari”.

Informazio hori ikusita, eta kontuan izanik ez zela jardun erakunde honek iradokitako aldaketa legislatiboa aintzat hartuta, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari informazioa eskatu zion erakunde honek.

Emandako txostenean, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak adierazi zuen bera ez zegoela tokiko zerga baten gain unean uneko aldaketak egitearen alde, aukera-irizpideetan oinarrituta. Departamentu horrek egokiago ikusten zuen dagokion proiektu normatiboan egin beharko lirakeela tokiko zerga-sisteman egin beharreko aldaketa guztiak. Proiektu normatiboan arautu beharko litzateke, ikuspegi zabal batez arautu ere, Nafarroako Gobernuak bultzatutako Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke prozesuaren ondorioz sortuko den tokiko ogasunak finantzatzeko araubide berria.

Jasotako informazioa ikusita, Nafarroako Arartekoak iradokizuna onartzen ez zela jo zuen, eta amaitutzat jo zituen bere jarduketak.

4.3.16. Nafarroako Elizbarrutiko Cáritasek gizarteratzeke errentaren edo errenta bermatuaren aurrerapenak emateko sistema.

Administrazio hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioa.

Nafarroako Arartekoak komunikabideen bitartez jakin zuen Nafarroako Elizbarrutiko Cáritasek errenta bermatuaren aurrerapenak egiten jarraitzen zuela.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Hedabideetan argitaratu zenaren arabera, Cáritasek 300.000 euro aurreratu zizkien, dagoeneko, errenta bermatua jasotzen duten pertsoneri; eta kopuru hori zen, hain zuzen ere, erakunde horrek aurrerapen horiek egiteko finkatua zuen gehienezko kopurua.

Cáritaseko zuzendariak egindako adierazpenak aipatu ziren. Haren arabera, "neurri batzuk inplementatzeko asmoa dago" eta "urratsak ematen" ari dira "aurrerapen" horiekin bukatzeko, baina "gaur gaurkoz, oraindik ez dute funtzionatzen".

Gai horren beraren inguruan, Nafarroako Arartekoak honako gomendio hau egin zion 2016an Eskubide Sozialetako Departamentuari:

"Eskubide Sozialetako Departamentuari gomendatzen diot egoki diren neurri guztiak har ditzala, gizarteratzeko errenta edo errenta bermatua Cáritasen bitartez aurreratzeko sistema desagerrarazteko, erantzukizun publikoaren printzipioari jarraituz.

Egoera hori kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak txostena eskatu zion Eskubide Sozialetako Departamentuari.

Informazio-eskaera horri erantzunez, errenta bermatuak ebazteko eta ordaintzeko prozedura bizkortzea xede duten neurri hauen berri eman zuen Eskubide Sozialetako kontseilariak: a) errentak berritzeko prozedura automatizatu bat gaitzea; horrela, errenta berritzeko eskaeretatik baldintza formal eta eduki ekonomikoko baldintza jakin batzuk betetzen dituzten horiek ematen eta ordaintzen dira prestazioa bukatu eta hurrengo hilabetean; b) eskabideak balioesteko ardura duen pertsonal teknikoaren espezializazioa; c) ordaintza-sistema berrikustea, balioetsi diren hilabetearen barruan ordain daitezen balioetsitako espediente gehienak.

Era berean, eskubide Sozialetako kontseilariak adierazi zuen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei jakinarazi zuela 2017ko ekainaren 29an 12:00etan bukatu egingo zela Cáritasen aurrerapen-sistema.

Txosten horren edukia ikusita eta, zehazki, Cáritasen aurrerapen-sistema bukatzen zela ikusita, Nafarroako Arartekoak bukatutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.17. Liburutegi-zerbitzu publikoaren irekiera-orduen udaldiko murrizketak.

Administrazio hartzaileak: Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Iruñeko Udala.

Arloa: Kultura. Zerbitzu publikoak.

Jarduketa: Iradokizuna.

Azken urteotan, erakunde honetan kexa eta kontsulta batzuk aurkeztu dira, lotura dutenak Iruñeko liburutegi publikoen irekiera-orduen udaldiko murrizketekin.

Zehazki, 2016an aurkeztutako kexa batean aipatu zen uztailan eta abuztuan liburutegi guztiak itxita daudela arratsaldean (Nafarroako Unibertsitate Publikoaren liburutegiak abuztuaren 22ra arte). Interesdunak argumentatu zuen udan Administrazio Publikoak ohiko ordutegiei eusten diela bere departamentu eta zerbitzu guztietan, zaindariaren jaietan izan ezik; baina liburutegien ordutegia erdira murrizten dela bi hilabetez.

2017an, uda iritsi aurretik, gaiari berriz ere heldu zion herritar batek, adierazi baitzuen ez zegoela ados irizpide horrekin, eta azaldu zuen pertsona-talde batek gai honen inguruko eskaera bat egin nahi zela gaien eskumena duten administrazioei.

Nafarroako liburutegi-sistema arautzen duen azaroaren 19ko 22/2002 Foru Legearen zioen azalpenean ondoko hau adierazi da:

"Gizarte demokratiko baten askatasuna, garapena eta aurrerapena erdiesteko bidea herritarrak beren eskubideez baliatzen hezteko eta informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratzen laguntzea da, nork bere erabakiak har

ditzan eta gizartearen bizitzan paper aktiboa izan dezan". Informazioa izatea eta mendean edukitzea integrazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako faktorea da. Beraz, komeni da antolatzea eta bermatzea herritarrek informazioa libreki eskuratu ahal izango dutela.

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (Unesco) iritzia da liburutegi publikoa hezkuntza, kultura eta informaziorako indar bizia dela, bakea, ongizatea eta kulturen arteko elkarrizketa lortzeko eragile funtsezkoa. Unescok 1994an liburutegi publikoei buruz emaniko manifestuak ezartzen du liburutegi publikoa erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala dela.

Liburutegi publikoaren lehentasunezko lanetako bat da herritarrei eskaintzea ezinbesteko eta oinarrizko informazioa, hura guztien eskura jarriz, edozein delarik ere prestakuntza maila, gizarte egoera edo bizitokia. Horrela, liburutegia lagungarri gertatzen da informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena eraikitzeke bidean".

Nafarroako Arartekoak iritzi zion prestakuntzara, kulturara eta ikerketara iristea, administrazio publikoek babestu beharreko ondasun juridikoa den aldetik, are beharrezkoagoa dela, zenbait forotan nabarmendu den moduan, egun bizi dugun testuinguru sozioekonomikoaren modukoetan, oraindik ere oso handia baita langabezia-tasa, eta gazteei eragiten baitie bereziki.

Liburutegi publikoak irekitzeko egunei eta orduetarako dagokienez, horien titularrak diren erakundeek dute horiek arautzeko eskumena, eta tarte handia dute horiek zehazteko. Tarte hori gorabehera, eta arestian aipatutako esparru normatiboaren eta testuinguruaren barruan betiere, erakunde honi arrazoizkoa iruditu zitzaion herritarrek egindako eskaera, hau da, udaldian, urteko beste sasoietan zerbitzuak duen intentsitate

murriz badaiteke ere, Iruñean liburutegiren bat irekita egotea.

Horiek horrela, Nafarroako Arartekoak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Iruñeko Udalari iradoki zien balioets zezatela, modu koordinatuan eta egoki iritziz gero betiere, haiek kudeatzen dituzten liburutegien ordutegiak handitzeko aukera, edo liburutegi horietako batena, udan ere zabalik egon daitezkeen arratsalde, eta erabakitzen duten denboraz betiere.

Iradozikun horri erantzunez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak azaldu zuen bere eskumeneko liburutegiak etenik gabeko ordutegia zuela 08:00etatik 21:30era, bi garai hauetan izan ezik: ekainaren 14tik abuztuaren 19ra, aldi horretan 08:00etatik 15:30era baitago zabalik; eta azterketa-garaian, aldi horretan 08:00etatik 23:00etara baitago zabalik. Errektorearen iritziz, ordutegi hori nahikoa eta sobera zabala da unibertsitateko ikasleen beharrak ez ezik Nafarroako gizarte osoarenak ere asetzeko.

Iruñeko Udalak, bere aldetik, adierazi zuen Udalarentzat berarentzat eta Nafarroako Gobernuarentzat oso zaila dela bateratzea, alde batetik, liburutegi publikoetako zerbitzuak emateko dituzten giza baliabideak eta, bestetik, liburutegi publikoetako langileen lan- eskubideak (zehazki, oporrak izateko haien eskubidea). Hala ere, aurkeztutako txosten hartan Udalak ziurtatu zuen liburutegiak oinarrizko zerbitzu bat direlako uste sendoa duela eta, horrenbestez, hizpide dugun zerbitzu hori ahalik eta ordutegirik zabalenetan emateko asmoa zuela. Horrela bada, Udalak baieztatu zuen hitzarmenak berrikusten eta eguneratzen ari zela, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, zerbitzu hobea eta egokiagoa eskaini ahal izateko.

Azkenik, Iruñeko Udalak emandako azalpenen antzekoak eman zituen Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak, esan baitzuen lanean ari zela liburutegiko zerbitzuak hobetzeko eta indartzeko, eta toki-administrazioekin, udalekin eta kontzejuekin elkarlanean eta erantzunkideki jarduteko asmoa zuela.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Hori guztia hitzarmenak tresna juridikotzat hartuta. Adierazi zuen, era berean, aurrera pausoak ematen ari zirela hitzarmen horiek berrikusteko eta eguneratzeko prozesuan.

Bidalitako txostenak ikusita, eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Iruñeko Udalak erakunde honek egindako iradokizuna kontuan izanik neurriak hartu dituztela ezin iritzita, Nafarroako Arartekoak bukatutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.18. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Argibide Fundazioaren arteko kontratua bukatzea.

Administrazio hartzailea: Osasun Departamentua

Arloa: Osasungintza.

Jarduketa: Iradokizuna.

2017ko ekainean, Nafarroako Arartekoak Argibide Fundazioaren ordezkari-talde bat hartu zuen. Ordezkaritza horrek bere kezka azaldu zion Arartekoari, uste baitzuen 2017ko abenduaren 31n bukatu egingo zela fundazioak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin 1986. urtetik izan duen lankidetzaharremana, kontratuen eta hitzarmenen bitartez kudeatu izan baitu, orain artean, Burlatako Buru Osasunerako Zentroko, Eguneko Ospitale Psikiatrikoa-l zentroko eta beste osasun-zentro batzuetako laguntza-zerbitzua.

Ordezkaritza-taldeak azaldu zuen, batetik, zein izan zen erakundearen jatorria (1976. urtean eratu baitzen, Nafarroan oraindik ere artatze mentala oso garatuta ez zegoen garai batean), zein zen haren izaera (irabazi-asmorik gabeko ekimen soziala), eta zein izan den fundazioaren egitekoa Nafarroan osasun mentala artatzearen arloan egundaino izan den garapenean. Fundazioak izan duen egitekotik azpimarra daiteke, batetik, fundazioak Nafarroan osasun mentala artatzeko arloa bultzatu duela eta, bestetik, Administrazio

Publikoarekin izan duen lankidetzaharremana arina, erraza eta etenik gabea izan dela hainbat hamarkadatan.

Argibide Fundazioak lankidetzaharremana du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin 1986. urtetik, hainbat kontratu esleitu dizkio, betiere kontratuak legez lizitatzeko prozedurak bete ondoren. Azken esleitutako kontratua, esaterako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 11ko 152/2014 Ebazpenaren bitartez esleitu zioten. Horiek horrela, Argibide Fundazioak bere kezka azaldu zion erakunde honi, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak jakinarazi baitzion kontratu hori bukatu nahi zuela, zerbitzuak "barneratzeko"; Administrazio Publikoak zuzenean kudeatu nahi baititu zerbitzu horiek.

Fundazioaren iritziz erabaki horrek zenbait eragozpen zituen:

- a Erabaki horrek kaltea ekar liezaieke Argibide Fundazioak kudeatutako zerbitzu publikoa erabiltzen duten pazienteei. Izan ere, osasun mentalaren arloan nabarmenki, oso garrantzitsua da medikuaren eta pazientearen artean sortzen den konfiantzazko harremana, eta, horrenbestez, funtsezkoa da ahalik eta jarraipenik handiena ematea laguntzari (terapiak, terapia horiek praktikan jartzen dituzten profesionalen taldeak, eta abar). Horrela bada, jarraitutasun hori eteteak eragin oso negatiboa izango luke pertsona artatuen gain. Fundazioak profesional-talde egokia eta egonkorra du; paziente artatuak hartara moldatu dira; eta zerbitzuaren adierazleak balioespenak erakusten du zerbitzua kalitatezkoa eta eraginkorra dela; halaxe egiaztatu baita, behinik behin, azken urte hauetan guztietan.
- b Erabaki horrek kalte handia ekar liezaieke zentroko profesionalari, arriskuan jar baititzake haien lanpostuak, urteak eta

urteak etenik gabe Administrazioaren esanetara lanean egon ondoren.

- c Erabaki horrek desagertzeko arriskuan jarriko luke erakundea, edo, haren ondorioz, erakundeak oso zaila izango luke bizirik irautea, hainbat hamarkadatan lan handia egin ondoren, bai prebentzioaren arloan, bai eta irakaskuntzaren arloan, ikerketaren arloan, herritarrak sentikortzeko arloan, botere publikoekin elkarlanean aritzeko arloan eta, azken batean, nafarren osasun mentala zaintzeko arloan ere.

Nafarroako Arartekoak legezkotzat eta arrazoizkotzat jo zituen Argibide Fundazioak agertutako kezkak, eta iritzizion batera gertatzen diren legezko eskubide eta interes guztiak bateragarri egin beharko lituzkeela fundazioaren gain eragina duen edozer erabakik, eta zaindu beharko litzatekeela, bereziki, pazienteek kalitatezko laguntza egokia izateko duten eskubidea.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak aintzat hartu du ekimen pribatuak osasunaren arloan izan duen garrantzia, eta harekin elkarlanean aritzeko araubide bat ezarri du (zehazki, lege horren IX. tituluari, ekimen pribatuaren lankidetzari buruzkoan, osasun-zerbitzuak emateko hitzarmenen figura tradizionala jaso da).

Foru-lege horrek, informazioa emateko osasun-sistemaren printzipioen artean, honako hauek ezarri ditu: "osasun-baliabide publiko eta hitzarmen bidez lotutako baliabide pribatu guztiak erabiltzea" [3. artikuluko h) letra], eta "Administrazio Publikoak osasun baliabideen plangintza egitea, mediku-gaixo harremanak begiratzu" [4. artikuluko j) letra].

Beraz, foru-legeetan jasota daude ekimen publikoen eta pribatuen arteko elkarlanerako printzipioak, eta herritarrak zein pazienteak artatzeko ahalik eta biderik onenak bilatzeko printzipioak, herritarrak eta pazienteak baitira sistemaren ardatz nagusia.

Ofiziozko jarduketari hasiera eman zitzaion unean, osasunaren eta zerbitzuen arloetako hitzarmen sozialak arautzeko Foru Legearen aurreproiektua izapidetzen ari zen Nafarroako Gobernuak. Aurreproiektu horretako zioen azalpenen atalean adierazitakoa irakurri ondoriozta daiteke indartu egin nahi dela osasun-arloan jarduten duten irabazi asmorik gabeko ekimen sozialeko erakundeen babesak, eta gizarte-zerbitzuena. Zaindu beharreko mekanismo bat da hori, Administrazioak zuzenean ematen dituen zerbitzuen osagarri baita, eta aukera ematen baitie herritarrei gai publikoetan parte hartzeko (interesdunen aldetik modu arruntean sortzen diren ekimenak baitira; interesdunok, laguntza sozial edo osasun-arloko laguntza-sistema publikoak zituen edo izan ditzakeen hutsuneak edo eskasiak estaltzeko asmoz, antolatzearen ondorioz sortutakoak).

Era berean, arestian aipatutako hitzarmen sozialen foru-legearen aurreproiektuak aurreikusituen zuen, bere xedapen iragankor bakarrean, zerbitzuen zeharkako kudeaketari buruzko azterlan bat egitea, onartutako foru-legea indarrean sartu eta bi urteko epearen barruan egin beharrekoa, Nafarroako Parlamentuari aurkezteko.

Horregatik, Nafarroako Arartekoak egoki iritzizion Osasun Departamentuari bi iradokizun hauek egitea: a) berriz azter zezala gaur egun Argibide Fundazioarekin (Burlatako Buru Osasun Zentroa eta Osasun Mentaleko Eguneko Ospitalea) egun duen lankidetzaharremana azkentzeko erabakia, eta egoki diren neurriak har ditzala eten ez daitezen ez harreman hori ez eta fundazioak erabiltzaileei ematen dien laguntza ere; eta b) hartuko den erabakia oinarri izan dezala zerbitzuen zeharkako kudeaketari buruzko azterlana, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan hizpide dugun fundazioaren moduko ekimen sozialekin egiten diren hitzarmen sozialak arautzen dituen Foru Legearen aurreikusitakoa.

Osasun Departamentuak idazki bat igorri zuen, honako hau esaten zuena:

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez zuela erabaki Argibide Fundazioarekin duen harremana azkentzea, baizik eta harreman hori bukatu egingo zela egun indarrean dagoen eta aipatu erakunde horrekin egindako kontratuak izan dezakeen azken luzapena bukatzen denean.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, zerbitzu publikoak emateko bere plangintza-eginkizunak betez, eta aukeran dituen hautabideak aztertutik, kudeaketa zuzenaren alde egin zuela, honako hauek oinarri hartuta: akordio programatikoa; laguntza-hitzarmenen subsidiariorotasunaren printzipioa; eta bere gaitasuna, gaur egun ematen diren zerbitzuen jarraitutasuna eta kalitatea bermatzeko.
- Une horretan ez zegoela prozedura legalik Argibide Fundazioak zerbitzu horiek ematen jarrai zezala berma zezakeenik.
- Hartutako erabakiaren ardatzak izan zirela, batetik, akordio programatikoa eta, bestetik, bideragarria zela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren berezko baliabideekin ematea laguntza hori; are, egun, zeharkako kudeaketa baino berme handiagoz eman zitekeela, bai alderdi ekonomikoa kontuan izanik, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak antolakuntzaren arloan duen gaitasuna eta konpetentzia gogoan hartuta ere.

Hortaz, ikusita Departamentuak ezezkoa eman ziola erakunde honek egindako iradokizunari, egindako iradokizuna onartu ez zela jo zuen Nafarroako Arartekoak, eta bukatutzat eman zuen jarduketa.

4.3.19. Nafarroako Gobernuak espetxe-gaietako zenbait eskumen bere gain hartzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 58.1. artikuluko a) letran xedatutakoa betetzeko.

Administrazio hartzailea: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Herritarren segurtasuna.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

2017ko uztailean, Nafarroako Arartekoak Salhaketa Nafarroa Elkarteko ordezkari-talde bat hartu zuen. Hitzordu hartan, elkarteak txosten bat aurkeztu zuen, berak egina, Nafarroako Foru Erkidegoak espetxe-gaietan eskumenak bereganatzeari buruzkoa (Nafarroako Gobernuak diruz lagundu zuen proiektu hori).

Salhaketa Elkartearen txostenean deskribatzen zen zer bilakaera historiko izan duten espetxe-gaietako eskumenek Nafarroan; eta aipatzen ziren, bereziki, batetik, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetako eskumenak eta, bestetik, Iruñeko espetxearen egoera.

Txostenean zenbait ondorio atera eta proposamen egin ziren. Adierazi zen, labur esanda, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioak eskumen gehiago hartu behar zituzkeela espetxe-gaietan, osorik edo, subsidiariorotasunez, partzialki (osasun-arloan, hezkuntzaren arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan), eta hori bultzatu beharra zegoela. Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 58.1. artikuluko a) letrak xedatu du "Nafarroari dagokiola Estatuko legeria betearaztea espetxe-gaietan".

Iaz, hots, 2016an, zenbait hedabidetan argitaratu zen moduan, Nafarroako Gobernuak lortu nahi du espetxe-gaietako eskumenak Nafarroako Foru Erkidegoaren esku gera daitezela.

Erakunde honek jo zuen Nafarroako Gobernuaren asmo horrek bete egingo zuela Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoa, eta, horrenbestez, egoki iritzi zion Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eskatzea hizpide dugun gaiari buruzko txosten bat egitea, eta hartan zehatz zezala departamentuak zer neurri hartuko zituen, aipatu Lege Organikoko 58.1. artikuluko a) letran Nafarroak espetxe-gaietan Estatuko legeria betearazteko eskumenari buruz xedatutakoa betearaz-teko eta gauzatzeko.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak erantzun zuen bere departamentuari zela, jada, eskumenak hartzeko prozesua bultzatzen, espedientea ireki zela eta, hartan, Salhaketa Nafarroa Elkartearen txostena sartu zela. Jakinarazi zuen, era berean, Departamentua txosten juridiko bat egiten ari zela, eta txosten hori bukatzean, txosten ekonomiko bat egingo zuela, eta ekin egingo ziola espetxe-gaietako eskumenak osorik edo, subsidiaritasunez, partzialki hartzeko prozesuari, Transferentzien Batzordearen baitan.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak adierazitakoaren arabera, argi zegoen zenbait neurri hartzen ari zirela aipatu eskumenak hartzeko. Beraz, hori ikusita, Nafarroako Arartekoak bukatutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.20. "Aralar" Nafarroako Ludopaten Elkartea.

Administrazio hartzailleak: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Osasun Departamentua.

Arloa: Osasungintza.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna. Arautzeko iradokizuna.

2017ko abuztuan, "Aralar" Nafarroako Ludopaten Elkarteko ordezkarien talde bat hartu zuen erakunde honek. Hitzordu hartan, elkarteko ordezkariak haren

kezka agertu zuten lau gai hauen inguruan: Nafarroan ludopatiak erasandako pertsonen kopuruak izan duen gorakada; gero eta gazteagoak direla menpekotasun horretan erortzen diren pertsonetako asko; laguntza-sistema publikoan gabeziak daudela, kolektibo horretako pertsonak artatzeari dagokionez; eta elkarteak egonkortasuna behar duela behar bezalako laguntza eman ahal izateko.

Erakunde honek elkarte horretako ordezkariekin izan zuen bileran, bertaratuek Administrazio publikoari zuzendutako zenbait auzi eta eskaera agertu zituzten:

- Adierazi zuten, egoki litzatekeela, bingoetan eta kasinoetan egiten den moduan, apustuak egiteko lokaletan eta joko-aretoetan ere pertsonen sarbidea kontrolatzea, Nortasun Agiri Nazionala eskatuta, eta sartzeari galaraz liezaiekeela alde aurretik joko-jardueran aritu nahi ez dutela adierazi duten pertsonen; hau da, agintaritzaren eskudunaren aurrean, joko-lokaletan onar ez ditzatela eskatu dutenei.
- Jokoaren Mahaia biltzeko deialdia egitea eskatu zuten ordezkariak, lehenbailehen bil zedin, foro horretan adierazi nahi baitzuten, Administrazio publikoaren aurrean, nola ikusten duten haiek arazo horren egungo errealitatea, eta zer proposamen dituzten kolektibo horri ematen zaion laguntza hobetzeko.
- Adierazi zuten oso kezkatuta zeudela elkartearen egoera ekonomikoarekin, larria eta zalantzazkoa baita, batez ere kontuan hartuta ludopatia duten pertsonen kolektiboa gero eta laguntza gehiago eskatzen ari dela. Azaldu zuten, Osasun Departamentuak diru-laguntza bat ematen ziela urtero, organo administratibo horrek egindako diru-laguntza deialdien bitartez. Ordezkariak adierazi zuten, diru-laguntza horren zenbatekoa eskasa da, ludopatia duten pertsonen laguntza-beharra ikusita, eta, gainera, urte jakin baterako diru-

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

laguntzak dira. Hortaz, oso zaila da prebentzio-programa eta tratamendu egoki, nahikoa eta egonkorrak planifikatzea eta exekutatzea. Aipatu zuten bazekitela une honetan izapidetze bidean zegoela osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloko hitzarmenei buruzko foru-lege bat, eta lege horren helburua zela Administrazio Publikoaren eta Aralar Elkartearen moduko erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea. Haien ustez, aukera ona izan zitekeen jasotzen duten laguntza publikoa berriz diseinatzeke eta hobetzeko.

Nafarroako Arartekoak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eta Osasun Departamentuari idatzi bat igorri zien, suertatutako auzi horri buruzko txosten bat egiteko eskatuz.

Bi departamentuen txostenak jaso ondoren, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen iradokizun hauek egitea:

- d a) Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradokitzea bultzatzea zezala Jokoari buruzko 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, 32.4. artikulua joko-aretoak behartu ditzan horietarako sarbidea kontrolatzea, kasinoetan, bingoetan eta apustu-dendetan egiten den baldintza berdinetan.
- e b) Osasun Departamentuari iradokitzea azter dezala ea zer baliabide duen edo zer baliabide izan nahiko lituzkeen ludopatiaren ondorioz sortutako arazoei erantzuteko –ludopatia pairatzen duten pertsonenak zein pertsona horien senideenak– eta arazo horiek prebenitzeko, eta ea baliabide horiek egokiak edo nahikoak diren. Iradokitzea, era berean, egonkortu eta zaindu dezala hogeitaz “Aralar” Nafarroako Ludopaten Elkartearekin izan duen etenik gabeko elkarlana, eta elkarre horren gizarte-funtzioa.

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak txosten bat igorri zuen, eta hartan adierazi zuen iradokitako neurria ez zela egokia,

batetik, ez ziolako konponbiderik ematen azaldutako arazoari, eta, bestetik, eragin zezakeelako jokozaleak ostalaritzako establezimenduetara joatea, eta lokal horietan txikiagoa dela kontrol-maila. Horrez gain, departamentuak adierazi zuen, une honetan ez dela egokia era horretako neurriak proposatzea, dagoeneko zenbait hautabide aztertzen eta eztabaidatzen ari direlako, bai estatu-mailan bai eta autonomia-mailan ere.

Erantzun hori ikusita, Nafarroako Arartekoak egindako iradokizuna onartu ez zutela jo zuen.

Osasun Departamentuak, bere aldetik, txosten bat igorri zuen. Hartan adierazi zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bazituela nahikoa giza-baliabide eta baliabide material ludopatia duten pertsonak artatu ahal izateko, eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak landu egiten duela menpekotasunak prebenitzeko arloa. Adierazi zuen, era berean, paziente-elkartekin elkarlanean aritzearen aldeko apustua egiten zutela eta, horregatik, nabarmen igo zela pazienteen elkarre zuzendutako diru-laguntzen saila.

Osasun Departamentuak pazienteen elkarrekin elkarlanean jarraitu nahi duela ikusita, Nafarroako Arartekoak jo zuen departamentu horrek onartu egiten zuela iradokizuna, eta bukatutzat eman zituen bere jarduketak.

4.3.21. Nafarroako tokiko polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsari-araubidea ez da egokitu martxoaren 23ko Nafarroako polizia buruzko 8/2007 Foru Legean jasotako aurreikuspenetara, foru-lege hori 2015ean eta geroago ere aldatu ondoren.

Administrazio hartzailea: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Funtzio publikoa.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

2017. urtearen amaieran, Nafarroako Arartekoak zenbait kexa jaso ditu toki-erakunde desberdinen mendekoak diren tokiko polizia-kidegoetako agenteen eta laguntzaileen ordezkarien aldetik (Cintruenigokoak, Zangozakoak eta Buñuelgoak), eta Langileen Batasun Orokorreko (UGT) Zerbitzu Publikoen Federazioko ordezkariak baten aldetik.

Kexa horietan azaltzen da Nafarroako tokiko polizia-kidegoetako kideei ez zaizkiela ordaindu apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legean aurreikusitako ordainsariak; foru-lege horren bitartez Nafarroako polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatu zen, eta azken horren bitartez, era berean, abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legea. Horren zergatia litzateke aipatutako tokiko polizia-kidego horietako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea ez direla egokitu Nafarroako polizia buruzko foru-legean jasotako irizpideetara, 2016ko urriaren datarekin.

Berriki, Nafarroako Administrazio Auzitegiak tokiko polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea Nafarroako polizia buruzko foru-legean jasotako aurreikuspen berrietara egokituta ez egoteak zuen eraginari buruz erabaki bat hartua zuen. Horrela, martxoaren 13ko 691/2017 Ebazpenean (haren zuzenbide-oinarriak apirilaren 4ko 911/2017 eta ekainaren 23ko 1677/2017 ebazpenetan ere azaltzen dira), Nafarroako Administrazio Auzitegiak honako hau adierazi zuen:

"2015eko apirilaren 16an indarrean sartu zen 15/2015 Foru Legearen bitartez, Nafarroako polizia buruzko foru-legean ordainsariak arautzen dituzten 50. eta 51. artikulua berridatzi ziren. Baina Nafarroako polizia buruzko foru-legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak, 15/205 Foru Legeak idatzitakoaren arabera, xedatzen du:

Nafarroako gainerako polizia-kidegoak xedapen gehigarri honetan ezartzen duenak arautuko ditu.

Nafarroako polizia-kidego bakoitzean, gaur egun kidego horretarako kategoria desberdinetarako dauden osagarrien zenbateko osoa banatu egin behar da, foru-lege honetan onetsitako ordainsari-sistemari jarraikiz, administrazio bakoitzaren aurrekontuei ordainsarien kontusailaren igoerarik ekarri gabe, eta foru-lege honen 51.2 artikuluan Foruzaingoarentzat ezartzen diren jaso beharreko gutxieneko lanpostuko osagarriak helburutzat hartuz, kategoria bakoitzean.

Nafarroako polizia-kidegoetan banaketa hori aplikatuz sortzen den lanpostuko osagarri gehienez ere % 4ko jaitsiera aplikatu ahal izanen da, Nafarroako polizia-kidego guztientzat osagarri berariazkoa oraingo % 41etik % 45era igotzearen ondorioz.

51.2 artikuluan aipatzen den gehieneko aldea, % 7koa, sindikatuetako ordezkariekin negoziatuko da, eta lanpostu bakoitzari eta haren berezitasunei buruzko azterlan bat egin ondoren ezarriko da, lanpostu horretara egokituta. Egun, ezin izanen dute ekarri zenbateko osoaren handitzea".

Horrez gain, 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrenak gaineratzen zuen "Nafarroako Gobernuak foru-lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara egokituko dituela Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea, 2016ko urtarrilaren 1eko datarekin".

Hori horrela, beraz, ordainsarien egokitzapena baldintzatuta dago, eta Nafarroako Gobernuak ezarritako erregelamendu-arauen bitartez egin behar da, eta tokiko erakundeek legalki erregulatutako prozedurei eta irizpideei jarraikiz onartzen dituzten lantalde organikoaren aldaketen bitartez.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Hori eta gero, abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legeak aldatu egin du aipatutako 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrena, eta honela idatzita utzi du:

- 1 "Nafarroako Gobernuak foru-lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara egokituko ditu Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea, 2016ko urriaren 1eko datarekin.
- 2 Hala eta guztiz ere, legezko manua betetzeko, Nafarroako Gobernuak aldatu egingen du indarra duen ordainsariei eta lanaldiei buruzko erregelamendua, foru-lege honetan xedatuari jarraikiz. Orobat, enplegu bereko lanpostuen artean ordainsarrietan gerta daitezkeen aldeak aplikatuko ditu, baina alde horiek % 7koak izanen dira, gehienez ere, eta sindikatuekin negoziatuko dira, horrela ezartzen baitu 15/2015 Foru Legeak, 8/2007 Foru Legeari bederatzigarren xedapen gehigarria eranstean dion 45. idatzatiaz. Atzeraeraginezko efektua izanen du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- 3 Edonola ere, atzeraeraginez ordaindu beharko liratekeen ordainsarien aldeak, Nafarroako Parlamentuak onetsiko dituen 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kargura ordainduko lirateke".

Hortaz, xedapen horietara egon beharko dute Udalak nahiz errekurtsogileak. Aurreikusitako epea amaitu den arren, Nafarroako Gobernuak oraindik ez du onartu tokiko polizien ordainsariei buruzko arauen aldaketa, Foruzaingoarentzat egin duen bezala (irailaren 28ko 79/2016 eta urriaren 28ko 185/2016 Foru Dekretuak). Hortaz, Cintruenigoko Udalak oraindik ere ezin izan du aldatu lantalde organikoa horretara egokitzeko, eta, ondorioz, errekurtsogileak ez du eskubiderik oraindik ordainsari-araubide berria aplikatu dadila eskatzeko. Arauzko aldaketa horiek egiten

direnean, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera atzeraeraginez ordaindu dakizkiola eskatzeko eskubidea izango du". El Defensor del Pueblo de Navarra, a la vista de los pronunciamientos del Tribunal Administrativo de Navarra, solicitó al Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia, que informara al respecto.

Nafarroako Arartekoak, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren erabakien aurrean, horri buruzko txostena egiteko eskatu zion Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.

Egindako txosten horretan, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, honako ondorio hauek atera zituen, gai horri buruzko hainbat alderdi xehetasunez azaldu ondoren:

"Txosten honen azken ondorioa da Nafarroako Gobernuak ez duela urratu hari, apirilaren 10eko 25/2015 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenean zuzendutako agindua, abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legearen xedapen horri eman zaion idazketa kontuan hartuta, Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea Nafarroako poliziei buruzko foru-legeko artikuluetan jasotako irizpideetara egokitzearen beharrari buruzkoa, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea onetsi ondoren. Aitzitik, Nafarroako Gobernuak erabat bete ditu 15/2015 Foru Legeko azken xedapenetan lehenengoan, bigarrenean eta hirugarrenean emandako agindu guztiak, tokiko poliziei buruzkoak. Eta hori egin du, alde batetik, "Nafarroako polizien lanpostuei buruzko txostena" eginda, zeinaren Balorazio Eskuliburua irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuaren barnean sartu den, eta zeinaren bitartez Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien eta ordainsarien erregelamendua onetsi den, bai eta 2017ko apirilaren 12an Nafarroako Foruzaingoari buruzko foru legerako proiektua onetsita, egun horretan bertan Nafarroako

Parlamentuan aurkeztu zena, eta Nafarroako 61. Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, 2017ko apirilaren 26an. Foru-legerako proiektu hori baztertu egin zen 2017ko urriaren 19an Nafarroako Parlamentuak egindako osoko bilkuran".

Auzi honetan aztertzen den auzian aplika daitekeen araubide juridikoa, funtsean, foru-lege hauek osatzen dute: a) 8/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako polizia buruzkoa; b) 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, zeinaren bitartez aurreko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen den; eta c) 25/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aldatzen duena.

Apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak Nafarroako polizia-kidegoen ordainsari-araubideari buruzko berritasun batzuk ekarri zituen. Zioen azalpenean, 15/2015 Foru Legeak honela dio:

"Ordainsariei buruzko zatia xehetasun handiz arautzen da. Araubidea egokitu egin da, kontzeptuei dagokienez, eta funtzionarioentzat, oro har, ezarritakoetara moldatu da. Halaber, portzentajeak ezarri dira haren aplikaziorako.

Lege-zehaztasun horren arrazoia da Gobernuak ez duela ezer egin 15/2010 Foru Legean jasotako agindua, kategoria bereko ordainsarrietan dauden aldeak murriztekoa, betetzeko, bai eta urteetan zehar lortutako akordio kolektiboak errespetatzea ere; izan ere, ekonomikoki asalduzkoak diren garai hauetan ezabatuak izan daitezke, langileen eskubideekiko inolako begirunerik gabe.

Ordainsarien araubide berriak egoera ekonomikoarekiko errespetu osoa gordetzen du; izan ere, egiten dena da poliziarik bere osotasunean esleitutako zenbatekoa hobeto banatzea, baina inolaz ere handitu gabe. Horri dagokionez, nabarmendu behar da kontuan hartzekoa dela gure polizia-funtzionarioak direla

okerren ordainduak, Estatuan jarduten duten beste autonomia-erkidegoetako poliziekin alderatuta, nahiz eta gizarterako eta segurtasun publikorako onurak berberak diren.

Ez da alde batera uzten haien lana aitortzearen eta pixkanaka haien homonimoekin parekatzearen xedea, baina ez da egungo egoeraren aurka arautzeko unea; bai, ordea, gure erkidegoan herritarrentzat eginkizun berberak betetzen dituzten artean ordainsari parekatuagoak dituen kidego bat izateko beharizanari erantzutetako. Hori guztia egiten da lege batek egin behar duen moduan; hau da, oinarriak finkatzen dira, geroago Gobernuak bere aplikatze-ahalmenak erabil ditzan horien gainean.

Apirilaren 10eko 15/2015 Foru Lege horrek aldatu egin zuen Nafarroako polizia buruzko foru-legeko 50. artikulua, "ordainsariei" buruzkoa, bai eta 51. artikulua ere, "ordainsari osagarriei" buruzkoa. Era berean, Nafarroako polizia buruzko foru-legeko bederatzigarren xedapen gehigarria ere aldatu zuen, eta hau xedatu zuen: "Disposición adicional novena. - Retribuciones.

"Bederatzigarren xedapen gehigarria. - Ordainketak.

Nafarroako gainerako polizia-kidegoak xedapen gehigarri honetan ezartzen duenak arautuko ditu.

Nafarroako polizia-kidego bakoitzean, gaur egun kidego horretarako kategoria desberdinetarako dauden osagarrien zenbateko osoa banatu egin beharko da, foru-lege honetan onetsitako ordainsari-sistemari jarraikiz, administrazio bakoitzaren aurrekontuei ordainsarien kontu-sailaren igoerarik ekarri gabe, eta foru-lege honen 51.2 artikuluan Foruzaingoarentzat ezartzen diren jaso beharreko gutxienerako

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

lanpostuko osagarriak helburutzat hartuz, kategoria bakoitzean.

Nafarroako polizia-kidegoetan banaketa hori aplikatetik sortzen den lanpostuko osagarriari gehienez ere % 4ko jaitsiera aplikatu ahal izanen zaio, Nafarroako polizia-kidego guztiarentzat osagarri berariazkoa oraingo % 41etik % 45era igotzearen ondorioz.

51.2 artikuluan aipatzen den gehieneko aldea, % 7koa, sindikatuetakoa ordezkariekin negoziatuko da, eta lanpostu bakoitzari eta haren berezitasunei buruzko azterlan bat egin ondoren ezarriko da, lanpostu horretara egokituta. Egun, ezin izanen dute ekarri zenbateko osoaren handitzea".

Azkenik, 15/2015 Foru Legeko azken xedapenetan bigarrenak hau xedatu zuen polizia-kidegoen ordainsarien araubideen aldaketei buruz (bai eta lanaldien araubideen aldaketei buruz ere):

Azken xedapenetan bigarrena. Ordainsariak eta lanaldien araubidea.

"Nafarroako Gobernuak foru-lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara egokituko ditu Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea, 2016ko urriaren 1eko datarekin.

Azken lege-aurreikuspen hori (azken xedapenetan bigarrena) eta lehen transkribatutako zioen azalpenean esandakoa (azken zatian, bereziki) kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak honako hau ondorioztatu zuen:

a Legegileak ordainsari-marko berri bat ezarri du, eta marko horrek, osoa izateko eta modu eraginkorrean aplikatu ahal izan dadin, Botere Exekutiboaren lankidetzaren behar du (zentzu horretan ulertzen da aurretik esandakoa, hau da, legez "oinarri batzuk" onesten ari zirela, eta "oinarri horien gainean

Gobernuak bere aplikatze-ahalmenak erabili beharko dituela").

b Lankidetzaren hori foru-legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako beharrez zehazten da; horren arabera, "Nafarroako polizia-kidegoetako" funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea egokitu behar zituen "Nafarroako Gobernuak", gehienez ere 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Ikus daitekeen bezala, azken xedapenetan bigarrenak "Nafarroako Gobernuak" zuen hartzailetzat, eta "Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak" egokitu beharra, xedatzen.

"Nafarroako polizia-kidegoen" aipamena, era berean, Nafarroako poliziei buruzko foru-legeak bere 2. artikuluan dioenarekin lotu behar da. Artikulu horrek definizio batzuk ematen ditu arau honen ondorioetarako. Zehazki, artikulu horretako b) letrak xedatzen duenaren arabera, "Nafarroako polizia-kidegoak" hauek direla ulertzen da: "Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako tokiko polizia-kidegoak".

Hortaz, erakunde honek interpretatzen du azken xedapenetan bigarrenaren jasotako beharrak erregelamenduak egiteko arautze-ahalmena gauzatzera zeramala Nafarroako Gobernuak, bi arrazoiengatik:

a Nafarroako Gobernuak garatu eta osatu beharreko legezko ordainsari-marko berri bat ezartzen ari zela uste zuen legegileak, eta

b Behar hori Nafarroako polizia-kidego guztien araubiderako ezartzen zen (bai Foruzaingoa eta bai tokiko poliziak), horiek multzo berean sartuta.

Nafarroako Arartekoak azpimarratu zuen ez dela arraroa funtzio publikoaren esparruan (funtzionario publikoen eskubideak eta betebeharrak erregulatzen ari baitira) Nafarroako Gobernuak legezko aurreikuspenak garatzea erregelamenduen bidez, eta

erregelamendu horiek Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren funtzionarioengan eragina izatea, bai eta Nafarroako tokiko erakundeetako funtzionarioengan ere. Zentzu horretan, bi adibide: batetik, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretua, zeinaren bitartez Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariei buruzko behin-behineko erregelamendua onesten den. Eta bestetik, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoko langile funtzionarioen oporrei, lizentzietan eta baimenei buruzkoa.

Hori eta gero, abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legeak aurretik aipatutako 15/2015 Foru Legea aldatu zuen, eta, hortaz, 15/2015 Foru Lege horren azken xedapenetan bigarrenaren idazketa aldatu zuen. Honela geratu zen idatzita:

- 4 "Nafarroako Gobernuak foru-lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara egokituko ditu Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea, 2016ko urriaren 1eko datarekin.
- 5 Hala eta guztiz ere, legezko manua betetzeko, Nafarroako Gobernuak aldatu egingen du indarra duen ordainsariei eta lanaldiei buruzko erregelamendua, foru-lege honetan xedatuari jarraikiz. Orobat, enplegu bereko lanpostuen artean ordainsarrietan gerta daitezkeen aldeak aplikatuko ditu, baina alde horiek % 7koak izanen dira, gehienez ere, eta sindikatuekin negoziatuko dira, horrela ezartzen baitu 15/2015 Foru Legeak, 8/2007 Foru Legeari bederatzigarren xedapen gehigarria eranstean dion 45. idatzatian. Atzeraeraginezko efektua izanen du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- 6 Edonola ere, atzeraeraginez ordaindu beharko liratekeen ordainsarien aldeak, Nafarroako Parlamentuak onetsiko dituen 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kargura ordainduko lirateke".

Ikus daitekeen bezala, lehenengo atalak bere horretan uzten du Nafarroako polizia-kidegoetako ordainsariak eta lanaldien araubidea egokitzeko Nafarroako Gobernuak duen beharra, aurreko 15/2015 Foru Legeak jasotako baldintza berberetan, baina hori betetzeko epea atzeratuta (2016ko urriaren 1era arte).

Bigarren atalak xedatzen du, "legezko manua betetzeko", Nafarroako Gobernuak aldatu egin behar duela indarra duen ordainsariei eta lanaldiei buruzko erregelamendua, eta atzeraeraginezko efektua izango duela 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, lanpostu batzuen eta besteen arteko ordainsarien aldeak dagokionean foru-legeak aurreikusitakoaren arabera, eta 15/2015 Foru Legeak bere egindako polizia buruzko foru-legearen bederatzigarren xedapen gehigarria aipatuta.

Aipatutako bederatzigarren xedapen gehigarri horrek arau multzo bat ematen du "gainerako Nafarroako polizia-kidegoen" ordainsariei buruzkoak, bai eta "Nafarroako polizia-kidego bakoitzaren" osagarrien zenbatekoaren banaketari buruzkoak ere. Hirugarren atalak ezartzen du atzeraeraginez ordaindu beharko liratekeen ordainsarien aldeak 2017ko aurrekontuen kargura ordainduko direla.

Azken batean, erakunde honek ulertu duenaren arabera, legegileak aurreko arauan aurreikusitakoa bere horretan utzi du, hau da, Nafarroako Gobernuari emandako agindua berretsi du, Nafarroako polizia-kidegoen funtzionarioen ordainsari-araubidea egokitu dezan. Eta horrek, lehen aipatu bezala, arlo horretan erregelamendua egiteko ahalmena betetzera darama berriro ere.

Bestalde, azaldu den bezala, tokiko polizien kideek ordainsariekin lotuta egin dituzten eskaeren aurrean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak erabaki du, behin eta berriro aipatzen den legezko xedapenen ondorioz, beharrezkoa dela, hori baino lehen, Nafarroako Gobernuak tokiko polizien ordainsariei buruzko arauen aldaketa onar dezala, Nafarroako Foruzaingoarentzat egin duen bezala. Hortaz, hori

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

gertatzen ez den bitartean, auzitegi horren iritziz, ez legoke ordainsari-araubide berria aplikatu dadila eskatzeko eskubiderik (toki-erakundeen aurrean egikaritu litekeena).

Aurreko kexa baten ondorioz, Nafarroako Arartekoak auzi honen inguruan erabaki bat ere hartu du, eta ondorioztatu du apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeko azken xedapenetan bigarrean azaltzen den agindua ezin dela betetzat eman, xedapen horri abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legean emandako idazketa kontuan hartuta, Nafarroako tokiko polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsarien eta lanaldien araubideak ez baitira egokitu Nafarroako polizia-buruzko forulegearen artikuluetan jasotako irizpideetara, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak ekarritako aldaketan ondoren.

Erakunde honek hartutako erabakian esaten zen Nafarroako tokiko polizia-buruzko egokitzapen hori egiteko legeko betebeharrak ez dela desagertzen arlo horretan foru-lege proiektu bat izapidetzen egoteagatik, eta, egoera horrek, frogatu zitekeen bezala, aurretik ez zuela galarazi ordainsarien eta lanaldien araubidea egokitzea Foruzaingoaren kasuan.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak iradokizuna egin dio Lehendakariari, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, beharrezkoak diren neurriak har ditzan, abenduaren 28ko Foru Legeak emandako idazketan, Nafarroako polizia-buruzko foru-legeko azken xedapenetan bigarrean emandako agindua erabat bete dezan, eta, hortaz, Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea egokitu dezan.

Iradokizun horri erantzuteko, Lehendakariari, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak idatzi bat bidali zuen, eta idatzi horretan, besteak beste, hari egindako iradokizuneari azaldu ondorioekin bat ez zetozeela adierazi zuen. Izan ere, aurretik bidalitako txostenean azaldu zuenez, 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrena oker idatzi zen jatorrizko bertsioan, testuaren aldaketa eskasa izan

baitzen azken xedapen hori hainbeste aldatu zuten zuzenketen onespengatik, bai eta jatorrian Foru Legeko proposamena osatzen zuten beste guztia ere.

Hala, Lehendakariari, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren iritziz, okerrak dira 15/2015 Foru Legeko azken xedapenetan Nafarroako polizia-kidegoak Nafarroako Gobernuko polizia-kidegotzat hartzen dituzten aipamenak, pluralean nahiz singularrean izan, eta testu hori hitzez hitz hartuta ezin da iritsi Nafarroako Arartekoak bere egin dituen ondorioetara.

Departamentuaren iritziz, teknika legegile oker baten inkoherentziek ezin dute eraman arrazoiaren kontrako eta arauak egiteko eskumen-banaketa kontrako interpretazioak eta/edo aplikazioak egitera; izan ere, ordenamendu juridikoa bere osotasunean interpretatu behar da. Hori horrela, 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan hirugarrenaren testuaren hitzez hitzeko interpretazioak Nafarroako Gobernua, "negoziazio kolektiboa egin ondoren", "polizia kidegoen ordainsariak foru-lege honetan jasotako araubidera egokitzeak, haren lantalde organikoak" egokitzea eta "aldatzera" behartzen badu ere, hortik ezin da eta ez da ondorioztatu behar Nafarroako Gobernuak tokiko polizia-buruzko betebeharrak denik haren negoziazio sindikala egitea, haren lantalde organikoak egokitzea, eta lantaldeak kudeatzeko beste neurri batzuk garatzea edo ordainsariak onartzea, soldata-masak birbanatuta. Izan ere, Nafarroan eta Estatuan indarrean dagoen araudiak ezartzen du toki-erakundeek dutela hori egiteko eskumena.

Bestalde, 25/2015 Foru Legeak 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrenaz egin zuen aldatetari dagokionean, Departamentuak azaldu du 2017ko apirilera luzatu nahi izan zela arauko araubide berria indarrean sartzeko epea, egun horretan Nafarroako tokiko polizia-buruzko foru-legerako proiektu bat aurkeztu behar baitzen Nafarroako Parlamentuan aldi berean bi arauak horiek lantzeko, baina azken testua hori izan zela Parlamentuko osoko bilkuran in voce

onartutako zuzenketen ondorioz. 25/2015 Foru Lege horretan xedea ez zen 15/2015 Foru Legeak zituen ageriko eskasiak konpontzea, ez eta haiek berrestea ere; izan ere, azkar idatzi zen, 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean sar zedin, hori baitzen ordainsari berriak indarrean sartzeko ezarritako data. Azken hori zen Parlamentuan aurkeztutako foru-legerako proiektuaren xede bakarra.

Era berean, departamentuaren txostenean azaltzen zen aztertutako legezko arauak ordainsarien arloan araubide oso bat ezartzeak z diola kalterik egiten Nafarroako Gobernuak soilik gara dezakeen erregelamendu baten beharrari. Izan ere, legezko arauak ordainsari-osagarri bakoitzaren mutur guztiak, hau da haren maximoak eta minimoak, ordainsari-masa birbanatzeko modua, eta ordainsariak garatzen balditu baditu ere, ez baitago erregelamendu baten bidez garatu beharreko ezer.

Departamentuaren ustez, iradokizunean erregelamendu bidez garatu beharreko alderdien adibidetzat azaltzen ziren kontzeptuak, behar bezala mugatuta daude legezko arauan, eta toki-erakunde bakoitzak kalkulu aritmetikoko lan bat baino ez du egin behar horiek lortzeko, haien aurrekontuak eta egun haien tokiko polizia aplikatzen ari zaizkien ordainsari-kontzeptuak eta kopuruak kontutan hartuta. Toki-erakunde bakoitzak urteetan zehar Nafarroako polizia buruzko 8/2007 Foru Legearen markoan egindako negoziazioen fruitua dira, eta, beraz, Nafarroako Gobernuak ez du jarduketa horiek egiteko eskumenik. Bestelakoa da Nafarroako Foruzaingoa, hau da, Nafarroako Gobernuaren polizia bakarra. Bazegoen Nafarroako Foruzaingoa kideen lanaldiei, ordutegiei eta ordainsarien araubideari buruzko erregelamendu bat, urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta, arau-marko berriaren aurrean, Nafarroako Gobernuak hura indargabetu behar zuen, eta berriro ere erregulatu behar zituen antolakuntzarekin lotutako alderdiak bai eta unitate eta lanpostu desberdinetan, antolakuntza berezia izanagatik, legalki ezarritako ordainsari osagarriekin lotutakoak ere. 79/2016 Foru Dekretuak ez ditu erregelamendu bidez garatzen

15/2015 Foru Legeak ezarritako ordainsari-kontzeptuak; aldiz, Foruzaingoak bere kabuz antolatzeko duen ahalmenarekin lotutako alderdiak garatzen ditu. Nafarroako Poliziaren eta Tokiko Administrazioaren gaur egungo arau-markoan, Nafarroako Gobernuak ezin ditu erregulatu eta ez ditu erregulatu behar tokiko poliziaekin lotutako alderdi horiek, bere eskumenak argi eta garbi gaindituko lituzkeelako; izan ere, erabaki horiek hartzea dagokie udalbatzei, alkatetzei eta tokiko poliziaen buruei.

Erantzun hori aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak ez onartutzat eman du iradokizuna, eta jarduketa amaitutzat eman.

4.3.22. Sarbide unibertsala osasungintza publikora.

Erakunde hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Arloa: Osasungintza.

Jarduketa: Jarduteko eskaera.

2017ko abenduan, Konstituzio Auzitegiak konstituzio-kontraktatzat jo zuen, eskumen-arrazoiak direla eta, Valentziako Erkidegoaren lege-dekretu bat, osasungintza publikorako sarbide unibertsala ahalbidetzen zuena.

Aipatutako arau autonomiko horrek legezko estaldura bat ematen zion herritar guztiak osasungintzara jotzeko duten eskubideari, egoera irregularrean dauden etorkinak barne, baina konstituzio-kontraktatzat joa izan zen, Konstituzio Auzitegiak ulertu zuelako lege-dekretu horrek Estatuari erreserbatutako esparru materiala inbaditzen zuela, eta talka egiten zuela apirilaren 20ko 16/2012 lege-dekretuaren edukiarekin, hau da, Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoarekin, oinarrizko lege-izaera duena.

Beste sententzia baten bitartez, eta antzeko arrazoiak erabilita, Konstituzio Auzitegiak konstituzio-kontraktatzat

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

jo zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren antzeko arau bat.

Komunikabideek ziotenaren arabera, osasungintzaren esparruan lan egiten duten gizarte-erakunde askok baztertu zituzten Konstituzio Auzitegiaren erabaki horiek, Konstituzioan dagoen osasun-eskubidea eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala urratzen zituztelakoan. Gizarte-erakundeek salatu zuten herritar batzuk osasungintzatik kanpo uzteak milaka pertsonaren osasuna arriskuan jartzen duela, osasun publikoaren esparruko gutxieneko neurriak ez betetzea dakarrela, eta gizarte-egoera ahuleko taldeen eskubideak murrizten dituela horrek.

Nafarroaren kasuan, 16/2012 Errege Lege Dekretua onetsi baino lehen, Nafarroako Parlamentuak azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Foru Erkidegoan pertsonak osasun-arloan dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzkoa. Nafarroako Foru Erkidegoak emandako osasun-laguntza publikoak jasotzeko eskubidearen titularrak nor diren definitzerakoan, foru-legeko 11. artikulua ezartzen du osasun-laguntzarako eskubideak estaldura unibertsala duela, eta eskubide hori zabaldu egiten dela, haren maila eta modalitate guztietan, berdintasunez, Nafarroako udalerrietan bizi diren pertsona guztientzat, "bai eta Nafarroako udalerrietan bizi diren etorkinentzat ere, haien egoera legala edo administratiboa dena dela ere."

Aipatutako Errege Lege Dekretu hori onetsi eta gero, Nafarroako Parlamentuak otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonari. Azken lege horrek berretsi zuen sarbide unibertsalaren printzipioan oinarritutako osasun-laguntza bat bermatzeko borondatea zuela Nafarroako Parlamentuak.

Nafarroako Arartekoaren iritziz, eskumen-arrazoiak direla eta sortu litezkeen gatazketan bakoitzak har dezakeen jarrera alde batera utzita, zera berretsi behar

da zaindu beharreko justizia materialeko irizpideak eta pertsonari Konstituzioan aitortzen zaizkien eskubideak zaintzeko irizpideak aintzat hartuta (osasuna zaintzeko eskubidea eta osotasun fisikorako eta moralerako eskubidea, bereziki): osasun-laguntzaren unibertsaltasuna aitortzen duten arauak zaintzarako "plus" bat dira zuzenbidezko gizarte-estatu demokratiko baten barnean. Hala, gai honetan aditu diren askok nabarmendu dute osasun-prestazioak jasotzeko orduan murrizketak ezartzea ez dela komenigarria, ez pertsonen duintasunarekin eta eskubideekin lotutako arrazoiak kontuan hartuta, ez eta osasun publikoarekin lotutako arrazoiak kontuan hartuta ere.

Aurrekoa aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoa Espainiako Arartekoari zuzendu zaio, eta adierazi dio, haren iritziz, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriak buruzkoak, modu negatiboan eragiten diola osasungintza publikoaren funtzionamenduari, arreta-maila guztietan (eta ez larrialdi-egoeretan soilik) osasun-prestazioa aitortzea galarazi baitezake, osasungintzarako sarbidearen unibertsaltasunaren printzipioaren arabera, eta autonomia erkidego askoren borondatea hori dela, bai eta Nafarroako Foru Erkidegoarena ere. Era berean, pertsona guztiei osasun-laguntza jasotzeko eskubide hori aitortu dieten arau autonomikoak bertan behera uzteak eta eskura dauden osasun-baliabideak herritar guztiei arreta emateko ez erabiltzeak kezka sortzen duela adierazi dio, batetik, orain arte eskubide horretaz modu baketsuan gozatu duten milaka pertsona babesik gabe gera litezkeelako, eta, bestetik, beste herritar guztiak ere babesik gabe gera litezkeelako potentzialki kutsagarriak izan litezkeen gaixotasunak behar bezala ez kontrolatzearen ondorioz.

Horrengatik guztiarengatik, osasun-arloan eskumena duen Ministerioaren aurrean jarduketa bat hasteko eskatu dio Espainiako Arartekoari, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan, hau da, Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko

premiazko neurriei buruzkoan aldaketak bultzatzeko hausnarketa egin dezan hark, lege-dekretu hori bertan bizi diren pertsona guztiek (haien adina, nazionalitatea, edo egoera legala edo administratiboa dena dela ere), berme guztiekin osasungintzara jotzeko printzipioaren kontrakoa dela edo izan litekeela interpreta litekeelakoan.

Espainiako Arartekoak bidalitako idatzia jaso izanaren berri eman zuen, eta izapidetzea onartzen zuen ala ez erabakitzeke hura aztertuko zuela jakinarazi zuen.

4.4. ESPAINIAKO ARARTEKOAK KOORDINATZEKO XXXII. JARDUNALDIAK.

Nafarroako Arartekoa Espainiako Arartekoarekin eta gainerako autonomia-erkidegoetako Arartekoekin bildu zen urriaren 3an eta 4an Santiago de Compostelan. Han egin ziren Arartekoak Koordinatzeko XXXII. Jardunaldiak, "Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gardentasuna" gaiaren inguruan.

Administrazio-gardentasunaren funtsezko ezaugarri bat herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea aitortzea dela azpimarratzeko balio izan zuten jardunaldiek. Aitortze horrek gardentasunaren kulturen aldaketa nabarmen bat dakar berekin, eta aldaketa horren aurrean beren egoera birdefinitzera behartzen ditu operatzaile juridikoak, bai eta arartekoak ere, haiek bermatu behar baitute herritarrei aitortutako eskubide guztiak errespetatzen direla, eta eskubide horien artean baitago informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Jardunaldi horietan, ondorio hauetara iritsi ziren Arartekoak:

Lehenengoa. Defentsa-bulegoak eskubide guztiak babesteko sortutako erakunde bermatzaile orokorrak direla uste dute arartekoek, eta eskubide horien artean daudela administrazio on bat edukitzeko eskubidea, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea,

eta, haren alde aurreko baldintza, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Horregatik, eskubide horien eraginkortasuna kontrolatzeko funtzioak bere gain hartzeko eta burutzeko erakunde egokiak eta beharrezkoak dira, bai eta gardentasunaren kultura sustatzeko eta zabaltzeko ere.

Bigarrena. Dokumentu publikoak eskuratzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2009ko Hitzarmena berretsi behar du Espainiak. Premiazkoa da gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernamentu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea garatzeko erregelamendua onestea, haren azken xedapenetan zazpigarrenak xedatutakoaren babesean.

Hirugarrena. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea oinarrizko eskubidetzat aitortu behar da, eta, edozein kasutan, bitarteko eta baliabide azkarren, arinen eta eraginkorren bidez babes juridiko eraginkor eta egoki bat ematen duen eskubide autonomotzat.

Laugarrena. Legeak informazio publikoa eskuratzeko eskubideari muga asko jartzen dizkio, eta eskaerak ez onartutzat emateko kausa zehaztugabe asko ditu. Hori arrisku bat izan daiteke eskubide hori eraginkorra izan dadin. Horregatik, muga eta kausa horiek gutxitu egin behar dira, edo, gutxienez, zehaztu. Edozein kasutan, haien interpretazioak murriztailea izan behar du beti.

Bosgarrena. Interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuak eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek gardentasunari buruzko araudiari lotuta egon beharko lukete zerbitzu hori emateko garrantzitsua den edozein gauzatan. Informazio hori ez da soilik zeharka eman behar, Administrazioak aurrez eskatuta, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako moduan, baizik eta erakunde pribatuak ere zuzenean eman behar du, batetik, publizitate aktiboaren bitartez, eta, bestetik, emandako zerbitzuekin lotuta informazioa eskuratzeko jasotzen dituzten eskaerak ebatziz.

Seigarrena. Herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea indartzeko asmoz, administrazioaren

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

aurreko administrazio-isiltasunak beti izan beharko luke positiboa, nahiz eta horrek ere bere mugak eduki jarduterik eza materiala denean.

Zazpigarrena. Nahasmendu handia sortzen ari da gardentasunari buruzko Estatuko legearen lehenengo xedapen gehigarria aplikatzeko orduan. Xedapen hori aldatu egin beharko litzatekeela uste dugu, lege hori gehigarri gisa soilik aplikatu ez, eta oso-osorik aplikatu dadin informazio publikora jotzeko araudi zehatz bat duten arlo eta prozedura guztietan, araudi hori herritarrarentzat onuragarriagoa denean izan ezik.

Zortzigarrena. Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak eta informazio publikoa eskuratzearekin lotutako erreklamazioak ebazteko eskumena duten gainerako erakunde autonomiko sortu berriek hertsapen-isunak jartzeko ahalmena eduki behar dute, haien ebazpenak benetan bete ditzan administrazioak.

Bederatzigarrena. Gardentasunari buruzko Estatuko legeak ez du aldatu administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen legea. Azken lege hori lehenbailehen aldatu behar da, prozedurak oso luzeak direlako eta kostu handiak sortzen direlako, oinarrizko eskubideak babesteko hautetsiek martxan jarritako prozedura berezietan ere. Pertsona juridikoek tasa bat, abokatua, eta prokuradorea ordaindu behar dituzte, eta prozesuko kostuak ordaintzera ere kondenatuak izan daitezke epaiketa galduz gero.

Hamargarrena. Arartekoek beti esku har dezakete gardentasuna kontrolatzeko erakundeek eta administrazio-organoei onartutzat emandako erreklamazioak administrazio publikoak eraginkortasunez bete ditzan saiartzeko. Isiltasuna positiboa den autonomia-erkidegoetan, eta informazioa eskuratzeko eskubidearekin lotuta, administrazioek ustez onartutzat emandako ebazpenak bete ditzaten saiartzeko ere esku har dezakete

Hamaikagarrena. Arartekoak ez daude kontrolerako erakunde edo administrazio horiek oro har finkatutako

edo onetsitako gardentasun-legeak interpretatzeko irizpideetara lotuta.

Hamabigarrena. Gardentasunaren kontrolerako erakundeak edo administrazio-organok arartekoekin lankidetzan aritzera eta haiek eskatutako informazio guztia ematera behartuta daude, bai eta haien ebazpenak dagokion arartekoari jakinaraztera ere horrela aurreikusita dagoenean.

Hamahirugarrena. Gardentasunaren kontrolerako erakundeen edo administrazio-organoen funtzionamendu txarraren ondorioz aurkeztutako kezak edo erreklamazioak ezagutuko dituzte arartekoek, eta, hala badagokio, horiek hartutako ebazpenekin lotuta jasotakoak.

Hamalauagarrena. Gardentasunaren alorrean publizitate aktiboa kontrolatzea ere, defentsa-bulegoen esku hartze gainbegiratzailerearen helburu izan behar du. Araudiak eskatutako informazioa argitaratzen dela bermatzen saiatzeaz gain, argitalpen horrek legeetan aurreikusitako ezaugarriak dituela bermatzen saiatu behar dira, eta ezaugarri horien artean dago haren izaera berrerabilgarria eta irisgarria desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

Bestalde, ofizios edo alde aurretik salaketa bat izan delako, kontrolerako erakundeei edo administrazio-organoei esku hartzeko beharrezkoak diren eskumen zehatzak aitortu behar zaizkie, publizitate aktiboaren betebeharrak betetzen ez direnean; ez-betetze horrek arau-hauste gisa tipifikatuta egon behar du, eta kontrolerako organismo haiek isunak izapidetzeko eta ezartzeko ahalmena eduki behar dute.

Hamabosgarrena. Interes-taldeek administrazioaren maila desberdinekin dituzten harremanen oinarrizko lege-marko bat ezarri behar da, harreman horien modu normalean garatzen direla bermatuz, eta herritarrek hori ezagut dezaten.

4.5. NAFARROAKO HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Haurren eta nerabeen sustapenerako, arretarako eta babeserako abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikulua ezartzen du Nafarroako Arartekoa haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratuko dela, horretarako behar diren neurriak hartuz. Neurri horien artean dago hurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urteko txostenean.

Lege-aurreikuspen hori betetzeko, atal honetan arlo horri buruzko zenbait datu eskaintzen dira, betiere erreferentziatzat hartuta aipatu foru-legean adierazitakoa, Nafarroan adingabeen babesaren arloko esku-hartze administratiboaren arloan dagoen arau nagusia delako.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Eskubide Sozialetako Departamentuari atal hau idatzi ahal izateko eman digun informazioarengatik.

4.5.1. Egindako jarduketaren deskribapena eta ebaluazioa.

A Arau- eta plangintza-lana.

2016an, Eskubide Sozialetako Departamentuak jakinarazi zuen foru-agindu bat onartzeko prozedura bat abiarazi zuela familia-harreraren esparruko berezitasun bat ezarri eta familia-harrera espezializatuaren modalitatea arautzeko. Babesgabe edo gizarte-gatazkan bizi diren adingabeak hartzeko harrera mota bat da, baldin eta, beharizan konkretuak dituztelako, berriazko arreta edo balorazio bat behar baldin badute eta, ondorioz, familia espezializatuak hartzekoak baldin badira, ezaugarri eta prestakuntza berriazkoak dituztelako egoera horietarako.

2017an arau hori egiteko prozedura amaitu zen, Eskubide Sozialetako Kontseilariaren martxoaren 7ko 91/2017 Foru Arauaren onarpenarekin; horren bitartez garatzen da familia-harrerarako zerbitzua, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak arautzen duena; eta

horren bitartez onesten da Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroa, familia-harrera espezializatuaren modalitatean (Nafarroako 65. Aldizkari Ofiziala, 2017ko apirilaren 3a).

Honako eduki hau du, funtsean, arau horrek:

Arau honen xedea familia-harreraren espezialitate bat garatzea da, zailtasun bereziak dituzten adingabeei harrera egiteko neurri gisa, berriazko prestakuntza duten familiek arreta eman diezaioten. Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren G.4 eranskinean agertzen da, prestazio bermatu gisa.

- Familia-harrera espezializatuaren definizioa eta familiek bete beharreko baldintzak.
- Harrera espezializatuaren adingabeko onuradunen zehaztapena.
- Harrera espezializatuko harremanaren konpromisoak, eskubideak eta betebeharrak.

Oro har, arauzko jarduera horri dagokionez, 15/2005 Foru Legean jasotako aginduak eta xedapenak osatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen jarraitzeko animatzen du erakunde honek, bai eta haren aplikazio eraginkorragoa egiteko ere, eta, beharrezkoa izango balitz, adingabeen eskubideak gehiago bermatzeko balio dezaketela deritzen alderdiak berrikusteko.

Plangintza- eta programazio-jarduerari dagokionez, familien, haurren eta nerabeen arretarako II. plana egin zuela jakinarazi zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak 2015. eta 2016. urteetan. Han azaltzen zenez, esku hartzeko prozesuetako paradigma aldatzera zuzenduta zegoen. Plan hori egiteko prozesua aipatzen zen aurreko urteetako txostenetan.

2017an, plan hori egiteko prozesuak aurrera egin du, eta familien, haurren eta nerabeen arretarako II. plana onetsi da, 2018ko otsailaren 14ko Nafarroako Gobernuaren akordioaren bitartez. Dokumentu

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

estrategiko bat da, 2017-2023 urtealdian familiak eta haurrak babesteko jarduketa-eredua eta egin beharrekoak ezartzen ditu. Eskubide Sozialen Departamentuak azaldu duenez, arrazoi hauek hartu dira kontuan:

- Haurrak babesteko planak eta familiei arreta emateko planak 15 eta 16 urte daramate indarrean.
- Familiei arreta emateko politikak, alde batetik, eta haurren eta nerabeen prebentziorako, sustapenerako eta arretarako ekintzak, bestetik, estrategia berean bateratu behar dira, asmo sendoa edukita haurrei gertatzen zaien ezer ezin dela familiatik at egon.
- Sarean lan egiteko guztien artean adostutako oinarrizko eredu bat ezarri behar da, erakunde publikoak, gizarte-babeserako sistemak, eta irabazi asmorik gabeko hirugarren sektoreko erakundeak bere barne hartuko dituen, bai eta sare sozial eta komunitarioa osatzen duten elkarte guztiak ere, heziketaren, gizartearen eta osasunaren esparruan arreta-eredu integral eta integratu bat gauzatu ahal izan dadin.
- Gaur egungo ereduak ezin izan die behar den arreta eman sortzen ari diren errealitate eta arazo berriei: familia-egituraren eta -ereduaren aldaketak, familia eta lan-bizitza bateragarri egitea, pertsona desgaituak, etorkinak, genero-ikuspegia, haur-pobrezia, kidekoen arteko genero-indarkeria, gurasoen indarkeriaren eraginpean egotea, seme-alaben gurasoenganako indarkeria...
- Haurrak babesgabetasun-egoeran daudenean esku hartzeko eredu berri bat, prebentziosko eta sustapenezko estrategiak garatzeari arreta berezia emango diona.
- Esku hartzeko programetan, zerbitzuetan eta estrategietan ikuspegi unibertsal bat eta izaera intersektoriala duen jarduketa bat ezarri behar da.
- Arreta goiztiarreko eta detekzio goiztiarreko zerbitzuak ezarri behar dira, familiei laguntza osagarria emateko haur bat jaiotzen den unetik eta adingabearen bizitzako lehen urteetan (0 eta 6 urteen artean). Garapenaren fase kritiko horrek irispide luzeko inpaktua du haurren gaitasun kognitiboetan, emozio-naletan eta sozialetan, haurtzarora, nerabe-zarora eta helduarora igaro ondoko etapetan.
- Esparru komunitarioa sortu behar da, jarduketa guztien erreferentziazko testuinguru gisa. Herritarren parte-hartzerako, komunitatea antolatzeko, erakundeak elkarren artean koordinatzeko, eta zailtasun-egoerak kudeatzeko eta egoera horietan guztien artean esku hartzeko prozesuak eta bideak bultzatu, indartu eta sendotu behar dira.
- Seme-alabek beren gurasoak berreskuratzeko eta haien arteko harremana hobetzeko programak eta jarduketak ezartzeko aukera dago, eremu soziosanitariotik gurasotasun positiboko programak inplementatuz.
- Jarduketa-marko bat ezarri behar da, familiei laguntzeko politikak, haurren eskubideen babesa, eta haurren eta nerabeen parte-hartzea zeharkako ardatz gisa izango dituen.

Familien eta haurren arretarako II. plan integrala garatzeaz gain, programazio-jardunari dagokionean, honako jarduketa eta xede hauek gauzatu dira, Eskubide Sozialen Departamentuak azaldu duenez:

- Haurren eta nerabeen arretarako taldeen inplementazioa Iruñerriko iparraldean, ipar-ekialdean eta ipar-mendebaldean, eta, hala,

Gizarte Zerbitzuetako gune guztietarako hedapena osatzea.

- Lizarrako, Tafallako eta Tuterako HNATen jardunaren intentsitatea % 50 handitzea.
- Familia elkartzeko gune baten inplementazioa Lizarrako eta Tafallako guneetarako.
- Familia-harrera espezializatuaren garapena, familia-harrera tradizionala osatzeko modalitate gisa.
- Harrerako familiei laguntza eta prestakuntza handiagoak eman zaizkie.
- Jardunbide profesional egokien eta eraginkortasun frogatua duten programen katalogo bat ezarri da.
- Zazpi urtetik beherako adingabeak dituzten familiak larrialdi-egoeretan hartzeko programarekin jarraitu da (baloratu beharreko egoerak dira, babesgabetasun-egoeran egon badaitezke).
- Egoitza-harreran dauden adingabeentzako autonomia-programak indartzea, haien eskura baliabide berriak jarriz egokitzapen hobe izan dezaten.
- Premia bereziak dituzten haurrak adoptatzeko neurriak bultzatzea.
- Baliabideak, profesionalak eta lan-ereduak espezializatzea.

Erakunde honek modu positiboan baloratu ditu familien, haurren eta nerabeen arretarako II. plan horren orientazioa, eta, prebentziorako jarduerak, bereziki, babesgabetasunaren aurreragoko faseetan jarduketa ahalik eta gehien txikitzea baitute helburu, fase horietan intentsitate eta inpaktu emozional handiagoko neurriak hartu behar izaten baitira. Era

berean, erakunde honek begi onez hartu du plana onetsi izana, aurreko urteko txostenak iradokitzen zuen bezala.

Era berean, erakunde honek uste du jarduera-ildo zehatz horiek egokiak direla, honako xede hauek indartu nahi dituelako: batetik, adingabeen babes-sistemaren baliabideen espezializazioa; bestetik, esku-hartzea, zehatza izanik, goiztiarra izatearen beharra; eta, azkenik, familia-harreraren modalitateak indartzearen komenigarritasuna, adingabeen instituzionalizazioa galarazteko.

Beste urte batzuetako txostenek plangintzaren eta programazioaren alorretan adierazi dituztenak aintzat hartuta, erakunde honek berriro azpimarratu behar du adierazleak edukitzea komeni dela, unean-unean ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzeke eta, beharrezkoa baldin bada, lehentasunak berrezartzearekiko.

B) Adingabeen eskubideen sustapenerako eta zabalkunderako jarduerak.

Adingabeen eskubideen eta betebeharren taula bat arautzen du 15/2005 Foru Legeak, eta eskubide eta betebeharrak horiek sustatu eta zabaltzeko behar direla agintzen du.

Lan horri dagokionean, Eskubide Sozialen Departamentuak jakinarazi du, familien, haurren eta nerabeen arretarako II. planaren testuinguruan, jarduketa-esparru bat gaineratu dela arlo horretan, egun haurren eskubideen aldeko aliantza osatzen duten erakundeekin lankidetzan.

Erakunde honek ontzat eman du arlo horretan egindako lana, eta adingabeen eskubideen sustapenerako eta zabalkunderako ekimenak martxan jartzeko deia egin du.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

C) Prebentziorako jarduerak.

Prebentziorako jardueren funtsezko helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea.

Administrazioak esparru horretan egiten duen esku-hartzearen ezaugarri nagusia da lankidetzan eta koordinatuta lan egiten dutela adingabeekin lan egiten duten zenbait instantziek (hezkuntza-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek gehienbat).

Eginkizun horretarako tresna administratibo garrantzitsuetako bat da haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua. Eskuliburuan, Nafarroako Foru Erkidegoan adingabeen babesari buruzko programak, baliabideak, prozedurak, kontzeptuak eta eskumen-esparruak jaso, bateratu eta azaltzen dira.

Eskubideen Sozialen Departamentuak emandako 2017ko ekitaldiari buruzko informazioaren arabera, honako arlo hauek landu dira gehienbat:

- Lankidetzarako tresnak: familien, haurren eta nerabeen arretarako II. plan integrala egiteko markoan, bederatzi mahai sektorial sortu dira, babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako egoeretan hartutako prebentzio-neurriak diseinatu, martxan jarri eta haien jarraipena egiten laguntzeko eta parte hartzeko.
- Jarduera-eredua: garatutako dokumentu estrategikoak, sistemaren jarduera-eredu tradizionalarekin alderatuta, paradigma-aldaketa bat dakar berarekin (prebentzioa, kaltea konpontzearen ordez; uniberteltasuna, eskaeran fokua jartzen duen esku-hartzearen ordez; esku-hartze goiztiarra 0 eta 3 urte bitarteko etapan, adin berantiarretan esku-hartzearen ordez; familia-harrera, egoitza-harreraren ordez; familiak gordetzeko eta gurasoak berreskuratzeko programen garapena; departamentu desber-

dinen arteko esku-hartzea, gizarte-zerbitzuetako sisteman fokua jartzen duen esku-hartzearen ordez...).

- Tresna eta baliabide teknikoak: zailtasun-egoerak edo gizarte-gatazkako egoerak baloratzeko tresna bakar baten garapena, gizarte-zerbitzu guztietan sarean lan egiteko adostutako oinarrizko eredu baten garapena, osasungintzako, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako langileen heziketa jarraitua, eraginkortasun frogatua duten programen inplementazioa.
- Inplementatutako programak: HNATen inplementazioa gizarte-zerbitzuen gune guztietarako, familiak elkartzeko gune berri baten inplementazioa Lizarrako eta Tafallako guneetarako; eta autonomia-programen inplementazioa haurrak babesteko sistemaren adingabe finalistentzat.

Aurreko urteko txostenetan adierazitakoaren ildotik, erakunde honek onetsi egiten ditu koordinazioa eta prebentzioa hobetzeko neurri horiek, baina, hala ere, lankidetzarako eta koordinaziorako beharrezkoa den esparru hori indartzen jarraitzea animatzen du, ezinbestekoa baita babesgabetasun-egoerak behar bezala prebenitzeko eta detektatzeko.

Berriro adierazi behar da prebentzio-lana –hain zuzen ere 15/2005 Foru Legeak lehentasunezkoztat jotakoa– indartzea komeni dela, hori baita bidea adingabeengan eragina duten arazoek ez dezaten, azken buruan, babes-sistemaren esku-hartze handien premia sorrarazi.

Azkenik, adingabeek babesten diharduten eragileen arteko koordinazioa handitzeko ekintzak osatzen jarraitzea komeni dela azpimarratu nahi izan du erakunde honek, eta ildo horri berari jarraitu behar zaiola, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 32. artikulua arautzen duen moduan, honako arlo hauetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza,

gizarte-harremanak, aisialdia, animazioa, prestakuntza eta enplegua.

D) Babes-sistemako jarduketak.

a Arrisku-egoerak.

Babesgabetasun-egoeren artean, oro har, arriskukoak dira intentsitate txikiagoa dutenak eta, horrenbestez, esku-hartze administratibo txikiagoa exijitzen dutenak.

Aldagai horren datuaren eta bere bilakaeraren berri emateko, babeserako sistema espezializatuak hartu dituen adingabeen datua eman izan dio erakunde honi aurreko Gizarte Politiketako Departamentuak eta, egun, ematen dio Eskubide Sozialetako Departamentuak. Honako hauei buruzko datuak dira: zaintzapeko adingabeak (egoitza-harrera edo familia-harrera eta behin-behineko zaintza, behaketa eta harrera zentroetan edo urgentziazko familietan), eguneko zentroetan dauden adingabeak, familia esku-hartzerako programa espezializatueta dauden adingabeak, nerabeen hezkuntzarako programan dauden adingabeak, haurrei eta nerabeei arreta emateko taldeen esku-hartzea duten adingabeak, eta autonomia pertsonalerako programetan dauden adingabeak.

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2017ko datuak eman ondoren, ikusten da sistema espezializatuak 1.705 adingabe hartu dituela, hau da, aurreko urteetan baina dezente gehiago (1.446 adingabe izan ziren 2016an, 1.413 2015 eta 2014 urteetan, 1.267 adingabe 2013an eta 1.206 adingabe 2012an).

Zenbatekoek, beraz, berretsi egiten dute azken urteetan ageri den goranzko joera (bost urtetan % 40koa izan da, gutxi gorabehera), eta horrek agerian jartzen du babes-sistemak artatutako adingabeen kopurua handia dela eta handitzen ari dela.

Aurreko urtean ez bezala, txikitu egin da familia-nukleoarengandik banatu diren kasuen ehuneko erlatiboa, eta, ondorioz, baita administrazio publikoak bere gain hartu behar izan dituen zaintza-egoerena ere

(751 izan zituen zaintzan 2017an, 1.705 adingabekotik, hau da, adingabekoen % 44 inguru; 2016an, berriz, 739 adingabe izan zituen zaintzan, 1.446 adingabekotatik, hau da, % 51 inguru). Ehuneko hori 2015eko mailara itzuli da gutxi gorabehera (2015ean 657 adingabe izan zituen zaintzan, 1.413 adingabekotatik, hau da, % 46).

Laburbilduz, 2017an adingabekoei arreta emateko esku-hartzeak handitu egin direla ikus daiteke, eta botere publikoek behar bezala ponderatu beharreko arazo bat adierazten du datu horrek. Aldi berean, balio erlatiboetan, familia-nukleoarengandik ez banatzea ekarri duten esku-hartzeen modalitateen pisua handitu dela ikus daiteke. Babesgabetasun-egoeren fase goiztiarretan esku-hartzeko modalitateen adierazletzat har daiteke hori, positibotzat jo beharrekoa, eta beste urte batzuetako txostenetan iradoki diren jardueraildoekin bat datozenak.

Komeni da, horrenbestez, berriro adieraztea neurriak hartu eta indartu behar direla, administrazio publikoak arrisku-egoeren hastapenetako faseetan esku har dezan, eta, ahal den neurrian, familia-nukleoarengandik banatzea eragotzi ditzan.

Era berean, babes-sistemak arreta eman dien adingabeen zifrek, eta, bereziki, azken urtean hautemandako igoera nabarmenak, administrazio-organoei eta lantaldeei baliabide nahikoak ematearen beharra berresten dute.

b Babesgabezia-egoerak.

Babesgabetasuna intentsitate handiagoaz agertzen den eta adingabearen zaintza hartu beharra dakarten babesgabetasun-egoerak dira.

2017an 90 adingabe babesgabezia-egoeran zeudela aitortu zen. Aurreko urteetakoa baino handiagoa da kopuru hori (40 adingabe 2016an, 35 adingabe 2015ean, 19 adingabe 2014an, 21 adingabe 2013an eta 32 adingabe 2012an), eta berretsi egiten du iaz hauteman zen goranzko joera.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

Aurretik esan bezala, hobe da, ahal den heinean, babesgabezia-egoerarik ez egotera bideratutako neurri gehiago hartzea, babesgabetasun-maila handiagoa delako egoera horietan, eta, beraz, esku-hartze maila handiagoa eskatzen dutelako.

Bestalde, babesgabeziako sei deklarazio bota dira atzera, babesgabezia-egoera horiek sorrarazi zituzten kausak desagertu direlako (2016an lau kasu izan ziren eta bi kasu 2015ean). Erakunde honek berriz azpimarratu behar du Administrazio Publikoak ahaleginak egiten jarraitu behar duela, adingabeak beren jatorrizko familietara itzultzeko baldintzak eman daitezen. Gogorarazi behar da horixe dela babesgabeziaren azken helburua, eta egoera horren ondoriozko betebeharra dela adingabeak artatzen ez dituzten edo, arrazoiak arrazoi, artatu nahi ez dituzten familiekiko esku-hartzea bultzatzea. Horren harira, erakunde honek positibotzat jotzen du, lehen esan den bezala, planifikatutako jarduketa-ildoan artean sartu izana seme-alabek beren gurasoak berreskuratzeko eta haien arteko harremana hobetzeko programak eta jarduerak ezartzea.

Azken batean, prebentzio-eginkizunak, arrisku-egoeren detekzioa eta familiekin esku-hartze soziala indartzen jarraitzea komeni da, egoera bakoitzaren nondik norakoek ez dezaten, ahal den neurrian, adingabeen babesgabezia-egoera deklaratzeko premia sorrarazi, eta, deklarazio hori egiteko premia sortzen baldin bada, egoera lehengoratzeko bidea zabalik gera dadin.

c Familiei laguntzeko jarduketak.

Administrazioaren babesak (babes teknikoa nahiz ekonomikoa) jaso dituzten familien egoera aztertzen du atal honek, alde batera utzita zer jarduketa mota egin den. Administrazioaren babes horren helburua da hausturarik ez gertatzea, eta haustura gertatu baldin bada, adingabearen itzulera bilatzea. Datua adierazgarria da, ongi islatzen baitu zenbat familiak izan dezaketen administrazioaren laguntzaren beharra, eta, horrenbestez, zenbatak dituzten zailtasunak, izaera eta

intentsitate askotarikoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuen arabera, 1.134 familiak babes-moduren bat jaso zuten 2017an (844 familia izan ziren 2016an). Haurren eta nerabeen arretarako taldeek artatutako familiak dira, familia hartzaileak eta laguntza teknikoa jasotzen dutenak, harreragatik laguntza ekonomikoa jasotzen duten familiak, zaintza beren gain hartzea ez dakarten programetan dauden adingabeak dituzten familiak (eguneko zentroak, familia esku-hartzerako programa, nerabeentzako hezkuntza-programak) eta prestazio ekonomikoko konpentsatzaileak dituzten familiak.

Datu horrek agerian uzten du adingabeen egoera dela eta, maila handiagoan ala txikiagoan, laguntza publikoa behar duten familia-nukleo kopuru handi bat dagoela, adingabeak babesgabetasun-egoeran daudelako edo egoteko arriskuan daudelako, eta, kopuru horren bilakaerak, logikoa den bezala, bat dator babes-sistemak artatutako adingabekoen zifretan hautemandako goranzko joerarekin.

Hori horrela izanik, adingabeen egungo babes-sistemaren baliabideak sistemaren beraren beharrei erantzuteko egokiak eta nahikoak diren ala ez ebaluatu behar da. Nolanahi ere, ahalegin bat egitea gomendatzen da, arlo horretan diharduten agenteei (funtsean, haurren eta nerabeen babeserako, sustapenerako eta arretarako zerbitzuei, oinarrizko gizarte-zerbitzuei, eta laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko erakundeei) baliabide nahikoak emateko –pertsonalak zein materialak– garrantzi sozial handiko haien lan horretan arrakasta izan dezaten.

d Zaintza-egoeran dauden adingabeak.

Zaintza babesgabetasun-egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurri bat da, eta familia- nahiz egoitza-harreraren figuraren bitartez gauzatzen da.

Eskubide Sozialetako Departamentuak zaintza-egoeran dauden adingabeen inguruan emandako datuetan, bereizi egiten ditu behin-behineko zaintza-egoerak

(behaketa- eta harrera-zentroen bidez eta urgentziako familien bidez) eta harrera-, egoitza- edo familia-egoerak (kasu honetan, "behin-behinekoa ez den" zaintza baten aurrean egonen ginatete, balorazio-fasearen ostean erabakitakoa).

Datu horiek oinarri hartuta, arriskuan dauden adingabeei buruzko atalean adierazi den moduan, ikus daiteke zaintza-egoeran dauden adingabekoen kopuru osoa igo egin dela 2016 eta 2017 urteen bitartean (739 izan ziren 2016an eta 751 2017an). Igo egin dira behin-behineko zaintza-egoerak zentroetan edo familietan (240 izan ziren 2016an, eta 257 2017an), eta jaitsi egin dira harrerak (499 2016an eta 494 2017an), bi aldagai horietan aldaketa txikia izan bada ere.

e Tutoretzapeko adingabeak.

Tutoretza, administratiboa edo arrunta, legeak ezarritako babes-neurrietako beste bat da, eta babesgabetasun-egoera trinkoago bati lotuta dago; hau da, babesgabeziari.

2017an tutoretzapeko adingabeen zifra proportzionala 347 izan da, aurreko urteetako baino nabarmen handiagoa (178 adingabeko 2015ean, eta 253 adingabeko 2016an). Tutoretzapeko adingabekoen kopuru horren goranzko bilakaera, funtsean, bat dator zaintza-egoeran dauden adingabekoen adierazleak ageri duenarekin (babesgabetasun handiko egoera horrek baitakar, hain justu, zaintza, hau da, intentsitate handieneko neurria, bereganatzea). Hala eta guztiz ere, 2017ko datuen arabera, tutoretzapeko adingabeen kasuen igoera erlatibo bat hautematen dela esan beharra dago (babesgabezia-egoerako kasuak zaintza-egoerakoak baino askoz gehiago igo dira).

f Harrera indardun eta formalizatuak.

Harreraren bidez formalizatzen dira babesgabezia-egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza.

2017an, 174 adingaberen harrera formalizatu zen. 2016ko kopuru bera da hori, eta aurreko bi urteetako

kopurua baino handiagoa (159 adingabeko 2015ean, 121 adingabeko 2014an, eta 107 adingabeko 2013an).

Hartutako adingabeen kopurua (ez dira atal honetan zenbatu behaketa- eta harrera-zentroetan dauden adingabeak, edo urgentziako familietan daudenak, behin-behineko zaintza neurriarekin) 494 adingabekoa da (499 adingabeko izan ziren 2016an, 461 2015ean, 485 2014an, eta 469 2013an). Ikus daitekeen bezala, kopuru hori nahiko egonkorra da azken urteetan.

Harrera moten arteko harremanari dagokionez, 15/2005 Foru Legeak familia-harrerari ematen dio lehentasuna egoitza-harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen dio adingabeak familia zabalean hartzeari, haienak ez diren beste familia batzuek hartzearen gainetik, adingabea haren eremu naturaletik ahalik eta gertuen egon dadin, printzipio orokor gisa.

Familia- eta egoitza-harreretako lehen harremanari dagokionez, bildutako datuek adierazten dute 2017an familia-harreraren ehunekoa guztizkoaren % 46,3koa dela. Adierazle hori, 2016. urtean, % 45,7koa izan zen; % 54,6koa 2015ean; % 51ekoa 2014an; % 52koa 2013an; eta % 45ekoa 2012an.

Datu horrek adierazten du familia-harrerari lehentasuna emateko legegileak duen nahia gauzatzeko zailtasuna dagoela. Hori horrela, familia-harrerako modalitate horren aldeko neurriak hartzen jarraitzearen komenigarritasuna azpimarratu behar da berriro ere, adingabekoei arreta familia-ingurune batean eman ahal izateko, ahal den neurrian.

Behin-behineko zaintzaren edo urgentziako harreraren fasean gehien-gehienak egoitza-baliabideen bidez artatzen dira (behaketa- eta harrera-zentroetan). Alde horretatik, urgentziako familien bidezko harrera-baliabideak pisu erlatibo txikia izaten jarraitzen du (2017an 235 adingabe hartu ziren behaketa- eta harrera-zentroetan eta 22 adingabe urgentziako familietan, eta, 2016an, 225 adingabe behaketa- eta harrera-zentroetan eta 15 adingabe urgentziako familietan). Alderdi positibotzat, azken urtean

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

urgentziako familietan artatutako adingabeen kasuak nabarmen igo direla azpimarratu beharra dago (22 izan dira 2017an, eta 15 izan ziren 2016an).

Familia-inguruak egoitza-baliabidearen gainean duen lehentasuna fase horretan aplikatu beharko litzatekeela kontuan hartuta, beharrezkoa da urgentziako familia-harreraren baliabidea sendotzen jarraitzea, eta, hala, ildo horretan abiarazitako jarduketekin jarraitu behar da, bai eta haiek areagotu ere.

Bigarren harremanari dagokionez (familia zabaletan eta beste familia batzuetan egindako harrerak, familia-harreraren barruan), 2017an lehenengoan ehuneko % 58,9 da, aurreko urteetako baino txikiagoa (% 64,4 2016an, eta % 67,4 2015ean). Adingabeenak ez diren beste familia batzuetan artatutako adingabeen kasuak igo egin dira (81etik 94ra), eta jaitsi, berriz, familia zabaletan artatutako adingabeen kasuak (147tik 135era). Bi alderdi horiek aurretik aipatutako ehunekoaren beherakada nabarmenean eragina izan dute.

Horregatik, berriro eskatu behar da, posible den guztietan, babesa behar duten adingabeen familia-ingurunean esku hartzeko eta jarduketak egiteko, eta, harrera beharrezkoa bada, adingabearen eremu naturaletik hurbilen dagoen ingurunean gertatzea harrera. Jarduketa horiek, normalean ingurune hurbil horretan egiten badira, adingabeek aukera gehiago izango dituzte haien gurasoekin itzultzeko, eta bestela jokaturik baino laburragoak izan daitezke gurasoengandik aparte bizi dituzten denbora-bitartekak.

g Adopzio nazionalak eta nazioartekoak eta egokitasun-deklarazioak.

2017an, 8 adopzio nazional egin dira (7 izan ziren 2016an, eta 3, berriz, 2015ean) eta nazioartekoak, berriz, 22 (2016an 15 izan ziren, eta 2015ean, berriz, 30).

Horrez gain, 37 egokitasun-egiaztagiri nazional egin dira (2016an, 11; eta 2015ean, 16) eta nazioarteko 37 egokitasun-egiaztagiri (2016an, 40; eta 2015ean, 22).

h Gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeak.

Babes-sistemaren barruan moldaiztasun-egoeran dauden eta beren burua kaltetzeko edo besteri kaltetzeko arriskuan egon daitezkeen adingabeak sartzen dira epigrafe honetan.

2017. urtean 815 adingabe egon ziren egoera horretan, Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuen arabera. Zenbaketan, alderaketan homogeneotasuna mantentze aldera, zigor-arloko atariko eginbideak irekita dituzten 14 urtetik beherako adingabeen datuak sartu dira (250 kasu), behaketa- eta harrera-zentroetan gatazka-egoeran dauden adingabeen eta babes-sistemako beste programa batzuetan gatazka-egoeran dauden adingabeen datuei batuta.

Kopuru horiek beste ekitaldi batzuetakoekin alderatuta, oso igoera nabarmena gertatu dela jartzen da agerian (556 kasu izan ziren 2015ean eta 728 adingabeko 2016an).

Zigor-arloko eginbideak irekita dituztenak kontuan hartu gabe (datu hori ez da aintzat hartu 2015era arte), gatazka-egoeran dauden adingabekoen kopuruak 456tik 518ra egin du gora 2015 eta 2016 urteen bitartean, eta 565ra igo da 2017an, hau da, goranzko joera nabarmen baten aurrean gaude.

Datu horrek agerian jartzen du arazo horri aurre egiteko edo hura murrizteko ahaleginak egiten jarraitu behar dela, prebentzio-neurriak, hezkuntza-neurriak, neurri kulturalak eta gizarteratze-neurriak erabiliz. Halaber, laguntza berezia eman behar zaie gatazka-egoera horietan dauden adingabeen familiei, egoera horiek arazo larriak eragiten baitituzte sarritan.

i Autonomia pertsonaleko programak.

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutako programak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuen arabera, 2017an, 36 adingabek hartu zuten parte ingurune irekiko autonomia-programetan (27 adingabe izan ziren 2015ean eta 19 adingabe 2016an). Esan behar da Departamentuaren txostenean zenbateko horri egoitza-harrerako egoeran dauden 45 adingabe gehitu behar zaizkiola, haiek ere autonomia-programen edo neurrien hartzaileak baitira (42 adingabe zeuden egoera horretan 2016an).

Beraz, programa horietako kopuruek gora egin dutela ikusten da, eta erakunde honek esparru honetan martxan jarritako jarduketekin eta hartutako neurriekin aurrera egitera animatzen du, beste urte batzuetako txostenetan nabarmendu baita emantzipaziorako edo helduarora bideratzeko programak indartzearen komenigarritasuna.

E) Erreforma-sistemako jarduketak.

Erreforma-sistemari dagokionez, emandako datuek agerian jarri dute, 2017an, 325 neurri eman zirela aipatu sistemak barne hartutako adingabeek eremu zabalean betetzeko; zifra hori aurreko urteetako baino handiagoa da (242 neurri 2015ean, eta 251 neurri 2016an)-. Era berean, 44 adingaberi eragin zietela barneratze-neurriek (36 kasu 2015ean, eta 39 kasu 2016an).

Gatazka-egoeran dauden adingabeen eta erreforma-sistemak barne hartutako adingabeen datuek gora egin dutela ikusita, agerikoa da berrindartu egin behar direla gatazkak eta jokabide zigorgarriak ekar ditzaketen egoerak prebenitzeko eta detektatzeko jarduketak, eta koordinatu egin behar direla arlo horietan jarduten duten instantzien jarduketak (familia-, gizarte- eta hezkuntza-esparrukoak, batez ere).

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

4.5.2. Azken urteotako bilakaeraren informazio-koadroa.

I. Babes-sistemak artatutako adingabeak.

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zaintzapeko adingabeak	Egoitza- edo familia-harrera	415	452	458	550	538	469	485	461	499	494
	Behin-behineko zaintza (COAS)	120	147	180	164	197	184	174	179	225	235
	Urgentziako familietan behin-behineko zaintza						2	7	17	15	22
	Guztira	535	599	638	714	735	655	666	657	739	751
Eguneko zentroetan dauden adingabeak		25	26	31	27	26	30	46	25	26	27
Familian esku hartzeko programa espezializatueta dauden ADINGABEAK (EHPE)		119	165	153	132	175	152	181	212	176	270
Nerabeen hezkuntzarako programan dauden ADINGABEAK (NHP)		32	25	30	32	28	28	30	24	25	41
Haurren eta nerabeen arretarako taldeen (HNAT) esku-hartzea behar duten ADINGABEAK (Lizarra, Tafalla eta Tutera)*		160	194	169	241	224	358	450	468	461	580
AUTONOMIA-PROGRAMETAN DAUDEN ADINGABEAK			56	22	14	18	44	40	27	19	36
GUZTIRA		336	466	405	446	471	612	747	756	707	954
ADINGABEAK, GUZTIRA		871	1065	1043	1160	1206	1267	1413	1413	1446	1705

II. HNA taldeek artatutako familiak.

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
HNAT	Lizarra Familiak	59	58	58	70	72	73	84	88	91	140
	Tafalla Familiak	37	50	45	60	56	58	75	65	69	96
	Tutera Familiak					5	77	97	110	106	162
Guztira		96	108	103	130	133	208	256	263	266	398

III. Familia hartzaileak eta laguntza teknikoa jasotzen dutenak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Familia hartzaileak	197	202	242	198	218	210	210	217	198	190

IV. Laguntza ekonomikoa jasotzen duten familia hartzaileak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Harrerengatik laguntza jasotzen duten familiak	124	135	188	151	156	153	181	194	150 (familias)	186
									187 (menores)	

V. Beste programa batzuetan adingabeak dituzten familiak (horrek ez dakar zaintza gain hartzea).

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
FAMILIAK EGUNEKO ZENTROA (adingabeak zenbatzen ziren, eta 2013az geroztik, baita familiak ere).						25	40	17	23	25
FAMILIAS en programa Especializado espezializatuan dauden FAMILIAK	50	76	72	82	83	68	77	92	97	195
FAMILIAK NHP(adingabeak zenbatzen ziren, eta 2013az geroztik, baita familiak ere).						28	30	24	25	28

VI. Prestazio ekonomiko konpentsatzailearen bidez laguntza jasotzen duten familiak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	
Prestazio ekonomiko konpentsatzaileak (adingabeentzako laguntzak dira, 201an jada familiak bereizten ditu)	63	52	96	56		26	18 fami- liak	48 fami- liak	71 fami- liak	85 fami- liak	92

VII. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
URTEAN AITORTUTAKO BABESGABEZIA-EGOERAK	20	29	44	38	32	21	19	35	40	90
TUTORETZAPEKO ADINGABEAK, GUZTIRA	207	220	202	214	202	220	239	178	253*	347

* Indarreko 195 babesgabezia-egoera soilik zeuden erregistratuta 16/12/31n, zenbait kasutan atzera bota delako egoeraren deklarazioa eta adingabeak adinez nagusi izatera iritsi direlako.

VIII. Familia- nahiz egoitza-harreran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Egoitza-harrera	188	210	216	310	292	225	237	209	271	265
Familia-harrera*	227	242	242	240	246	244	248	252	228	229
Guztira	415	452	458	550	538	469	485	461	499	494

* Familia-harrerak ez du barne hartzen adopzio aurreko harrera.

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

IX. Familia zabalean eta beste familia batzuetan egindako harrerak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Adingabeenak ez diren familiak	72	78	76	85	93	88	86	82	81	94
Familia zabalak	155	164	166	155	153	156	162	170	147	135
Guztira	227	242	242	240	246	244	248	252	228	229

X. Familia-harrera arruntak, iraunkorrak eta adopzio aurrekoak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Aldi baterako harrerak	80	82	70	68	61	72	51	49	42	57
Harrera iraunkorrak	147	160	172	172	185	172	197	203	186	172
Adopzio aurreko harrerak*	16	17	7	8	9	9	7	0	0	No

* Uztailaren 28ko 26/2015 Legea, (adopzioaren aurreko harrera desagertzen da)*Uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu egin du familia-harreraren tipologia.

XI. Behin-behineko zaintzapean dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Argaray behaketa- eta harrera-zentroa (zailtasuna)	55	48	69	64	65	56	55	64	67	90
Beloso behaketa- eta harrera-zentroa (gatazka)	65	99	111	100	132	128	119	115	158	145
URGENTZIAKO FAMILIAK						2	7	17	15	22
GUZTIRA	120	147	180	164	197	186	181	196	240	257

XII. Gatazka-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
COA gatazka-egoeran dauden adingabeak	65	99	111	100	132	128	119	115	158	145
Beste programa batzuetan gatazka-egoera dauden adingabeak (egoitza-harrera, NHP, EHPE, etab.)	152	229	125	161	91	92	137	341	360	420
Gatazka-egoeran dauden adingabeak, guztira	217	328	236	261	223	220	256	456	518	565

XIII. Zaintza-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
HARRERAN HARTUTAKO ADINGABEAK	415	452	458	550	538	469	485	461	499	494
COAS	120	147	180	164	197	184	174	179	225	235
Urgentziako familiak							7	17	15	22
Guztira	535	599	638	714	735	653	666	657	739	751

XIV. Adopzio nazionala.

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Adopzio-proposamena duten adingabeen kopurua *		10	12	7	8	16	9	10	8	10	8
	Nafarroakoak	10	9	7	8	9	5	8	8	5	5
	0 eta 2 urte bitarteko en zerrrenda	8	7	3	3	2	3	2	3	2	
	Beste erkidego batzuetakoak		3			7	4	2	0	5	3
INAFiko adopzio-proposamena duten adingabeen kopurua.		10	9	10	8	10	5	8	8	5	5
Adopzioko autoak		9	9	15	6	7	14	15	3	8 (ezetsi egin zen horietako 1)	8
Adopzioko autoak	Nafarroako proposamena dutenak	7	9	11	6	5	12	7	3	5	5
	Beste erkidego batzuetakoak	2		4		2	2	8	0	2	3
Familia eskatzaileak		126	68	66	41	30	21	34	15	11	16

* Uztailaren 28ko 28/2015 Legeak aldatu egin du familia-harreraren tipologia. Kendu egin da adopzio aurreko harreraren figura juridikoa. Legea indarrean jartzeko egunetik aurrera, "zaintza adopziorako eskuordetzea" dakarten administrazio-ebazpenak ematen dira.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
EGOKITASUN NAZIONALEKO ZIURTAGIRIAK	8	6	3	4	5	2	23	16	11	37

XV. Nazioarteko adopzioa.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Familia eskatzaileak	126	84	81	45	46	18	29	19	23	21
Egokitasun-ziurtagiriak	130	140	71	93	70	59	56	22	40	37
Adoptatutako adingabeak	76	75	65	65	45	49	27	30	15	22
Nafarroan adoptatu diren adingabeak, guztira	845	920	985	1050	1095	1144	1171	1201	1216	1238
Jarraipendun adingabeak	249	222	227	279	232	205	174	175	132	160

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

XVI. Administrazioaren laguntza duten adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
EGUNEKO ZENTROETAN DAUDEN ADINGABEAK	25	26	31	27	26	30	46	25	26	27
Familian esku hartzeko programa espezializatueta dauden ADINGABEAK (EHPE)	119	165	153	132	175	152	181	212	176	270
Nerabeen hezkuntzarako programan dauden ADINGABEAK (NHP)	32	25	30	32	28	28	30	24	25	41
Haurren eta nerabeen arretarako taldeen (HNAT) esku-hartzea behar duten ADINGABEAK (Lizarra, Tafalla eta Tuterako)*	160	194	169	241	224	358	450	468	461	580
AUTONOMIA-PROGRAMETAN DAUDEN ADINGABEAK		56	22	14	18	44	40	27	19	36
GUZTIRA	336	466	405	446	471	612	747	756	707	954

* Tuterako HNAT 2013. urtearen amaieran jarri zen abian eta guztiz martxan, berriz, 2014an. Horregatik handitu zen hainbeste adingabeen kopurua urte eta programa horretan.

XVII. Erreforma-sisteman dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
INGURUNE IREKIA*	335	336	336	362	288	303	321	242	251	325
BARNERATZEA	36	29	38	31	21	43	54	36	39	44

* Adingabeek ingurune irekian betetzeko eman diren neurrien zenbatekoa adierazten dute kopuru horiek. Adingabeen kopurua adierazten dute barneratze-datuek.

4.5.3. Iradokizunak.

Haurren eta nerabeen eskubideen babesari buruzko foru-legedia zerbitzu publikoak hobetzea da Nafarroako Arartekoaren eginkizunetako bat, eta, alde horretatik, oso egokiak irizten ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako informazioan ageri diren neurriak; era berean, neurri horiek ezartzera animatu nahi du.

Horrez gainera, egoki deritzo Eskubide Sozialetako Departamentuari honako iradokizun hauek helaraztea:

- 1 Haurren eta nerabeen babesari buruzko foru-legedia berrikustea, Haurren Eskubideen Konbentzioaren eskakizunei egokitzeko eta, beharrezkoa baldin bada, konbentzio horren ondorioz ematen den estatu-legedira moldatzeko, baldin eta horrek hobeto bermatuko baldin baditu adingabeen eskubideak.

Gai horri buruz, gogoratu behar da Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, bi ebazpen onetsi zituela, eta, haien bidez, haurrentzako eta nerabeentzako babesari, laguntzari eta sustapenari

buruzko foru-lege berri bat egitearen alde egiten dela.

- 2 Duela gutxi onartu den Haur eta Nerabeen Arretarako II. Planean aurreikusitako neurriak eta jarduketa-ildoak abian jartzea.
- 3 Adingabeen babeserako sistemak eta adingabearen babes-gaietan diharduten eragileek (haurrak eta nerabeak babesteko, sustapenerako eta arretarako zerbitzua, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, HNA taldeak, laguntzaile gisa diharduten gizarte-ekimeneko erakundeak, etab.) dituzten baliabideak ebaluatzea, eta ebaluazio horretan, aintzat hartzea zer bilakaera aurreikusten zaion edo aurreikus dakioken, azken urteetako joerei begiratuta, adingabeak babesteko sistemari.

Ebaluatze-lan hori egitea are premiazkoagoa da, jarduera-adierazle nagusiek 2017an erakutsi duten goranzko joera ikusita; izan ere, joera horrek azken urteetako eboluzioa baieztatzen du.

Nahitaezkoa da adingabearen babeserako sistemak baliabide pertsonal, material eta tekniko nahikoak izatea, behar bezala bete ditzan legez betetzekoak dituen eginkizunak, eta ahal izanez gero, egungo zuzkidura berrindartzea iradokitzen da.

Alde horretatik, aipatu behar da Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, zenbait ebazpen onetsi zituela, eta haien bidez galdegin zuela oinarrizko osasun-laguntza berrantolatzeke, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketa hobetzeko eta oinarrizko zerbitzuetako giza baliabideak indartzeko.

- 4 Adingabeen desinstituzionalizazioaren alde egiteko jarduketa-ildoekin jarraitzea, eta ahal den neurrian horiek indartzea, norbere familia-ingurunean, edo ezin bada, harrera-familietan, gelditzea bultzatzeko. Adierazi denez, 2017ko datuek agerian uzten dute babesgabetasun-kasuen gorakada, eta familia-

harrerarekiko lehentasuna baliatzeko zailtasunen adierazle dira berriz ere.

- 5 Adingabeen eskubide eta betebeharren zabalkunde-lana ahalik eta gehien sustatzea, bai gizarte-arloan, oro har, bai adingabeen artean ere.
- 6 Adingabeei arreta ematen dieten administrazio-organoen artean koordinazioa hobetzeko jarduketa-ildoekin jarraitzea, bereziki, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-arloetan, prebentzio eta babes goiztiarra sustatzeko arrisku-egoeren aurrean, eta ahal den neurrian, sarean funtzionatuko duen sistema bultzatzeko. Bereziki, adingabeekin diharduten gizarte-ekimeneko erakundeekiko koordinazioa ere indartzea komeni dela azpimarratzen da.
- 7 Prebentzioaren arlo honetan gizarte sentsibilizazioarako, familia-laguntzarako eta gizarte harreman eta aisiarako jarduketak eta programak gauzatzea.
- 8 Arrisku egoeretan arreta goiztiarra indartzen jarraitzea, egoera horiek antzemateko dauden baliabide eta mekanismoen bidez, ahal den neurrian egoerok adingabeak beren familia-inguruetik aldentzea, eta kasua bada, babesgabetasun egoeran daudela aitortzea, saihestuz. Ildo beretik, arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiei laguntza ematea sustatzea, adingabeok haien inguru naturalean egoten jarrai daitezten.
- 9 Familiekiko harremanak, informazioa eta hala badagokio, babesa indartzea, baldin eta familia horiek babesgabetasun-egoeran deklaraturako adingabeak edo familia-gunetik aparte bizi diren adingabeak baldin badituzte, eta, egoera horietan, adingabeen itzulera bideragarri izateko baldintzak sortu behar dira. Kasu guztietan, adingabearen interes nagusia gailendu behar da.
- 10 Familia-harreraren modalitatea (kontzientziazio-neurriekin, harrera-familientzako prestakuntzarekin,

4. kapitulua

ofiziozko jarduketak

babes-ekonomikoarekin, etab.) sustatzen eta harrera-modalitate horrekin lotutako baliabide zehatzak, hala nola larrialdikoak eta espezializatuak, indartzen jarraitzea.

- 11 Gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako programak areagotzea, prebentzio-, hezkuntza-, kultura- eta gizarteratze-neurriekin, bai eta, hala badagokio, lan-neurriekin ere, arreta-programa horietan familientzako arreta eta laguntza bereziak integratuz.
- 12 Autonomia pertsonaleko programak indartzen jarraitzea, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta, neurri judizial edo administratiboren bat izan duten nerabeak helduarora egoki igaro ahal izan daitezen.
- 13 Gizarte-gatazkako egoeran eta erreforma-sistemara lotuta dauden adingabeen gorakada aztertzea, eta gatazkak eta zigortzekoak diren jokabideak ekar ditzaketen egoerak hautemateko eta prebenitzeko eginkizunak indartzea, eta, xede hori lortzeko, koordinatu egin behar dira egoera horietan eragiten duten eragileen, eta, batik bat, familien, gizarte-eragileen eta hezitzaileen jarduketak.

Iradokizun horiek Eskubide Sozialetako Departamentuari jakinaraziko zaizkio, onartzen dituen ala ez ikusteko, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 34.2 artikuluekin bat etorritik.

5. kapitulua

zerbitzu publikoak hobetzeko herritarrek egindako proposamenak

5.1. DATU OROKORRAK.

Beste urte batzuetako txostenetan islatzen den moduan, 2008. urtetik, erakundeak herritarren parte-hartzea sustatzen du zerbitzu publikoen hobekuntzan. Arartekoak zerbitzu horiek hobetzeko proposamenak aurkeztera animatzen ditu herritarrek, eta, zenbait kasutan, araua aldatzeko proposamen bilakatzen dira proposamen horiek.

Horrela, 2008tik herritarrek **306** hobekuntza-proposamen aurkeztu dituzte. Horietatik, **sei** proposamen 2017. urtekoak dira.

Herritarren proposamen horiek administrazio publiko eskudunari edo Espainiako Arartekoari —Estatuaren eskumenekoak baldin badira— helarazten dizkio erakundeak, eta, arrazoizkotzat jotzen baditu, erakunde horien aurrean defendatzen ditu.

Kudeatutako bederlatzi proposamenetatik (2017an aurkeztutako seiak eta 2016tik geratzen ziren hiru), bat Espainiako Arartekoari igorri zitzaion, eta beste bat ez zen inora bidali, ez zuelako asmo zehatzik. Gainerako zazpi proposamenak Nafarroako administrazio publikoetan izapidetu ziren.

Zazpi kasu horietatik bitan Administrazioak proposamena onartu zuen. Proposamen horietako beste bat ez zuen onartu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, eta hirugarren batean ez zen eskubideen urraketarik antzeman.

Geratzen diren hiru kasuetan, Nafarroako Arartekoak proposamenaren aldeko ebazpena eman zuen; administrazioek bi ez zituzten onartu eta bat onartu zuten.

Proposamenek honako **gaiak** izan zituzten xede (kopuru handienetik txikienera ordenatuta aipatzen ditugu):

- **Hezkuntza: 2** (haur goiztiarren eskolatzea atzeratzeko aukeraren balorazioa, eta egungo beka-sistemaren aldaketa).
- **Gardentasuna: 1** (administrazio publikoen arteko komunikazio-falta eta dituzten datu-baseen eguneratze-falta).
- **Enplegu publikora heltzea: 1** (hobekuntzak langileen hautaketa-prozeduretan; bereziki, desgaitasuna duten pertsonen dagokienez).
- **Osasuna: 1** (jaioberrien identifikazio-metodoen aldaketa).
- **Ikuskizun publikoak eta josteta-jarduerak: 1** (joko-makinen eta kirol-apus-tuen makinen erabileraren kontrola).

Hurrengo taulan, kudeatutako proposamenak eta haien emaitzak jaso ditugu:

Gaia	Gaia zehatza	Administrazio hartzailea	Eraitza
2016ko abenduaren 31n egiteko dauden proposamenak			
Funtzio publikoa	Errepedeetako zaintzaileak C mailara igotzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua Garapen Ekonomikorako Departamentua	Onartutako iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialak betetzean zorrotasuna	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez da atzeman eskubideen urraketarik
Justizia	Eskelak erregistro zibilaren web-orrian argitaratzea		Espainiako Arartekoari bidalita
2017ko proposamenak			
Gardentasuna	Administrazio publikoen arteko komunikazio handiagoa, dituzten datu-baseen eguneraketa hobetzeko helburuarekin	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako proposamena
Hezkuntza	Adingabe goiztiarren eskolatzeko zuzendutako adinaren arabera	Hezkuntza Departamentua	Ez da onartu iradokizuna.
Enplegu publikora heltzea	Hobekuntzak langileen hautaketa-prozeduretan; bereziki, desgaitasuna duten pertsonen kasuan	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua Osasun Departamentua	Ez dira onartu iradokizunak.
Hezkuntza	Hobekuntzak beka-sisteman eta derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetarako laguntzetan	Hezkuntza Departamentua	Ez da onartu proposamena
Osasuna	Jaioberrien identifikazio-metodoen aldaketa	Osasun Departamentua	Eskaerarik ez
Ikuskizun publikoak eta josteta-jarduerak	Kirol-apustuen makinatan adingabeen erabilera kontrolatzeko neurriak ezartzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako proposamena

Honako hau da 2017an egindako sei proposamenen **erakunde eta administrazio publiko hartzaileen** laburpena, kontuan hartuta proposamen batzuk administrazio batean baino gehiagotan egon direla:

- I Hezkuntza Departamentua: 3.
- II Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua: 3.
- III Osasun Departamentua: 1.

5. kapitulua

zerbitzu publikoak hobetzeko herritarrek egindako proposamenak

5.2. PROPOSAMENEN EDUKIA.

Ondoren, herritarrek aurkeztutako proposamenen edukia azaltzen dugu.

5.2.1. Administrazio publikoen arteko komunikazioa handiagoa izatea lortzeko proposamena, haien esku dauden datu-baseen eguneraketa hobetzeko helburuarekin.

Administrazio hartzailea: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Gardentasuna

Laburpena: Hiritar batek Nafarroako administrazio publikoen esku dauden datu-baseen eguneraketa-prozesuen hobekuntza proposatu zuen.

Hiritarrak adierazi zuen administrazioen artean komunikazio-falta zegoela datu-baseen eguneraketa egiteko. Horrek esan nahi du datu-baseetako edozein datu aldatzean, interesduna bera arduratu behar zela esku hartzen zuten administrazio guztiei aldaketa jakinarazteaz.

Hiritar horrek proposatzen zuen arazo hori aztertzen has zitezela, administrazioek elkarrekin zuten funtzionamendua hobetzeko helburuarekin; eta aldi berean, hiritarrei administrazio horiekin egin beharreko izapideak errazteko.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura igorri zuen proposamena.

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak adierazi zuen urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore publikoaren araubide juridikoarenak, administrazio publikoen arteko datuen transmisioa ezartzen zuela, bai eta nork bere arloan sareak elkarri lotzea ahalbidetzeko behar diren teknologiak ezartzeko beharra ere, administrazio horien informazio-sistemak elkarri lotzeko komunikazio-sare bat sortzeko helburuz eta haien artean informazioa eta

zerbitzuak trukatzea ahalbidetuz. Ildo horretan, kontseilariak jakinarazi zuen administrazio publiko guztiak arau horretan ezarritakoa egikaritzeko lanean ari direla.

Departamentuak herritarrari igorritako informazio horrekin amaitutzat eman genituen jarduketak.

5.2.2. Adingabe goiztiarrak zuzendutako adinaren arabera eskolatzeko aukerari buruzko proposamena.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamentua.

Arloa: Hezkuntza.

Laburpena: Hiritar batek hezkuntza-araudia aldatzea proposatu zuen, oso haur goiztiarrek (32. astea baino lehen jaiotakoak) eta oso muturreko haur goiztiarrek (28. astea baino lehen jaiotakoak) duten zuzendutako adinaren arabera eskolatzeko aukera izan dezaten.

Hiritarra haur goiztiar baten ama da, eta haur horiek duten heldutasunik eza handia dela defendatzen du, eta horrek ikasgelako erritmoa ezin jarraitzea dakarrela. Hori dela eta, ulertzen du haientzat onuragarria izango litzatekeela eskolatzeko jaiotzeko aurreikusita zuten dataren arabera (zuzendutako adina) egin ahal izatea, eta ez egiaz jaio ziren dataren arabera.

Ildo horretan, prentsako hainbat artikulua aurkeztu zituen erantsita, autonomia-erkidego batzuetan hiritarrak proposatzen zuen ereduaren alde egin dutela eta gurasoei seme-alabak zuzendutako adinaren arabera eskolatzeko aukera aitortu zaiela erakutsiz.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Hezkuntza Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Hezkuntzako kontseilariak txosten bat igorri zuen, eta haren bidez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan dauden ikasleen ebaluazioa arautzen duen apirilaren 2ko 47/2009 Foru Aginduaren, hezkuntzako kontseilariak emandakoaren, laugarren xedapen gehigarria aipatu zuen, esanez hark jada ezartzen duela

ikasleek urtebete gehiagoz jarrai dezaketela etapa horretan, betiere gizarte-heziketako integrazioarako onuragarria bada.

Hezkuntza Departamentuak igorritako txostenean adierazitakoa ikusirik, erakunde honek departamentu hartara jo zuen, haur goiztiarren (oso haur goiztiarrak eta oso muturreko haur goiztiarrak) eskolatzea zuzendutako adinaren arabera egitea ahalbidetzeko neurriak hartzea baloratzeko proposatuz, kolektibo horrek izan dezakeen espezifikotasuna kontuan izanda.

Iradokizunari erantzunez, kontseilariak jakinarazi zuen iradokizuna kontuan izango zutela hurrengo ekitaldian zehar eta aukera hori aztertzeko egokitasunik zegoen ala ez baloratuko zela.

Informazio hori proposamena egin zuen herritarrari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

5.2.3. Administrazio Publikoko langileen hautaketa-prozeduretan hobekuntzak egiteko proposamena; bereziki, desgaitasuna duten pertsonekin lotutako alderdiei dagokienez.

Administrazio hartzaileak: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua, eta Hezkuntza Departamentua.

Arloa: Enplegu publikora heltzea.

Laburpena: Hiritar batek Administrazio Publikoko langileen hautaketa-prozeduretan hobekuntzak egiteko proposamen bat aurkeztu zuen, hainbat iradokizunekin, eta bereziki, desgaitasuna duten pertsonekin lotutako alderdiei buruz.

Hiritarrak bost proposamen zerrendatu zituen:

Lehenengoan, ahozko probak grabatzeko aukera proposatzen zuen, oposiziogileak lortzen duen kalifikazioa erreklamatzeko duen eskubidea bermatzeko.

Bigarrenean, desgaitasuna duten pertsonak aurkezten diren epaimahaietan, desgaitasunetan espezializatutako kanpo-aholkularien kolaborazioa izateko derrigortasuna defendatzen zuen.

Hirugarrenean, egokitzapen bereziren baten beharra (adibidez, ordenagailuaren erabilera) duten hautagaien kasuan anonimotasuna bermatzea ezinezkoa denez, desgaitasuna duten pertsona guztientzat epaimahai berezi bat jartzeko aukera proposatzen zuen.

Laugarren proposamenean, epaimahai guztiek probekin hasi aurretik erabakitako ebaluazio-irizpideak publiko egiteko eta desgaitasuna duten pertsonentzat baremoan dagozkien egokitzapenak egiteko derrigortasuna izatea proposatzen zuen.

Azkenik, bosgarren puntuak zioen beharrezkoa iruditzen zitzaiola Administrazio Publikoak epaimahaiko kideei desgaitasuna duten pertsonen eskubideen ikuskerarekiko jarrera konprometitua eta proaktiboa izatea exijitzea.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Hezkuntza Departamentura igorri zuen proposamena, haiek baloratzeko.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak hiritarrak eginiko proposamen guztiei erantzun zien. Lehenari buruz, eta Hezkuntza Departamentuarekin kontsultatu ostean, ahozko probak grabatzea ez zuela beharrezkoa ikusten defendatu zuen. Bigarren proposamenaren harira, adierazi zuen funtzio publikora sartzeko hautaketa-prozedura guztietan Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari txosten bat eskatzen zaiola, probak egiteko baliabideak eta denborak egokitzeko. Desgaitasuna duten hautagaiarentzat epaimahai berezi bat jartzea dela-eta, kontseilariak esan zuen neurri horrek berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak, funtzio publikora heltzeko gailendu behar direnak, urratuko lituzkeela. Laugarren proposamenari

5. kapitulua

zerbitzu publikoak hobetzeko herritarrek egindako proposamenak

dagokionez, adierazi zuen ebaluazio-irizpideak www.navarra.com webgunean argitaratu zirela eta ez dela egokia desgaitasuna duten pertsonentzat baremoa egokitzea, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratuko lituzkeelako. Azkenik, kontseilariak aipatu zuen administratibotik desgaitasuna duten pertsonen aldeko jarrera proaktiboa transmititzen zaiela hautaketa-epaimahaiei; dena den, haiek probak egiteko baliabideak eta denborak egokitu ditzaketen arren, irakaskuntzarako beharrezkoak diren ezagutzak eta teknikak erakusteko maila eta eskakizunak berdin aplikatu behar zaizkie hautagai guztiei.

Hezkuntzako kontseilariak, bere aldetik, ahozko probak grabatzea ez zela beharrezkoa ulertu zuen, hautaketa-prozeduraren konfigurazioak berak eta kideak funtzionarioak izateak a priori bermatzen dutelako oposizio-fase horren inpartzialtasuna. Horrez gain, defendatu zuen kalifikazio-epaimahaiek igorritako epai teknikoak ezin direla ordeztu administrazioak hartutako erabakiekin. Halaber, proben garapenean beharrezko egokitzapenak egiteko Nafarroako Mendekotasun Agentziari txostena eskatzen zaiola jakinarazi zuen. Era berean, kontseilariak gogorarazi zuen hezkuntzako zuzendari orokorraren apirilaren 29ko 132/2016 Ebazpenaren bidez, eta oposizio-fasea hasi baino lehen, Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurako proben ebaluazio-irizpideak onartu zirela. Azkenik, adierazi zuen ez zitzaizola egokia iruditzen, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraiki, desgaitasuna duten pertsonentzat baremoa espresuki egokitzea, eta probak egiteko beharrezko baliabideak eta denborak egokitzea bakarrik dela posible.

Helarazitako txostenetan adierazitakoa ikusirik, erakunde honek bi departamenduei iradoki zien desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora heltzeari mesede egin diezaioketen neurrien azterketan eta ezarketan sakontzeko, funtzio publikora heltzeko berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei kalterik egin gabe. Zehazki, hautaketa-prozesuko fase guztietan desgaitasun-gaietan espezializatutako aholkulariak indartzea aztertzea iradoki zen, kalifikazio-

epaimahaiaren aholkularitzako baliozko mekanismo gisa.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez zuen onartu egindako iradokizuna, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak jada proben antolaketan eta kudeaketan parte hartzen duela argudiatuz, eta haren xede nagusia epaimahaiari desgaitasuna duten langileek behar dituzten baliabide- eta denbora-egokitzapenak erraztea izaki, beste hautagaien aukera-berdintasunean parte hartu ahal izateko. Dena den, kontseilariak babestu zuen espezialista horien funtzioa ezin dela inola ere kalifikazio-epaimahaiaren balorazioak ordezkatzera iritsi.

Hezkuntza Departamenduak, bere aldetik, jakinarazi zuen desgaitasuna duten pertsonak irakaskuntzako funtzio publikora heltzeari mesede egiteko neurriak ezartzea baloratuko eta aztertuko duela, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei kalterik egin gabe.

Bi departamentuek proposamena egin duen herritarri igorritako informazio horrekin amaitutzat eman genituen jarduketak.

5.2.4. Beka-sistema eta derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetarako laguntzak hobetzeko proposamena.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamendua.

Arloa: Hezkuntza.

Laburpena: Hezkuntza-arloko elkarte batek gaur egungo Nafarroako beken eta derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetarako laguntzen sistema hobetzeko lau neurri proposatzen zituen txosten bat aurkeztu zuen.

Lehen neurrian proposatzen zen Nafarroako Gobernuak emandako bekatik ez zedila deskontatu

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako zenbatekoa, baldin eta matrikularen kostuak bi diru-laguntzen baturaren guztizko zenbatekoa gainditzen bazuen.

Bigarren neurrian, beka eskatu ahal izateko ikasleek 60 ECTS kreditutan matrikulatzeko zuten eskakizuna ezabatzea eskatzen zen, matrikulatutako kredituen arabera diru-laguntzaren zenbatekoa hainbanatzeko aukera ezarriz.

Hirugarrenean, derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetan aldi berean bi seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat beken zenbatekoen proportzioa handitzea proposatzen zen, bai eta beka eskuratzeko adin maximoa 23 urtetik 30 urtera igotzea ere.

Azkenik, bikaintasun akademikoko beka-sistema bat sortzearen alde egiten zen, goi-errendimenduko unibertsitateko ikasleak aintzatesteko eta saritzeko.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Hezkuntza Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Hezkuntzako kontseilariak txosten bat helarazi zuen eta aurkeztutako proposamenekiko iritzia agertu zuen:

Matrikularen kostua bi diru-laguntzen batura baino handiagoa denean Nafarroako Gobernuak emandako bekaren zenbatekotik Hezkuntza Ministerioak emandako zenbatekoa ez deskontatzeko eskaerari dagokionez, adierazi zuen bi beka osagarriak direla, eta beraz, ez dagoela arrazoi objektiborik zentro jakin batzuetako ikasleei osagarritasun-erlazio hori ez aplikatzeko. Horrez gain, adierazi zuen 2014/2015 ikasturtetik Nafarroako Unibertsitateko ikasleei, -eta gainerakoei ez- Hezkuntza Ministerioak emandako beka aldakorra deskontatzen zaiela dioen txostenari buruz, baieztapen hori ez dela zuzena; izan ere, gainerako unibertsitateei Hezkuntza Ministerioko beka sortu zenetik aplikatu izan zaie deskontua, Nafarroako Unibertsitateko ikasleei bezala.

Ikasleek beka eskatu ahal izateko ikasturte bakoitzean 60 ETCS kreditutan matrikulatzeko dagoen eskakizuna dela-eta, erantzun zuen beka ikasketa-planeko ikasturteak bezainbeste deialditan gehi batean eskuratzeko aukera aurreikusten dela, eta horrek erregimena malgutzen duela.

Familia ugaria izatearen eta ohorezko matrikulak eskuratzearen eraginezko deskontuei dagokienez, arrazoitu zuen kontzeptu horiengatik lortutako hobariak ez direla deskontua egiteko arrazoiak, eta 2016/2017 deialdiko 11.2 arauan berariaz salbuetsita daudela. Beste kontu bat da irakaskuntzagaratik emandako zenbatekoak ezin duela inola ere matrikularen kostu erreala gainditu.

Azkenik, jakinarazi zuen hurrengo deialdietan kontuan izango dela ikasleen egoera pertsonala eta sozioekonomikoa. Dena den, gogorarazi zuen dauden baliabideak mugatuak direla eta argitaratutako deialdiak Nafarroako Unibertsitatearen ikasle onuradunen kopurua handitu zuela, bai eta zentro horretako ikasleei zuzendutako zenbatekoa ere.

Informazio hori proposamena egin duen elkarteari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

5.2.5. Jaioberrien identifikazio-metodoa aldatzeko proposamena.

Administrazio hartzailea: Osasun Departamentua.

Arloa: Osasuna.

Laburpena: Hiritar batek idatzi bat aurkeztu zuen, orain arte jaioberriak identifikatzeko erabili den prozedura aldatzeko aukera iradokiz. Zehazki, gaur egungo metodoa bizi-konstanteak monitorizatzeko erabiltzen diren titareen antzeko batekin ordezkatzeko proposatzen zuen.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak idatzi bat igorri zion interesdunari, emandako informazioa zabaltzeko eta

5. kapitulua

zerbitzu publikoak hobetzeko herritarrek egindako proposamenak

egindako proposamenaren arrazoiak zein ziren azaltzeko eskatuz.

Hilabeteko epean erantzunik ez zenez jaso, erakundeak espedientea itxi zuen.

5.2.6. Publiko orokorrari irekita dauden establezimenduetan dauden kirol-apustuen makinetan adingabeen erabilera kontrolatzeko neurriak ezartzeari buruzko proposamena.

Administrazio hartzailea: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Josteta eta ikuskizun publikoak.

Laburpena: Hiritar batek joko-adikzioak gizartean eragiten dituen kalteak nabarmentzeko idatzi bat aurkeztu zuen. Hori dela eta, publiko orokorrari irekita dauden establezimenduetan dauden kirol-apustuen makinetan sarbide-sistema bat ezartzea proposatu zuen, tabako-makinetan egiten denaren antzera; hain zuzen, kirol-apustuen makinek lokaleko langileek aktibatutakoan bakarrik funtzionatzea eragingo lukeen sistema bat.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Kontseilariak txosten bat igorri zuen, jakinaraziz Barneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez ostalaritza-sektoreko enpresariei hertsiki gomendatu zitzaizela kontrol-neurriak hartzeko, adingabeek joko-makinak erabiltzea galarazteko helburuz.

Era berean, adierazi zuen mota horretako neurriak guztiz eraginkorrak izateko, jokoaren arau-markoa aldatzea beharrezkoa dela. Ildo horretan, foru-dekretu berri bat osatzeko prozedurarekin hasteko aurretiazko lanak egiten ari zirela jakinarazi zuen, eta foru-dekretu horretan, besteak beste, hiritarrak proposatutako neurria txertatuko zela.

Proposamena onartu egin zen eta hiritarrari jakinarazi zitzaion, eta jarduketa amaitutzat eman zen.

6. kapitulua

gomendioak, eradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

6.1. SARRERA.

Puntu honetan Nafarroako Arartekoak 2017an egindako gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak jaso dira.

Egindako gomendio, iradokizun eta gogorazpenak hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude, hizpide duten gaiaren arabera, eta zein administraziori –edo bestelako hartzailei– helarazi zaizkion adierazten da, edukia labur-labur aipatuta.

Hobeto ulertzeko asmoz, informazioa atal hauetan antolatuta dago:

- Lehenengoa, gaia.
- Bigarrena, erakunde edo administrazio hartzailea; Nafarroako Parlamentua, Espainiako Arartekoa, Nafarroako Gobernuko departamentu bat, udal bat, kontzeju bat, mankomunitate bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, profesionalen elkargo bat edo beste erakunde bat den zehaztuta.
- Hirugarrena, espediente-zenbakia, hurrenkera honetan zehaztuta zer motatakoa den: kexa bat (espedientea), ofiziozko jarduketa bat (AO) edo herritarren proposamen bat (P), eta, hala badagokio, arautzeko iradokizun bat (SN) proposatzen duela adierazita (alegia, arau bat egiteko edo aldatzeko proposamena dela).
- Laugarrena, aztertutako gaiaren sintesi laburra.

- Bosgarrena, gomendioaren, iradokizunaren edo legezko betebeharren gogorazpenaren testua.
- Seigarrena, onartu den ala ez edota erantzunaren zain dagoela adierazten duen oharpena.

6.2. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHAREN GOGORAZPENAK.

6.2.1. Enplegu publikora heltzea.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/579, 16/588, 16/603, 16/613, 16/615, 16/616, 16/628 eta 16/636 espedienteak

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoan sor daitezkeen premiak betetzeko, goi-mailako tituludunen lanpostuetan aritzeko izangaien bi zerrenda hautapoben bidez osatzeko deialdi baten oinarriak:

- Departamentuari gomendatu zaio berri-ikus dezala Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren irailaren 5eko 1893/2016 Ebazpenean eskatutako titulazio-baldintza; ebazpen haren bidez onetsi dira goi mailako tituludunen lanpostuetan aritzeko izangaien bi zerrenda hautapoben bidez osatzeko deialdiak; bata, aldi baterako kontratazioetarako, eta bestea, pres-takuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko,

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoan sortzen diren beharrak betetze aldera. Modu horretan, aipatutako titulazioez –Psikologiako, Pedagogiako edo Psikopedagogiako Lizentziatura edo Gradua– edo horien baliokideez gain, lanpostu horren maila funtzionalarekin bat datozen goi-mailako beste tituludun batzuei ere parte hartzeko aukera ematen zaie.

- Era berean, kexan aipatzen den dio goi-mailako teknikariaren lanposturako gidabaimenik ez eskatzea gomendatu zaio.

Ez da onartu.

17/130 espedientea

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goi-mailako teknikari lanposturako aldi baterako kontrataziorako eginiko deialdia:

- Departamenduari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela goi-mailako tituludunaren lanpostuan egon daitezkeen plaza hutsak aldi baterako betetzeko deialdiak jakinarazteko legez ezarritako prozedurak baliatzera.

Ez da onartu.

17/670 espedientea

Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostuko hamabi plaza oposizio bidez betetzeko deialdia baztertu da, ez delako eskabiderik aurkeztu eredu ofizialaren bete-betekoa den eskeidatzi bidez. Hortaz:

- Departamentuari gomendatu zaio enplegu publikoko deialdietan parte hart-

zeko eskabideak telematikoki aurkeztea ahalbidetzeko sistema normalizatuak azter ditzala, eta eredu ofiziala erantsi gabe eskabidea ongi betetzea eta bidaltzea posible dela egiaztatzen bada, txertatu dezala eredu ofizial horren edukia duen inprimaki elektronikoa bat, edo ohar-taraz dezala eskabidearekin jarraitzea ezinezkoa izango dela dokumentu hori erantsi ezean.

Onartua.

17/675 espedientea

Geldiarazita egon behar zuten kontratazio-zerrendetako pertsonak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan goi-mailako teknikari lanposturako kontratazioari buruz aurkeztutako hainbat gorako errekurtsok ez dute erantzunik izan:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela hiritarrek aurkezten dituzten gorako errekurtsok ebazteko gehieneko epeei erreparatzera.

Onartua.

17/683 espedientea

Interesduna administrari laguntzaile (D maila) lanpostuko aldi baterako kontratazio-zerrendan “ez-libre” gisa agertzea, kontuan izanda E mailako lanpostu bateko kontratazio-eskaintza bati uko egi-teagatik dagoela zerrenda horretan:

- Departamentuari gomendatu zaio aitor dezala interesdunaren egoera aldi oro “ez-libre” gisa administrari laguntzaileen kontratazio-zerrendan, eta kexaren xedea den “ez-libre” egoeraren aitortza edo

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

konsiderazioa baliogabetu dezala, horrek izan ditzakeen ondorio guztiekin administrazio-jarduketara hori izan bazen interesdunari aipatutako lanpostuko kontratazioetara heltzeko aukera galarazi ziona.

Ez da onartu.

17/720 espedientea

Nafarroan ez dago mekanografiako ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiria ematen duen eta aitortza ofiziala duen prestakuntza-zentrorik, eta beraz, ez dago aukerarik izapidetze prozesal eta administratiboko lanpostuetarako enplegu publikoaren deialdietan egiten den eskakizun hori betetzeko. Horri dagokionez:

- Justizia Administrazioko lanpostu jakin batzuetara (izapidetze prozesal eta administratiboko kidegoa) heltzeko mekanografia-ezagutzak egiaztatzea eskatzen den neurrian, eta aplikazio-araudiak hori egiaztatzeko bide gisa aitortza ofiziala duten prestakuntza-zentroek emandako diplomak edo ziurtagiriak hartzen dituen neurrian, Departamentuari gomendatu zaio bide hori egingarri bilakatzeko neurriak har ditzala, prestakuntza-zentroei dagokien aitortza ofizial bidez, interesdun guztiek lanpostu horietara iristeko duten eskubidea ahalik eta gehien babesteko helburuz.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, eta Hezkuntza Departamentuari

16/647 espedientea

Hezkuntza Departamentuaren zerbitzurako aldi baterako atezain-lanpostuaren kontratazioko deial-

dietan desgaitasuna duten pertsonen eskubideen urraketa posiblea:

- Bi departamentuei gomendatu zaie lanpostuetako zeregin eta funtzioak aldi baterako betetzeko kontratazioan desgaitasuna duten hautagaien gaitasun-eta bateragarritasun-balorazioak espezialitate teknikoko organoen bidez egin daitezela, besteak beste, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzurako atezain-lanpostuari buruzko kexan salatutako praktikak saihesteko.
- Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 17ko 141/2010 Ebazpenaren babespean sortutako atezain-lanpostuaren aldi baterako kontratazio-zerrendari dagozkion deialdietan, 2015eko apirilaren 16ra arte indarrean egon den lehentasun-araua kontuan har dadila gomendatu zaie, aurrez existitzen zen kontratazio-zerrenda horri apirilaren 10eko 13/2015 Foru Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatu-tuaren testu bategina aldatzen duenak, ez diola eragiten jotzen baita.

Onartua.

P17/3

Langileak hautatzeko prozeduretan desgaitasuna duten pertsonentzat egin daitezkeen hobekuntzak:

- Bi departamentuei iradoki zaie sakondu dezatela desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora heltzeari mesede egin diezaioketen neurrien azterketan eta ezarpenean –besteak beste, interesdunaren proposamenak kontuan harturik–, funtzio publikora heltzeko berdintasun-

merezimendu- eta gaitasun-printzipioei kalterik egin gabe. Zehazki, hautaketa-prozesuko fase guztietan desgaitasun-gaietan espezializatutako aholkulariak indartzea aztertzea iradoki da, kalifikazio-epaimahaiaren aholkularitzako baliozko mekanismo gisa.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, eta Nafarroako Sendagileen Elkargo Ofizialari

17/559 espedientea

Udaltzain laguntzaileen lanpostuetarako aldi baterako kontratazioen deialdietan eskatzen den osasun-ziurtagiri ofiziala lortzeko zailtasuna:

- Departamentuari iradoki zaio, alde bate-tik, kontuan har dezala administrazioko lanpostu batzuetan eskatzen diren proba fisikoak egiteko hautagaia gaitzen duten egiaztagiri bakar gisa osasun-ziurtagiri ofiziala ez eskatzeko aukera, edo bestela, egiaztagiri hori lehen mailako arretako mediku batek edo pertsona interesdunaren familia-medikuak eginiko txosten batez ordezkatzeko aukera.
- Elkargoari iradoki zaio azkartu dezala osasun-ziurtagirien Internet bidezko salmentaren ezarpena, neurri horrek hiritarrek beren eskubideak erabiltzea errazten duelako.

Departamentuak ez du onartu.

Elkargo Ofizialak onartua.

Hezkuntza Departamentuari

16/691/SN espedientea

Irakaskuntzako lanpostuak aldi baterako kontratazio bidez betetzeko izangaien zerrenden kudeaketa-arauak:

- Departamentuari iradoki zaio sakon azter dezala apirilaren 29ko 55/2016 Foru Agindua, hezkuntzako kontseilariarena, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko aldi baterako irakasle-lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak zer arauen bidez kudeatu behar diren onartzen duena, aldatzeko aukera, eta kontuan har ditzala agindu horretan agertzen den espezialitateen eta hizkuntzen araberrako zerrenda-sistemaren alternatiba posibleak, sistema horrek dituen abantailak eta desabantailak baloratu, ukitutako sektoreen parte-hartzearekin, eta hala balegokio, ukitutako eskubideak eta interesak hobeto babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Onartua.

16/709 espedientea

Abuztuaren 18ko 2045/2016 Ebazpena, irakasleen aldi baterako kontrataziorako izangaien behin betiko zerrendak onetsi eta argitara ematen dituen (zehazki, pedagogia terapeutikoa/gaztelania zerrendari egiten zaio erreferentzia):

- Departamentuari gomendatu zaio egokitu dezala kexan aipatzen den egintza (pedagogia terapeutikoa/gaztelaniako irakasle-izangaiak aldi baterako kontratazeko zerrenden onespina, 2016ko abuztuaren 18an ebatzia), emandako ebazpenari dagokion sarrera-deialdia onartzeko eta argitaratzeko unean inda-

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

rrean zeuden prozedura-arauetatik atera-takoaren arabera (prozeduraren oinarri arautzaileak, eta hala badagokio, une horretan indarrean dagoen araudia eta oinarri horien osagarria), horrek izangaien hurrenkeran izan ditzakeen ondorioekin.

Ez da onartu.

16/711 espedientea

Euskarazko gorputz-hezkuntza espezialitatearen kontratazio-zerrenden deialdiari buruzko eskabide bati ez erantzun izana:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela hiritarrek aurkezten dituzten gorako errekurtsioak ebazteko gehieneko epeei erreparatzera; eta aipatutako kasuan, legezko epea igaro denez, gogorarazi zaio legez behartuta dagoela errekurtsioa ebaztera eta hartutako erabakia ahalik eta lasterren jakinaraztera.

Onartua.

17/39 espedientea

Lehen hezkuntzako gaztelaniazko irakaskuntzako espezialitateko aldi baterako kontrataziorako deialdi-prozedura:

- Departamentuari gomendatu zaio ez dezala ulertu kexa-egileak 2016ko abenduaren 5eko eskaintza ukatu zuela, eta izan ditzala kontuan eskaintza hartan izan ziren baldintza bereziak eta ez dezala interesduna "ez-libre" gisa izendatu ikasurte amaierara arte.

Ez da onartu.

17/54 espedientea

Kexa-egilea irakaskuntzako aldi baterako kontratazio-zerrendetan egonda, horietatik kanpo geratzea, 2016ko irailaren 8an Los Arcos HLHIPn zerbitzuak emateko egin zitzaion kontratu-eskaintza bat, gorputz-hezkuntzako (lehen hezkuntza) espezialitatekoa, ez onartzeagatik:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela berriaz aurkezten dizkieten eskariak, erreklamazioak, alegazioak eta errekurtsioak ebaztera, horien artean, 2016ko urriaren 18ko eskabidea, kexan aipatzen dena.
- Departamentuari gomendatu zaio interesduna ez dezala kanporatu sartuta zegoen kontratazio-zerrendetatik, aldi baterako ezintasun baten ondorioz egin ziolako uko eskaini zioten lanpostuari, aurkeztu duen agiri medikuetan ikusten denez.

Ez da onartu.

17/113 espedientea

Ostiraletan gaueko hamabietatik aurrera egiten diren kontratazio-deialdietan ematen den gardentasun-falta, eta horri buruzko informazio-eskaera bati arreta ez eskaintzea:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela aldi baterako kontratazio-zerrendak eta zerrendetan gertatutako ustekabeko garrantzitsuak modu eskuragarri eta eguneratuan argitaratzera, hautagai bakoitzak une oro zer postutan dagoen jakin ahal izateko.

Onartua.

17/135/SN espedientea

Bigarren hezkuntzan fisika eta kimika ikasgaia irakasteko eskatzen den titulazioa:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala apirilaren 29ko hezkuntzako kontseilariaren Foru Aginduko I. eranskina, bigarren hezkuntzako fisika eta kimikako irakasle gisa aritzeko tituluen artean unibertsitateko titulu horiek sartzeko, eta onar ditzala kexa-egileak bigarren hezkuntzan fisika eta kimikako irakasle gisa aritzeko egiaztatu dituen unibertsitateko tituluak.

Ez da onartu.

17/165 espedientea

Hezkuntza Departamentuak zaintzaile-lanposturako plazak esleitzeko egintza batean egindako jakinarazpenaren eraginez, egintza horretara ez bertaratzea eta zerrendetatik kanpo geratzea:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilea berriro sar dezala zaintzaile-lanposturako kontratazioetarako zerrendan; izan ere, ez dago Departamentuak interesdunaren kanporatzea eragin zuen deialdia egiteko erabili zuen toki babesten duen xedapenik.

Ez da onartu.

17/393 espedientea

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izatea ez egiaztatzeagatik nekazaritzako produkzio-ekipoen diziplinako kontratazioetarako zerrendatik kanpo geratzea:

- Departamentuari gomendatu zaio irakasuntzan aritzeko eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta irakas-presta-

kuntza ezar dadila Hezkuntzako Lege Organikoaren 100.3 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko neurriekin batera ("Hezkuntza-administrazioei dagokie prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa antolatzeke unibertsitateekiko bidezko hitzarmenak ezartzea"); modu horretan, prestakuntza hori interesdun hiritarrentzat eskuragarria izango da.

- Departamentuari iradoki zaio aintzat har dezala prestakuntza pedagogikoa eta irakas-prestakuntza egiaztatu ezin duten hautagaiak zerrendetatik kanporatzeak dituen ondorioak moldatzeko aukera; eta ondorioa izan dadila hautagaiaren eten-dura edo ez-libre izendatzea, prestakuntza egiaztatzen duenean berriz zerrendan sartu ahal izateko.

Ez da onartu.

17/440 espedientea

Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan erlijio katolikoko irakasle-lanpostuak betetzeko deialdian aplikatzekoa den araudia ez betetzea:

- Departamentuari gomendatu zaio eman diezaiola hasiera ondare-erantzukizunari buruzko prozedura bati, kexa-egileari bigarren hezkuntzako erlijio irakasle gisa ordezkapen bat egiteko lan-kontratuaren deialdian eginiko akats batek eragin dizkion kalte-galerak zehazteko.

Onartua.

17/492 espedientea

Bigarren hezkuntzako irakasleen aldi baterako kontratazioetarako zerrenda batetik kanporatzea (musikaz euskaraz espezialitatea):

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari gomendatu zaio kontuan har dezala interesdunaren eskaera; hau da, bere goi-mailako irakasle-titulua har dezala eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokidetzat, eta horren ondorioz, berrius dezala interesdunari kexa aurkeztea eragin dion aldi baterako kontratazioetarako zerrendatik kanporatzeko egintza.

Ez da onartu.

17/500 espedientea

Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ez egiaztatzeagatik bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako irakasle gisa aritzeko hautagaien zerrendetatik kanporatzea:

- Departamentuari iradoki zaio berrius dezala interesduna aldi baterako irakasleen kontratazioetarako zerrendetatik kanporatzea, eta aintzat har dezala, zerrenda horretan geratzeko helburuz, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izateko eskakizuna beteta duela jotzea.

Ez da onartu.

17/609 espedientea

2017/2018 ikasturterako irakasleen kontratuak esleitzeko prozedura:

- Departamentuari gomendatu zaio aitor diezaiola kexa-egileari gaztelaniazko fisika eta kimikako irakasle-lanpostu bat lortzeko eskubidea, aldi baterako kontratua-ekin, hortik eratorritako konpentsazio-ondorioekin.

Ez da onartu.

17/638 espedientea

Goi Mailako Kontserbatorioko piano-errepertorioko katedradunen plazen deialdiko eskaera baten harira, Hezkuntza Departamentuak ez erantzun izana:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskariak eta errekurtsioak eabaztera, eta horien artean, kexan aipatzen direnak.

Onartua.

Osasun Departamentua

16/583 espedientea

Kexa-egileari, Nafarroako Ospitale Guneko erizaintzako poolean erizain-zerbitzuak emateko kontratatu denari, ezaugarri berezidun osasun-unitate jakin batzuetan (ZIU, neonatologia, etab.) egiteko zereginak esleitu zaizkio, nahiz eta bete beharreko funtzioen berezitasunagatik, unitate horietara sartzeko kontratazio-araudiak hautagaiei eskakizun batzuk egiaztatzea eskatzen dien:

- Departamentuari gomendatu zaio bete ditzala unitate berezien kontratazioetarako zerrendetan sartzeko eskatzen diren betekizunak, edo egokitzen jotzen ez baditu, alda ditzala.

Ez da onartu.

16/607 espedientea

Kexa-egileak Kataluniako osasun-zentro batean zerbitzuak ematen igarotako denboraren balorazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kontratazioetarako zerrendetan lehentasun-ordena zehazten duen merezimendu-baremoan dituden xedeetarako:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak "Laboratori de Referència de Catalunya" emandako zerbitzua urteko 1,5 punturekin balioetsi dezala, ezin baita osasun-zentro pribatutzat hartu, mikrobiologiako kontratazioetarako zerrendan sartu eta lehentasuna izan dezan.

Onartua.

17/128 espedientea

Zainketa mediko intentsiboetako mediku espezialistek anbulantzia medikalizatueta lanpostuetako plazak lortzeko duten ezintasuna:

- Departamentuari gomendatu zaio ZIU mugikorren unitateetako lanpostuak betetzeko hurrengo deialdia bizkortu dezala eta baimendu dezala medikuntzako titulazioa eta medikuntza intentsiboko espezialitatea duten hautagaiek deialdian parte hartzea.

Onartua.

17/359 espedientea

Nafarroako Ospitale guneko administrari laguntzaileen lanpostuak betetzeko egindako deialdi jakin batzuk:

- Departamentuari gomendatu zaio egokitu ditzala kontratazioak dagozkien zerrendetara eta horien lehentasun-ordenara, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetan aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen martxoaren 23ko 347E/2017 Foru Aginduaren, Osasuneko kontseilariak emandakoaren, 2.6. artikuluan ezarritako ohiz kanpoko bidea saihestuz.

Ez da onartu.

17/442/SN espedientea

Sektore pribatuan ematen diren zerbitzuek Osasun Departamentuko eta hari atxikitako erakunde autonomoetako langileak aldi baterako kontratatzeke zerrenda irekien kudeaketan duten balorazio-falta:

- Departamentuari iradoki zaio departamentu horri atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetan aldi baterako kontratazioa erregulatzen duen araudiak balioetsi ditzala merezimendu gisa osasun-zentro pribatuetan emandako zerbitzuak, kasuan kasuko intentsitatearekin, hautetsitako postuko espezialitatea eta esperientzia egiaztatzen badute.

Ez da onartu.

17/651/SN espedientea

Merezimendu zientifiko-profesionalen (administrazio publikoan zerbitzuak ematea ez direnak) balorazio-falta Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetan langileak aldi baterako kontratatzeke zerrenda irekien kudeaketan:

- Departamentuari iradoki zaio berrius dezala departamentu horri atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetan aldi baterako kontratazioa erregulatzen duen araudia; hala, kontratazio-zerrenda irekietara heltzean kasuan kasuko lanpostuaren funtzioekin bat datorren merezimendu-multzoari garrantzia emateko, eta beraz, administrazio publikoari zerbitzuak ematea balioestez gain, lanpostuarekin lotutako beste merezimendu batzuk ere balioesteko (administrazioko beste arlo batzuetako antzeko zerbitzuak, profesionalen prestakuntza, merezimendu zientifiko-teknikoak, etab.).

Ez da onartu.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Cascanteko Udalari

16/592 espedientea

Cascanteko Udalak peoi-lanposturako kontratazio-zerrenda batean dagoen pertsona bat Cascanteko udaltzaingoaren funtzioak betetzeko izendatzea:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Udaltzaingoko lanpostuak eta funtzioak (agenteak laguntzaileak, etab.) betetzeko berariaz eta helburu bakar horrekin ezarritako hautaketa-prozedurak erabiltzera.

Onartua.

Lizarrako Udalari

17/370 espedientea

Lizarrako Tailer-Eskolarako lanbide-orientatzailearen lanpostu bat betetzeko deialdiaren oinarriak, proben balorazioa eta merezimendu-baremoa:

- Honako hau gomendatu zaio Udalari, etorkizunean kexan agertzen diren moduko langileak kontratatzeke deialdiei buruz:

a) Eskatutako titulazio-eskakizuna berrikustea, interesdun pertsonen parte-hartzea justifikaziorik gabe edo gehiegi ez mugatzeko.

b) Hautaprobetan elkarrizketak egiten badira, gutzitzko puntuazio maximoaren % 10 baino gehiago ez baloratzea.

c) Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epe luzeagoa jartzea, hiru egun eskaseko epea ez baita nahikoa eta sektore publikoko lanpostuetara baldintza berdinetan heltzeko eskubidea ez baitu bermatzen.

Onartua.

Noaingo Udalari (Elortzibar)

17/669 espedientea

Noaingo San Miguel eskola publikoko atezain-lanpostua askotariko eginkizunetarako langile baten aldi baterako izendapen bidez betetzeko erabakia, helburu horretarako sortutako zerrendako hautagaiei deialdia irekiz egin beharrean:

- Udalari iradoki zaio etorkizunean atezain-lanpostua betetzeko egon daitezkeen premiei erantzuteko (ildo horretan, eta bereziki, plantillan identifikatu den atezain-lanpostuari dagokionez, plantilla organikoan 2017ko urriaren 5era arte sartu ez zena), jo dezala 2017ko azaroaren 2an Udalak onartutako atezain-lanposturako aldi baterako kontratazioetarako zerrendara.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

17/297 espedientea

Familia-langileak aldi baterako kontratatzeke deialdiaren aldaketan ezarritako merezimendu-baremoak:

- Udalari gogorarazi zaio bere lanpostuetara –finkoak zein aldi baterakoak– heltzeko deialdien aldaketa administrazio-prozeduraren arau erregulatzailen baitan egiteko betebeharra duela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan eta horren ondoren goetan agertzen diren mugak eta prozedurak kontuak izanda.

Onartua.

Eslabako, Zareko eta Lergako udalen taldeari

16/478 espedientea

2012tik hutsik dagoen Eslabako, Zareko eta Lergako udalen taldeko Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza lanpostuaren hornikuntza:

- Udalen taldeari, eta subsidiarioki, udalei, gogorarazi zaie legez behartuta daudela publikotasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak aintzat hartzera, lanpostura heltzeko.

Ez da onartu.

6.2.2. Nekazaritza.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari.

17/63 espedientea

Kexa-egilea nagusiki nekazari gisa katalogatzearen ukapena:

- Departamentuari iradoki zaio interesduna nagusiki nekazari gisa kataloga dezala, iradokizun-idazkian aurkeztutako arrazoiak oinarri hartuz.

Ez da onartu.

17/358 espedientea

Funesko ureztatze tradizionaleko partzelen elkarretan bide-zor baten jabetzea:

- Departamentuari gomendatu zaio kexan aipatzen den bidea Funesko ureztatze tradizionaleko partzelen elkarketaren arlotik kanpo utzi dezala, edo hori posible ez baltiz, haren jabeari kalteak ordain diezaz-

kiola, partzelaren zati bat okupatu diotelako, zuzenbidearen arabera hori jasan beharrik izan gabe.

Ez da onartu.

Andosillako Udalari

17/191 espedientea

Laborantzako herri-lurren aprobetxamendu-loteen mugapena, herritarrentzako zuzeneko esleipenaren bidez.

- Udalari gomendatu zaio egin dezala esleitutako loteen mugapena 6. poligonoko 783 partzelan, Andosillan, kexa-egileek egindako proposamenarekin bat etorritz.

Ez da onartu.

Ultzamako Udalari

17/418 espedientea

Ultzamako Udaleko zur-aprobetxamenduen esleipena eta udalerrri horretako aprobetxamendu mikologikoaren eremuaren kudeaketa:

- Udalari gomendatu zaio azter ditzala zehatz eta sakon Ultzamako udalean zur-aprobetxamenduen esleipenean eta udalerrri horretako aprobetxamendu mikologikoaren eremuaren kudeaketan izandako ustezko irregulartasunei buruz salatutako gertakariak.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

6.2.3. Gizarte-ongizatea.

A) Haurrak eta nerabeak:

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/734 espedientea

Arangurengo Neurri judizialak betetzeko adingabeentzako zentroaren funtzionamendua:

- Departamentuari gomendatu zaio balia ditzala Arangurenen dagoen Neurri judizialak betetzeko adingabeentzako zentroarekiko dituen ikuskapen-ahalak, eta azter ditzala kexaren idatzian salatutako gaiak, horri buruz arrazoituz, eta hala badagokio, beharrezko neurriak hartuz.

Onartua.

17/3 espedientea

Semearen egoeraren ezagutza-falta; Eskubide Sozialetako Departamentuak semea babesgabezia-egoeran deklaratu du eta adopzio-prozesuan dago, bisitak egiteko aukerarekin, gurasoak eta semea elkartzeko.

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela bisita-erregimena eta jatorrizko familiarekiko harremanak eteteko erabakiak arrazoitzera, adingabeen adopzio-prozesuetan.
- Departamentuari gomendatu zaio aitor dezala kexa-egileen semeak gurasoekin kontaktua mantentzeko duen eskubidea, adingabearen interes gorenaren arazoientzat kontrakoa egokia bada salbu, eta berariaz hori ebatzi bada, gurasoentzat eskuragarriak diren txosten teknikoekin justifikatzen bada eta haiei

jakinarazten bazaie, kasu horretan, bi-dezko baliabideak adieraziz.

Ez da onartu.

17/147 espedientea

Eskubide Sozialetako Departamentuak kexa-egilearen alabaren zaintza gauzatzeko duen modua:

- Departamentuari gomendatu zaio adingabearen hezkuntza-prozesua bermatzeko neurriak indartu ditzala, ahal den neurrian ikastetxetik ihes egitea saihesteko, eta hori gertatuz gero, ahalik eta denbora-tarte laburrenean izateko.

Onartua.

17/152 espedientea

Tuterako Haurren eta nerabeen arretarako taldeak igorritako txosten baten edukia, frogatu gabeko gertakarietan oinarrituta egoteagatik eta kaute-lazko neurriak hartzea eragiteagatik, adingabe batzuk arrisku-egoeran zeudela ondorioztatu ostean:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela adingabeen prozeduratan bi gurasoei entzutera, kontraesanaren printzipioa eta inpartzialtasun-printzipioa bermatzeko, eta hiritar guztiei administrazio egokirako eskubidea ziurtatzeko, eta are arrazoi gehiagorekin neurriak eragin kaltegarria izan dezakeenean.

Onartua.

17/405 espedientea

Mendebaldea auzoko familia-elkargunearen funtzionamendua:

- Departamentuari iradoki zaio har ditzala neurriak kexa-egilearen eta hark erabiltzen duen familia-elkargunearen arteko giroa eta beharrezko komunikazioa hobetzeko, gune hark dituen helburuak betetzea lortzeko.

Onartua.

17/642 espedientea

Alaba pixkanaka bere familia biologikoarengana itzultzea adostu duen epaia betearazteko atzerapena:

- Departamentuari gomendatu zaio indartu ditzala hartutako neurriak, kexa-egilearen alabak duen familia-harreraren erregimena aldatu duen epaitza betetzeko; familia-harrera soila izatera igaro da, adingabea pixkanaka familia biologikoarengana itzuli bitartean.

Onartua.

17/723 espedientea

Kexa-egilearen semea babesgabezia-egoeran aitortzea, eta administrazioak egoera horrekiko izan duen kudeaketa txarra:

- Departamentuari gomendatu zaio amai dezala kexa-egilearen semea babesgabezia-egoeran aitortzeko prozedura, eta ahal den neurrian eta adingabearen interes gorena kontuan hartuz, adingabea bere familiarengana itzultzea ahalbidetzeko saiakerak indartu ditzala, behar izanez gero, familia horrekin beharrezko bitartekotza- eta elkarlan-neurriak hartuz.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/550 espedientea

Neurri judizialak betetzen diren zentroetan dauden adingabeak lekualdatzeko Nafarroako Foru Poliziak duen modua:

- Departamentuari gomendatu zaio egin ditzala adingabeek dagozkien lekualdaketak 2010-05 erreferentziako Lanerako Prozedura Normalizatuaren arabera, errotuluak dituzten polizia-ibilgailuak eta uniformedun poliziak erabili gabe, eta, ahal den neurrian, euste-neurri berezirik erabili gabe.

Onartua.

Iruñeko Udalari

17/399 espedientea

Udalak bi seme-alaba adingabeen espediente osoen kopiak eskatzeko eginiko bi eskabideei ez erantzutea:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskariak epearen barruan ebaztera, horien artean, kexa-egilearen eskabideak.

Onartua.

B) Gizarteratzea eta errenta bermatua:

Eskubide Sozialerako Departamentuari

16/672 espedientea

Gizarteratze-errenta jasotzeko eskubidearen azkentze-prozedura, eta horren ondoren interesdu-

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

nari prestazio horren harira desegoki jasotako zenbatekoak eskatzeko itzulketa-prozedura:

- Departamentuari gomendatu zaio ezeza ditzala eta eragin gabe utz ditzala kexaren xedea diren egintzak, kexaren izapidetzean izandako akatsak kontuan harturik (interesdunari ez entzutea eta okerreko bizilekuan jakinaraztea).

Ez da onartu.

17/50 espedientea

Interesdunak errenta bermatuaren eskubidearen aitortza berritzeko eginiko eskaera:

- Departamentuari gomendatu zaio ez dezala uste izan kexa-egilearen eta harekin bizi den pertsonaren artean ezkontideen pareko afektibitate-harremana dagoela, eta hala badagokio, aitor dezala interesdunak errenta bermatua jasotzeko duen eskubidea.

Ez da onartu.

17/315 espedientea

Gizarteratze-errenta galtzea eta prestazio horren harira desegoki jasotako zenbatekoen erreklamazioa:

- Departamentuari gomendatu zaio ez dezala uste izan kexa-egilearen eta haren alabaren aitaren artean elkarbizitza edo ezkontideen pareko afektibitate-harremarik dagoenik, eta aitor dezala interesdunak gizarteratze-errenta jasotzeko duen eskubidea, aitortzen den datatik aurrera desegoki jasotako zenbatekoen erreklamazioaren jarduketak baliogabetuz.

Ez da onartu.

17/461 espedientea

Kexa-egileari errenta bermatuagatik emandako prestazioa gutxitzea:

- Departamentuari gomendatu zaio berri-ikus dezala kexa xedatu duen ebazpena, eta aitor diezaiola interesdunari errenta bermatua, Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean ezartzen den enplegurako pizgarrien sistema aplikatuz lortzen den zenbatekoarekin.

Ez da onartu.

Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Burlatako Udalari

17/350 espedientea

Administrazioak interesdunaren titulartasuneko etxebizitza bateko maizterrek –adostutako errenta ez ordaintzeagatik zordunak dira– aitortuta dituzten prestazio ekonomikoen kontrol eskasa:

- Udalari (oinarrizko gizarte-zerbitzua) iradoki zaio onar dezala kexa-egileak, zerbitzuak arreta ematen dion familia-unitatea bizi den etxebizitzaren errentatzaileak, egin duen bitartekaritza-eskaera, zorra ordaintzeari mesede egiteko eta arreta jasotzen duen familiak etxebizitzari eusteko.
- Udalari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari iradoki zaie aintzat har dezatela mahaigaineratutako kasuan alokairurako ezohiko diru-laguntza bat ematea, eta har ditzatela neurriak diru-laguntza hori dagokion helburu espezifikora bideratzen dela ziurtatzeko.

Ez da onartu.

Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Iruñeko Udalari

AO 16/33

Nafarroako Elizbarrutiko Caritasek egiten dituen gizarteratze-errentaren eta larrialdi-laguntzen aurrerapenak:

- Udalari gomendatu zaio har ditzala beharrezko neurri guztiak Caritas ongintzako erakundeak ematen dituen larrialdi-laguntzen aurrerapenak desagertzeko, erantzukizun publikoaren printzipioari jarraituz.
- Departamentuari gomendatu zaio har ditzala beharrezko neurri guztiak Caritas ongintzako erakundeak ematen dituen gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren aurrerapenak desagertzeko, erantzukizun publikoaren printzipioari jarraituz.

Onartua.

Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari

17/481 espedientea

Baliabide ekonomiko urriko egoera eta errenta bermatuaren prestaziora heltzeko ezintasuna:

- Mankomunitateari eta Departamentuari iradoki zaie berriz ere aintzat har dezatela interesdunari errenta bermatu bat emateko aukera, eta hala badagokio, izapidetu eta eman diezaiotela errenta hori.
- Departamentuari iradoki zaio azter dezala kexan deskribatzen den egoera, eta bizi-

kideak ez diren seme-alabak dituzten, haien mantenu-pentsioa ordaindu behar duten eta errenta bermatua eskatzen duten pertsona dibortziatu edo bananduen kasuan –prestazio horretara heltzeko helburuz eta zehazten den intentsitatearekin–, seme-alabak sar daitzela gurasoen jasotzaile-unitatean, edo bestela pensio horren zenbatekoa diru-sarrerara konputagarrietatik kanpo utz dadila, baliabide erabilteza baita pertsona eskatzaileentzat; beharrezkotzat joz gero, susta dezala horri dagokion arau-aldaketa.

Mankomunitateak **onartua**.

Departamentuak ez du onartu.

Iruñeko Udalari

16/706 espedientea

Etixerik gabeko pertsonak artatzeko zentroaren funtzionamendua:

- Udalari gogorarazi zaio, oro har, eta gertakari zehatzak aurrez juzgatu gabe, legezko betebeharra duela herritarrekin izaten diren harremanetan tratu arduratsua eta arretatsua emateko.

Onartua.

C) Adinez nagusien babesa:

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/520 espedientea

Kexa-egilearen beharrian-egoera, alargun-pentsioaren eskasia dela-eta:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari iradoki zaio, kexa-egileak aurkeztu dituen zirkunstantzia pertsonalak direla eta, aintzat har dezala familian eta gizartean integratzeko laguntza bat ematea.

Onartua.

16/638 espedientea

Departamentuari aurkeztutako hainbat idatziren erantzun-falta, eta kexa-egilearen amari dagokion egoitza-zerbitzuarekin loturiko prestazioa kalkulatzeko erabilitako irizpidea:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela hiritarrek egindako eskaerei berariaz erantzuteko, legeak ezarritako epean.
- Departamentuari gomendatu zaio ez dezala aintzat hartu kexa-egilearen amak 2010ean eginiko dohaintza, duen gaitasun ekonomikoa eta egoitza-zerbitzua hartzeagatik dagokion prestazioaren zenbatekoa zehazteko.

Ez da onartu.

16/724 espedientea

Kexa-egilearen aitari zahar-etxeko plaza bat ematea, publikoa zein kontzertatua, gaur egun plaza pribatu batean dagoelarik:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen aitari ahal bezain laster eman diezaiola zahar-etxeko laguntzako plaza bat, publikoa zein kontzertatua.
- Departamentuari gomendatu zaio, interesdunaren aitari legez dagokion plaza esleitzen zaion bitartean, aitor diezaiola araudiaren arabera ezarrita dagoen irizpi-

dea kontuan izan ez balitz egokituko litzaiokeen prestazio ekonomikoa; hau da, 180.000 €-tik gorako baliadun ondarea izatea kontuan izan gabe egokituko litzaiokeena.

Ez da onartu.

17/11 espedientea

Kexa-egilearen senarraren senide batzuei zahar-etxeko plaza bat ematea, publikoa zein kontzertatua, gaur egun plaza pribatu batean daudelarik Irunberriko San Isidro zahar-etxean:

- Departamentuari gomendatu zaio kexan aipatzen diren interesdunei ahal bezain laster eman diezaiola zahar-etxeko laguntzako plaza bat, publikoa zein kontzertatua.

Ez da onartu.

AO 17/6

Alargun-pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata parekatze-falta:

- Departamentuari gomendatu zaio ekin diezaiola luzatu gabe alargun-pentsioengatik murrizketaren alde aurreko ordainketari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 68. artikulua agintzen duen moduan, etorkizuneko lege-aldaketekin eta Estatuko Administrazioako erregelamendurauekin baldintzatu gabe.

Ez da onartu.

Osasun Departamentuari eta Noingo Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari

17/361 espedientea

Interesdunaren amak, dituen patologiei arreta egokia eskaintzeko, zentro batera eramateko duen beharra, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuan arreta ematen duten langileek izandako jokaera:

- Mankomunitateari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritar guzti-kin izaten diren harremanetan tratatu arduratsua eta arretatsua emateko.
- Departamentuari iradoki zaio, interesdunak edo hura ordezkatzeko duenak hala baimentzen badu, beste azterketa bat egin diezaiotela gaixoari, dagozkion xedeetarako.

Onartua.

Lizarrako Udalarari

16/670 espedientea

Kexa-egileak nahitaezko diru-bilketako espediente batean bere banku-kontutik egindako enbargoaren aurka aurkeztuta zuen berraztertze-errekurtsoaren erantzun-falta; eta enbargo hori egiteko ezintasuna, interesdunaren diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoak izanda, enbargaezinak direlako.

- Udalarari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela aukerako berraztertze-errekurtsoei hilabeteko epean erantzutera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, 124.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

- Udalarari gomendatu zaio errekurtsoaren xedea den enbargoa berriki deszala, eta ikusiz gero Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 122.3 artikuluan eta Prozedura Zibilaren Legeko 607. artikuluan ezarritakoa errespetatu gabe egin dela, itzul diezazkiola kexa-egileari oker enbargatutako zenbatekoak.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

17/59 espedientea

Arrotxapeako auzo-unitateko langile batek kexa-egilearekin izandako tratua:

- Udalarari gogorarazi zaio, oro har, legezko betebeharra duela herritar guzti-kin izaten diren harremanetan tratatu arduratsua eta arretatsua emateko, eta eskaeraren helburuarekin loturarik ez duten interesdunaren egoera pertsonalari buruzko go-goeta subjektiboak saihesteko.

Onartua.

D) Desgaitasuna duten pertsonen babesa eta pertsona ezgaituen tutela:

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/705 espedientea

Nafarroako Helduak Tutelatzeko Fundazioak kexa-egilearen amaren jabetza den etxebizitzarekin eginitako kudeaketa:

- Fundazioari gogorarazi zaio aztertu den kasuaren modukoetan, tutelatutako pertsona baten etxebizitza alokatu nahi denean, hura okupatzen duen eta bizilekua han duen pertsonaren adostasuna lortu

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

behar dela, eta aurkakotasuna egonez gero, eztabaida epailearen erabakia izango dela, egitate-bideko jarduketak saihestuz.

Onartua.

17/41 espedientea

Epai baten egikaritzea. Hura betez, 2014ko abendura arte Benito Menni zentroko laguntzagarik egiten den koordainketaren kuota mantentzen da:

- Departamentuari gomendatu zaio egikaritu dezala desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuak ematen dituzten zentro kontzertatuetako egonaldien hileroko ordainketak eguneratzeko aurkaratutako ebazpen administratiboak baliogabetu zituen epaiaren edukia, ahalik eta lasterren eta luzatu gabe, eta baliogabetu dezala interesdunari Benito Menni zentroko zerbitzuengatik ordaintzeko ezarritako koordainketaren kuota, 2014ko abendura arte ordaintzen zuena mantenduz eta orduz geroztik gehiegi ordaindutako zenbatekoak itzuliz.

Onartua.

17/132 espedientea

Lizarrako Oncineda Desgaitasunaren Arreta Integraleko Zentroak erabiltzaileei ematen dien zerbitzua, pertsonal fakultatiboaren etengabeko aldaketak eta faltak direla-eta:

- Departamentuari gomendatu zaio zain dezala Lizarrako Oncineda Desgaitasunaren Arreta Integraleko Zentroko osasun-zerbitzuaren jarraitutasuna, horretarako beharrezkoak diren neurri zehatzak hartuz, erabiltzaileek arreta pertsonalizatu

eta integrala jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

Onartua.

17/380 espedientea

Lizarrako Oncineda Desgaitasunaren Arreta Integraleko Zentroko plaza baten kuotaren igoera:

- Departamentuari gomendatu zaio ziurta dezala arreta-zerbitzu bermatuari dagokion tarifaren ordainketaren ekarpena zehazteko izapidetzean jarduten duten administrazio-organoen eta Departamentuko beste organoen arteko koordinazioa, interesdunek jada jasota dauden datuak berriz eman beharrik ez izateko.

Onartua.

17/403 espedientea

Kexa-egilearen desadostasuna desgaitasun-mailaren balioespenarekin:

- Departamentuari gomendatu zaio berriki dezala kexa-egilearen desgaitasun-maila, horretarako, kontuan hartuz funtzio sexualean dituen muga iraunkorrak.

Ez da onartu.

17/422 espedientea

Interesdunaren amaren mendekotasun-maila moderatuaren balioespena:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egilearen amaren mendekotasun-mailaren bigarren balioespen bat egin dezala.

Onartua.

17/464 espedientea

Interesdunari desgaitasun-mailarik ez aitortzea:

- Departamentuari iradoki zaio berriz aintzat har dezala berriro ere kexa eragin duen kasua, eta hala badagokio, aitor diezaiola interesdunari eskatzen duen eta espedientean eragina duten irizpen teknikoetan gomendatzen den desgaitasun-maila.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/733 espedientea

Larrialdi-zerbitzuekin (112 telefonoa) hizketa bidez komunikatu ezin direnen zailtasunak:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala piktograma-sistema baten bidezko mugikorreko aplikazio batean oinarritutako sistema bat ezartzeko aukera, autonomia-erkidego batzuetan ezarri dutenen antzekoa, hizketa bidez komunikatu ezin diren pertsonen 112 telefonoarekin komunikazioa ahalbidetzeko.

Onartua.

Agoizko Udalari

17/581 espedientea

Kexa-egilearen aitari bere etxebizitzatik ezin ateratzea eragiten dioten arkitektura-oztopoak ezabatze obrak egiteko Agoizko Udalaren atzerapena:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrekiko harremanetan

konfiantza legitimoaren eta fede onaren printzipioak bermatzera.

- Udalari gomendatu zaio egin ditzala interesdunaren aita bizi den eraikineko atarian dauden arkitektura oztopoak ezabatzea bermatzeko beharrezko obrak, hasieran hartutako konpromisoa errespetatuz.

Ez da onartu.

E) Mendekotasuna duten pertsonen babesa:

Eskubide Sozialetako Departamentuari

AO 17/14/SN

Mendekotasun-sistemako prestazioen eraginetarako data:

- Departamentuari iradoki zaio susta dezala araudi-aldaketa bat, dagokion mailan, mendekotasunagatiko prestazioen eraginetarako data bat etor dadin interesdunaren eskaeraren datarekin, edo gutxienez, mendekotasun-egoera aitortu zaien egunarekin, mendekotasuna duten pertsonen kolektiboaren babes-maila hobetzeko helburuz.

Ez da onartu.

17/53 espedientea

Interesdunaren amak duen mendekotasun-egoeragatik jasotzen duen diru-laguntzan oinarrituta, ama zaintzeko hartutako eszedentziagatiko ordainketa periodikoko diru-laguntza ezatea:

- Departamentuari iradoki zaio aplikatu diezazkiola kexa-egileak 2016an eskatutako diru-laguntzari 2017ko deialdiak laguntzen bateragarritasunari buruz ezartzea

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

aurreikusten dituen irizpideak; izan ere, onartzen da egungo deialdiak nahi ez diren ondorioak eragiten dituela.

Ez da onartu.

17/263 espedientea

Mendekotasun-egoeraren balioespenari buruzko gorako errekurtsio bat gaitzetsi zuen Foru Arauaren arrazoiketa-falta:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela pertsonen mendekotasun-egoeraren balioespenari buruzko gorako errekurtsioak ebazteko administrazio-egintzak behar bezala arrazoitzera.

Onartua.

F) Familien babesa:

Eskubide Sozialetako Departamentuari

17/603 espedientea

Familia ugariaren titulua berritzeari buruzko eskari bati ez erantzutea:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela hiritarrek eginiko eskaerei berariaz erantzutera, legez ezarritako epean; eta kexa honen kasuan, epe hori amaitu denez, legez behartuta dagoela ahalik eta lasterren ebaztera, egokia den zentzuan.

Onartua.

G) Gizarte-zerbitzuen arreta emateko modua:

Iruñeko Udalari

17/17 espedientea

Kexa-egileari eta haren emazteari arreta ematen dien auzo-unitatean, gizarte-arretako zerbitzua emateko duten moduari buruzko desadostasuna:

- Udalari iradoki zaio, urtarrilaren 24ko 6/2011 Foru Dekretuarekin bat etorritik, onar dezala kexa-egileak eskatutako auzo-unitatearen aldaketa, interesdunari, eta kasu honetan, haren emazteari, haiek hautatutako beste erreferentziazko profesional bat esleitzea errazteko.

Onartua.

17/517 espedientea

Interesdunari arreta ematen dion auzo-unitatean, gizarte-arretako zerbitzua emateko duten moduari buruzko desadostasuna:

- Udalari gomendatu zaio, urtarrilaren 24ko 6/2011 Foru Dekretuarekin bat etorritik, onar dezala kexa-egileak eginiko eskaera, hark hautatutako beste erreferentziazko profesional bat esleitzea errazteko.

Onartua.

17/660 espedientea

Interesdunari arreta ematen dion auzo-unitatean, gizarte-arretako zerbitzua emateko duten moduari buruzko desadostasuna:

- Udalari gomendatu zaio, urtarrilaren 24ko 6/2011 Foru Dekretuarekin bat etorritik, onar dezala kexa-egileak eginiko eskaera,

hark hautatutako beste erreferentziazko profesional bat esleitzea errazteko.

Onartua.

Noaingo Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

17/233 espedientea

Etxeko laguntza-zerbitzuak ematen duen arreta desegokia:

- Mankomunitateari gomendatu zaio, kexa-egilearen senideei ematen zaien etxeko laguntza-zerbitzuen arduraduna den aldetik, azter ditzala kexan salatzen diren gertakariak, eta hala badagokie, har ditzala neurriak mota horretako kasuak errepikatzea saihesteko, hiritarrek kalitatezko zerbitzu bat izateko duten eskubidea bermatzeko.

Onartua.

6.2.4. Administrazio publikoen ondasunak.

Barañaingo Udalari

17/109 espedientea

Elkartearen beharrianetarako lokal egokia eskatzeko aurkeztutako bi eskabideri ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela kexa-egilearen eskaerei erantzutera legeak ezartzen duen epean.
- Udalari gomendatu zaio tokiko elkarteek beren jarduera burutu ahal izateko lokalak eskura ditzatela ahalbidetzeko esku-hartzeak arindu behar dituela; eta, edozein kasutan, ondasun publiko horien

sarbidean berdintasun-eskubidea zaintzen ahalegindu behar dela, egokitzat jotzen diren irizpide objektiboak baliatuz.

Onartua.

Esteribarko Udalari

17/596 espedientea

Interesdunak bere jabetzako lurzoru batzuen mugaketa berria behar bezala erregistratzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak burutzean Udalak erakutsitako pasibotasunaren aurrean:

- Udalari gomendatu zaio interesdunaren amarekin sinatutako transakzio-akordioaren xede izan ziren partzeletako oinarrizko datuak aldatzeko proposamena formaliza dezala lehenbailehen, akordio horren ondorioz sortutako aldaketak katastroan isla daitezten.

Onartua.

Figarolgo Kontzejuari

17/712 espedientea

Kexa-egileak egun abian den etxegabetzeko prozedura judizial batean defentsarako beharrezkotzat jotzen dituen hainbat ziurtagiri igortzea eskatzeko hiru eskabideri ez erantzuteari buruz:

- Kontzejuari gogorarazi legez behartuta dagoela herritarrek aurkezten dizkioten eskabide eta eskari guztiak berariaz ebaztera, behar den denboran eta moduan, eta legeek xedatutako epeen barruan.
- Kontzejuari gomendatu zaio interesdunak egindako ziurtagirien eskaerei erantzun diezaiela, tokiko erakundearen eskuetan

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

dauden eduki edo dokumentuei buruzkoak direnean, eta indarreko legeriak ezarritako murriztapen edo mugapenak justifikatzen ez diren heinean.

Onartua.

Larragako Udala

17/484 espedientea

Alboko partzelaren jabea den Larragako Udalaren jarduterik eza dela medio, kexa-egilearen partzelan 2008. urteaz geroztik dauden kalteei buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela kexan aipatzen duen lurzorua segurtasun-, osasun-, egokitasun publiko- eta bizigarritasun-baldintza egokietan mantentzeko beharrezkoak diren obrak agindu, garapena zaindu eta, hala badagokio, gauzatzera, 1.112, 1.113 eta 1.114 partzelekin lotuta dagozkin esku-hartzeak jarraituz.

Onartua.

Domeñoko Udaleri

16/547 espedientea

Domeñoko Udalak San Pedro de Usún kalean kokatutako bide publiko bat berreskuratzeko gauzatuako esku-hartzei buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela bere garaian Usungo barrutiko San Pedro kalea luzatzen zuen bideko zatia, "Iturriko Bide" modura ezaguna, ofizioz berreskuratzeko eskumena erabiltzera, horretarako beharrezkoak eta ordenamendu juridikoaren arabekoak diren neurriak modu eraginkorrean hartuz.

Ez da onartu.

Gelbentzuko Kontzejuari

17/587 espedientea

Herri-lurrean eraikitako txabola bat kentzeko eta bere jabetzako alboko partzela batean dauden kalteak konpontzeko eskaeren aurrean Udalaren jarduterik ezari buruz:

- Kontzejuari gomendatu zaio, salatutako esku-hartzeak gertatzen ari diren partzelako titular gisa, aipatu partzelaren segurtasun- eta osasun-baldintzak nahiz apaingarri publikoko baldintzak mantentzearen alde egin dezala.

Onartua.

6.2.5. Merkataritza eta kontsumoa.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

17/232 espedientea

Bere establezimenduko web-orrialde bat sortzeko eskatutako diru-laguntza bat ukatzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek administrazio on baterako duten eskubidea errespetatuz jardutera, haien kontuak zentzuzko denbora batean artatuz.
- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileari aitortutako diru-laguntza ordain diezaiola, izan ere, Departamentu horren jardunbideen ondorioz interesdunak diruz lagun zitezkeen esku-hartze guztiak burutu eta justifikatzeko epe-muga 2015eko abenduaren 31 zela uste izan zuen.

Erantzunaren zain.

6.2.6. Kultura.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari**17/446 espedientea**

Corellako liburutegia irekitzeko ordutegia ekainean ez betetzeari buruz:

- Gogorarazi behar da Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema osatzen duten liburutegi guztiak behar adina langilek artatuta izateko betebeharra dagoela, langileek oporrak hartuz gero zerbitzua etenik gera ez dadin.

Onartua.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Iruñeko Udalari**AO 17/18**

Udan liburutegien zerbitzua irekitzeko mugei buruz:

- Departamentuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Udalari iradoki zaie azter dezatela kudeatzen dituzten liburutegien, edo horietako batzuen, ordutegia luzatzeko neurriak hartzeko aukera - modu koordinatuan, egokituz joko balitz -, arratsaldean ere zerbitzu jarraitua bermatzeko moduan, baita udan ere, zehazten den intentsitatearekin.

Ez da onartu.

6.2.7. Kirola.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari**16/655 espedientea**

Master 40 kategoriako Mountain Bike modalitateko parte-hartzaile eta antolaketa eta koordinazioaren arduradun batek "Open Diario de Navarra" izeneko txirrindularitza proban Nafarroako Kirol Jokotan lehiatzen zen kadete mailako beste parte-hartzaile baten aurka esandako irainak eta tratu laidogarri eta umiliagarriei buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio, oro har, legez behartuta dagoela Nafarroan kirol jokoen antolaketan kolaboratzen dutenek artatzen dituzten pertsonen aurrean (adin txikikoak) tratu abegitsu eta egokia mantentzea lortzera, edozein kasutan, sor daitezkeen gatazkak ekidinez.

Onartua.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Nafarroako Xake Federazioari**16/693 espedientea**

Kexa-egileak Kirol Justiziako Nafarroako Batzordearen aurrean duela bi urtetik gora xake-txapelketa batean parte hartu ahal izateko jokalaria baten lizentzia kontzeptu modura zenbateko bat era desegokian kobratzearen ondorioz aurkeztutako errekurtsio bati ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio egiten zaizkion errekurtsio guztiei berariaz erantzuteko legezko betebeharra duela, denbora eta forma egokian.
- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak ipinitako errekurtsioa onetsi dezala.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Federazioari gomendatu zaio [...] kirol klubak kexan aipatzen denaz aparteko jokalariei federatuari Tximista motako Nafarroako Taldekako Xake Txapelketan parte hartzeko eskatutako lizentzia izapidetzearen ondorioz ordaindutako 30 euroen itzulketa egin dezala.

Onartua.

Berriobeitiko Udalari

17/71/SN espedientea

Articako Kirol Hiriko instalazioetako erabiltzaileei aplikatzeko tarifak arautzen dituen araudian guraso bakarreko familiak espezifikoki ez kontuan hartzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio Articako Kirol Hiriaren erabiltzaile diren guraso bakarreko familientzat tarifa berezi bat ezartzeko aukera balioetsi dezala.

Ez da onartu.

Berriozarko Udalari

17/14 espedientea

Berriozarko udal igerilekuetan igeri egiteko espazio bat zedarritzeko kortxo-ilara bat ipintzeko eskarari buruz:

- Udalari iradoki zaio udako kanpoko udal igerilekuan igeri egiteko espazio bat zedarritzeko eskaera ontzat har dezala, auzotar guztiek instalazioari ematen dizkioten erabilera guztiak ahalbidetzeko xedez, behintzat ordutegi jakin batean (esate baterako, eguneko lehen eta azken ordutan).

Onartua.

Nafarroako Futbol Federazioari

17/520 espedientea

Nafarroako Futbol Arbitroen Batzordeak hartako erregistroan elkargoko kide izateko aurkeztu nahi izan zen eskaera bat jasotzearen inguruan emandako ezezkoari buruz:

- Federazioari (Nafarroako Futbol Arbitroen Batzordea) gogorarazi zaio legez behartuta dagoela dokumentuak aurkezteko aukera ez mugatu edo ekiditera arrazoi formalak direla medio edo herritarren idatzietako edukitik eratorritako arrazoiak direla medio.

Ez da onartu.

6.2.8. Hezkuntza.

A) Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari (0-3 urte) dagokionez:

Hezkuntza Departamentuari

17/199 espedientea

Funts publikoekin mantentzen diren Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko zentroetan haurrak onartzeko prozedura arautzeari buruz (zehazki, kexan Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren titulartasunekoak diren zentroetako onepena aipatzen da):

- Departamentuari gomendatu zaio, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren titulartasuneko haur hezkuntzetan onarpen-prozesuetan, familia ugariko kidearen legezko izaerarekin eta familia-unitatearen biztanle bakoitzeko errenta-rekin lotutako irizpideak barneratu eta balioetsi daitezela.

Onartua.

Eskubide Sozialetako Departamentuari

17/722 espedientea

Interesdunak bere semea Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko haur hezkuntza batean matrikulatzearen ondoriozko tarifaren ordainketa kontzeptuan ordaindu behar duen zenbatekoa zehazteko egindako kalkulari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio interesdunak adierazitakoa kontuan har dezala (Venezuelan deklaraturako bere diru-sarrereri aplikaturako kanbio-tasa ofizialak Nafarroan duen ahalmen ekonomikoa islatzen ez duen heinean), bere bi urteko semea haur hezkuntzako lehenengo zikloko zentro batean eskolatzeagatik eta jangela-zerbitzuarengatik ordaindu behar duen gehieneko tarifan aplikatu beharreko murrizketa zehazte aldera eta, horrenbestez, horrekin lotuta, familia-unitatearen diru-sarrereren balioespen eguneratu bat egitea iradokitze aldera.

Ez da onartu.

Baztango Udalarari

17/606 espedientea

Elizondoko Udal Haur Eskolan plaza bat ez esleitzeari buruz:

- Udalarari iradoki zaio bere haur eskolan gehienez baimendutako unitate kopurua areagotzea eskatzeko aukera balioetsi dezala, egun plaza kopuruari dagokionez dagoen eskaintza areagotze aldera.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

16/710 espedientea

Kexa-egileen semeak Iruñeko Udalaren mendeko haur eskola batean pairaturako lesioei buruz:

- Udalarari gomendatu zaio kexa-egileen semea haur eskolaz aldatzeko prozesua arindu dezala, familia interesdunarekin adostutako irtenbide bat bilatuz.

Ez da onartu.

Eguesibarko Udalarari

17/82 espedientea

Kexa-egileak bere semea haur eskola batean bajaran emateagatik ordaindu behar duen zenbatekoari buruz:

- Udalarari gomendatu zaio ez diezaiola interesdunari gainordain modura adierazitako zenbateko ekonomikoa ordainketa eskatu:

Onartua.

17/645 espedientea

Semea Sarrigurenako haur eskolan, ikasturtea hasi eta egun berean, bajaran eman ostean interesdunak ordaindu behar izan duen zenbatekoari buruz:

- Udalarari iradoki zaio, tartean diren inguruabar bereziak ikusirik, kexa-egileari matrikula eta eskolatzearen hileko kuota kontzeptuan kobratutako zenbatekoa itzul diezaiola, hastera heldu ez zen zerbitzu bati baitagokio.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

B) Ikastetxeetan ikasleak onartzeari dagokionez:

Hezkuntza Departamentuari

17/25 eta 17/27/SN espedienteak

Ikasleak itundutako zentro publiko eta pribatuetan haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasketak egiteko onartzeko irizpideei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio ikasleak ikastetxe publiko eta itunduetan onartzeko baremoa arautzen duen araudian sar dezala, ikasleen arteko balizko berdinketak ebazteko irizpide modura, familia-unitateko kideren bat bazkide kooperatibista izatearen irizpidea.

Ez da onartu.

17/139/SN espedientea

Ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasketak egiteko ikasleak onartzeko prozeduran matrikulazio-eskaeren baremoak ezartzeko etxetik ikastetxera dagoen distantzia linealari dagokionez finkatutako puntuaketa-irizpideari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasketak egiteko ikasleak onartzeko prozeduran, irizpide osagarri modura, etxetik ikastetxera dagoen distantzia lineala mantentzekotan, aintzat har dadin familiaren etxebizitza ez ezik, adin txikikoaren gurasoetako baten edo legezko tutoreren baten lanlekua.

Onartua.

17/149/SN espedientea

Kexa-egilearen alaba haur hezkuntzako bigarren zikloan onartzeko baremoa ezartze aldera, hark laster bizilekua auzo batetik bestera (Buztintxuritik Lezkairura) aldatuko dela ez balioestearen ondorioz, hurbiltasun linealaren irizpide osagarriaren irizpidetik eratorritako puntuazioa ez aintzatesteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, haur hezkuntzako bigarren zikloan etxetik ikastetxera dagoen distantzia lineala egiaztatzeko modu gisa, helbide-aldaketaren aurreikuspena balioesteko aukera barnera dezala, dagokion puntuaketa eskuratze aldera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan onartzeko prozeduran dagoeneko egiten den moduan:
- Departamentuari iradoki zaio interesdunaren alaba laster Lezkairu auzora aldatuko dela balioets dezala, haur hezkuntzako bigarren zikloan **onartua** izain dadin.

Ez da onartu.

17/187 eta 17/211 espedienteak

Etxebizitzaren distantzia linealarekin puntu gehiago lortzeko asmoz ikastetxeetan behin-behineko izen-emateko azken prozesuan zehar izandako ustezko erroldatze iruzurtiei buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, horrekin lotuta herritarren artean hauteman den kezka dela medio, ikuskapenak egin ditzala ikasleak onartzeko prozesuetan ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan, faltsuak diren edo errealitatearen arabekoak ez diren errolda-ziurtagiriak egon ez daitezen, eta halako ziurtagirien baremazioan eraginik izan ez dezaten.

Ez da onartu.

17/204 espedientea

Santa María La Real-Maristas ikastetxean plazak esleitzeko zozketako emaitzari buruz, zozketa horretan errenta-aitorpenak aldatuta zituzten bi familia barneratzearen ondorioz:

- Departamentuari gomendatu zaio, interesdunen batek ikastetxe batean plaza bat eskuratzeko asmoz modu iruzurtian jokatu duela egiaztatzen denean, azter dezala hirugarren interesdunen aurrean plaza berak eskuratzeko lehentasuna galdu izana, puntuazioa alde batera utzita, onarpen-ekitaldiari dagokionez horretatik eratorzen diren ondorioekin.

Ez da onartu.

17/264 espedientea

Interesdunaren semeak lehen aukera modura eskatutako zentroan (Paz de Ziganda ikastola) eskolatzea ez onartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio baiets dezala Paz de Ziganda ikastolako haur hezkuntzako lehen mailarako ikasgela bakoitzeko ikasleen ratioa handitzeko eskaria, ikaslea hartu ahal izateko hautatu duen ikastetxean.

Onartua.

17/287 espedientea

Tuterako Compañía de María ikastetxean sartzeko interesa zuten ikasle ugariren eskolatzea ez onartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio baiets dezala ikastetxe horretako haur hezkuntzako lehen mailarako ikasgela bakoitzeko ikasleen ratioa handitzeko eskaria, ikaslea

hartu ahal izateko hautatu duen ikastetxean.

Onartua.

17/360 espedientea

Artika Berria auzoan bizi den kexa-egilearen alaba Antsoingo Ezkaba ikastetxe publikoan hutsik dauden plazak ez egoteagatik ez onartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egilearen alaba eta, hala badagokio, zentroan **onartuak** izan ez diren beste ikasle batzuk, Ezkaba ikastetxe publikoan onartzeko aukera azter dezala, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Ez da onartu.

17/502 espedientea

Datorren 2017-2018 ikasturteari begira, semea beste ikastetxe batera aldatzea ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen semearen matrikulazioa onar dezala ikastetxe horretan, derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen mailan [...].

Ez da onartu.

17/605/SN espedientea

Behin ikasturte akademikoa hasita ikastetxeetan plazak esleitzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala ohiko epealdiaren ondoren ethez aldatu diren ikasleak onartzeko ezohiko epealdirako ezarritako egutegia berrikusteko aukera, kexaren idatzian deskribatzen denaren antzeko egoerak eman ez daitezzen, izan ere, gerta daiteke ikasle batzuk

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

ikasturtea gainerakoek baino bost egun beranduago hasia; eta, finean, onarpen-prozesu guztia ikasturtea hasi aurretik garatu eta ebatz dadin.

Onartua.

P17/2/SN

Haur goiztiarrak eskolatzeko datari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio haur goiztiarrak (goiztiar handiak eta muturreko goiztiarrak) eskolatzen hasia ahalbidetzeko neurriak hartzeko aukera azter dezala, "zuzendutako beren adinaren" arabera, kolektibo horretan zehaztasun asko egon baitaitezke.

Ez da onartu.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari

17/83 espedientetik 17/105, 17/107, 17/108, 17/115, 17/116, 17/120, eta 17/121 espedientetara

Nafarroako zenbait Udalek ("D eredu, formula bikaina" lelopean) eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Administrazioak D eredu bultzatzeko abiarazitako kanpainari buruz, kexa-egileek beste hezkuntza-aukera batzuekin alderatuz diskriminatzailetzat jotzen dituztelako:

- Departamentuari (Euskararen Nafar Institutua-Euskarabidea) iradoki zaio, irakaskuntzarekin lotuta euskara sustatzeko kanpainak burutzen edo diruz laguntzen baditu, hezkuntza-ereduak ez ditzala bultzatu.
- Departamentuari (Euskararen Nafar Institutua-Euskarabidea) gomendatu zaio eus-

karazko irakaskuntza bultzatzeko kanpainetan "D eredu, formula bikaina" leloa erabiltzen duten tokiko erakundeetara jo dezala, lelo hau edo antzeko beste lelo edo mezu batzuk ekidin ditzaten.

Ez da onartu.

C) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako arretari buruz:

Hezkuntza Departamentuari

16/50 espedientea

Itundutako ikastetxe batean lehen hezkuntzako bigarren mailako ikaslea den semeari entzumena eta hizkuntza lantzeko irakasleen laguntza ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio eman diezaiola kexa aurkeztu duenaren semeari entzumen eta hizkuntza irakasleen laguntza, ikaslearen berariazko hezkuntza-beharraren arabera.

Ez da onartu.

16/707 espedientea

Tuterako ikastetxe publiko batean haur hezkuntzako hirugarren mailan den eta hezkuntza-premia bereziak dituen kexa-egilearen semeari, jangela-zerbitzuan zehar, laguntza espezifikuari ez emateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio hezkuntza-premia berezia duen kexa-egilearen semeak eskolako jangela-zerbitzua jaso ahal izateko laguntza neurriak har ditzala.

Ez da onartu.

17/47 espedientea

Arte Eskolan Erdi Mailako titulu bat egiten ari den eta hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bat izaten ari den arazoei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, erreferentziazko protokolo modura edo, dokumentu bat era dezala, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko aurreikusten diren neurriak modu koordinatuan jaso eta bateratzekoa, dokumentu hori ikastetxeetan eta interesa duten irakasleen artean banatuz, pertsona horiekiko arreta hobetze aldera, araudian dagozkion aldaketak sartzearen kalterik gabe.

Ez da onartu.

17/594 espedientea

Interesdunaren semeek, biak arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduarekin diagnostikatuak, eskolan izandako bilakaerari erreparatzeko beharrezkoak diren neurriak ez hartzeari buruz, eta hiru ikasgai gairitu ez dituelako semeetako batek ikasturtea errepikatzeko ikastetxeak hartutako erabakiari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen semeen hezkuntza-prozesua zorroztasun gehiagoz jarraitzeko, familiarrekin harremana maiz eta ohikotasunez mantenduz eta horien ikaskuntza ebaluatzeko prozeduretan beharrezkoak diren egokitzapenak eginez, ebaluazio hori egokitzeko ezartzen diren neurriek hala ebaluazio-proba ezberdinak erabiltzeari, nola harekin zuzenean lotuta dauden beste alderdi batzuei, adibide modura, AFNH eta ikaskuntzaren nahasteak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duen Hezkuntza Sail-

buruaren ekainaren 18ko 65/2012 Foru Aginduaren 5. artikuluan zerrendatzen direnak, erreferentzia egiten dietela ziurtatuz.

Onartua.

D) Batxilergoari eta Lanbide Heziketari dagokienez:

Hezkuntza Departamentuari**16/632 espedientea**

Ikastegi batean, Nafarroako Gobernuaren ofizialtasunaren eta babesaren itxurarekin, lanbide heziketako eskaintza egin eta titulazioak igortzean ustez hartutako jokamolde okerrari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunak adierazitako gertaeren (Nafarroako Gobernuaren ofizialtasunaren eta homologazioaren itxurarekin lanbide heziketako tituluen eskaintza egitea, ustez) inguruan ikuskatzeko bere eskumena erabil dezala eta, hala badagokio, dagozkion neurriak har ditzala kexan aipatzen den zentroaren aurrean edo, hala badagokio, Nafar Lansare Nafarroako Zerbitzuaren lankidetzarekin.

Ez da onartu.

17/235 espedientetik 17/262, 17/269, 17/277, 17/278, 17/304, 17/311 eta 17/312 espedientetara

Tuteran erizaintzako laguntzailearen erdi mailako prestakuntza-zikloko gaueko ordutegian presentziazko modalitatea ez ipintzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio Tuteran erizaintzako laguntzailearen erdi mailako prestakuntza-zikloko gaueko ordutegian

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

presentziazko modalitatea ezartzea ahalbidetu dezala.

Ez da onartu.

17/366 espedientea

Lizarrako Ikastegi Bateratu Politeknikoko Mekatronika Industrialeko Goi Mailari dagozkion praktike-tara sartzeko baimena ez izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio ez dezala horren zorrotz interpretatu lanlekuetan prestakuntza-moduluetara sartzeko aukera eta modulu profesionalak gaindituz joan eta unibertsitateko gradu bat eginez beren ikasketekin jarraitu nahi dutenei modulu horretara sartzeko aukera eman diezaietela, betiere, Nafarroako Foru Erki-degoko hezkuntza-sisteman lanbide heziketaren ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta egiaztapen akademikoa arautzen dituen Hezkuntza Sailburuaren apirilaren 8ko 52/2009 Foru Aginduko 21. artikuluan ezarritako mugak betetzen badituzte.

Ez da onartu.

17/496 espedientea

Iruñeko Institutu bateko eguneko batxilergoko ikasleen ebaluazio-saioetan izandako irregulartasun jakin batzuei buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio administrazio-prozedura amaitutzat ematen duten ebazpenetan (ondorio horietarako gertaera batzuk azaldu eta neurriak eskatzeko salaketa-idatziei emandako erantzunak barne), interesdunek planteatutako alderdi guztien gaineko erabakiak hartu behar dituela.

Onartua.

17/532 espedientea

Lanbide heziketako prestakuntza-ziklo batzuetan plaza nahikoa ez izateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio lanbide heziketako hezkuntza-eskaintza areagotu dezala eskaera handia duten prestakuntza-zikloetan, horretarako Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritako mugak errespetatuz.

Ez da onartu.

17/562 espedientea

- Departamentuari gomendatu zaio neurrik har ditzala batxilergoko ikasleek ikasgaiak beste ikastetxe batzuetan ikasi ahal izateko beren ikastetxean dagoen ikasgaia eskaintzen ez denean eskaera urria delako edo antolaketarekin lotutako arazoak direla medio.

Ez da onartu.

17/677 espedientea

Hogeita bat urtetik gorako pertsona desgaituei zuzendutako prestakuntza-eskaintza urriari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio bere kabuz edo gai horretan eskumena duten beste administrazio-organo batzuekin koordinatuta, hezkuntza-eskaintza hogeita bat urtetik gorako pertsona desgaituen aldetik lanbide heziketan dagoen eskaerara egokitze aukera sakontasunez azter dezala, eta hori indartzeko neurriak har ditzala, kolektibo horri babes gehiago eskaintze aldera.

Onartua.

E) Eskola-garraioari, eskola-jangelari eta eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez:

Hezkuntza Departamentuari

16/703 espedientea

Ikastetxe publiko bateko gurasoen elkarteak jangelako zerbitzua kobratzeko burutzen duen kudeaketari buruz:

- Gogorazi behar da legezko betebeharra dela kexa-egileari Gurasoen Elkarteari eskatutako dokumentazioa entregatzea.
- Departamentuari gomendatu zaio kexaren idatzian salatutako egoera iker dezala, aurretik abisua emanda jangela-zerbitzua aldizka erabiltzen ez duten "lekualdatutako" ikasleei jangela-zerbitzua kobratzeari buruzkoa, eta hori legezkoa ote den zehaztu dezala, izan ere, hasiera batean, ordenamendu juridikoak baimentzen ez duen desberdintza bat ematen dela dirudi.
- Departamentuari iradoki zaio ahalegina egin dezala ikastetxe publikoko Gurasoen Elkarteak ekainean jangela-zerbitzua ordaintzeko aurreratutako zenbatekoak itzuli diezazkien hilabete horretan zerbitzua erabili ez zuten familiei.

Onartua.

17/490, 17/503, 17/504, 17/505, 17/506, 17/509 eta 17/511 espedienteak

Buztintxuriko ikastetxe publikoan nahikoa plaza ez izateagatik Antsoaingo Ezkaba ikastetxe publikoan eskolatu behar izan ziren ikasleen anai txikientzako garraioa eta jangela-zerbitzua ez aitortzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio dagoneko Ezkabako ikastetxe publikoan matrikulatutako ikasleen anai-arreba txikiei garraioaren erabilera ahalbidetu diezaiela haiei aitortutako baldintza berdinetan, eskolatzea bukatu bitartean.

Ez da onartu.

17/508 espedientea

Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikora, hartara atxikitzen baitira lehen hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, joaten diren Fontellaseko ikasleen eskola-garraioaren zerbitzuari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio neurriren bat har dezala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoko ikasleak diren Fontellaseko eskola-garraioaren zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzu hori erabiliz beren etxeetara itzuli ahal daitezen ikastetxean datorren 2017/2018 ikasturtera begira ezarritako lanaldi jarraitua amaitzen dezan.

Ez da onartu.

17/522 espedientea

Doña Mayor eskola publikoan eskolatuta dauden eta Artika Berrian bizi diren ikasleei eskola-garraioaren zerbitzua kentzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen semeak garraioa erabili ahal izatea baimen dezala Doña Mayor ikastetxe publikoan eskolatuta dagoen bitartean.

Ez da onartu.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

17/549 espedientea

Artika Berrian bizi diren haurren eskolatzeari eta garraioaren eta jangelaren zerbitzu osagarriak emateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio berariaz zehaztu dezala etorkizunari begira zein den edo diren Artika Berriako urbanizazioko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxeak, eskolatzeari onartu eta haiei zerbitzu osagarriak emate aldera.
- Departamentuari iradoki zaio, ahal den heinean, garraioaren eta jangelaren zerbitzu osagarriak ematearekin lotuta, dagoeneko sortu diren aurretiazko egoera juridikoak babes ditzala, zerbitzu horiek mantenduz Artika Berriko haurrak edo horien anai-arrebak eskolatu zirenean zerbitzu horiek zituzten kasuetarako, erreferentziazko zentroa zehazteari dago-kionez gerora izandako aldaketak gorabehera.

Ez da onartu.

Hezkuntza Departamentuari

17/554 espedientea

Badoztainen bizi diren eta Mendigoitiko ikastetxe publikora joaten diren interesdunaren alabei eskola-garraioaren zerbitzua eta jangela-zerbitzua-ren kostua ordaintzeko laguntza ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen alabei Badoztaingo udalerritik Mendigoitiko ikastetxe publikora bitarteko eskola-garraioaren zerbitzua onar diezaiela, eta baita eskatutako jangela-zerbitzua ere, ezin baita justifikatutzat eman Mendillorriko D ereduko ikastetxeen artean soilik Elorriko ikastetxe publikoa ego-

tea Badoztainera atxikita indarreko araudiaren arabera.

Onartua.

17/617 espedientea

Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikora joaten diren Barillas eta Tulebraseko ikasleen eskola-garraioaren zerbitzuari buruz, ikastetxeko eskolaldiaren araubide aldatu ondotik:

- Departamentuari iradoki zaio neurriren bat har dezala Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko ikasleak diren Barillas eta Tulebraseko eskola-garraioaren zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzu hori erabiliz beren etxetara itzuli ahal daitezen ikastetxean datorren 2017/2018 ikasturtera begira ezarritako lanaldi jarraitua amaitzen denean.

Ez da onartu.

17/666 espedientea

Bere alaba ikastetxe batera eramaten duen eskola-garraioaren geralekuraino iristeko interesdunaren zailtasunei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, kasu honetan ematen diren inguruabar bereziak direla medio, kexa-egilearen alaba eskola-garriara iritsi ahal izateko neurriren bat har dezala, bere etxetik hurbil eskola-autobusaren geraleku gehigarriren bat ezarriz edo garraiorako banakako laguntza bat aitortuz, edo egokitze jotzen den beste edozein irtenbide hartuz.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

17/629 espedientea

Bere semeari, haren aitarekin hitzarmen arauemailerik ez izateagatik, eskola-jangelarako beka bat ukatzeari buruz:

- Udalarari gomendatu zaio ez diezaiola eskatu interesdunari bere alabaren aitarekin osatzen zuen bikote egonkorra arautzeko hitzarmena aurkeztea, izan ere, eskola-jangeletan elikagaietarako prestazio ekonomikoak arautzen dituen araudian ez da dokumentu hori eskatzen, eta eskatutako laguntza onartzeko aukera azter dezala, kasu honetan ematen den premia ekonomikoko egoera ikusirik.

Onartua.

F) Eskolaldi jarraitua ezartzeari dagokionez:

Hezkuntza Departamentuari

17/68 espedientea

Ermitagaña Ikastetxe Publikoan 2017/2018 ikasturteari begira bertan eskolaldi jarraitua ezartzeko egindako bozketaren zenbaketari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio egin dezala ahalegina eskolaldi jarraitua ala malgua ezartzeko egiten diren bozketa-prozesuetan familiei ematen zaien informazioak bozketa egiteko moduarekin lotutako akatsak ekar ez ditzan.
- Departamentuari iradoki zaio Ermitagaña Ikastetxe Publikoan egindako bozketa errepika dadila, nahasitako legezko interes guztiei erreparatuta egokitzen bada, 2017/2018 ikasturtean edo, hala

badagokio, 2018/2019 ikasturtean eskolaldi jarraitua ezartzeko aukera ikusirik.

Ez da onartu.

G) Eskola-bizikidetzari eta eskola-jazarpenari buruz:

Hezkuntza Departamentuari

17/112 espedientea

Adin txikiko batek ikastetxe batean pairatzen duen eskola-jazarpen egoerari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez beharturik dagoela, behar besteko eraginkortasun eta azkartasunez, eskola-jazarpen egoera pairatzen duten adin txikikoek arreta espezifikoa jaso dezatela ziurtatzera, beren egoera emozionala zaindu eta gainerako ikaskideekin integra dadin.

Onartua.

17/347 espedientea

Ikasle batek ikastetxe publiko batean pairatzen duen eskola-jazarpen egoerari eta datorren ikasturterera begira balizko jazarpen-egileak dauden zentrotik aparteko beste institutu batean plaza bat onartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egilearen semeak institutua aldatzeko aukera baimen dezala, familia interesdunarekin adostutako irtenbide bat bilatuz, salatzen duten eskola-jazarpen egoera dela medio.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

H) Hizkuntza-eskola ofizialei dagokienez:

Hezkuntza Departamentuari

17/162 espedientea

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean ingeleseko A1 maila kentzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean berriro ingelesezko Oinarrizko Maila (A1) eskain dezala.

Onartua.

I) Ikasteko beka:

Hezkuntza Departamentuari

16/650/SN espedientea

Derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak nahiz unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzako 2016-2017 ikasturterako beken deialdi orokorrari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela berariaz eta behar bezala azaltzera zer erabakik eragin duten ikasleei beka emateko irizpideetan aldaketak egitea.
- Departamentuari gomendatu zaio beka kuantifikatzeko irizpideak ezartzerakoan, onuradunek (ikasleek) beka jasotzeko premia eratzen duten elementu objektiboak eta baterakoak hartzeko kontuan, aipatu gabe ezein ikasketa-zentro eta haien artean bereizketarik egin gabe.
- Departamentuari gomendatu zaio ikasleei beka emateko araudian aldaketak egiten baditu eta aldaketa horiek kalterako badi-tuzte ikasleek, araubide iragankor bat

ezartzeko; izan ere, hartara, kasuan kasuko ikasketa-zikloa ikasten hasi diren pertsonen eskubideak eta bidezko interesak babestuko dira, eta segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak, errespetatu.

Onartua.

16/729 espedientea

Eskola-garraiorako beka bat ukatu izanari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa jarri duen pertsonaren alabei emateko eskola-garraiorako eskatutako beka, bizilekua Murchanten dutelako eta Tuteran ari direlako ikasten, eta ezin delako familiak azken udalerrri horretan (Tuteran) jabetzan duen etxebizitza bizilekutzat hartu, ez direlako han bizi.

Ez da onartu.

17/748 espedientea

Derrigorrezko ikasketen ondoko ikasketak egiteko beka baten eskaera ukatu izanari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio balora dezan beken deialdietatik kentzeko edo haietan aldatzeko baldintza mugatzaile hau: diru-sarrera jakin bat ez gainditzea jarduera ekonomiko batean; izan ere, gerta daiteke diru-sarrera hori ez izatea jardueraren bidez lortutako errendimenduen adierazle, eta, azken batean, interesdunen ahalmen ekonomikoaren adierazle, ikasteko laguntzak lortu ahal izate aldera.

Ez da onartu.

J) Unibertsitate-ikasketak:

Nafarroako Unibertsitate Publikoari

17/476 espedientea

Haur Hezkuntzako ikasketetan, 2016-2017 ikasturteko matrikularen zati bat (bigarren sei hilekoko ikasgaiak) ezeztatze eskaera bat ukatu izanari buruz:

- Unibertsitateari gomendatu zaio ezerezteko 2016-2017 ikasturteko matrikularen zatia (ikasturteko bigarren sei hilekoko ikasgaiak), lan-kontuak tarteko egin baitu eskaera interesdunak.

Ez da onartu.

K) Eskariei erantzun ez izana:

Hezkuntza Departamentuari

16/669 espedientea

Noingo San Migel ikastetxe publikoan IIP ereduaren inguruan Departamentuari helarazitako zenbait idazkiri erantzun ez izanari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak berariaz ebazteko legezko betebeharra duela.

Onartua.

17/300 espedientea

Hezkuntza Departamentuari atxikitako Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuan kexaren egileak aurkeztutako idazki bati epe barruan ez erantzuteari buruz, eta azkenean igorritako erantzunaren kongruentziarik ezari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako kexei edo iradokizunei erantzutera, propio horretarako legeak ezarritako epearen barruan.
- Departamentuari gogorarazi zaio, eskutakoarekin bat etorrita, modu kongruentean ebazteko helarazitako gai guztiak.

Ez da onartu.

6.2.9. Energia.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

17/146 espedientea

“Cordovilla-Muruarte/Muruarte-Orkoien” izeneko linea elektrikoa (220 kilowattekoa) ezartzeko obrei buruz, bai eta linea horrek eragiten dion Galar udalerriko finka baten nahitaezko desjabetzerako espedientearen hasierari eta izapide akastunari buruz ere:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela informazio-eskaera beste administrazio publiko batzuei helaraztera instalazio elektrikoak aldatzeko baimen-prozeduretan, eta hori Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkataritza, horniketa jarduerak eta horiek instalatzeko baimenen prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 127. artikuluan araututako moduan egin behar duela.
- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela bidezko prezioa zehazteko prozedura izapidetzeraz eta, beharrezkoa izanez gero, ebaztera, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeak eta hura garatzeko arauak xedatutako moduan eta epeetan.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Onartua.

6.2.10. Euskara.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/307/SN *espedientea*

Administrazio publikoan lanpostuak betetzeko euskara-maila egiaztatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, beharrezkoak diren arau-aldaketak egin ondoren, langileak hautatzeko probetan euskara-maila egiaztatzeko proba espezifikoetan lortutako emaitzak baliozkotzat emateko, egoki irizten dion epean, eta ez derrigortzeko hautagaia berriro maila egiaztatzeko proba bera egitera, maila edo eskakizun berbera edo antzekoa behar duen beste deialdi publiko batera aurkeztuz gero.

Onartua.

Osasun Departamentua

17/338 *espedientea*

Osasun mentaleko erizain espezializatuko sei lanpostu betetzeko deialdian euskararen ezagutza gutxi baloratzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio neurri egokiak hartzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostuak betetzeko deialdietan, oro har, euskaren ezagutzagatiko meritua gutxiago baloratu ez dadin ingelesaren, frantsesaren, alemanaren edo beste hizkuntza batzuen ezagutzagatiko meritua baino.

Onartua.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari

17/386 *espedientea*

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren asteroko informazio-buletinean txio bat gaztelania hutsez argitaratzeari buruz, eta Departamentu horren sare sozialetan euskarak duen presentzia eskasari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio asteroko informazio-buletinean eta Nafarroako herritarrei zuzendutako txioetan euskara ere erabil dezala, eta horretarako beharrezko neurriak har ditzala.

Onartua.

Iruñeko Udalari

16/692 *espedientea*

Zerga-egoitza aldatzeko Erroldatze Zerbitzuan ematen den eskabide-orria euskaraz idatzita ez egoteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio bermatu egin behar duela herritar guztiek Udal horretan euskaraz hitz egiteko eta erantzuna euskaraz jasotzeko duten eskubidea.

Onartua.

Eguesibarko Udalari

17/539 *espedientea*

Eguesibarko Udalean askotariko eginkizunetarako langile izateko lanpostu bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdian euskararen balorazioa egin beharreko moduari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio ezinbestez bete behar duela euskararen erabilera eta sus-

tapena arautzen duen Udal Ordenantzaren 16. artikuluan xedatutakoa, eta, horrenbestez, merezimendu-lehiaketetan babestu egin behar duela deialdiko puntu guztien %3 euskararen baloraziorako izatea, eta gainerako meritua, guztira, ez izatea %97 baino gehiago (%6 eta %94 herritarrekin zuzeneko harremana izango duten lanpostuak badira).

Onartua.

6.2.11. Funtzio publikoa.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/644 espedientea

Kexa jarri duen pertsonaren nominan 2016ko ekainean egindako deskontuari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio kexa jarri duen pertsonari 2016an ordaindutako ordainsariak berrikusteko, horretarako kontuan hartuta aitatasunagatik emandako baimenaren epean (2016ko martxoaren 7tik 21era), 2016ko martxoaren 1az geroztik baliatzen ari zen soldatarik gabeko baimena aldi baterako eten egin zela, eta, horrenbestez, aitatasunagatik baimeneko epe horretan funtzionarioaren eskubide ekonomiko bete zuela, dagozkion kopuruak ordainduta.

Ez da onartu.

16/716 espedientea

Kexa jarri duten pertsonari, Nafarroako Foruzaingoko kideei, egokitu zaien lan egoerari buruz, eta, zehazki, lehendik zituzten lanpostuetatik nahitaezko lekualdatzea eragin duten diziplina-zehape-

nen izapidetzeari eta zehapen horiek jartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ondorenik gabe uzteko kexa jarri duten pertsonari ezarritako diziplina-zehapenak eta kautelazko neurriak, ordenamendu juridikoaren aurkakotzat hartzen direlako.
- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela kexa jarri duten pertsonari aurkeztutako gora jotzeko helegiteak ahalik eta azkarrena ebazteko, legezko epea gainditu delako.

Ez da onartu.

17/118 espedientea

Soziologo-postuak betetzeko, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran, izangaien zerrendak osatzeko deialditik –Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak urriaren 24ko 2342/2016 Ebazpen bidez **onartua**– kanpo uzteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. eta 107. artikuluetan xedatutako prozedurak betetzeko legezko betebeharra duela, xedatutako hartuta ofizioz berrikustea aldeko administrazio-egintzak eta eskubideak aitortzen dituzten egintzak.
- Departamentuari gomendatu zaio ondorenik gabe uzteko kexa jarri duen pertsonari gainditutako behin betiko zerrendatik –Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak azaroaren 14ko 2510/2016 Ebazpen bidez **onartua**– kanpo utzi izana, eta interesduna hautaprobak gainditu dituzten pertsonen behin betiko zerrendan sartzeko.

Ez da onartu.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

17/196 espedientea

Laborategiko bi laguntzaile teknikariri ordainsari osagarria onartzeko aukerari buruz; hain zuzen ere, C mailako ordainsariak (maila horretan daude orain) B mailan jasotzen diren ordainsariekin parekatzeko, beren ustez B maila dagokielako. Horrenbestez:

- Departamentuari iradoki zaio interesdunek betetzen dituzten funtzioak aztertzeko, eta egokitzeko, hala badagokie, egun duten funtzionario-maila edo ordainsariak.

Onartua.

17/231/SN espedientea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio estatupeko langileen eta funtzionarioen nahi-taezko erretiroari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio beharrezko neurriak har ditzala ondorerik gabe uzteko, dagokion eginkizuna kontuan hartuta, ez aplikatzea Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioak hirurogeita bost urte bete eta erretiroa nahitaez hartzeko adinera iritsita, jarduneko zerbitzua ez luzatzeari buruzko xedapena –Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikulua arautzen du–, eta, horrez gain, araudi orokorrak eta orain artekoak xedatutako ohiko egoerara bueltatzeko.
- Arrazoituta kotzat hartzeko interesdunen kexa, bizitza profesionala hirurogeita hamar urte bete arte luzatzeko eskubidea bertan behera bat-batean geratu delako, zerbitzuaren esparruan espero ez zitez-

keen aparteko egoerengatik, eta, beraz, segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioei eragin zaielako.

Ez da onartu.

17/290/SN espedientea

Umezurtz-pentsioa hogeita bi urte betetakoan eteteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio alda dezala umezurtz-pentsioaren eskubidea izateko ezarrita dagoen gehienezko adina –martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoak, 75.2. artikuluan ezarritakoa–, eta idatz dezala Gizarte Segurantzaren erregimen orokorra arautzen duen legediaren antzera edo harekin korrelazioan.
- Departamentuari iradoki zaio eman diezaiola kexa jarri duen pertsonaren seme-alabei aitortuta duten umezurtz-pentsioa kobratzen jarraitzeko aukera hogeita bi urte bete ondoren, iradokitako legeko al-daketa egin artean.

Ez da onartu.

17/308/SN espedientea

Prestakuntza eta trebakuntzarako enplegu publiko deialdietan parte hartzeari dagokionez, lanpostuan gutxienez hiru urte jardunean eman izanaren baldintzari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, E mailako langileek prestakuntza eta trebakuntzako deialdietan parte hartzeko aukerari dagokionez, oro har, lehendik lan egindakotzat onartzeko funtzionario-lanpostuan eman

du ten denbora funtzionarioei, nahiz eta, lekualdatze-lehiaketa bidez, maila bereko beste lanpostu batzuetan jardun.

- Departamentuari gomendatu zaio ondorerik gabe uzteko interesdunak kexan adierazitako prestakuntza-deialditik kanporatu izana, hiru urte baino gehiago aritu baita jardunean "oinarrizko" funtzionario-lanpostuan, eta ez baita prestakuntzarako eskubidea mugatzea justifikatzen duen bidezko arrazoirik hauteman.

Ez da onartu.

17/330 espedientea

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 18an emandako 58/2010 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako SOS-eko gelako buru izateko bi lanpostu barne-sustapen mugatu bidez betetzeko deialdia, eta, lanposturik izan gabe gaintitu ondoren, Nafarroako SOS-eko gelako buru izateko lanpostuan behin-behinean ezin aritzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa jarri duen pertsonari Nafarroako SOS-eko gelako buruaren lanpostuan behin-behinean aritzen uzteko, hala bailegokioke lanposturik gabe onartutakoen zerrendako lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Ez da onartu.

17/378 espedientea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan lanaldi partzialeko lan-kontratuko langile finkoaren egoerari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio ahalik eta lasterren egiteko, aurretiaz ezinbestez egin beharreko izapideak kontuan har-

tuta, zaintzaile-lanpostuaren lekualdatze-lehiaketaren deialdia, langileen mugigarritasuna eta sustapena bultzatze aldera, eta, batik bat, lanaldi partzialeko lan-kontratuko langile finkoena bultzatze aldera, hura baita lan-baldintza kaskarrena duen kolektiboa, eta, horrezaz gain, iradoki zaio kexan aipatzen den San Jose zentroan sortutako egiturazko lanpostuak lehiaketa horretan gehitzeko.

Onartua.

17/526 espedientea

Zangozako Udaleko udaltzainei eta udaltzain laguntzaileei Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legean xedatutako ordainsariak ez ordaintzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetatik bigarreanean araututakoa betetzea, hain zuzen, abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legeak emandako idazkeraren arabera. Foru Lege horren bidez, Nafarroako polizia-kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldiak egokitu egin ziren Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen artikuluetan jasotako irizpideetara, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea onartu ondoren.

Ez da onartu.

17/698 espedientea

Nafarroako Foruzaingoko kabo lanetarako hamalau lanpostu kategoria-igoera bidez betetzeko deialdi batean gai-zerrenda bat ez galdetzeari buruz, eta azterketako galderak barne lanetarako

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

prozedura arautuen ezagutzei buruzkoak bakarrik izateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio hurrengo deialdietan zehazteko, deialdian bertan, zer ezagutza eskatuko dituen Nafarroako Foruzaingoko kabo lanetarako lanpostuak betetzeko azterketan, dago-kion gai-zerrenda edo programa adierazita.
- Departamentuari iradoki zaio Nafarroako Foruzaingoko kabo lanetarako lanpostua lortzeko eskatuko diren ezagutzak ez izatea bakarrik polizien kidego horren barne lanetarako prozedura arautuei buruzkoak.

Onartua.

17/716 espedientea

Nafarroako administrazio publikoetako estatupeko langileen eta funtzionarioen Negoziazio Mahai Orokorren bilera egiteko deialdiaren prozedurari buruz, eta bilera hartan negoziatutako gaien edukari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 83. artikuluan jasotako gaiak negoziatu behar direla erakunde sindikalen artean, eta, bereziki, administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordainsarien zenbatekoetan egiten den igoera globala, urtean behin Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruz egiten den lege-proiektuan sartu beharrekoa, bai eta enplegu publikora heltzeari, karrera egiteari, ordainsariei eta Gizarte Segurantzari eragiten dieten gai guztiak ere, eta, halaber, funtzionario publikoen lan-baldintzekin zerikusia duten eta Foru Legearen mai-

lako arau baten bidez erregulatzen diren gaiak.

Erantzunaren zain.

17/744 espedientea

Altsasu, Elizondo, Lizarra, Zangoza eta Tafalla udal-errietako polizia-etxeetan lan egiten duten Nafarroako Foruzaingoko agenteek –zirkulazioa zaintzeaz arduratzen ez diren unitateetakoak dira agente horiek guztiak– alkohola edo drogak hautemateko probak egin eta kasuan kasu salaketak jarri dituztelako sindikatu batek adierazitako desadostasunari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio beharrezko neurriak har ditzala, alkohola edo substantzia estupefazianteak hautemateko probak eta haiei dagozkien salaketak zirkulazioa zaintzeaz arduratzen diren agintaritza-agenteeek egiteko Nafarroa osoan, dagozkien funtzioak betez.

Ez da onartu.

AO 17/22/SN

Nafarroako udaltzainei Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legean xedatutako ordainsarien araubidea aplikatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio beharrezko neurriak har ditzala, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen azken xedapenetatik bigarreanean arautakoa erabat betetzeko, hain zuzen, Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldiak egokitzeko abenduaren 28ko 25/2015 Foru Legeak emandako idazkeraren arabera.

Ez da onartu.

Hezkuntza Departamentuari

16/637 espedientea

Nafarroako Dantza Eskolarekin aritzen diren musikari laguntzaileen lan-egoerari buruz, txartzat hartzen baita beren eskubide zein interes profesionali dagokienez, eta, gainera, azken urteetan okerrera egin baitu. Horrenbestez:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa jarri duten langileen (Dantza Eskolarekin batera aritzen diren musikari laguntzaileak) egoera birpentsatzeko eta sakon aztertzeke egin duten eskaera, haien lan-baldintzak hobetzeko eta haien lana gehiago balioesteko; izan ere, lan bereziak edo ezohikoak egiteko baliatutako kontratazioa ez dator bat haien benetako funtzioarekin, eta, horrezaz gain, eskatzen zaien titulua irakaskuntza-funtzio bati dagokio.
- Departamentuari gomendatu zaio, hain zuzen, kontratuak udako hilabeteetara luzatzeko neurria betetze aldera (Hezkuntza Departamentuari atxikitako ikastetxeetako irakasleen eta laguntzaileen kontratuen gehieneko iraupena zehazten duen ekainaren 22ko 42/2016 Foru Dekretuak xedatutakoa, arlo horretan bidegabeko tratu-desberdintasunak eragozteko premiak bultzatuta xedatutakoa), gainerako kontratudun langileei ematen zaien tratu berbera emateko, ez baita kontrako erabakia justifikatzen duen arrazoirik hauteman.

Onartua.

17/124 eta 17/125 espedienteak

Ordezkatza bat egiteko administrazio-kontratu bat azkentzeari buruz (Hezkuntza Departamentua eta

interesduna lotzen zituen, ikastetxe batean etxezain-lanak egiteko lanpostu bat dela eta):

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela eskubideak eta bidezko interesak mugatzen dituzten egintzak gauzaten dituztenean, erabakiaren arrazoibideak adieraztera eta erabakiaren aurkako helegite bidezkoak zein diren adieraztera, eta hori dela, hain zuzen, kontratu bat azkentzen duenean egin beharrekoa.

Onartua.

17/395/SN espedientea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu batean Lengua Castellana y Literatura arloko ikasketaburu karguari uko egin ezin izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio aintzat hartzeko didaktika-arloko buruak izendatzeko arau erregulatzailerak aldatzeko aukera, kontuan hartuta kargua inork hartu nahi ez izatea gerta daitekeela, eta halakoetarako aurreikusteko, egoerari irtenbidea emate aldera, beste irizpide batzuk, hala nola denbora-epe jakin baten buruan kargudunez aldatzea.
- Departamentuari gomendatu zaio, kasu honetan tarteko diren egoerak zein diren ikusita, onar dezala kexa egin duen pertsonak ikasketaburuaren kargua uztea, eta kargu hori betetzeko beste aukera bat bilatu dezala.

Ez da onartu.

17/409 espedientea

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko lanpostuak zerbitzu-aldian betetzeko mere-

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

zimendu-lehiaketako deialdi bateko epaimahaikide baten errekusazio-eskaera bat (lanean ageriko elkarrezintasuna zutelako eta maila pertsonalean arerioak zirelako) ezesteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela behar beste egiaztapen egitera, lanpostuak lortzeko merezimendu-lehiaketan deialdietako epaimahaikideen errekusazio-gertaerak ebatzi aurretik, eta, hala, objektibotasunaren printzipioa aplikatuko dela bermatzera.

Ez da onartu.

17/485 espedientea

Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko eta izendatzeko merezimendu-lehiaketan interesdunak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuaren balorazioari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio baloratzeko kexa jarri duen pertsona [...] BHIko zuzendari izendatzea, hautaketa-prozeduran parte hartu duen hautagai bakarra izan delako, kargu horretan lehendik aritu izan delako eta prozedura gainditzeko deialdian eskatutako kalifikazioa ia-ia lortu duelako.

Ez da onartu.

17/537 espedientea

Hezkuntza Departamentuaren zerbitzurako zainzaile funtzionarioen barne-mugikortasuneko prozeduratik (2017-2018 ikasturterako) kanpo uzteari eta horren ondorioz ordura arte zuen lanpostua galtzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, kexa eragin duen gaian gertatutako gorabehe-

rak kontuan hartuta, azken urteotan izan duen lanpostua emateko interesdunari, zentroko zuzendaritza gustura zegoela tarteko.

Ez da onartu.

17/580/SN espedientea

Ikastetxe bateko elektronikako arlo didaktikorako burutzaren ondokoa izendatzeko baliatutako prozedura bati buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio arautu dezala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutueta arloetako burutza ondokoak hautatzeko, izendatzeko eta kargua uzteko prozedurak, bai eta kargu horiek betetzeko baldintzak ere. Horretarako, kide bakarreko gobernu-organoak dituzten institutueta zuzendarien ondokoak hautatzeko, izendatzeko eta kargua uzteko prozeduretako arauetan aplikatzen den irizpidea erabil daiteke.

Ez da onartu.

17/593 espedientea

Hamabi hilabete baino gutxiagoko haurrari bularra emateko baimen ordaindua hasieran eskatuta bezala baliatzeko (ordubete, lanaldiaren hasieran edo amaieran) aukera Hezkuntza Departamentuak ukatu izanari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, oro har, eta kontuan hartuta hamabi hilabetetik beherako haurrei bularra emateagatik baimen soldataduna dagokiela funtzionarioei, onar dezala, hala eskatuz gero, irakasleen eskubidea egunean ordubetez lantokitik lekutzeko, lanaldia baino lehen edo amaieran, hala xedatzen baitu otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuak;

eta horrez gain, aintzat har dezala zerbitzu publikoa emateko ikastetxeetako antolaketa-neurriak ere.

Ez da onartu.

17/721 espedientea

Hezkuntza Departamentuak interesdunari, administrazio-kontratudun irakasleari, falta astun bat dela-eta abian jarritako diziplina-prozedurari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa jarri duen pertsonari abian jarritako diziplina-prozedura iraungitzat hartzeko.
- Departamentuari gomendatu zaio ondorerik gabe uzteko kexa jarri duen pertsonari egindako ordainsarien deskontua (Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak otsailaren 22an emandako 90/2016 Ebazpenaren bidez egindakoa); izan ere, egiaztatu da lanera joan ez zen egunean urtebeteko alaba mediku espezialistaren kontsultara eramane zuela, eta kontsulta hori irakasle diharduen ikastetxetik urrun dagoela.

Onartua.

Osasun Departamentuari

16/695 espedientea

Etileno oxido bidezko esterilizagailu batekin Lizarrako García Orcoyen Ospitalean langile batek izandako istripu bati buruz, eta, ustez kantzerigenoak diren elementuen eraginpean lan egiten duenez, laneko arriskuen prebentziorako ospitale horretako neurrien gabeziari buruz eta han langileei jarraipen gutxi egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela bere zerbitzurako langileak laneko arriskuekiko babestera, eta, horretarako, beharrezko neurriak hartu behar dituela laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean.
- Departamentuari gomendatu zaio bere langileen artean banatzeko etileno oxido bidezko esterilizagailuarekin lotutako jarraibideak, eta kentzeko, ahalik eta lasterren, aipatutako esterilizagailua eta haren ordeztu langileen osasunerako hain arriskutsua ez den beste bat jartzeko.

Onartua.

17/23 espedientea

Norberaren kontuetarako baimen ordaindua ukatzeari buruz, horretarako epe-muga (kasu honetan, urte naturala) igaro delako; izan ere, kexa jarri duen pertsona aldi horretan aldi baterako ezintasun-egoeran egon da eta baimena hartzeko aukerarik ez du izan. Horrenbestez:

- Departamentuari gomendatu zaio, aldi baterako ezintasuna edo amatasun-baimena izateagatik langile publikoek norberaren kontuetarako baimen-ordainduen eskubideaz ("norberaren kontuetarako egunak") bere osotasunean gozatu ezin izan dutenean, onar dezala lanera itzuli ondoren baimen ordainduak hartzeko aukera, nahiz eta urtea, ikasturtea edo ohiko aldia amaituta egon, betiere zerbitzuaren beharrekin bateragarria denean. Gomendatu zaio, halaber, irizpide hori aplikatzeko kexa sortu duen kasuari, eta onartzeko interesdunari norberaren kontuetarako dagozkion egunak.

Ez da onartu.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

17/363 espedientea

Interesdunari irekitako diziplina-espediente baten ebazpenari buruz; ebazpen horren bidez, enplegurik eta soldatarik gabeko bi zehapen jarri zaizkio, bakoitza bost egunekoa, bi falta larri egiteagatik, hain zuzen, agintariei, nagusiei, lankideei, bere agindura daudenei eta administratuei errespetu falta erakusteagatik. Beraz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari gerenteak azaroaren 6an eman zuen Ebazpenaren aurka interesdunak jarritako errekurtsuari erantzutera, garaiz eta forman. Ebazpen horren bidez, erizaintzako buruzagitza utzarazi zitzaion, eginkizunen kautelazko etendurari amaiera eman zitzaion eta Arrotxapeako osasun-zentroan duen erizain-lanpostura itzultzeko agindu zen.
- Departamentuari gomendatu zaio kexa jarri duen pertsonari abian jarritako diziplina-prozedura iraungitzat hartzeko, orain arteko jarduketak artxibatzeko eta ezarritako zehapenak ondorerik gabe uzteko.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eta Osasun Departamentuari

17/474 espedientea

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko teknikariei arrisku bereziagatik osagarria ez aitortzeari buruz:

- Departamentuei iradoki zaie kexan adierazitako lanpostuetako (Nafarroako Osa-

sun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko teknikariak) arriskuen azterketa egiteko, kontuan hartuta gaur egun betetzen diren eginkizun zehatzak, eta, arrisku horiek handiak badira, lanpostu horri esleitzeko eskatutako ordainsari osagarria, eta, beharrezkotzat joz gero, egokiak izan daitezkeen arau-aldaketak egin daitezkeen sustatzeko.

Ez da onartu.

Burlatako Udalarari

17/206 espedientea

Burlatako Udaleko funtzionarioen lan-baldintzei buruzko akordioa eta lan-alorrean indarrean dagoen araudia ez betetzeari buruz, hain zuzen ere, lankideen artean txanda trukatzeari dagokionez eta oporretarako eskabideei ez erantzuteari dagokionez. Hortaz:

- Udalarari gomendatu zaio, Udal horretako funtzionario eta administrazio-langileentzako akordio orokorraren 8. artikuluko seigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatze aldera, baimentzeko modukotzat hartzeko udaltzainei esleitutako zerbitzuetan eta zerbitzu-egunen trukeak, betiere hala eskatzen badute eta zerbitzu bereko langileen artean proposatzen baidituzte.
- Udalarari gomendatu zaio onartzeko kexa jarri duen pertsonak uztailen oporrak hartzeko eskabidea, aldeko administrazio-isiltasuna izan baita tarteko, eta nabarmena baita uztaila adierazi nahi zuela eta ez ekaina.

Onartua.

17/518 espedientea

Burlatako Udaltzaingoaren lan-egutegian egindako aldaketa bati buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela udaltzaintzat finkatutako egutegietan aginduzko aldaketak egoera jakinetara mugatzera, hain zuzen, larrialdiko eta babes zibileko egoera berezietara, eta, horrez gain, arrazoitu egin behar dituela aldaketak; gomendatu zaio, halaber, egoera berezi horietan izan ezik, behin-behineko aldaketak langileekin negoziatzeko.

Onartua.

17/519 espedientea

Eskabideak legez ezarritako epeetan ez erantzuteagatik, indarrean dagoen araudiaren interpretazioan ados ez jartzeagatik eta Burlatako udaltzainen urteko lan-egutegia euskarri informatikoan eguneratuta ez egoteagatik, opor-egunak eta norberaren kontuetarako egunak hartu ezin izateari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela aurkezten dizkioten eskabideak ebaztera eta behar beste arrazoitzera eskubideak zein bidezko interesak murrizten dituzten erabakiak.

Onartua.

17/753 espedientea

Kexa jarri duen pertsona Burlatako Udaleko haurrentzako liburutegian duen lanpostuan sufritzen ari den lan-jazarpeneko egoeraren aurrean Burlatako Udalak ezer egin ez izanari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ahalik eta gehien bizkortzeko kexa jarri duen pertsonak lan egiten duen zentroko lan-giroa eta tartean diren alderdien arteko hartu-emanak hobetze aldera abian jarritako neurriak; gomendatu zaio, halaber, aztertzeko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin batera, ea aukerarik baden interesdunari Departamentu horren mende dagoen Burlatako udal liburutegian beste lanpostu bat emateko.

Onartua.

Erriberriko Udalari**17/538 espedientea**

Erriberriko Udaleko funtzionario batek bere eszedentzia-egoeraren espedientearen inguruko dokumentazio-eskaera bati erantzun ez izanari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ahalik eta azkarren emateko interesdunari 2017ko maiatzaren 27an eta ekainaren 2an eskatutako dokumentazioa.

Onartua.

Iruñeko Udalari**16/680 espedientea**

Lorategi-zerbitzuen erdi-mailako tituludunaren eta lorategi-zerbitzuburuaren lanpostuetarako zerrenden deialdi bati buruz:

- Udalari gomendatu zaio ondorerik gabe uzteko kexan adierazitako deialdietako 4.1 oinarrian jasotako paragrafoa (lehenbiziko proban kalifikazio onena lortutakoek bakarrik dutela bigarren proba egiteko aukera adierazten duena), lanbide-prestakuntza eta -hobekuntza xede

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

duten Administrazio Publikoko langileei dagokienez, oinarri hori ez baita bateragarria apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 2.3 artikuluekin.

Ez da onartu.

17/192 espedientea

Udaltzaingoaren eta Nafarroako Foruzaingoaren ordainsari-berdinketari dagokionez, Iruñeko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzen akordioa, egun indarrean, aplikatzeko eskaera bati erantzun ez izanari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio aurkezten dizkionten eskaerak epe barruan ebazteko legezko betebeharra duela.

Onartua.

17/495 espedientea

Kexa jarri duen pertsonak Iruñeko Udalean administrazio-karrerarako aukera ez edukitzeari buruz, hain zuzen, toki-erakunde horretan borondatezko eszedentziako egoeran egon eta Nafarroako Gobernuan lan egitera igaro delako. Horrenbestez:

- Udalari gomendatu zaio amatasunagatiko baja-egoera bat dela-eta lanean hasteko ezintasunari buruz interesdunari jakinarazitako irizpidea berraztertze, eta mailan gora egiteko deialdia (kexan adierazitakoa) amatasunagatiko baja-egoeran dagoela izan bada, lanean berriro hasteko eskaera onartzeko, amatasunagatiko baja-egoeran egonda ere, eta lanean hastek ez eragitea lanpostua "efektiboki" betetzea, interesdunak lanbide-karrerarako duen eskubidea babeste aldera.

Onartua.

17/507 espedientea

Bi udaltzainek oporrak hartzearen inguruan aurkeztutako bi berraztertze-errekurtsoei ebazpenik ez emateari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkezten dizkionten administrazio-errekurtsoak epearen barruan ebaztera, eta, kasu honetan, legez ezarritako epea sobera gainditu denez, gogorarazi zaio ahalik eta azkarrena ebatzi behar dituela kexan adierazitako berraztertze-errekurtsoak.

Onartua.

17/607 espedientea

Hiru urteko jarduneko epe bakoitzeko urtero lau orduko ordu-konpentsazioa izateko aukera dela eta, Iruñeko Udaleko langileei aurten aldeko neurria aplikatu ez izanari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexan adierazitako ordu-konpentsazioa 2017ko urtarriaren 1az geroztik onar dezala.

Ez da onartu.

17/682 espedientea

Bi berraztertze-errekurtso erantzun ez izanari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkezten dizkionten administrazio-errekurtsoak epearen barruan ebaztera, eta, kasu honetan, legez ezarritako epea gainditu denez, gogorarazi zaio ahalik eta azkarrena ebatzi behar dituela kexan adierazitako berraztertze-errekurtsoak.

Onartua.

San Adriango Udala

17/462 espedientea

San Adriango udal haur-eskolan sukaldaritzako laguntzaile zereginak betetzeko San Adriango Udalak erabilitako kontratazio-modalitateari (lan edo zerbitzu jakin baterako kontratua) buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela lan edo zerbitzu jakin baterako iraupen mugatuko lan-kontratazioaren modalitatea soilik erabiltzera Langileen Estatutuen 15.1 artikuluan xedatutako kasuan, eta honela dio: Langilea lan edo zerbitzu jakin batzuk aurrera eramateko kontratatzen denean, enpresako jardueraren baitan autonomia eta berezko ezauzgarriak izanik, eta lana bukatzeko epea, nahiz eta denboran mugatuta egon, iraupen jakin gabekoa baldin bada.

Onartua.

Atarrabiako Udalari

16/303 espedientea

Atarrabiako Udaltzaingoko agenteek hauteskundeetan egindako lanaren ordainetan egin dituzten ordainsari-eskaerak isilbidez ezezteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela udalerriko Udaltzaingoko zenbait agenteren ordezkariak egindako eskaerari erantzutera.

Onartua.

6.2.12. Toki-entitateen funtzionamendua.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari

16/712 espedientea

Uitziko Kontzejuko Batzordea bitartekoen erregimenean egoteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio Uitziko Kontzejuko gobernuaren eta administrazioaren jarraitutasuna bermatzeko aldera beharrezko neurriak hartzeko.

Onartua.

Basaburuko Udalari

17/614 espedientea

Igoan dagoen etxebizitza batean bizi diren bi lagun Basaburua udalerriko erroldan alta emateko izapideari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ez eskatzeko kexa jarri duen pertsonari alaba gazteena eta ama erroldan alta emateko eskatu duen etxebizitzaren jabearen baimena, etxebizitza horretan bizi direla egiaztatzeko bitarteko gisa, eta, beraz, beste bitarteko batzuk onartzeko han bizi direla egiaztatzeko.

Onartua.

Beireko Udalari

17/342 espedientea

Beireko Udaleko zinegotzi batek osoko bilkuren eguna alda dadin egindako eskaerari Beireko Udalak emandako ezeztari buruz:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Udalari iradoki zaio baloratzeko –kexa jarri duen pertsonaren interesak eta osoko bilkura osatzen duten gainerako pertsonenak bateragarri eginda– ohiko osoko bilkuren beste maiztasun-erregimen bat ezartzeko aukera, eta saiatzeko, ahal bada, beste egun eta ordu-garai batean egitea, herritarrek gai publikoetan gehiago parte har dezaten, zuzenean zein zeharka.

Onartua.

Lapoblación-Meanoko Udalari

17/546 espedientea

Lapoblaciongo Kontzejuko presidentek aurkeztutako bi eskaerari erantzun ez izanari buruz; besteak beste, Udalarekin bilera bat egitea eskatu zuen, Kontzejuaren eskumenekin lotutako zenbait alderdiri buruz hitz egiteko. Beraz:

- Lapoblación-Meanoko Udalari iradoki zaio onartzeko interesdunak, Lapoblaciongo Kontzejuko presidentek, egindako bilera-eskaera, kexaren idatzian adierazitako gaiak argitze aldera.

Onartua.

Beratsaingo Kontzejua

17/620 espedientea

Beratsaingo Kontzejuan ohiko batzarretarako deialdiak ez egiteari, eta auzokideen eskaerei ez erantzuteari buruz:

- Kontzejuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela sei hilean behin gutxienez ohiko batzarretarako deialdia egitera, hala arautzen baitu Nafarroako Toki Adminis-

trazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 77. artikulua.

- Kontzejuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztu dituzten eskaerak eabztera, eta auzotarren batzarretarako deialdi baten eskaera bada (batzar horretako legezko kide guztien laurden batek eskatuta), ezohiko deialdia egitera.

Onartua.

6.2.13. Ogasun publikoa.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari

16/656 espedientea

Nafarroako Zerga Ogasunak egindako ikuskaritza baten ondoriozko zerga-zorraren ordainketa, hogeita hamar urteko epean ordaintzekoa, geroratzea ukatzeari buruz; eskaera horren oinarria da bere kasuaren epea eta 26/2014 Foru Legeak ematen duena (Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten du foru-lege horrek) ez dela berdina. Hortaz:

- Iradoki zaio kexa jarri duen pertsonari eskatzen zaion zerga-zorra ordaintzeko epea luzatzeko aukera balora dezan, eta interes partikularra eta interes orokorra bateragarri egiten saia dadin, egoerak kontuan hartuta.

Ez da onartu.

16/662 espedientea

Oinordetzen gaineko zerga likidatzeko prozedura baten eabzpena atzeratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela zerga-kudeaketako prozedurak izapidetzeko gehieneko epeak zaintzera, eta interesdunek egingdako alegazioei buruzkoak ebaztera, bai eta ebazpenak epe barruan jakinaraztera ere.

Onartua.

16/677/SN espedientea

Amatasun-prestazioengatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio sakon aztertzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzeko aukera, kasu honetan, amatasunagatiko prestazio publikoak salbueste aldera berriro, kendu zenetik igarotako denbora kontuan hartuta eta hori eragin duten egoeren behin-behineko aldaketa aztertuta.

Onartua.

16/687/SN espedientea

Ibilgailuen eta itsasontzien batez besteko prezioak ezartzeko zaldi-potentzian (ZP) adierazitako potentzia kontuan hartzeari buruz, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariak abenduaren 24an emandako 165/2015 Foru Aginduan xedatutakoa betetze aldera. Hortaz:

- Departamentuari iradoki zaio erabilitako ibilgailuen eta itsasontzien salmenten batez besteko prezioak onestean, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kudeaketan aplikatzeko, ohar-

taraz dezala informazio-balio hutsa duela zaldi-potentzian (ZP) adierazitako potentziak, bai eta datu hori erabiltzeak ez duela inola ere esan nahi neurri-unitateen legezko sistemak baimendutako unitatea denik ere, Funtzio Publiko eta Ogasun Ministerioak abenduaren 14an emandako HFP 895/2016 Aginduak adierazi bezala.

Onartua.

16/730 espedientea

2010eko ekitaldiari dagokion PFEZaren likidazio bati buruz; hain zuzen, etxebizitza baten eskualdatzearen ondorioz egotzi dioten ondare-gehikuntzarekin ados ez dagoelako jarri du kexa. Beraz:

- Departamentuari gomendatu zaio ondorerik gabe uzteko kexa jarri duen pertsonaren 2010eko PFEZaren likidaziorako jarduketak, etxebizitza baten eskualdatzearen ondoriozko behin-behineko ondare-gehikuntzari dagokionez; izan ere, uste dugu zerga-salbuespena hartu behar dela kontuan, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren testu bateginaren berrogeita hirugarren xedapen gehigarriak araututakoa, hain zuzen ere, prozedura judizialtan edo estrajudizialtan ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondoriozko ondare-gehikuntzaren salbuespenari buruzkoa baita.

Ez da onartu.

17/117/SN espedientea

A-12 autobiak lurralde-kontribuzioa ordaintzeari eta horretarako egin den Udalez gaindiko balorazio partzialerako lantaldeari buruz, Lurralde Aberastasuaren Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 20an emandako 49/2014 Ebazpenaren bidez onartutakoa. Beraz:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari iradoki zaio lege-aldaketa bat sustatzeko, estatuan indarrean dagoen lege baliokideak arautzen dituen antzeko terminoak kontuan hartu eta ez jartzeko lurralde-kontribuzioaren pean errepideak, bideak, lur gaineko bestelako bideak eta ur jabari publikoko ondasunak, eta horien gaineko eskubideen titularrak, betiere erabilera edo aprobetxamendu publikoa eta doakoa baldin badute.
- Departamentuari gomendatu zaio 2017ko urtarrilaren 1a arte ez-aplikagarritzat hartzeko itzaleko bidesaria delakoa daukaten autobiei lurralde-kontribuzioa, martxoaren 12ko 10/2013 Foru Legeak ez baitzuen behar besteko segurtasun juridikoarekin eratu autobia horientzako zergapeko egitatea, eta, horrez gain, Udalez gaindiko balorazio partzialerako lantaldeari eginkizun gehiegi eman baitzizkion; gomendatu zaio, halaber, ondorerik gabe uzteko aipatutako lege hori betetze aldera emandako egintza administratiboak.

Ez da onartu.

17/174 espedientea

Sozietateen gaineko zergaren 2011ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien behin-behineko likidazioen inguruan kexa jarri duen enpresari jakinarazpena egitearekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea, kontuan hartuta kasu horren gorabeherak eta gai horren inguruko araudiaren bilakaera, uzteko ondoriorik gabe sozietateen gaineko zergaren 2011ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien behin-behineko likidazioak, kexa jarri duen merkataritza-sozietateari jakinarazitakoak, ez delako kontuan hartu jarduera ekonomikoaren gaineko zergari dagokion kuotaren

ordainketa, kontura egindako ordainketa gisa eta kengarri gisa.

Ez da onartu.

17/212/SN espedientea

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batek baliaezintasun handiagatik ordaindutako zenbatekoak zergak ordaintzetik ez salbuestearekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea aztertzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-legea aldatzeko proposamena egiten denean, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun larriagatik ordaindutako zenbatekoak zergak ordaintzetik salbuesteko aukera, betiere zenbateko horiei egoki iritzitako mugak ezarriz.

Ez da onartu.

17/346 espedientea

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak etxebizitza baten transmisioarekin lotuta ofizioz egindako 2012ko PFEZen aitortpenaren erregularizazioarekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea kexa eragin duen zerga-alorreko erregularizazioa baliogabetzea, interesdunaren helbide-aldaketa etxebizitzaz aldatu beharrak eragin baitzuen, hirukiak izatean familia-egoera aldatu zelako.

Ez da onartu.

17/413 eta 17/479 espedientea

Ondarearen gaineko zergaren aitorpena paperezko formatuan egiteko aukerarik ezarekin eta aurkezpen telematikoa egitearen konplexutasunarekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea sustatzeko jarduketa egokiak, herritarrei ondarearen gaineko zergaren aitorpenarekin lotutako zerga-alorreko betebeharrak betetzen laguntzeko. Zehazki, Departamentuari iradokitzen zaio aztertzeko herritarraren berriazko baiespena behar ez duten zergaren aitorpenaren proposamenak urtero bidaltzeko aukera, eta zerga ordaintzeko betebeharra dutenei banan-banan laguntzeko zerga horren aitorpena egiten.

Ez da onartu.

17/436/SN eta 17/510/SN espedientea

Interesdunaren 2016. urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren emaitzarekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea aztertzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legean sartutako erreforma sakon berrikusteko aukera, kontuan hartuta indarraldian egon den lehen ekitaldian, 2016koan, haren aplikaziotik eratorritako datuak eta ondorioak, bai eta zergadunek egindako ekarpenak ere, betiere kontuan hartzekoa izanik herritarrek parte hartzeko prozesua, dago-kion foru-legearen proiektuaren lanketan.

Onartua.

17/447 espedientea

Zerga-ikuskatzaitzak kexa jarri duen enpresarekiko bideratutako zenbait jarduketarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraraztea ikuskatzaitza-funtzioak betetzean legezko betebeharra duela interesdunak aintzat hartzeko eta haiekin adeitasunez jokatzeko, eta, ikuskatzaitza-jarduketak egitean, zerga-alorreko beren eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa emateko, bai eta administrazioarekiko harremanetan izan beharreko jokabideari buruzkoa ere, hala beren zerga-alorreko betebeharrak bete ditzaten errazteko.
- Departamentuari gomendatzea baliogabetzeko 2010etik 2013ra arteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren nahiz 2011tik 2014ra arteko ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergaren behin betiko likidazio-proposamenak berresten zituen ebazpena, kontuan hartuta kexa-egilearen defentsa-eskubidea urratu zela, zerga-oinarrien zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatu zenean.

Ez da onartu.

17/525/SN espedientea

Nafarroako Foru Komunitatean ekonomia-jarduera bat garatzen duten eta milioi bat eurotik beherako negozio-zifra garbia duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek jasotzen duten zerga-alorreko tratamenduarekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea aztertzeko, kexa jarri duen elkartearekin batera, egindako proposamenak, bai eta zer ondorio izan litzakeen ere milioi bat eurotik beherako negozio-zifra garbia duten pertsona fisiko eta juridikoak ekonomia-jardueren gaineko zerga ordaintzetik salbuesteak.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

AO 17/4/SN

Zerga-alorreko prozedurak izapidetzen izandako atzerapenekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea sustatzeko Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 87. artikulua aldaketa, ofizioz hasitako prozedurek herritarrentzat ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak dakartzatenean eta ebazteko legezko gehieneko epemuga igaro denean prozeduraren iraungitzea ekarriko lukeen araua sartzeko, arau hori jasota baitago bat datorren zerga-alorreko estatuko legerian nahiz administrazio prozedura erkidea arautzen duen legerian.

Onartua.

AO 17/16/SN

Desgaitasuna duten pertsonak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuestearekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea aldatzeko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1.d) artikulua, honela, zehazki:

a) Lege-arauan gaztelaniaz “inválidos” eta “minusválidos” direlakoei buruz egiten diren erreferentziak aldatzea, iraingarriak izan daitezkeelako.

b) Orobat izatea zerga-salbuespena desgaitasunak dituzten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuek, haiek bakarrik erabiltzekoek (hala desgaituek gidatzen dituzten ibilgailuek, nola desgaituak garraiatzeko ibilgailuek), ibilgailu bereziak izan edo ez.

c) Aztertzea zerga-alorreko ondorioetarako egun ezarrita dagoen potentzia-muga ezabatzeko edo

aldatzeko aukera (Foru Legean salbuetsizat hartzen diren ibilgailu berezietarako).

Ez da onartu.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari

AO 17/7/SN

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren edo gainbalioarenaren aplikazioarekin lotuta:

- Departamentuari iradokitzea sustatzeko lehenbailehen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruz (175. artikulua eta hurrengoak) jasotako arauketaren aldaketa, ahalmen ekonomikoaren printzipio konstituzionalari egokitzeko eta ahalmen horren adierazle ez diren egoeretan zerga-ordainketa saihesteko.

Onartua.

Burlatako Udalari

17/570 espedientea

Burlatako etxebizitza baten transmisioari dagokion hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga interresdunari likidatzearekin otuta:

- Udalari gomendatzea uzteko ondoriorik gabe kexa-egileari ezarritako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa, zorra sorraraztea eragin duen lurren balioaren gehikuntza errealari erantzuten ez diolako.

Ez da onartu.

Castejóngo Udala

17/561 espedientea

Castejóngo baztergunearen eta Interes Oroko-
rreko Trenbide Sarearen arteko lotura egiten duen
trenbide-adar batek Jeronimo Marco kalea eta Cas-
tejóngo industrialdea hartzeagatik Udalak Trenasa
enpresari igorritako tasarekin lotuta:

- Udalari gogoraztea administrazio publi-
koari jarduketa jakin bat eskatuz idazten
dion herritar orok eskubidea duela bide
beretik erantzun bat jasotzeko, prozedura
administratibo bakoitzak ebazpenetarako
ezarria duen gehieneko epean, alde ba-
tera utzita erantzuna baiezkoa edo ezez-
koa den.

Onartua.

Zizur zendeako Udalari

17/589 espedientea

Zerga eratortzen deneko transmisioan alde saltzai-
leari ezarritako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gai-
neko zergaren likidazioarekin lotuta:

- Udalari gogoraztea legezko betebeha-
rra duela herritarrek aurkeztutako eskabi-
deak ebazteko, kexan aipatzen dena
barne.
- Udalari gomendatzea emateko kexa-egi-
leek eskatutako dokumentazioa, parte
hartu duten transmisio batean hiri-lurren
balio-gehikuntzaren gaineko zergaren liki-
dazioaren espedienteari buruzkoa, zerga-
dun-izaera baitute, aplikagarria den
araudiarekin bat.

Onartua.

Lizarrako Udalari

17/483 espedientea

Interesdunak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gai-
neko zerga borondatezko epetik kanpo ordaindu
izanagatik sorrarazitako errekgua kobratzeko Li-
zarrako Udalak argitaratutako premiamendu-pro-
bidentzia berri batekin lotuta:

- Udalari gomendatzea botatzeko atzera
eta uzteko eraginik gabe kexa-egileari hiri-
lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga
borondatez ordaintzeko epetik kanpo or-
daindu izanagatik ezarritako errekgua-
ren kobrantza.

Ez da onartu.

Noaingo Udalari (Elortzibar)

17/445 espedientea

Jada interesdunaren jabetzakoa ez den etxebizitza
baten ibiari dagokion tasaren ordainketarekin lo-
tuta:

- Udalari gomendatzea kexa-egileari ibiaga-
tik kobratu zitzaizkion zenbatekoak, etxe-
bizitza transmititu eta edozein
bitartekoren bitartez horren berri toki-
erakundeari jakinarazi zitzaion datatik au-
rrera, itzultzeko.

Ez da onartu.

Zangozako Udalari

16/586 espedientea

Zangozako musika-eskolak emandako zerbitzua
ordaintzeko ezarritako bizilekuaren arabeko dis-
kriminaziozko tratuarekin lotuta:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Udalarari gomendatzea udaleko musika-eskolak emandako zerbitzua ordaintzeko ez egiteko tratu-desberdintasunik erabiltzaileren artean bizilekuaren arabera.

Ez da onartu.

Eguesibarko Udalarari

16/702 espedientea

Eguesibarko Udaleko idazkariak emandako tratua-rekin eta hura identifikatzeko eskabideari Udalarari erantzun ez izanarekin lotuta:

- Udalarari gogoraztea pertsonen oro har eskubidea dutela agintari eta enplegatu publikoek errespetuz eta adeitasunez trata ditzaten.
- Udalarari gogoraztea interesdunek eskubidea dutela prozedurak izapidetzeko arduradunen administrazio publikoetako agintariak eta langileak identifikatzeko.

Onartua.

Bidankozeko Udalarari

17/158 espedientea

Bi katastro-lurzatiri buruz eskatutako dokumentazioa eskuratu ezin izanarekin lotuta:

- Udalarari gogoraztea legezko betebeharrak duela herritarrek aurkezten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei berariazko erantzuna emateko, behar den denboran eta moduan, eta legeek xedatutako epeen barruan.

Onartua.

Goñiko Udalarari eta Azantzako Kontzejuari

17/472 espedientea

Interesdunak 2014. eta 2015. urteetan eskatutako bi katastro-aldaketaren inguruan Goñiko Udalarari eta Azantzako Kontzejuak jarduketarik egin ez izanarekin lotuta:

- Kontzejuari gomendatzea egiteko txosten bat, egoki irizten dion moduan, kexa-egileak katastroa aldatzeko egindako eskabideari buruzkoa.
- Udalarari gomendatzea –Kontzejuak ez duenez berariazko aurkaritza funtsaturik egin katastro-aldaketarekin lotuta– jarrai dezala aurrera haren izapidetzearekin, azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legean, Nafarroako lurralde-aberastasunaren eta katastroen erregistroari buruzkoan, xedatutako moduan.

Erantzunaren zain.

6.2.14. Justizia.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/291 espedientea

Noaingo Bake Epaitegiko langileek emandako tratua-rekin lotuta:

- Kexa ezarri zaion administrazioari gogoraztea, oro har eta gertakari zehatzei buruzko aurretiko iritzirik eman gabe, legezko betebeharra duela herritarrekiko harremanetan errespetuz eta adeitasunez jokatzeko.

Onartua.

Iruñeko Abokatuen Elkargoari

16/634 espedientea

Elkargoak kexa-egileari arreta eman zion legelariaren jarduketan diziiplina-erantzukizunik ez dagoela erabaki izanarekin eta horren ondorioz kexa-egi-leak Elkargoan aurkeztutako kexak ezetsi izanarekin lotuta:

- Elkargoari gomendatzea aztertze sakontasunez interesdunaren kexa eragin duen jarduketa, doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen onuradun baita, eta, bereziki, aztertze aipatzen den zerbitzu-sariak erreklamatu izana, arrazoitzeko dagokiona, eta, hala badagokio, hartzeko neurri egokiak.

Ez da onartu.

6.2.15. Ingurumena.

A) Kutsadura akustikoa edo zaratak:

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

AO 16/25

Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak ez argitaratu izanarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraztea legezko betebeharra duela azaroaren 17ko zarata buruzko 37/2003 Legean xedatutako zarata-mapak onartzeko.

Ez da onartu.

17/764 espedientea

Berako Zalain auzoko bizilagunek beren etxebizitzetan duela zenbait urtetatik NA-121-A errepideko zirkulazioaren ondorioz pairatzen duten gehiegizko zaratarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraztea, Berako Zalain auzotik igarotzen den NA-121-A errepideko zirkulazioaren ondoriozko zarataren inguruan, legezko betebeharra duela herritarrek etxean gehiegizko zaratak eta modu jarraituan ez pairatzeko duten eskubidea babesteko, barnean hartuta zirkulazioak eragindako zaratak, horretarako neurri egokiak hartuz.

Erantzunaren zain.

Abartzuzako Udalari

16/560 espedientea

Elkarte gastronomiko batek sortutako zaraten arazoa konpontzeko neurri egokiak eta eraginkorrak hartu ez izanarekin eta zenbait eskabideri erantzun ez izanarekin lotuta:

- Udalari gogoraztea legezko betebeharra duela zehapen-espedienteen izapidetzean urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 85.3. artikuluan, diruzko zehapenen murrizketari buruzkoan, xedatutakoa betetzeko.

Ez da onartu.

Ablitasko Udalari

17/536/SN espedientea

Ablitasko gazteek aisialdirako eta dibertitzeko erabiltzen dituzten etxabeen inguruko arauketa ezarekin lotuta:

- Udalari iradokitzea lantzeko eta onartzeko gazteek aisialdirako eta dibertitzeko erabiltzen dituzten etxabeak arautzeko ordentza bat.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Onartua.

Antsoaingo Udalari

17/634 espedientea

Antsoaingo bizilagunek herriko zaindariaren azken jaietan etxean pairatu dituzten zaratekin lotuta:

- Udalari gogoraztea betebeharra duela herriko zaindariaren jaietan egiten diren jarduerak sortutako zaraten eraginpeko bizilagunen eskubideak babesteko, horretarako neurri egokiak hartuz, eta bateragarri eginez jaiez gozatzeko eskubidearekin.

Onartua.

Lizarrako Udalari

17/548 espedientea

Jolas-, kultura- eta kirol-elkarte bat ezartzeko asmoz gaur egun egokitzeko lanak egiten ari diren lokal batek sor litzakeen eragozpenekin lotuta:

- Udalari gomendatzea ziurtatzeko kexan adierazten den lokalean ezarriko den jarduerak errespetatuko duela ondoko bizilagunek etxean eragozpen desegokirik ez pairatzeko duten eskubidea.

Onartua.

Irunberriko Udala

17/637 espedientea

Interesdunaren negozioaren inguruan dagoen txakurtegi batetik datozen zaunkek eragiten dituzten eragozpenekin lotuta:

- Udalari gogoraztea legezko betebeharra duela zuzentzen duen kanpinaren inguruko txakurtegitik datozen zaratekitik kexa jarri duen pertsonaren eskubide konstituzionalak eraginkortasunez babesteko, eta horretarako neurri zehatz eta proportzionatuak ezarri behar dituela.

Onartua.

Iruñeko Udalari

16/505 espedientea

Kexa-egileek beren etxeetan inguruko tabernen jardueragatik eta bereziki horrek eragiten duen jende-pilaketagatik pairatzen dituzten zaratekin eta beste arazo batzuekin lotuta:

- Udalari gogoraztea legezko betebeharra duela bizilagunek beren etxeetan pairatzen dituzten zaratei eta beste arazo batzuei buruzko salaketa-idazkiei arreta emateko eta erantzuteko.
- Udalari gomendatzea aztertzeke ea kexak erreferentzia egiten dien lokaletarako gaur egun ezarritako ordutegi-mugaketa egokia den eraginpekoen eskubideak babesteko, kontuan hartuta bizilagunek adierazi dutela ixteko ordua ez dela berdina eremu horretako gainerako establezimenduetan, eta, hala badagokio, hartzeko zuzentzeko edo berraztertzeke neurriak.

Onartua.

17/16 espedientea

Gaske talde batzuek etxabe bat biltoki gisa, dibertitzeko eta aisialdirako erabiltzearen ondorioz familia batek etxean pairatzen dituen zaratekin eta usainekin lotuta:

- Udalari gomendatzea hartzeko lehenbailehen beharrezko neurriak, bizilagunek etxeko intimitatea nahiz osotasun fisikoa eta morala izateko duten eskubidea bermatzeko, kexan aipatzen diren etxabeetan sortutako zaraten arazoari irtenbidea emanez.

Ez da onartu.

17/303 espedientea

Arrosadiako bizilagunek inguruko etxabeetan sortzen diren zarategatik pairatzen dituzten arazoekin lotuta:

- Iruñeko Udalari gomendatzea hartzeko lehenbailehen beharrezko neurri eraginkor guztiak, kexan aipatzen diren etxabeetatik legez onartutako maila gainditzen duen zaratarik atera ez dadin; hartara, bizilagunek etxean intimitatea izateko duten eskubidea nahiz osotasun fisiko eta moralerako eskubidea bermatuko dira.

Ez da onartu.

17/471 espedientea

Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunek pairatzen dituzten gehiegizko zaratekin lotuta:

- Udalari gogoraztea betebeharra duela Iruñeko Alde Zaharrean egiten diren jarduerak sortutako zaraten eraginpeko bizilagunen eskubideak babesteko, horretarako neurri egokiak hartuz.

Onartua.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/514 espedientea

- Mankomunitateari gomendatzea hartzeko beharrezko neurriak hiri-hondakinak

biltzeko zerbitzuak eraginda interesdunak etxean, batez ere gauez, pairatzen duen gehiegizko zaraten arazoa konpontzeko.

Onartua.

17/314 espedientea

Etxebizitzetatik gertu geldialdiak egiten dituzten hiri-autobusek eragindako zaraten eta bibrazioen ondorioz sortutako eragozpenekin lotuta:

- Mankomunitateari gogoraztea legezko betebeharra duela herritarrek gehiegizko zaratak eta modu jarraituan ez jasateko daukaten eskubidea babesteko, horretarako egoki diren neurri guztiak hartuz.
- Mankomunitateari gomendatzea ikuskatzeko Iruñeko Olatz kaleko 12 zenbakiko geralekua, gehiago atzeratu gabe, aztertzeke ea gidariek behar bezala egiten duten "motorren geldialdia", horrela bizilagunei eragozpen desegokirik ez sortzeko.

Onartua.

B) Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari

17/329 espedientea

Bertziko Jaurerria Natur Parkean aurrera eramandako basogintza-jarduketekin, jarduketa zinegetikoekin eta animalien heriotzen kontrolarekin lotutako jarduketei buruzko dokumentazio-eskabide bati erantzun ez izanarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraztea legezko betebeharra duela herritarrek ingurumen-informazioa eskuratzeko aurkeztu-

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

tako eskabideak berariaz ebazteko, behar den denboran eta forman.

Onartua.

17/345 espedientea

Nafarroan zikoina zurien habiak kentzeko emandako baimenen inguruko ingurumen-informazioa eskuratzeko egindako eskabide bati erantzun ez izanarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraztea legezko betebeharra duela herritarrek ingurumen-informazioa eskuratzeko egindako eskabideak berariaz ebazteko, behar den denboran eta moduan.

Onartua.

17/523 espedientea

Zilbetiko pago batzuek pairatutako erasoen inguruko ingurumen-informazioa eskuratzeko eskabide bati erantzun ez izanarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraztea legezko betebeharra duela herritarrek ingurumen-informazioa eskuratzeko aurkeztutako eskabideak berariaz ebazteko, behar den denboran eta moduan.
- Departamentuari gomendatzea jar dezala kexa-egileen esku 2017ko irailaren 26ko eskabideak erreferentzia egiten dion Zilbetiko pagadian aldizka eragindako kalteei buruz duen dokumentazioa.

Onartua.

17/592 espedientea

Corella udalerriko Alhama ibaian egindako landaredi-mozketari buruzko informazio-eskabideari osoki ez erantzun izanarekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea aitortzeko herritarrek eskubidea dutela 2015-2016 aldian Alhama ibaian egindako esku-hartzeak babesten dituzten administrazioaren baimenaren eta justifikazioaren espedienteei buruz eskatutako informazioa eskuratzeko, eta, beraz, emateko kexa jarri duen elkarteari 2016ko martxoaren 10eko Habitaten Atalaren txostena, Recuejako jarduketa baimentzeko oinarri hartu zena, bai eta hura jasotzen duen espedientea ere.

Onartua.

Mendabiako Udalari

17/335 espedientea

Mendabian dagoen legar-hobiari buruzko ingurumen-informazioa eskuratzeko egindako eskabide bati erantzun ez izanarekin lotuta:

- Udalari gomendatzea osatzeko kexa jarri duen elkarteari emandako informazioa, eta emateko elkarte horrek aipatutako legar-hobiaren funtzionamenduaren inguruan Udalak egiten duen jarraipenari buruzko agiriak.

Onartua.

C) Ingurumenaren babesa:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari

16/621 espedientea

- Departamentuari gogoraraztea "Viana eta Montejurrako Mankomunitateko Erribera urez hornitzeko proiektua" deritzon udalez gaindiko eragina duen proiektu sektorialean jasotako zehaztapenak betetzen direla zaintzeko legezko betebeharra duela, eta, zehazki, gogoraraztea betebeharra duela kexan aipatutako obrak proiektu sektorial horrekin bat egiten direla zaintzeko, horretarako neurri egokiak hartuz.
- Departamentuari gomendatzea egiteko udalez gaindiko eragina duen proiektu sektorialaren egikaritzearen eraginpeko baliabide hidrologikoen eta ibai-sistemaren azterketa sakon bat, arreta berezia ezarriz Lokiz/Egaibarko akuiferoen ustiaketa ordenatu eta arrazionalari.

Onartua.

16/645 espedientea

Urbasa-Andia Parke Naturaleko harrobi baten funtzionamenduarekin eta horri buruzko ingurumen-informazioa eskuratzeko egindako eskaerarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraraztea legezko betebeharra duela organo eskudunaren bitartez berariaz ebazteko kontserbazioaren aldeko elkarrekin jarritako salaketak eta legezkotasuna berrezartzeko egindako eskaerak, bai eta dagokion ebazpena legez ezarritako gehieneko epean

jakinarazteko betebeharra ere, dagozkion baliabideak ere zehaztuz, hala badagokio.

Onartua.

17/173 espedientea

Lezaungo haritz bat moztu eta baliatzeagatik ezarritako zehapen batekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea uzteko ondorioz gabe interesdunari jarritako zehapena, ustez baimenik gabe zuhaitz bat mozteagatik lege-urratze bat egin izanagatik, interesdunari ez zaiolako bermatu zehapen-prozedura abiatu izanaren nahiz kargu-orriaren jakinarazpena jasotzeko eskubidea, ez eta alegazioak jartzeko eskubidea ere.

Ez da onartu.

17/286 espedientea

Hondakin-enpresak isurpenei eta isurkinei buruzko araudia nahiz eman zitzaion ingurumen-baimen integratuan zehaztutako protokoloak bete ez izanarekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea, kexa eragin duen enpresaren jardueran hautemandako ez-betetzeekin lotuta, eta legozkiokeen zehapenak alde batera utzita, hartzeko ingurumen-legeria berrezartzeko neurriak, martxoaren 22ko Ingurumena babesteko esku-hartzei buruzko 4/2005 Foru Legearen V tituluan xedatuak.

Onartua.

17/392 espedientea

Lekunberriko zabortegi zaharrean metatutako hondakinek eragindako kutsadurari buruzko salaketa bati erantzunik eman ez izanarekin lotuta:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari gomendatzea, kexa jarri duen elkarteak salatutako gertakariekin lotuta, hartzeko lehenbailehen lehengoratzeko beharrezko neurriak, ingurumena babeste aldera.

Onartua.

17/664 espedientea

Interesdunari berak dioenez duela hiru urte baino gehiago gertatutako gertakari batzuegatik, hori egiteko ingurumen-arloan eskumena duen departamentuaren baimena bazuen ere, ezarri zioten zehapen administratiboarekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea botatzeko atzera kexa-egileari ezarritako zehapena, inputazioaren oinarri den arau-haustea preskribatuta dagoelako.

Ez da onartu.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

17/384 espedientea

Lehenago marmol-harrobi bat egondako lurzati batzuen lehengoratzean izaten ari den atzerapenarekin eta lurzati horiek abandonatuta edukitzearekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea, kexa jarri duen elkarteak salatutako gertakariekin lotuta, hartzeko lehenbailehen eta zentzuzko epean ingurumena babesteko eta lehengoratzeko lanak ahalik azkarren egingo direla ziurtatzeko neurriak.

Erantzunaren zain.

Mendabiako Udala

17/177 espedientea

Kexa-egileak bizileku duen urbanizazioan pinuen mozketak sortutako arazoaren aurrean Mendabiako Udalak erakutsitako jarrera pasiboarekin lotuta:

- Udalari gomendatzea biltzeko kexan aipatzen den lorategi-eremuaren mantentzearen eraginak pairatzen dituzten jabeekin, haien informazio-eskaerei erantzuteko, eta bizkortzeko lorategi-eremu hori urbanizatzeko obren onarpenerako beharrezko kudeaketak, obra horiek amaitu zirenetik hogei urte baino gehiago igaro baitira, eta bizilagunen artean ezinegona sortu baita, obra-onarpenaren faltagatik.

Onartua.

Mendazako Udalari

16/621 espedientea

Mendazan ura ateratzeko beste bi putzu eraikitzearekin lotuta, Montejurrako Mankomunitateak sustatutako udalez gaindiko eragina duen plan sektoriala –"Viana eta Montejurrako Mankomunitateko Erribera urez hornitzeko proiektua" deritzo-egikaritzuz:

- Udalari gogoraztea legezko betebeharra duela hirigintza-arloko legeria betetzen dela zaintzeko, putzu berriak hirigintza-lizentziarik gabe eraikitzearekin lotuta.

Onartua.

Mendazako Kontzejuari

16/621 espedientea

Mendazan ura ateratzeko beste bi putzu eraikitzearekin lotuta, Montejurrako Mankomunitateak sustatutako udalez gaindiko eragina duen plan sektoriala –“Viana eta Montejurrako Mankomunitateko Erribera urez hornitzeko proiektua” deritzo– egikaritzuz:

- Kontzejuari gogoraraztea legezko betebeharra duela hirigintza-arloko legeria betetzen dela zaintzeko, putzu berriak hirigintza-lizentziarik gabe eraikitzearekin lotuta.

Onartua.

Montejurrako Mankomunitateari

16/621 espedientea

Mendazan ura ateratzeko beste bi putzu eraikitzearekin lotuta, Montejurrako Mankomunitateak sustatutako udalez gaindiko eragina duen plan sektoriala –“Viana eta Montejurrako Mankomunitateko Erribera urez hornitzeko proiektua” deritzo– egikaritzuz:

- Departamentuari gogoraraztea legezko betebeharrak hauek dituela:

a) Udalez gaindiko eragina duen plan sektorialaren egikaritzea arro-erakundearen aginduaren eta aurretiko baimen administratiboaren mende jartzea.

b) Mendazako putzuen obrak hasi aurretik, Mendazako Kontzejuaren dagozkion hirigintza-baimenak lortzea.

Onartua.

D) Jarduerak eta lizentziak:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari

17/12 espedientea

Allotzeko ur-horniketako proiektuari ingurumen-eraginen inguruko baimena ukatu izanarekin lotuta:

- Departamentuari gogoraraztea legezko betebeharra duela herritarren segurtasun juridikoaren printzipio konstituzionala bermatzeko, bai eta konfiantza legitimoaren eta herritarren fede onaren printzipioak ere.
- Departamentuari gomendatzea emateko Deierri udal barrutian kokatutako Allotzeko ur-horniketako proiektuari ingurumen-eraginen inguruko baimena, Allotzeko txaleten taldeak sustatua.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/718 espedientea

Babes zibilaren arloko departamentu eskudunak herritarrek jada aurkeztutako dokumentazioa berriro eskatzearekin lotuta:

- Departamentuari gogoraraztea interesdunek eskubidea dutela dagokion prozedurari aplikagarri zaizkion araudietan eskatzen ez diren datuak eta agiriak ez aurkezteko, jada administrazio publikoen esku badaude edota haiek eginak badira.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Bertizaranako Udalarari

17/427 espedientea

Jarduera-lizentzia batean aurreikusitako tasa baten ordainketari buruz egindako informazio-eskabide bati erantzun ez izanarekin lotuta:

- Udalarari gogoraztea legezko betebeharra duela kexa-egileak egindako informazio- edo argibide-eskabideari erantzuteko.

Ez da onartu.

Orkoiengo Udalarari

17/364 espedientea

Irekiera-lizentzia baten eskabideari ebazpenik eman ez izanarekin lotuta:

- Udalarari gomendatzea aitortzeko kexak erreferentzia egiten dion irekiera-lizentzia ex lege eman dela, administrazio-isiltasun positiboaren bitartez.
- Udalarari gomendatzea izapidetzeko behar besteko eraginkortasunez kexan aipatzen den ibi-eskabidea, hura ebazteko beharrezkoak diren izapidetzeak bizkortuz.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

16/568/SN espedientea

Txantrea auzoko etxebizitza-erakin baten etxabea beilatoki bat ezartzearekin lotuta:

- Udalarari iradokitzea aldatzeko Udaleko Plan Orokorra edo onartzeko higiezinetan tanatorioko/beilatokiko jardueren baldintzak arautzen dituen udal-ordenantza bat,

hartan hirigintza-araudi bat sartzeko, orokorra eta juridikoki loteslea, jendea bizi den eraikinen behealdean tanatorioak eta beilatokiak ezartzea debekatzeko, modu negatiboan, edota tanatorioak eta beilatokiak hileta-zerbitzuetarako eraikinetan eta eraikin isolatu edo bereizietan ezartzerara behartzeko, modu positiboan.

Ez da onartu.

16/571 espedientea

Etxebizitza-erakin baten etxabea kokatutako taberna bateko usainak hedatzearekin lotuta:

- Udalarari gogoraztea legezko betebeharra duela etxean sailkatutako jarduera baten ondoriozko usain ezegoki edo gehiegizkorik ez pairatzeko eskubidea eraginkortasunez babesteko.

Onartua.

17/161/SN espedientea

Iruñeko Udalak beilatoki gisa funtzionatzeko lizentzia bat eman zion eta jendea bizi den eraikin batean dagoen instalazio bat sustatzaileak jarritako iragarkietan tanatorio gisa agertzearekin lotuta:

- Udalarari iradokitzea aldatzeko Udaleko Plan Orokorra edo onartzeko higiezinetan tanatorioko/beilatokiko jardueren baldintzak arautzen dituen udal-ordenantza bat, hartan hirigintza-araudi bat sartzeko, orokorra eta juridikoki loteslea, jendea bizi den eraikinen behealdean tanatorioak eta beilatokiak ezartzea debekatzeko, modu negatiboan, edota tanatorioak eta beilatokiak hileta-zerbitzuetarako eraikinetan eta eraikin isolatu edo bereizietan ezartzerara behartzeko, modu positiboan.

- Udalari gomendatzea emateko inguruko bizilagunei kexa eragin duen jarduerari (beilatokia) buruzko informazioa, eta haren inguruan eskatu diren aldaketei buruzkoa, hala aukera izan dezaten, egokitzat joz gero, dagokion espediente administratiboa eskuratzeko eta egokitzat jotako alegazioak egiteko.
- Udalari gomendatzea hartzeko beharrezko neurriak, kexan aipatzen den instalazioaren titularrak ez dezan tanatorioko jarduera garatu, oraindik ez baitu horretarako baimenik, eta jarduera hori garatzen ez badu, eskatzeko titularrari ez iragartzeko baimenik ez duen jarduera bat.

Ez da onartu.

E) Faunaren eta ehizaren babesa:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari.

17/383 espedientea

Tuterako ureztapen-putzu baten eraikuntza-akatsen ondorioz gertatzen diren animalien heriotzak direla-eta aurkeztutako salaketa bati erantzunik eman ez izanarekin lotuta:

- Departamentuari gomendatzea, kexa jarri duen elkarrekin salatutako gertakariekin lotuta, hartzeko lehenbailehen putzu artifizialetan animalien heriotzak ez gertatzeko beharrezko neurriak.

Onartua.

Arradako Kontzejuari

17/613 espedientea

Interesdunaren jabetzako lurzati batzuk ehiza-barruti baten barnean berak horretarako baimena eman gabe sartu izanarekin lotuta:

- Kontzejuari gomendatzea eskatzeko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari aldatzeko tokiko ehiza-barrutiaren lurralde-eremua, kexa-egilearen jabetzako lurzatiak kanpo uzteko.

Ez da onartu.

6.2.16. Memoria historikoa.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari

17/547 espedientea

Egindako lan batzuk –Nafarroako armarri ofiziala duen beirate bat egin eta Nafarroako Jauregian jartzea– ez ordaintzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio kexaren egileari ordaintzeko agindua eman ondoren egin zuen lanaren zenbatekoa, Nafarroako armarria zuen beirate bat egiteko agindu baitzitzaion, beiratea Nafarroako Jauregian jartzeko.

Ez da onartu.

Atezko Udalari

17/551 espedientea

Atezko Udalak egindako errekerimenduari dagokionez, eskatu baitzuen San Fernandoren gurutze

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

ereinozduna duen Nafarroako armarri bat kentzeko titulartasun pribatuko eraikin batetik:

- Udalari gomendatu zaio ondoriorik gabe uzteko kexaren egileak egindako errekerimendua, eskatu baitzuen San Fernando-ren gurutze ereinozduna duen armarri bat kentzeko bere jabetzako eraikin batetik, uste baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 11. artikulua ez diola horretarako eskumenik ematen.

Onartua.

6.2.17. Herri-lanak

Beireko Udalari

17/134 espedientea

Kexaren egilearen etxetik hurbil dagoen kale zati bat zolatzeko eskaerei idatzizko erantzunik ez eman izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskariak ebaztera, kexa aurkeztu duenak egindako eskariak barne.
- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela hiri-bide publikoak lehenbailehen zolatzera, eta, zehazki (...) kalea.

Onartua.

Buñuelgo Udalari

17/583 espedientea

Kexaren egileak aurkeztutako bi eskabideri ez erantzuteari dagokionez, eskatu baitzuen herrian egindako obra batzuk ikuskatzeko, eta lan horiekin zerikusia zuen dokumentazio jakin bat eskuratzeko:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztu dituzten eskabide eta eskari guztiei berariazko erantzuna ematera, behar den denboran eta moduan, eta legeek xedatutako epeen barruan.
- Udalari gomendatu zaio berez edo mankomunitatearen laguntzarekin sakon aztertzeko eskatzaileak planteatutako gaia, eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaile egokiak hartzeko.

Onartua.

Uharteko Udalari

17/449 espedientea

Udako hilabeteetan herriko plaza batean karpa bat jartzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio aldameneko etxeetan bizi direnen legezko eskubideak eta interesak betetzen direla zaintzeko, plaza horretan karpa berriz jartzen badu, eta, kalteren bat egin dela ikusiz gero, konpentsazio egokia eman behar duela jakinarazi zaio.

Onartua.

Erriberriko Udalari

16/635 espedientea

Herriko plaza batean karpa bat jartzeari dagokionez:

- Udalari berriz gomendatu zaio, aipatutako karpa jartzea erabakiz gero, errespetatzea Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan ezarritako hiru metroko distantzia, etxebizitzek argitasuna eta bistak izateko

eskubidea kontuan hartuta. Legez ezarritako distantziak errespetatu ezin badira, bizilagunei kalte-ordainak eman behar dizkie, argitasuna eta bistak izateko eskubideari uko egitearen ondorioz, administrazio publikoen ondare-erantzukizunarentzat legedian ezarritako balioespen-irizpideak oinarri hartuta.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/84 espediente

Orkoiengo jaitsieratik hiltegi aldera pasabide bat ez egin izanari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio bete dezala erakunde honek 2011n egindako iradokizuna, **onartua** izan baitzen, eta neurriak har ditzala oinezkoek behar bezain seguru igaro dezaten kexan aipatzen den ingurua (Orkoiengo jaitsiera hiltegi aldera).

Ez da onartu.

Torres del Ríoeko Udalari

17/600 espediente

Bere jabetzako etxebizitza batean teilatu-hodi bat konpontzen atzeratu izanari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio aintzat har dezala kexaren egilearen erreklamazioa, eta osa dezala egindako konponketa, etxebizitza horretako teilatu-hodia Udalak egindako zolatze-lanek eragin ziezaioten baino lehen zegoen egoera berean jartzeko, edo funtsean berdina den egoera batean.

Onartua.

Iruñeko Udalari eta Iruñerriko Mankomunitateari

17/647 espediente

Igogailu bat jartzeko eta arkitektura-oztopoak kentzeko egiten ari diren lanetan izandako gorabeherei dagokienez:

- Udalari eta mankomunitateari gomendatu zaie baimen eta onar dezatela jabeen erkidegoak arkitektura-oztopoak kentzeko aurkeztutako proiektua gauzatzeari, eta ondorioz gabe utz dezatela kexa egiteko arrazoi izandako errekerimendua, gehiegizkoa delako.

Onartua.

Puiuko Udalari eta Mairagako Mankomunitateari

17/706 espediente

Puiuko Korpegi kalea onartutako Sareak Kaleak Zolatuz Berritzeko Planetik kanpo uzteari dagokionez:

- Udalari eta mankomunitateari gogorazi zaie legez behartuta daudela hiri-bide publikoak zolatzeari, ur-hornikuntzari eta saneamenduari dagokienez dauzkaten eskumenak erabiltzera, eta behar den guztia egitera azpiegiturak eta instalazioak egoera egokian izateko.

Onartua.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/682 espediente

Iruñerriko Mankomunitateak hitzarmen-zirriborroa bidali dio kexaren egileari, non adierazten baita egile horrek nahitaez egin behar diela aurre

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

3.385,42 eurori, kopuru hori baita Legardako herrian ur-hornidura ziurtatzeko etorkizunean egin beharko liratekeen lanengatik ordaindu beharreko zati proportzionala, eta hitzarmen-zirriborro horri dagokionez:

- Mankomunitateari gomendatu zaio ondorioz gabe uzteko kexaren egileari proposatutako hitzarmen-zirriborroa, eta ez eskatzeko ordainketa proportzionala, ordaintzeko arrazoi den lanean, hornidura-azpiegitura orokor batzuen eraikuntzan, azpiegiturok haren lursaila dagoen esparrutik kanpo daudelako, ezarpen baldintzatu eta zalantzazkoa dutelako, eta interesdunak kexan aipatzen den lursailaren jabe moduan dauzkan betebeharrak gaituzten dituelako egotzen zaion kostua bereganatzeak.

Onartua.

Montejurrako Mankomunitateari

16/737 espedientea

Cárcar herrian gorozki-uren hoditeria bat konpontzeari dagokionez:

- Mankomunitateari gomendatu zaio konpon dezala matxura kexan aipatzen den hoditerian, interesdunaren lursailetik kanpo dagoelako.

Ez da onartu.

6.2.18. Datuen babesa.

Osasun Departamentua

17/143 espedientea

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak praktikan diharduten irakasleak

azterketa medikoetara deitzeko "whatsapp" talde bat sortzeari dagokionez, taldean parte hartzen dutenen telefono-zenbakiak agertzen baitira:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela pertsonen datu pertsonalak babestera, eta eragotzi behar duela datu horiek tratatzea interesdunek adostasun argia eta berariazkoa adierazi gabe.

Onartua.

Iruñeko Udalari

17/643 espedientea

Ezgaitasun bat aitortzeko prozeduran datu pertsonalak babesteko legedia urratu ahal izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio bere langileen datu pertsonalak babesteko betebeharra duela, batez ere osasunarekin eta lan-ondorioekin zerikusia dutenak, eta behar diren neurriak hartu behar dituela horretarako.
- Udalari gomendatu zaio kexaren egileari jakinarazteko zer pertsona dauden gaituta jakiteko zein diren ezgaitasun-espedientean sartuta dauzkaten datu pertsonalak, bai eta, jasota dagoenaren arabera, edo ikasi denaren arabera, zer pertsonak ikusi duten espedientea.
- Udalari gomendatu zaio ez argitaratzeko udal-intranetean enplegatu publikoen laneko ezgaitasunari buruzko ebazpenak, edo, beharrezkoa bada haiek argitaratzea, kasuan kasuko datu pertsonalak bereizi ondoren egiteko, interesdunak ezin identifikatu ahal izateko.

Ez da onartu lehen gomendia.

Eguesibarko Udalari

17/459 espedientea

Udala udalerrian eragina duten zenbait gairi buruz herritarrek zer iritzi duten jakiteko herritarren partaidetzarako antolatzen ari den prozesu batzuetan esku hartu herritarrek ematen dituzten datu pertsonalen tratamenduari dagokionez:

- Udalari, oro har, gomendatu zaio neurri pertsonalak hartzeko, herritarrek parte har dezaten antolatzen dituen prozesuetan lortzen dituen datu pertsonalen tratamenduan honako hauek bermatzeko: a) datu horiek ematen dituzten interesdunei jakinaraztea zer eskubide dauden xedatuta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.1 artikuluan; b) ez jakinaraztea edo agerraraztea datu pertsonal horiek interesdunek berariaz eta aurrez baimena eman gabe; eta c) lortutako datuak Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatutako administrazio publikoaren titulartasuneko fitxategi batean egotea, helburua aldi baterakoa izanda ere.

Onartua.

6.2.19. **Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.**

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/649 espedientea

Adingabe batek, sartuta zegoen Belosoko behaketa- eta harrera-zentrotik ihes egin ondoren, ke-xaren egilearen etxebizitzaren inguruko hesian eragindako kalteei dagokienez:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela behar bezala betetzera behaketa- eta harrera-zentroetan

sartutako adingabeei dagokienez esleituta daukan zaintza-ardura, eta, gutxienez, informazioa eta orientazioa ematera ondasunetan kalteak izan dituzten herritarrei, kalte horien eragilea, kasu honetan bezala, zentro horietako batetik ihes egin duen adingabe bat da, bai eta, hala egokituz gero, zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko ondare-erantzukizuna bere gain hartzera ere.

Onartua.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

17/571 espedientea

Departamentuak Iratiko Oihanean antolatutako jarduera bat aurrez jakinarazi gabe bertan behera uzteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio kalteordaina emateko interesdunari, lagun zituen hamahiru pertsonekin batera egin zituen gastuengatik, huts egin zelako izena emanda zeukaten eta departamentu horrek antolatua zuen jarduera bertan behera utzi zelako jakinarazpena egitean, horren ondorioz inolako beharrik gabe joan baitziren Iruñetik Iratiko Oihaineraino.

Ez da onartu.

Osasun Departamentua

17/110 espedientea

Kirurgia-operazio batean eta operazio ondokoan jasandako kalte moral eta fisikoei dagokienez:

- Departamentuari gomendatu zaio kexaren egilearen erreklamazio bidez hasitako

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

ondare-erantzukizuneko prozedura izapidetzeko, zeinak zerikusia baitu egin zioten kirurgia-operazio batekin eta operazio ondokoarekin, lastertasun-printzipioaren arabera, eta, ahal den neurrian, prozeduraren ebazpena azkartzeko; era berean, gomendatu da prozedura bideratzen duen organoak sustatzeko, are ofizios ere, bidezko froga- eta irizpen-izapideak kexan salatutakoak aztertzeko eta, hala egokituz gero, argitzeko.

Onartua.

17/688 espedientea

Administrazio publikoak ondare-erantzukizuna zuela adierazi zuen eta kexaren egileari kalte-ordaina ematea eragin zuen epai baten behin-behineko betearazpenaren aurka Nafarroako Gobernuak hartutako jarrerari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio egokitzen jotzen dituen neurriak har ditzala, interesdunari ahalik eta lasterren ordaintzeko Iruñeko 1 zenbakiko administrazioarekiko auzien epaitegiaren epaiak administrazio publikoaren ondare-erantzukizun moduan aitortutako zenbatekoa, behin-behineko betearazpenerako eskatu eta ezarritako baldintzapena (kauzioa edo fidantza) eskatu gabe.

Ez da onartu.

Atezko Udalari

17/22 espedientea

Kexaren egilearen jabetzako lursail batetik igarotzen den erabilera publikoko bide baten konponketari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio azter dezala kexan aipatzen den bidea urbanizatzeko eskatzen diren baldintzen aldaketa, baldintza horiek bideak zerbitzua ematen dien lursail pribatuen jabeek ibilgailuz eta oinez sartzeko dituzten beharretara egokitzeko.
- Udalari gomendatu zaio ofizios hasteko ondare-erantzukizuneko espediente bat, udalak kexan aipatzen den bidean egindako konponketa-lanen eta bidearen geroko hondatze lasterraren artean kausazko loturarik dagoen ala ez aztertu eta ebaluatzeko.
- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela idatziz egitera kexan aipatzen den lursailera sartzeko bidea urbanizatzeko dauden aukerekin zerikusia duten jakinarazpenak.

Onartua.

Erriberriko Udalari

17/414 espedientea

Eguzki-instalazio fotovoltaiko baten balioespen-txostena berandu berrikusi izanak eragin dion kalte ekonomikoari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela onartzen dituen balioespen-txostenak onartzera, azken txostena onartu denetik edo azkenekoz berrikusi denetik gehienez ere bost urte igaro ondoren, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2016 Foru Legearen 35. artikulua xedatu bezala.
- Udalari gomendatu zaio ofizios zehazteko zer ondare-erantzukizun izan dezakeen ez onartzeagatik udalerriko ondasun hi-

giezinei buruzko balioespen-txosten berri bat, legez ezarritako gehieneko epea igaro ondoren.

Ez da onartu.

17/521 espedientea

Erriberriko Udalak 2006an onartutakoaren ordeztu beste balioespen-txosten bat onartzen gertatutako atzerapenari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela onartzen dituen balioespen-txostenak onartzera, azken txostena onartu denetik edo azkenekoz berrikusi denetik gehenez ere bost urte igaro ondoren, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2016 Foru Legearen 35. artikulua xedatu bezala.
- Udalari gomendatu zaio ofizioz hasteko ondare-erantzukizuneko espediente bat, bertan aztertu eta erabakitzeko balioespen-txosten berriaren onarpenean gertatutako atzerapenak kalte egin ahal izan dion interesdunari, kalte hori jasateko betebeharrak juridikoa izan gabe.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

17/210 espedientea

Etixerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroan egindako hutsegiteari dagokionez, Tuteratik Iruñera lekualdarazi baitzuten:

- Udalari gomendatu zaio kalte-ordaina emateko interesdunari, eman zien informazio okerraren ondorioz izan zituzten

kalteengatik, Tuteratik Iruñera inolako premiarik gabe joan zitezten eragin baitzuen.

Onartua.

Tuterako Udalari

17/210 espedientea

Oinarriko gizarte-zerbitzuko gizarte-langile batek emandako tratuari dagokionez:

- Udalari, oro har eta gertaera zehatza aurrez epaitu gabe, gogorarazi zaio legezko betebeharrak dela herritar guztiak daukan harremanetan tratatu arretatsua eta arduratsua izatea.

Iruñerriko Mankomunitateari

17/195 espedientea

Iruñerriko Mankomunitateak kexaren egilearen erreklamazioei ez erantzuteari dagokionez, eta eskualdeko garraio-zerbitzu publikoak zabar funtzionatzearen ondorioz izandako kalteen aurrean jarrera pasiboa izateagatik:

- Mankomunitateari gomendatu zaio emakidadun enpresari (TCC) eskatzeko osorik ordain dezala kexaren egileak eskualdeko hiri-garraio zerbitzuan jasandako kaltea.

Onartua.

6.2.20. Osasungintza.

Osasun Departamentua

16/653 espedientea

Transexualez arduratzen den unitatearen izenari eta pertsona horientzako laguntzari dagokionez:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legeko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari iradoki zaio transexualen kolektiboa ordezkatzeko duten erakundeen parte-hartzea kontuan hartzeko, bai transexualen kolektiboarentzako arretaredua aldatzeko prozesuan, bai kolektiboari laguntzen dion unitate organikoaren izena aldatzean.

Onartua.

17/44 espedientea

Haur-Gazteen Osasun Mentalaren Zentroan emandako arretari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio beste mediku psikiatra bat jartzeko kexaren egilearen semeari.

Onartua.

17/55 espedientea

Lodosako osasun-zentroko larrialdietako zerbitzuan jasotako tratuari dagokionez:

- Departamentuari, oro har eta gertaera zehatza aurrez epaitu gabe, gogorazi zaio legeko betebeharra dela herritar guztiekin dauzkan harremanetan tratatu arretatsua eta arduratsua izatea.

Itxita beste arrazoi batzuegatik.

17/150 espedientea

Nafarroako Ospitale Guneko Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatearen zerbitzuan eta instalazioetan dauden gabeziei dagokienez:

- Departamentuari gomendatu zaio sakonago aztertzeko kexan aipatutako alderdiak, eta zerbitzua hobetzeko neurri egokiak hartzeko Nafarroako Ospitale Gu-

neko Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatean, osasun-laguntza ahalik eta kalitate eta segurtasun handienarekin emateko.

Onartua.

17/203 espedientea

Arrotxapeko (Iruñea) osasun-zentroko larrialdietako zerbitzuan emandako arreta medikoari dagokionez:

- Departamentuari gogorazi zaio legez behartuta dagoela pazienteei informazio ulergarria eta egoera bakoitzera egokitua ematera farmako bat ez agintzeko dauden arrazoi medikoei buruz, eta osasun-langileek begirunez tratatu behar dutela uneoro pazientea.

Onartua.

17/227 espedientea

Interesdunak duen kolesterol-arazorako tratamendua ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzuak gomendatutako tratamendua emateko kexaren egileari.

Onartua.

17/302 espedientea

Tuterako Reina Sofia Ospitalean pertsona bati arreta dermatologikoa ez emateari dagokionez:

- Departamentuari gogorazi zaio legez behartuta dagoela arreta egokia ematera Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sistema publikoaren erabiltzaileei, eta,

ahal den neurrian, kexan deskribatuta-koaren moduko egoerak ekidin behar dira.

Onartua.

17/404 espedientea

Prestazio ortoprotesiko baten zenbateko osoa ez itzuli izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio onartzeko interesdunak behar duen ortoprotesi osoaren finantzaketa, aurreko urteetan egin duen bezala.

Ez da onartu.

17/426 espedientea

Osasunbideak "estetikotzat" jotzen duelako daukan arazo dermatologikorako tratamendua ete-teari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio 2016ko azarora arte egin bezala tratatzeko kexaren egilearen arazo dermatologikoa, arazo estetiko hutsa ez dela pentsatzeko elementuak daudelako, eta agindutako tratamendua emaitzarik gabekoa izaten ari delako.

Ez da onartu.

17/477 espedientea

Interesdunari bi botika finantzatu nahi ez izateari dagokionez, koloneko minbizia izan arren, eta ardatzen duten espezialistek botika horiek hartzeko agindu arren.

- Departamentuari gomendatu zaio onartzeko kexaren egilea artatzen duten fakultatibo espezialistek agindutakoa, eta aipatu botikak finantzatzeko, baldin eta,

irizpide medikoaren arabera, pazientearen sintomatologia konpon edo arin dezaketen bakarrak badira.

Bestela, beste aukera batzuk ere egonez gero, gomendatu zaio agindutakoa aztertzeko, eta osasun-sistema publikoak finantza ditzakeenen artetik beste tratamendu-aukera bat ezartzeko, hori ere egokia bada.

Ez da onartu.

17/482 espedientea

Duela zenbait urte kirurgia-operazioa egin zioten belaunean min hartu eta artatu arte itxaroten egondako denborari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Laguntza Espezializatu-tuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean ezarritako epeak betetzera.

Onartua.

17/494 espedientea

Interesdunak bizkarrezurrean operazio bat egiteko itxaron behar izandako denborari dagokionez:

- Departamentuari, berak jakinarazitakoaren ildotik, iradoki zaio lehenbailehen egiteko interesdunak egin gabe daukan kirurgia-operazioa, pazientearen egoera kontuan hartuta.

Onartua.

17/579 eta 17/585 espedientea

Bikotekiderik gabe bizitzeagatik ugalketa-tratamendu bat ukatzeari dagokionez:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari gomendatu zaio lehenbailehen emateko edo finantzatzeko ke-xaren egileak ama ezkongabe moduan eskatzen duen ugalketa lagunduko tratamendua.

Onartua.

17/635 espedientea

Interesdunaren narkolepsia- eta kataplexia-arazorako agindutako tratamendu farmakologikoa ez finantzatzeari dagokionez, bai eta interesdunak gai horretaz aurkeztutako idazkiari ez erantzuteari dagokionez ere:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela aintzat hartzea pazienteen eskubide hau: balia ditzaketen zerbitzuen informazioa jasotzekoa; bai eta, kasu honetan, pazienteari agindu zaion tratamenduari buruz bidezkoa dena azaltzekoa ere.
- Departamentuari gomendatu zaio aztertzeko eta pazienteari jakinarazteko zer aukera dagoen pazienteak duen arazoa bestela tratatzeko, batez ere kexan aipatutako botika ez emateko eta finantzatzeko jarrerari eusten jarraitzen badu.

Ez da onartu.

17/674 espedientea

2014an egindako osasun-zerbitzuengatik Osasun Departamentuak eskatutako zor bati dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio ondoriorik gabe uzteko interesdunari jaso zuen osasun-laguntzaren gastuengatik igorritako likidazioa.

Ez da onartu.

17/686/SN espedientea

Iruñeko Nafarroako Ospitale Gunean sartuta dauden pazienteen laguntzaileei eragiten dien arazoari dagokionez, foru-komunitatean urrun dauden beste leku batzuetatik joan behar dutelako:

- Departamentuari iradoki zaio sakon aztertzeko Nafarroako ospitale batean sartutako pertsonen laguntzaileei diru-laguntza bat emateko aukera, ospitalera foru-komunitatean urrun dauden beste leku batzuetatik joan behar badute.

Ez da onartu.

17/724 espedientea

Interesdunaren biloben pediatrik idatzitako txosten baten edukiari dagokionez, adingabeen amak erabili baitu hitzartuta zeukaten bisita-erregimena eteteko:

- Departamentuari gomendatu zaio eskatzen dituztenen iritzi subjektiboak besterik jasotzen ez duten txosten medikoak ez egiteko, inpartzialtasun-, neutraltasun- eta objektibotasun-printzipioak kontutan hartuta, Administrazioaren jokabidean nagusi izan behar baitute, batez ere ikusten bada eztabaida egon daitekeela partikularren artean, eta txostena eskatzen duenaren jarrera indartzeko balia daitekeela.

Onartua.

17/739 espedientea

Zeliakia duten pertsoneri emandako diru-laguntzen zenbatekoa nahikoa ez izateari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio zeliakoen-dako laguntzetarako aurrekontu-saila handitzeko neurri egokiak hartzeko.

Ez da onartu.

AO 17/19

Argibide Fundazioa eta Osasunbidea zenbait osasun-zentrotan (Burlatako osasun mentaleko zentroa eta Eguneko Ospitale Psikiatrikoa-I) laguntza-zerbitzua kudeatzeko hitzarmen edo kontratu bidez 1986. urtetik izaten ari diren lankidetzaharremana amaitzeko aukerari dagokionez:

- Departamentuari hauek iradoki zaizkio:

a) berriz hausnar dezala gaur egun Argibide Fundazioarekin (Burlatako osasun mentaleko zentroa eta Eguneko Ospitale Psikiatrikoa) daukan lankidetzaharremana amaitzeko erabakiari buruz, eta neurriak har ditzala, harremanak eta erabiltzaileei ematen zaien laguntzak jarraitu ahal izateko; eta

b) har dezakeen erabakia zerbitzuen zeharkako kudeaketari buruzko azterlanaren barruan har dezala, aurreikusita baitago osasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruetan besteak beste aipatu fundazioaren ekimenerako eta gisako gizarte-ekimeneztarako egiten diren gizarte-hitzarmenak arautzen dituen Foru Legerako aurreproiektuan.

Ez da onartu.

Osasun Departamentuari eta Eskubide Sozialen Departamentuari

AO 17/13/SN

Herritar batzuek sendagaiak ordaintzeko dituzten arazoei dagokienez:

- Departamentuei iradoki zaie koordinatuta aztertzeke zer aukera dagoen neurriak

hartzeko, honako hau gerta ez dadin: pertsonak, diru nahikorik ez izateagatik, administrazio sanitarioak agindutako botikak benetan ezin eskuratu ahal izatea; adibidez, neurri bat izan daiteke laguntza publikoen erregimen bat ezartzea errenta-mailen arabera, laguntzok koodainketa farmazeutikoko erregimenaren osagarriak izanik.

Onartua.

Osasun Departamentuari eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

AO 17/21/SN

Apustu-lokaletara eta joko-aretoetara joaten diren pertsonak, nortasun-agiri nazionala eskatuz eta joko-jardueratik beren burua aurrez baztertu dutenei sarrera eragotziz, leku horietan sartzea kontrolatzeko aukerari dagokionez:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradoki zaio sustatzeko aldaketa bat Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Arauan, 32.4 artikulua joko-aretoak behar ditzan sarrera kontrolatzera kasi-noetan, bingoetan eta apustu-dendetan egiten den bezala.
- Osasun Departamentuari iradoki zaio aztertzeke egun dauden edo izan nahiko litartekeen bitarteko publiko zein pribatu guztiak egokiak eta aski diren ludopatiaren ondoriozko arazoei –joko-irrika patologiko hori duenaren eta berorren familia-ingurunearen arazoei– eta prebentzioari aurre egiteko, eta, era berean, iradoki zaio egonkor zaintzeko kexa sustatu duen elkartearrekiko lankidetzak, bai

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

eta elkarte horrek duela hogeitertietan etengabe bete duen funtzio soziala ere.

Ez da onartu.

Cascanteko Udalari

17/201 espedientea

Hitzaldi bat egiteak osasun publikoarendako berekin zer arrisku zekarren eta udala laguntzaile zela kontuan hartuta kexaren egileak Udalera bidalitako txostenari ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari honako hau gomendatu zaio: toki-erakundea laguntzaile bada hirugarren batek antolatutako jarduera batean (adibidez, lokal publiko bat utzita hitzaldi bat egiteko), eta salaketa bat izan bada ekitaldiaren edukari buruz, eta ez-legezkoa izan daitekeelako, Udalak behar diren neurriak hartu behar ditu, aplikatzekoa den legediak xedatua betetzen dela egiaztatzeko, eta, gainera, txosten juridiko bat eska dezake, egin nahi den jarduera zuzentzeko araberakoa den jakiteko.

Onartua.

AO 17/24/SN

Espainiako Arartekoari

Konstituzio Auzitegiak osasun-arretarako sarbide unibertsala izateko eskubidea ezarri duten zenbait arau autonomiko balio gabetzeari dagokionez:

- Iradoki zaio jarduketa bat hasteko osasun-arloan eskumena duen ministerioaren aurrean, azter dezaten apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua (Osasun Sistema Nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziazko neurriei bu-

ruzkoa) aldatzeko aukeraren sustapena, egoiliarak, edozein adin, nazionalitate edo legez- edo administrazio-egoera izanda ere, osasungintzan berme guztiekin sartzeko printzipioaren aurkakoa den edo halakoa dela interpreta daitekeen neurrian.

6.2.21. Herritarren segurtasuna.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/288 espedientea

Añorbetik hurbil izandako sute batean gertatutakoak direla eta Nafarroako Foruzaingoko agente batzuek emandako tratu desegokiari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra dela kexaren egileari ematea Nafarroako Foruzaingoko agente batek ustez eskuz emandako kolpearen ondorioz egindako lesio-partearen kopia.
- Departamentuari gogorarazi zaio Nafarroako Foruzaingoa legez behartuta dagoela bere eginkizunak betetzera Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 4. artikuluan zerrendatutako oinarritzako printzipioen arabera, eta horien artean dagoela uneoro tratu ona izatea herritarrekiko harremanetan (h letra).

Onartua.

17/450 espedientea

Substantzia estupefazianteak edukitzeagatik salaketa bat jartzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari ezarritako zigorra balio gabet-

zeko, eta zehapen hori ordaintzeko emandako dirua itzultzeko, ez baitzuen inolako errurik izan gertatutakoetan, daukan gaitasun mentalaren eta gaitasun judizialik ezaren ondorioz.

Onartua.

17/573 espedientea

Poliziak Iruñeko taberna batean gertatutako argazki-kamera baten ebasketa-delitua argitzeko egindakoari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Nafarroako Foruzaingoaren jarduketek eragindako herritarrei ematera jarduketa horiei buruzko informazioa, jarduketa horien arrazoiak eta zertarakoa azaltzera, eta, bereziki, jasotzaileek delitu bat leporatzen zaiela pentzatzea eragin dezakeen portaera eta adierazpen oro baztertzera.
- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra dela herritarren errugabatasun-presuntzioa bermatzea, eta ez dago kiola ikertutako pertsonari esku hartzen duten agenteei erakustea ikertzen ari den delituaren egilea ezin dela izan egiaztatzeko datu objektiboak edo dokumentuak, ikertzen duenaren lana baita esaten duena egiaztatzea.

Onartua.

Antsoaingo Udalari

16/652 espedientea

Negozio baten publizitate-eranskailuak jartzearen ondorioz Antsoaingo Udalak bideratutako zehapen-espedienteari eta udaltzainek emandako tratuari dagokienez:

- Udalari honako lege-betebehar hauek gogorarazi zaizkio: a) tratu zuzena eta arretatsua izan behar da herritarrekiko harremanetan; b) eztabaida partikularretan bitartekari-eginkizuna betetzen duenean, aginduzkoak ez diren bitartekoak erabili behar ditu, bai eta aldeetako barentzat hertsagarriak edo zigortzaileak ez diren prozedurak ere; eta c) ofizioz jardun behar du zehapen-espedienteak abiarazi eta izapidetzean, eta ez salatzailearen borondatez.

Onartua.

Bakaikuko Udalari

17/463 espedientea

Zurezko teilatua duen eta interesdunaren jabetzako den etxebizitza batetik hurbil San Joan gauean suak pizteari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio azter dezala, hurrengo urteei begira, San Joan gaueko suak pizteko gutxieneko ordenazio bat ezartzeko aukera. Bereziki, eta segurtasuna ahalik gehiena bermatzeko, egokitzen jotzen diren beste neurri batzuk baztertu gabe, iradoki zaio suak pizteko leku zehatz bat prestatzeko, etxebizitzetik edo hurbil daudelako segurtasun hori arriskuan jar dezaketen beste elementu batzuetatik urrun, edo, bestela, nahikotzat jotzen den gutxieneko distantzia bat ezartzeko.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Iruñeko Udalari

16/733 espedientea

Udaltzainek emandako tratuari eta sakelakoa apurtzeari dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio ondare-erantzukizuneko prozedura bat irekitzeko eta izapidetzeko, are ofizioz ere, poliziaren jardunaren ondorioz interesdunaren sakelakoa hautsi ahal izan zelako, bai eta espedientea agerian jartzeko eragindako herritarrarentzat eta bidezko diren frogak gauzatzeko ere.
- Udalari gomendatu zaio ondoriorik gabe uzteko kexaren egileari dagokionez abiarazitako zehapen-prozedura, arau-hauste larri bat, desordena publikoak eragitea, egin duelako zantzurik ez dagoelako.

Onartua.

16/742 espedientea

Kexaren egileen seme-alabei edukiontzi batzuk iraultzeagatik ezarritako zigorrei dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio kexaren egileen seme-alabei ezarritako zigorrak baliogabetzeko, ordenamendu juridikoaren aurkakoak direlako, eta itzultzeko isunak aurrez ordaintzeko emandako dirua, ez baita frogatu egin zituztenik egotzitako arau-haustek.

Onartua.

17/320 espedientea

Iruñeko Udaltzaingoko gaueko txandako agente batzuen jarrerari dagokionez:

- Udalari, oro har, gogorarazi zaio udaltzainen betebeharra dela tratatu zuzena eta adeitsua izatea uneoro herritarrekin dituzten harremanetan.

Onartua.

6.2.22. Zerbitzu publikoak.

Aberin Barrutiko Udalari

17/454 espedientea

Aberin Barrutia osatzen duten bi guneeetan (Muniain eta Iguzkitza) dauden zerbitzu publikoak desparekoak izateari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio ahalegintzeko udalerriko herri eta gunehorrek dituen zerbitzuak eta hornidurak hobetzen Iguzkitzan bizi direnen laguntza eta parte-hartzearekin, bai eta aurki daitezkeen akatsak zuzentzeko eta, horretarako, egokitzat joz gero, helburua lortzeko jarduketa batzuk zehazteko ere.

Onartua.

Agoizko Udalari

17/154 espedientea

Kexaren egilea bi seme-alabekin bizi den etxean jasaten ari den ur-hornidurarik ezari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio neurriak hartzeko Eskubide Sozialen Departamentuaren laguntzarekin, ziurtatzeko interesdunaren familia-unitateak, zeinaren barruan baitaude oso adin gutxiko bi adingabe, etxebizitza duina eta dauzkan premietara egokitua daukala; eta, era berean, iradoki zaio aurreko hori gauzatu bitartean urez

hornitzen jarraitzeko, aurreko hilabeteetan egin bezala.

Onartua.

Iruñeko Udalari

15/400 espedientea

Hiria garbitzeko erabiltzen diren produktuei buruzko informaziorik ezari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela epearen barruan ebatzea informazio publikoa izateko aurkezten zaizkion eskaerak.
- Udalari gomendatu zaio interesdunari emateko bide-garbiketako zerbitzuan erabiltzen diren produktuei buruz eskatu zuen informazioa.

Ez da onartu.

17/70/SN espedientea

Civivox ikastaroetan eta hiri-kanpamentuetan ordaindu beharreko tarifei buruzko araudian guraso bakarreko familiak berariaz kontuan hartuta ez egoteari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio eguneratzeko antolatzen dituen ikastaroen eta kanpamentuen informazio-liburuxketan argitaratutako hobariak, eta aztertze guraso bakarreko familiei Udalak berak zuzenean edo zeharka antolatzen dituen hezkuntza-, kultura-, kirol- eta gizarte-ikastaro eta -jardueretan eta osasuna sustatzekoak direnetan hobari bat ezartzeko aukera.

Onartua.

17/611 espedientea

Burguen plazan bizi direnen egoerari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio neurri eraginkorrak hartzeko kexan azaldutako egoera zuzentzeko, eta, ildo horretan, gomendatu zaio, garbiketa areagotzeaz gain, ontzat jotzeko egindako eskaerak (esku-hartze soziala gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin, eta komun eramangarri bat jartzea), bat baitatuz udal-eskumenekin, eta zentzuzkoak baitira deskribatutako egoeraren arabera.

Ez da onartu.

Sorladako Udala

17/268 espedientea

Udalerriko kaleetako argiztapenari eta kexaren egileak gobernatzen duen ostatua iragartzeko kartel bat paratzeari buruzko eskabideei erantzunik ez emateari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio kexaren egilearen eskaerari erantzuteko legezko betebeharra duela.
- Udalari iradoki zaio dauden interes orokorrak eta partikularrak kontuan hartuta aztertze zer aukera dagoen udalerriko kaleak argiztatzeko txandakako aldi edo egunetan eta zatietan, eta kexaren egilearekin batera erabakitzeko pertsona horrek gobernatzen duen ostatua iragartzeko kartel bat jartzea.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Uharte-Arakilgo Udala

16/671 espedientea

Udalerriko hilerriaren funtzionamenduari buruzko eskabide bati ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea legezko betebeharrak duela herritarrek aurkezten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei berariazko erantzuna emateko, behar den denboran eta moduan, eta legeek xedatutako epeen barruan.
- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela publiko egitea bizilagun gehiendako interesgarriak diren erabaki edo egintza administratiboak, haiek deliberatu eta berehala, bandoak, iragarki orokorrak edo antzekoak argitaratuz.

Onartua.

Zizur Nagusiko Udalari eta Iruñerriko Mankomunitateari

17/164 espedientea

Ardoi urbanizazioko zerbitzu publikoak aski ez izateari eta, bereziki, urbanizazio hori aurretiko gune urbanoaren gainerakoarekin lotzeko garraio publikorik ez izateari dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio lehentasuna emateko Ardoi urbanizazioko zuzkiduretan eta zerbitzu publikoetan dauden ga-beziak zuzentzeko jarduketei, onartutako Plan Partziala gauzatuta.
- Mankomunitateari iradoki zaio Ardoi urbanizazioko garraio publikoaren zerbitzu publikoaz adierazitako aurreikuspenez eta datez hartutako konpromisoari eusteko, eta aztertzeko urbanizaziora iristeko

ordubeteko maiztasuna ez ote den gutxiegi herritarren eskariari erantzuteko.

Onartua.

Moncayoko Uren Mankomunitateari

17/224 espedientea

Barillasko Konstituzio kaleko lurraren azpitik igarotzen den kolektore bat konpontzeko egin behar diren lanak finantzatzeko betebeharrari dagokionez:

- Mankomunitateari gomendatu zaio bere gain hartzeko Barillasko Konstituzio kaleko saneamendu-kolektorea konpontzeko egin behar diren lanen kostua eta gauzapena.

Ez da onartu.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/665 espedientea

2016ko bigarren lauhilekoari dagokion gehiegizko ur-kontsumo baten fakturazioari dagokionez, gehiegizko kontsumo hori gertatu baitzen ura eramateko kexaren egilearen jabetzako instalazioan, akats bat -ihes bat- zuelako:

- Mankomunitateari iradoki zaio etxe-erabilerarako erabakitakoa baino tarifa merkeagoa ezartzeko ezkutuko ihesak gertatzen diren kasuetan aplikatzeko.
- Mankomunitateari gomendatu zaio gutxitzeko gertatutako ihesaren ondorioz izandako kontsumoagatik kexaren egileari eskatutako zenbatekoa.

Ez da onartu.

17/69 espedientea

Eskualdeko hiri-garraioaren erabiltzaileei aplika dazkizkiekeen tarifen araudian guraso bakarreko familiak berariaz kontuan hartu gabe egoteari dagokionez, Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen baitu garraio hori:

- Mankomunitateari iradoki zaio tarifa berezi bat ezartzeko eskualdeko hiri-garraioa erabiltzen duten guraso bakarreko familientzat.

Ez da onartu.

Eugiko Kontzejuari**16/627 espedientea**

Eugiko herritarrak urez hornitzeko sisteman gertatutako irizpide-aldaketari dagokionez:

- Kontzejuari iradoki zaio ur-harpen eta -hornidurari buruzko eskumena eman diezaiotela eskatzeko, ikusten badu bizilagun gehienek nahi dutela urez hornitzea kontzejuko iturburuetatik, horren ondorioz behar diren lanak egin ahal izateko eta, hala egokituz gero, modu egokien bidez mantentze-lana egitea bere gain hartzeko.

Ez da onartu.

6.2.23. Lana.

Eskubide Sozialetako Departamentuari**17/531 espedientea**

“Autodefentsa feministako prestatzaileak” ikastaroa ebaluatzeko prozedurari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio interesdunak egindako azterketa berrikusteko, eta berrikuspen hori egiteko arduraren pertsona independente bati emateko (arloan espezializatua, eta ebaluazio-prozeduran parte hartu ez duena), aukera emanda kexaren egilearen azterketa ikastaroko kideen azterketekin erkatzeko.

Ez da onartu.

Hezkuntza Departamentuari**17/468/SN espedientea**

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskaintako profesionaltasun-ziurtagirietarako irakasle-postu bat hautaketa-prozesutik kanpo uzteari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela zehaztea, kasuan kasuko lanpostu-deialdi edo eskaintzetan, interesdunei dagozkien partaidetza-baldintzen egiaztapen-kargak, bai eta, hala egokituz gero, osatugabetzat jotzen diren eskabideen konponketa bideratzea ere.
- Departamentuari, kexaren arrazoi (profesionaltasun-ziurtagirietarako irakaslea) izandakoaren antzeko hautaketa- edo norgehiagoka-prozesuak izapidetzeari dagokionez, gomendatu zaio gardentasun-irizpideak aplikatzeko, interesdunek jakin dezaten nor lehiatu diren, zer meritu ziztuztela esan duten eta zein izan diren hautaketa-organoaren balorazioak.

Onartua.

Osasun Departamentua**17/292 espedientea**

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Nafarroako Ospitale Gunean lan egiten duten dietista eta nutrizionisten lan-kontratuak zerbitzuak kudeaketa publikora itzultzearen ondorioz laster amaitzeari dagokionez:

- Kexa aurkeztu duten langileen egoera, hau da, Nafarroako Ospitale Guneko sukalde-zerbitzua esleituta daukan enpresak kontratatutako dietista eta nutrizionistena, zeinen berezia den kontuan hartuta, departamentuari iradoki zaio aztertzeko, zerbitzua kudeaketa publikora itzultzea eta Administrazioak berak kudeatzea gertatzen bada ere, zer aukera dagoen, egun aurreikusita dauden kopuruak gainditzeko, dietetika- eta nutrizio-titulua duten langileak kontratatzeko, edo tituludun horien lanpostuak betetzeko deialdiak egiteko, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko neurri moduan.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

17/381 espedientea

Iruñeko Udalaren mendeko etxeko laguntza-zerbitzuko subrogatutako langileei dagokien antzintasuna aitortu eta ordaintzeari dagokionez:

- Etxeko laguntza ematen duen ASIMEC enpresako langileei antzintatasunagatik eman beharreko ordainaz den bezainbatean, eragiten baitie kexaren arrazoia den enpresa-subrogazioak, eta kasuan kasuko zenbatekoak kalkulatu, Udalari gomendatu zaio jatorriko enpresan lan-harremana hasitako eguna kontuan hartzeko, eta ez 2017ko martxoaren 1a.

Ez da onartu.

6.2.24. Trafikoa eta bide-segurtasuna.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

17/653 espedientea

Iruñeko Udaleko garabi-zerbitzuak egoiliarrentzako inguru batean aparkatutako ibilgailua eramatearen ondorioz ezarritako tasaren likidazioaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua garaiz kanpoko izateagatik ez onartzeari dagokionez:

- Departamentuari (Nafarroako Administrazio Auzitegia) gomendatu zaio onartzeko kexaren egileak jarritako gora jotzeko errekurtsua izapidetzea, egiaztatu baita pertsona hori posta-bulego batean aurkeztu zela horretarako emandako epearen barruan.

Ez da onartu.

Andosillako Udalari

17/305 espedientea

Andosillako Empalme kalean eta, zehazkiago kexaren egilearen pasabidean ibilgailuak aparkatzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio kexan aipatzen den pasabidea libre egotea zaintzeko.

Onartua.

Berriobeitiko Udalari

17/768 espedientea

Interesdunari ibilgailua horretarako ez zen inguru batean aparkatzeagatik jarritako zigorrari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio baliogabetzeko kexaren egileari ezarritako zigorra, ezin baita frogatutzat jo arau-hauste hori egin zuenik.

Erantzunaren zain.

Cortesko Udalari

17/379 espedientea

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartel bat ez berritzeari dagokionez:

- Kexaren egilearen semeak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela dauka, eta udalari gogorarazi zaio txartel horren balioari eusteko, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela eskuratzeko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituen abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatuari jarraikiz.

Ez da onartu.

Uharteko Udalari

16/292 espedientea

Trafiko-zigor bat ezartzeari eta berraztertze-errekurtso bat ez ebazteari dagokienez:

- Udalari gogorarazi zaio bere legezko betebeharra dela herritarrek aurkezten dizkioten errekurtsioak ebaztea, are kexaren egileak, udal horrek ezarri zion trafiko-zigorraren aurka, jarri zuen berraztertze-errekurtsoa ere.
- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela zehapen-ebazpenak arrazoitzera, eta interesdunek planteatutako kontu

guztiak ebaztera, horretarako alegazio eta froga-eskaera guztiak berariaz eta espezifikoki aztertuta; gainera, ezarritako zigorra ondorioz gabe uzteko gomendatu zaio.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/738 espedientea

Trafikoko arau-hauste batengatik gidabaimeneko puntuak kentzeari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio azter dezala ondorioz gabe uztea kexaren arrazoia izan den zehapen-espedienteari lotuta gidabaimeneko puntuak kentzeko neurria, kontuan hartuta arau-hausteak desgaitasuna duen pertsona baten gaixotasunaren agerraldi baten ondorio izan zirela, eta ez zela arriskurik egon beste inorentzat.

Ez da onartu.

17/67/SN espedientea

Iruñeko Udalak egoiliarrek aparkatzeko eskatu zaion txartel bat ukatzeari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio aldatzeko egoiliarrei aparkatzeko txartelak ematea arautzen duen ordenantza, honako muga hau kendu edo moldatzeko: "... inoiz ere ez da emango pertsonako egoiliar-txartel bat baino gehiago, pertsona horren izenean dauden ibilgailuen kopurua edozein izanda ere".
- Udalari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak berariaz ebazteko legezko betebeharra duela.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Udalari iradoki zaio kexaren xede den kasuan kexaren egilearen semearentzat eskatutako txartela emateko, ez delako ikusten hura ukatzeko funtsezko arrazoirik dagoenik, aipatzen den renting-kontratuaren aitaren izenean egon arren, eta aitak aparkatzeko beste txartel bat izan arren bere titulartasuneko beste ibilgailu baterako.

Onartua.

17/267 espedientea

Kexaren egileak zeudenik ez zekien zigor batzuen ondorioz Iruñeko Udalak egindako bahiturari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio kexaren xede den bahituran neurri egokiak hartzeko bete dadin Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 122.3. artikuluan, bermatutako prestazio sozialak enbargaekin deklaritzen dituen otsailaren 25eko 6/2013 Foru Legeko artikulua bakarrean eta Prozedura Zibilaren Legeko 607. artikuluan xedatua, eragindako familia-unitatearentzat iraupeneko diru-sarrerak babesteko.

Onartua.

17/318 espedientea

Iruñeko Udalak ezarritako zigorrei eta udalaren garabi-zerbitzuak derrigorrezko aseguru ez izateagatik bi ibilgailu eramateari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio ondorioz gabe uzteko kexaren xede diren ibilgailuak bide publikotik kentzeko ekintza, eta interesdunari horregatik ordaindutakoa itzultzeko, hartutako neurria gehiegizkoa dela iritzita.

Ez da onartu.

17/416 eta 17/430 espedientea

Araututako inguruan tiketik gabe aparkatzeagatik Iruñeko Udalaren garabi-zerbitzuak interesdunaren ibilgailua eramateari eta ordaindutako zenbatekoari (100 euro, tasa moduan garabi-zerbitzuagatik; eta 60 euro, laster ordaintzeagatik % 50eko deskontua eginda, isun moduan) dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio ondorioz gabe uzteko udalaren garabi-zerbitzuak ibilgailua eramana izana, hau da, kexan aipatutako ekintza, eta interesdunari itzultzeko ordaindutako tasaren zenbatekoa.

Ez da onartu.

17/590 espedientea

Araututako eremuan tiketik gabe aparkatzeagatik Iruñeko Udalaren garabi-zerbitzuak interesdunaren ibilgailua eramateari eta horren ondorioei dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio ondorioz gabe uzteko udalaren garabi-zerbitzuak ibilgailua eramana izana, hau da, kexan aipatutako ekintza, eta interesdunari itzultzeko dagokion zenbatekoa.

Ez da onartu.

Tuterako Udalari

17/452 espedientea

Udalerritik ibilgailuz ezin atera ahal izateari dagokionez, aurrez seinaleztatu gabeko herri-lasterketa baten ondorioz bide publikoa etenda zegoelako:

- Udalari iradoki zaio trafikoa aldi batez eten bada herritarrei hori jakinarazteko neurriak areagotzeko, kexan aipatutakoa.

ren antzeko ekitaldiei begira, bai eta kexan deskribatutakoaren moduko egoerak gerta ez daitezen ahalegintzeko ere.

Ez da onartu.

6.2.25. Gardentasuna.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari

16/694 espedientea

INTIA SAK "Nafarroako eremu ureztagarriko XXIV. sektoreko partikularren lursailetan barne-banaketa egiteko sare-proiektua" gauzatzeko lanak kontratzeari buruz informazio publikoa izateko eskaera bati ez erantzuteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio erantzuteko kexaren egileak informazio publikoa izateko egindako eskaerari, eta informazio hori emateko, interesdunari horren jakinarazpena lehenbailehen eginda.

Onartua.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari eta Garapen Ekonomikorako Departamentuari

17/172 espedientea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa bati emandako diru-laguntzei, laguntzei edo emaitzei buruz eskatutako informazioa ez emateari dagokionez:

- Departamentuei gomendatu zaie behar bezala erantzuteko, dauzkaten eskumenen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioak enpresa bati emandako diru-laguntzei, laguntzei edo emaitzei buruz informazio publikoa izateko eskaerari, eta horretarako neurriak hartzeko, informazio hori atzerapen gehiagorik gabe eman dadin, legearen arabera bidezkoa den norainokoarekin.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

AO 17/8/SN

Nafarroako Polizien Foru Legearen aurreproiektuari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen sorrera kentzeko Nafarroako Polizien Foru Legearen aurreproiektutik, funtzio-bikoiztasuna gertatzen delako Nafarroako Arartekoarekin, kanpoko gainbegiratze-mekanismo moduan.

Ez da onartu.

Lizoain-Arriasgoitiko Udalari

17/627 espedientea

Kexaren egileak aurkeztutako errekurtsoko bat aintzat ez hartzea eragin zuen txosten juridiko batera sarbidea izateko eskaerari ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari gogorazi zaio legezko betebeharra duela ebazten dituenak arrazoitzea, dela ebazpenen testuari hartzen dituen erabakien oinarrian dauden txosten juridikoen edukia gehituta, dela txosten juridiko horiek erantsita ebazpenen berri

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

emateko interesdunei egindako jakinarazpenetan.

Onartua.

Los Arcosko Udala

17/465 espedientea

Udal-talde batek 2017ko aurrekontua egiteko gastuaren erregelaren kalkuluari buruz eskatu zuen txosten bat ez emateari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio 2017ko aurrekontua egiteko gastuaren erregelaren kalkuluari buruz eskatu zuen txostena emateko kearen egileari, 2017ko maiatzaren 2ko idazki bidez eskatu baitzuen Los Arcosko udal-talde independentearen izenean (ILA).

Ez da onartu.

Zangozako Udalari

17/1 espedientea

Zangozako Udalean egoitza elektronikorik ez izateari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio egoitza elektronikoa ezarpena azkartzeko, zerbitzu berri horrek abantailak baititu herritarrentzat.

Onartua.

Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateari

17/6 espedientea

Mankomunitate horretan izapideak egin ahal izateko egoitza elektronikoa zerbitzura sarbiderik ez izateari dagokionez:

- Mankomunitateari iradoki zaio egoitza elektronikoa ezarpena azkartzeko, zerbitzu berri horrek abantailak baititu herritarrentzat.

Onartua.

6.2.26. Hirigintza.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari

17/336 espedientea

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Iruritako baserri bat bi familiarentzako etxebizitza izan dadin eraberritzeko baimena ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio baserria eraberritzea baimentzeko, aurrez etxebizitza gisa erabiltzen baitzen, edo, bestela, baimena emateko kearen egileari, beste etxebizitza bat eraiki dezan baserri hori dagoen lursailean, aplikagarriak diren zehaztapenekin.

Ez da onartu.

Alloko Udalari

16/741 espedientea

Alloko Udalak eta kearen egilearen senide batek 2009an izenpetutako hirigintza-hitzarmena ez betetzeari dagokionez:

- Udalari gogorazi zaio legezko betebeharra duela fede oneko eta bidezko konfiantzako printzipioak betetzea herritarrekin dituen harremanetan; are gehiago kontua bada herritarrekin hitzarmen bidez bere gain hartutako betebeharrak betetzea.

- Udalari gomendatu zaio betetzeko 2009ko apirilaren 24an izenpetutako hitzarmenean bere gain hartutako konpromisoak, eta kexaren egileari emateko emango zizkiola hitzeman zuen 2.000 euroak eta bi lursailak. Lursailak ezin badira eman, Alloko Udalaren legezko betebeharra da kexaren egilea konpentsatzea, lursail horien balioa dirutan emanda, hau da, Udalaren beraren kalkuluaren arabera, 4.379,10 euro, eta kalte-ordain egokia eginda.

Ez da onartu.

Altsasuko Udalari

17/13 espedientea

Altsasuko Udalak herri horretako Udal Planeko 5. sektorean (Lezalde inguruan) dauden lursailen jabeei egindako proposamenari dagokionez, hau da, lankidetzako jarduketa publikoko sistemaren ordezkopentsaziokoa ezartzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio egungo lankidetzeta-sistemari eusteko, bai eta, egiaztatzen badu jabe gehien artean gogo dagoela eta berorien bitarteko ekonomikoak eta finantzarioak aski direla Plan Partzialaren barruan ekitatez banatzeko, urbanizatzeko eta eraikitze beren legezko hirigintza-betebeharrei aurre egiteko, orduan soilik ezartzeko ere konpentsazioko sistema, jarduketa-sistemaren ordezkopentsazioko sistema publiko bat hautatzea, edo, bestela, eragile urbanizatzailearena, egokiagotzat jotzen badira plana azkarrago gauzatzeko, udalak kontrolatu eta zuzenduta.

Onartua.

Arroizko Udalari

16/688 espedientea

Aldameneko lursailatik datorren euri-urak bere etxebizitzan eragiten dituen kalteei dagokienez:

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela zaintzea behar diren lanak egiten direla kexan aipatzen den lursailean, segurtasun-baldintzak, apaintasun publikoko baldintzak eta osasungarritasun-baldintzak gordetzeko.

Onartua.

Berriozarko Udalari

17/488 espedientea

Etxebizitzako barne-patioan tximinia jartzeari buruz informazioa jasotzeko eskaerari ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela kasuan kasuko epearen barruan ebaztera herritarrek egiten dizkioten eskaerak, eta, horrenbestez, modu egokian erantzun behar diola kexaren egileak egindako eskaerari.

Onartua.

Biurrun-Olkozko Udalari

16/230 espedientea

Olkozko UE 3 unitatea urbanizatzeko obrei dagokienez, Udalak jabetza pribatuko lursail bat inbaiditu duelako, eta jabearen pentsioa bahitu, obra horiei zegozkien kuotak ez ordaintzeagatik:

- Udalari gomendatu zaio interesdunarengana jotzeko banku-kontuak bahitu baino

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

lehen, eta esateko soldata, pentsioa edo parekoa jasotzen duen kontua egiaztatze-ko aukera duela, bilketa-jarduketak Prozedura Zibilaren Legeko 607. artikuluan eta bilketa publikoaren alorrean lege horrekin bat datorren araudian xedatutako mugetara egokitzeko.

- Udalari iradoki zaio, kasuko zirkunstantziak kontuan hartu eta neurtuta, interesdunari emateko zorra zatitan eta bi aldeentzako arrazoizko moduan ordaintzeko aukera.

Ez da onartu.

17/512 espedientea

Dokumentazio-eskaera bati ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharrak duela berariaz ebaztea herritarrek aurkezten dituzten eskaerak, eta gomendatu zaio lehenbailehen emateko, jada egin ez badu, kexaren egileak eskatutako informazioa.

Erantzunaren zain.

Zizur zendeako Udalari

16/713 espedientea

Baternainen dauden lur batzuen erabilera aldatzeko proposamenari ezetza emateari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio hasieran onartzeko kexaren egileak aurkeztutako plan berezia, aztertze-ko eta, hala egokituz gero, ikusteko sartu behar diren dauden interesak uztartzeko eta indarreko hiri-

gintza-araudia betetzeko behar diren zehaztapenak, baztertu gabe behar direnak konpontzeko edo argitzeko eskatzea, bidezko izanez gero.

Ez da onartu.

Ziritzako Udalari

16/537 espedientea

Ziritzako Udalak egitate-bidez egindako jarduketa bati dagokionez, kexaren egilearen titulartasuneko finka baten zati bat okupatu baitzuen, legez ezarritako administrazio-prozedura izapidetu gabe:

- Udalari gomendatu zaio aztertze-ko kexaren egileak salatutako gertaerak, eta, hala egokituz gero, onartzeko interesdunak eskatutakoa, hau da, aipatu finkatik kentzea jarritako elementu guztiak, baldin eta hori fisikoki egingarria bada, edo, ez bada, kalte-ordaina emateko, zeukan eskubidea kentzeagatik behar bezala konpentsatuko duen zenbateko batekin, okupazioa gertatu zenetik iragandako denboragatik bidezkoak diren legezko interesekin batera. Eta hori finka azken urteetan okupatuta egotearen ondorioz izandako kalte eta galerengatik kalte-ordain egokia onartzea gorabehera.

Ez da onartu.

Corellako Udalari

17/127 espedientea

Corellako etxebizitza-erakin batek daukan egoera arriskutsuari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio behar bezain eraginkor eta azkar jarduteko kexan aipatzen den higiezinari eragiten dioten egitu-

razko arazoen konponketan, eta zaintzeko egiten direla higiezinaren egonkortasuna ziurtatzeko behar diren obrak, haien gauzatze subsidiariora jota ere behar izanez gero.

Ez da onartu.

Lizarrako Udalari

17/21 espedientea

Interesdunaren amak bere etxebizitzaren barruan eskailerak igotzeko aulki bat jartzeko Lizarrako Udalak proiektu bat egiteko eskatzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio ez eskatzeko proiektu bat idazteko interesdunak eskailerak igotzeko aulki bat jar dezan bere etxebizitzaren barruan, dauzkan mugikortasun-mugak gainditzeko.

Onartua.

17/218 espedientea

Herritar batek bere jabetzako lursailetik gertu egiten ari diren obrei buruz egindako eskaerari ez erantzuteari dagokionez:

- Lizarrako Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela kasuan kasuko epearen barruan ebaztera herritarrek egiten dizkieten eskaerak, eta, horrenbestez, modu egokian erantzun behar diola kexaren egileak egindako eskaerari.

Onartua.

17/367 espedientea

Aldameneko lursailetatik iragaten den ura bizi den eraikinaren aurka egitearen ondorioz eraikin ho-

rretan dauden arrailak direla eta neurririk ez hartzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio sakon aztertzekeo interesdunak salatutako arazoak, eta egiaztatzen badu kexan aipatzen den eraikinak dituen kalteak euri-urak aldameneko lursailetatik jaistearen ondorio direla, administratiboki eskatzeko lursail horien jabeei behar diren obrak egin ditzatela urak bideratzeko, kexaren egilea bizi den eraikinean bat egin dezaten eragotzita.

Ez da onartu.

Tafallako Udalari

17/435 espedientea

Herritarrek Tafallako Udal Plan Orokorreko Lurralde Okupatzeko Estrategia eta Eredua egiten parte hartzeko faseari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio zaintzeko gizar-teak Udal Plan Orokorreko Lurralde Okupatzeko Estrategia eta Eredua egiten parte hartzeko prozesua modu egokian garatzen dela, hau da, herritarren benetako parte-hartzea ziurtatzeko moduan, eta, horretarako, aurkezten diren proposamen garrantzitsuak aztertu eta eztabaidatzeko, kexaren egileak aipatutakoa barne, hau da, Severino Fernandez etorbidea oinezkoentzat prestatzekoa.

Onartua.

Orkoiengo Udalari

17/654 espedientea

Interesdunei beren etxebizitzako zenbait elementuren hirigintza-ikuskapen batean, 1. D-ko bizilagun-

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

nei egindako ikuskapenaren aldean, bestelako tratu emateari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio kexaren egileei onartzeko ikus dezaten bizi diren eraikinetako 1. D etxebizitzako obren legeztatze espedientea, eta horretarako, behar izanez gero, egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko, aipatu espedientean egon daitezkeen datu pertsonalen babesa bermatuta egon dadin.
- Udalari gomendatu zaio ikuskatzeko ahalmena erabiltzeko, bai eta, bidezkoa izanez gero, hirigintza-zaharberrikuntzarako ahalmena erabiltzeko ere, kexaren egileak salatutako guztiei dagokienez indarrean dagoen lege-araudia aplikatuta.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/354 espediente

Etxebizitzatik hurbil dagoen gune baterako irisgarritasunik eza dela-eta etengabe dauden arazoei dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio neurriak hartzeko, kexan salatutako gune publikorako irisgarritasun-arazoa konpontzeko.

Ez da onartu.

16/546 espediente

Alde zaharreko Barne Erreforma eta Babeserako Plan Bereziko 89. artikulua eta artikulua horretan jasotako ordutegi-mugaketa, planak "ostalaritzatik gertuko jardueratzat" jotzen duenaz den bezainbatean, aldatzeari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio ondorioz gabe uzteko kexan aipatzen den ordutegi-mugaketa, alde zaharreko Barne Erreforma eta Babeserako Plan Bereziko 89. artikulua, merkataritza-ordutegiak arautzen dituen indarreko legedian xedatutakoaren aurkakoa delako.

Ez da onartu.

17/46 espediente

Bizi den eraikinaren fatxadaren hirigintza-araudia urratzen duen tximinia bat jartzeari dagokionez:

- Udalari, kontuan hartuta kexaren egileak salatutako arriskuak, zeinak bera bizi den eraikinaren fatxadatik pasatzen den tximinia bat jartzearen ondorio baitira, gomendatu zaio erne egoteko salatutako egoeraren aurrean, eta, behar izanez gero, eragindako herritarren eskubideak bermatzeko neurri egokiak hartzeko edo eskatzeko.

Ez da onartu.

17/66 espediente

Udal Plazan "Hotel Pompaelo" eraikitzeke egiten ari diren obren ondorioz negozioan izaten ari den kalteei dagokienez:

- Udalari gomendatu zaio zuzenean edo udaltzaingoaren bidez jotzeko kexaren xede diren obren sustatzailearengana, eta eskatzeko obra horiek egitean errespetatuz aldameneko negozioaren titularren legezko eskubideak eta interesak, inolako eragozpenik edo kalterik eragin gabe, ez baitu horiek jasateko betebeharrak juridikorik, bai eta zaintzeko ere obren ondorioak hirugarrenendako onargarriak diren tarteen barruan mantentzen direla.

Onartua.

17/178 espedientea

Etxebizitza batean goiko etxebizitzan udal-baime-nik gabe egindako eraberritze-obren ondorioz ger-tatutako ur-filtrazioei dagokienez:

- Udalari, kexaren egileak salatutako ar-a-zoaz den bezainbatean, gomendatu zaio bere ikuskapen-ahalmena erabiltzeko, eta, hala egokituz gero, hirigintza-legezko-tasuna berrezartzeko, salatutako arazoa ahal den neurrian konpontzen saiatzeko neurri egokiekin.

Onartua.

Urrotz-Hiriko Udalari

17/29 espedientea

Udalaren eta partikular baten artean izenpetutako hitzarmenaren kopia baten eskaerari dagokionez.

- Udalari gomendatu zaio eskaeran aipatzen den eta toki-erakundeak izenpetu duen hitzarmenaren kopia bat egin eta emateko kexaren egileari.

Onartua.

17/30 espedientea

Herriko lursail batekin egin nahi denari buruz egindako eskaera bati ez erantzuteari dagokionez:

- Udalari gogorazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkezten dizkioten eskaerak ebaztera, interesdunek egindakoa barne.

Onartua.

6.2.27. Etxebizitza.

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/455 espedientea

NASUVINSA sozietate publikoak bere jabetzakoa zen eta kexaren egilea interesatuta zegoen etxebizitza bat saltzeko jarraitutako prozesuari dagokienez:

- Departamentuari gomendatu zaio sakon ikertzeko kexaren egileak salatutako kontuak, argi eta bermatuta gera dadin legezko interesak kontuan hartuta saldu zituela higiezin agentzia batek NASUVINSA sozietate publikoaren bi etxebizitzak.

Ez da onartu.

16/643 espedientea

Bere familiaren egungo beharrei erantzuteko babes ofizialeko etxebizitza egokiago bat lortzeko zailtasunei dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio kexaren xede den kasu zehatza aztertzeko, gabezia ekonomiko handiak dituen familia ugari batek, kexaren egileen kasukoak, adibidez, etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko eskubidearekin zerikusia duten esku-hartze administratiborako aukera guztiak azter daitezzen.

Ez da onartu.

16/660 espedientea

Kexaren egileak gaur egun bizi den etxebizitza baino handiagoa den etxebizitza bat izateko beharri dagokionez:

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari iradoki zaio kexaren xede den kasu zehatza aztertzeke, gabezia ekonomiko handiak dituen familia ugari batek, kexaren egilearen kasukoak, adibidez, etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko eskubidearekin zerikusia duten esku-hartze administratiborako aukera guztiak azter daitezten.

Ez da onartu.

16/700 espedientea

Kexaren egileak errentan hartutako etxebizitzako akatsei eta etxebizitza babestu bat errentan izateko dauzkan arazoei dagokienez:

- Departamentuari honako hauek aztertzeke iradoki zaio: a) Etxebizitza Sozialen Foru Funtseko etxebizitza bat esleitzea interesdunari; b) bizi den etxebizitzaren jabea den finantza-erakundearekin negoziatzea etxe hori Etxebizitza Sozialen Foru Funtsera adskribatzea, aipatu pertsona hori errentari moduan mantenduta, eta higiezinan dauden akatsak konponduta.

Ez da onartu.

16/714 espedientea

Kexaren egileari bizi den etxebizitza babestuaren errentamenduagatik onartutako diru-laguntzari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio kexaren egileari bizi den etxebizitza babestuaren errentamenduaren errenta-prezioaren % 75eko diru-laguntza bat onartzeko, kasu zehatz honetan dauden zirkunstantzien ondorioz.

Ez da onartu.

16/715 espedientea

Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko arazoei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexan aipatzen den kasua sakon aztertzeke oinarriko gizarte-zerbitzuaren laguntzarekin, gizarte-zerbitzuen sistemaren (adiera zabaLEAN) laguntzaren bat aktibatzeke, eta, horrenbestez, eragindako familia-unitatearen beharrik larrienei erantzun ahal izateke, bereziki etxebizitza duina eskuratzeari dagokionez, unitatea desgaitasuna duen pertsona batek eta adingabe batek osatzen baitute.

Ez da onartu.

17/37 espedientea

Tuteran babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko dauden arazoei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio gestioak azkartzeko eta behar diren neurriak hartzeke, handiagoa izan dadin Tuterako udalerrian eta eskualdean errentamendu-erregimeneko bizitegi-parke publikoan sartuta dauden etxebizitzaren kopurua.

Onartua.

17/45 espedientea

Kexaren egilea bizi izan den babes ofizialeko (erregimen berezia) etxebizitzatik kaleratzeari dagokionez:

- Departamentuari, kexaren egilea NASU-VINSAREN titulartasuneko erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitza batetik kaleratu baitute, iradoki zaio aztertzeke eta kexaren egileari eskaintzeko beste au-

kera bat, etxebizitza izateko eskubidea bermatuta izan dezan, eta gizartetik baztertuta gera ez dadin.

Ez da onartu.

17/81 espedientea

Euria edo elurra egiten duenean etxebizitza urez betetzea eragiten duten eraikuntza-akats batzuen ondorioz etxean dauzkan arazoei dagokienez:

- Departamentuari gomendatu zaio ahalik gehiena azkartzeko kearen egilearen etxebizitzan dauden eraikuntza-akatsak osorik konpontzeko behar diren jarduketak.

Onartua.

17/111 espedientea

Interesdunaren jabetzako etxebizitza babestu bat ustez husteagatik abian jarritako zehapen-espedienteari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi zaio jarritako zigorra balio gabetzeko, ez dagoelako behar adina zantzurik esateko interesdunaren jabetzako etxebizitza babestua hutsik dagoela.

Ez da onartu.

17/156 espedientea

Dagokion diru-laguntzarekin etxebizitza alokatu bat izateko beharrari dagokionez, ezin duelako jarraitu gaur egun alokatuta daukan etxebizitzaren errenta ordaintzen, eta etxebizitza horren jabeak ohartarazi baitio kaleratu behar duela:

- Departamentuari iradoki zaio gestioak azkartzeko eta behar diren neurriak hart-

zeko, handiagoa izan dadin Iruñerrian errentamendu-erregimeneko bizitegi-parke publikoan sartuta dauden etxebizitzaren kopurua.

- Departamentuari iradoki zaio aurkeztutako kasu zehatza ikertzeko, eta aztertzeko zer aukera dauden esku-hartze administratiboa izateko etxebizitza duina eta egokia izan dezan genero-indarkeriaren biktima den eta, gainera, familia ugari-ko titulua **onartua** duen pertsona batek. Horri dagokionez neurririk hartzen ez den bitartean, familian eta gizartean txertatzea errazteko laguntza bat emateko iradokitzen du erakunde honek.

Ez da onartu.

17/202 espedientea

Eskubide Sozialen Departamentuak urteko diru-sarrereri buruz egin duen kalkuluari dagokionez, berekin ekarri baitu bizi den etxebizitza babestuaren alokairua ordaintzeko jasotzen ari zen diru-laguntza gutxitzea:

- Departamentuari, kontuan hartuta kasuaren zirkunstantzia zehatzak, bai eta interesdunaren ahalmen ekonomikoa, oro har balioztatuta, ez dela aldatu ere, iradoki zaio onartzeko azken urteetan bizi izan den etxebizitza babestuaren alokairuagatik ordaintzen ari zitzaion errenta-prezioaren % 50eko diru-laguntza.

Ez da onartu.

17/382 espedientea

Kexaren egileak eta adingabeko alabak etxebizitza alokatu bat izateko duten beharrari dagokionez, gaur egun bizi diren etxearen jabeak etxebizitzaren alokairu-kontratua deuseztatzea erabaki baitu.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

- Departamentuari iradoki zaio gestioak azkartzeko eta behar diren neurriak hartzeko, handiagoa izan dadin Iruñerrian errentamendu-erregimeneko bizitegi-parke publikoan sartuta dauden etxebizitzak kopurua.
- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileari orientabidea eman diezaiola, etxebizitza babestua eskuratzeko arazo zehatza konpontzeko, bai Etxebizitza Sozialen Foru Funtzaren bidez, bai egoki iritzitako beste edozein bide eraginkor baliatuta.

Onartua.

17/420 espedientea

Kexaren egilearen familiaren egungo beharrei erantzuteko etxebizitza handiagoa izateko zailtasunei dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio desegokitzat jotzeko kexaren egilearen jabetzako etxebizitza, eta, horrenbestez, beste etxebizitza babestu egoki bat emateko, Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 33. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

Onartua.

17/602 espedientea

Babes ofizialeko etxebizitza bat ez esleitzeari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio gestioak azkartzeko eta behar diren neurriak hartzeko, handiagoa izan dadin Iruñerrian errentamendu-erregimeneko bizitegi-parke publikoan sartuta dauden etxebizitzak kopurua.

Onartua.

17/622 espedientea

Sarriguren hutsik dagoen etxebizitza babestu bat alokairuan eta erosteko eskubidearekin eskuratzeko nahiari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio errentamendura bideratzeko kexan aipatzen den etxebizitza, erosteko aukerarekin zein aukerarik gabe, eta, alokairuko etxebizitzaren eskaria handia den bitartean, ahal den neurrian ez izateko hutsik bere jabetzako etxebizitzarik.

Ez da onartu.

17/700 espedientea

Interesduna bizi den eraikinean izaten ari den segurtasun-arazoei dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio behar diren neurriak hartzeko –besteak beste, arazoaren gizarite-jarraipena handitzea, atarietan bideokamerak jartzea eta abar– lehenbailehen arindu eta konpontzen saiatzeko kexaren egileak salatutako segurtasun-arazoak eta bizilagunen arteko elkarbizitza-arazoak.

Onartua.

17/728 espedientea

Interesdunari bizi den etxebizitza babestuaren errentamenduagatik onartutako diru-laguntzari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio interesdunari bizi den etxebizitza babestuaren errentamenduaren errenta-prezioaren % 75eko diru-laguntza bat onartzeko, kasu zehatz honetan dauden zirkunstantzien ondorioz.

Ez da onartu.

Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Iruñeko Udalari

17/148 espedientea

Zeuden lekutik aterarazi ondoren eraikinean birko-
katu zituzten pertsona batzuek eraginda bere etxe-
bizitzan jasaten ari den eragozpenei dagokienez:

- Udalari eta Departamentuari iradoki zaie zaintzeko kexaren egileak salatzen dituen eragozpenak ez jasateko daukan eskubi-
dea.

Onartua.

17/170 espedientea

Kaleratzear egon arren etxebizitza bat ez esleit-
zeari dagokionez:

- Departamentuari iradoki zaio aztertzeko kexaren egileari esleitzea Etxebizitza So-
zialen Foru Funtseko etxebizitza bat.
- Udalari iradoki zaio kexaren egileari la-
guntzen jarraitzeko, eta gizarte-bazterketa
eragozteko egoki dakizkiokeen prestazio
guztiak emateko.

Onartua.

17/556 espedientea

Bere familia pilatuta bizi arren, dauzkan beharretarako
egokia den etxebizitza bat ez esleitzeari dagokionez:

- Departamentuari eta Udalari iradoki zaie beren jarduketak eta baliabideak koordi-
natzeko, eta kasu zehatza aztertzeko, ga-
bezia ekonomiko handiak dituen zortzi
kideko familia ugari batek, kexaren egilea-
ren kasukoak, adibidez, etxebizitza duina
eta egokia eskuratzeari dagokionez esku-

hartze administratiborako izan daitezkeen
aukera guztiak azter daitezzen.

Onartua.

AO 17/5

Etxebizitza beste pertsona eta familia batzuekin,
are ezezagunekin ere, partekatu eta geletan (berriz
alokatuta normalean) bizitzera behartuta dauden
pertsonek eta familien arazoari dagokionez:

a) Departamentuari eta Udalari honako hauek ira- doki zaizkio:

- Areagotzeko egiten diren ahaleginak, eta
sortutako arazoa arintzeko behar diren
beste neurri guztiak hartzeko, dela erren-
tamenduko bizitegi-parke publikoa handi-
tuta, dela beste irtenbide batzuk
aukeratuta, hala nola Nafarroako Etxebi-
zitarako Eskubideari buruzko maiatzaren
10eko 10/2010 Foru Legeko 7.6 artiku-
luan jasotako bitarteko ostatatze motak.
- Azkar ebazteko laguntza sozialak –errenta
bermatua eta beste– emateko prozedu-
rak, Iruñeko Alde Zaharreko Hipotekek
Eragindakoen Plataformak deskribatutako
egoera eta gisakoak gerta ez daitezzen.
- Ahalik gehiena laguntzeko ardurapean
adingabeak dituen edozein familia-unita-
teri, horretarako, beharrezkoa izatera, le-
hentasunezko bide bat prestatuta,
bizitzera behartuta dauden gelatik joan
ahal izateko.

b) Departamentuari iradoki zaio azterketa sakona egiteko partekatutako etxebizitza batean gela bat partekatzera behartuta dauden pertsonen eta fa- milia-unitateen buruz.

Onartua.

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Iruñeko Udalari

16/663 espedientea

Kexaren egileak alokatutako etxebizitzan akatsak egoteari dagokionez, etxebizitza Iruñeko Udalarena baita:

- Udalari gomendatu zaio kexaren egileak alokatutako etxebizitza ikuskatzeko teknikari adituekin, eta, aipatzen diren elementuen egoera errealaren arabera, behar diren konponketa-neurriak hartzeko, etxebizitza horren kontserbazioa eta funtzionaltasuna egokia izan dadin.

Onartua.

ESP. 17/213

Iruñeko Udala tutoretzapeko apartamentu bat esleitzen berandutu izanari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio azkartzeko gestioak eta bizitegi-parke publikoko tutoretzapeko apartamentuen kopurua handitzeko behar diren neurrien hartzea, bitarteko horren xede diren adinekoen beharrak betetzeko.
- Udalari iradoki zaio kexan aipatutako kasu zehatza aztertzeko, interesdunak tutoretzapeko apartamentu bat eskuratzeari dagokionez esku-hartze administratiboa egiteko aukera guztiak azter daitezen, deskribatu duen egoera larri-larrian baitago.

Atzera egin du.

17/742/SN espedientea

Interesdunak bizi den tutoretzapeko apartamentuaren ondorioz ordaindu beharreko kopurua handitzeari dagokionez:

- Udalari iradoki zaio kexan aipatzen den zerbitzuagatik (tutoretzapeko apartamentuak) ordaindu beharreko prezio publikoaren araudia berrikustea aztertzeko, zertarako eta, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuta eta interesdunen diru-sarrerek edo bitartekoek zer bilakaera izan duten ikusita, gerta litezkeen neurriz gaineko igoerak mugatzeko.

Erantzunaren zain.

6.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NORAINO ONARTU DITUZTEN EBAZPENAK.

Hurrengo taulan adierazten da zenbatekoa izan den Nafarroako Arartekoaren ebazpenen (beren gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenekin) hartzaile izandako administrazio publiko bakoitzaren onarpen-ehunekoa, kontuan hartuta bai 2017ko ebazpenak, bai 2016ko abenduaren 31n erantzun gabe geratu ziren aurreko urteetakoak.

Onarpen-maila hori kalkulatzeko, kexa-espedienteetan emandako ebazpenak bezala ofiziozko jarduketetan eta hobetzeko proposamenetan emandakoak ere kontuan hartzen dira.

Administrazioa	Ebazpenen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Onartuen ehunekoa
Berriozarko Udala	3	3	0	% 100,00
Urrotz-Hiriko Udala	3	3	0	% 100,00
Ablitasko Udala	2	2	0	% 100,00
Antsoaingo Udala	2	2	0	% 100,00
Atetzko Udala	2	2	0	% 100,00
Beireko Udala	2	2	0	% 100,00
Mendaviako Udala	2	2	0	% 100,00
Altsasuko Udala	1	1	0	% 100,00
Arronizko Udala	1	1	0	% 100,00
Bakaikuko Udala	1	1	0	% 100,00
Barañaingo Udala	1	1	0	% 100,00
Basaburuko Udala	1	1	0	% 100,00
Baztango Udala	1	1	0	% 100,00
Buñuelgo Udala	1	1	0	% 100,00
Cabanillasko Udala	1	1	0	% 100,00
Castejongo Udala	1	1	0	% 100,00
Desojoko Udala	1	1	0	% 100,00
Esteribarko Udala	1	1	0	% 100,00
Gesalatzko Udala	1	1	0	% 100,00
Lapoblación-Meanoko Udala	1	1	0	% 100,00
Larragako Udala	1	1	0	% 100,00
Lizoain-Arriasgoitiko Udala	1	1	0	% 100,00
Irunberriko Udala	1	1	0	% 100,00
San Adriango Udala	1	1	0	% 100,00
Sorladako Udala	1	1	0	% 100,00
Tafallako Udala	1	1	0	% 100,00
Torres del Río ko Udala	1	1	0	% 100,00
Uharte-Arakilgo Udala	1	1	0	% 100,00
Ultzamako Udala	1	1	0	% 100,00
Bidankozeko Udala	1	1	0	% 100,00
Atarrabiako Udala	1	1	0	% 100,00
Zizur Nagusiko Udala	1	1	0	% 100,00
Zuñigako Udala	1	1	0	% 100,00
Aberin Barrutiko Udala	1	1	0	% 100,00
Beratsaingo Kontzejua	1	1	0	% 100,00
Figarolgo Kontzejua	1	1	0	% 100,00
Gelbentzuko Kontzejua	1	1	0	% 100,00

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Mairagako Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Noaingo Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Eguesibarko Udala	7	6	1	% 85,71
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	8	6	2	% 75,00
Lizarrako Udala	7	5	2	% 71,43
Iruñerriko Mankomunitatea	7	5	2	% 71,43
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua	22	15	7	% 68,18
Burlatako Udala	6	4	2	% 66,67
Cascanteko Udala	3	2	1	% 66,67
Iruñeko Udala	55	30	25	% 54,55
Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	38	19	19	% 50,00
Garapen Ekonomikorako Departamentua	6	3	3	% 50,00
Andosillako Udala	2	1	1	% 50,00
Agoizko Udala	2	1	1	% 50,00
Dicastilloko Udala	2	1	1	% 50,00
Etxarri Aranatzko Udala	2	1	1	% 50,00
Orkoiengo Udala	2	1	1	% 50,00
Zangozako Udala	2	1	1	% 50,00
Eskubide Sozialetako Departamentua	64	31	33	% 48,44
Osasun Departamentua	44	21	23	% 47,73
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	20	8	12	% 40,00
Hezkuntza Departamentua	77	28	49	% 36,36
Uharteko Udala	4	1	3	% 25,00
Erriberriko Udala	4	1	3	% 25,00
Abartzuzako Udala	1	0	1	% 0,00
Alloko Udala	1	0	1	% 0,00
Artajonako Udala	1	0	1	% 0,00
Berriobeitiko Udala	1	0	1	% 0,00
Bertizaranako Udala	1	0	1	% 0,00
Biurrun-Olkozko Udala	1	0	1	% 0,00
Ziritzako Udala	1	0	1	% 0,00
Eslavako Udala	1	0	1	% 0,00
Imozko Udala	1	0	1	% 0,00
Longidako Udala	1	0	1	% 0,00
Los Arcosko Udala	1	0	1	% 0,00

Romanzadoko Udala	1	0	1	% 0,00
Uxueko Udala	1	0	1	% 0,00
Iruñeko Abokatuen Elkargoa	1	0	1	% 0,00
Eugiko Kontzejua	1	0	1	% 0,00
Radako Kontzejua	1	0	1	% 0,00
Nafarroako Futbol Federazioa	1	0	1	% 0,00
Moncayoko Ur Mankomunitatea	1	0	1	% 0,00
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	1	0	1	% 0,00
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	2	0	2	% 0,00
Corellako Udala	2	0	2	% 0,00
Cortesko Udala	2	0	2	% 0,00
Zizurko Zendeako Udala	2	0	2	% 0,00
Noaingo Udala (Elortzibar)	2	0	2	% 0,00
Aranguren Ibarreko Udala	2	0	2	% 0,00
Montejurrako Mankomunitatea	2	0	2	% 0,00
Tudeako Udala	4	0	4	% 0,00
Guztira	471	241	230	51,17%

6.4. EBAZPENEN ONARPEN-MAILA ARLOZ ARLO.

Hurrengo taulan, Nafarroako Arartekoaren ebazpenen onarpen-ehunekoa adierazten da, arloz arlo banatuta. Kalkulua egiteko, administrazio publikoek kexa-espedienteetan bezala ofiziozko jarduketetan eta hobetzeko proposamenetan ere 2017an erantzundako ebazpenak kontuan hartzen dira.

Administrazioa	Ebazpenen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Onartuen ehunekoa
Euskara	7	7	0	% 100,00
Energia	1	1	0	% 100,00
Administrazio publikoen ondasunak	6	5	1	% 83,33
Toki-entitateen funtzionamendua	6	5	1	% 83,33
Herritarren segurtasuna	10	8	2	% 80,00
Datu pertsonalen babesa	4	3	1	% 75,00
Kultura	6	4	2	% 66,67
Herri-lanak	11	7	4	% 63,64
Gardentasuna	8	5	3	% 62,50

6. kapitulua

gonemdioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

Gizarte-ongizatea	50	31	19	% 62,00
Ingurumena	44	27	17	% 61,36
Kirola	5	3	2	% 60,00
Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	9	5	4	% 55,56
Osasuna	26	14	12	% 53,85
Funtzio publikoa	48	25	23	% 52,08
Hirigintza	31	16	15	% 51,61
Justizia	2	1	1	% 50,00
Oroimen historikoa	2	1	1	% 50,00
Zerbitzu publikoak	15	7	8	% 46,67
Etxebizitza	26	12	14	% 46,15
Ogasuna	30	12	18	% 40,00
Enplegu publikora heltzea	41	16	25	% 39,02
Hezkuntza	55	20	35	% 36,36
Zirkulazioa	18	4	14	% 22,22
Nekazaritza	5	1	4	% 20,00
Lana	5	1	4	% 20,00
GUZTIRA	471	241	230	51,17%

7. kapitulua

parlamentuak egindako txostenak eta agerraldiak

7.1. SARRERA.

2017an, Nafarroako Arartekoak **bi txosten** egin zituen:

- Bata Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrek eskatu zuen, eta argitu nahi zuen eremu mistotik ateratzeko edo eremu horretan sartzeko udal-ekimenek errespetatzen dituzten ala ez beren herritarren egungo hizkuntza-eskubideak, eta bat datozen ala ez Euskararen Foru Legearen eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuekin.
- Bestea Hezkuntza Departamentuak eskatua, irakasleen kidegoetara sartzeko hautaketa-prozesuetan zerrenda integratuaren sistema edo espezialitatearen eta hizkuntzaren araberako bereizketarik gabeko zerrenda bakarraren sistema erabiltzeari buruzkoa.

Era berean, Nafarroako Arartekoa **bost** aldiz agertu zen Nafarroako Parlamentuan.

7.2. TXOSTENAK.

7.2.1. Eremu mistotik ateratzeko edo eremu horretan sartzeko udal-ekimenek beren herritarren egungo hizkuntza-eskubideak errespetatzen dituzten eta Euskararen Foru Legearen eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuekin bat datozen argitzeko txostena.

Txosten hori Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrek erabakita eskatu zen, eta erabakia 2017ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran hartu zen, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioen eta Izquierda-Ezke-

rrako eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru-parlamentarien elkarteen ekimenez.

Txostena, erakundeak egin ondoren, Nafarroako Parlamentuari helarazi zitzaion 2017ko maiatzaren 23an.

Nafarroako Arartekoak ahoz azaldu zuen txostenaren edukia Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak 2017ko maiatzaren 31n egindako bilkuran.

Txostenaren testua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 2017ko uztailaren 5eko 100. zenbakian argitaratu zen.

Txostenaren edukia erakundearen web-orriko esteka honetan ere kontsulta daiteke: <http://www.defensornavarra.com/index.php/eu/Argitalpenak/Txosten-bereziak/2013-2017/2017/Txostena-Nafarroako-Parlamentuari-eremu-mistotik-ateratzeko-edo-hartan-sartzeko-udal-ekimenei-buruz>

7.2.2. Zerrenda integratuko edo zerrenda bakarreko sistemari buruzko txostena, espezialitatearen eta hizkuntzaren artean bereizketarik egin gabekoa, espezialitatea soilik kontuan hartzen duena, irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuei dagokienez.

2017ko urriaren 6an, Hezkuntzako kontseilariak honako hau zioen idazki bat bidali zuen erakunde honetara:

“Departamentua aztertzen ari da zer aukera dagoen zerrenda integratuko edo zerrenda bakarreko sistema ezartzeko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan. Sistema hori erabilita, espezialitatearen eta hizkuntzaren artean bereizketarik egin gabe, espezialitatea soilik

kontuan hartuta, eta oposizio- eta merituen barmazio-fasea amaitu eta fase horietako puntuazioak gehitu ondoren, deialdiak ezarritako euskara-maila daukaten izangaiak zerrenda horretan sar daitezke, kontuan hartuta, puntuazioen batura horrez gain, euskara-baldintza hori betetzea, praktiketako funtzionario izendatua izateko aukeratutako kopuruak deitutako plazen kopurua edo txikiagoa izan behar duelako eskakizuna errespetatuta.

Horregatik, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1.3 a) artikuluari dagokionez 16. d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zuzentzen duzun erakundeari eskatzen diot irizpen bat emateko planteatutako kontuaz; zehazki, Nafarroako Foru Komunitatean prozedura horiek txertatuta dauden arau-esparrua (batez ere 276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntzako kidegoetako espezialitate berrietan hastetik sartzeko, beste kidego batzuetatik sartzeko eta espezialitate berri horiek eskuratzeko erregelamendua onartzen duena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategineko 98. artikulua (horra eramaten baitu) batera interpretatzetik, eta kontuan hartuta, halaber, Nafarroako hizkuntza ofizial bati, euskarari, emandako tratamendua dela kontua (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 9. artikulua; 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15koa, Euskarari Buruzkoa; eta garatzeko gainerako araudia), bai eta oraindik oraingo erabaki judizialen argitan ere (95/2016 epaia, apirilaren 12koa, Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiarena), ondoriozta daitekeen zuzenbidearen arabera dela”.

Erakundeak txostena egin ondoren, Hezkuntzako kontseilariari bidali zitzaion 2017ko urriaren 19an.

Txostenaren edukia erakundearen web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

<http://www.defensornavarra.com/index.php/es/Informes-y-otras-publicaciones/Informes-especiales/2013-2017/2017/Informe-Especial-lista-unica-de-personal-docente>

7.3. AGERRALDIAK.

7.3.1. Parte-hartzea Nafarroako Foru Berria berrikusteko eta eguneratzeko Nafarroako Parlamentuko batzorde txostengilean.

Nafarroako Foru Berria berrikusteko eta eguneratzeko Nafarroako Parlamentuko batzorde txostengileak, beste zenbait pertsona eta erakundez gain, Nafarroako Arartekoa deitu zuen, agerraldia egin zezan Foru Berriko I. liburua (Familia) eta II.a (Oinordetzak) batera berrikusteari lotuta

Nafarroako Arartekoak 2017ko ekainaren 5ean agertu zen batzorde horretan, eta Foru Berriko legeetan aldaketa zehatzak egiteko iradoki zuen, aldaketen zergatia arrazoituta.

Proposatutako aldaketen testua batzordeari eman zitzaion, eta erakundearen web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

<http://www.defensornavarra.com/index.php/es/Informes-y-otras-publicaciones/Informes-especiales/2013-2017/2017/Aportaciones-del-Defensor-del-Pueblo-de-Navarra-a-la-ponencia-del-Parlamento-de-Navarra-para-la-revision-del-Fuero-Nuevo-en-los-libros-I-y-II>

7.3.2. Agerraldia Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean, hamabortz haur Tuterako Compañía de María ikastetxean sartzeko ukatzeari buruzkoa.

2017ko ekainaren 22an, Nafarroako Parlamentuko presidentek, Mahaiarekin bat etorrira, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eta Parlamentuaren Erregelamenduan

7. kapitulua

parlamentual egindako txostenak eta agerraldiak

ezarritakoa kontuan hartuta, Foru Araubideko Batzordea 2017ko ekainaren 28an biltzeko deia egin zuen, honako gai-zerrenda honekin:

“Arartekoaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Tuterako Compañía de María ikastetxean 15 haur sartzea ukatzeari buruzko txostena azaltzeko”.

Lehenago, Nafarroako Alderdi Popularreko foru-parlamentarien elkarteko Javier García Jiménez foru-parlamentariak Nafarroako Arartekoaren agerraldia eskatua zuen, Tuterako Compañía de María ikastetxean 15 haur sartzea ukatzeari buruzko txostena azal zezan.

Nafarroako Arartekoa 2017ko ekainaren 28an agertu zen Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean.

Agerraldia Nafarroako Parlamentuaren web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

[http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-sobre-no-ad-
misi%C3%B3n-15-ni%C3%B1os-en-el-colegio-compa-
C3%B1%C3%ADa-de](http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-sobre-no-ad-
misi%C3%B3n-15-ni%C3%B1os-en-el-colegio-compa-
C3%B1%C3%ADa-de)

7.3.3. Agerraldia, 2015ean onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketari buruzkoa.

2017ko irailaren 4an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Nafarroako Arartekoaren agerraldia eskatzeko erabakia hartu zuen. Helburua zen informazio-saio bat egitea, 2015ean onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa zela eta zenbait zergadunek egingdako kexei dagokienez emandako ebazpenari buruz.

Lehenago, Nafarroako Alderdi Popularreko foru-parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba foru-parlamentariak Nafarroako Arartekoaren agerraldia eskatua zuen, “azal dezan 2015ean onartutako PFEZari buruzko Foru

Legearen aldaketa zela eta zenbait zergadunek egingdako kexei dagokienez emandako ebazpena”.

Nafarroako Arartekoa 2017ko irailaren 20an agertu zen Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean.

Agerraldiko testua Nafarroako Parlamentuaren web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

[http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-sobre-modifi-
caci%C3%B3n-ley-foral-irpf-2015](http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-sobre-modifi-
caci%C3%B3n-ley-foral-irpf-2015).

7.3.4. 2016. urteari dagokion Urteko Txostenaren laburpenaren ahozko azalpena Foru Araubideko Batzordean.

2017ko apirilaren 12an, Nafarroako Arartekoak ahoz laburtu zuen Foru Araubideko Batzordean 2016ko Urteko Txostena.

Agerraldiko testua Nafarroako Parlamentuaren web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

[http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-para-presentar-el-
informe-anual-correspondiente-2016](http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/com-
parecencia-del-defensor-del-pueblo-para-presentar-el-
informe-anual-correspondiente-2016)

7.3.5. 2016. urteari dagokion Urteko Txostenaren laburpenaren ahozko azalpena Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran.

2017ko maiatzaren 11n, Nafarroako Arartekoak ahoz laburtu zuen Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran 2016ko Urteko Txostena.

Agerraldiko testua Nafarroako Parlamentuaren web-orriko esteka honetan kontsulta daiteke:

[http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/73-
sesi%C3%B3n-71](http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/73-
sesi%C3%B3n-71)

8. kapitulua

Nafarroako Administrazio Publikoek Nafarroako Arartekoari emandako laguntza

8.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 26.1. artikuluan xedatzen duenez, "Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan".

Foru Lege bereko 24.2. artikulua xedatzen duenez, "hasieran eskatutako txostena edo dokumentazioa ez dutela bidaliko edo eskura jarriko esaten badute administrazio publikoen zerbitzuko langileek edo haien gainekoek, edo arduragabekeriak jarduten badute, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak uste ahal izango du bere eginkizunen kontrakoak edo oztopatzekoak direla egintza horiek; hori ezagutarazi egingo du berehalakoan, eta Nafarroako Parlamentuarentzat egindako urteko txostenean edo txosten berezian, halakorik bada, kalifikazio hori nabarmendu egingo du".

24.3. artikulua hau gehitzen du: "gauza bera gertatuko da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren jarduna eragotzi edo oztopatzen duen edozein jokabiderekina".

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Lege beraren 31.1. artikuluan antzeko baldintzak adierazten dira: "Administrazio publikoetako zerbitzuko edozein organismok edo pertsonak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren ikerketei kontra edo oztopo egiteari eusten badio, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gain".

Lege horretako 31.2. artikulua araberan, "horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak bere ebazpenak ez betetzeari eusten diotenak edo bere jarduketa oztopatzen dutenak nor diren esan ahalko du, guztiaren berri eman ondoren erantzule den agintari gorenari".

Bestalde, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2. artikulua honako hau jasotzen du:

"Behin gomendioak egin ondoren, ukitutako agintari administratiboak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan, edo Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoen berri, Arartekoak gai horren aurrekariak eta aurreztutako gomendioak, oharpenak, gogorarazpenak edo iradokizunak jakinarazi ahal izanen dizkio ukitutako administrazioaren agintari gorenari.

Hala jakatuta ere justifikazioa lortzen ez badu, gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarrera hori izan duten agintarien edo administrazio publikoen zerbitzuko langileen izenen berariazko aipamenarekin, eta betiere Arartekoaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean".

8.2. NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN ARITU EZ DIREN EDO INFORMAZIOA EDO ERANTZUNA BIDALTZEN GEHIEGI ATZERATU DIREN ADMINISTRAZIOEN AIPAMENA.

2017an, Nafarroako administrazio publikoak, oro har, Arartekoarekin lankidetzan aritu ziren haren ikerketan.

Hala ere, aurreko ekitaldien aldean, ikusi zen ez-betetze eta atzerapen gehiago gertatu zirela eskatzen den informazioaren bilketan kexa bat uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 24.1 artikulua araberaz izapidetzen denean, eta, era berean, ez-betetzeak eta atzerapenak gertatu zirela erakundeak Foru Lege bereko 34.2 artikuluari jarraikiz egin zituen gomendioei, iradokizunei eta gogorazpenei emandako erantzunetan.

Idazkiak behin eta berriz helarazi arren, erakundeari erantzun ez zioten edo behar ziren erantzunak edo informazioa bidaltzeko erreklamazio asko egitera behartu zuten gainbegiratutako administrazio publikoak aipatzen dira hemen.

Erakundeari erantzun ez zioten administrazio publikoen kasuak letra lodiz daude.

- Corellako Udala (**Q16/456**, **Q17/127** eta Q17/615).
- Dicastilloko Udala (**Q16/58**).
- Eslaba, Zare eta Lergako udalak (**Q16/478**).
- Uharteko Udala (**Q16/292**).
- Los Arcosko Udala (**Q17/465**).
- Iruñeko Udala (**Q16/354**, **Q17/16**, Q17/318, Q17/565, **Q17/611** eta Q17/662).
- Erromantzatuko Udala (**Q16/547**).
- Tuterako Udala (**16/208**).
- Uxueko Udala (**Q16/246**).
- Atarrabiako Udala (Q16/303).
- Azantzako Kontzejua (**Q17/472**).
- Garapen Ekonomikorako Departamentua (**AO 16/25**).
- Aranguren Ibarreko Udala (**Q17/182**).
- Artaxoako Udala (**Q16/87**).
- Biurrun-Olkozko Udala (**Q17/512**).
- Cascanteko Udala (**Q16/420**).
- Ziritzako Udala (**Q16/537**).

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

9.1 HERRITARRENTZAKO ARRETA-BULEGOA. NAFARROAKO ARARTEKOARI EGINIKO KONTSULTAK.

9.1.1. Datu orokorrak.

Nafarroako Arartekoaren barruan, "Herritarrentzako Arreta Bulegoa" dago. Arlo funtzional modura sortu zen, herritarrei lehenengo arreta eskaintzeko, eta bereziki, informazioa, orientazioa eta, kasua bada, aholkua emateko, beren eskubideak hobeto eta modu eraginkorrago batean balia ditzaten.

Herritarrentzako Arreta Bulegoak herritarren kontsultak eta bisitak jasotzen ditu. Bertan, herritarrek askotariko arazoak azaltzen dituzte. Bulegoak ematen duen informazioari esker, herritarrak zerk larritzen dituen gehien jakin daiteke.

2017an, Herritarrentzako Arreta Bulegoak 1.231 kontsulta erregistratu zituen.

Horietatik, 1.189 banakakoak izan ziren. Gainerakoak, 42, taldeek aurkeztu zituzten, alegia, interesak ordeztzen dituzten erakundeek, nortasun juridikoa duten erakundeek edo antolatutako pertsonen taldeek.

Kontsulten % 50,5 bertatik bertara eta zuzenean egin ziren erakundearen egoitzan (622 kontsulta). Hori dela-eta, agerikoa da herritarrek nahiago dutela bertatik


bertarako eta zuzeneko arreta jasotzea, eta Nafarroako Arartekoren zerbitzua berehalakoa eta espezializatua dela.

Kontsulten % 42 telefonoz egin ziren (517 kontsulta).

Kontsulten % 7,5 Internet bidez egin ziren (92 kontsulta).

9.1.2. Kontsultak arloen arabera.

Kontsultetan hainbat arlori buruzko gaiak planteatu ziren. Erakundeak kontsultatu ziren arloak deskribatzeko egin duen zerrendak honako emaitza hau eman du:



Gaia	Kontsulta kopurua	%
Gizarte-ongizatea	197	% 16,00
Hezkuntza	124	% 10,07
Osasuna	103	% 8,37
Hirigintza	86	% 6,99
Etxebizitza	78	% 6,34
Ogasuna	71	% 5,77
Kontsumoa	66	% 5,36
Justizia	56	% 4,55
Ingurumena	50	% 4,06
Funtzio publikoa	45	% 3,66
Herritarren segurtasuna	45	% 3,66
Gizarte-segurantza	35	% 2,84
Enplegu publikora heltzea	35	% 2,84
Trafikoa eta bide-segurtasuna	35	% 2,84
Zerbitzu publikoak	33	% 2,68
Lana	26	% 2,11
Toki-entitateen funtzionamendua	20	% 1,62
Herri-lanak	17	% 1,38
Ondare erantzukizuna	15	% 1,22
Atzerritartasuna	15	% 1,22
Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	12	% 0,97
Kirola	9	% 0,73
Datu pertsonalen babesa	9	% 0,73
Administrazio publikoen ondasunak	8	% 0,65
Nekazaritza	8	% 0,65
Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila	8	% 0,65
Kultura	6	% 0,49
Euskara	5	% 0,41
Turismoa	5	% 0,41
Industria	4	% 0,32
Elkarteak eta fundazioak	4	% 0,32
Oroimen historikoa	1	% 0,08
GUZTIRA	1.231	100,00%

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

Ikus daitekeen bezala, kontsulta gehienak gizarte-ongizateari buruzkoak izan ziren (% 16,00). Horren ondoren, hezkuntzaren arloa (% 10,07) eta osasunena (% 8,37) datoz.

9.1.3. Kontsulten banaketa.

Hauk izan dira arlo bakoitzean gehien kontsultatu diren edukiak, kontsulta kopuru gehien jaso duen arlotik gutxien jaso duenera.

1 Gizarte-ongizatea.

Gizarte-ongizatearen arloak askotariko gaiak hartzen ditu bere baitan; beraz, arlo horretan egindako 197 kontsultak xehetasun handiagoz azaltzeko, sailkapen bat egin da zerrenda honetan:

Azpiarloak	Kop.	Gaia	Kop.	%
Adingabeak	57	Babesa	42	%21,32
		Adopzioa	8	%4,06
		Filiazio-datuetan sartzea	2	%1,02
		Teknologia berrien eragina	2	%1,02
		Beste batzuk	3	%1,52
Ezgaitasuna	26	Osasun mentalaren laguntza sozio-sanitarioa	6	%3,05
		Laguntzak	5	%2,54
		Irisgarritasuna	4	%2,03
		Lanerako ikastegien funtzionamendua	2	%1,02
		Enpleguetan sartzeko eskubidea	2	%1,02
		Garraioa	1	%0,51
		Beste batzuk	6	%3,05
Hirugarren adina	21	Zentroak eta egoitzak	17	%8,63
		Etxeko laguntza	2	%1,02
		Laguntzako pentsioak	1	%0,51
		Laguntzak	1	%0,51
Emakumezkoa	4	Genero-indarkeria	4	%2,03
Besterik	89	Pobrezia- eta gizarte-bazterketa	49	%24,87
		Babesa	12	%6,09
		Gizarte-laguntza	11	%5,58
		Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak	9	%4,57
		Beste laguntza batzuk	8	%4,06
GUZTIRA	197	GUZTIRA	197	%100,00

Oro har, kontsulta gehien egin ziren azpiarloak hauek izan ziren: adingabeen babes (gizarte-ongizateari buruz egindako kontsulta guztien % 21,32); eta pobrezia eta bazterketa soziala (% 24,87), zeinaren barruan bermatutako errentarekin zerikusia duten laguntzak baitzeuden.

Adingabeei dagokienez, kontsulta gehienak babesgabetasun-kasuen ingurukoak izan ziren (adingabeei buruzko kontsulta guztien % 73,68). Hartara, bisiten erregimenari lotutako kontuei eta adingabeek bi gurasoekin eta familiekin harremana izateko dauzkaten eragozpenei buruzkoak izan ziren kontsulta gehienak, eta gurasoek bezala zerbitzu sozialek eta instituzioek ere adingabeei kasurik ez egiteari buruzko kontsultak nabarmendu ziren.

Azpimarratzekoa da emakumezko herritar batek adopzioaz egindako kontsulta. Jakin nahi zuen zer aukera zeuzkan, gehiegi luzatzen ari zelako Nafarroako Entzutegi Probintzialak emandako epai baten betearazpena. Epaiak alaba familia biologikora pixkanaka itzultzea berretsi zuen, familia-harrera soilean zegoelako.

Beste kontsulta batean, emakumezko herritar batek jakin nahi zuen zer erakunde eman ziezazkioketen guraso biologikoen datuak, adopzioan eman baitzuten hemezortzi urte lehenago.

Teknologia berriek adingabeengan daukaten eragina ere kontsultagai izan zen. Adibidez, kontsulta egin zuen gizonezko herritar baten bikotekide ohiak bi urteko alabaren argazkiak argitaratzen zituen sare sozialetan. Orobat, emakumezko herritar batek zioen alabari Instagrameko kontua "hackeatu" ziotela, eta iruzkin sexualak argitaratu zirela kontu horretatik.

Desgaitasunari dagokionez, osasun mentaleko zentroetan emandako arreta soziosanitarioa aski ez izateari buruzkoak izan ziren kontsultak. Horren adierazgarri, herritar batek esan zuen ez zela egiten anaia zegoen zentroan funtzionamenduaren gainbegiratze-lanik, eta narriadura kognitibo nabarmena izan zuela zentroan sartu zenetik. Era berean, desgaitasunetan eta eritasun

mentaletan ematen diren laguntzei buruzko kontsultak ere egin ziren, eta oso gutxi zirela edo batere ez zegoela nabarmendu zen, bizkarrezur-muineko lesioa duten pertsonentzat, adibidez. Irisgarritasunean, besteak beste, honako hauek nabarmendu ziren: oztopo arkitonikoak kentzeko lanei ekitean gertatzen den atzerapena; liburutegi publikoetako eslerkuak egokituta ez egotea desgaitasuna izanda instalazio horiek erabiltzen dituzten pertsonen beharretara; edo ikastaro batean gaztelaniazko zeinu-hizkuntzako intereprete-zerbitzua ukatzea. Gainera, kontsulta batzuetan, Nafarroako Foru Gobernuak aitortutako desgaitasun-mailarekin desadostasuna adierazi zen.

Adinekoei dagokienez, zentroetan eta egoitzetan sartzeari eta egonaldirako baldintzei buruzko kontsultak nagusitu ziren (hirugarren adinari buruzko kontsulta guztien % 80,95), bai eta etxeko arretari buruzkoak ere (% 9,52).

Emakumearen arloan, genero-indarkeria pairatu duten emakumeak babesteko neurriei buruzko lau kontsulta jaso ziren. Haietako batean, emakumeak laguntza eskatzen zuen, jasaten ari zen arazo fisikoak nahiz familia- eta lan-arazoak asko izatearen ondorioz egoera larrian zegoelako. Bakarrik utzi eta jazarri zutela esaten zuen, eta tratu txarra eman ziotela. Beste batean, emakumeak laguntza eta aholkuak eskatu zituen, ezkontide ohiaren familiak etengabe iraintzen eta mehatxatzen zuelako.

Gizarte-bazterketari dagokionez, kontsulta gehienak gizarte-bazterketa arriskua duten pertsonentzako laguntzei buruzkoak izan ziren (ongizateari buruzko kontsulta guztien % 24,87), eta bereziki, eduki hauek kontsultatu ziren: bermatutako errenta ukatzea, esleitutako zenbatekoekin ados ez egotea eta errenta hori bahitzea.

Nafarroako Gobernuak tutoretza erabiltzeari buruzko kontsulten kopurua nabarmentzen da (gizarte-ongizateari buruzko kontsulta guztien % 6,09), batez ere tutoretzapekoentzako diru-kopuruari dagokionez, eta haien bitarteko ekonomikoen gestioan gardentasunik ez izateari dagokionez, eta Iruñeko auzo-unitateetako edo oi-

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

narriko zerbitzu sozialetako langileek emandako arretarekin ados ez egoteari buruzko kontsultak ere nabarmentzen dira (% 5,58). Besteak beste, informazioa eskatu zen administrazio publikoek ematen diren prestazio ekonomikoen erabileraren gainean edo guraso bakarreko familiendako laguntzen gainean egiten duten kontrol txikiari buruz.

2 Hezkuntza.

Hezkuntzari dagokionez, kontsulta gehienak honako hauei buruzkoak izan ziren:

- Bekak eta laguntzak eskuratzea eta ukatzea, edo itzultzea (% 25,81), jantokiari eta eskola-garraioari buruzkoak nabarmentzen direlarik.
- Hezkuntza-administrazioak ikastetxeetara eta haur-eskoletara sartzeko ezarritako irizpideak (hezkuntzari buruz egindako kontsulten % 20,16).
- Lanbide Heziketako plazen eskaintza urria izatea (% 12,90).
- Eskolako bizikidetasunean sortutako arazoak; esate baterako, ikasleen arteko eskola-jazarpena, irakasleek ikasleak jazartzea eta ikastetxeek gertaera horien aurrean ezer ez egitea (% 11,29).
- Unibertsitate-tituluen homologazioa eta UNE-Den kobratutako tasak (% 6,45).
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat funtzionamendu, arreta edo irakaskuntza egokiak ez egotea (% 5,65).
- Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetan lortutako kalifikazioekin ados ez egotea.

3 Osasungintza.

Arlo honetan, kontsulta gehienen gaiak hauek izan ziren:

- Laguntza medikoa, oro har (% 29,13).
- Atzerapenak osasun-arretan, eta itxaron-zerrendak (% 17,48).
- Arreta larrialdietan eta pediatrian.
- Prestazio osagarriak eta prestazio farmazeutikoen finantzaketa.
- Zeliakia dutenen elikadura-gastuetarako laguntza aski ez izatea.
- Osasun-behar bereziak dituzten kolektiboendako arreta.
- Ugalketa-tratamenduak ukatzea.
- Osasun publikoa.
- Beste gai batzuk, hala nola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ekintza osagarrietan duen funtzionamendua (komunikazioak, emandako informazioa...).

4 Hirigintza.

Hirigintzan, herritarrek informazio hau eskatu zuten:

- Eraikuntzan egindako esku-hartzeak eta zoruari eta eraikinei emandako erabilerak: lizentziak, baimen administratiboak eta abar (guztira hirigintzaren arloan egindako kontsulten % 50,00).
- Lurzoruaren hirigintza-araubidea (% 18,60), bereziki, lursailen balorazioak eta lurren eta eraikinen jabeek duten betebeharra beren ondasunetan segurtasun-, osasungarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak eta egokitasun publikoko baldintzak betetzeko.

- Katastroko zuzenketak.
- Plangintzaren konfigurazioa.
- Plangintzaren betearazpena.

5 Etxebizitza.

Etxebizitzari buruzko kontsultetan hauek izan ziren gaiak:

- Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozesuak (% 21,79).
- Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak (% 17,95).
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko laguntzak.
- Elkarbizitza-arazoak.
- Babes ofizialeko etxebizitzetan dauden erai-kuntza-akatsak.
- Babes-araubideren batean alokatutako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak.

6 Ogasuna.

Arlo honetan, kontsulta gehienak Nafarroako Gobernuaren tributuei eta tokiko tributuei buruzkoak izan ziren. Bien artean gai honetako kontsulten % 90,14 osatzen dute.

Bereziki, hiri-lurren balioa handitzearen gaineko zergaren likidazioari buruzko informazio-eskaera nabarmentzen da.

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak ere egin dira:

- Oinordetzen gaineko zergaren ordainketari dagokionez, administrazio publikoen arteko koordinazioa.

- Hirugarren baten zerga-informazioa eskuratzeko aukera.

7 Kontsumoa.

Arlo honetan egindako kontsultetan, kontsumitzaileen arazoak azaltzen ziren, nagusiki bankuekin eta telefono-, elektrizitate- nahiz gas-erakundeekin zituztenak.

Azpimarratzekoak dira zoru-klausulak eta hipoteka-gastuak erreklamatzeko prozedurari buruzko kontsultak (kontsumo-kontsulta guztien % 20).

8 Justizia.

Justizian kontsultatu ziren gai nagusiak honako hauek izan ziren:

- Prozesu judizialak luzatzea (% 19,64).
- Epaiak ez betetzea.
- Ados ez egotea abokatuen eta prokuradoreen jarduketarekin.
- Doako laguntza juridikoan oztupoak jartzea eta uko egitea.
- Ados ez egotea erregistroen jarduketarekin, bereziki, ez uzteagatik haietan izena ematen.
- Legezko tutorea ezgaitzeko eta kargutik kentzeko prozedura.
- Gatazkak bitartekotzaren bidez konpontzea.

9 Ingurumena.

Gai honetan, egindako kontsulten erdiak baino gehiago kutsadura akustikoari buruzkoak izan ziren; bereziki, zenbait jarduera gogaikarriren ondorioz herritarrek beren etxebizitzetan jasaten dituzten zarategatik (kontsulten % 56,00).

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak egin ziren:

- Jarduera sailkatuak.
- Ehiza-barrutiak eta lizentziak lortzea.
- Tasa kobratzea zakurrak izateagatik.
- Zigorrak zuhaitzak mozteagatik.
- Ordena publikoa (% 28,89).
- Espetxe-administrazioa eta espetxe-legediaren menpe dauden pertsonen eskubideen araubidea (% 13,33).
- Jokoak eta ikuskizunak.
- NANA eta pasaportearen egitea.

10 Funtzio publikoa.

Oraingo honetan, honako hauei buruzkoak izan ziren kontsultak:

- Mugikortasun eta karrera administratiboa, eta lekualdatze-lehiaketak (% 31,11).
- Ez aitortzea administrazio publikoaren zerbitzuko langileen eskubideak: baimenak, lana eta familia bateragarri egitea... (% 24,44).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen ordainsari-araubidea (% 15,56); adibidez, Nafarroako udaltzaingoetako funtzionarioen ordainsarien egokitzapena.
- Abiarazitako diziplina-espedienteak:
- Osasun Sistema Nazionalen sartu zituzten Nafarroako administrazio publikoetako moneitazioetako langileei ez onartzea Gizarte Segurantzako araubide orokorrari dagokion erretiro-pentsioa.

11 Herritarren segurtasuna.

Kontsulten ia erdiak poliziaren jarduketaren batzuen legezkotasunari edo legezkotasun-ezari buruzkoak izan ziren (% 44,44).

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak egin ziren:

12 Gizarte-segurantza.

Arlo honetan, kontsulta gehienek alderdi hauek aipatu zituzten:

- Ados ez egotea desgaitasuna baloratzeko prozesuetan egokitutako deklarazioarekin, kalifikazioarekin edo mailarekin (% 42,86).
- Prestazioa jasotzeko eskubidea ez aitortzea, ukatzea edo kentzea.
- Gizarte Segurantzak eskatzea jasotako prestazioak itzultzeko.

13 Enplegu publikora heltzea.

Kontsulten gaiak batez ere honako hauek izan ziren:

- Enplegu publikoko lanpostuak betetzeko deialdiak.
- Izangaiei lanpostuetara heltzeko eskatutako baldintzekin ados ez egotea, gehiegizkoak direla uste izateagatik. Adibidez, mekanografia-zaupideak egiaztatu behar izatea Izapidetze Prozesal eta Administrazioetako Kidegoko lanpostuetara heltzeko, ez dagoelako egiaztagiak ematen dituen ofizialki onartutako prestakuntza-zentrorik; edo unibertsitate-titulua duten Bigarren Hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta Lanbide Heziketako irakasle-gaiak Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoan masterra dutela egiaztatu behar

izatea, goi-mailako tituludunei hirurogei orduko prestakuntza pedagogikoa izatea baino ez zaielako eskatzen.

- Merituen balorazioa enplegu publikoko deialdietan. Batzuetan, puntuazioa handiegia ematea; adibidez, familia-langile baten deialdian, balio bera ematen bazaie administrazio edo enpresa publikoetan emandako zerbitzuei eta Administrazioak kontratatutako enpresa pribatuetan emandakoei, horrek berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak urratzen dituela pentsatzen bada. Bestetuetan, berriz, puntu gutxiegi ematea; adibidez, erizaintzako deialdian kontuan ez hartzea Nafarroako Unibertsitatean egindako operazio-gelako berrezko masterra.
- Desgaitasuna duten pertsonen, enplegu publikoko lanpostu batean sartzean, aukera berberak izateko duten eskubidea urratzea.

14 Trafikoa eta bide-segurtasuna.

Arlo honetan, kontsulta gehien-gehienak honakoei buruz egin ziren:

- Trafikoaren arloko zehapen-prozedurak: zehapenak, isunak, bahiturak... (% 68,57).
- Ados ez egotea trafikoko zigorra eragin zuten egitateekin.
- Ados ez egotea garabiak eraman zituelako zuzen aparkatuta bai baina tiketik gabe zeuden ibilgailuak.
- Desgaitasuna dutenendako gordetako aparkalekuen araudiarekin bat ez etortzea.

15 Zerbitzu publikoak.

Zerbitzu publikoetan, kontsulten gaiak batez ere derri-gorrezko gutxienerako zerbitzu batzuen prestazio txarra

eta interes orokorreko beste batzuk izan ziren; adibidez: aire zabaleko gimnasioetako aparatuen mantentze-lana; skate egiteko pistak edo udal-pabiloiak erabiltzeko araudia; prentsan egindako argitalpenak; tarifa murrizturik ez aplikatzea guraso bakarreko familien kolektiboari Civioxen ikastaroetan eta hiri-kanpamentuetan; eta garraio publikoko lineen ezarpena.

16 Lana.

Lanari buruzko kontsulta gehienetan gaiak hauek izan ziren nagusiki:

- Langabezia-prestazioak etetea, itzultzea eta zigortzea.
- Langabeentzako ikastaroak egiteko ezintasuna.
- Enplegurako laguntzak.
- Zerbitzu bat emateko enpresa pribatuen kontrataziorako deitutako lizitazioetako aurrekontuekin ados ez egotea.
- Laneko segurtasuna.

17 Toki-entitateen funtzionamendua.

Atal honetan prozedura-kontuei eta toki-erakundearen araubide juridikoari buruzko kontsultak jaso dira.

Kontsulta gehienak gai hauetaz izan ziren:

- Udal-errolan, ofiziozko alta edo baja ukatzea.
- Partikularrek udaleko osoko bilkurak grabatzea.
- Osoko bilkurei dagokienez, araututako maiztasuna ustez urratzea.
- Funtzionarioen edo agintarien jarduketa zehatzak.

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

- Aurrekontu-sailak ezeztatzea.
- Nafarroako etorkizuneko toki-maparen ondo-
rioak.

18 Herri Lanak.

Kontsulta gehienak azpiegiturak egiteko, kontserbatzeko eta mantentzeko eskumena zuen administrazioaren betebeharrei buruzkoak izan ziren (% 52,94); batez ere, bideak garbitzeari eta kaleak zolatzeari buruzkoak.

Azpiegiturei buruzko kontsultak ere egin ziren; adibidez, kontsultak izan ziren plazetan, zaindariaren festetan edo, iraunkorki, udako hilabeteetan, karpak jartzeari buruz.

19 Ondare-erantzukizuna.

Ondare-erantzukizunari buruz egindako kontsulten erdiak baino gehixeago (% 53,33) osasun-arreta eskasaren ondorioz egindako ondare-erantzukizuneko erreklamazioei buruzkoak izan ziren.

Bestalde, gainerako kontsultetan (% 46,67), gaia zerbitzu publikoen funtzionamenduari lotuta egon zen; besteak beste, bide publikoan erortzea zoladura kontserbazio-egoera txarrean egoteagatik, eta eskualdeko garraio publikoan izandako istripuak.

20 Atzerritartasuna.

Arlo honetan, egindako kontsulta gehienak nazionalitatea eta bizileku- eta lan-baimenak lortzeko jarraitu beharreko izapideei buruzkoak izan ziren, bai eta irekitako eskaera-espeditenteen ebazpenak luzatzeari buruzkoak ere.

21 Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Epigrafe honetan, herritarrek honako hauek babes hartuta egindako kontsultak biltzen dira: Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012

Foru Legea; Estatuko legedia; eta herritarrek Nafarroako administrazio publikoen esku dagoen informazioa eskuratzeko eta interes publikoari zuzenean edo zeharka eragiten dioten gaietan erabakiak hartzeko duten eskubidea.

Hauek dira arlo horretan egin diren kontsulten adibide batzuk:

- Nafarroako Aldizkari Ofizialean diru-laguntzen deialdiak ez argitaratzea.
- Dokumentazioa eskuratzeko aukera murriztea, eskaerak telematika bidez soilik aurkez zitezkeelako.
- Informazioa publikoa izateko eskaerei ez erantzutea, edo hura eskuratzeko bidea ukatzea.

22 Kirola

Honako gai hauei buruzkoak izan ziren kirol-arloko kontsultak:

- Adingabeei kirol-klubetan, zehazki futbol-klubetan, baja emateagatik zigortzea.
- Kirol-instalazioen egokitasuna.
- Erroldatuei eta erroldatu gabekoei kuota desberdinak ezartzea kirol-instalazioak erabiltzeko.

23 Datu pertsonalen babesa.

Herritarrek administrazio publikoen jarduketa-esparruan datu pertsonalak babesteko duten eskubideari buruz egindako kontsulta guztiak jasotzen dira epigrafe honetan.

Hauek dira egindako kontsulta batzuk:

- Administrazio publikoek bizilagunei egindako inkestetan datu pertsonalak erabiltzea.
- Idatzizko prentsan semearen datu pertsonalak erabiltzea.
- Udalerri batean erroldatuen zerrenda utzi nahi ez izatea datu pertsonalak babesteko.
- Hatz-markaren bidezko fitxaketa-sistema berria ezartzea lehenago langileei ezer esan gabe.
- Historia klinikoetan sartzea.

24 Administrazio publikoetako ondasunak.

Administrazio publikoek beren titulartasuneko ondasunekin egiten duten kudeaketari lotutako kontsultak egin ziren; adibidez, titulartasun publikoko higiezin batzuen alokairuan gertatutako irregulartasunez eta plaza batean hirigintza-lanak proiektatzeaz.

25 Nekazaritza.

Hauen inguruko kontsultak egin ziren nekazaritzan:

- Aprobetxamendu komunalen esleipena (% 62,50).
- Lursailaz jabetzea lursailak biltzearen ondorioz.
- Nekazaritza- eta baso-ustiapenei buruzko kontsultak, batez ere, ustiapen horiei lotutako laguntzei buruzkoak.

26 Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila.

Kontsultak egin ziren ezkontza-hitzarmenen araubideaz, auzotasun zibil forala mantentzeaz eta Nafarroan testamentua egiteko gaitasunaz, bai eta oinordetzen onarpenaz ere.

27 Kultura.

Kulturan egin ziren kontsulten gaietako batzuk hauek izan ziren: Rozalejoko Markesaren jauregiaren okupazioa; eliza batean txanpon zaharrak aurkitzea; eta liburutegi publikoak udan irekitzen diren ordua.

28 Euskara.

Kontsulten gaiak hauek izan ziren:

- Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzua euskaraz ematen duten langileak gutxi izatea.
- Dokumentu eta informazio-liburuxka publikoak elebidunak ez egitea, nahiz eta araudiak hori ezartzen duen.
- Enplegu publikorako deialdietan euskarari emandako balorazioarekin ados ez egotea.
- Euskara errespetatzen ez dute pintaketak agertzea.

29 Turismoa.

Establezimendu turistiko bati emandako baimenari eta kudeaketa turistikorako kontratu baten esleipenari buruzkoak izan ziren turismoan egindako kontsultak.

30 Industria.

Jasotako kontsultak energiari buruzkoak izan ziren, eta gaiak, besteak beste, hauek: herritarrek biomasaren aprobetxamendu energetikoa baliatu ahal izatea, eta, eraginkortasun energetikoaren esparruan, europar zuzentarau baten transposiziorik eza. I+G+b-rako diru-laguntzak emateari buruzko kontsultak ere egin ziren.

31 Elkarteak eta fundazioak.

Kontsultek elkarteen kuotekin eta haien erregistroarekin izan zuten zerikusia.

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

32 Memoria historikoa.

Kontsulta jabetza pribatuko eraikin batean zegoen eta San Fernandoren gurutze ereinozduna zeukan armari bat kentzeko eskaerari eta, kendu ezean, legozkioken diru-laguntzak edo laguntza publikoak ez emateaz ohar-tarazteari buruzkoa izan zen.

9.2. GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANA.

2017an, Nafarroako Arartekoak, zuzenean nahiz bere aholkularien bitartez, harremanak izan zituen interes sozial eta profesionalak ordezkatzan dituzten zenbait entitaterekin, bai eta pertsonen zenbait kolektiborekin ere, dela zuzenean, dela haien kexen edo idatzien bitartez.

Entitate edo kolektibo horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Entitatea / Kolektiboa	Espedientea
Administrazioan Euskaraz Taldea	Q17/338 eta beste batzuk
Galar zendeako 4. poligonoaren desjabetze-espeditentak kaltetutakoak	Q17/146
Zangotzako Udaltzaingoko agenteak eta laguntzaileak	Q17/526
Urzainkiko Jabekideen Elkartea	Q17/677
Beriaingo Bizilagunen Elkartea	Q17/657
Ermitagaña ikastetxe publikoko gurasoen elkartea	C17/100
3E elkartea (Asociación 3E - Educación, Esfuerzo y Excelencia, gaztelaniaz)	J17/4
Nafarroako Merkatarari Elkartea	Q17/525
Aralar Ludopaten Elkartea	Q17/525 eta O17/21
Barañaingo Taillaginen Elkartea	C17/117
Ardoiko bizilagunen elkartea	Q17/164
Kalaxka Elkartea	Q17/384
Nafarroa Retina Elkartea	C17/12
Salhaketa Elkartea	O17/20
Bizkaiko Salhaketa Elkartea	G17/4
Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera	G17/29
Zentral Sindikal Independentea eta Funtzionarioena (CSIF)	Q17/638
Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak enplegatutako pertsonen kolektiboa	Q17/807
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enplegatutako pertsonen kolektiboa	Q17/661
Erizaintzako laguntzaileen maila ertaineko heziketa-zikloko gau-eskoletako ikasleen kolektiboa	Q17/235 eta beste batzuk
Goi-mailako Musika Kontserbatorioko ikasleen kolektiboa	Q17/795
Hezkuntza-kooperatibetako ikasle ohien kolektiboa	Q17/25 eta beste batzuk
Psikiatria-pazienteen kolektiboa	Q17/595
Iruñeko Doña Mayor ikastetxeko gurasoen kolektiboa	Q17/522 eta beste batzuk
Iruñeko Mendillorri Institutuko gurasoen kolektiboa	Q17/673

Hezkuntza Departamentuaren irakasleen kontratazio-zerrendan izena emandako pertsonen kolektiboa	Q17/393
Ezkaba ikastetxe publikoaren eskola-garraioaren erabiltzaileen kolektiboa	Q17/490
Cascanteko bizilagunen kolektiboa	C17/1292
Sartagudako bizilagunen kolektiboa	C17/1375
Nafarroako Foruzaingoaren Langileen Batzordea	Q17/208
Desgaitasunak dituzten Pertsonen Ordezkarien Nafarroako Batzordea (CERMIN)	G17/32
Polizia Sindikatu Bateratuaren Nafarroako Batzorde Nagusia	Q17/576
3R lagundia (Compañía de las 3 R - Reducción, Reutilización y Reciclaje de residuos, gaztelaniaz)	Q17/286
Castejónko Jerónimo Marco kaleko bizilagunen erkidegoa	Q17/561
Lizarrako Las Murallas kaleko 10-12 zenbakietako bizilagunen erkidegoa	Q17/367
Corellako Ombatillos kaleko 17 zenbakiko bizilagunen erkidegoa	Q17/791
Iruñeko Remigio Múgica kaleko 5 zenbakiko bizilagunen erkidegoa	Q17/303
Iruñeko Santa Marta kaleko 7 zenbakiko bizilagunen erkidegoa	Q17/647
Iruñeko Concepción Benítez zeharkaleko 4 zenbakiko bizilagunen erkidegoa	Q17/266
Nafarroako Eskola Kontseilua	G17/21
ONCEren Nafarroako Lurralde Kontseilua	G17/15
Mediterránea de Catering enpresako dietistak eta nutrizionistak	Q17/292
Ecotaxi Iruña	C17/1197 eta Q16/381
FACUA kontsumitzaileen elkarte	Q17/325
Nafarroako UGTko Zerbitzu Publikoetako Langileen Federazioa (FESP)	Q17/125
Nafarroako Ikastolen Federazioa	Q17/27
Behatokia Fundazioa – Hizkuntza-eskubideen behatokia	Q17/386
Irurtzungo Atakaondoa ikastetxeko gurasoen taldea	Q17/341
Los Arcosko talde politiko independentea	Q17/465
Altsasuko AA-5 Jarduketa Asistematikoko Konpentsazio Batzordea	Q17/801
Munduko Medikiak	
Lan-jarduna ez luzatzeak eta 65 urterekin nahitaez erretiroa hartzera behartzeak kaltetutako mediku erretirodunak	Q17/231
Pentsio Erreferendumaren Aldeko Estatuko Mahaia (MERP)	Q17/17/24
Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestua	G17/43
Altsasun atxilotutako gazteen gurasoak	Q17/26
Sektarismoari eta ahuleziaren abusuari aurre hartzeko sarea (RedUNE) eta gaixoak terapia sasi-zientifikoetatik babesteko elkarte (APETP)	Q17/201
ASIMEC enpresako langileak	Q17/381
Eskubide pasiboaren indarreko araudiaren aurreko araudiak kaltetutako pertsonak	J16/6
Animalienganako Justizia eta Babes Plataforma Hiritarra	Q17/641
Iruñeko Alde Zaharrean hipotekek kaltetutakoaren plataforma	C17/287 eta O17/5
Alargunen pentsioen berdintasunaren aldeko Nafarroako plataforma	O17/6

9. kapitulua

erakundearen eta herritarren arteko harreman zuzena

SOS Pio XII salba dezagun bizilagunen plataforma eta Pio XII bizilagunen plataforma	Q17/681
Allotzeko 6 poligonoko lursailen jabeak	Q17/12
Altsasuko Udal Planeko 5 sektoreko jabeak	Q17/13
Iruñeko Hizkuntza Ofizialeko Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariak	Q17/162
AFAPNA sindikatua	Q17/788 eta beste batzuk
ELA sindikatua	Q17/744
Nafarroako Polizien Sindikatu Independentea (SIPNA)	Q17/518
LAB sindikatua	Q17/327
Nafarroako Administrazio Publikoetako Langile Administrazioen Sindikatua (SPA)	Q17/130
Nafarroako Erizaintza Teknikarien Sindikatu Probintziala	Q17/805
STEILAS sindikatua	G17/46
Adiosko San Andres kooperatiba-sozietatea	Q17/230 eta beste batzuk
Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako Mikrobiologia Kliniko Elkarteak	Q17/651
SOS Arrazakeria	C17/1399
UNICEF Nafarroa – Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza. Nafarroako Osasun Larrialdietako Teknikarien Elkarteak (UTESNA)	Q17/458
Funesko partzelak kontzentratzeko eta ureztapena berritzeko lanek kaltetutako bizilagunak	Q17/64

10. kapitulua

Nafarroako Arartekoaren parte-hartzea Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 28ko 5/2016 Foru Legeak, IX. tituluan, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua sortu eta arautzen du, Nafarroako Foru Komunitateko gardentasunaren arloko kontrolerako organo independente gisa, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zaintzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 73. artikulua Kontseiluaren osaera ezartzen du, eta, horretan, Nafarroako Arartekoa izango dela haren ordezkarietako bat.

Hori horrela izanik, behin 2017ko martxoaren 13an Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua eratuta, Nafarroako Arartekoak, erakunde moduan, Kontseiluaren bederatzi saiotan parte hartu du. Saio horietatik zortzitara erakundearen titularra joan da, eta beste batera, berriz, Idazkari Nagusia, hura baita titularren ordezkaria hura falta denean.

Data hauetan egin ziren erakunde honen parte-hartzearekin egin diren Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren saioak:

- 2017ko martxoaren 13ko eratze-bilkura
- 2017ko apirilaren 10eko ohiko bilkura
- 2017ko maiatzaren 15eko ohiko bilkura
- 2017ko ekainaren 5eko ohiko bilkura
- 2017ko ekainaren 26ko ohiko bilkura

- 2017ko abuztuaren 28ko ohiko bilkura
- 2017ko urriaren 9ko ohiko bilkura (erakundearen Idazkari Nagusia joan zen, ordezko-lanetan)
- 2017ko azaroaren 27ko ohiko bilkura
- 2017ko abenduaren 18ko ohiko bilkura

Horrez gain, Nafarroako Arartekoak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak egindako akordio hauetan parte hartu du:

- AR 1/2017 Akordioa, 2017ko maiatzaren 15ekoa, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren baitako Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean formulatutako erreklamazioa ebazten duena.

Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren baitako Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ingurumenaren arloko informazio publikoa ez emateagatik aurkeztutako erreklamazioa kontuan hartzen du. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen du.

- AR 3/2017 Akordioa, 2017ko ekainaren 26koa, Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean jarritako erreklamazioa ebazten duena.
- Ez da kontuan hartzekoa kreditu-sozietate kooperatibo batek Nafarroako Zerga Ogasunaren diru-bilketarako sekzio teknikoaren aurka

jarritako erreklamazioa. Eskatu zuen administrazio-espeditentea ukatu zitzaion sozietate horri.

- AR 6/2017 Akordioa, 2017ko abuztuaren 28koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren aurrean formulatutako erreklamazioa ebazten duena.

Hein batean kontuan hartzen du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren baitako Landa Garapenerako Zuzendaritzaren nekazaritza-zerbitzuko errenta-laguntzako sekzioak 2017ko maiatzaren 12an egindako ebazpenaren aurka jarritako erreklamazioa. Erreklamaziogileei aitortzen zaie badutela eskubidea haien jabetzako lursailak lantzen edo baliatzen dituztenen izen-abizenak jakiteko, azken horiek Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak kudeatzen dituen Baterako Nekazaritza Politiken (PAC) laguntzak jasotzen dituztelako. Horregatik, jarduketan atzera egiten da, eskaera horri erantzuteko ardura duen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko atalak egoera horretan dauden pertsona fisikoei informazio publiko hori eska diezaien, azken horiek horri buruzko alegazioak formula ditzaten, legez ezarritako 15 laneguneko epean, atal horrek zuzenbidearen araberako ebazpena eman aurretik.

- AR 9/2017 Akordioa, 2017ko abuztuaren 28koa, Montejurrako Mankomunitatearen aurrean jarritako erreklamazioa ebazten duena.

Kontuan hartzen da Montejurrako Mankomunitateko lehendakariak 2017ko ekainaren 7an egindako Ebazpenaren aurkako erreklamazioa. Informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzen da.

- AC 1/2017 Akordioa, 2017ko azaroaren 27koa, abuztuaren 28ko AR 9/2017 Akordioaren betearazpenari buruzkoa. Mankomunitatearen

aurka jarritako erreklamazioaren ebazpena, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emana.

Kontseiluak adierazten du Mankomunitateak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen duen akordioaren parte bat bete duela soilik, eta, horrenbestez, tokiko erakunde horri eskatzen dio erabat eta behar bezala bete dezala akordioa, eta eman dezala eskatutako informazio administratibo eta tekniko guztia.

- 2017ko abenduaren 18ko akordioa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko Foru Legerako aurreproiektuari buruzko txosten bat jasotzen duena. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren baitako Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak eman zuen, 2017ko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoaren, 72 f) artikulua ondu eta onartu.

Eranskina

erakundearen 2017ko aurrekontuaren likidazioa

Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. artikulua, Nafarroako Parlamentuan aurkeztzen den urteko txostenaren edukia definitzerakoan, zera ezarri du *“Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzailea Nafarroako Parlamentua izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da”*.

Nafarroako Arartekoaren 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa dela-eta, honako hau adierazi beharra dago:

- Hasierako kredituak 755.448,43 euro dira. Guztizko kopuru hori bat dator behin betiko aurrekontuarekin edo aurrekontu bateratuarekin; izan ere, 2017ko ekitaldian ez zen gehitu 2016ko ekitaldiko kreditu-soberakinik.
- Onartutako obligazio garbiak 658.720,43 euro izan dira. Horrek esan nahi du finkatutako

aurrekontuari dagokionez % 87,20ko egikaritze-maila lortu dela.

- 2017an onartutako eskubide garbiak 755.574,39 euro izan ziren. Horrek esan nahi du % 100,02ko betetze-maila lortu dela.
- Aurreko magnitudeetatik abiatuta, ekitaldiko aurrekontu-emaiza lortu da: 96.853,96 euroko superabita eman du.

2017ko ekitaldian onartutako obligazio garbiak, eragiketa arrunten arabera (I. kapitulutik V. kapitulura) eta kapitaleko eragiketen arabera (VI. kapitulutik IX. kapitulura) sailkatu dira:

Eragiketa-mota	Behin betiko kredituak	Onartutako obligazioak	Egikaritzaren %
Eragiketa arruntak	737.148,43	652.952,37	88,58%
Kapital-eragiketak	18.300,00	5.768,06	31,52%
GUZTIRA	755.448,43	658.720,43	87,20%

Eragiketa arruntetan aurrekontuaren % 88,58 bete zen; kapital-eragiketetan, berriz, % 31,52.

Jarraian, gastuen aurrekontuaren likidazio-egoera eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoera adierazi dira, kapituluka zehaztuta.

A Gastuen egoera

2017ko ekitaldiko gastuen kapitulu ekonomiko bakoitzean, datu hauek adierazi dira: aurrekontuen aurreikuspenak, onartutako obligazio garbiak eta egikaritze-ehunekoa:

KAPITULUAK	AURREIKUSPENAK	ONARTUTAKO	% EGIKARITZAREN
		OBLIGAZIO GARBIAK	
1 Langileen gastuak	523.448,43	485.273,20	%92,71
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	179.600,00	136.096,38	%75,78
4 Transferentzia arruntak	34.100,00	31.582,79	%92,62
6 Inbertsio errealak	18.000,00	5.768,06	%32,04
8 Finantza-aktiboak	200,00	0,00	%0,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	755.448,43	658.720,43	%87,20

B Diru-sarreraren egoera

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoerak agerian jarri du diru-sarrera horiek, funtsean, Foru Ogasunetik jasotako transferentzien ondorio direla; izan ere, ekitaldiko diru-sarrera guztien % 99,73 dira.

KAPITULUAK	AURREIKUSPENAK	ONARTUTAKO	% EGIKARITZAREN
		OBLIGAZIO GARBIAK	
3 Tasak eta bestelako sarrerak	100,00	480,00	%480,00
4 Transferentzia arruntak	736.880,00	736.880,00	%100,00
5 Ondareengatiko sarrerak	168,43	14,39	%8,54
7 Kapital-transferentziak	16.664,00	16.664,00	%100,00
8 Finantza-aktiboak	1.536,00	1.536,00	%100,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	755.448,43	755.574,39	%100,02



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa



**Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

INFORME ANUAL

DEFENSOR DEL PUEBLO DE NAVARRA